  - (iii) The predicates determined by an article can be explained as following a main pattern (6.2.3.1.2): the referential level of the subject affects the predicate, and the more specific the subject is the easier it will be for the predicate to take an article. I did not observe any pattern related to the kind of predicate (individual or stage-level predicate) that could account for the use of the article.
  - (iv) Examples of noun + adjective predicates are fewer in the 16<sup>th</sup> century texts, and the results are not, in consequence, as definitive as with adjective and noun predicates; nevertheless, we can confirm that the use of the article was much more extensive in noun + adjective predicates, as a precursor of the situation in the forthcoming centuries; from that point of view, the picture of noun + adjective predicates is quite different, as compared to the one we get when examining adjective and noun predicates (6.2.3.3).
  - (v) In noun predicates and noun + adjective predicates there are also phrases with *bat*, besides the determinerless and article-taking examples; in noun predicates these examples are not too many, and they are found in eastern texts; there are more *bat* phrases in noun + adjective predicates, and they can be found in the whole Basque area. Both in noun predicates and in noun + adjective predicates the phrases taking *bat* can be explained in a unitary manner: these predicates are always referential, and an indefinite specific reference is established for the phrase.
- (d) I have also examined the use of the articles in subjects (6.2.4). The picture here is completely different from the one described for the predicates: the phrases in this syntactic function take a definite article in most of the cases. The articleless examples are very few, both in transitive and intransitive sentences. I have, thus, proceeded to explain in which contexts and according to which patterns they do

appear; these are the results.

- (i) Subjects with no article appear typically with nouns that can be treated as proper nouns: cf. especially *errege* ‘king’, *ugazaba* ‘boss’, *ama* ‘mother’, and similar nouns.
- (ii) Besides the examples in (i) related to the semantic nature of the noun, there are some other well-known examples of articleless transitive subjects (6.2.4.1). Among these, the most noteworthy ones are those in negative sentences. I have explained this archaism within some generalizations made by Greenberg and Hopper and Thompson.
- (iii) Further notes can be made on transitive subjects: in affirmative sentences the tendency is for the phrases to take an article, even though, of course, subjects with no article can be found too. This can be readily observed in the different versions of the same proverb: among Zuberoan writers, Oihenart tends to use the phrase with the article, and Zalgize and Bela tend to use the phrase with no article.
- (iv) In intransitive sentences it is more difficult to find subjects with no article (6.2.4.2): in my corpus I have only found a few examples, such as OihAtsot 633 *Inhar batetarik su handi jalgi daite*. This example is noteworthy for two reasons: the noun in the subject, *su* ‘fire’, is uncountable, and it is modified by the adjective *handi* ‘big’; in this case, *handi* may work almost as a degree adverb, exactly the same as in noun + adjective predicates in section 6.2.3.3.

### 8.3.3 Synchronic analyses and historical data

There are two principal synchronic analyses, by Artiagoitia and Etxeberria respectively, which aim at accounting for the extended use of the article in modern Basque. In the classic diachronic analysis (Azkue, Castaños, Irigoien), the extended use of the article is explained by the need for the morphological marking of number due to the influence of neighboring Romance languages; this diachronic analysis could somehow be connected to Artiagoitia’s synchronic analysis, since his analysis of certain article-taking phrases is

based on the proposal of a number projection.

I have used historical data in order to provide some empirical basis for that diachronic analysis (6.3). Under this diachronic analysis, the prediction would be that articles are used more often in predicates of plural subject sentences: I have shown that this is not the case, and that it even turns out to be the contrary, since in plural subject sentences there is a strong tendency for the predicates to take no article. This fact, keeping in mind that we are only dealing with predicates, does not forcefully support Artiagoitia's number projection hypothesis, at least as far as data from the 16<sup>th</sup> century are concerned. On the other hand, I have related the use of the article in these same predicates to the referential character of the subject, and this could more easily be related to Etxeberria's hypothesis, or at least to a step-by-step grammaticalization. In any case, I have not excluded the possible role that the need for morphological number may have played in the extension of article use in the following centuries or in other syntactic contexts.

#### **8.4 Some consequences of morphological reconstruction**

The reconstruction proposal in chapter five has had some consequences beyond strictly morphological issues. I have devoted chapter seven to them. These are the main results:

- (a) I have asked to what extent it is meaningful to classify Basque as an agglutinative language. Basically, the model proposed for the reconstruction of the definite declension is a non-agglutinative one: inflected demonstratives as a whole were attached to the noun, with more than one feature carried by a single morpheme (7.1.4). The discussion about the agglutinative character of the language was based on the works by two authors:
  - (i) For a better understanding of what being agglutinative means, Plank stressed the importance of synchronic and diachronic analyses alike. This way, I have tested Plank's "Strong Homogeneity Hypothesis" with the help of my diachronic analysis: in the diachrony of Basque definite declension, the demonstratives, which in origin were easily analyzable in an

agglutinative manner, have lost their agglutinant character as soon as they grammaticalized into the definite declension and as soon as they became part of a new paradigm (7.1.5). Thus, it can be said that the grammaticalization of D-elements went against the agglutinative character of the language.

- (ii) The Basque language is an exception to Himmelmann's generalization: agglutinative languages do not usually have the category of definite article, but Basque does. In the same vein as in Plank's view, Himmelmann looks for a diachronic scenario in order to account for the exceptions: basically, he says that adposition and case-marker phrases could have started being used with articles before they became agglutinant, but this solution does not account for the particular case of Basque. In section 7.1.6 I have broadened Himmelmann's diachronic explanation: according to my explanation, the grammaticalization of D-elements has provided the language with a series of grammatical elements that go against its original agglutinative character.
- (b) There is another major result drawn from the reconstruction of definite declension: Basque is not a fully ergative language, but rather, as I have proposed, it has to be classified as a split-ergative language (7.2). I have recalled the classical description, and I have listed the different kinds of split-ergativity that have been examined for Basque (7.2.1). After that, I have made a very specific proposal: the only split-ergativity that can be described in Basque is morphological, it belongs to the realm of the determiner phrase and is dependent on morphological number (7.2.2). I have tested this hypothesis in three kinds of words:
- (i) In the declension of nouns, absolutive and ergative are always distinguished in the singular. In the plural, they are only distinguished in eastern dialects, through the absolutive *-ak* and ergative *-ek*. In western dialects *-ak* is used for both (7.2.2.2).
  - (ii) In the declension of demonstratives, absolutive and ergative are only

distinguished in the singular (*hau/honek*), not in the plural (*hauek/hauek*); this is a feature of almost the whole Basque area (7.2.2.3). The exceptions that can be described in eastern dialects (*hurak/hek*, etc.) can only be modern, and I have documented this innovation in historical texts (7.2.2.3.1).

- (iii) In pronouns that mark plurality through a D-element, there is a single form for both absolutive and ergative, cf. *zuek*, *guek* and *hiek*. This is a feature of the whole Basque area.

The axis of this split-ergativity is morphological number, and it can be described as follows: the ergative pattern stands in the singular, a neutral pattern in the plural. The paradigms deviating from this pattern have to be taken as an innovation. This kind of split-ergativity is a consequence of the development of D-elements, in that morphological number depends on D-elements.

Besides this basic description, I have mentioned two further points: (1) I have brought to the discussion the case of some other languages that show a split-ergative pattern based on number, such as some languages in Oceania and the Mayoruna languages in Amazonia (7.2.3.1); and (2), I have tried to explain this split following Silverstein's hierarchy: the less marked noun phrases will follow the ergative pattern, and the more marked ones will follow the accusative pattern; I have recalled that plural phrases are usually regarded as more marked than singular ones in Basque analyses.

- (c) The reconstruction of definite declension has also led to a third consequence: I have suggested that aspiration persisted as late as the 17<sup>th</sup> century in Navarre. For that, I have recalled three kinds of data: some person-names written in the Hebraic alphabet dating from the 14<sup>th</sup> century, published by Mirones, the sentences in the Archive of Navarre published by Maiora dating from the 16<sup>th</sup> century, and Beriain's demonstratives, dating from the 17<sup>th</sup> century.

I have carried out a specific analysis of Beriain's demonstratives, in order to show that the <h> grapheme could indicate an aspiration. My analysis is based on

four grounds:

- (i) The internal analysis of Beriain's demonstratives (7.3.1.2).
- (ii) The analysis of Beriain's graphic system (7.3.1.3).
- (iii) The descriptions by grammaticians of the Spanish Golden Age about aspiration and graphic systems (7.3.2).
- (iv) The searches that I have made on contemporary Spanish texts, with the help of the *CORDE* database and the corpus of medieval documents compiled for this dissertation (7.3.2.3).

Bearing in mind the results of these four points, I have claimed that the <h> grapheme indicates an aspiration in Beriain's demonstratives, and, therefore, that the aspiration persisted until the 17<sup>th</sup> century in South-Navarrese.

- (d) Even though it is not a direct consequence of the morphological reconstruction, I have also treated a fourth issue in chapter seven. I have critiqued some previous work by Heine and Kuteva, since they examine the Basque *-a* and *bat* articles in light of their contact-induced grammaticalization hypothesis, but without a proper knowledge of Basque facts (7.4). This critique can be summarized as follows:

- (i) As for the definite article, the authors are not aware that the *-a* article is a prototypical D-element. For this reason, they do not take into account in their discussion its high level of grammaticalization; this turns out to be a remarkable flaw, since it stands as a direct counterfact for their hypothesis (7.4.2).
- (ii) As for the indefinite article, the authors are not aware of the existence of the old plural *batzu*. Again, this also turns out to be an important shortcoming, because this plural *batzu* overturns any claim they may make about the singular *bat*.

In spite of the theoretical value of their work, Heine and Kuteva did not properly use Basque data and, in consequence, their contribution turns out to be of little profit for Basque studies. Fundamentally, the flaws of Heine and Kuteva's work



are rooted in Haase's shortcomings (2.8.1 eta 2.8.2).

### 8.5 Gaps and further research

In order to proceed deeper into the diachronic analysis of Basque, we may mention some gaps that have become apparent throughout this dissertation; inevitably, they remain open to further research. I have mentioned two kinds of tasks: basic structural tasks and monographs. Among the basic structural tasks, I have underlined the importance of the following to projects:

- (a) We still have a noticeable gap in our knowledge of medieval data. Something similar to a *General Dictionary of Medieval Basque* is necessary, one that would collect the kind of information put forward in section 4.1.
- (b) A systematic morphosyntactic lematization of historical texts is also necessary (3.2.5.1). From my point of view, collecting data on the basis of kinds of sentences and morphemes is the most feasible way to undertake this task, and, of course, we will also need to include other parts of grammar besides the article and declension. This would make up a basic tool for a historical syntax.

As for the lack of monographic works, the following possibilities can be mentioned:

- (c) In the chapter devoted to the morphological reconstruction, I have constantly talked about D-elements. From that exercise I have drawn several consequences for the reconstruction of demonstratives, but a specific reconstruction of demonstratives is still necessary (5.5.6).
- (d) The exact development of non-determined declension is not accurately described yet, both from the morphological and the syntactic point of view. From a morphological point of view, for instance, we still do not know the exact diachronic relationship between  $\emptyset$ , *-ta-* and *-za-*. Besides, anything we may learn about the origin and development of case-markers will also help us to better understand the diachrony of declension itself.
- (e) In the limit between morphology and syntax, we still lack a specific analysis of

proximal articles (*-au*, *-on*, *-ori*, *-ok*, etc.). Besides, my approach has inevitably left out listing the different semantic values that may have the *-a* article; this issue is waiting for a historical semantics to be accomplished.

- (f) The syntax of the article goes beyond the field of strict morphology, but in this dissertation I have also made some comments on that, in chapter six. However, even though I have undertaken a historical description, the description has itself been synchronic, seeking to describe the situation in the 16<sup>th</sup> century. Besides, I have only analyzed certain syntactic contexts in the texts of that century; I did not analyze, for instance, the determination of stative sentences. In consequence, if we are to achieve more accurate knowledge about the historical evolution of the article, the analysis will have to be extended to the following centuries, as well as to more syntactic contexts.

In this last section I did not only mention the gaps in this dissertation; I also have brought here gaps that can be identified in Basque studies in general, in the belief that they all are complementary.

EUSKARAREN MORFOLOGIA HISTORIKORAKO:  
ARTIKULUAK ETA ERAKUSLEAK

Julen MANTEROLA  
2015



# LEHEN KAPITULUA

## TESIGAIAREN AURKEZPENA

### 1.1 Gaiaren tradiziozko definizioa

Tesi honek euskal artikulua du aztergai, bere dimentsio diakronikoan. Euskalaritzaren jardunetik datorkigun ezagutzak honela zedarritzen du tesi honen gaiak dakiguna: euskal artikulua definitua hizkuntza erromantzeen ukipenaren ondorioz  $*(h)a(r)$  erakusle urrunetik eratorritako morfema da, eta  $-a$  da euskal eremu osoan. Sarrera baterako, ikus Azkue (*Morf* §427-438); bibliografia osoagorako, ikus bigarren kapitulua.

Euskal artikulua bilakaera diakronikoaren oinarriko definizio honi beste bi puntu nagusi gehitu dakizkioke, tesi honetan landuko diren zenbait ildo nagusiren aurrerapen moduan: batetik, gaurko teorien arabera, erakusletik artikulurako bilakaera hori gramatikalizazio prozesu paradigmaticotzat jo ohi da, eta gramatikalizazio prozesu hori graduala, irizpide zenbaiten arabera eta erakusle gehiagorena ere izan da; bestetik, euskararen berezko ezaugarri tipologikotzat jo ohi den eredu eranslearen barrenean kokatu ohi da artikulua eta deklinabide mugatuaren bilakaera diakronikoa.

Horrelaxe laburbil daiteke orain arteko euskal hizkuntzalaritza diakronikoak  $-a$  artikulua definitu deiturikoaz osatu duen irudia. Definizio honetako terminoak banan-banan aztertuko ditut jarraian, sarrera modura, tesi honen aztergaia bera eta helburu nagusiak zein izango diren zedarritzeko.

#### 1.1.1 Artikulu *hitzak zer adierazten duen*

Gramatikagintzaren tradizioan, *artikulu* terminoa hizkuntzetako hainbat elementu izendatzeko erabili izan da; hala laburbiltzen du Gómezek bere lanetan (2001, 2006: 234-235). Hark dakarrenez, *artikulu* terminoa, bere definizio klasikoan, generoari eta kasuari lotuta ageri da, aski antzinatik; beranduagokoa da, ordea, terminoaren egungo erabileratik hurbilago dagoen definizioa: determinatzaile gisa definitzen da lehendabizikoz Port-Royaleko gramatikan. Kontuan hartzekoa da, hala ere, eta betiere

Gómezi jarraiki, “tradiziozko gramatika zahar askotan artikulua kategoriaren barruan beste elementu batzuk ere sar zitezke[la], hala nola erakusleak, posesiboak, etab.” (2006: 235).

Euskal gramatikagintzan *artikulu* terminoak erabilera bat baino gehiago izan ditu: *-a* eta *-ak* izendatzeko erabili izan da (aldeak alde, hala egiten dute Oihenartek eta Larramendik); kasu marka ergatiboa, absolutiboa, datiboa eta genitiboa adierazteko erabili zuen, bestalde, Pablo Pedro Astarloak bere *Discursos Filosóficos*-en, eta *-a* elementuari beste izendapen bat eman zion. *Artikulu* terminoaren erabilera eklektikoaren irudia osatzeko, Juan Mateo Zabalaren lana dugu: bertan adizkiak, laguntzaile zein trinko, *artikulu* izendatzen ditu. Hemen labur bildutako euskal gramatikagintzaren gorabehera hauen guztien xehetasunetarako, jo Gómezen beraren lanera (2006: 237-354).

Horiek hala izanik, artikulua definitutasunaren nozioarekin lotzen ditu arestian aipatutako Port-Royaleko gramatikak berak, dagoeneko XVII. mendean: “Les Langues nouvelles en ont deux; l’un qu’on appelle défini; comme *le, la*, en François: et l’autre indéfini, *vn, vne*” (1660: 52). Halako ikuspegiak ezinbestean eraman izan dute *definitutasun / ez-definitutasun* dikotomiara, eta tradizio horrexek zedarritzen du gaur egun euskal gramatiketan *artikulu* terminoa *-a* eta *bat* elementuak izendatzeko erabiltzea. Terminoaren erabilera honen erakusle da *A grammar of Basque* erreferentziazko gramatika (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003), “definite article” izendatzen baitu *-a*, eta “indefinite article” *bat*. Euskaltzaindiaren gramatikan (1991), nolana ere, *-a* da artikulua bakarra, *bat* zenbatzaitzat baitute, ez artikulutzat.

Gorabeherak gorabehera, *artikulu* terminoa definitutasunaren nozioarekin uztartuta agertzen da maiz egungo hizkuntzalaritza lanetan, bai euskararen analisisetan (Etxeberria 2007, Trask 2003), baita maila teoriko zabalagokoetan eta munduko beste hizkuntzenetan ere (zerrenda amaiezinenaren barrenean, cf. Chesterman 1991, Epstein 1994, Galmiche 1989, Krámský 1972, Napoli 2009, van Gelderen 2007, Wintner 2000); hartara, *artikulu* terminoa maiz ageri da *definitu*, *indefinitu* edo antzeko zehaztapenen batekin lagunduta. Tesi honetan, *artikulu* terminoa *-a* edo *bat* bezalako elementuentzat erabiliko da, erabat maila deskriptiboan.

### 1.1.2 Artikulua eta definitutasuna

Arazo bat azaleratzen da egungo euskalaritzan, behin eta berriro, *-a* aipagai denean: artikulua definitu gisa izendatu ohi da, baina ez da inguruko hizkuntzetako artikulua definituen kide erabatekoa, erabilera zabalagoa baitu. Honela zehazten du Traskek “The label *definite article* is misleading, since this article is of much broader use than the English definite article” (2003: 119).

Trasken ohar honen bidetik, gogora ekarri beharra dago *artikulu definitu* terminoaren beraren erabilera zein izan den hizkuntzalaritza modernoaren historian; Milsark hizkuntzalariak ematen digu honen gakoa: “[the term *definite*] has been used for generations in the pedagogy and scholarly description of the Indo-European languages” (1977: 5), eta termino horren barnean bildutako elementuen deskripzio formala zein semantikoa beti osatu izan da hizkuntza hauetako artikuluen jokamoldearen arabera. Milsarkek esaldi existentzialak ditu aztergai, eta halakoetan espresio definituek “sarbidea” ukatua dutela deskribatzen du; definitutasunaren murriztapenaren hatsarrea (“definiteness restriction” jatorrizkoan) proposatzen du horren azalpen gisa, baina, era berean, aitortu beharra du *definitu* nozioak berak ez duela estatus argirik orduko teoria linguistikoetan.

Oinarrian du gorpil zoroa arazo horrek: artikulua definituaren kategoria hizkuntza indo-europarren arabera zehaztu izan den neurrian, definitutasuna bera ere artikulua definituen arabera zehaztu izan da. Honen isla dira Dryeren hitzak (2013):

[A] definite article is a morpheme which accompanies nouns and which codes definiteness or specificity, like ‘the’ in English. This is a somewhat broader use of the term *definite article* than is common, since it includes (i) affixes on nouns that code definiteness; and (ii) demonstratives, if those demonstratives are used as markers of definiteness. In many languages, words that are demonstratives, either in the sense that they can be used deictically with an accompanying gesture or in the sense that they exhibit a distinction in terms of distance (as in the contrast of *this* and *that* in English), are also widely used in contexts where English would use a definite article rather than a demonstrative.

Ageri denez, Milsarken hitzek, 36 urte beranduago ere, bere balioari eusten diote: Dryerek oinarritzko zenbait eginkizunetarako aitortzen duen bezala, ingelesezko *the*-ren funtzioa eta erabilera sortak erabakitzen du beste hizkuntzek artikulua definiturik ba ote duten, “[demonstratives] are also widely used in contexts where English would use a

definite article rather than a demonstrative” esaldiak erakusten duenez; definitutasuna, halaber, ingelesezko *the*-ren arabera definitzen da: “a definite article is a morpheme [...] which codes definiteness or specificity, like *the* in English”.

Ez da harrizkoa hala izatea: Europa Mendebaldeko hainbat hizkuntzatan artikulua definitua deskribatu ohi da —oinarrizko sarrera tipologiko baterako, ik. Nocentini (1996) eta Haspelmath (1998: 274)—, eta hizkuntza horien gaineko hizkuntzalaritza lanek tradizio luzea izan dute azken berrehun urteetan, gutxienez. Hizkuntzalaritza lan hauek zein mundu zabalekoek askotariko erantzunak eman dizkiote definitutasunaren auziari. Tesi honetan, ordea, ez da berriaz definitutasunaren nozioaren teorizazioetan sakonduko; horren partez eta eztabaida horietarako aurrean gisa, XVI. mendera bitarteko artikuluen erabileraren deskripzio zehatz bat emango da.

### 1.1.3 Artikuluen erakusle jatorria

Artikuluen jatorrian erakusleak egon ohi direla gauza ezaguna da. Bien arteko lotura semantiko sinkronikoa ere maiz azaleratzen da, biek ala biek espresio definituak osatzen baitituzte, eta hala deskribatzen da; honen erakusgarri da Hawkinsek dioena (1991: 414-415):

I have concentrated so far on definite NPs that contain a definite article, since that is the focus of this paper. NPs consisting of demonstrative determiners (*this professor, that professor*) are also generally regarded as definite, as are pronouns such as *he, she*, etc. [...] In general, pronouns and demonstrative expressions obey more restrictive pragmatic conditions and require actual physical perception of entities in the world or explicit textual mention of entities. [...] These entities [erakusle espresioei eta izenordainei dagozkienez ari da] may be members or subsets of the immediate situation sets and previous discourse sets activated by *the* [...], and when they are we get partial overlaps in the usage possibilities for all types of definite NPs. *Pass me that bucket* and *pass me the bucket* can both refer to entities in the immediate situation of utterance. [Azpimarra nirea]

Ageri denez, erakusleek eta artikulua definitu deiturikoen hainbat ezaugarri partekatzen dituzte. Horiek hala izanik ere, tesi honetan ez da euskal erakusleen eta artikuluen arteko harreman mota honetan sakonduko; hori semantika sinkroniko bati dagokion lana da, eta aurreko atalean aipaturiko definitutasunaren teoria orokor bati; ik. Etxeberria (2005), bibliografia baterako. Tesi honek, lotura semantiko-sinkroniko hori ez, baizik eta bien arteko lotura morfologiko diakronikoa izango du azterketaren jomugan.



Gaurko diakroniazko lanetan, gramatikalizazio prozesu tipikotzat jo ohi da erakusleetatik artikuluetarako bilakaera; Greenbergen (1978) lana da gramatikalizazio prozesu honen aroak zein diren xehekatzen lehenetarikoa, baina askoz lehenagotik ziren ezagunak bilakaera horren adibideak, are gehiago aintzat hartuta Europa Mendebaldeko hizkuntza gehienek erakusleetatik eratorritako artikulua definituak dituztela (cf. hizkuntza erromantzeak, germanikoak eta zeltikoak). Euskara bera hizkuntza hauekin batera kokatzen da, eta, bere tradizio linguistikoa ere, erakusleen eta artikuluen artean diakroniaren ikuspegitik ezar daitekeen parekatze morfologikoa ezaguna da.

Tesi honetan, erakusleen eta artikuluen harreman diakronikoa ikuspegi morfologikotik batera aztertzearen onurak azaleratu dira, bereziki deklinabide mugatuaren diakronia egin nahi denean; ustezko *\*(h)a(r)* erakusleaz gainera, beste hainbat erakusle ere sartu dira deklinabide mugatua berreraikitze saioan. Ez da, ordea, erakusleen berariazko berreraiketarik egin, ez bada gaur egungo artikuluek jatorrizko erakusleekin partekatzen duten lotura morfologikoa zuzenaren bidetik. Funtsezko zehaztapen honetan, tesi hau Himmelmannen (1997, 1998: 321, 2001) lanaren eta terminologiaren zordun izango da: erakusleak eta artikulua morfema beraren aldaera diakronikoak dira, eta, termino orokor gisa, *D-elementu* erabiliko da ("*D-element*, Determinator element" jatorrizkoan).

#### *1.1.4 Hizkuntza-arteko ukipena eta euskal artikulua*

Atal honen hastapenean emandako tradiziozko definizioaren arabera, euskararen artikulua definitua inguruko hizkuntza erromantzeetako artikuluen ereduari jarraiki sortua da; sorrera hori tarte kronologiko berean kokatu ohi da, Goi Erdi Aroan. Hizkuntza ukipenaren eraginaren norabideaz soilik eztabaidatzea baino, ordea, zuzenagoa da testuinguru zabalago batean kokatzea euskal artikuluen sorrera: Haspelmathek (1998), Whorfek sorturiko *Standard Average European* izendapenaren bidetik, Europako hizkuntzek partekatzen dituzten egiturak eta ezaugarriak zerrendatzen ditu; area linguistikoa zabal bat deskribatzen du horrela. Euskara entitate geografiko-linguistikoa zabalago honetan kokatu beharra dago, eta, partekatuak diren ezaugarri horien artean, artikulua definituarenaz gain, hor daude, besteak beste, partizipiozko perifrasiarena

(eztabaidaren xehetasunetarako, ik. Mounole 2011: 286-287) edo artikulua indefinituarena berarena (Manterola 2012).

Egia da, hala ere, eremu zabal horretan euskarak *continuum* latin-erromantzea izan duela auzokide hurbilena eta behinena; horrela uler daiteke, definizio nagusiarekin bat, hizkuntza horiekiko ukipen egoeran garatu izana euskarak artikulua definituaren kategoria funtzionala. Bestelako hizkuntzekin izandako ukipena eta ukipen horren eragina, bestalde, neurtzen zaila da (iberiera, hizkuntza zeltikoak eta germanikoak; ikus Mitxelenaren *Sobre el pasado de la lengua vasca*, V 1-115): hizkuntza horien ezagutza urria da, eta euskararekin ukipenean zeudeneko garaiko euskal lekukotasunak ere ez dira aski ukipenari buruz egin litekeen edozein proposamen bermatzeko.

Erdi Aroan euskal lekukotasunak modu zabalxeagoan agertzen hasten direneko datuak ere ez ditugu behar bezala aztertuta, eta datu protohistoriko eta historikoen ezagutza ez dago ongi finkatua. Oraindik osatu gabeko ezagutza sendo horretan bermaturik baizik ezin izango dira egoki erkatu euskal datuak erromantzeetako datuekin, ukipenari dagozkion gaiak aztertzekotan bagaude.

Horrenbestez, tesi honetan ez da berariaz aztertuko euskal artikulua definituaren sorreran eta hedatzean ukipenak izan zezakeen eta, izatez ere, izan zuen rola. Bai egingo da, ordea, hizkuntza-ukipenaren gaiaren barrenean azken aldian argitaraturiko lanen kritika labur bat, euskarari (eta auzo-hizkuntzekin izan duen ukipen harremanari) buruzko zenbait ideia eta hipotesi baztertzeko baino ez bada ere.

### 1.1.5 Deklinabidea

Gauza jakina da euskal gramatikagintzan *deklinabide* izendatzen duguna ez dela —gure tradizioaren sorburu nagusia aipatzearen— latinak duenaren parekoa. Hiru puntu nagusitan laburbil daiteke latinaren eta euskararen arteko konparazioa, euskarak deklinabiderik ez duela aldarrikatzeke: (a) izen motaren arabera deklinabidea aldatzen da latinez —bost deklinabide ditu—, euskaraz ez; (b) kasuaren arabera erroa aldatzen da latinez, euskaraz ez; (c) sintagmaren osagai guztiak deklinatzen dira latinez, euskaraz sintagma osoari behin baizik ez zaio atxikitzen kasua edo postposizioa.

Villasanteren hitzek (1972: 8) jasotzen dute auziaren muina, euskaraz deklinabidea izan badela defendatzen duenean: “[U]na declinación, eso sí, de tipo especial, semejante a la de las lenguas llamadas aglutinantes”, eta zehazten du deitura kontua baizik ez dela (“es casi una cuestión de nombres”);<sup>63</sup> eransletasunaren nozioa darabil, gainera, euskal deklinabidearen izaera definitzeko. Eztabaida zaharra da, Vinsonen laburpen egokiak erakusten duen bezala (1869: 7-9, 19); ik., halaber, Azkue (*Morf*: §453), Trask (1997: 89), Eguzkitza (1997) eta Salaburu (2011), besteak beste. Tesi honetan ez dut *deklinabide* terminoa baztertuko, baina inongo konnotazio teorikorik gabe erabiliko dut.

Euskaratik kanpo, eta eztabaida zertxobait ezberdina izanagatik ere, esanguratsua da Spencerren (2008) lanaren izenburua “Does Hungarian have a case system?” izatea: izen sintagmari dagozkion osagaien deskribapen ona egiteko ardua salatzen du izenburuak, hala nola terminologia zehaztekoa. Beste hizkuntza uraliko batzuri buruzko lanetan ere erabiltzen da *deklinabide* terminoa (“declension” ingelesez), euskaraz erabiltzen den bezala; ikus 7.1.6.1 atalean mordveraren adibidea.

Eztabaida horretan sartu gabe, tesi honetan euskal artikulua deklinabide sistema horren diakronian izan dituen gorabeherak aztertuko ditut; hots, artikuludun den neurrian, deklinabide mugatua izango da tesiaren aztergaia. Hobeki esanda, eta arestian proposaturiko terminologiari jarraiki, tesi honen bizkarrezurra D-elementuen azterketa diakronikoak osatuko du, deklinabide mugatuaren oinarritzat joko ditudan neurrian.

Tesiaren aztergaia horrela zehazteak ondorio zehatz bat du: kasu eta postposizioen jatorri morfologiko eta bilakaera diakronikoaren gaia tesi honen irismenetik kanpo geratuko da.

### 1.1.6 Eredua eranslea

Euskarazko deklinabidea “hizkuntza eransleak” dutenen parekoa dela diosku Villasantek (ik. aurreko atalean). Gauza jakina da euskara hizkuntza eransle gisa

---

<sup>63</sup> Aurkako iritzia du Sarasolak, Van Eysen lana hizpide duela: “Azken buruan, deklinabide ala atzizki-sistema, terminologi hutsezko arazo irudi lekiok norbaiti. Baina ez da hala” (1989: 93).

deskribatu ohi dela,<sup>64</sup> eta izenaren deklinabidea aipatu ohi da eransletasun horren adierazle tipikotzat; horren lekuko dira Trasken hitzak: “The morphology of Modern Basque is strongly agglutinating” eta “The dozen or so cases are all marked by agglutinated suffixes” (1998: 318). Ez ditu bereizten deklinabide mugagabea (artikulturik gabea) eta mugatua (hots, D-elementuduna), eta badirudi, hortaz, deklinabide osoaren ezaugarritzat duela eransletasuna.

Hainbat irizpide hartu izan dira hizkuntzen eransletasun maila neurtzeko: Plankek (1999: 282-284), adibidez, hamaika irizpide edo parametro ere zerrendatzen ditu; Plungianek (2001: 669-673), berriz, hiru bakarrik aztertzen ditu; parametro horien artean egon daitezkeen mendekotasun harremanak ere aztertzen dituzte.

Xehetasunak gorabehera, *metatzea* edo *kumulazioa* —“cumulation” da jatorrizko terminoa— erabili izan da, ooren gainetik, eredu eranslearen eta flexiozkoaren artean dauden edo egon daitezkeen mailak bereizteko: honen arabera, eransletasunaren ezaugarritzat hartu ohi da afixuak eredu ez-kumulatiboaren arabera izenari lotzea —“separatist” deitzen dio Plankek—, eta, aldiz, flexioaren ezaugarritzat modu kumulatiboan lotzea, hainbat esanahi gramatikal morfema berean “kumulatuta” edo batera bilduta. Honela dio Plungianek: “each agglutinative morpheme normally expresses only one grammeme [= grammatical meaning]. This is the main *semantic* parameter of agglutination” eta “The lack of cumulation is often thought of as being the most characteristic parameter of agglutination” (2001: 672-673). Hots, morfema bakoitzari esanahi gramatikal bat dagokio, eta, eredu eransle ideal batean, morfemak elkarren segidan lotzen zaizkio izenari, aldaera nabarmenik gabe, eta denen esanahi gramatikalen baturak sintagma osoarena osatzen du.<sup>65</sup>

Esan ohi da euskal deklinabidea horrelako eredu eranslearen arabera osatua dela, eta onartzen da, era berean, bilakaera diakronikoa ere eredu beraren arabera izan duela: esaterako, *etxean* sintagmaren osagaiak *etxe-a-n* bereizten dira, *etxe* erroa, *-a-*

<sup>64</sup> Ik. Uhlenbecken (1984[1922]) lana, deskribapen eta izendapen honen kritika goiztiar baterako, hizkuntzen tipologiaren bilakaera diakronikoaren garaiko ikuspegiaren barrenean.

<sup>65</sup> “In an agglutinative system, every word contains a root that provides its basic lexical meaning and a string of affixes arranged on either side of the root, each one of which has a meaning of its own, such that the meaning of the whole word is the sum of the meanings of its parts” (Aronoff & Sridhar 1984: 3, apud Plungian 2001: 673).

definitutasun marka eta *-n* inesibo marka direlarik; orobatsu, ergatibo pluraleko *etxeek* sintagmaren jatorrizko forma (eta are, analisi sinkronikoetan, sakoneko egitura), *\*etxe-ag-e-k* dela aldarrikatu ohi da, non *etxe* erroari *-ag-* definitutasun marka plurala lehenik (*-g-* bera bereiz liteke, pluraltasun markatzat hartuta) eta *-k* ergatibo marka ondoren gehitu zaizkion, *-e-* bokal epentetiko hutsa delarik.

Tesi honetan, deklinabide mugatuaren diakronia azaltzeko eredu eransleaz bestelako bideak jorratuko ditut, proposatuz D-elementuen gramatikalizazioa ez zela eredu eransle hertsia baten arabera gertatu.

### 1.1.7 Gramatikalizazioa<sup>66</sup>

Hastapenean esan bezala, erakusleetatik artikuluetarako bilakaera diakronikoa gramatikalizazio prozesu tipikotzat jo ohi da. Ugariak dira azken hamarkadetan gramatikalizazioaren eta haren inguruan sorturiko eztabaiden bidetik argitaraturiko lanak; horiei buruzko ikuspegi orokor eta bibliografia eguneratu baterako, cf. Heine eta Narrogen (2011) eskuliburu.<sup>67</sup> Atal honetan, tesi honetarako esanguratsuak eta ezinbestekoak gerta daitezkeen zenbait oinarriren berri baizik ez dut emango. Gramatikalizazioari buruzko ohar historiografikoetarako —kontzeptuaren sorreraz eta bestez—, ik. bereziki Lehmannen lan argigarriaren lehen kapitulua (2002: 1-7), eta, gramatikalizaziozko ikerketen historia labur baterako, Heine (2003: 575-578).

Lehmannek dioenez (2002: 1), Meilletek zedarritu zuen gramatikalizazio terminoaren gaur egungo erabilera eta esanahia. Gramatikalizazioa zer den zehazteko, maiz aipatu izan diren bi formulazio klasiko ekarriko ditut hona; honela dio Kuryłowiczek (1975[1965]: 52):

Grammaticalization consists in the increase of the range of a morpheme advancing from a lexical to a grammatical or from a less grammatical to a more grammatical status, e.g. from a derivative formant to an inflectional one.

Honela formulatzen du, bestalde, Lehmannek (2002: vii) bere liburuaren sarrera

<sup>66</sup> Hizkuntzalaritza diakronikoan *gramatikalizazio* nozioak duen indarraren erakusgarri, ik. Kikusawak eta Reidek (2011) editaturiko *Historical Linguistics 2011* liburua, non hiru atal nagusietarik bat gramatikalizazioari eskaini zaion.

<sup>67</sup> Brebanen (2014) iruzkinean, eskuliburu honek eskaintzen duen ikuspegi zabala goratzen da, zenbait puntu ahul gorabehera. Ik. orobat Hillen (2014) iruzkina.

moduan gai orokorra zein den zehaztu nahi duenean:

Grammaticalization is a process leading from lexemes to grammatical formatives. A number of semantic, syntactic and phonological processes interact in the grammaticalization of morphemes and of whole constructions

Campbellek eta Jandak (2001: 94-107), aurreko ia ehun urteetan izan diren gramatikalizazioaren definizioak eta azterbideak zerrendatu ondotik, honela biltzen dute horien guztien oinarrian antzematen duten ideia orokorra: “some linguistic element > some more grammatical element”.<sup>68</sup>

Prozesu mota hau jarraitua da; termino metaforiko gisa, Hopper eta Traugottek (2003: 6) “cline” darabilte.<sup>69</sup> Termino metaforiko honen harira, tesi honen gaiari dagokionez zinez da esanguratsua hamarkada batzuk lehenago Hallidayk *klina*<sup>70</sup>-ri buruz emandako definizioa: “[I]nstead of being made up of a number of discrete terms a cline is a continuum carrying potentially infinite gradation” (1961: 249); erakusleen gramatikalizazioan bereziki agerikoa suertatzen da hau, izan ere mailakatze aukera infinitu horren erakusle baitira hizkuntzatik hizkuntzara artikulatu definituek dituzten balio ezberdin ugariak.

Bestelako deiturak ere erabili izan dira, prozesuaren jarraitutasuna islatu nahian: cf. “grammaticalization path, pathway, channel” eta abar; ik. Hopper eta Traugott (2003: 6) eta Heine (2003: 589), deitura proposamenen bibliografiarako. Tesi honetako zenbait puntutarako, bereziki argigarria izan daiteke Heinek berak (1992) proposaturiko *gramatikalizazio katea* terminoa (“grammaticalization chain” jatorrizkoan), eta termino horrek bere barnean biltzen duen ideia: gramatikalizaturiko morfemak edo egiturak bere bilakabide diakronikoan izan dituen balioak eta erabilera ezberdinak momentu sinkroniko berean, gramatika berean, elkarren ondoan bizi daitezke; garai diakroniko ezberdinetako balioak ondoz ondoko egoera sinkronikoetan gainjarri edo teilakatzen

<sup>68</sup> Hopperrek eta Traugottek (2003: 16) “less grammatical > more grammatical” aldaketa modua jartzen dute gramatikalizazioaren oinarrian. Heineren arabera (2003: 577), oinarritzko ideia honi dagokionez adostasuna orokorra da.

<sup>69</sup> Autore hauen arabera, “[f]rom the point of view of change, forms do not shift abruptly from one category to another”; ikuspegi diakronikotik, gainera, “a cline is conceptualized as a natural “pathway” along which forms evolve, a schema which models the development of forms”.

<sup>70</sup> Biologiaren esparruari dagokion ingelesezko “cline” terminoa *klina* itzuli izan da euskarara (Euskalterm s.v.).

dira (“overlapping” hitza darabil Heinek).<sup>71</sup> Hots, egoera sinkroniko batean geruza diakroniko bat baino gehiago aurki daitezke.

Gramatikalizazio prozesuen ezaugarri moduan zenbait gertakari nabarmendu ohi dira; horietako lau ekarriko ditut hona, gramatikalizazioari buruzko lanetan maiz aipatzen direnak (cf. Heine eta Narrog 2010: 404-408):

- (a) Hedatzea edo erabilera testuinguruen orokortzea.
- (b) Galera semantikoa.<sup>72</sup>
- (c) Ezaugarri morfosintaktikoen galera.
- (d) Galera fonetiko.<sup>73</sup>

Diesselek ere (1999: 118), berariaz erakusleen gramatikalizazioaz ari dela, lau gertakari nagusi horien azpian sailkatzen ditu bere zortzi irizpideak.

Haimanen arabera, “There are two kinds of change which are always associated with grammaticalization: Phonetic reduction and semantic bleaching or generalization” (1991: 153-154). Aipu honetan, lehen ezaugarriak bigarrenarekin bat egiten duela dirudi, orokortzeaz ari den neurrian; ohar berdintsua egiten dute Heinek eta Narrogek, galera semantikoaren jatorrian orokortzea dagoela esaten dutenean: “Desemanticization is an immediate consequence of extension” (2010: 406).<sup>74</sup> Ohartu beharra dago, dena den, galera semantikoaren ondoan “semantic gain” delakoa ere deskribatu izan dela, galeraren ondoan irabazi semantiko gisa irudika daitekeena; erakusleez denaz bezainbatean, argigarria da Heineren oharra (2003: 591):

---

<sup>71</sup> Swahilizko adibide batez ari dela, hauxe esaten du Heinek: “The presence of such overlap stages suggests that grammaticalization chains cannot be described appropriately in terms of discrete categorization” (2003: 590).

<sup>72</sup> Ik. Campbell (2001b: 118, 121) galera semantikoak eta fonetikoak izan dituzten izendapenen zerrenda baterako.

<sup>73</sup> Galera fonetikoa gramatikalizazioaren epifenomeno gisa ikusi izan da; ik., besteak beste, Schiering (2010). Autore honek, gainera, hizkuntzaren azentu moduarekin lotzen du galera hau: “The cross-linguistic distribution of erosive grammaticalization can be predicted by a rhythm-based typology which distinguishes between stress-, syllable-, and mora-based languages” (2010: 96); intentsitate azentua duten hizkuntzetan gertatu ohi da nabarmen, ez hainbeste besteetan.

<sup>74</sup> Heinek eta Narrogek zehaztapen bat egiten dute zerrendaturiko lau gertakarien arteko ordena kronologikoaz: “[t]he ordering of these parameters reflects the diachronic sequence in which they typically apply: Grammaticalization tends to start out with extension, which triggers desemanticization, and subsequently decategorialization and erosion” (2010: 405).

[T]he development from demonstrative modifier to definite article does not only involve a loss of deictic content, but may also be described as leading to a gain of discourse-referential properties within the domain of text.

Gramatikalizazioari loturiko ezaugarri gehiago ere deskribatu izan dira: cf. Lehmannek bereizten dituen gramatikalizazioaren ezaugarri paradigmaticoak eta sintagmatikoak, gramatikalizazioaren parametroei eskainitako atalean (2002: 112-143). Bestelako eztabaidak ere sortu dira gramatikalizazioaren teoriaren harira, hala nola gramatikalizazioaren ustezko norabide bakarrekotasunari dagokiona (ik. Haspelmath 2004, ingelesez “unidirectionality” deritzon ezaugarri honen gaineko eztabaidarako eta bibliografia baterako) edo Campbellek (2001a) editaturiko *Language Sciences* aldizkariaren ale berezi batean gramatikalizazioaren teoriak egiten den kritika orokorra, hizkuntz aldaketa azaltzeko eta hobeki ulertzeko gramatikalizazioa bezalako kontzeptu teoriko baten beharra zalantzan jartzen duena. Heinek berak zerrendatu eta aletu egiten ditu gramatikalizazio prozesuen eta gramatikalizazio teoriaren harira sorturiko arazoak (2003: 581).

Tesi honetan, ez da gramatikalizazioari dagozkion eztabaida eta sailkapen hauetan sakonduko.<sup>75</sup> Tesi honetan *D-elementuen gramatikalizazioa* izendapena erabiliko da, izen sintagmaren barreneko euskal erakusleen bilakaera diakronikoa ongi adierazten duelakoan; izan ere, arestian aipaturiko gramatikalizazioaren ezaugarrietako batzuk ezagunak dira euskal erakusle-artikuluaren bilakaera diakronikoan: (a) testuinguru sintaktiko gehiagotan erabiltzen dira, azken buruan balio ez-espezifikoa edo indefinituak hartzeraino, (b) balio deiktikoa ere galtzen dute, (c) *-a* artikuluak eta beste hainbat *D*-elementuk morfosintaktikoki beregain izateari uzten diote, eta (d) hasperena galtzen dute, eta beste zenbait soiltze fonetiko ere gertatzen dira. Bestalde, izendapen honek ongi mugarriztatzen du ikergaiaren eremua: *D*-elementuen gramatikalizazioaz arduratuko naiz, eta, horrenbestez, tesi honetatik kanpo geratuko da bestelako

---

<sup>75</sup> Hopperrek eta Traugottek gramatikalizazioaren terminoaren bi erabilera bereizten dituzte batez ere: “The term grammaticalization has two meanings, one to do with a research framework within which to account for language phenomena, the other with the phenomena themselves” (2003: 1). Lehen esanahiari dagokionez, ik. Heineren eta Narrogen lanean (2010) gramatikalizazioak analisi linguistikoan duen tokiaz; tesi honetan, bigarrenaren bidetik joko dut, eta *gramatikalizazio* terminoa prozesu diakroniko baten gorabeherak bere barnean bil ditzakeelako erabiliko dut, horretarako termino deskriptibo egokia delakoan.



gramatikalizazio bide edo katei dagokien kasu eta adposizioen diakroniaren azterketa.

## 1.2 Tesiaren gaia definitzen

Aurreko atalean, euskal artikulua diakroniaz euskalaritzak osatutako ezagutzaren deskribapen eskematiko bat hartu dut abiaburu. Deskribapen horretan bereiz daitezkeen gaiak eta termino nagusiak jorratu ditut ondotik, tesiaren gaia zedarrizteko helburuz. Horrenbestez, honela laburbil daiteke tesi honen eginkizunen zerrenda:

- (a) Euskal artikulua(en) morfologia diakronikoaz proposamen jakin bat plazaratuko dut. Euskal artikulua D-elementu moduan sailkatuta, deklinabide mugatu osoaren gramatikalizazioa aztertuko dut, eta Erdi Aroko lekukotasunek horretarako duten garrantzia nabarmenduko.
- (b) Artikuluaren sintaxiaz ere arduratuko naiz; artikulua definitu prototipikotzat jo ohi den *-a* D-elementuaren erabilera deskribatzeko lanabes bat osatu eta XVI. mendeko egoeraren deskribapen bat emango dut.
- (c) Analisi eta berreraiketa morfologikotik abiatuta, tradiziozko definiziotik haragoko gaietarako antzeman daitezkeen ondorio zuzenen berri emango dut, ergatibitateari, eransletasunari eta ukipenari dagozkionak bereziki.

Funtsean, tesiaren eginkizuna hau izango da: hastapeneko definizio orokor horren azpian dauden aztergaien berri xehea ematea, ikuspegi diakroniko eta historiko batetik.

## 1.3 Tesiaren atalen gainbegirada

Tesiak zortzi atal ditu, lehendabiziko hau barne.

Bigarren kapituluaren ikergaiaren egoeraren berri eman dut. Batetik, artikulua, erakusleen eta deklinabide mugatuaren diakroniaz esan izan direnak bildu ditut. Artikuluaren sorrera garaiari dagokionez, Mitxelenaren ikuspegi klasikoaren eta Irigoienaren hipotesi alternatiboaren berri eman dut; erakusleen berreraiketari dagokionez, besteak beste bere jatorrizko gradu kopuruaren eztabaidari erreparatu diot, berriz ere Mitxelenaren eta Irigoienaren ikuspegi kontrajarriekin; deklinabide mugatuaren

diakroniaz denaz bezainbatean, gogora ekarri dut Bonaparte, Gavel, Mitxelena eta beste hainbaten hipotesi eransle klasikoa, baina baita ildo horretatik bereizi diren Duvoisin eta besterenak ere. Bestetik, sintaxiaren esparrutik hurbilago, artikulua erabilera historikoaz egin izan diren hainbat ohar jaso ditut, eta bereziki laburbildu ditut Álvarez, Mitxelena eta Castañosen ekarpenak; azterketa sinkronikoen berri laburra ere ekarri dut hona, horien artean bi proposamen nabarmenduta, Artiagoitiarena eta Etxeberriarena. Azkenik, hizkuntz ukipenaren alorretik euskal artikulua erabileraz egin izan den zenbait orokortzeren berri eman dut, eta arreta jarri dut atzerriko zenbait hizkuntzalariren lanetan, hala nola Haaserenetan eta Heine eta Kutevarenetan.

Hirugarren kapituluaren azterketarako lanabesak aurkeztu ditut, teorikoak zein enpirikoak. Batetik, D-elementu gisa definitu dut artikulua, gramatikalizazioaren marko orokorraren barrenean eta Himmelmannen lanen bidetik; horrela, zenbait orokortze aipatu ditut, artikuluen gramatikalizazioari buruzkoak, adposizio sintagmetan eta hizkuntza eransleetan gertatzen diren zenbait berezitasun morfologiko nabarmenduta. Bestetik, alderdi sintaktikotik, artikulua erabilera zabaltzeaz egin izan diren orokortze zenbaiten berri eman dut. Lanabes bat osatu dut, orokortze horietarako erabili izan diren irizpideei jarraiki; lanabes horren helburua izango da deskribatzea lehen euskal testuetan artikulua zein testuinguru sintaktikotan erabiltzen zen. Oinarri teoriko horiek zehaztuta, helburuen araberrako bi corpus zedarritu ditut: batetik, Erdi Aroko dokumentazioari dagokiona, eta, bestetik, XVI. mendera bitarteko testuen zerrenda bat.

Laugarren kapituluaren Erdi Aroko datuen azterketari dagokio. Deklinabide mugatuaren berreraiketa morfologikorako erabili dira datuok; Donemiliagako kartulario galikanoko *Reja*-ko lekukotasunen azterketa zehatza izan da abiapuntua. D-elementuen forma hasperendunen garrantzia azpimarratu dut bertan, *-ha*, *-haga*, *-heta* eta *-hen* aldaeren berri emanda. Datu hauekin De Rijkek eta Mitxelenak Erdi Aroko datuak oinarri hartuz egindako proposamenak eta hipotesiak osatu ditut, hala nola *-aga* atzizkiari dagozkionak. Era berean, Pirinioetako leku-izenak ere aztertu ditut, Corominesen proposamenen bidetik; helburua izan da ziurtatzea ba ote dagoen eremu geografiko hartan analisirako esanguratsu izan daitekeen D-elementurik.

Bosgarren kapituluaren berreraiketa morfologikoari lotu natzaio. Erdi Aroko

datuetan dago kapitulu honetako proposamenen oinarri enpirikoa; artikuluaen sorrera garaiak mintzatu naiz lehenik, horretarako Erdi Aroko Pirinioetako datuek duten esangura nabarmenduta: Mitxelenaren ikuspegia hobetsi dut, Irigoienaren eta Iglesiasenaren gainetik. Deklinabide mugatuaren berreraiketari dagokionez, baztertu egin dut inesibo singularrean Jacobsenek eta bere jarraitzaileek *-gan* osagaiaren gainean ondutako hipotesia, eta erakusleen gramatikalizazioaren arabera hipotesia proposatu. Orobat pluralean: leku-izenetako *-aga* eta deklinabideko *-ak* atzizkien arteko lotura berretsi dut; leku-kasuetako *-eta*-ren euskal jatorria aldarrikatu dut, Schuchardten hipotesi klasikoaren aurka; erakusleen gramatikalizazioaren ereduaren arabera azaldu ditut deklinabide mugatuko *-ek* eta *-en* atzizkiak ere. Proposamen orokor honek dituen bi ondorio nagusiren berri eman dut: batetik, pluraleko deklinabidearen azentuera azalpen bateratu baten pean ezarri dut, eta, bestetik, *-ak* eta *-ek* atzizkien harremanaren bidetik, pluralean absolutiboaren eta ergatiboaren artean bereizketa egiten duen sistema berrikuntza dela aldarrikatu. Azkenik, zenbait proposamen plazaratu ditut erakusleen berreraiketari buruz, deklinabide mugatuaren diakroniaz eginiko proposamenen menpekoak, betiere, bien arteko lotura ezinutzizkoa nabarmenduta.

Seigarren kapitulan, XVI. mendean artikulua nola erabiltzen zen deskribatu dut. Testuinguru sintaktiko jakin batzuen arabera egin dut deskribapen historiko hau: bokatioak, perpaus existentzialak, predikatuak eta subjektuak aztertu ditut. Horretarako, hirugarren kapitulan zehaztutako corpora izan dut oinarri, eta corpus horretako adibide esanguratsu guztiak bildu eta sailkatu ditut. Datu horiek eskutan, saioa egin dut, azaleratzeko zein diren funtzio sintaktikoen eta horiek betetzen dituzten sintagmen morfologiaren arteko korrelazioak; helburua izan da oinarrizko deskripzio lana egitea, baina, era berean, eman ere eman ditut izenen izaera semantikoaren eta sintagmen erreferentzialtasun mailari buruzko azalpen zenbait ere, esplikatzekeo sintagmen determinazioan deskriba daitezkeen aldeak.

Zazpigarren kapitulan, aurreko kapituluaren zehar-ondorio gisa, zenbait ideia garatu ditut, batez ere analisi morfologikotik aterak. Lehenik, aztertu dut zer esan nahi duen euskara hizkuntza eransle gisa sailkatzeak, deklinabide mugatuaren diakroniaren ikuspegitik, jakina. Bide horretatik, Himmelmannen orokortzearen barrenean kokatu dut

euskara, nahiz eta autore horrek salbuespen gisa ematen duen: joera unibertsal horren arabera, hizkuntza eransleek ez dute artikulurik izan ohi. Bigarrenik, ergatibitate erdibituaren hipotesia plazaratu dut, hau da, aldarrikatu dut euskara numeroaren araberako ergatibitate erdibitua duen hizkuntza gisa deskribatu behar dela, euskal datuak Silversteinen hierarkiaren barrenean kokatuta. Hirugarrenik, hainbat ohar egin ditut euskal hasperenak hegoaldean izan zuen iraupenaz, eta are XVII. mendera arte hasperenaren adibideak aurki daitezkeelako hipotesia aldeztu. Laugarrenik, hizkuntz ukipenaren teoria moderno zenbaiten barrenean euskarari buruz egindako proposamen batzuen kritika laburra egin dut.

Azkenik, zortzigarren kapituluan, tesi honen ondorio nagusiak laburbildu ditut.

BIGARREN KAPITULUA  
ARTIKULUAREN GAINEN AZTERKETA DIAKRONIKOEN  
GAURKO EGOERA

Kapitulu honetan, sailkatu eta bildu egin ditut euskal artikulua hizpide hartuta euskalarien lanetan eztabaidara ekarri izan diren gai eta arazoak; ezinbestean, deklinabidearen eta erakusleen gaineko hainbat auzi ere zerrendatu behar izan ditut. Bilketa lan honen izaera eta emaitza bi faktorek baldintzatu dute: (a) zein izan diren euskalaritzaren historian garrantzia hartu duten gaiak; eta (b) zein den tesi honen helburua, bereziki bosgarren eta seigarren kapituluetakoko berreraiketa eta proposamenetan islatzen dena.

Aurreko euskalarien ideiak ez dira bildu irizpide kronologikoen arabera, edo autoreka; gaika antolatu ditut, eta, zenbait azpiataletan, hurrengo kapituluetan emango zaizkien irtenbideak iragarri ditut. Artikuluaren —edo erakusleen— inguruko gairen bat edo beste bilketa honetatik kanpo geratu bada, arrazoia hau da: tesi honek ez du berariazko proposamen edo ideiarik plazaratu gai edo eztabaida horretaz.

Bi azpiatal nagusitan antolatu ditut euskalaritzaren jardunean azaleratutako arazo eta eztabaidak, eta hirugarren gai apalago bat ere bereizi dut. Lehenean, artikulua auzi morfologikoak ditut hizpide; bertan ematen ditut, orobat, deklinabideaz eta erakusleez esan izan direnak, eta, funtsean, berreraiketazko proposamenez eta gogoetabide diakronikoez osatua da. Bigarrean, artikulua erabilerak sintaxiaren ikuspegitik jaso duen arreta laburbildu dut; auzi honi bariazio diakronikoren zein diatopikoaren ikuspegitik egin zaizkion oharrak bildu ditut, baina, aintzat hartuta artikulua jokabidea aztertzen duten lan sinkronikoez auziari jarri izan dioten arreta, horietako zenbait ere bildu ditut, azterbide diakronikorako eta deskribapen historikorako lagungarri izan daitezkeelakoan. Bi atal nagusi horietaz gain, hirugarren atal bat ere bereizi dut, azken urteotan ukipenari buruzko zenbait teoria modernotan erabili baitira euskal artikulua —kasu honetan, *-a* artikulua definitua zein *bat* artikulua indefinitua

ere—; atal horretan, euskal artikuluz ukipenaren ikuspegitik esandako hainbat ideia bildu ditut.

Honenbestez, bosgarren eta seigarren kapituluetan modu bateratuan eta proposamen orokor bakarraren pean analizatu edo deskribatu diren auziak biltzea du helburu atal honek.

## A. ARTIKULUAREN MORFOLOGIA DIAKRONIKOA: AZTERKETEN EGOERA

### 2.1 *-a* morfemaren jatorriaz

#### 2.1.1 *Hipotesiak*

Hirugarren graduko (*h*)*ar* erakusle singularrari lotzen zaio, normalean, *-a* morfemaren jatorria; horixe da hipotesirik zabaldiena eta onartuena, cf., beste hainbaten artean, Duvoisin (1866: 9-10), Van Eys (s.v. a), Uhlenbeck (1910: 86), Gavel (*Gramm* §64), Lafon (1999: 167-171), Mitxelena (*FHV* 213), Irigoien (1981: 367). Ikus Azkueren aipu hau (*Morf* §435):

Así como del pronombre demostrativo latino *ille* han nacido los artículos *el* castellano y *le* francés, así del pronombre bizkaino *gizon a* aquel hombre (un tiempo, sin duda de toda la lengua) parece haber nacido el artículo *gizona* el hombre.

Cf. halaber Schuchardtena (1894: 127), ildo beretik doana, kasu honetan erakuslearen (*h*)*ar* forma aipatuta:

Wie im Romanischen der bestimmte Artikel aus dem Demonstrativpronomen *ille* entstanden ist, so im Baskisch aus dem gleichbedeutenden (*h*)*ar*, das dann sein *r* verloren hat, aber wohl erst in verhältnismässig später Zeit.<sup>76</sup>

XX. mendeko hasiera horretan artikularen jatorrian dagoen osagaia izenordain erakusle moduan izendatzen bada ere (*pronombre demostrativo, Demonstrativpronomen...*), badirudi erakuslea izenondo funtzioan egonik hasiko zela artikulua ezaugarriak hartzen,

<sup>76</sup> “Hizkuntza erromantzeetan bezala —non artikulua definitua *ille* erakusle izenordainetik sortua den—, euskaraz ere esanahi bereko (*h*)*ar*-etik sortu da artikulua, bere *r* galduta, baina ziur aski beranduxeagoko garai batean”.

hots, izenarekin batean osagai sintaktiko bat osatzen zuen funtzioetan; halaxe izan ohi da hizkuntza gehienetan (Diessel 1999: 25).

Morfemaren jatorriaz ez dago bestelako hipotesi sendorik, Mitxelenak toponimoetako *-aga* aipatzen badu ere: “mis ideas no son nada claras en cuanto a la relación posible de *-aga* con el artículo singular, cuyo origen demostrativo es bien conocido” (IX 281). Agian *Untzaga* > *Untzaa* > *Untza* bezalako adibideak ditu gogoan, baina, esan bezala, *ha(r)* erakuslearena da *-a* artikuluari aitortzen zaion jatorri bakarra.

### 2.1.2 Erakusle jatorriaren aldeko argudioak

Inguruko hizkuntzetan artikulua erakusletik datorrelako ideia onartua izan denez, euskaraz ere halaxe dela pentsatu izan da; Azkueren eta Schuchardten arestiko aipuek hori erakusten dute.

Mendebaldeko euskararen *a* erakuslearen eta *-a* artikulua arteko identitate formala ere argudio gisa erabili izan da, bien jatorria bat eta bera dela aldarrikatzeko.

### 2.1.3 Euskal artikulua noiz agertu zen. Hipotesiak

Aldaketa testuetan dokumentatua izan zein ez, ez da erraza halako kategoria gramatikal bat noiz sortu den zehatz erabakitzea, hain zuzen ere halako bilakaerak mailaz mailakoak direlako (ik. 1.1.7 atala). Funtsean, auzia enpirikoa da, artikulua historiaurrean edo garai protohistorikoan agertu baldin bada: lekukotasun sorta batean artikulua dagoela uste badugu, garai horretarako hizkuntza horretan artikulua definitua dagoela erabakitzen dugu —artikulu horren esparru gramatikal eta funtzional zehatza ezagutzeko aukerarik ez badugu ere—.

Bi hipotesi nagusi daude: batek artikulua gramatikalizazioaren hastapena Erdi Aroan kokatzen du, inguruko hizkuntza erromantzetakoekin batera; bestearen arabera, aldiz, euskarak bazuen artikulua antzinatean. Lehen hipotesia da onartuena (Trask 1997: 199).

### 2.1.3.1 Lehen hipotesia: euskal artikulua Erdi Aroan sortua da

Batez ere argudio hauek erabiltzen dituzte artikulua gramatikalizazioaren hastapena Erdi Aroan kokatzen dutenek: batetik, Erdi Aroko gertakari gisa ikusi ohi da inguruko hizkuntza erromantzeetan zein Europako beste hainbat hizkuntzatan (germanikoetan, esaterako) artikulua bilakaera (Haspelmath 1998: 274, 284), eta euskal artikulua sorrera testuinguru orokor horretan kokatzen da; bestetik, akitanierak erakusten duen egoeran, euskarak ez du, itxuraz, artikulurik. Honela dio Mitxelenak, lehen argudioaz ari dela (VII 556-557):

Las lenguas vecinas, con las cuales la nuestra forma una especie de *Sprachbund* o liga lingüística (de la cual nunca ha sido, en los dos últimos milenios, parte dominante), han desarrollado un art. def. [...] No es demasiado extraño que nuestra lengua, que pospone los demostrativos, etc., haya aceptado la innovación sin modificar el orden que le iba mejor, que le era más natural.

Cf. orobat Mitxelenaren beraren beste aipu bat (VII 301):

Es un lugar común de la lingüística histórica vasca la afirmación de que el artículo determinado es entre nosotros de introducción relativamente reciente, como lo es en las lenguas románicas o germánicas. Pero aquí, lo mismo que mucho antes en griego, su aparición es un hecho documentado mientras que en vasco se trata de una presunción más o menos plausible (más bien más que menos) referente a la prehistoria de la lengua. Lo que sí es un hecho plenamente histórico es su proliferación: durante los últimos siglos ha ido y va ganando posiciones en las cuales su empleo tiende a hacerse obligatorio.

Eta berariaz konparatzen ditu akitanieraren hizkuntz egoera eta Erdi Aroko euskararena (Mitx V 256):

Por lo que tiene de semejanza con lo aquitano, menciono también a *Emazteona*, esposa (vasc. *emazte* ‘mujer, esposa’) de *Eneco Arçreiz d’Azterain* en un documento navarro de 1189: que el nombre no era ninguna rareza lo demuestra *Emazteona de Guendulain* en el siglo XIII. Para el segundo elemento, cf. vasco. *on* ‘bueno’ medieval *Oña*, sobrenombre frecuente en Navarra, y acaso también el aquit. *-bon(n)*, *-pon(n)* en varios nombres. Entre las denominaciones aquitanas y las navarras hay una diferencia importante: el artículo, ausente en aquéllas, presente casi siempre en éstas. A lo que se cree, el artículo vasco no se constituyó, a partir de un demostrativo, sino en fecha relativamente reciente, aunque con anterioridad a los primeros testimonios medievales, paralelamente a lo que ocurrió en las lenguas románicas y algo más lejos en las germánicas.

Argudio hau Schuchardten ohar batekin osa daiteke (1899: 177), artikulua deklinabideko kasu guztietara zabaldu ez izana beronen izaera berantiarren lekuko moduan hartuz:



Der bestimmte Artikel hat sich im Baskischen wie in andern Sprachen verhältnismässig spät aus einem Demonstrativpronomen entwickelt, vielleicht nicht früher als im Romanischen, giebt es doch noch heute in der bestimmten Deklination Kasusformen die ihn nicht aufweisen.<sup>77</sup>

Badirudi Schuchardtek ablatiboa edo adlatiboa dituela burutan. Mitxelenaren esanekin jarraituz (VII 557), hona zer dioen berak bigarren argudio nagusiaz:

Por otra parte, aunque este testimonio sea manco por la escasez de testigos, no creo que haya ningún nombre de procedencia vasca (de persona, de lugar, de divinidad) que en época antigua pueda ser indicio de artículo: *-ilon-*, *Ilumberrri-* (Irumberrri, rom. Lumbier) no lo llevan, aunque sí aparezca en el ya medieval *Iruñea*.

Erdi Aroko lehen lekukotasunetik, alabaina, artikulua kategoria gramatikal ezarri modura agertzen da; hortaz, artikulua antzinatean Erdi Aroa doan tarte horretan agertua behar du izan.

#### 2.1.3.2 Bigarren hipotesia: antzinatean bada euskal artikulua adibiderik

Beste hipotesia antzinateko zenbait lekukotasunetan oinarritzen da; lekukotasun horietan, artikulua agertzen dela aldarrikatzen da. Albertosek (1972: 215-218) euskarazkotzat jotzen du Espainiako Extremadurako eskualdean harri gainean zizelkaturiko antroponimo bateko IBARRA osagaia, eta euskarazko *ibar* hitzarekin lotuz; Irigoienek (1986: 86) Albertosen lanetik abiatuta, akitanierazko ustezko APALONIS ere eztabaida berean kokatzen du, gradu hurbileko *-o* artikulua ikusten baitu hartan:

[L]o que, si realmente estaba relacionado con vasc. *ibar*,<sup>78</sup> nos conduciría a la cuestión de la antigüedad del artículo *-a* en lengua vasca, pudiendo situarse este hecho en convergencia con el de la aparición del de grado próximo *-o* para época romana, si tenemos en cuenta que en una inscripción aquitana se registra como patronímico la forma de genitivo *Apalonis* CIL, XIII, 187, a partir de *apal*, que después de haber perdido la vocal final *-e* de *ad ualle*, según tendencia románica de áreas en torno a los Pirineos, y ser pronunciado por hablantes protovascos como *apal*, recibe *-o*, declinándose después a la latina por exigencias del texto, y teniendo continuadores en la Edad Media [...]

Beste lan batean ere (1981: 388-389), ideia bera dakar: akit. ERGE DEO / ANDERES / SAPALONIS / F(ILIVS) V(OTUM) S(OLVIT) L(IBENS) M(ERITO) idazkunean (CIL XIII, 187), ANDERESS APALONIS zatitzen du, *Apalonis* latinezko genitiboa litzatekeelarik, *-o* erroko

<sup>77</sup> “Artikulu definitua, beste hizkuntza batzuetan bezala euskaraz ere aski berandu garatu da erakusle izenordain batetik, beharbada ez erromantzeetan baino lehenago, gaur egun oraindik ere bai baitira deklinabide definituan artikulua ez duten kasuak”.

<sup>78</sup> Beste lan batean ziurtzat du IBARRA hau euskal artikulua lekukoa dela: “Erromatarren denborarako [Ibarra] artikulua eta guzti dokumentaturik dago” (Irigoien 1995: 237).

izenei dagokiena; *Apalonis* hau Erdi Aroko *Apalo* (*DocArtaj* ~1173) izenarekin lotzen du, *Zailo*, *Ezquerro*, *Oquerro* eta abarrek bezala gradu hurbileko *-o* artikulua duena, bere ustez; dioenez, *Pero Appalloyz* bera (*PobNav* 1330) *Apalonis* genitiboekoaren jarraitzaile zuzena litzateke.

Iglesiassek (2000a, 2000b: 8-10, 2008: 37-61) aurreko bi autoreen lanak gogora ekarri eta beste bi ustezko adibide gehitzen ditu: Galiziako *Iria Flavia* leku-izena eta Valentziako GUDUA DEISDEA lekukotasun epigrafikoa.<sup>79</sup> Adibide hauek guztiak euskarak antzinatean artikulua bazuela frogatzeko ebidentzia ukazintzat jotzen ditu.

Hiru autore hauek, Irigoienek eta Iglesiassek, bereziki, argudio enpirikoak, hots, antzinateko lekukotasunak darabiltzate euskal artikulua antzinatean berresteko; badirudi Putzuk eta Ramatek ere (2001: 121) euskal artikuluari antzinatean hori bera aitortzen diotela, baina bestelako argudioak erabiliz: euskal artikulua tipologiarena (gramatikalizazio maila altuaz ari direla dirudi) eta hizkuntzaren izaera gordetzailearena.<sup>80</sup>

## 2.2 Sintagma artikuludunen zenbait ezaugarri

Atal honetan sintagma artikuludunen zenbait ezaugarri gogoraraziko ditut, bereziki datu edo analisi historikoren baten berri eman baldin badezakete.

### 2.2.1 -a morfemaren eta -a-dun sintagmen ezaugarri fonetikoak

Jatorrizko *ha(r)* erakusleak<sup>81</sup> artikulutasunak hartu eta izen sintagmari lotzearekin, hainbat fonetismo gertatu dira izenaren eta artikulua artean; hizkeraren eta deklinabide kasuaren arabera epentesiak eta asimilazio/disimilazioak ditugu; esaterako,

<sup>79</sup> Iglesiassek iradokitzen duenez, Van Eysek dio antzinatean euskaraz ez zela artikulurik, baina ez dut horren aipurik aurkitu. Silgok, bestalde, onartzen du ustezko KUTUA horren *-a* bukaerak ez duela zertan artikulua izan, eta proposatzen du “desinencia causal” bat izan daitekeela (2002: 62); ez dago argi nola lot daitekeen hau oraingo edo antzinako euskal gramatikaz ezagutzen dugunarekin.

<sup>80</sup> Honela diote Putzuk eta Ramatek: “[T]he typology of the definite article as well as the isolated and highly conservative nature of the language, seem to exclude that this may be an acquired feature”. Ez dut ongi ulertzen, dena den, zer eragin izan lezakeen hizkuntza isolatua izateak horrelako bilakaeretan, eta zertan datzan hizkuntzaren “conservative nature” hori.

<sup>81</sup> Schuchardtek (*h*)*ar* du emana (ik. goian), eta *ha(r)* ematen dut hemen: hastapeneko hasperena ziurtzat jotzen dut; ez, ordea, amaierako *-r*. Ik. 5.5.2 atala.

*-u-* edo *-i-* ondoko *-a > -e* asimilazioa (*laguna/lagune*) edo kontsonante epentetikoak *-i* edo *-u* amaiera duten hitzekin (*buruba/mendixa*).

Absolutibo singularrari eta pluralari dagozkien gertakari hauen guztien zerrenda xehatua dakarte Hualdek eta Gamindek (1998); aipagarria da, halaber, De Rijken lana (1970), fonetismo horietako zenbaiten arteko kronologia erlatiboa ezartzeko egiten duen saioarengatik.<sup>82</sup>

Lan hauetan zerrendatzen diren hainbat fonetismok itxura modernoa dute, oro har. Beste batzuk, ordea, antzinagokoak izan daitezke, eta badirudi tartean fonetismo hutsez besteko fenomenoak daudela: absolutibo singularrean *-a* berezkoa duten hitzekin gertatzen da horietako bat (xehetasunak gorabehera, absolutibo singularrarerako *neska + -a* sintagman *neskea* forma disimilazioduna dago mendebalde-erdialdean, *neskaa/neska* asimilazioduna erdialdean eta *neská* azentuduna ekialdeko muturrean). Halaxe dio Mitxelenak, mendebalde zabaleko gertakariaren kronologiaz (IX 281, 12 oh.):

No faltan en Alava, ni mucho menos, muestras de *-agea*, *-etea*, de *-aga*, *-eta* más el artículo *-a*. Se diría que son más bien recientes, como también *-ea- < -aa*, en junción en el tipo vizcaíno *Olea*, *Oleaga* (*Olaga* en Iranzu), *Ansoleaga*, etc., pero *Capanaga*. *Elhorzahea*, 1025, mod. *Elorza* (cf. nav. *Elorçe ibar* en 1095), está demasiado aislado para excluir la posibilidad de un error o errata. *Padura* será indeterminado, al igual que rom. *Padul*, ambos también en 1025.

Erdi Aroko agirietan antzeman daitezke fonetismo eta fenomeno morfonologiko hauetako askoren zantzuak; ez dut egin azaleko fonetismoen azterketa sistematikorik, berreraiketarako ezer berririk ekartzen ez dutelakoan, baina berariaz begiratu zaie bilakabide morfonologikoen lekukotasun izan daitezkeenei;<sup>83</sup> ik. Manterola (2008), eginbehar horretan egindako saio baterako.

Badira, gainera, absolutiboaz besteko kasu edo postposizioetan interesgarriak diren gertaerak, gertaera fonetiko hutsak ez direnak eta informazio morfologikoa eman diezaguketenak: inesibo singularreko *-e-* epentetikoa (abs. *lan* / ines. *lanean*), ergatibo eta genitibo pluralean mendebaldearen eta ekialdearen arteko aldea (mendebaldeko erg. *lagunak* / gen. *lagunan*, *lagunen* eta ekialdeko erg. *lagunek* / gen. *lagunen*) eta

<sup>82</sup> Analisi sinkronikoan ari bada ere, De Rijkkek hurrenkera erlatibo jakin batean antolatzen ditu fonetismoak, eta berdin balio lezake diakronistaren ikuspegitik.

<sup>83</sup> Adibidez, 4.4.2.2 (c) atalean, saiatu naiz argudiatzen *Elhorzahea*-k ez duela zertan errata izan.

halakoak, euskal historiografian eztabaida piztu izan dutenak. Horiei arreta berezia emango zaie; ikus deklinabideari dagokion 2.4 atalean.

### 2.2.2 -a morfemaren eta -a-dun sintagmen ezaugarri morfosintaktikoak

Euskal artikulua definituaren bi ezaugarri adierazgarri nabarmendu izan dira maila deskriptiboan, eztabaida handirik gabe: izen sintagmaren ondotik ageri da, eta sintagma bakoitzean behin baizik ez da ageri; ikus (1)-eko adibideak. Izen sintagmaren egiturari buruzko xehetasun gehiagorako eta artikulua hartan behin baizik ezin ager daitekeela erakusten duen deskripzioaren historiografiarako (Larramendi eta Gèze aipatzen dira, besteak beste), ik. Zubiri (2000: 369-375).

- (1) a. *gizon handi-a*  
 b. *el hombre grande*  
 c. *le grand homme*

Bi ezaugarri hauetan euskarak inguruko hizkuntzek ez bezala jokutzen duela deskribatu ohi da; lehen ezaugarriari dagokionez, adibidez, gaztelaniak, gaskoiak eta frantsesak, besteak beste, izen sintagmaren aurretik dute artikulua (1b, c). Bigarren ezaugarriaz, hala ere, ohar bat egin daiteke: inguruko hizkuntza hauetan ere, artikulua behin baizik ez da ageri sintagma bakoitzeko, euskaraz bezalaxe; hizkuntza hauetan, plural marka da sintagmaren elementu bakoitzean agertzen dena (2b, c); euskarak behin agertzen du, artikuluekin batera (2a):

- (2) a. *gizon handi-ak*  
 b. *los hombre-s grande-s*  
 c. *les grand-s homme-s*

Honen funtsean, maiz aipatutzen den ezaugarria dago: euskaraz izen sintagmen pluraltasun morfologikoa (numero morfologikoa, zehazkiago esanda) artikulua bitartez baizik ezin da gauzatu. Honek inplikazio sakonak ditu bi esparrutan: hizkuntzaren berreraiketan, pluraleko ageriko morfologiarik gabeko egoera iradokitzen baitu artikulurik ez zen garairako (ik. behean, deklinabideari dagokion atalean), eta bere

sailkapen tipologikoan, ezaugarri ez-eranslea baita morfema zatiezin batek bi balio izatea —numeroa eta definitutasuna— (ik. 7.1 atala).

### 2.2.3 *Bi eta hiru graduko artikulak sistemak*

Ohartarazi izan da euskara historikoan artikulak bat baino gehiago dagoela (ik. Azkarate eta Altuna 2001: 25): *ha(r)* erakusle urrunetik eratorritakoaz gain, hor daude beste bi graduetako erakusleetatik eratorriak:

- (3) a. Leiz Luc XV: 13 *seme gaztenor* (*seme gazteen + haur*)
- b. Etxep 1: 93 *gorpuzori*
- c. Lazarg AL: 1152v *ceure buruori*
- d. Urrexola *odolori*

Singularreko adibideak ditugu aurrekoak, *haur* eta *hori* erakusleetatik eratorriak; beste kasuetan ere agertzen dira, genitiboan eta datiboan, esaterako (*-orren, -orri...*). Erdi Aroko zenbait lekukotasun ere (*Apalo, Ezquerro...*) gradu hurbileko artikulutzat jo zituen Irigoienek (1981: 385-389); Mitxelenaren ustez, erromantzezko maskulino/femenino alternantziari dagozkio, ez euskararen morfologiaren barreneko auzi bati (cf. *Anso/Ansa*; IX 525).

Badirudi *-ok* artikulak plurala ere garai batean euskal eremu osokoa zela, egun mendebaldean baizik gordetzen ez bada ere:

- (4) a. Etxep 7: 18 *bioc*
- b. Lazarg AL: 1143r *llantu dolorosooc*

Singularretan bezala, artikulak plural hurbil hauek ez dira absolutiboan eta ergatiboan agertzen: *-on* genitiboa eta *-oi* datiboa ere badaude, besteak beste.

Mitxelenak gogorarazten duen bezala (VII 231), singularreko formen artean inesiboak bat egiten du pluralezkoekin, bi gradu baizik ez baitira bereizten: *-an/-on* (cf. *bereon/berean*).

Datu hauen inguruan eztabaida inportantea izan da, artikulua sistema honetatik erakusle sistemak izan zezakeen gradu kopurua berreraiki nahi izan baita; ikus 2.3.4 atala.

Artikulu sistema honetaz hainbat ohar egin izan da: ez da zalantzarik izan erakusleak artikuluen jatorri moduan ikusteko eta monoptongazioak (*haur* > *-or*, *hau(e)k* > *-o(e)k*, *hau(e)n* > *-o(e)n...*) eta leuntze fonetikoak (erakusleetako hasperenaren galera) prozesu horretako ezaugarri moduan deskribatzeko (Mitx VII 229-230). Hurbileko artikulua singularrek hartzen dituzten balioez denaz bezainbatean, gogora ekarri izan da *-or/-au* eta *-ori* formen artean ez dela maiz ongi bereizten balio deiktikoa (Mitx VII 231); *-ok* artikulua pluralari dagokionez, Mitxelenak ohartarazten gaitu 1. zein 2. pertsonetarako balio inklusiboa duela, eta gogorarazten *apaizok* sintagma, adibidez, anbigua dela eta ‘gu apaizok’ zein ‘zuok apaizok’ adierak har ditzakeela; era berean, izen sintagman markatua dagoen pertsona, lehenengoa edo bigarrena, aditzean ere kodetua ageri da maiz (Mitx VII 232).

#### 2.2.4 Bizkaierazko artikulua sistema berregituratua

Egungo bizkaieraz ere bada artikulua sistema hirukoitz moduko bat, erakuslea sintagma artikuludunaren aurrean ezartzen duena; berria dela ongi azaltzen du Mitxelenak (VII 229-230):

El proceso de éncclisis parece que se vuelve otra vez a producir en el vizc. de nuestros días. Cf. *Apuntes vizcaínos* I, 126, n. 44, a propósito de *orí aníllu ori*: “Si el demostrativo sigue al sustantivo, suele perder el acento tónico y hacerse enclítico...”.

Bizkaierazko XVI. mendeko testuetan ez dago halako egitura bikoitzen adibiderik, eta, dirudienez, mendebaldeko hizkera zenbaiten berrikuntza da. Irigoienek (1981: 367) auziaren ikuspegi bertsua ematen du:

[...] \**har* como elemento más antiguo, en cuyo caso (*h*)*ura* se explicaría partiendo de la base de que se trata de una forma reforzada por efecto de la tendencia a la degradación de (*h*)*a(r)*, sobre todo al ser definitivamente utilizado este último en posición enclítica con valor de artículo, de una manera semejante a la que en castellano, pongamos por caso, *aquél*, *aquella*, etc., son formas reforzadas de *él*, *ella*, etc., artículos *el*, *la*, etc., reforzamiento que no se produjo en vizc., por lo que en este dialecto el uso reduplicado, poniendo el tercero u otro grado delante del sintagma nominal, sin perjuicio de que reciba detrás el artículo concordante o el de tercer grado, que puede funcionar sin marca de grado, ha tenido un particular desarrollo en la lengua hablada. Cfr. ya el siglo XVII en VJ: *onec amar Mandamientuoc*, o en la actualidad *orréri gisonorri*, dat. en

Murélaga, *orréri gisonori*, id., en Lequeitio, o más generalmente *orréri gisonorreri*, así como *orréri gisonari*, íd., general, o a *gisona* 'aqueel hombre', en lugar de *gizon (h)ura* de otras áreas, opuestas ambas a *gizona* 'el hombre'.

Zehaztapan aipagarri bat egiten du Irigoienek: hirugarren graduko erakuslea berregituratu ez izana (*a*, ez *hura*) da, bere ustez, egitura bikoitzen erabilera orokortzearen arrazoi nagusia.

### 2.3 Erakusleen berreraiketa

Atal honetan, artikulua eta deklinabidearen eztabaidatik sorturiko zenbait auzi ekarriko ditut gogora. Erakusleen beste alderdi batzuk ez dira aztertuko, beren berreraiketarako esanguratsuak ez direlakoan: cf. *horiak*, *horiek*... formei dagokien eztabaida (Irigoien 1978), edo Kardaberaz, Tartas eta besterengan aurki daitekeen *oek* eta *oiek* formen arteko itxurazko nahasmenari dagokiona (Irigoien 1978: 717, 1981: 370-371).

#### 2.3.1 Erakusleen ezaugarri fonetiko-fonologikoak

Euskal erakusleen berreraiketan hastapeneko hotsaren izaerarena izan da gai nagusietako bat. Euskalkietako datu historikoek egoera hau ematen digute, gutxi gorabehera: hegoalde zabalean, erakusleek ez dute hastapeneko kontsonanterik (*au*, *ori*, *ura*); hego-nafarreraz (Aezkoa barne) *g*- herskari ahostuna da hastapeneko kontsonantea (*gau*, *gori*, *gura*); Zaraitzun eta Erronkarin *k*- herskari ahoskabea dugu (*kau*, *kori*, *kura*); Ipar Euskal Herrian, hasperena (*hau*, *hori*, *hura*). Nolanahi ere, herskaria duten hizkeretan, badira zenbait izenordain herskaririk gabeak: cf. aezk., zar. eta erronk. *ura*, edo erronk. *ori* errespetuzkoa. Lizarragak, berriz, erakuslea izenordain gisa erabiltzen duenean, herskaririk gabe agertzen du (*au*, *ori*, *ura*, *ontan*, *artan*, etab.), eta, izenondo bezala erabiltzen duenean, herskariarekin (*mundu-gontrara*, *egun-gartan*, *goatze-goi*, *mai-goi*, etab.); ik. Lafon (1999: 720-721) eta Mitxelena (FHV 247).

Bariazio dialektal honen inguruan ikuspegi bat baino gehiago izan dira: Mitxelenak (V 33, 13 oh.; VII 150, 62 oh.), adibidez, erakusleek jatorrian herskaria zutela proposatzen du, eta, herskari hori ahostuna ala ahoskabea zen argitu gabe,

zerrendan ematen ditu beste pasarte batean (VII 632, ik. halaber *FHV* 247) herskari horren galeraren eta gordetzearen testuinguru sintaktiko posibleak:

Una de las particularidades más conocidas del ronc. es la oclusiva dorsal sorda inicial de sus demostrativos: R *kaur, kori, kura*, Sal. *kau, kori, kura*, A (y AN mer.) *gau, gori, gura*, frente a S *háu, hó(r)i, húra*, G *au, ori, ura*, etc. La oclusiva aparece también en los adverbios demostrativos R *keben, kemen* ‘aquí’, *kor* ‘ahí’, *kan* ‘allí’, *kala* ‘de aquella manera’, etc., Sal. *kemen, kor, kan, kala*, A *gen, gemen, gor, gan*, S *hében, hór, hán, hála*, así como en R *kain, kainbat* ‘tan, tanto’, Sal. *kain, kainberze*, A *gein, geinbertze*, y sin duda en sus derivados R *bikain, bikala*, Sal. *bezain, bezala*, A *bezein, bezela*, S *bézañ, bezála*. Pero existe además en aezc., sal. y ronc. un pronombre *ura* ‘él’, personal de 3.<sup>a</sup> pers. y anafórico, que “no es jamás un adjetivo demostrativo” (Bon. *Études* 21), así como también el ronc. *ori* ‘usted’ (= G *berori*). Se puede pensar con Lafon (*Word* 7, pp. 239-240) que las formas adjetivas van reforzadas con un prefijo de carácter epidíctico o bien, y esto me parece preferible, que su distinta posición en la cadena hablada haya producido dos evoluciones divergentes, pérdida en las formas autónomas y conservación en las apoyadas en un sustantivo precedente: cf. (*h*)*ume / emakume*.

Traskek (1997: 198), bestalde, beste aukera bat ekartzen du gogora, esanez zenbait autoreren arabera herskari gabeko formak direla zaharrenak, eta herskaridun formak nolabaiteko indartze baten ondorioz sortutakoak direla. Castañosek (1979: 108-110) auziaren laburpen historiografikoa egiten du, Bonaparteren, Schuchardten, Uhlenbecken, Gavelen eta Lafonen ideiak bilduta; Castañosek berak ez du datu erabakigarriarik ikusten aukera baten edo besteren alde egiteko, baina, haren ustez, jatorrizko formak kontsonanterik gabeak (ez hasperen, ez herskari) izan zitezkeen (aezkerazko *g*- protetikotzat jotzen du esplizituki, 1979: 96).

### 2.3.2 Erakusleen barne morfologiaz

Badirudi historiaurreko edo, hobeki esanda, protohistoriako zenbait aldatetaren zantzuak ditugula egungo euskalkiek ematen dizkiguten datuetan. Bost auzi nagusi zerrendatu daitezke: (a) hirugarren graduko erakusle singularrena, (b) hirugarren graduko erakusle pluralena, (c) mendebaldeko lehen eta bigarren graduko erakusle pluralena, (d) zenbait hizkeratako lehen eta bigarren graduko erakusle pluralen homofoniarena, eta (e) hastapenean *a*- duten mendebaldeko erakusleena.

- (a) Hirugarren graduko erakusle singularrari dagokionez, hona aldaeren banaketa dialektala: mendebaldean *a* da bere forma eta erdialdean eta ekialdean *ura/hura/gura/kura*; mendebaldeko eta erdialdeko zenbait hizkeratan *aura* forma



ere aurki daiteke. Mendebaldekoa jo izan da jatorrizko formatzat, besteak beste *-a* baita artikulua definituaren forma orokorra (ik. 2.1.1 atala); erdialdeko eta ekialdeko *ura/hura/gura/kura* formak berregituratutako formatzat jo izan dira, nahiz eta ez den inoiz eman forma honen bilakaeraren azalpen erabatekorik. Bi eremu nagusien arteko *aura* forma *ara ura* esapidearen laburtze gisa azaltzen du Mitxelena, zuzenean ez bada ere (VII 217-219), baina Irigoien ez dago ados: *haur + (h)a(r)* analizatzen du berak (1981: 392-393).

- (b) Hirugarren graduko erakusle pluraletan bi aldaera-talde nagusi hauek daude: mendebalde-erdialde zabaleko *æk, aen, aetan* formak (eta bere aldaerak), batetik, eta ekialde zabaleko *(h)ek, (h)en, (h)etan* formak, bestetik. Ez dut hemen forma hauen guztien banaketa dialektala xehakatuko; aipagarria da lehen taldearen hedadura, ia euskal eremu osoa hartzen baitu (cf., besteak beste, Etxep *haiek, heiek* eta Leiz *haiék*);<sup>84</sup> *(h)ek* taldea ekialdekoa da gaur, Nafarroako Malerreka ibarreraino gutxienez iristen dena. Hastapeneko kontsonantea gorabehera (ik. 2.3.1. atala), barne egitura da bi talde hauen bereizgarri nagusia: batzuek bi silabako oinarria dute, besteak bakarrekoa.

Normalean bi silabako oinarria duten erakusleak hartzen dira forma osotzat, eta *hek, hen, hetan* bezalakoak haien forma laburtutzat. Honela dio Gavelek: “les unes sont obtenues à l’aide d’un radical *hai-*, (qui paraît être un état plus primitif de la variante labourdine *hei-*), et les autres présentent un radical réduit à *he-*” (*Gramm* §110); eta orobat azaltzen du Larrasketek (s.v. han-hetan), *hetan* formak *haie-ta-* duela jatorrian; berrikiago, Traskek (1997: 200) *haiek* edo *haik* formen laburtze gisa aurkezten du *hek* forma; cf. halaber Altunak eta Azkaratek (2001: 18) proposatzen duten *haek > haiek > heiek > hek* bilakaera. Irigoienek ez du bere jarrera garbi agertzen: badirudi, inoiz, forma *-e-*dunak zaharragozat jotzen dituela (1981: 368-370), eta, *kek* erronkarierazkoa *hek* orokorrigoaren ondoan jarrita (1975: 170), esplizituagoa ere bada iritzi horretan. Baina ikuspegi hau ez du kasu

<sup>84</sup> Altunak eta Azkaratek (2001: 15) ez dute *haiek* formarik bildu Leizarragarengan, baina baditu halakoak: cf. adibidez Luc XXIII *Christ Apostoluac benedicaturic, cerurat igaiten, eta hayéc adorutzen* eta Thess I *Hayéc hura tribulationerequin recebitu*; bi adibideak kapituluaren izenburuetan daude.

guztietara zabaltzen, eta Etxepareren *heyen* azaltzeko *\*heg-en* proposatzen du (1978: 716): *hek* ergatiboaren gainean osatua dago, itxuraz. Maisterren pluraleko *hen* genitiboa eta *her* datiboa azaltzeko, berriz, tarteko [j] hotsik sortu gabe bakarrean laburtu diren bi bokal ikusten ditu oinarrian, *-e-e-* > *-e-*.<sup>85</sup> Gavelek (1921: 344), berriz, *hekiek* bezalakoak ikusten ditu *heiek* bezalako formen jatorrian, eta tarteko *-k-* horren “mututzea” iradokitzen (1921: 344). Duvoisinek (1866: 10) modu argian aurkezten du ikuspegi hau:

Par l'effet d'une particularité qui atteint plusieurs pronoms, presque tous les dialectes ont donné la même articulation à ces deux cas [ergatibo eta absolutibo pluralak]: le biscayen *aek*, le guipuscoan *ayec* (y euph.) le labourdin occidental *hekiek*, le navarro-labourdin *hek*, etc. (Voir § VII.) Le biscayen ayant gardé les formes primitives, fait donc *aek*, *aen*, *aei*, etc. Tandis que d'autres dialectes séparaient ces voyelles par des consonnes euphoniques, le navarro-labourdin en *niz*, les contractait, au contraire, en *haek*, qu'on a écrit *hek*. C'est aussi la méthode que tous les dialectes ont suivie quand le pronom se postposant aux radicaux substantifs, leur fournit les articulations du mode défini de la déclinaison.

Eta pluraleko deklinabidearen diakroniarekin lotzen ditu, gainera, fonetismo hauek; kronologia erlatiboak ere ematen ditu (1866: 39):

La syncope dans le pronom du troisième degré [*haek* > *hæk* > *hek* bilakaeraz ari da] doit dater d'une haute antiquité, puisqu'elle a pénétré dans la déclinaison où elle est très-généralement observée. C'est à cette cause qu'il faut attribuer la conservation du paradigme unique de la déclinaison.

Autore hauen guztien artean Castañosen ideiak bereizi behar dira, izan ere jatorrizko formak *-e-* soilekoak direla proposatzen baitu: “[P]odríamos suponer que las formas en (h)e- no son [...], como la teoría tradicional [cree], resultado de contradicciones [“contracciones” esan nahi du]” (1979: 91). Castañosen hipotesiaren barrenean *e* morfema balio pluraleko forma autonomo moduan bereizten da (cf. aditz morfologian *du-e*, *zai-e*, etab.), eta horretan oinarritzen du bere proposamena; bere ustez, *haiek/heiek* eta halakoetan *-i-* epentetikoa da, ez da jatorrizkoa; Lapurdi aldeko *hekiek*, *hekien* eta beste *hek* formaren gainean “berriki” eraikitakoak lirateke (1979: 110-115). Auzi horiek zehazturik, erakusleen berreraiketa bat proposatzen du, erakusleetako pluraltasunaren

<sup>85</sup> Deklinabidean ere hala gertatzen da, Irigoienek arabera: “las cuales se reducen a una sola, como generalmente en la declinación o en el ergativo plural de palabras terminadas en *-e*” (1981: 371).

adierazpen morfologikoa zertan den argitu nahian, lehen eta hirugarren gradukoetan jarriz arreta bereziki; bide horretatik pluraletako *-k* jatorriz ergatiboarena dela argudiatzen du (1979: 101-108). Bere hipotesiaren alde ematen dituen argudioen eta erakusleen formaz egiten duen berreraiketaren balioa gorabehera (1979: 92-117), Castañosen ideiak interesgarriak dira, besteak beste etengabe saiatzen delako deklinabidearen eta erakusleen morfologia elkarri lotzen.

- (c) Lehen eta bigarren graduko erakusle pluraletan bada bereizketa dialektal nagusi bat: mendebalde hertsian *hone(e)k*, *horre(e)k*, *hone(e)tan*, *horre(e)tan* eta abar erabiltzen dira —Lazarraga, adibidez, eredu honetatik kanpoko da; ik. Mounolek onduriko gramatika—, eta beste eremu guztietan *hauek*, *horiek*, *hauetan*, *horietan*. Mendebaldeko pluraleko forma horien oinarrian singularreko kasu gehienetakoak diren *hon-*, *horr-* ikusten dira (Trask 1997: 200). Castañosen ustez (1979: 90), mendebaldeko sistema berriagoa da, deklinabideko *-ok* orokorra dela kontuan hartuta.
- (d) Zenbait hizkeratan, lehen graduko erakusle pluralak (*h*)*oiek* izatera iritsi dira (< (*h*)*oek* < (*h*)*auek*), eta bigarren graduko zenbait erakusle modernorekin homofono suertatu ((*h*)*oiek* < (*h*)*oriek*). Altunak eta Azkaratek (2001: 18-20) egoki biltzen dute eztabaidagai hau, eta erakusle sistemaren jatorrizko gradu kopuruaren inguruko eztabaidari sarrera ematen diote.
- (e) Mendebaldean, *amen*, *aor*, *aona* edo *aulan* bezalako formak aurki daitezke, hasierako *a-* batekin. Azkuek dioenez (s.v. a), bigarren eta lehenengo graduko erakusleen aurrizki gisa erabil daiteke, intentsitatea adierazteko; talde berean aipatzen ditu itxuraz behintzat erakusle ez diren *aorain* eta *aon* ere. Zerrendatu ditugun hiru auzien aldean, baina, ez dirudi honako hau historiaurreko bilakaera bati dagokionik: Mitxelenak erakutsi zuen bezala (VII 213-227), halako formen adibiderik ez da testu zaharretan, eta bestela ere ongi dokumentatuak dauden *ara-emen*, *ara-or* bezalako esapideen bitartez azal daitezke (ik. goian *aura*); Irigoienek ere (1981: 393-398), xehetasunak xehetasun, bat egiten du Mitxelenaren proposamenarekin, nahiz eta *aor* azaltzeko *haur-*etik abiatzeko aukera aipatzen duen.

Erakusleen barne morfologiaren auzi hauek ez dira denak maila berekoak berreraiketarako, eta banaketa dialektal batzuek besteek baino informazio gehiago ematen dute horretarako, antzinagoko eta sakonagokoak direlako; ik. 5.5 atala.

### 2.3.3 Erakusle pluralen ergatiboko eta absolutiboko formak

Aurreko atalean zerrendaturiko bost auziei beste bat ere gehi dakieke, Castañosek honela laburbiltzen duena: “En los escritores antiguos lo habitual es la no distinción entre nominativo y activo de los pronombres demostrativos, aunque tengan esa distinción en el nombre” (1979: 104). Hots, ekialdeko hizkeretan izen morfologian dagoen bereizketa (abs. pl. *-ak* baina erg. pl. *-ek*) ez dago erakusleenean, forma ezberdinen ugaritasunak (*heiek, hek, haiek, etab.*) horretarako aukera eman bazezakeen ere. Ezaugarri hori, itxura denez, zabaldua eta zaharra da, eta, zenbait autoreren erabilera gorabehera (ik. jarraian), hala proposatu izan da euskara baturako ere.

XX. mendeko zenbait gramatikatan, erakusle pluraletan ergatiborako eta absolutiborako forma bereziak dituzten hizkerak deskribatu izan dira. Gavelek (*Gramm* §110-112) lapurteraren erakusle sistema taulatan ezartzen du, honela (ergatiboari eta absolutiboari dagozkien formak baizik ez ditut emango):

	Absolutiboa	Ergatiboa
Lehen gradua	<i>hauk</i>	<i>haukiek, hauiek</i>
Bigarren gradua	<i>hoik</i>	<i>horiek, hoiek</i>
Hirugarren gradua	<i>hek</i> (zub. <i>hurak</i> )	<i>hekiek, heiek</i> (zub. <i>haiék, hek</i> )

1. taula. Lapurteraren erakusle sistema, Gavelen arabera.

Ageri denez, formaz bereziak dira absolutiboko eta ergatiboko erakusle pluralak; zubereraz, gainera, beste modu batean egiten da bereizketa hori hirugarren graduko erakusleetan (horretan bat egiten du erronkariarak zubererarekin: abs. *kurak*, erg. *kek*). Antzeko datuak dakartza Lafittek ere (1944: §181).

Testu zaharrei begiratuta, ez dirudi erakusle pluraletan ergatiboaren eta absolutiboaren arteko bereizketa hori, inondik inora, orokorra zenik. Hala ondorioztatzen du Altunak (1978), Etxepare, Axular, Oihenart, Leizarraga, Larramendi eta Lardizabalen testuak arakatuta; orobat Altunak eta Azkaratek (2001: 14, 9 oh.). Oihenartek baizik ez du egiten bereizketa sistematikoa hiru graduetan (Leizarragak

baizik ez ditu bereizten bigarren graduko abs. *horiak* / erg. *horiek*). Bereizketa egiten duten sistemen egonkortasun ezaren adierazgarri da zubereraren kasua: Oihenartek abs. *hek* / erg. *heiek* bereizketa duen sistema darabil hirugarren graduan, gaur egun zubereraz dagoenaz bestelakoa; badirudi *hek* forma absolutiboa zela eta ergatiboa dela gaur egun.

5.3.1, 5.3.2 eta 5.5.5 ataletan absolutibo eta ergatibo pluraleko bereizketa hau ekialdeko hizkeretako berrikuntza dela argudiatu dut, eta euskara baturako onarturiko deklinabideko abs. *-ak* / erg. *-ek* bereizketa berria dela.

#### 2.3.4 Erakusle sistemaren berreraiketa: bi gradukoa ala hirukoa?

Aurreko atal batean (2.2.3) artikuluez esandakoarekin estu lotuta, erakusleen berreraiketari izan den eztabaidarik mamitsuena “jatorrizko” erakusle sistemaren gradu kopuruaz arduratu da. Azkuek eta Irigoienek, zein bere argudioekin, bi graduko erakusle sistema zahar baten alde egiten dute, eta Mitxelenak, hala izan daitekeela aitortuta ere, ez du arrazoirik ikusten hala izan behar duenik pentsatzeko, eta aski du hiru graduko sistema aztergai dituen arazoak argitzeko;<sup>86</sup> Mitxelenaren iritziarekin bat egiten du Schulzeren orokortzeak: “There is no reason to assume that a proto-language operated through a deictic system less differentiated than in its daughter languages” (2003: 293).

Honela formulatzen du Azkuek bere ustea hiztegian (s.v. a), eta ideia bera dakar bere *Morfología Vasca* lanean (Morf: §650):

Creo que nuestros demostrativos son en rigor dos: *a* el lejano, *o* el próximo. La mayor ó menor proximidad se indica agregando *n* ó *r* á esta *o*. [...] Para mí el paciente actual de primer grado *au* no es más que el intensivo *a* agregado al demostrativo próximo: *ao*, *au*.

Lehenengo eta bigarren graduko erakusleek, beraz, *o* dute oinarri: *n* gehituta lehen gradukoak ditugu, *on-* oinarri hartuta osatzen direnak (*au* absolutiboa, baina, *a* aurrizki intentsiboarekin osatzen da); *r* gehituta bigarren gradukoak ditugu, *or-* erakoak. Bestalde, *biak/biok* eta *bertan/berton* esapideak bi graduko sistema zaharraren ebidentzia gisa aurkezten ditu Azkuek. Proposamen honi kritika egiten dio Mitxelenak (VII 227-234); 2.3.2 (e) atalean esan bezala, ongi erakusten du ustezko *a-* intentsiboa

<sup>86</sup> Duvoisinek ere (1866: 38) hiru graduko erakusle sistema ikusten du jatorrian, *hu*, *ho* eta *ha* erroetan oinarritua.

garai historikoko bilakaera dela; horren bidetik, *au* eta *aorrantz* formetan ageri den ustezko *a-* intentsiboa ezin dira garai berekoak izan. Funtsean, Irigoienek ere bat egiten du Mitxelenaren kritika honekin (1981: 393-394).

Irigoienek bestelako argudioak ematen ditu jatorrizko bi graduko sistema baten alde. Besteak beste, bigarren graduko *hori* singularra lehenengo graduko *haur-i* erakusle datiboaren forma dela aldarrikatzen du; hots, bigarren graduko erakuslea lehenengokoaren eratorria baizik ez dela (1978: 714); bestalde, badirudi hipotesi horren aldekotzat duela deklinabideko *-ok* (< *hok*) formak lehenengo eta bigarren graduko balioa izatea ere (1978: 715);<sup>87</sup> orobat zubererazko *haur* erakusle aurkeztailea (1981: 376). Kardaberatzengan aurki daitekeen *oek* eta *oiek* formen arteko “nahasmena” ere eztabaida berean kokatzen du Irigoienek (1978: 717, 1981: 370-371). Hauek guztiak hala izanik ere, batzuetan zail gertatzen da jakitea Irigoien bera zein sistemaren gradu kopuruaz ari den, artikulatu-sistemarenaz ala erakusle-sistemarenaz; 1981eko artikulatuaren amaieran, ideiak laburbiltzean, adibidez, bi graduko *artikulu sistema* jotzen du jatorrizkotzat, baina ez du deus zehatzik aipatzen erakusle sistemaren gradu kopuruaz. Hona bere hitzak (1981: 399):

De toda esta exposición creo que debe sacarse como conclusión que en lengua vasca los pronombres personales de primera y segunda persona no necesariamente van paralelos, históricamente hablando, a los grados de los demostrativos y que el sistema de *dos grados del artículo es lo primitivo*. El de tres que aparece en el singular, a mi juicio posteriormente, se debe a que la acción de los demostrativos libres en lo que se refiere a su tendencia a la éncclisis nunca ha dejado de desaparecer, surgiendo nuevas formas del artículo, aunque frecuentemente no hayan conseguido éstas desplazar más que localmente al más generalizado, con sus variantes correspondientes. [Etzana nirea]

Auzi honen laburpen zabalagoa aurki daiteke Altunaren eta Azkarateren lanean (2001: 20-40). Auzian sakontzen ez badu ere, badirudi Castañosek ere bi graduko sistema duela jatorrizkotzat, pluralean behintzat, bigarren graduko *horiek* beranduago sortua dela dioenean (1979: 90, 105).

<sup>87</sup> Datu hau, dena den, ezin liteke har jatorrizko gradu bereizketen adierazle moduan: gramatikalizazio prozesuetan, arrunta da jatorrizko osagaiak bere balioak galtzea edo eraldatzea.

## 2.4 Deklinabide mugatuaren morfologiaren berreraiketaz

Izen edo determinatzaile sintagmetan gramatikalizatuta dauden D-elementuak izango dira aztergai deklinabidea aipatzen denean. Ez dira hemen bilduko postposizio edo kasu marka jakinen diakroniaz esandakoak: adibidez, ez dira bilduko *-rantz* norabidezko adlatibo markaren berreraiketaz (Gómez 2005) edo *-k* ergatibo markaren jatorriaz esanda daudenak (Lakarra 2005: 442-444); edo marka bakoitzaren erabileraren gorabeheraz esanda daudenak (cf. abl. *-rik*, *-ti*, *-rean*, etab.; Lakarra 1986: 645-647). Labur esateko, artikuluen edo erakusleen diakroniarekin zerikusia duen heinean aztertu da deklinabidea.

### 2.4.1 Deklinabidea gaur egun

Euskal deklinabidearen gaineko oharra eta lanak aspaldidanikoak dira (ik. Alberdi 1989, Gómez 2006: xxxiii, 60-62), eta, lan horri esker, gaurko gramatikagintzan egin dezakegun bereizketarik behinenetariko bat deklinabide mugagabearen eta mugatuaren artekoa da. Lehen kapituluan esan bezala (1.1.5), *deklinabide* terminoa erabiliko dut izen-sintagmak har dezakeen kasu eta postposizio sorta izendatzeko, erraztasunarengatik eta tradizio terminologikoarekin apurtzeak abantaila handirik ekarriko ez duelakoan; era berean, tesiaren aztergunea D-elementuak direnez, *deklinabide mugatua* izango da behin eta berriro erabiliko dudana terminoa.<sup>88</sup>

Ongi laburbiltzen du Castañosek deklinabide mugagabearen eta mugatuaren arteko harreman diakronikoaz dakiguna (1979: 33):

De las tres declinaciones, indefinida, singular y concreta [*hurbilekoa* horrela izendatzen du], es admitido que la declinación indefinida, declinación indiferente al número, es lo original y que la general y concreta, con singular y plural, son creaciones secundarias.

Eta ikuspegi honek numeroaren kategoriarako duen ondorio zuzena Vogtek georgierari buruz egindako ohar batekin biltzen du: “Le fait que le thème pur est indifferent à la catégorie du nombre suggère un état de langue où la catégorie du nombre était inconnue

<sup>88</sup> *Deklinabide mugatua* terminoa ez erabiltzekotan, horren ordeko izan litekeen *kasu-sistema mugatua* ez zait egokia iruditzen: kasu-sistema bera ez da mugatu ala ez-mugatu, sintagma osoa da, izatekotan, mugatu zein mugagabe izanik kasu markak hartzen dituen.

dans le système nominal. Elle existait certainement dans le verbe” (Vogt 1947: 126; ik. halaber Mitx I 58). Ohar honek tesi honetan berebiziko garrantzia duen ezaugarri baten berri ematen du: euskaraz, numero morfologikoa beti dago D-elementuen menpe. Ikus behean, pluraleko deklinabideari dagokion 2.4.2.5 atalean.

Tesi honen aztergaia D-elementuen gramatikalizazioa denez, hona euskara batuaren deklinabide mugatuaren oinarritzko eskema, bokal bukaerako *etxe* eta kontsonante bukaerako *lan* izen bizigabeak eta *lagun* biziduna adibide moduan hartuta:

	Izen bizigabeak				Izen bizidunak	
	V amaierako izena		C amaierako izena		Singularra	Plurala
	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala		
Absolutiboa	<i>etxea</i>	<i>etxeak</i>	<i>lana</i>	<i>lanak</i>	<i>laguna</i>	<i>lagunak</i>
Ergatiboa	<i>etxeak</i>	<i>etxeek</i>	<i>lanak</i>	<i>lanek</i>	<i>lagunak</i>	<i>lagunek</i>
Datiboa	<i>etxeari</i>	<i>etxeei</i>	<i>lanari</i>	<i>lanei</i>	<i>lagunari</i>	<i>lagunei</i>
Genitiboa	<i>etxearen</i>	<i>etxeen</i>	<i>lanaren</i>	<i>lanen</i>	<i>lagunaren</i>	<i>lagunen</i>
Inesiboa	<i>etxean</i>	<i>etxeetan</i>	<i>lanean</i>	<i>lanetan</i>	<i>laguna(ren)gan</i>	<i>lagunengan</i>
Adlatiboa	<i>etxera</i>	<i>etxeetara</i>	<i>lanera</i>	<i>lanetara</i>	<i>laguna(ren)gana</i>	<i>lagunengana</i>
Ablatiboa	<i>etxetik</i>	<i>etxeetatik</i>	<i>lanetik</i>	<i>lanetatik</i>	<i>laguna(ren)gandik</i>	<i>lagunengandik</i>
Erlaziozkoa <sup>89</sup>	<i>etxeko</i>	<i>etxeetako</i>	<i>laneko</i>	<i>lanetako</i>		
Instrumentala	<i>etxeaz</i>	<i>etxez</i>	<i>lanaz</i>	<i>lanez</i>	<i>lagunaz</i>	<i>lagunez</i>
	Numerorik ez		Numerorik ez		Numerorik ez	
Prolatiboa	<i>etxetzat</i>		<i>lantzat</i>		<i>laguntzat</i>	
Partitiboa	<i>etxerik</i>		<i>lanik</i>		<i>lagunik</i>	

2. taula. Euskara batuaren deklinabide mugatuaren oinarritzko eskema bat

Taula honetako oinarritzko eskema aski da, nire ustez, deklinabide mugatuaren berreraiketa morfologikoaren abiaburu gisa; izan ere, beste kasu eta postposizio gehienak taulakoetatik eratorriak dira, eta ez dute, printzipioz, informazio morfologiko gehigarririk ematen:<sup>90</sup>

- (a) Hurbiltze-adlatiboa eta muga-adlatiboa adlatiboan oinarritzen dira: cf. *laneraino*, *lanetaraino* edo *lanerantz*, *lanetarantz* eta abar.
- (b) Soziatiboa ere genitiboan oinarritzen da: *lagunarekin*, *lagunekin*, etab.

<sup>89</sup> Ingeleseaz “relational” deitzen zaio *A Grammar of Basque* liburuan (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003); *leku-genitiboa* terminoak ere badu bere tokia euskal gramatikagintzan.

<sup>90</sup> Honek ez du esan nahi diakronikoki beranduagoak direnik, soilik izenaren eta D-elementuaren arteko loturari buruzko informaziorik ez dutela ematen. Soziatiboaren kasuan, adibidez, erlatiboki zaharra dela ondoriozta daiteke, *-rekin* atzizkian genitiboaren *-re* forma zaharra baitago, baina horrek ez digu informazio gehigarririk ematen D-elementua izenari nola lotu zitzaion argitzeko.



- (c) Mendebaldeko sozietiboa absolutiboan oinarritzen da, are pluralean ere, dagokion hizkeretan: *lagunagaz*, *lagunakaz* (< *lagunak* + *-gaz*), etab. Absolutiboarekiko menpekotasun hau ondo ikusten da *-a* berezkoa duten hitzetan, kasu gramatikalei<sup>91</sup> dagokien gertakari morfonologiko bera baitago sozietiboan ere: *alabeagaz* (abs. sg. *alabea*) eta *alabakaz* (abs. pl. *alabak*).
- (d) Motibatiboa absolutiboan edo genitiboan oinarritzen da: cf. *lana(ren)gatik*, *lanengatik*, etab.
- (e) Orobat bizidunetako leku-kasuak: *laguna(ren)gan*, etab. Hauek taulan sartzeko arrazoi bakarra izan da izen-bizidunen jokabide bereizia erakusteara.

Hauek guztiak, (a)-tik (e)-ra, analitik kanpo geratu dira, beraz. Ohargarria da, bestalde, deklinabide mugatuaren paradigma honetan morfologikoki mugagabeak diren zenbait kasu edo postposizio agertzea: adlatiboa, ablatiboa, partitiboa eta prolatiboa dira multzo horretakoak.<sup>92</sup> Horien artean, batetik adlatibo, ablatibo eta erlazionala bereiz ditzakegu, leku-kasuak, funtsean. Semantikoki definitutzat jo ohi direlako sartzan dira singularreko paradigmaman, nahiz eta morfologikoki mugagabe izan; pluralean, jakina, beti dira mugatu, ezinbestean. Bestalde, partitiboa eta prolatiboa daude, formaz beti mugagabeak, pluraleko forma mugaturik gabe; ezaugarri hau bere funtzio sintaktiko berezien ondorio da, ziur aski.

Oro har, aski eredu erregularra da, alde batera utzita bizidunen eta bizigabeen arteko bereizketa. Aldaera dialektal esanguratsu zenbait ere badaude, mendebaldeko kasu gramatikaletako (eta sozietiboko) *-a* + *-a* > *-ea* gertakari morfonologikoa, esaterako, edo zenbait hizkeretako leku-kasu singular morfologikoki mugatuak (cf. ekialdeko adl. mug. *etxeara*, *etxeala*, edo testu zaharretako erl. mug. *barruango*); dagokien atalean emango dut horien berri. Taula osoetarako eta xehetasunetarako, ik. Hualde (2003).

<sup>91</sup> Absolutiboa, ergatiboa, datiboa eta genitiboa sartzan ditut izendapen honen pean.

<sup>92</sup> Cf. halaber *-ti* prosekutiboa, eta *-rean* ablatibo zaharra. Bigarren honi dagokionez, galdetu daiteke, nolatan ez duen forma mugaturik, genitiboaren gainean osatua izanik; nire ustez, bere osaeraren antzinasunaren zantzu bat izan daiteke.

### 2.4.2 Deklinabide mugatua berreraikitze saioak

Deklinabide mugatuko zenbait kasuren berreraiketak ardura berezia sortu du euskalarien artean; eztabaida eta arazo nagusiak bildu ditut atal honetan. Berreraiketarako sarrera moduan, aipagarria da Mitxelenak (IX 275-282), Erdi Aroko datuak oinarri hartuta eta pluralaren formazioa argitzeko xedez, garai hartarako zirriboratu zuen deklinabide eskema:

Mugagabea	Singularra	Plurala
<i>-bide, -egi</i>	<i>-bidea, -egia, larraina</i>	<i>irur idoi, larrain</i>
<i>-(e)n (-biden, -egin)</i>	<i>-bidean, gibelean</i>	<i>(larrainetan)</i>
<i>-ko</i>	<i>-bideko, larraineko</i> <sup>93</sup>	<i>larrainetako</i>

3. taula. Mitxelenak Erdi Arorako zirriborratutako deklinabide eskema

Datuen urritasunak eta iturrien izaerak berak mugatzen du taula honen emaitza. Bada, dena den, egin beharreko ohar garrantzitsu bat, paradigma hau ere ez baita morfologia hutsaren arabera osatua (ik. orobat 2. taula): morfologikoki mugagabeak dira singularreko zutabeen ezartzen dituen *bideko* eta *larraineko*, eta orobatsu gertatzen da pluralerako ematen duen *irur idoi, larrain* sintagmekin. Funtsean, numeroaren nozio semantikoaren arabera antolatutako taula dirudi, baina gogoan hartu gabe nozio horren oinarrian paradigma mugatua baizik ezin daitekeela egon; honen arrazoia argia da: Mitxelena “siglos tempranos de la Edad Media”-ri buruz ari da, artean deklinabide mugatua bera erabat osatua egongo ez zen garai batez. Honela dio Mitxelenak jarraian:

Sólo más adelante entraría lo que en toponimia aparece como *Larrainaga* en la casilla del recto plural y primero en aquellos casos en que una determinación, sobre todo un numeral como *irur* o *laur*, no hacía innecesaria la expresión abierta del plural [...] Puede deberse a defecto de memoria o de diligencia, pero el hecho es que no recuerdo ningún ejemplo, entre las muchas indicaciones de procedencia que acompañan a antropónimos, de *-aga-ko* anterior, por poner un tope arbitrario, a 1300. Tampoco creo conocer ningún testimonio de *-en, -ei*, etc., en los casos no locales de plural. En el mismo texto de la catedral de Pamplona, aparece, sí, *-ak*, pero como expresión del activo singular: *liburuetan*, plural seguro, es caso local como *jruretan*, y ‘encendiendo vela(s)’ es *arguiçagui eraičeten*, con tema nudo sin artículo ni otros sufijos.

Egia esan, ez dago argi zergatik dioen absolutibo plurala (“recto plural”) gerora sartuko zela paradigmari; ez dago froga zehatzik pentsatzeko leku-kasuetatik eratorririko *-eta* baino beranduagokoa dela, eta, bestalde, ezaguna da leku-kasuetan D-elementuak

<sup>93</sup> Bistan dena, Mitxelenak izen berezi eta arrunten arteko bereizketa du gogoan: *Larraingo* vs. *larraineko*.

beranduago edo maila apalagoan gramatikalizaten direla, are gehiago pluralekoak baldin badira (ik. 3.1.3 atala). Horiek oro, Mitxelenaren pasarte eta proposamen horrek ongi kokatzen du tesi honetako laugarren eta bosgarren kapituluetakoko eginkizuna: Erdi Aroko datuak aintzat hartuz, deklinabide mugatuaren morfologia diakronikoaren berri ematea izango da ardatza.

Sarrera honen ondotik, deklinabide mugatuaren inguruan eginiko proposamen diakronikoen berri emango dut ondoko azpiataletan.

#### 2.4.2.1 Singularreko kasu gramatikalak

2.1. atalean aipatu bezala, *-a* artikulak \*(h)a(r) erakuslean du jatorria; absolutibozko kasua adibide hartuta irudikatzen da erakusletik artikulurako bilakaera hau, baina singularreko deklinabide osoa ere eredu beraren arabera uler daiteke, kasu gramatikalei dagokienez, behintzat. Honela azaltzen du Mitxelenak (FHV 213), genitiboa eta datiboa adibide jarrita:

En el mismo caso, tampoco aparece *h* tras vocal final de tema: *semearen* ‘del hijo’, *semeari* ‘al hijo’, frente a *seme haren* ‘de aquel hijo’, *seme hari* ‘a aquel hijo’, aunque a todas luces eran originariamente idénticos el artículo y el demostrativo de 3.<sup>a</sup> pers.

Bada, bestalde, lau kasu gramatikalak batzen dituen ezaugarri bat: mendebalde zabaleko hizkeretan —historikoki Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako zati bateko eta Nafarroako beste bateko ezaugarria da hau—, *-a* berezkoa duten hitzetan disimilazioa gertatu izan da (*alaba* mugag. izanik, mugatuetan *alabea* absolutiboa, *alabeak* ergatiboa, *alabearen* genitiboa eta *alabeari* datiboa ditugu). Ezaugarri hau hainbat lanetan aipatu izan da: De Rijkek (1970), esaterako, ikuspegi sinkronikotik aztertzen du, beste zenbait fonetismoren artean, eta Mitxelenak (VII 534), disimilazio hori inesibo singularrean eta absolutibo pluralean ez dela gertatzen ohartarazirik, diakronian ere kronologia erlatibo baten barrenean kokatzen ditu singularreko kasu gramatikalak batetik eta inesibo singularra eta absolutibo plurala bestetik; ik. berrikiago Oñederraren lana (2005: 386-387), Mitxelenaren jatorrizko kronologia ezberdinen balioa aitortuta,<sup>94</sup> azalpen sinkroniko morfonologikoan sakontzen duena.

<sup>94</sup> Honela dio Oñederrak: “Ongi erakutsi du Mitxelenak halaber singularra plurala baino lehenago itsatsi

Oñederraren bidetik, beraz, disimilazio horren izaera morfonologikoa nabarmendu daiteke; horrek aukera ematen du Mitxelenak darabilen ikuspegi hertsiki fonologikoa bestelako azalpenekin osatzeko (Mitxelenak berak eskatzen duen bezala, bestalde). Hasteko, esanguratsua izan liteke disimilazioa kasu morfologiko jakin batzuetan bakarrik gertatzea, horren oinarrian legokeen motibazio funtzionala argia ez izanik ere: absolutiboan gertatzea erraz azal daiteke, kasu marka agerikorik gabea delako absolutiboa eta funtzio horretan zegoen sintagmak bereizgarriren bat izatea inportantea izan zitekeelako, baina datibo, genitibo zein ergatiboan ez dirudi hala izan daitekeenik (gehienez ere mugagabeko formekin nahasi ahal izango ziren).<sup>95</sup>

Aipagarria da, bestalde, disimilazio hori mendebaldeaz bestelako zenbait eskualdetan ere gertatzea, oso testuinguru funtzional jakinean gertatu ere: erresultatibozko egituretan, *aterea*, *botea* eta halakoetan, hain zuzen ere (cf. ekialderagoko *ateraia*, *botaiia*, etab.); motibazio funtzional garbia du disimilazio honek hizkera hauetan, testuinguru sintaktiko jakin baten arabera baita, eta bidea eman lezake pentsatzeko mendebaldeko kasu gramatikaletakoa ere inoiz horrelakoren baten ondorio izan zela.

Ez dira ahaztekoak, bestalde, beste zenbait hizkeratan *-a* berezkoa duten hitzetan gertatzen direnak: zaraitzueraz *-ara* dugu absolutiboko forma mugatuetan (mugag. *alaba*, mug. *alabara*), eta erronk. eta zub. azentuaren arabera bereizten dira (mugag. *al(h)ába*, mug. *al(h)abá*). Eskuarki *-a* berezkoa duten hitzetako forma mugatuetan ditugun emaitzak batera deskribatu ohi dira (mendeb. *-ea*, erdial. *-aa*, zar. *-ara*, ekial. *-á*), baina pentsatzekoa da fenomeno ezberdinen aurrean gaudela kasu bakoitzean: batzuetan kontu fonetiko soila dela dirudi (ekial. *-á* eta erdial. *-aa*), beste batzuetan fonetika hutsaz haragoko auzi morfonologikoen baten aurrean gaudela; zar. *-ara*, esaterako, absolutiboan baizik ez da ageri (Mitx VII 163, 1 oh.), baina mendeb. *-ea* absolutiboan, ergatiboan eta besteetan, *-eagaz* soziatiboa bera barne.

---

bide zitziola elementu lexikoari” (2005: 387).

<sup>95</sup> Aukera bat izan liteke absolutiboaren gainean eraiki izana ergatiboa, genitiboa, datiboa eta soziatiboa; kasu horretan irizpide eransle huts baten arabera litzateke horien osaera, ez ezinbestean erakusle osoaren gramatikalizazioaren ondorengo. Ikus 5.2.1 atala.

#### 2.4.2.2 Singularreko leku-kasuak

Singularreko leku-kasuetan aspaldi ohartu izan da inesiboak artikulua har dezakeela, adlatibo eta ablatibo kasuek ez bezala; bere barrenean osaerazko bereizketarik gabe eta atzizkiaren jatorri diakroniko jakin bat burutan, inesibozko kasua *-an* dela ere esan izan da (De Rijk 1981, 1992: 705), non eta adlatiboa eta ablatiboa hurrenez hurren *-ra* eta *-tik* direnean.

Auzia beste modu batean azaltzeko, adlatibo eta ablatiboak, morfologikoki mugagabe izanik, semantikoki eta funtzionalki mugatu dira: paradigmaren singularreko zutabearen barrenean ezartzen dira. Inesibo singularrak, bestalde, maiz izaten du interpretazio ez definitua, formaz artikuluduna izanik ere (cf. Land (*B*) *ynolaco lequan* “en ningun lugar”, *açertadu çerbaytean* “açertar en algo” modukoak).

Lekukotasun historiko eta dialektalek berehala uzten dute agerian bestelako datuak ere badirela; baditugu, esaterako, artikulua duten adlatiboak ekialdeko hizkera zenbaitetan: cf. zub. *mendialat*, erronk. *mendiara*. Hauen gainetik, baina, inesibo singularreko forma irregular orokor baten inguruan mamitu da singularreko leku-kasuen inguruan izan den eztabaidarik emankorrenetakoa.

##### 2.4.2.2.1 Inesibo singularra izen bizigabeetan: *-an*

Inesibozko sintagma singularrean agertzen den *-a-* artikulutzat jo izan bada ere, Jacobsen (1977), De Rijk (1981: 89-95) eta Trasken (1997: 202-203) ustez, beste zerbaiten aztarna da; ez da diakronikoki erakusletik eratorritako elementu bat. Proposamen horren abiaburuan inesibo singularrean antzeman daitekeen irregulartasun bat dago, euskalki guztiek partekatzen dutena: kontsonantez bukatzen diren izenetan *-e-* epentetiko bat ezartzen da inesiboa hartzen dutenean, bokal bukaera dutenetan ez (cf. *ibarr-e-an*, *lan-e-an*, baina *mendi-an*, *etxe-an*). Banaketa osagarri honetaz ohartuta, hiru autore horiek inesiboaren formak *\*-Can* formakoa behar zuela uste dute, C kontsonante ezezaguna delarik; *ibarrean* forma *\*ibarreCan* batetik eratorritako litzateke, beraz, eta *mendian* forma *\*mendiCan* batetik. Kontsonante ezezagun hori *-g-* izan litekeela iradokitzen dute eta atzizki osoa *-gan*, izen bizidunetako inesibo morfeman dugun

berbera (cf. *alaba(ren)-gan*); ik. halere Oñederrak (2005) agerturiko zentzuzko zalantzak eta Hualderen (2005: 302) jarrera.

Hipotesi honen arabera inesibo singularreko *-a-* ez da artikulu definitua, jatorrizko *-gan* formaren aztarna baizik, honako bilakaera berreraiki honek irudikatzen duen bezala: *mendi-Øan* < *\*mendi-γan* < *\*mendi-gan*. Jatorrizko forma hau gerora artikulutzat berrinterpretaturikoa litzateke, hiztunen zein hizkuntzalarien gogoetan. Hipotesi honek, gainera, bizidunetako *-gan* atzizkia eta bizigabeetakoa bat eta bera direla erakutsiko luke. De Rijkék eta Traskek beraiek honako arazo hauek ikusi zizkioten hipotesiari: batetik, *-gan* izanik inesiboaren forma zaharra, galdetzen dute ea leku-izenetan zergatik ez den *-a-* horren aztarnarik ageri (cf. *\*\*Maule-an* < *\*Maule-gan*). Erantzun ezberdinak ematen dituzte: De Rijkék dio *-ga-* lokatiboa dela (“locative” dio berak ingelesez), eta leku-izenek ez dutela behar; Traskek, berriz, *-gan* inesibo berria dela dio, *-n* toponimoetan gordetako inesibo zaharra dela onartuz. Bestetik, Traskek eta De Rijkék ohartarazten dutenez, zenbait hizkeratan *etxen*, *ihizin*, *soñen* bezalako inesiboak daude, *-a-* gabeak; De Rijkék arabera aukera kontua da, eta Trasken ustez eragin erromantzeari dagozkio halako formak.

Proposamenaren autoreek azaleratutakoez gain, gutxienez beste hiru arazo ere baditu proposamen honek:

- (a) Zergatik ez da *-g-* hori izen guztietan erortzen, bizidun zein bizigabe? *etxe-Øan* azalduko genuke, baina ez dago *\*\*ama-Øan* formarik, *amagan* baitugu horren orde. Egoki zerrendatzen ditu Oñederrak (2005: 388) arazo honen xehetasunak.<sup>96</sup>
- (b) Izen bizidunetan genitiboarekin ager daiteke *-gan* inesiboa, *amarengan* bezalako formak ere badirelarik, baina bizigabeetan ez dago horrelakorik; datu hauek erakusten dute *-gan* atzizkia izen erlazional moduko postposizioa dela, Lehmannek dioskun bezala (ik. I. eranskina), eta, hortaz, ezin da oso gramatikalizatua egon izen sintagman; De Rijkék eta besteren lanetan, ordea, ez

<sup>96</sup> Dena den, ikuspegi sinkronikotik egiten ditu bere oharrak Oñederrak, eta ez du baztertzen De Rijkék azalpen diakronikoa: “Nahiz eta, ziurrenik, De Rijk-ek proposatu /ga/ artizkia izan BBI [Behoko Bokalaren Igotzea] ez gertatzearen lehen arrazoi” (2005: 393).

zaigu kontu honen gaineko xehetasunik ematen, bizidun eta bizigabeen arteko ezberdintasuna azaltzeko (ik. halere Trask 1997: 203).

- (c) Nola azaldu inesibo mugatu singular hurbila hipotesi honen barrenean? Hots, ArrasErrek *lasterreon* bezalakoak ongi azaltzen dira inesibo mugatu singularrari erakusle jatorria aitortzen badiogu: cf. pluraleko *gizonok*, monoptongazio berberarekin (*-ok < -oek < (h)auerk*). Baina De Rijk eta besteren hipotesian ez dago argi *\*-gon* moduko zerbait proposatu behar ote litzatekeen.

Hipotesi honetan sakontzen du Etxeparek (2013a, 2013b), eta, *-ga-* jatorria onarturik, ergatiboarekin lotzen du berau, gogora ekarriz *\*-ga* proposatu izan dela (Lakarra 2005: 442-444) *-k* ergatibo markaren jatorri diakroniko moduan. Ik. halaber Höhn (2013: 152).

Arazo honi eman izan zaio bestelako azalpenik, *-a-* artikulutzat joz: epentesiaren gertakariak ari delarik, Mitxelenak iradokitzen du (VII 231), erronk. *etsen* eta zub. *etxen* mugagabe arkaikoak aipatuz, *-a-* gerora “sartua” dela. Castañosek (1979: 139-140), hasiera batean “*lurr-e-an*, por *\*lurr-an*, queda sin explicar” esaten badu ere, inesiboetako *-a-* gerora zabaldutakoa dela dio, mugagabeetako *-e-* ezabatu gabe; ideia hau berau errepikatzen du Martínezek (2010: 48-49), eta hainbat xehetasun gehigarri ematen ditu, gertaeren kronologia erlatibo batekin batera; ik. 5.2.3.9 atala kritikarako.

Kontsonantez bukatutako hitzetan ageri den *-e-* epentetikoaz gain, aipatu beharrekoa da mendebalde zabaleko hizkeretako ezaugarri bat. Amaieran *-a* duten hitzetan ere inesibo singularraren formak ez du bat egiten singularreko kasu gramatikalenekin, pluraleko absolutiboarekin baizik: mugag. *aldapa* izanik, abs. sing. mug. *aldapea* forma dago hizkera hauetan, disimilazioarekin, baina ines. sing. mug. *aldapan*, ez *\*\*aldapean* (cf., halaber, pl. *aldapak*). Aipagarria da, gainera, ines. sing. *-aan* formak daudela testuetan, eta absolutibo/ergatibo pluralean *-aak* modukoak (Mitx VII 533-534):

Hay, de todos modos, un argumento interno que aboga también por una fecha no remota [pluralaren sorreraz ari da]. En vizcaíno, como se sabe, se cumple, en los temas nominales en *-a*, cierto fenómeno de acomodación (disimilatoria), cuando el artículo determinado sigue a esa vocal: de *domeka* ‘domingo’, tendremos *domeka* ‘el domingo’, erg. *domekeak*, etc. Pero esto, de manera por demás curiosa, sólo se cumple en singular, con la señalada excepción del locativo: *domekaan*, de donde *domekan*, pero nunca *\*\*-ean*. De modo que, mientras de erg. sing. *domeka* + *-a* + *-k* sale

*domekeak*, de abs. y erg. pl. *domeka* + *-ak* (si se quiere de *\*-ag*) no se sigue más que *domekaak* y, por contracción, *domekak*. Caben otras explicaciones desde el punto de vista descriptivo: no sólo caben sino que sin duda son necesarias. Pero no invalidan, ni pueden hacer concurrencia, a las explicaciones históricas que aquí se reducirían a afirmar que el plural, como el locativo sing., se formó en vasco en época ya tardía, cuando la ley que convertía a *-a* + *-a* en *-ea*, etc., ya no era operante.

Datuak labur eta elkarri bilduz, batetik, mendeb. abs. sing. *aldapea* / ines. sing. *aldapan* / abs.-erg. pl. *aldapak* formak genituzke, eta hor inesiboak eta pluralak bat egiten dute;<sup>97</sup> datu horixe darabil Mitxelenak forma horien arteko kronologia erlatiboa ezartzeko, pluraleko eta inesibo singularreko formak berriagotzat jotzeko disimilaziozko *-ea* emaitza dutenen aldean. Garai berekoak ez direlako gertatzen da, bere ustez: “En el terreno de lo histórico, la explicación que se ofrece sin esfuerzo es la que se funda en una diferencia de épocas” (Mitx X 590). Bestetik, kontsonantez bukatzen diren hitzetako gertaera orokor hauxe dugu (mendebalde barne): abs. sing. *lana* / ines. sing. *lanean* / abs. pl. (erg. ere bai, mendebalde-erdialdean) *lanak*; inesiboak jokatzen du bestela kasu honetan, ez baitu bat egiten pluraleko formarekin. Datu hau ere kontuan hartzeak auzitan jar lezake Mitxelenaren argudiobidea, horrelako gertakariak kronologia erlatibo zorrotzak ezartzeko darabiltzanean; beharbada, ikuspegi hertsiki fonetikoetatik harago ere egon liteke azalbidearen parte bat (ik. 5.2.3.8 atala).

Beste lan batean (Manterola 2006: 666-673) hipotesi alternatibo bat proposatu nuen; hipotesi honek bi fenomenoak, *-e-* epentetikoaren fenomeno orokorra eta mendebaldeko disimilazio eza, azalbide beraren pean ezartzen ditu. Funtsean, inesiboko *-a-* horren artikulua izaera aitortzen da lan horretan, baina gogoan hartuta artikulua horrek, jatorria erakusle izanik, hasierako posizioan hasperena edo herskariren bat behar zuela izan jatorrian: hasperen horrek eragiten du *-e-* epentetikoa, ez Jacobsenen eta besteren *-g-* herskariak. Bosgarren kapituluan sakondu dut hipotesi honetan.

#### 2.4.2.2.2 Ekialdeko adlatiboa

Ezaguna da, bestalde, adlatiboan ere badirela ustez *-a-* artikulua duten formak: cf. zub. adlatibo sing. mug. *-ala(t)* eta erronk. *-ara*. Ustez diot, De Rijken iritziz (1981: 94) -

<sup>97</sup> Ez dirudi aintzat hartzekoa denik Land *vrquean yfini* “empicotar”; cf., segidan, *vrcan yfinidan gauçea* “empicotada cosa”. Orobatsu (*B*) *ynolaco temporeã* “en ningún tiempo”. Hauean, pentsatu behar da indar analogikoz zabaldu dela kasu gramatikaletako morfonologia. Ik. 5.2.3.1.



*ga(n)* baitago adlatiboko marka hauen oinarrian, inesibokoan bezala. Zub. *-ala(t)* markako *-l-* albokaria (ez dardarkari bakuna) azaltzeko albokari bortitz bat bilatzen du iturburuan, eta *\*-galla* protoforma berreraikitzen du, bere hipotesiaren arabera jatorrian *-gan* + *-la* litzatekeena; erronk. *-ara*, berriz, *\*-gara* batetik azaltzen du. Erakusle-artikuluen gramatikalizazioan oinarrituriko azalpen bat ematen dut nik 5.2.3.2 atalean.

#### 2.4.2.3 Epentesiaz ohar bat

Aspaldidanik deskribatu dira deklinabideko epentesiak, sintagma mugatuetan zein mugagabeetan; *-r-* eta *-e-* epentetikoak noiz agertzen diren deskribatzen du, esaterako, Azkuek: lehena tartekatzen da bokalez amaituriko hitz baten eta datiboaren, genitiboaren, adlatiboaren eta beste zenbait markaren artean (cf. Azkueren adibideak, *gu* + *-i* > *guri*, *aita* + *-en* > *aitaren*, *zubi* + *-a* > *zubira*, etab.); bigarrena, kontsonantez amaituriko hitz baten eta ergatiboaren, inesiboaren, soziatiboaren eta beste zenbait markaren artean (cf. Azkueren adibideak, *ezker* + *-ko* > *ezkerreko*, *egun* + *-n* > *egunean*, *Aznar* + *-k* > *Aznarrek*, etab.). Xehetasunetarako, eta hots epentetikoaren agerrera testuinguruen zerrenda zehatzerako, ik. *Morf* §465-478.

Deskribapen soil horretatik harago, ordea, interesgarria da Azkuek berak (1927: 79-80) lan osagarri batean egiten duen oharra. Lan horretan epentesi moten sailkapen bat egiten du: elkartuetakoa (cf. *sutondo*), eratorrietakoa (cf. *gizontasun*), singular mugatuetakoa (cf. *arrebara*),<sup>98</sup> deklinabidekoa (cf. *ezkerreko*, *guri*, etab.) eta konjugaziozkoa (cf. *duan/duen*, etab.). Deklinabidekoaz ari dela egiten duen oharra da esanguratsua: *lurrez* (*lur* + *-z* instr.) sintagmako *-e-* epentetikoa eufonikoa dela esaten du, baina *egunean* (*egun* + *-an* ines. mug.) sintagmako semantikoa dela argudiatzen, berez ez baitago arazo fonetikorik *-n* eta *-a* elkarri lotzeko, abs. *eguna* sintagmak

<sup>98</sup> Zaraitzuko eta Mugerreko gertakaria da hau, *-a* berezkoa duten hitzekin gertatzen dena (*Morf* §661); cf. halaber Etxep 9: 32 *eguiara* eta Oih 166 *oinzolarra*. Etxeberri Ziburukoak *Noelak* lanean *Heriorak hilen du heriora* dakarrela dio Azkuek, baina galdera ikurrekin; Julio Urkixoren ondareko alea kontsultatuta, 1697ko edizioarena, *Hala haren herioac / hillen du herioa* irakurtzen dut nik; ezin izan dut 1645eko edizioa kontsultatu. Gertakari honi dagokionez, esanguratsua da IbarGC-ren lekukotasuna: “y como en bascuense llamasen entonces a las heredades en general *solorac*, y a una sola *solora*, como agora en nuestros tienpos ansí bien son llamadas *soloac* a las munchas heredades y a una sóla *soloa*” (Arriolabengoa 2008: 155); ezaugarri arkaikotzat du *-r-* epentetikoa, dirudienez. Aipagarria da halaber Landuchioren *abejoera*, gaztelaniazko *abejon*-en ordaina.

erakusten duen bezala. Eta adibide gehiago ematen ditu, epentesiaren nondik norakoa fonetikaz haragokoa, bestelakoa dela frogatzeko: *egun* ‘gaur’ hitza deklinatzen dugunean, *egungoa* eta *egundik* ditugu, baina *egun* ‘gauari kontrajartzen zaion denbora tartea’ deklinatzean, *egunekoa* eta *egunetik*; era berean, *Iturriotz* izen berezia denean, ez dago epentesirik (cf. *Iturriozko ura*, *Iturrioztik ekarri dogu*), baina, *iturri hotz* sintagma arrunta dugunean, bai (cf. *iturri hotzetik berora...*). Eta honela azaltzen du alde hau: “No cabría esto si la epéntesis de *e* fuese siempre meramente fonética” (1927: 80), eta are gehiago sakontzen du ideia honetan (Azkue 1927: 89-90):

Fonéticamente no son necesarias ni la epéntesis de *laugarén egunean* ni la de *Aitak egin duelako* [...] y otras cien epéntesis, elisiones y permutaciones por el estilo no son tampoco fonéticamente necesarias, pero lo son semánticamente, lo son morfológicamente ¿por qué? porque así es la lengua.

Azkueren deskribapen sinkroniko honen bidetik, berreraiketarako berebizikoa den oharra egiten du Mitxelenak, Erdi Aroko egoeraz antzeko deskripzioa egiten baitu (IX 511):

El contraste *Larraineco(a) / Larraingo* en la lista anterior se repite, por ejemplo, en *Lope Çavaleco* (433, 1276, Beriáin) / *Guarcia Çavalco* (372, 1257, cf. *Garcia Enecones de Çawal Irache*, 169, hacia 1150), *Maria Oyarzavalco* (113, s. XIII). Lo que sabemos de la lengua en siglos posteriores sugiere una explicación, que parece válida en términos generales: ya entonces se intercalaba una -*e*- ante el sufijo cuando el tema nominal acababa en consonante. Pero ello sólo ocurría cuando el tema era un nombre común, sustantivo o adjetivo sustantivado, o estaba considerado como tal: no cuando era empleado como nombre propio en el sentido preciso de la palabra: más gráficamente, *Larraineco(a)* era o se entendía como ‘(el) de la era’, mientras que *Larraingo* significaba simplemente ‘de Larrain’.

Deklinabideko *-r-* epentetikoarekin ere eztabaida bertsua izan da, gertakari fonetiko soiltzat edo morfologikotzat (edo biak) jo dutenen artean. Van Eys eta besteren ideiak kritikatzeko De Rijkek (1969: 337-338), *eufoniko* terminoaren definizio batetik abiatuz: “Let us [...] define ‘euphonic’ as meaning ‘inserted by a phonological rule at a morpheme boundary’” (1969: 337). Van Eysen arabera (1879: 59), adibidez, *semeren* sintagma mugagabeko *-r-* eufonikoa da, baina *semearen* sintagma mugatukoa ez, argudiatuz artikuluaren jatorrizko forma *ar* dela; Campiónek (1884: 200), ordea, esaten du bietan eufonikoa dela. De Rijken ustez, ez dago modurik kontu fonologikoa izan dadin:

After a high vowel, the normal euphonic segment, if there is one, is a glide that agrees in gravity with the preceding vowel (cf. *Mendiyen*, *buruben*, where *b* spells *w*). Therefore is not possible to have a general rule that inserts *-r-* between vowels at a morpheme boundary.

Ondorioz, bestelako irtenbideak aztertzen ditu De Rijkek: aukera bakarra da, bere ustez, *-r-* atzizkiaren parte dela proposatzea.

Funtsean, euskal epentesiari buruzko lan monografikoen faltan, honela laburbil daiteke euskal deklinabideko *-r-* eta *-e-* epentetikoen funtzioaz dakiguna: ez dute soilik motibazio fonetikoa, eta, Azkuek dioen bezala, motibazio semantikoa zein morfologikoa izan dezakete (edo are lexikoa, De Rijken ikuspegian).

#### 2.4.2.4 Plural morfologikoz ohar bat

Honela deskribatzen du Martínezek pluraleko deklinabideaz dakiguna: “The origin of the plural declension in Basque remains an enigma [...], or rather, a collection of small enigmas inside a bigger enigma” (2010: 78).

Pluraltasuna bera zertan datzan eta pluraltasuna adierazteko markak zein diren zehaztea da arazoa euskara bezalako hizkuntza batean. Euskarak ez du gauzatzen pluraltasuna inguruko hizkuntzek bezala; ezaugarri honen xehetasunetan sakondu gabe, gogoan har *bi neska* edo *bertso kantatzen* izen sintagma mugagabeak,<sup>99</sup> inguruko hizkuntzetara ageriko pluraleko morfologiarekin itzuliko genituzkeenak (cf. gazt. *dos chicas*, *cantando versos*, etab.).

Martínezek aipatzen duen deklinabide pluralaren jatorriaren izaera “enigmatikoz” gain, aipatu beharra dago aukera bat baino gehiago aztertu izan direla, unean-uneko beharraren arabera, pluraleko marka zein den erabakitzeke. Jardun honen adibide dira Uhlenbecken (1908: 524) eta Lafonen (1999: 699) lan bana: lehenak *-k* hartzen du pluraleko markatzat, eta Lafonek *-ag-* eta *-e-*. Pluraleko marka zein den erabakitzeke ezintasun hau tradiziozko bi aurreiritziren ondorio da:

- (a) Batetik, inguruko hizkuntzetako pluraleko *-s* markaren ereduaren zama dago: arazoa horrelako plural marka uniboko bat bilatu nahi izatean datza, euskaraz ez baitago horrelakorik.

<sup>99</sup> Ez dut *izen biluzia* terminoa erabiliko, ingelesezko “bare noun”-en itzulpen gisa emandakoa; nire ustez, aski da euskal gramatikagintzan tradiziozkoa den *mugagabe* deiturarekin.

- (b) Bestetik, ikuspegi eransle hertsiaeren ondorio ere bada: funtzio edo adierazi beharreko nozio funtzional bakoitzari morfema bat dagokio; hortaz, pluralak ere bere morfema behar du.

Deklinabide mugatu pluralaz pentsa genezakena gorabehera, ohar bat egin behar da pluralaren auzi morfologikoekin hasi aurretik, goian aipaturiko Vogten ideia bidetik: badirudi euskarak ez zuela plural marka morfologiko agerikorik erakusleak artikulu moduan gramatikalizatu baino lehen; hots, hainbat gramatikatan deskribatu izan den bezala, artikuluen bidez baizik ezin da morfologikoki izen sintagmetako numeroa adierazi. Adierazgarria da Jacobesenek dioena: “There are also plausible theories of a much more archaic system of noun inflection, which would have lacked contrasts of definiteness and number” (1972: 68). Eta, ildo beretik, Gavelek (*Gramm* §62) eta Lafonek (1999: 607) deklinabide mugagabea dute jatorrizkotzat.

Ohar honek, jakina, balio du singular morfologikorako ere. Aurreko lan batean, zenbait adibide ekarri nituen singular/plural morfologia agerikorik gabeko hizkuntzenak (koreera, turkiera; Manterola 2011[2007]); Martínezek ere (2009a: 254-260) bide beretik jo du gerora, eta koreera bera du hizpide, morfologia plural agerikorik gabeko beste hizkuntza zenbaitekin batean. Cf. orobat Castañós (1979: 35-43) bere lanean numeroaz mintzo denean.

Funtsean, gogoeta bide honetatik, honako galdera hau egin liteke etorkizuneko azterketen abiaburu gisa: nolakoa zen euskara izen sintagmetan pluraltasun morfologikorik ez zuenean? Berreraiketa sintaktiko mota hori zailagoa da, morfologia hutsarenetik harago baitoa eta horretarako beharrezko diren datuak urriagoak baitira: hala antzinako testuetan nola zenbait hizkera eta egitura arkaikotan bilatu beharko dira sistema zaharraren arrastoak, bereziki mugagabearen erabilerari erreparaturik.

Euskal numero zaharraren estatusaren auzi orokor horretan sartu gabe, pluraleko deklinabide mugatuan deskribatu ohi diren zenbait morfemaz arduratuko naiz ondoko azpiataletan.

#### 2.4.2.5 Pluraleko kasu gramatikalak

Pluraleko kasu gramatikaletako morfemen diakronian arazo orokor bat deskriba daiteke, arestian aipaturiko numero morfologikoaren faltarekin lotua dagoena: zein da, euskaraz, plural marka?

Arazo honen erakusgarri da Mitxelenak (VII 199) darabilen argudiobidea, Léon-Gavel hipotesia izendatzen duenaren argi-ilunak aztertzen dituenen; deklinabideko *-ak* leku-izenetako *-aga* atzizkiarekin lotzen du Léon-Gavelen hipotesi horrek:

Ahora bien, el apoyo adicional de que *-ak*, sufijo de plural, puede estar relacionado con el abundancial *-aga*, tan frecuente en toponimia, tropieza con una dificultad gravísima. En efecto, ¿el sufijo de plural es *-ak* o es sólo *-k*, siendo en este caso *-a* el artículo? La segunda explicación parece la única aceptable. [...] Si comparamos ahora *bi-a-k* ‘los (aquellos) dos’ con *bi-o-k* ‘los (estos) dos’, algo así como ‘nosotros dos’, se ve claramente que lo que caracteriza al plural es sólo *-k*.

Si admitimos, pues, como es difícil evitar, que el sufijo de plural, en el nominativo, es *-k* y que la *-a-* de *gizon-a-k* ‘los hombres’ es el mismo de *gizon-a* ‘el hombre’, entonces de la comparación entre plural *-ak* y colectivo *-aga* queda muy poca cosa en pie. Este indicador del plural *k* se encuentra en caucásico.

Mitxelenaren aipu horrek badu makur bat: hizkuntzaren ikuspegi sinkroniko eransle hutsetik begiratzen dio arazoari, *-ak* pluralekoa *-a-* + *-k* zatituz; arrazoi du, hala ere, ohartarazten duenean *batzuk* edo *zeintzuk* bezalako formetan *-k* hutsa har daitekeela plural markatzat (Mitx IX 283, 13 oh.). Nolanahi ere, gaiari modu zabalagoan eta ikuspegi osoago batetik heltzen dio beranduagoko lan batean, eta leku-izenetako *-eta* zein *-aga* atzizkiak berariaz aztertuta euskal deklinabidearekin duten lotura estua agerrarazten du (ik. 2.4.2.5.1 atala).

Pluraleko ustezko marken artean *-e-* izan da, *-k* horretaz gain, buruhausteak ekarri dituen: Lafonek uste du (1999: 16, 22, 698) *-e-* hori jatorrian loturazkoa dela, epentetikoa, *\*-ag-e* protoformatik abiatzen baita (cf. erg. pl. *\*ag-e-k*, instr. pl. *-ag-e-z*). Traskek (1997: 200) izendatuki aipatzen du *-e-* epentetikoaren aukera, baina erakusle jatorriaren hipotesia ere badakar: hots, bere iritziz, *-e-* morfemaren jatorria *\*-age-* izan liteke, baina baita *\*haie-* ere. Cf. orobat Schuchardtek (1923: §14) leku-kasu mugagabeetako *-ta-* artizkiaz dioena: bere ustez, *-eta* atzizki mailegatutik dator, eta hasierako *-e-* hori plural marka moduan berranalizatu da; hipotesi honen barrenean ere *-e-* plural markatzat jotzen da, hortaz; ik. Altuna eta Azkarate (2001: 116-118) laburpen

baterako. Plural marken eztabaida honetan dauden uste askotarikoen adierazgarri da, bestalde, lan horretan bertan *-ek* hartzea “plural markatzat” (Azkarate eta Altuna 2001: 18). Castañosek dauden aukeren laburpena dakar (1979: 69-85); besteren artean, Van Eysen, Gavelen eta Mitxelenaren lan hipotesiak bildurik; proposamen horien guztien artean, gainera, berea ere interesgarria gertatzen da, izan ere deklinabideko *-e-* horren gorabeherak erakusleen berreraiketarekin lotzen baititu (ik. 2.3.2 (b) atala).

Aipagarria da, azkenik, *-zu* atzizkiaren kasua, *bat* zenbatzaile-artikulu indefinituan pluralgile lana hartzen baitu. Honela dio Mitxelenak (IX 283) atzizki honetaz, izen deklinabideko *-k* eta *-ek* atzizkiekin zein harreman diakroniko dukeen iradokiz:

*-zu* ha dejado huella visible de su empleo como pluralizador en el común *batzu* ‘algunos’, derivado de *bat* ‘uno’, muy probablemente anterior a la generalización de *-ak* en el plural nominal o, mejor, puesto que en los mismos nombres existe el plural “próximo” en *-o-k*, de *-k*, *-ek* en el plural nominal y pronominal.

Plural markei buruzko sarrera moduko honen ondoren, zenbait eztabaida ekarriko ditut hona pluraleko deklinabide mugatuko kasu marka gramatikalen ingurukoak.

#### 2.4.2.5.1 *-ak absolutibo (eta ergatibo) plurala*

Aspaldikoa da absolutibo pluraleko *-ak* eta toponimiako *-aga* ber atzizkitzat hartzea, Mitxelenak (IX 46, *FHV* 238) laburbildu bezala; Gavelen hitzak dira horren lekuko (*Gramm* §64), bilakaera *-ak < \*-ag < -aga* litzatekeela aipatzen duenean (cf. *dut < dud < duda*).<sup>100</sup>

Le nominatif pluriel est caractérisé par un suffixe *-ak*. Certaines considérations permettent de supposer que la forme primitive de ce suffixe était probablement *-ag*, et que le *g* est devenu *k* en vertu de sa position finale, le basque n’admettant pas les explosives sonores à la fin des mots.

Parekatze horren bidetik, toponimiako *-aga* eta *-eta* atzizkien hainbat ezaugarri zerrendatzen ditu Mitxelenak (IX 276-282, 493), zehaztuz deklinabideko elementuek bezala jokatzeko dutela, ez elkartu-eratorrietako atzizki edo osagaien moduan: (a) toponimiako *-aga* eta *-eta* atzizkiekin ez da hitz elkartu-eratorrietan gertatzen den fenomenorik gertatzen (cf. *Arriaga, Arteaga* baina *Arbea, Artaza*); (b) *-aga* eta *-eta* ez

<sup>100</sup> Ez dut izartxorik jarri: *dud* (eta *dur*) bildua dago Erronkarin (*FHV* 236), eta *duda* forma *dudan/dudala* formetan gordetzen da. Cf. halaber gaurko Berako *dida*, *dia* formak; Lizarraga Elkanokoarengan ere badago *dida*, LizSand *Ezaumentu gau eman dida niri*.

dira agertu ohi izen berean elkarrekin; (c) atzizki hauetako bat izenondoa eta izena duen sintagma bati lotzen bazaio, hurrenkera izen + izenondo + atzizki da (cf. *Arrileunaga*, *Artederreta*, etab.); (d) *-tza* edo *-ti* bezalako atzizkiekin konbinatzen direnean, *-aga/-eta* horien ondotik egon ohi dira (cf. *Zabaltza/Zabaltzeta*, *Zugazti/Zugaztieta*). Bi atzizkien arteko alde bat ere azpimarratzen du Mitxelenak: *-eta*-k badu *-keta* aldaera, txistukari ondotik (cf. *Amezqueta*, etab.), baina *-aga*-k ez du *\*\*kaga* moduko aldaera herkaridunik. Ezaugarri zerrenda honi Knörrek (2000: 611) Arabako toponimian antzeman zuen beste bat gehitu behar zaio: *-aga* eta *-eta* atzizkiek azentu markatua dute; hots, bere gainean hartu ohi dute azentua (cf. *Galarréta*, *Elorriága*, besteren artean).

Ezaugarri zerrenda hau emanatik, Mitxelenak ez du erabat garbi ikusten deklinabideko *-ak* atzizkiaren eta toponimoetako *-aga* atzizkiaren arteko lotura;<sup>101</sup> era berean, jatorri beraren hipotesia gogoko duela aitortzen badu ere, ez du zehazten zein erabileratik zeinetara zabaldu den atzizkia, toponimiatik deklinabidera, ala deklinabidetik toponimiara (ikus 2.4.2.6, *-eta* atzizkiaren eztabaidan, Schuchardten eta Azkueren ikuspegi kontrajarriak).

Hortaz, leku-izenetako *-aga* atzizkiaren eta deklinabideko *-ak* atzizkiaren arteko loturan sakontzen du Mitxelenak. Iglesiasek (2000a: 342) ere uste du *-aga* pluraleko *-ak* atzizkiaren forma zaharra dela, eta esaten du gerora hartuko zuela leku-izenetan ‘leku’ adiera. De Rijkek (1981: 92-93) hipotesi hori baztertzen du, inesibo singularrerako identifikatu uste duen *-ga* leku-atzizkia aitzakia hartuta; horretarako, Mitxelenak berak aipatzen dituen bi datu mota nagusiri heltzen die. Batetik, *Arespakotxaga* eta *Andrearriaga* aipatzen ditu, ohartaraziz leku-izen horien erreferenteek ez dutela pluraltasunarekin zerikusirik; *-aga* osagaia leku-atzizkia da, izatekotan, Azkuek dakarren bezala (s.v. *-aga*). Bestetik, *Oleaga* leku-izena dagoela gogorarazten du De Rijkek, eta deklinabidean *olaak* dugula, ez *\*\*oleak*; bi datu mota hauek, bere ustez, -

<sup>101</sup> Beste lan batean ere agertzen du Mitxelenak zalantza hau (VII 199): badirudi gutxienez Bonapartez geroztik indarrean zen ikusmolde eransle hertsari zor zaiola zalantza hau, Bonapartek egin bezala *-ak* atzizkia *-a-* eta *-k* zatitzen saiatzen baita Mitxelena. Beste toki batean gogoetabide bertsutik *-aga* atzizkiaren osaera azaltzen saiatzen da: “Lo mismo ocurre con *-aga*, suf., en que un análisis *-a-ga* (artículo + índice plural) es por lo menos dudoso, lo mismo que, a la inversa, *-ag-a* (colectivo + artículo)” (IX 494, 102 oh.).

*aga* atzizkia *-ak* deklinabidekoaren ezaugarrietatik urruntzen dute, eta, beraz, ez dira jatorri berekoak; iritzi bera plazaratu zuen Lafonek (1999: 610), hogeitatu urte lehenago.

Castañosek (1979: 137-142) erakusleen gramatikalizazioaren bidea aztertzen du, eta *\*gizon-ae*k proposatzen du *gizonak* bezalako absolutibo pluralen jatorrian. Gavelen *-ag* hipotesiarekin alderatzen du bere aukera, bakoitzaren argi-ilunak zerrendatuz: besteak beste, onartzen du zaila dela bere hipotesiaren barrenean ekialdeko abs. *-ak* / erg. *-ek* bereizketa azaltzea, biak *-ae*k batetik azaldu behar badira; Gavelen hipotesian absolutiboaren bilakaera *\*-ag > -ak* litzateke, eta ergatiboarena *\*-ag-e-k > \*-ae > -ek*. Ageri den bezala, *\*-ag* hartu izan da oinarri gisa beste zenbait kasuren diakronia azaltzeko (pluraleko ergatibo *-ek*, genitibo *-en*, datibo *-ei...*; ik. ondoko ataletan), beti ere eredu eranslearen arabera; beste hainbatenen artean, horren adibide dira Gavelen ideiak (1921: 339). Ideia hauen laburpen xehatua ematen du Castañosek (1979: 69-78), aldekoak eta aurkakoak zerrendatuz, eta bizkaiera zaharrean dugun gen. pl. *-aen* ere kontuan hartu behar dela gogorarazten du.

Bi multzotan sailkatzen ditu Castañosek berak (1979: 48) pluraleko *-ak* morfemaz proposaturiko ideiak:

Si resumimos, diríamos que para el plural del nombre se han dado dos teorías: 1) El plural del nombre se forma por medio del demostrativo de la tercera deíxis (*h*)a, en su forma plural; 2) El plural se forma por medio de *\*-ag > -ak* (sufijo relacionado con el topónimo colectivo *-aga*: *Arriaga* 'Pedregal', de *arri* 'piedra'), excepto en los casos locales.

Martínezek ere (2009a: 250) planteamendu hau bera errepikatzen du, baina argitu behar da leku-izenetako *-aga* atzizkiaren hipotesiaren bidetik jo izan dutenek ez dutela aurkeztu erakusle jatorriaren hipotesiaren aurkako moduan; egiari zor, balizko erakusle jatorririk aipatu gabe aztertu izan dute leku-izenetako *-aga* atzizkiaren hipotesia, eta ez dirudi bi hipotesiak bateraezinak direnik.

Berrikiago, singularreko deklinabide mugatuaren erakusle jatorri ezaguna gogoan hartuta (*FHV* 213) eta aipaturiko *-aga/-ak* identifikazioaren bidetik, Hualdek (2008: 208) absolutibo pluraleko *-ak* aztertzen du eredu horren arabera, eta erakuslearen protoforma *\*haga* zatekeela iradokitzen, erakusleetako hasperenarekin: *gizon* + *\*haga*



> \*gizonag > \*gizonak.<sup>102</sup> Azentuaren eta gertakari fonologikoen kronologia hizpide dituela egiten du proposamen hau, eta, beharbada, horregatik ez du azalpenik ematen ondoko paragrafoan aipatu ditudan arazoetarako. Martínezek (2009a: 251-252, 2010: 86-87), bestalde, \*-ha-ga ere aukera moduan proposatzen du, ikuspegi eransle eta funtzionalista oinarri hartuta.

Auziaren xehetasun historiografiko hauek guztiak gorabehera (ik. Salaberri Zaratiegi 1994: 29-32, hipotesi nagusien laburpen baterako), honela zerrendatu ditzakegu absolutibo pluraleko -ak atzizkiaren diakronian azalpen eske dauden zenbait auzi: (a) ez du pluraleko beste zenbait atzizkitan ikusi izan den ustezko -e- plural marka; (b) zubererazko datuei erreparatuta, singularreko paradigmaren azentuera du, ez pluralekoa: abs. pl. *mithílak* vs. erg. pl. *mithilé*k (Hualde 1997: 79); mendebaldeko hizkeretan, ordea, pluraleko azentubideari jarraitzen dio -ak morfemak, izan absolutibo zein ergatibo; (c) mendebaldeko lekukotasun zaharretan -a berezkoa duten hitzetan jokabide bertsua dute inesibo singularrak eta absolutibo pluralak, atzizkia ez baitzaio erabat asimilatzen hitzaren bukaerari, -aan eta -aak formek erakusten duten bezala; pluralaren gramatikalizazio maila apalari egotzi izan zaio hau (ik. goian, Mitx VII 534); eta, azkenik, (d) maiz ekarri izan da gogora mendebalde zabalean ergatibo pluraleko marka ere -ak dela, absolutibo pluralekoarekin sinkretismoan.<sup>103</sup> Zerrenda horretako auzi morfologikoez gain -ak atzizkiaren erabilera zabaldua ere aipatu beharra dago auzi semantiko moduan, izan ere erreferentzia indefinitua egiteko ere erabiltzen baita; ik. 2.6.4 atala.

Ohartzekoa da zerrenda honetako zenbait datu ez direla osoki bateragarriak: (b) eta (c) puntuetako mendebaldeko datuek -ak atzizkiaren gramatikalizazio apalaren alde egiten dutela dirudi, baina hain justu zubererazko azentuera ez dator bat ikuspegi

<sup>102</sup> Ergatibo, datibo eta genitibo pluraletarako ere eredu bera aplikatzen du, \*haga oinarri hartuta. Ikus orobat Hualde (1993: 40), non *gizon* + (h)a(i)ek/\*hak proposatzen duen. Ikus 2.4.2.5.2 eta 2.4.2.5.3.

<sup>103</sup> Castañosek honela dio: “No es evidente que la identidad de nominativo y activo plural de los dialectos occidentales sea una simple homofonía. En los dialectos que distinguen ambos casos en el nombre, los demostrativos no presentan esa particularidad” (1979: 101). Sinkretismoak erabatekoa dirudi, baita bateko eta beste sintagmen azentuerari dagokionez ere; -a amaierako hitzetan ere, -aak forma asimilatu gabea absolutiborako zein ergatiborako aurki daiteke: cf. frai Bartolomeren *Euscal-Errijetaco olgueeta...* liburuko 32 *Gurasuac eta ugazabaac ez davee lo egon biar, seme alavaac ta otseguinac pasiora duazanian*, non ergatiboan *ugazabaac* dugun, eta absolutiboan *seme alavaac*.

horrekin. Jakina, gramatikalizazio epeetan eta erritmoetan euskalkien artean aldeak daudela proposa daiteke hori azaltzeko. Bestalde, (c) puntuan absolutibo pluralaren eta inesibo singularraren antzekotasun baten berri eman dut, aipatu berri dudana gramatikalizazio apal —eta beranduagoko, Mitxelenaren iritziz— horren alde, baina gogoan hartzekoa da bi kasu horiek ez dutela beti bat egiten: kontsonantez bukatzen diren hitzetan (adib. *lan*) ezberdin jokatzen dute euskal eremu osoan, ines. sing. *lanean* baitugu, baina abs. pl. *lanak*, ez *\*\*laneak*.

Azken ohar moduan, aipagarria da erg. sing. mugatuko *-ak* eta pluraleko *-ak* homofonoak direla: “A date ancienne comme aujourd’hui, le nominatif pl. avait la même forme que l’actif sg. Mais les deux suffixes casuels sont d’origine différente” (Lafon 1999: 611); Lafonek aipatzen duen jatorri ezberdinaren aldeko argudio moduan har daiteke Jacobsenek (1972: 76-87) deskribatzen duen azentu diferentzia. 5.5.5.2 atalean argudiatu dut jatorri morfologiko bereko morfemak direla baina gramatikalizazio bide ezberdina izan dutela.

#### 2.4.2.5.2 Irun-Hondarribiko *-aken eta -aki genitibo eta datibo pluralak*

Auzi honek euskalaritzaren historian Bonaparteren (1868) eta Vinsonen (1868: 245, 1869: 7) garairaino garamatza, eta ongi erakusten du orduz geroztik euskal morfologiaz indarrean izan den ikusmolde eranslearen nondik norakoa.<sup>104</sup> Mitxelenak biltzen ditu garai horretako autoreen esanak (VII 197-200); honela laburtu ditzakegu, datibo plurala adibidetzat hartuz: funtsean, batzuek *\*-aki* proposatzen dute *-ei/-ai* datibo pluralaren jatorrian, hots, eredu eransleari jarraiki, *-ak* plurala + *-i* datibo marka (ik., besteak beste, Uhlenbeck 1908: 522-524); beste batzuek, berriz, *\*-agi* ikusten dute jatorrian, *\*-ag* hartuta plural marka moduan (ik. goian *-aga-z* esandakoak). Har ditzagun Gavelen hitzak (*Gramm* §64) garaiko ideien erakusgarri:

Il est vraisemblable que celle-ci [-ai] provient de l’ancien suffixe *-ag* auquel nous venons de faire allusion, suivi de l’*i* habituel du datif. Le type primitif de la désinence était donc probablement -

<sup>104</sup> Winklerrek (1914: 288), adibidez, *hetan* erakusle inesibo pluralaren jatorrizko forma *\*hek-n* dela dio. Xehetasunetan proposamen ezberdina izanik ere, esan daiteke Oihenartek berak (*Notitia*, XIII kapitulua) ikuspegi eransle hau berau darabilela, pluraleko formak mug. singularrekoaren gainean eraikiak direla baitio: *gizon* + *-a* artikuludunari *-k* gehitzen zaio absolutiborako, *-ek* ergatiborako, *-er/-ei* datiborako, eta *-ez* instrumentalerako.

*agi*, devenu *-ai* par une de ces chutes de *g* intervocaliques qui sont si fréquentes en basque. La variante labourdine normale *-ei* provient sans doute elle-même de *-ai*.

Bi aukera ditugu, beraz, plural marka hauek azaltzeko: (a) ergatiboa *\*-ak-e-k*, genitiboa *\*-ak-en* eta datiboa *\*-ak-i* dira jatorrian; autore zenbaiten ustez Irun-Hondarribiko genitiboak eta datiboak jatorrizko forma gordetzen dute, eta hartara izartxorik ere ez lukete beharko; (b) ergatiboa *\*-ag-e-k*, genitiboa *\*-ag-en* eta datiboa *\*-ag-i* dira jatorrian, eta beraz Irun-Hondarribiko formak ez dira zaharrak. Bigarren aukera honen alde agertzen da Gavel aurreko aipuari egiten dion oharrean:

Dans quelques variétés basques espagnoles on trouve des types en *-aki*; mais ce sont probablement des formes relativement récentes obtenues en ajoutant directement au suffixe *-ak* du nominatif pluriel les caractéristiques casuelles ordinaires, par exemple au datif la désinence *-i*.

Bi aukera hauen alde txikia da, eta eztabaida ia fonetika hutsezko mugatu izan da, bokalarteko *-k*-gal ote zitekeen eta halakoak (ik. adibidez Azkue 1925: 565); baina batean zein bestean eredu eransle beraren arabera jokatzeko da deklinabideko markak berreraikitzean, Irun-Hondarribiko datuei antzintasuna aitortu zein ez.

Ikuspegi eransle honegatik bereizi izan dira, morfemen bilakaera diakronikoan, plural marka batetik (*\*-ag*) eta kasu marka bestetik (*-k*, *-en*, *-i*); eta ikuspegi hau dago indarrean euskalaritza modernoan ere, Mitxelenaren hitzok lekuko (*FHV* 238, 28 oh.):<sup>105</sup>

En a.-nav. de Irún se dice todavía *-aken* ‘de los’, etc., en el plural de los nombres. Se puede afirmar decididamente que es una innovación introducida cuando todavía se percibía el sentido de la alternancia *-ak* / *\*-a(g)en*.

Mitxelenaren ustez, beraz, Bidasoaldeko formak berriak dira,<sup>106</sup> baina jatorrizko eredu eranslearen jarraitzaile direla aitortuta. Badirudi, gainera, Irun-Hondarribiko adibideetatik kanpora ere aurki daitezkeela antzeko adibideak, eredu eransle horren indarra erakusten dutenak: cf. Uztaritzeko Barazart eta Haraneder lohitzundarraren

<sup>105</sup> Beste aipu honetan ere badirudi ikuspegi hau bera dagoela: “Or. *-ek*, suf. de act. pl. (ronc. sul. *-ék*), de *\*-a-ek*: occid. *-ak*, igual al de nom. pl.; en el gen. pl. es común, en cambio, *-en* (ronc. sul. *-én*), de *\*-a-en*, vizc. ant. *-aen*, *-(e)en*” (*FHV* 117).

<sup>106</sup> Gavelek (1921: 340) eta, itxura denez, bere lanari jarraiki Azkuek (*Morf* §497) eta Jacobsenek (1972: 74) hala esaten badute ere, Hondarribian ez dago, gaur egun behintzat, erg. pl. *-akek* moduko atzizkirik; Letamendia eta Sagartzazuren arabera (1991: 518), analogia teorikoaren bidetik Azkuek (edo Gavelek, bere esana lehenagokotzat jotzen badugu) sorturiko forma da, herri hizkeran ez daitekeena entzun.

datibozko *hauki*, Haraneder, Axular eta besteren genitibozko *hauken*, *heken*, etab.; cf. orobat Etxeberri Ziburukoren, Xurio azkaindarraren eta besteren genitibozko *hekien*, *hekiek*, jatorrian *\*hekeen*, *\*hekeek* hiperkarakterizatuak izan daitezkeenak. Ez da, hortaz, Irun-Hondarribiko kontu hutsa; ikus orain Caminoren lana (2013: 128-129), gertakariaren kokapen historiko-geografikorako. Are gehiago, zabalago hartuta, urrunago ere jo genezake, mendebaldeko *-akaz* soziatibo plurala ere eredu eranslearen arabera azaltzen baita hobekien (*-ak* + *-gaz* da, itxura guztien arabera; Mitx VII 528).

#### 2.4.2.5.3 Ekialdeko azentua: *-ék* ergatibo plurala, *-én* genitibo plurala

Irun-Hondarribiko datuen harira piztutako eztabaida honetaz gain, badugu Mitxelenak (VII 134, 139) eta Lafonek (1999: 698) ekialdeko hizkeren azentua hizpide hartuta garatutako beste bat; ergatibo plurala azaltzeko hau proposatzen du Lafonek, zubereraren azentua ebidentzia moduan hartuta:

La terminaison *-ek* de l'actif pluriel résulte certainement d'une contraction. Une forme comme *haurrék* doit reposer sur *\*haurr-ág-ek*, où *\*-ag-* est le suffixe de pluriel et *-k* la marque de l'actif; *-e-* sert, comme à l'indéfini, à éviter la rencontre de deux consonnes.

Ildo beretik doaz beste lan batean esaten dituenak (Lafon 1999: 16, 22), baina ohar interesgarria egiten du, bere hipotesi nagusiarekin kontraesanean: “[L]’*e* de l’indéfini (*gizonék*) est une voyelle de liaison (*gizon-e-k*), tandis que l’*e* du pluriel *-ek* appartient à la finale de l’ergatif pluriel (*-ek* par opposition à *-ak* du singulier et à *-k* de l’indéfini).”

Bere hipotesi nagusiaren bidetik jotzen du orobat genitibo pluralerako (Lafon 1999: 699):

La finale *-én* du génitif pluriel résulte certainement d'une contraction: *-én* peut reposer sur *\*ág-en* ou sur *-é-en*; aucune raison tirée de l'accent ne permet de choisir entre ces deux hypothèses. En tout cas, on peut affirmer que le génitif pluriel s'obtient en ajoutant le suffixe de génitif *-en* au thème déjà pourvu d'un suffixe pluriel.

Idea bera dakar Mitxelenak (*FHV* 394), eta egungo azentueraren gaineko azterketetan ere halaxe onartzen da (Hualde 1997: 79, 2005: 299, cf. halaber Martínez 2010: 80). Ikusten denez, zubererazko eta erronkarierazko [-1] azentu irregular hauek azaltzeko eredu eranslea hartzen da oinarri; gorago ikusi bezala, hipotesi honek XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran ditu erroak; hortaz, esan daitezke Lafonen, Mitxelenaren

eta are Hualderen hitzak ere Gavelek (*Gramm* §64) formulatzen duen honako ideia honen zordun direla:

La terminaison primitive de l'actif pluriel était probablement *-agek*, qui se décomposait ainsi: *ag-* suffixe marquant le pluriel, + *e* voyelle de liaison nécessaire pour permettre de prononcer les consonne *g* et *k*, + *k* désinence caractéristique de l'actif. D'assez bonne heure *-agek* a dû se réduire à *-aek*; et *-aek* à son tour a évolué de deux façons différentes: dans les dialects basques espagnols s'est réduit à *-ak*, et dans les dialects basques français il est devenu *-ek*.

Aipu honek ideia bat gehiago dakar: ergatibo pluralean dagoen mendebalde *-ak* / ekialde *-ek* banaketa jatorrizko *-agek* honen bitartez azaltzen da, diptongoaren bakuntze moduen arabera.<sup>107</sup> Baina genitibo pluralak, ergatiboaren oinarri eransle bera aitortzen bazaio ere, ez du horrelako banaketa dialektalik erakusten. Halaxe deskribatzen du Mitxelenak (*FHV* 117),<sup>108</sup> gogora ekarriz, gainera, bizkaierazko testu zaharretako *-aen*, *-(e)en* aldaerak:

El resultado normal de la contracción de *a + e* y *a + o* parecer ser *e* (*a*) y *o*, menos veces *ai*, *au*. Con *\*ae*: [...] Or. *-ek*, suf. de act. pl. (ronc. sul. *-ék*), de *\*-a-ek*: occid. *-ak*, igual al de nom. pl.; en el gen. pl. es común, en cambio, *-en* (ronc. sul. *-én*), de *\*-a-en*, vizc. ant. *-aen*, *-(e)en*.

Badirudi, aurreko aipuetako ideiak kontuan hartuta, Mitxelenak *\*-agen* horien ondorengotzat dituela bizk. zaharreko *-aen* horiek. Mitxelenaren eta Lafonen ikuspegia honela laburbil daiteke: ekialdeko azentuera irregularraren azalpena eredu eranslearen barrenean bilatzen da, eta bi silabaren arteko kontrakzioaren ondorio da.

#### 2.4.2.5.4 Genitibo plurala eta superlatiboa

Gutxienez Humboldtetz geroztik, euskarazko superlatiboa genitibo pluralarekin identifikatu izan da (Trask 1997: 210). Honela dio Van Eysek: “Le superlatif absolu s'exprime par le génitif plur., auquel est postposé l'article; p. ex. *on*, bon, *onena*, le meilleur; litt. celui des bons” (1867: 18, 1879: 32-33).

<sup>107</sup> Ideia berdintsua dakar Uhlenbeckek (1908: 524): “En ce qui regarde la forme, faisons remarquer que l'intransitif n'est point signalé par un signe extérieur, mais que le transitif se forme au moyen du suffixe *-(e)k*. Au pluriel, le suffixe de ce nombre étant aussi un *k*, le transitif devrait avoir deux *k*, mais le dur *-ak-ek* que l'on avait obtenu s'est simplifié en *-ek* dans le basque français et en *-ak* dans le basque-espagnol, peut-être par l'expulsion dissimilatoire du premier *k*, suivie d'une contraction. De l'autre côté des Pyrénées les formes du transitif et de l'intransitif se sont identifiées au pluriel”.

<sup>108</sup> Honela dio Jacobsenek ere: “A problem is the lack of *-a-* in the Western area for the genitive plural suffix, which when contracted is *-en* < *\*-agen* everywhere” (1972: 71, 7 oh.).

Lafonek (1999: 663) are gehiago sakontzen du ideia honetan, eta superlatiborako ere eredu eranslearen araberrako osaera proposatzen du —ik. 2.4.2.5.3 atalean genitibo pluralaz dioena—, berriz ere zuberazko azentuera ebidentzia gehigarri moduan hartuta:

Sans doute il est probable que le suffixe du superlatif relatif, aujourd’hui *-en* (accentué en souletin, mais *-aren* dans quelques vieilles formes biscayennes, repose sur *\*-ag-en*, et il est possible que ce suffixe *\*-ag-en* contienne le même élément *\*-ag* que le suffixe *-ago* du comparatif de supériorité.

Lafonek hala badio ere, ez dirudi bizkaiera zaharrea *-aren* superlatiborik dagoenik, baina badira *-aen* bezalakoak.

Gavelen ustez (*Gramm* §81), bestalde, superlatibozko marka, genitibo plurala jatorrian, *lehen* eta *azken* hitzetan gramatikalizatuta ageri da; Mitxelenaren ustez hipotesi bat besterik ez da (VII 199-200), baina, Bidasoaldeko *-aken* genitibo plurala hizpide duela eta forma hauek zaharragoak lirakeela dioen hipotesiaren barrenean, *azken* hitzeko *-ken* jatorrizko genitibo pluraleko formaren adibide izan litekeela iradokitzen du.

Berrikiago, Martínezek (2010: 35-36) *handi-en-a* bezalako superlatiboetan jatorrizko *-e-* genitibo marka soila ikusten du, *-n* loturazkoarekin; genitibo pluraleko *-en* markak ere ustezko forma arkaiko hau partekatzen du, bere arabera. Dena den, lan berean genitibo pluralarekin ere lotzen du, tradizioarekin bat: “It [gen. pl. morfema] must undoubtedly be related to the superlative suffix *-en*” (2010: 89).

#### 2.4.2.5.5 Superlatibozko sintagmen jatorrizko sintaxiaz

Aurreko atalean ikusi bezala, formalki genitibo pluralarekin berdindu izan da superlatiboa; egin izan da proposamenik parekatze formal horren oinarrian dagoen superlatibozko sintagmen jatorrizko sintaxiaz ere. Hona Gavelek dioena (*Gramm* §79):

Le superlatif relatif est en réalité, comme on le voit, un génitif pluriel. La raison en est facile à comprendre. Lorsqu’on dit “le rois des rois”, on veut désigner le plus élevé en dignité ou en puissance parmi tous les rois. Certaines langues ont généralisé le procédé; tel est le cas de l’hébreu, et ainsi s’expliquent des expressions telles que “le cantique des cantiques” pour dire “le cantique par excellence”. Le basque l’a généralisé plus encore, et l’a appliqué aux adjectifs, disant d’abord, par exemple, *ederren ederra* “le beau des beaux” ou “la belle des belles”. Par la suite, on a sous-entendu l’adjectif simple (le positif, comme disent les grammairiens), et il n’est resté que le génitif pluriel, qui reçoit directement les désinences de la déclinaison.

L’ellipse du positif explique pourquoi le superlatif relatif, bien qu’étant un génitif, est postposé au nom auquel il se rapporte au lieu de lui être préposé; soit l’expression “la plus belle fille”; elle a dû se présenter primitivement en basque sous cette forme: *neskatila ederren ederra*, littéralement “la

fille belle des belles”, et bien entendu le génitif *ederren* était immédiatement préposé au positif *ederra* dont il était le complément; après l’ellipse du positif il n’a pas changé de place.

Gavelen ustez, beraz, *neska ederren ederra* bezalako sintagmak daude gaurko superlatiboazko sintagmen jatorrian; *ederra* aukerakoa izango zen, *neska ederren* (*ederra*), eta horrela iritsiko ginen gaurko eredura; elisio horren paralelo moduan dakar alem. *die der schönen* “celle des belles, la des belles” dakar.

Martínezen (2010: 89, 98 oh.) proposamena bestelakoa da, jatorrizko egitura *altu gizon-ena* izango zela proposatzen baitu:

One should notice that there must have taken place some hypalage (or transmission of a quality from a noun to another related one in the same NP), for in principle we would expect to find the gen. pl. not on the adjective (‘of the tall ones (?)’), as in Basque, but on the category of elements inside which the adjective is supreme (‘(the tallest one) of the men’). In fact, we do have a gen. in the expected word, which is the partit. (*gizon-ik altu-en-a* ‘the tallest one of the men’). This is actually one of the functions that the partit. suffix has preserved (see 2.1.15.). This hypalage process, then, may have happened in a number of ways. For instance, if we admit with Lakarra (2005: 413 ff.) that the most frequent order in the common language, or at least in phases previous to the historical ones, was operand-operator, we might assume that NPs like *gizon(-ik) altu-en-a* were in origin something like *altu gizon-en-a* ‘tall of (= among) the men’. If here *gizon* is contextually interpreted as redundant information, the whole phrase can turn into *altu-en-a* ‘the tallest one’. If one wants to express the category again, this time it is done by means of the partit.: *gizon-ik altu-en-a*.

Bosgarren kapituluan beste hipotesi baten aukera aurkeztu dut, erakusleen gramatikalizazioaren ereduaren barrenean.

#### 2.4.2.5.6 Genitibo plurala eta iberierazko lekukotasunak

Bada beste auzi aipagarri bat genitibo pluraleko markaz ari garela: txanpon batzuetako iberierazko *-en/-s)ken* bukaerak genitibo plural gisa identifikatu izan dira, eta baita euskarazkoarekin lotu ere; eztabaidarako ik. Vallejoren lanak (1946, 1950). Honela dakar Lafonek (1948: 87), Caro Barojaren lana eta Schuchardten ideiak hizpide dituela:

À propos de la finale *-scen*, *-cen*, que Schuchardt a approché de la finale basque *-aken* de génitif pluriel, et qui est employée dans la zone orientale (correspondant avant tout à la Catalogne actuelle), M. Baroja écrit : “La relación de esta desinencia con un genitivo plural vasco es posible, aunque la aparición de la *s* es rara” (p. 232). Très juste remarque: *-aken*, qui n’est employé que dans le parler d’Irun et de Fontarabie, repose très probablement sur *\*-ag-en*, et l’*s* de *-scen* fait difficulté.

Oraintsuago, Pérezen (1993: 227) lana da euskal morfemaren eta iberierazkoaren artean ezarri izan den lotura honen lekuko. Beste lan batean (Manterola 2009: 272-273)

iberierazko genitibo pluraleko ustezko marka honen eta euskarazkoaren arteko konparazioak zer-nolako mugak dituen aztertzen da, iberierazko *-(s)ken* eta *azken* hitzeko *-ken* konparatuz: bietan —iberieraz ez beti, halere— herskaria txistukari ondotik dagoela ohartarazten da. Baina konparazio honen arazoak azpimarratzen dira — kronologiazko arazoak, besteak beste—, iberierazko lekukoak erromatarren etorreraren aurrekoak edo garaitsukoak baitira. Ez dirudi eztabaida honek azken urteetan bestelako ekarpenik izan duenik.

Iberiar ikasketen alorrean, bestalde, datu iberiarrek eman dezaketen informazioaren laburpen bikaina dakar De Hoz irakasleak: *-en* atzizkiari dagokionez, “parece seguro [...] que *-en* funciona como marca de propiedad o relacional, como una desinencia de gen. en las lenguas IE” (2011: 266); *-skén* atzizkia, berriz, atzizki konposatu gisa analizatzeko aukera aztertzen du De Hozek, baina askoz ere modu zuhurragoan (2011: 269):

En conclusión podemos pensar como hipótesis en una combinación de elementos, *-es* = indicación de origen, *-ke* = formador de étnicos o pluralizador, *-en* = indicación de pertenencia; *ausésken* sería pues, en orden inverso a la formulación ibérica “(moneda) de — los — originarios de — Ausa”. Insisto sin embargo en que esto no pasa de hipótesis.

5.2.7.7 atalean diodanaren arabera, zinez zaila da lotzea iberierari buruzko analisi hauek euskararako berreraikitako formekin.

#### 2.4.2.5.7 Datibo plurala

Datibo pluralaren jatorrizko formari dagokionez, ergatiborako eta genitiborako proposatu izan diren irtenbide bertsuak aipatu izan dira literaturan, eta maiz horiekin batean tratatu izan da: Schuchardtek (1899: 178, 1904: 101) *-ei* eta *-ai* aldaerak azaltzeko darabil *\*haki* protoforma, eta, bide batez, erakusleekin lotzen ditu, itxura denez, deklinabideko forma horiek; Gavelek (1921: 338-340) datibo pluralaren jatorrirako *\*-agi* edo *\*-aki* formen aukera aipatzen du, eta Bidasoaldean *-aki* dagoela gogorarazten (ik. goian eztabaidarako).

Lafonek (1950: 306) ordu arteko ideien laburpena egiten du: *-ai* zuzenean jatorrizko *\*-agi* batetik erator daiteke, eta *-ai* formatik heldu da *-ei* bera; Bidasoaldeko *-aki*, forma berria da, bere iritziz, pluraleko *-ak* formaren gainean osatua, eta *-eri* formak



duen *-r-* analogiari egozten dio (cf. dat. sing. *-ari*). Ekialdeko *-er* formari, baina, bestelako jatorri bat bilatzen dio: zub. *-ér* azentuduna, oxitonoa, dela gogora ekarriz, jatorrizko bi silabaren kontrakzioztat du; *\*-áger* litzateke protoforma, eredu eranslearen arabera pl. *-ag* + dat. *-r* —han baizik gorde ez dena, *-i* orokorrigoaren aldean—, eta *-e-* bokala epentetikoa litzateke, besterik gabe. Antzeko azalpena jartzen du Mitxelenak (*FHV* 501) Jacobsenen ahotan, amaierako *-i* bokala galdu duen *\*ag-e-ri* protoformarekin azaltzen baitu ekial. *-ér*; hala, beste hizkeretako *-ai* eta *-ei* formen jatorria *\*-agi* litzateke.

Gaurko egoerari begira, Azkueren deskribapena har daiteke abiapuntu moduan (*Morf* §498):

En el dativo plural figuran como variantes *gizonaki*, *gizonai*, *gizonei*, *gizonari*, *gizoner* y *gizonairi* [...] *Gizonaki* [...] parece ser la forma más antigua. Tal vez la más oída y seguramente la más escrita es *gizonai* [...] Algunos en nuestros días muestran su preferencia por *gizonei* [...] Del hecho de que *gizonak* + *en* dé lugar a *gizonen* y *gizonak* + *entzat* a *gizonentzat* no se puede deducir que *gizonak* + *i* sea *gizonei* ¿De dónde viene esa *e*? qué oficio desempeña? *Gizonari*, que aun en plural dicen muchos en B, no debe salir del singular. *Gizoner* de los dialectos BN, R y S es muy probablemente contracción de *gizoneri*. La variante *gizonairi* está en uso por lo menos en B-oñ-zean y G-Usurbil.

Bestalde, Azkueren lanetik harago eta dialektologiako lan zenbaiti jarraiki, esan daiteke datibo pluralak bat egiten duela, morfemaren bokalismoari dagokionez, genitibo pluralarekin, izan ere *-e-* duten formak ez baitira bakarrik ekialdeko ezaugarri, eta Deba ibarrean ere badaude, besteak beste: “NORI kasuan, alde txikiren bat gorabehera, *-ari* singularrian (*gizonari*), eta *-ei* pluralian (*gizonei*), erabiltzen dira Deba ibarrían” (Zuazo eta Badihardugu 2002: 76).<sup>109</sup> Genitibo pluralean ez bezala, ordea, ez dirudi datiboan *\*-aei* bezalakorik dokumentatuta dagoenik (cf. bizk. zah. *-aen* gen. pl., 2.4.2.5.3 atala).

#### 2.4.2.6 Pluraleko leku-kasuak

Pluraleko leku-kasuak aztergai hartu izan direnean (inesiboa, adlatiboa, ablatiboa eta bere eratorriak), berorietan agertzen den *-eta-* artizkiaren jatorria izan da, batez ere, eztabaida iturria. Schuchardten arabera (1923: §14), latinezko *-etum* atzizki multzokaria

<sup>109</sup> Azkue bezala, Zuazok ere *-airi* deskribatzen du Oñatin: *gurasuairi* (Zuazo 2006: 88). Usurbilen ere badirau forma horrek; badirudi beste hainbat tokitan ere erabiltzen dela: “*gizonaIri* dalakoa Oñatin, Zeanurin, Usurbillen eta Goiherrian darabiltela” (Oregi 1971: 308); orobat Burundan (Zuazo 2010: 78).

da, pluralean *-eta* dena; cf. gazt. *alameda*, *arboleda*... Hipotesi honen arabera, beraz, toponimoetan mailegatu zen lehenik *-eta* atzizki hau, eta gero deklinabidera zabaldu. Gaurdaino indarrez iritsi den ideia da hori, Trasken hitzak lekuko (1997: 203).<sup>110</sup>

It has been believed for generations that the *-eta* in the plural is the same morph as the collective suffix *-eta* which is so common in place names (*Elorrieta*, from *elorri* ‘hawthorn’). This in turn is suspected of being a loan from Latin *-eta*, of similar meaning. Since I have already pointed out that the local cases do not involve the article in their formation, it seems natural to suppose that the number distinctions made possible by the article in the grammatical cases were extended to the local cases on a somewhat *ad hoc* basis. Thus, for example, while *mendi* ‘mountain’ was forming a singular locative *\*mendigan* > *mendian* as just described, the collective form *mendieta* (well attested as a toponym and a surname) was pressed into service by means of the old locative ending *-n* to create a distinct form *mendietan*, possibly strictly collective at first but soon reinterpreted as explicitly plural, in contrast to singular *mendian*. This is almost certainly the origin of the modern locative plural.

Leku-kasuetako *-eta-* elementuaren jatorri arrotz hau izan da, xehetasunak gorabehera, XX. mendean hainbat autorek bere egin duena, maiz aurreko atalean aipatutako eredu eranslearekin batean. Halaxe dio Castañosek: “De las formas plurales vascas se admite, diríamos unánimemente, la hipótesis de Schuchardt sobre el origen y formación de las formas en *-eta*” (1979: 89). Uste hori agertzen du Lafonek zenbait lanetan (1999: 22, 168)<sup>111</sup> eta Mitxelenak ere hipotesi egiantzekotzat jotzen du maiz *-eta-*ren jatorri arrotzarena (V 160, 27 oh., VII 557, IX 250 eta 494, 102 oh.)<sup>112</sup>. Tradizio horren zordun dira, halaber, euskal deklinabideaz oraintsu argitaraturiko Martínezen lanak ere (2009a: 260-261, 2009b: 80-83, 2010: 79-87, 112), eta, are berrikiago, Domenerena (2014).

<sup>110</sup> Cf. are berrikiago Seifarten lana (2013).

<sup>111</sup> Honela dio 1973ko lan batean: “*eta*, qui se rencontre dans beaucoup de toponymes, est sans doute le pluriel du suffixe collectif latin *-etum*” (1999: 22). 1970ean, berriz: “Le suffixe *-eta-* sert à former des toponymes; il exprime une idée d’abondance; il n’est autre, sans doute, que le pluriel du suffixe latin *-etum*” (1999: 168).

<sup>112</sup> Hauek dira Mitxelenaren 1958ko hitzak: “No es absolutamente seguro, aunque sí muy posible, que vasc. *-eta-* en el plural de los casos locales proceda del lat. *-ēta*, plural de *-ētum*, que se habrá introducido en la declinación a partir de su empleo como sufijo de derivación, como colectivo, en nombres de lugar” (V 160, 27 oh.). Eta ziurtasun handiagoarekin 1949an: “Cualesquiera que sean los reparos que puedan hacerse a las listas de sufijos vascos que se han presentado como de este origen, el carácter advenedizo del vasc. *-(k)eta* (lat. *-etum*) es generalmente aceptado, y, a pesar de proceder de un suf. extraño, lo vemos usado dialectalmente como sust., en la forma *k(h)eta*, con el sentido de ‘cantidad, abundancia’” (VIII 235-236).

Bada, alabaina, Schuchardten proposamen hori onartzen ez duenik, edo zalantzak dituenik: Uhlenbeck (1925: 366),<sup>113</sup> Lafon bera lehenagoko lan batean (1949: 507) eta Mitxelena (*FHV* 248); hauen artean, interesgarria da Boudaren iritzia (1944-1949: 198), errotik baztertzen baitu Schuchardten proposamena, eta eredu eranslean oinarritutako berea eskaintzen:

Dabei ist übrigens zu beachten, daß der Plural nicht das lateinische Kollektivsuffix *-eta* eingedrungen ist, wie Schuchardt sagt —das ist a priori schon deshalb ganz unmöglich, weil baskische Sprecher, die einige lokale Kasus damit hätten schaffen sollen (!), keine geschulten Linguisten waren und nicht, wie wir es vermögen, analysieren konnten—, sondern daß es sich nur um das Suffix *-ta* handelt, das an das baskische Pluralsuffix *-ak* (< kollektivischem *\*-ag* neben *-aga*) nur vermittelt des Bindevokals *-e-* treten konnte: *\*-ag-e-ta-* hat über *\*-aeta-* die so betonte Form *-éta-* ergeben. Daher ist das Suffix des Aktivus Pluralis stets betont *-ék* < *\*-ág-e-k* > *\*-aek*, wie man aus dem Souletinischen, das wenn keine Kontraktionssilbe vorliegt, auf der Päultima betont, deutlich sehen kann.<sup>114</sup>

Boudaren ustez, beraz, *-eta-* honek ez du jatorri latindarra, eta eredu eransleari segika azal liteke, *-ta-* morfema dela tarteko. Eredu eransle honen adierazle bete-betea da, orobat, Van Eysen lehenagoko proposamena (1879: 15): hark uste du *echetan*, *egunetako* eta *echeetara* bezalakoen jatorrian *eche-k-n*, *egun-k-ko* eta *eche-k-ra* daudela, hurrenez hurren; kritikarako, ik. Castaños (1979: 66), non Schuchardten hipotesiaren alde egiten duen. Honenbestez, agerikoa da Schuchardten hipotesiak ez zuela erabateko onarpena izan, gerora nagusitu bada ere; Boudaren, Lafonen eta besteren ohar hauetaz gain, ikus, halaber, ondoko atalean, Duvoisinen, Irigoienen eta besteren ideiak.

Schuchardten proposamenak beste ideia bat ere biltzen du, jatorri arrotzarenarekin estu lotua dagoena: toponimoetan agertu zen *-eta* lehenik, eta bertatik zabaldu zen

<sup>113</sup> Honela dio: “Schuchardts Hypothese über die romanische Herkunft von *-eta-* in *mendietan*, *mendietatik*, *mendietara* darf nicht für sicher gelten, ist aber vielleicht doch der Verbindung dieses Suffixes mit den verbalen Pluralzeichen vorzuziehen”. Euskaraz: “Ez da ziurtzat hartu behar Schuchardten hipotesia, *mendietan*, *mendietatik*, *mendietara* eta halakoetako *-eta-*ren jatorri erromantzeari buruzkoa; beharbada, hobetsi behar da atzizki honen eta aditzetako plural markaren arteko lotura”.

<sup>114</sup> “Era berean, ohartzekoa da pluralean ez dela sartu latinezko *-eta* atzizki multzokaria, Schuchardtek dioen bezala —hau berez ez da oso egiantzekoa, euskaldunak ez baitziren hizkuntzalari jantziak, guk egiten dugun bezala analizatzeko eta atzizki horrekin leku-kasuak sortzeko (!)—; badirudi, besterik gabe, *-ta-* atzizkia dagoela hor, eta hau loturako *-e-* bokalarekin baizik ezingo zitzaion lotu pluraleko *-ak* euskal atzizkiari, zeina *\*-ag* (*-aga*) multzokaririk datorren: *\*-ag-e-ta-* honek *\*-aeta-*ren bitartez eman zuen *-éta-* forma azentuduna. Horregatik da beti azentuduna ergatibo pluraleko *-ék* atzizkia (< *\*-ág-e-k* > *\*-aek*), zubereraz nabarmen ikus daitekeen bezala; hizkera honetan, kontrakzioirik ez dagoenean, azkenurrekoan ezartzen baita azentua”.

deklinabidera. Ideia honen oihartzuna dakarte Mitxelenaren<sup>115</sup> eta Trasken arestiko aipuek; Azkuek (1928: 212), ordea, jatorri latindarra burutan izan gabe beste norabidea aldarrikatu zuen *-eta-* horretarako, deklinabidetik toponimoetarakoa, alegia:

El hecho de que no se usa el artículo plural en Toponimia, pues en su lugar ha quedado como sufijo el infijo declinativo *eta* (a fuerza de decir *arizketara noa* voy a los robles, *arizketatik nator* vengo de los robles, ha quedado *arizketa* significando robledal).

Azkueren ikuspegia, berak espresuki azaltzen ez badu ere, hobeki lotzen da *-eta-* latinetik ez datorrela dioen hipotesiarekin.

2.4.2.7 *Ikuspegi alternatiboa: Duvoisin (1866), Van Eys (1867), Castaños (1979) eta Irigoien (1981).*

Eredu eransleak eta Schuchardten ideiak tradizio luzeari hasiera eman baino lehen, bestelako ikuspegia agertu zuten zenbait autorek; merezi du Duvoisinen (1866: 10) pasarte luzea hona osorik ekartzea, zinez argigarria baita, besterik azaldu beharrik izan gabe:

Les divergences ne se manifestent qu'au pluriel. La racine étant *ha*, le passif pluriel doit être *hak* et l'actif *haek*, parce que les signes déclinatifs sont *k* et *ek*. Par l'effet d'une particularité qui atteint plusieurs pronoms, presque tous les dialectes ont donné la même articulation à ces deux cas: le biscayen *aek*, le guipuscoan *ayec* (y euph.) le labourdin occidental *hekiek*, le navarro-labourdin *hek*, etc. (Voir § VII.)

Le biscayen ayant gardé les formes primitives, fait donc *aek*, *aen*, *aei*, etc. Tandis que d'autres dialectes séparaient ces voyelles par des consonnes euphoniques, le navarro-labourdin en *niz*, les contractait, au contraire, en *hæk*, qu'on a écrit *hek*. C'est aussi la méthode que tous les dialectes ont suivie quand le pronom se postposant aux radicaux substantifs, leur fournit les articulations du mode défini de la déclinaison.

En rectifiant la déclinaison du pronom suivant les données certaines qu'on trouve dans le biscayen, et en la rapprochant de la déclinaison du substantif, on reconnaît sans peine la liaison qui les unit.

<sup>115</sup> Ideia bera dakar beste lan batean ere: "Fray Ignacio Omaechevarría demostró cumplidamente que la terminación *-etan* de la conjugación vizcaína «procede del abundancial *-eta*» y que *-keta* «no sería más que el mismo *-eta* con una *k* de origen analógico»" (Mitx VII 692).

Paradigmes comparés de la déclinaison du pronom HA et du mode défini de la déclinaison du nom.

	Singulier		Pluriel	
Pass.	<i>Ha</i>	<i>Ogi-a</i>	<i>Hak</i>	<i>Ogi-ak</i>
Act.	<i>Hak</i>	<i>Ogi-ak</i>	<i>Hèk</i>	<i>Ogi-ek</i>
Gén.	<i>Haren</i>	<i>Ogi-aren</i>	<i>Hèn</i>	<i>Ogi-en</i>
Dat.	<i>Hari</i>	<i>Ogi-ari</i>	<i>Hèi</i>	<i>Ogi-ei</i>
Méd.	<i>Hartaz</i>	<i>Ogi-az</i>	<i>Hèz ou hêtaz</i>	<i>Ogi-ez ou ogi-etaz</i>
Posi.	<i>Hartan</i>	<i>Ogi-an</i>	<i>Hêtan</i>	<i>Ogi-etan</i>
Abl.	<i>Hartarik</i>	<i>Ogi-tik</i>	<i>Hêtarik</i>	<i>Ogi-etarik</i>
Dir.	<i>Hartara</i>	<i>Ogi-ra</i>	<i>Hêtara</i>	<i>Ogi-etara</i>

Un coup d’œil suffit pour constater l’identité des désinences déclinatives définies avec le pronom démonstratif du 3<sup>e</sup> degré. Et quand la similitude n’est pas parfaite entre certains cas, on trouve encore l’explication de ces différences. (*Voir* § VIII.)

Duvoisinek ez ditu aipatzen aurreko ataletan zerrendatutako hainbat arazo: inesiboko *-e-* epentetikoa, pluraleko *-ak* horrekikoak, azentuarenak... Baina deklinabidearen diakroniaren ikuspegi bateratua ematen du, eta erakusleen formen gorabeherekin lotzen du. Van Eysek (1867: 15) ere deklinabidearen oinarrian erakusleak ikusten ditu, Castañosek bezala: “Para la explicación de este segundo tipo de formas plurales, nuestra hipótesis tiene la novedad de comenzar con los demostrativos” (1979: 89). “Segundo tipo” horren aurretik *-eta-* dutenak aipatu ditu Castañosek; artizkiaren jatorri latindarraren alde egiten du hor. Irigoienek ikuspegi bera agertzen du han-hemenka idatzitakoetan (1981: 368-369, 1986: 228);<sup>116</sup> Altunak eta Azkaratek (2001: 42, 46) biltzen dituzte, txukunduta, Irigoienek ideiak.

Beste zenbait autorek ere egin dituzte oharrak, ikuspegi hau oinarri harturik: Traskek (1997: 200) esaterako, nahiago du ekial. *gizon-ek* / mendeb. *gizon-ak* ergatibo plurala *gizon haiek* moduko sintagma batetik eratorri, eta ez eredu eranslearen araberako *\*-ag-e-k* moduko zerbaitetik, baina aitortzen du xehetasunetan ez dezakeela asma. Lafittek, bestalde, inesibo plurala hizpide duela, honela laburbiltzen du bere iritzia, ondoren Schuchardten hipotesiaren aurka izendatuki egiteko: “si *Erroma* est le nominatif de *Erroman*, pourquoi *Harrieta* ne serait-il pas celui de *Harrietan*?” (1935: 261); leku-izena inesibo pluralaren ondorengo, beraz, ez alderantziz.

<sup>116</sup> Irigoienek, *Ubieta* leku-izena hizpide duela “con sufijo *-eta* procedente del inesivo plural” dio 1986ko lanean. 1981ekoan espresuki baztertzen du Schuchardten proposamena, pluraleko deklinabidea erakusleetatik eratorzea sinpleago dela esanez, hasperenaren galera tarteko.

Idea hauen historiari erreparatuz gero, nabarmen ageri da Duvoisinin eta besteren hipotesiak ez duela arrakasta handirik izan pluraleko kasuetarako, eredu eransleak (kasu gramatikalei) eta Schuchardten proposamenek (leku-kasuez dagokienez) azpian hartu baitute: badirudi autore garaikideek (Hualdek, Traskek, Martínezek...) eredu eranslearen araberako bilakabidea edo leku-kasuetako morfemaren jatorri arrotza onartu izan dutela. Salbuespentzat har litezke Irigoienen lana, kontraesanak kontraesan (ik. 2.3.2 (b) atala), eta berau biltzen duten Azkarate eta Altunarena (2001). Aipagarria da, dena den, lan honetan tradizioak erakusten duen zama (2001: 116-118): izan ere, artikuluz ari diren atalean Irigoienen ideiak bildu ondotik, deklinabidearenean Schuchardt hartzen dute oinarri: “Schuchardt (1922, 1923: §14) izan zen leku-kasuetan izen bizigabeek osatzen dituzten sintagma plural eta mugagabeei eransten zaien *-ta-* horren jatorriaz mintzatzeko lehena”. Horrela, mugagabeetako *-ta-* morfemaren (cf. *menditan, sutan, tokitan...*) jatorriaz ari direla, lat. *-etum* (pl. *-eta*) atzizkiarekin lotzen duen hipotesia baizik ez dute aipatzen, eta berau ontzat hartzen, itxuraz; *-e-*, berriz, berranalizatutako plural markatzaile dute. Zama honen adibide izan daiteke, halaber, Mitxelenaren hitzetan (IX 493) aurki daitekeen kontraesan moduko hau:

Esta diferencia guarda relación, a mi entender, con el hecho de que en la declinación nominal la adición de sufijos nunca produce cambios en el final del tema: *-eta*, cualquiera que sea su origen, se ha identificado casi siempre con el infijo *-eta-* que entra en la formación de los casos locales de plural, y *-aga*, a falta de otra correspondencia, tendrá que igualarse con *-ak* del nominativo plural.

Deklinabidearekin duen lotura argi deskribatzen du, eta, ikuspegi hau Duvoisinin eta besteren ikuspegiarekin hobeki ezkontzen bada ere, lerro batzuk beheago, funtsean eratorpenezkoa den latindar atzizkia aipatzen du Mitxelenak euskal *-eta-*ren ustezko jatorri moduan (IX 494, 102 oh.).

#### 2.4.2.8 Pluraleko deklinabidearen azentueraz

Pluraleko azentuari dagozkion auzien gaineko atal honetan, komeni da Mitxelenaren hitzok gogoan hartzea: “la soudure des thèmes nominaux avec l’article et les suffixes de déclinaison au pluriel doit être en tout cas quelque chose d’assez moderne” (VII 141). Izan ere, atal honetan zerrendatu diren gertakarietarako eta horiek azaltzeko proposatu izan diren hipotesietarako aingura kronologiko orokor moduko bat ematen dute.

#### 2.4.2.8.1 Ekialdeko kasu gramatikalak

Lafonek, zenbait hizkera zuberotar eta Leizarragaren notazioa hizpide, hainbat ohar egin zituen ekialdeko azentuaren gainean (1999: 697-703), eta zenbait kontrakzio gertaerarekin lotu zuen bereziki azentuera hori. Ergatibo eta genitibo pluraletan, esaterako, *\*-ág-e-k* eta *\*-ág-en* protoforma ezagunak abiapuntu hartuta zubererazko azentu oxitonoa (*-ék* eta *-én*) eragiten duten kontrakzioak aipatzen ditu.<sup>117</sup> Bestela esanda, etimologikoki [-2] zen azentuera [-1] da, silaben kontrakzioa dela tarteko.

Datibo eta instrumental pluralak batera aztertzen ditu: dat. *háurrer*, *semér*, *alhabér* eta instr. *háurrez*, *seméz*, *alhabéz* ematen ditu, eta, darabilen eredu eransleari segituta (izena + pl. *-e-* + *-r/-z*), dio kontrakzioa gertatu zela *semér/seméz* eta *alhabér/alhabéz* kasuetan, baina ez *háurrer/háurrez* kasuan; horrek azalduko luke *haur*-ek azentu paroxitonoa gordetzea. Mitxelenak (VII 139 eta 37 oh.), halere, erg. *-ék*, gen. *-én*, dat. *-ér* eta instr. *-éz* oxitonoak direla dio, eta Lafonen datuak Larrañekoak eta Altzaikoak direla, baina ez ezinbestean Zuberoa osokoak; Gèzeren (1873: 12-19) datuetan ere azentu oxitonoa agertzen da lau kasu plural horietan. Gainera, Lafonek berak aitortzen du hiztun berari jasoak dizkiola (1999: 699), erg. pluralean, *gathíék* zein *gathíek* formak; hauetan badirudi deklinabideko [-1] azentua [-2] azentu-eredu orokorraren arabera berdindu ahal izan dela hainbat kasutan, eta, hartara, bidea ematen dute kontrakziorik gabekotzat dituen dat. eta instr. pl. *háurrer/háurrez* formak ere modu horretan azaltzeko; cf. halaber zer dioen Leizarragaren dat. pluraleko formez (1999: 701).

Funtsean, ekialdeko erg., gen., dat. eta instr. formen azentu oxitonoa azaltzeko, deklinabidearen ustezko izaera eranslea hartzen da oinarri, eta gaur morfema bakarra den tokian jatorrian bi zirela argudiatzen da; hala, horiei gertaturiko kontrakzioen ondorio litzateke egungo azentuera. Ikuspegi hau berau darabil Mitxelenak (*FHV* 403) erronkarierazko datuak azaltzeko, baina, hasperenaren eta azentuaren arteko lotura hizpide duela, aitortzen du bitxia iruditzen zaiola azentua atzizkietara pasatu izana (*FHV* 421): “[N]o deja de ser extraño, en estas circunstancias, que el acento pase a veces al

<sup>117</sup> Genitiboan, plural marka *-ag-* zein *-e-* izan zitekeela aipatzen du, hots, protoformak *\*-ag-en* edo *\*-e-en* izan zitezkeela.

suf. de declinación en ronc. y en sul.”, ekialdeko euskalkietan azentuak mugikortasun moduko bat duela pentsatzen baitu (“típica movilidad del acento que hallamos en los dialectos orientales”).

#### 2.4.2.8.2 Ekialdeko leku-kasuak

Pluraleko leku-kasuei gagozkiela, aipatu beharrekoak dira zubererazko datuez Hualdek (1997: 80) gogora ekarriak: Intxausperen *San Mateoren Ebanjelioa* aztertzen duenean, ohartarazten du oxitono edo paroxitono ez diren azentuerak daudela; besteak beste, *zeliétaco*, *falxiétaric*, *herrouétara*. Dakartzan adibide gehienak pluraleko leku-kasuetakoak dira, eta azentua, normalean, deklinabide markako -é-ren gainean daukate; Gèzek (1873: 12-19) ere halako azentuera dakar pluraleko leku-kasuetan.<sup>118</sup> Bistan dena, leku-kasuetako azentuera proparoxitono honek ez du zubereraz arrunta den [-2] eredu paroxitonoa betetzen.

Aipagarriak dira datuok, bai baitirudi ekialde hutsean baino eremu zabalagoan aurki daitezkeela antzekoak: Lizarraga Elkanokoak *ceruétara* (OngIlt 91 or.) eta *limboétara*, *ceruétara* (LizDot 4, 15, 27 or.) formak idazten ditu,<sup>119</sup> baina bestelako azentu grafikoa dutenak ere badituela aitortu behar da (cf. LizKopl *loietára* 104 or., *limboetára* 199 or., *atarietára* 138 or., etab.). Ekialde hertsira itzuliz, bestalde, azentu horren ondorio diren sinkopak ditugu, azentu horren antzinatasuna sala lezaketanak, neurri batean: cf. Igariko dotrinako *limboetra* (behin *-hetra*, <h>-rekin) edo *zeruetra* (BonapOnd),<sup>120</sup> bai eta, Zuberoan berriro, *Celietrat* (Belap 57 or.) eta *esküet(a)rat* (Maister 179 or.) moduko adibideak.

Honela laburbil daiteke ekialdeko deklinabide mugatuaren azentueraz dakiguna: kasu gramatikalek zein leku-kasuek ez dute betetzen, zein bere modura, hizkerari dagokion [-2] azentu eredu orokorra: kasu gramatikaletan arauari buruzko desbideratze

<sup>118</sup> Salbuespena da bere “génitif relatif”-eko *lúrretaco*-k duen azentua (1873: 13), agian *lur* silaba bakarreko hitza delako; cf. Lafonen *háurrer* eta *háurrez* salbuespenak (2.4.2.8.1), silaba bakarreko *haur* hitzarekin.

<sup>119</sup> Cf. halaber, datiboarekin, *onéi gloria*, *gaichstoéi péna* (OngIlt 162 or.).

<sup>120</sup> Adlatiboko adibideak dira; ablatiboan, ordea, ez dago sinkoparik: *Escuyeco bi eriez curuze baten eguita borondetic bularretra*, *bularretaric ezquerreco soñeguiala*, edo *iz gaistoetaric* etab. (Itzaltzuko dotrina, BonapOnd).



hau, [-1] azentua baitute, silaben kontrakzioen bitartez azaldu nahi izan da; leku-kasuetako [-3] azentu-modua, ordea, ezin izan da molde berean azaldu.

#### 2.4.2.8.3 Mendebaldeko azentueraz

Mendebaldeko hizkerez era bada zer aipatua, eta Trasken hitzak (1997: 203-204) egoeraren argigarri dira:

A complication is that plural *-eta* bears the accent in the western varieties with a pitch-accent: *-èta*. Jacobsen (1975), as part of his belief that accented morphs continue former geminate vowels, posits *\*-eeta* as the source and derives this in turn from *\*-egeta*, with an overt plural marker.

Segidan, Hualderen lanak aipatzen ditu Trasken, azpimarratuz autore horrek mendebaldeko azentu-moduaren bilakaeran bokalen kontrakzioei garrantzi txikia aitortzen diela; Trasken ez du jo nahi, beraz, Jacobsenek aldezen duen eredu eranslearen bidetik, leku-kasuen jatorrian *-eta* atzizki multzokaria ikusten baitu. Hualderen lanetan, are modu xeheagoan aztertzen dira auziaren ñabardurak: mendebaldeko hizkeretan hitz gehienak azenturik gabeak dira, eta sintagmaren araberrako azentua daramate, ez hitzaren araberrakoa (adib. *iturri*, *iturri*, etab.); hori da eredu markatugabea. Baina badira azentu finkoa duten hitzak —mailegu edo osagai morfologiko bat baino gehiagokoak dira, eskuarki—, eta hauek eredu markatuaren multzoa osatzen dute: azentua amaierakoa ez den silabaren batean izaten dute. Gogoetabide honetan kokatzen ditu Hualdek (1995: 178) deklinabideaz esateko dituenak:

Of particular importance because of its functionality is the difference in accentual properties of singular and plural inflectional suffixes. In many varieties, plural suffixes are preaccenting, whereas singular suffixes are unaccented. This creates a contrast in these varieties between the accentuation of singular forms such as *gizoná*, *gizonák*, *gizonarí* “the man abs, erg, dat” (with phrase-final accent), on the one hand, and the corresponding plural forms *gizónak*, *gizónari* “the men abs/erg, dat”, on the other. If a word contains several accented morphemes only the leftmost lexical accent is realized (an effect of this rule being the fact that if the root is accented the opposition between singular and plural forms is neutralized, as in *léngusueri* “to the cousin or to the cousins, dat”).

Esan liteke, hortaz, pluralekoak, singularreko formen aldean, forma markatuak direla; beste modu batean esateko, pluralekoak forma konplexu bezala tratatzen ditu azentu-sistemak, eta halaxe dio Hualdek ere: “[I]t has to be assumed that, at some historical

point, plural words had a compound-like structure, whereas singular words did not” (1993: 40). Singularren eta pluralen alde hori azaltzeko, gainera, tradiziozko eredu eransletik aldentzen den irtenbide diakronikoa proposatzen du, esanez *gizonak* sintagman *gizon + (h)a(i)ek/\*hak* dugula jatorrian, eta *gizonok*-en *gizon + hauk*, singularrekoetarako Mitxelenak (*FHV* 213) aipatzen duenaren eredura.

#### 2.4.2.8.4 Erdialdeko zenbait hizkeratako azentuera

Egoera bertsua berreraikitzen du Hualdek erdialdeko zenbait azentueratarako, xehetasunak xehetasun. Leitzako eta Goizuetako azentuerak alderatzen ditu lehenik, eta Goizuetakoa zaharragozat jotzen du: “In having two stressed syllables (in the stem and in the suffix) in plural forms, on the other hand, Goizueta appears to be more conservative” (2007: 313). Jacobsenen (1972) lanari jarraiki, gainera, Oiartzunen ere duela gutxi arte antzeko azentuera izan dela gogorarazten du Hualdek (2008: 203). Horren ondotik, honela bateratzen ditu mendebaldeko (bizkaiera/gipuzkera) azentuera zaharra eta Nafarroakoa (2007: 314):

If we compare the most conservative systems in both areas [mendebaldekoaz eta Nafarroakoaz ari da], what we see, instead, is a common phenomenon: plural forms have one extra accent when compared to uninflected and singular words in the unmarked class.

Beste hitz batzuetan esanda, pluraleko paradigmak azentuera markatua du eremu bateko zein besteko hizkeretan.

Honenbestez, pluraleko azentuerari eskainitako atal honetakoak honela laburbil daitezke: mendebaldean, erdialdean zein ekialdean, hizkera bakoitzaren eredu orokor eta ez markatutik kanpo geratzen da pluraleko azentuera. Hizkeraren arabera —mendeb./erdial./ekial., hemengo eztabaidan—, modu batean edo bestean gauzatzen da desbideratzea; atalaren hasieran gogoratu dugun Mitxelenaren ideiaaren barrenean, ordea, ongi bilduta gera daiteke desbideratze hori: pluraleko deklinabidearen izaera berantiarrak azpian har litzake jokabide ez-ereduzko horiek.<sup>121</sup>

---

<sup>121</sup> Autore honek, baina, arkaikoagozat du mendebaldeko deklinabidearen azentuera (*FHV* 421).

## 2.5 Artikuluaren morfologia diakronikoaren inguruko auziak. Laburpena

Hiru gai nagusitan antola daitezke hemen aurkeztu ditudan artikuluaren diakroniaren morfologiazko gaiak: batetik, artikuluaren beraren jatorri morfologikoarena; erakusle jatorria aski argia izaki, bere sorrera-garaiari buruzkoa izan da eztabaida nagusietako bat (2.1.3 atala); era berean, artikulua sistema hirukoitzaren gainean eta mendebaldeko erakusle-artikulu sistema berregituratuaren berri ere eman dut (2.2.3-2.2.4 atalak). Bestetik, hainbat gai aipatu dira artikuluen jatorri diren erakusleen berreraiketari buruz: bere ezaugarri fonetiko-fonologikoak (zein zen jatorrian erakusleen hasierako hotsa?), morfologikoak (zein dira forma zaharrak, *(h)ek* modukoak ala *(h)æk* modukoak?), erakusle sistemaren izaera bera (bi graduko sistema berreraiki behar da, ala hirukoarekin aski da?), eta abar. Azkenik, atalaren zati nagusia hartu dute deklinabide mugatuari buruzko eztabaidek; erakusleen eta artikuluen arteko lotura ezin utzizkoa eztabaidagai horietan ikusten da hobekien. Hor, zenbait gai agertu ditut singularreko eta pluraleko deklinabide mugatuari buruz, eta horien diakronia zehazteko bilakaera morfonologikoen (inesibo singularrarenak, esaterako; ik. 2.4.2.2.1 atala) edo azentuari (2.4.2.8 atala) dagozkion eztabaiden garrantzia nabarmendu dut. Deklinabide mugatuaren osaera diakronikoari buruzko lanetan, agerian utzi dut eredu eransleak izan duen pisua (2.4.2.5 atala), baina bestelako aukeren berri ere eman dut (2.4.2.7 atala).

Bosgarren kapitulan, saiatuko naiz azalpen bateratua ematen atal honetan zerrendaturiko arazo horietarako; horretarako, Erdi Aroko hainbat datu berri ekarriko ditut eztabaidara (laugarren kapitulua).

## B. ARTIKULUAREN SINTAXI DIAKRONIKOA: AZTERKETEN EGOERA

### 2.6 Artikuluaren dimentsio sintaktikoa: bere hedatzea

Aurreko ataletan, euskal artikul(u)aren inguruan piztu diren eztabaida morfologiko nagusien bilduma egin dut; zerrenda hori erakusleen eta deklinabide mugatuaren diakroniaren alorreko zenbait auzi morfologikorekin osatu da, ezinbestean, artikuluarekin duten harreman bereizezinaren bidetik. Artikulu definituaren berezko

dimentsio morfologiko horretaz gain, bestalde, baitezpada aipatu beharra dago beronek duen erabilera sintaktikoa ere.

Atal honetan, euskal artikulua definituaren erabileraz egin diren deskripzio eta analisi nagusiak bilduko dira; azterketa horiek sinkronikoak izan dira maiz, baina aurki daitezke, han-hemenka, auziaz egin diren ohar diakronikoak ere. Perpausaren osagai sintaktiko nagusiei begira (subjektu, objektu, predikatu...), *-a* morfema da aztergaia, artikulua hitz egiten dugunean. Ohar hau ez da alferrikakoa; izan ere, ikuspegi diakronikotik hartuta, izen sintagmetako *-en* gen. pl., leku-kasuetako *-eta-* eta abar artikulutzat jo daitezke, bosgarren kapituluan ikusiko den bezala.

### 2.6.1 Sarrera: euskal artikulua erabilera zabaldua

Traskek dioen bezala (2003: 119-121), *-a* artikulua beste hizkuntza batzuetako artikulua baino modu zabalagoan erabiltzen da:

The label *definite article* is misleading, since this article is of much broader use than the English definite article [...] *ura* may correspond either to ‘water’ or to ‘the water’, and *umeak* may correspond either to ‘children’ or to ‘the children’.

Euskal artikulua, beraz, beste hizkuntza batzuetan agertuko ez litzatekeen testuinguru sintaktikoetan ager daiteke; ik. honako adibide hauek, egoeraren argigarri:

#### (5) Barne argumentu posizioan

##### a. Izen zenbakaitzekin:

- i. *Jonek ardoa edan du.*
- ii. *Juan ha bebido vino/el vino.*
- iii. *Jean a bu du vin/le vin.*
- iv. *John has drunk wine/the wine.*

##### b. Izena pluralean (objektua):

- i. *Jonek gaztainak jan ditu.*
- ii. *Juan comido castañas/las castañas.*
- iii. *Jean a mangé des marrons/les marrons.*
- iv. *John has eaten chestnuts/the chestnuts.*

##### c. Izena pluralean (subjektua):

- i. *Trenak*<sup>122</sup> *etorri dira.*
- ii. *Han llegado trenes / Los trenes han llegado.*
- iii. *Des/les trains sont arrivés.*
- iv. *Trains/The trains have arrived.*

## (6) Perpaus existentzialak

- a. Izen multzokariak:
  - i. *Jendea badago kalean.*
  - ii. *Hay gente en la calle.*
  - iii. *Il y a du monde dans la rue.*
  - iv. *There are people on the street.*
- b. Izen zenbakaitzak :
  - i. *Ardoa badago hozkailuan.*
  - ii. *Hay vino en el frigorífico.*
  - iii. *Il y a du vin dans le réfrigérateur.*
  - iv. *There is wine in the fridge.*
- c. Izen zenbarriak pluralean:
  - i. *Harriak daude bidean.*
  - ii. *Hay piedras en el camino.*
  - iii. *Il y des pierres dans le chemin.*
  - iv. *There are stones on the road.*

(7) Lanbidea adierazten duten izen predikatuak (pluralean *-ak* leukakete *-a* beharrean)

- i. *Jon irakaslea da.*
- ii. *Juan es profesor.*
- iii. *Jean est professeur.*
- iv. *John is a teacher.*

(8) Izenondo predikatuak (pluralean *-ak* leukakete *-a* beharrean)

- a. Izenondo hutsa:
  - i. *Jon handia da.*
  - ii. *Juan es grande.*

---

<sup>122</sup> Hiztun zenbaitek ez du irakurketa existentziala onartzen.

iii. *Jean est grand.*

iv. *John is big.*

b. Izenondo + izen:

i. *Jon mutil handia da.*

ii. *Juan es un chico grande.*

iii. *Jean est un garçon grand.*

iv. *John is a big guy.*

Adibide hauek mendebalde-erdialde zabaleko euskara modernoaren gramatika islatzen dute, baina, datu historikoei eta dialektalei begiratu gero, agerikoa da hizkuntzaren egoera askoz ere ñabarragoa dela, eta adibide horietako izen sintagmetariko batzuk artikulurik gabe ager daitezke zenbait euskalkitan. Honela laburbiltzen du egoera Mitxelenak (VII 301), ekialdea eta erdi-mendebaldea, batetik, eta iparra eta hegoa, bestetik, bereiziz:

De cualquier modo, y aunque el empleo de demostrativos en función de artículo sea debida a influencia extraña, el caso es que nosotros parecemos habernos pasado de la raya yendo más lejos que cualquiera de los demás. Hay, con todo, gradaciones en la frecuencia de su uso. De atenernos a una mera impresión, se diría que es empleado más profusamente en el centro y oeste del país que en el este, más en general al sur que al norte.

Ezaguna da Mitxelenak “pasado de la raya” informal horrekin irudikatu duen erabilera zabaldu honek nolako nahasmena eragin duen euskal gramatikagintzan, eta Azkuek berak (Morf: §430) “invasión de este elemento” izendatzen du artikularen zabaltze hau. Bi autore hauek, Mitxelenak (VII 302-303) eta Azkuek (Morf: §428), gogora dakarte Mikoletaren eta besteren ustea, zeinaren arabera euskal izen eta izenondo guztiek *-a* edo *-ak* amaiera duten, eta nola egiten dion kontra uste honi Oihenartek, ez alferrik, izan ere zuberotarra baitzen, artikulua gutxiago erabiltzen den eremu batekoa.

Hizkuntzaren ezaugarri honen inguruan, hauxe litzateke analisi diakronikoen azken helburua: zehaztea zein irizpideren arabera —semantikoak, funtzionalak— iritsi den artikularen erabilera gaurko egoerara. Horretarako, ordea, deskripzioa zehatza behar da lehenik, hizkeratik hizkerara eta garaitik garaira dauden aldeak argituko dituen; honela diosku Mitxelenak (VII 304):

[Q]uedaría por determinar, como queda dicho, cuál es la norma [artikuluaren erabilerarena] hoy en algunas zonas y cuál era ésta, en unas o en otras, en tiempos anteriores.

Eta honela ikusten du autore honek berak ikerketaren egoera (VII 306):

No sé que haya ningún estudio especial sobre el empleo de la determinación en el predicado nominal, ni siquiera con el auxiliar intransitivo, alias cópula, en una u otra zona o en estos y aquellos autores: no se ha pasado, si no he buscado mal, de consideraciones generales entreveradas de juicios de valor.

Ondoko atalean, han-hemenka auziaz egin diren aipamen horietako batzuk bilduko ditut, Mitxelenak deskribatzen duen ikerketaren egoera horren erakusgarri.

### 2.6.2 Artikuluaren eta mugagabearen erabileraz egindako oharra

Mitxelenak esan bezala, kontu ezaguna zen hizkeratik hizkerara artikuluaren erabileran aldea bazegoela, baina auziaz aurki daitezkeen aipamenak egoera sinkroniko baten deskripzioa baizik ez dira izaten, eta deskripzioa bera ez da maiz corpus jakin batean oinarritua, autoreari deigarri gertatu zaion adibide baten edo besteren aipamena baizik. Horren adibide da Lafonen oharra (1951: 15), non, testuinguru sintaktiko jakin bat harturik —izenondo predikatuarena—, hizkeren artean dagoen aldeaz ohartarazten duen:

Mais les conditions d'emploi du singulier, du pluriel et de l'indéfini ne se laissent pas ramener à une formule simple, et l'usage, sur certains points, varie suivant les régions. Ainsi, en labourdin, l'adjectif attribut se met régulièrement au nominatif singulier ou pluriel, non à l'indéfini: *ederra da* 'il est beau', *ederrak dire* 'ils sont beaux' [badirudi burutan dituen zubererazko datuei kontrajartzen dizkiela lapurterazko hauek].

Lafonek berak, numeroa aztergai duen 1954ko beste lan batean (1999: 209-212), mugagabearen eta artikuluaren erabileraren gaineko gorabehera batzuk aipatzen ditu, kasu honetan perpaus existentziala harturik adibideetarako oinarri, eta besteak beste partitiboa ere eztabaida berean sarturik. Ildo beretik, aipagarriak dira Azkueren hitzak, zubererazko egoera deskribatu bai, baina egoera horretara iristeko arrazoia ere bilatzen baitu (*Morf* §429):

Hay algún dialecto, el suletino, en que no sé si por influencia del francés o por atavismo, dicen frases como *ekarzan ur* trae agua, *arrazu ogi* tomad pan; cuando lo ordinario es decir *ekarzan ura*, *arrazu* o *arrazu ogia*. De mis antepasados se conserva en mi familia esta locución que la usamos corrientemente: *baneukan asti* 'ya tenía tiempo', en vez de *baneukan astia* o *astidxa*: y creo sea corriente en Lekeitio o Mundaka.

Azkuek, hortaz, ez du argi zubererazko mugagabearen erabilera eragin arrotzaren ondorio den, ala bere izaera arkaikoarena; ik. behean Álvarezen saioa. Dena den, badirudi beste zenbait kasutan —*baneukan asti* esapideaz ari dela, edo Bährek bere lan baten itzulpenean mugagabeaz egiten duen erabileraz ari delarik— arkaikotzat duela Azkuek mugagabearen erabilera; ik. halaber behean, bere aipua (*Morf* §432). Horixe baita, izan ere, iritzi orokorra: jatorrizko egoera artikulurik gabea izanik, mugagabearen erabilera da jatorrizkotzat jotzen dena.

Horretaz gainera, Lafonek predikatuak eta perpaus existentzialak aipatzen dituen bezala, Azkuek funtzio bokatiboan diren izen sintagma aztertzen ditu ondoko ataletan (*Morf*: §430-432); autore zenbaiten adibideak zerrendatzen ditu —Leizarraga, Axular, Oihenart, Zabala eta beste—, eta izen sintagma horietan artikulurik agertzen den ala ez zehazten. Azkenik, Azkueren laneko beste bi puntu dira aipagarri: deklinabideko gorabehera zenbait aipatu ondotik (leku-kasu singularren auziak eta *-o-* artikulurik hurbilarenak), *-ik* partitiboa aztertzen du lehenik (*Morf*: §439-442), bere morfologiaz eta erabilera testuinguruez zenbait ohar eginez, euskalki eta testu askotako adibideen harira; eta, bigarrenik (*Morf*: §448), zenbait izenen (*aita, ama, errege, ugazaba, etab.*) jokabide mugagabea azpimarratzen du. Azkueren ekarpenean puntu bat dago bereziki garrantzitsua, hala ere: beti ere bokatiboa hizpide, galdetzen du ea nolatan zabaldu den artikularen erabilera jatorrian artikulurik ez zegoen testuinguruetara; gaztelaniaren eraginari egozten dio zabaltze hori, eta aldaketa pluraletik hasi zela proposatzen du (*Morf*: §432):

De este hecho, de usarse como vocativo plural el artículo *ak* parece venir, por imitación, el uso del artículo *a* en vocativo singular, aunque indebida e indudablemente contra el genio de la lengua.

Lan hauetan guztietan mugagabea testu zaharretan erabiliagoa zela azpimarratzen da, arestian aipaturiko iritzi orokorrarekin bat; Lafonek zein Azkuek Leizarragaren adibideren bat edo beste ematen dute, horren argigarri, baina halako datuak ohar diakroniko moduan har badaitezke ere, ez dira iristen aldaketa diakroniko edo bariazio dialektal horren izaera xehakatzera.



Esan bezala, ez dira hauek azterketa sakonak, ez baitute, hain zuzen, sakon izateko xederik, deigarri suertatzen den ezaugarri baten berri ematea baizik. Sail berean koka litezke gramatikari modernoagoen lanak ere: cf. Villasante (1972: 108-110), *EGLU* (79-82), eta are *A Grammar of Basque* liburua ere, artikulua erabilera deskribatzeko esanguratsuak diren testuinguru sintaktikoak xeheki zerrendatzen baditu ere; hauen artean interesgarria da Lafitteren gramatika, ekialderagoko hizkeretako datuak ematen baititu, sintagma mugatuen eta mugagabeen arteko aldea hobekien gorde duten hizkeretakoak, hain zuzen, zenbait testuinguru sintaktikoren eta predikatuen izaera semantikoaren arabera sailkatuak (1944: 68-74, 123-126, 417-421).

Nolanahi ere, zenbait ohar gorabehera, lan hauen helburua ez da hizkeren arteko aldeak ez eta garaien artekoak ere xeheki deskribatzea, ez eta garai ezberdinen artekoak ere. Ik. Rodriguezen lana (2003: 2-8), *EGLU*-ren, Villasanteren eta besteren lanen kritikarako.

### 2.6.3 Artikuluaren eta mugagabearen erabileraz egindako berariazko deskripzioak

Aurreko atalean bildutako han-hemenkako oharrek, bere ttikian, auzia bere arazoetan kokatzen lagundu dute: argi dago garai zaharragoetan eta euskalki zenbaitetan sintagma mugagabeak gehiago erabiltzen zirela artikuludunak baino, eta alde hori argi ikus daiteke testuinguru sintaktiko batzuetan. Aldaketa eta bariazio hori neurtzea da egin gabe dagoen lana, Mitxelenaren arestiko aipuan ikusi bezala.

Atal honetan Álvarez, Mitxelenaren eta Castañosen lanen berri emango dut, xeheki, beste zenbait lan —Iturriozena (1985) eta Agirrerena (1985), esaterako— aipamen hutsean utzita; Álvarez, Mitxelenaren, eta, bereziki, Castañosen lanak jo ditut nagusitzat, corpus jakin batean oinarrituta hizkuntza barneko bariazioa aztertzea edo horren berri ematea baitute xede. Horien aldean, adibidez, Agirrerenean berezko xedea da xehakitzea absolutiboko sintagma mugatuen eta mugagabeen erabilerak dituen balio semantikoak, estilistikoak eta beste; espresuki aitortzen du ikuspegi diakronikoa eta formala alde batera uzten dituela. Lan honen interesa honela laburbil liteke: sintagma artikuludunen eta mugagabeen erabilera sailkatzen du, egitura sintaktikoen (objektu, atributu, bokatibo...) eta aditz motaren arabera, eta sintagma horiek har

ditzaketen balioak xehakutzen ditu; bestalde, artikularen erabilera “konkordantziarekin” lotzen du (1985: 84):

*Adjetiboekin atribuziorik arruntena* geratzen da gaur egun [atributu artikuludunez ari da]. Antxinago artikulugabea erabiliagoa zan, artikuludunak aktualizazioa, sustantibazioa, indibidualizazioa suposatzen. Gaur egun kalifikazio jenerikoa suposatzen dau, baina baita konkordantzia hutsa ere.

Baina Agirrerren lanaren oinarrian han-hemenka bildutako adibideak daude, hizkera ezberdinetakoak eta autore nagusiki modernoetakoak; helburuak bestelakoa dituzenez, darabilen corpusa ez da egokia hemen xede ditugun analisi edo deskripzio diakronikoetarako. Bestalde, bere sailkapenak morfologiaren araberakoak dira batzuetan, baina balio semantikoaren araberakoak beste batzuetan (subjektu eta objektu mugagabeez ari denean, adibidez). Antzekoa da Zamarriparen lan laburra (1947).

Bestelako arazoak ditu Iturrioren proposamenak, diakroniaren helburuetara ekarri nahi badugu, behintzat; izan ere, ikuspegi sinkroniko hutsetik ari zaigu, *-a* artikularen funtzioak bere osagarri logikotzat duen *-ta-* artizkiarenei kontrajarrita (bi elementuok “marca de individuación” eta “marca de transnumeralidad” dira hurrenez hurren, bere ustetan); horretaz gainera, inoiz artikularen erabileraren bilakaera diakronikoa hizpide hartzen duenean, artikularen erakusle jatorria aintzat hartu gabe egiten ditu bere gogoetak (2.8 atala).

### 2.6.3.1 *Álvarezzen azterketa (1977): zubereraren arkaikotasuna*

Sintagma artikuludunen eta artikulugabeen erabilera berariaz aztertu duten lanen artean Álvarezena har genezake aitzindari moduan: autore honek zubererazko mugagabearen erabilera deskribatzen du, horretarako Etxahunen testua corpus moduan hartuta. Sintagma artikuludunen eta artikulugabeen erabilerari dagokionez, hizkera berritzaileak eta arkaikoak bereizten ditu, eta euskararen aldaketa hizkuntza erromantzeekin izandako ukipenari egozten dio (1977: 29):

Au fur et à mesure que les deux langues voisines s’imposent dans toute l’étendue du Pays Basque, l’originalité de l’emploi de l’indéfini euskarien tend à s’effriter; surtout dans les milieux bilingues urbains bien entendu, mais aussi assez nettement dans les milieux paysans des dialectes plus centraux (le guipuscoan, par exemple), qui sont dans l’aire basque les moins conservateurs.

Si l'on veut donc analyser cet aspect de la langue basque, constitué par l'indéfini, on a intérêt à prendre comme corpus de base un dialecte à la fois rural et géographiquement excentré. C'est bien le cas du souletin, à l'extrême oriental du Pays (voir Carte annexe).

Orobat deklinabideaz ari delarik ere, erdialdeko hizkeretan erdarek duten eragina nabarmendu eta zubereraren jatortasuna azpimarratzen baitu (1977: 39-40):

Étant donné que l'indéfini basque n'a pas d'équivalent précis en espagnol ni en français, c'est l'indéfini justement [qui] est en train de s'effacer remplacé par le singulier ou le pluriel (définis), suivant les cas. Encore une fois, ce sont les dialectes centraux, et notamment le guipuscoan, ceux qui se sont débasquisés le plus rapidement, acceptant les calques espagnols à la place des tournures autochtones.

Lan honetaz hainbat ohar egin daitezke: lehenik, ohartzekoa da “L'indéfini comme attribut” goiburuean mugagabearen erabileraren adibide ugari ematen dituela, baina adizka sailkatuta, ez perpaus motaka; atributu izena jarririk ere, denetarikoak ematen ditu bertan (objektuak, predikatu mota bat baino gehiago...); hona Etxahunen testuko adibideak:<sup>123</sup>

- (9) a. 618 *Phixtesek lan badie*; objektua, izen zenbakaitza.
- b. 532 *Üskal Herrik dü* uhure; objektua, izen zenbakaitza.
- c. 322 *ordin ardu hartü*; objektua, izen zenbakaitza.
- d. 270 *Arueit handi zin*; objektua, izen zenbakaitza + izenondo sintagma.
- e. 570 *Arauz adixkide badiüzü orotan*; objektua, interpretazio pluraleko izen zenbakarria.
- f. 640 *Haren amoria benin nik* askazi; objektu bikoitzeko egitura.
- g. 578 *Umil, afile cira eta, behardenian*, corajous; izenondo predikatua.
- h. 668 *Josafaten badate* heigora egile; perpaus existentzialeko subjektua.

Bestalde, aipagarria da mugagabearen gaineko eztabaidan partitiboaren erabileraren berri ere eman izana; baiezko perpausetan duen erabilera azpimarratzen du, *hik badiük abis hunik* (282 or.) bezalako adibideak hizpide hartuta. Gainerakoan, mugagabeak dituen erabilera testuinguruak zehazten ditu; hauek, besteak beste: zenbatzaile zehaztugabeak (*hanitx, zunbait...*), zenbait hitz bereziren jokabidea (*errege, etxe, goiz, arrats...*), zenbatzaile zehaztuekin duen erabilera eta abar. Amaieran, xehetasun batzuk

<sup>123</sup> Haritzelharren (1970) edizioaren arabera egokitu ditut adibideak. Izen sintagmen nabarmentzea ere egokitu dut.

ematen ditu sintagma mugagabeek aditzarekin duten komuntaduraz, Zuberoako hizkeraren bereizgarri: cf. *galdu duk* bi *etchalte* (127 or.), aditza singularrean, baina *Barkoxen* badira / bi *ama alhaba* (404 or.), aditza pluraleko komuntadurarekin.

Álvarezen lanaren ekarpena laburbiltzeko, lehenik eta behin aipatu beharra dago corpus zehatz baten gainean ari dela lanean; bigarrenik, eremuen banaketa garbia egiten du mugagabearen erabilerak definitzeko (mendebaldea eta ekialdea), eta ukipenari egozen dio hizkeren arteko aldea eta aldaketaren abiaburuko indarra; azkenik, aipagarria da, sintagma mugagabeekin batera artikuludunak ere aztertzen dituelako, eztabaida berean kokatu izana testuinguru bertsuetan ager daitekeen partitiboa.

Bada, dena den, egin dakioken kritika bat: ez ditu oso fin bereizten mugagabearen eta artikularen erabileraren auzian esanguratsu izan daitezkeen testuinguru sintaktikoak; “atributu” goiburupean, esaterako, sintagma mugagabearen erabileraren hainbat adibide ematen ditu, besterik gabe; bere alde, aitortu beharra dago helburuak berak baldintzatzen duela, ziur aski, hutsarte hau, zubereraren izaera arkaikoa irudikatzea baita bere asmoa, ez ezinbestean beste hizkera batzuekin konparagai izan daitekeen erabilera testuinguruen taxonomia oso bat ematea.

#### 2.6.3.2 *Mitxelenaren saioa*: on da / gauza ona da

Mitxelenaren saioa (VII 301-314) bestelakoa da: Álvarezek bezala, corpus zehatz bat hartzen du oinarri, —Axularren obra—, baina testuinguru sintaktiko jakin bat aztertzen du. Sarrera moduan genitibo, datibo eta ergatibo mugagabeen adibideak ematen ditu, Leizarragarenak, Haranbururenak eta Axularrenak berarenak; ergatibo mugagabeari dagokionez, adibidez, Leizarraga eta Axular konparatzen ditu, esanez lehendabizikoaren lanetan ugariago agertzen direla mugagabearen adibideak; funtsean, Leizarragaren izaera arkaikoa azpimarratzen ari da, Álvarezek berak zubererarekin egiten duen bezalaxe.

Sarrera moduko horren ondotik, eta corpustzat Axularren lana izango duela zehaztuta, iragartzen du predikatu posizioan agertzen diren sintagmei begiratuko diela. Posizio horretako zenbait adibide ematen ditu, hala nola:

- (10) a. 32 *on liçate orai ere*  
 b. 175 *Gaztean luçaro gaixto içatu dena*
- (11) a. 23 *cein gauça gaixtoa cen*  
 b. 275 *iusticiaren arauaz hasseretcea... gauça ona da, eta saindua. Hain saindua [sc. gauça saindua], ecen...*

Adibide horiek oinarri hartuta orokortze moduko bat proposatzen du, artikulua izenburuko *on da / gauza ona* da bikotearekin laburbil daitekeena: “Uno se aventuraría a adelantar, en todo caso, que la determinación es una exigencia más apremiante cuando se trata de sustantivo + adjetivo” (VII 307). Predikatu posizioan dagoen sintagma motaren arabera irizpide moduko bat lortzen du, hortaz, sintagma artikuluduna ala mugagabea izango den zehazteko.

Orokortze horren salbuespenei erreparatzen die ondoren: izenondo hutseko sintagmetan, bere orokortzearen arabera forma mugagabean agertuko liratekeen artean, azpimarratzen du partizipioek joera dutela forma artikuludunean agertzeko (cf. 40 *guçtiac ciren hasuiñez, elhorriz eta belhar gaixtoz betheac*); bere ustez, partizipioek izentasuna ongi markatzeko duten “beharrarengatik” gertatzen da hori. Superlatiboak aipatzen ditu, halaber, izenondo hutseko sintagma izanik ere forma artikuludunean agertzen direlako (euskal eremu osoko ezaugarritzat du hau). Bestalde, izena duten sintagmetan, salbuespenak ugariago direla aipatzen du, eta zenbait adibide ematen: 44 *Ordea guero azquenean hec escale, eta çu emaille* eta 44 *Alferrac choil dira hitztun eder, solhasturi handi* edo 173 *Badirudi ecen desohore eta laido cayela oraico presuna gaztey*. Ohartarazten du orokortzea ez dela ehuneko ehunean betetzen predikatu bikoitzeko egituretan agertzen diren sintagmetan, eta gogorarazten 32 *balidin [escuetaco larrua] mehe, leun eta bera*<sup>124</sup> *baçuen* eta 180 *Elefantac... bere gazte demboran belhaunac, eta gaiñeraco bertce iunturac çalhuitu* bezalako sintagma mugagabeen aldean badirela 190 *Oiñac cituen lohiac, satsuac, eta liquitsac* artikuludunak.<sup>125</sup>

<sup>124</sup> Hiru izenondoko *mehe, leun eta bera* sintagmako azken hitzak *-a* amaiera baitu, sintagma bera artikuluduntzat har liteke; baina horrelakoetan pentsa daiteke Axularren ohitura dela artikulua sintagmako osagai guztietan ezartzea (cf. beharbada *lohiac, satsuac, eta liquitsac*, pluralekoa bada ere).

<sup>125</sup> Esanguratsua izan liteke sintagma mugatua aditzaren ondotik agertzea; Mitxelenak berak bere lanaren

Artikuluaren erabilerak izan duen bilakabide diakronikoa gogoan, Axularren hizkera mende bat beranduagoko Etxeberri Sarakoarenarekin konparatzen du Mitxelenak: aldaketa garbia da, dioenez, Axularren hizkeran deskribatu duen sistema ez baitago martxan mende bat beranduago.

Mitxelenaren ekarpena ez da horretan gelditzen: predikatu posizioan sintagmek duten jokabidea deskribatu ondotik (salbuespen eta guzti), aipagai ditu perpaus existentzialak ere, 392 *peril da eroria den, edo sarri erorico den* bezalako adibideen harira: hauetan —dio berak— izena izanik ere (*peril*), mugagabea izan daiteke sintagma; egiari zor, hain zuzen ere horrexegatik identifikatzen du *peril da* perpaus existentzial moduan, ez predikatibo, predikatiboetarako deskribatu duen jokabidea ez duelako betetzen.

Honenbestez, honela laburbil daiteke Mitxelenaren ekarpena: (a) bere azterketa corpus jakin baten gainekoa da; (b) testuinguru sintaktiko jakin bateko sintagmei begiratzen die, predikatuei; (c) orokortze bat proposatzen du, eta, mugagabearen eta artikuluaren erabilerari dagokionez, izenondo hutseko sintagmen eta izena dutenen arteko bereizketa garbi bat egiten du; (d) bere orokortzearen albuespenak zerrendatzen ditu, eta albuespen horien arazoia bilatzen du, funtzionala zein semantikoa. Funtsean, irizpide objektiboak zedarrizten ditu sintagma artikuludunen eta mugagabeen erabilera zein den zehazteko; aldaketa neurtzeko oinarriak ezartzen ditu horrela.

### 2.6.3.3 *Castañosen azterketa (1979: 143-164): testu zaharrak eta testuinguru sintaktikoak oinarri*

Eredu nagusi moduan hona ekarri ditudan lanen artean Castañosena da osoena. Ikuspegi klasikoari jarraiki, mugagabearen erabilera arkaikotzat jotzen du, eta halako sintagmen erabilera testuinguruak zerrendatzen ditu.

Bide horretatik, hainbatetan aipatu ohi diren *errege*, *aita* eta *ama* bezalako izenak aipatzen ditu, eta garai historikoan ere itxura arkaikoko artikulurik gabeko sintagmetan

---

bukaeran predikatu perpausetako osagaien hurrenkera tipikoena zein den zehazten du, baina ondorio garbirik atera gabe. Adibide horren ondoan ematen duen 191 *baldin beguitarte... içan balu liquitz* predikatu mugagabearen kasuan, berriz, *izan balu* aditzaren aspektuarengatik azal liteke artikulurik ez hartzea (cf. 190 *oiñac cituen...* adibidea, iraganeko aditzarekin).

agertzen direla ohartarazten du. Testu zaharretako adibideak erabiliz (Kapanaga, *Refranes y Sentencias*, Oihenart...), zenbait testuinguru sintaktikotako izen sintagmen jokabidea irudikatzen du ondoren, eta artikuludun edo artikulugabe diren zehazten du: ergatibozko, genitibozko eta datibozko sintagmak dakartza, besteak beste. Absolutiboari dagokionez, ager daitekeen testuinguru sintaktikoen arabera xehakatzen du bere jokabidea, eta, hartara, subjektuen artikuludun izateko joera azpimarratzen du, predikatuek mugagabe izateko duten joeraren aldean (cf. *RS 450 Zarren semea gojago zurz*), edo objektu zuzenen jokabidea ere bereiz ematen du (Oih 406 *Senar duenak jaun du*),<sup>126</sup> baita predikatu bikoitzena ere (predikatua objektuarena denean; cf., artikulurik gabe, Oih 47 *Atzearen behiak erroa handi*, baina pl. Oih 532 *Zangoac behar ditu xuxenac...* eta sing. Urrexola *Gayça çenduan leinztarroc Urruxolaco lecaya*).

Hori dena sarrera moduan egiten du, eta artikularen erabilera zabalduaren arrazoiak bilatu ere bilatzen ditu: predikatueta, esaterako, izen predikatuak eta izenondo predikatuak bereizten ditu; izen predikatueta subjektuaren eta izenaren ustezko konkordantziari egozten dio artikularen erabilera; alabaina, aitortzen du izenondo predikatueta ez duela arrazoi argirik antzematen artikularen erabilera azaltzeko.

Sarrera moduko hori egin ondoren, autore jakin batzuen datuak aztertzeraz jotzen du, eta honela justifikatzen bere hautua: “En los autores, por su mayor homogeneidad, es más seguro descubrir la regularidad de un empleo u otro [sintagma artikuludunarena eta mugagabearena]” (1979: 151). Etxepareren eta Leizarragaren testuak aztertzen ditu, datuak testuinguru sintaktikoen arabera sailkatuta eta antolatuta:

- (a) Kontuan hartzen du nolakoa den predikatua osatzen duen sintagma:
  - (i) Izen eta izenondo soileko predikatuak artikulugabeak dira (cf. Etxep 2: 23 *heben labur vicia da...* izenondoarekin eta 2: 108 *Ieyncoa iaun den...* izenarekin), edutezko izenordaina dutenen aldean (cf. Leiz Luc IV: 3 *baldin Iaincoaren Semea bahaiz...*).

<sup>126</sup> Adibideak tesian erabilitako edizioen arabera egokitu dira.

- (ii) Izen + izenondo sintagmaz osaturiko predikatuak beti artikuludun dira, bere arabera: cf. Leiz Luc V: 8 *Parti adi eneganic, Iauna, ecen guiçon bekatorea nauc ni.*
  - (iii) Partizipioak beti artikuludun direla zehazten du, eta Schuchardti esanguratsua egin zitzaion adibidea ekartzen du, Leiz Coloss I: 23 *egoiten baçarete fedean fundatuac eta fermu*, non sintagma bereko izenondoa artikulurik gabe dagoen.
- (b) Predikatuari lotua den subjektuaren numeroari begiratzen dio, halaber:
- (i) Izenondo sintagmak artikularekin zein artikulurik gabe ager daitezke, ezberdintasunik gabe, bere arabera: cf. Etxep 2: 60 *Ceren bada erho guira gayxo beçhatariac* eta 2: 140 *Gu gayxtoac içan arren...*
  - (ii) Izen sintagmarekin ematen dituen bi adibideetan, pluraleko artikulurik gabeak dira predikatuak: cf. Etxep 1: 382 *Beccatore baguirere oro guira çuriac* eta, are edutezko izenordainarekin ere Leiz Luc XI: 19 *halacotz hec içanen dirade çuen iuge.*
  - (iii) Partizipioak, subjektua pluralean delarik, bietara ager daitezke, artikularekin eta artikulurik gabe (cf. Etxep 2: 31 *Harc ayuta ezpaguiça nola guiren galduyac* eta Etxep 2: 34 *Hala eguin vadaçagu ohoratu guirate*).
- (c) Bokatiboetan ere “la extensión del artículo es también muy evidente” (1979: 155):
- (i) Izen + izenondo sintagmaz osaturiko predikatuak artikuludunak dira Etxeparerengan.
  - (ii) Orobat izen soilaz osaturikoetan.
  - (iii) Leizarragaren kasuan *aitá*, *semé* eta *anaye* izenak agertzen dira, izen berezietz gain, artikulugabe. Besteak (cf. Leiz Luc XII: 13 *Magistruá, erróc ene anayeri...*), artikularekin.



- (d) Objektu zuzena osatzen duten sintagmak aztertzen ditu; artikulugabe eta artikuludun izan daitezke, eta, sintagma artikuludun zenbaitetan artikulua balio anaforikoarengatik azal badaiteke ere, ez da hala kasu guztietan.

Mendebaldeko testu zaharrei ere soako bat egiten die, hain xeheki aztertu gabe, hala ere: Betolatzaren “bizkaieran” artikulua nagusi dela ikusten du, berera dakartzan bokatio eta predikatu adibideetan bederen; Milia Lasturkoren eresiarren kasuan, berriz, bere balio anaforiko “librearengatik” azaltzen du 2 *Sagar errea, eta ardāō gorria* eta 4 *Azpian lur oça gañean arria* bertsoerretako artikuluen erabilera; esia honetan beste testuinguru sintaktiko zenbait ere arakutzen ditu; subjektua eta objektua, esaterako. Azkenik, Arrasateko erreketako testuan eta Mikoletagan agertzen diren zenbait bokatioren adibide, artikuludun zein artikulugabe, ematen ditu.

Honenbestez, Castañosen ekarpena honela laburbil genezake: corpus jakin bat hautatzen du, eremu geografiko jakin bateko testu luze zaharrenez osatua, baina Etxeparenez eta Leizarragarenez besteko adibideak ere erabilia; esanguratsutzat jo dituen testuinguru sintaktikoen arabera sailkatzen du corpus horretako sintagma artikuludunen eta artikulugabeen erabilera; era berean, eta predikatuen kasuan, begiratzen du ea sintagma horiek pluraleko ala singularreko subjektu baten predikatu diren, eta predikatuaren sintagmaren izaera zein den, hau da, izen batez, izenondo hutsez edo izen + izenondo sintagmaz osatua ote den.

Ekarpen hau, hortaz, Mitxelenarenaren ildo berean koka genezake. Baina besterik ere badu, eta, artikulua zabaltzearen azalpen bila, Azkueren hitzak dakartza gogora: “Probable o por lo menos posible origen del moderno vocativo articulado, parece ser el plural” (Morf: §432). Castañosen ustez, hala ere, zabaltzearen arrazoia orokorragoa izan daiteke, hitzotan adierazten duen bezala (1979: 162-163):

Con la creación del singular y plural, la categoría de número, que implicaba también la de indeterminado y determinado, no llega a un sistema equilibrado. No tenemos un sistema de oposiciones tan equilibrado como, p. ej., en castellano: *hombre / hombres // el hombre / los hombres*

[...]

En esta situación parece verosímil que la sustitución del indeterminado se debió a que la categoría de número se impuso, en determinadas ocasiones, a la de determinación, como más necesaria para lograr una comunicación menos equívoca, y luego se fue generalizando.

8.8.4. El proceso pudo comenzar, como quiere Azkue, con el plural, que es el término más marcado de la oposición, aunque poco se pueda argumentar en este punto, ya que en época histórica el proceso está cumplido.

Horren ondoren, plurala morfologikoki markatu behar horren adibide gisa edo, Kapanagaren datibozko sintagma hau dakar: *97 ea ofensaric eguin deusteenz gurasoay, guiñarrabay, saserdoteri, edo elexacori, jueci eta nagusiri*; sintagma honek forma mugagabeekin batean pluraleko formak ditu. Pluraleko forma hauek ez dute interpretazio definitua; adibide honekin, Castañosek bat egiten du Azkueren ideiarekin, pluraleko sintagmetan kokatzen baitu artikularen interpretazio ez-definituen iturburua.

#### 2.6.3.4 Aldaketa neurtzeko irizpideak. Laburpena eta egitekoak

Autore hauen gogoetei begiratuta argi geratzen da garai ia historikoan gertaturiko aldaketa baten aurrean gaudela (Castaños 1979: 161):

Esta sustitución del indefinido por el determinado, que vemos desde los primeros tiempos históricos, la atestiguan los gramáticos actuales para los dialectos vascos, con extensión mayor o menor.

Castañosek berak aitortu bezala artikularen zabaltzea plurala modu agerikoan markatu beharrari egotz ote dakioken erabakitzea zail gerta badaiteke ere, zilegi da galdetzea zein emaitza lor genezakeen testu zaharretako datuak modu erabatekoan xehakatuta. Izan ere, eta haxe da Castañosi, Mitxelenari eta besteri egin dakiekeen kritika, haien azterketak ez baitira oso-osoak: ez dituzte adibide guzti-guztiak biltzen, testuinguru sintaktikoak are gehiago xeheka litezke, eta abar.

Horrela, bizi-bizirik dirau gaur ere Mitxelenaren diagnostikoak, bere garaiko artikularen azterketen egoeraz ari denean: “No sé que haya ningún estudio especial...” (2.6.1 atala). Mitxelenaren eta Castañosen aztermodua sistematizatzea izango da, horrenbestez, seigarren kapituluko eginkizuna: horretarako corpus jakin bat erabili dut —XVI. mendera arteko testuak bildu dira—, eta artikularen erabilera neurtzeko behatu beharrekotzat jotako testuinguru sintaktikoetako izen sintagma guztiak bilduko ditut, orduko gramatikaren deskripzio zehatz bat emateko. Hirugarren kapituluan emango dut hautu hauen berri.

#### 2.6.4 Artikuluaren erabileraz egindako analisi sinkronikoak

Testuetan oinarrituriko azterketa diakronikoetan, ikusi dugu, mugagabea noiz agertzen den deskribatzea izan ohi da asmoa, horixe baita antzinagoko garaietako gramatikaren aztarna. Datu mota bera abiapuntu izanik ere, lan sinkronikoek kontrako aldetik begiratzen diote, funtsean, arazoari: artikulua agertzen den tokietan zergatik agertzen den azaltzea dute helburu.

Beste tradizio baten barrenean, beraz, artikuluaren erabilera zabalduaz arduratu diren zenbait lan eman dira argitara, auzia datu sinkronikoen arabera aztertu dutenak: Artiagoitiarenak (1998, 2002) eta Etxeberriarenak (2005, 2009, 2010) dira aipagarrienak. Lan hauek *-a* morfemaren eta berekin osatzen diren izen sintagmen izaera, semantikoa zein sintaktikoa, zehaztea dute azken helburu, izen edo determinatzaile sintagmetan zein estatus duen zehaztea. Definitutasunaren nozioa artikuluaren funtsezko ezaugarritzat hartu ohi da analisi sinkronikoetan, eta, bere definizio arruntetik aldentzen den euskal artikulua definituaren jokabidea azaltzeko, zenbait irizpide proposatzen dira lan hauetan. Artikuluaren auziaren jarrera horren isla da Etxeberriaren (2009: 316) pasarte hau:

Euskal artikulua, honek bultza ditzakeen interpretazio posibleen ikuspuntutik begirata berriz, normalean definitutasuna (estentsionala zein intentsionala —espezie irakurketa deitua; ‘kind reading’—, ikus Etxeberria 2007, prestatzen) markatzen duela esan bagenezake ere, posible du baita ere, izen plural edo masa izenekin konbinatzen denean, irakurketa esistentziala deitua bultzatzea (ikus besteak beste Artiagoitia 2001, 2002, 2006; Etxeberria 2005, 2007, prestatzen).

Lehen kapituluaren aurreratu (1.1.2 atala) eta hirugarrenean zehaztu dudana bezala (3.2.2 atala), artikuluen diakronia aztertzean definitutasuna ez da hartzen oinarritzko abiapuntu moduan. Abiaturu bat edo bestea gorabehera, egin genezakeen edozein azterketa diakronikoren ezinbesteko osagarri gertatzen dira analisi sinkronikook, denboran (zein espazioan)<sup>127</sup> zeharreko aldaketa prozesuak hobeki ulertzeko esanguratsu izan daitezkeen testuinguru sintaktikoen eta artikulua izan ditzakeen interpretazioen berri xehea ematen baitigute.

<sup>127</sup> Esan liteke bariazio dialektala eta diakronikoa gauza bera direla funtsean, zenbait hizkera arkaikotzat jotzen ditugun momentutik.

#### 2.6.4.1 *Artiagoitiaren lana*

Artiagoitiaren 1998ko lanean, determinatzaile sintagma (DS hemendik aurrera) kategoria funtzionalaren arabera aztertzen da euskal izen sintagma (IS hemendik aurrera), Abneyk (1987) ingelesezkoa aztertzeko proposatu zuen kategoriaren eredura. Determinatzaile sintagmaren hipotesia onartzen da, oro har, euskal gramatikagintzan gaur egun, eta horretan sakondu du, berrikiago, Artiagoitiak berak (2012).

2002ko lanean, berriz, Longobardiren lanak lagun, determinatzailearen eta izenaren arteko beste kategoria funtzional bat proposatzen du Artiagoitiak, ingelesaren eta italieraren ondoan euskarazko DS batzuek bestelako jokabidea dutela medio: hizkuntza horietan artikulurik ez duten zenbait egitura sintagma artikuludunarekin agertzen dira euskaraz; ik. goian (5-8) adibideak. Diferentzia hau posizio jakin batean dauden bi izen motarekin irudikatzen du: barne argumentu posizioan dauden izen zenbakaitz singularrekin (*ardoa, ura...*) eta pluraleko izen zenbakarriekin (*aulkiak, trenak, autoak...*). Artiagoitiaren beraren (8)-ko adibideak errepikatzen ditut hemen, bere ingelesezko glosekin, eta etzanean ematen ditut aztergai diren DSak:

- (12) a. *Trenak heldu dira.*  
 ‘(The) trains arrived’  
 b. *Ardo edan dut.*  
 ‘I drank (the) wine’  
 a’. \*\**Tren heldu dira.*  
 b’. \*\**Ardo edan dut.*

*Trenak* eta *ardoa*, biak *-a* artikulurekin, glosek adierazten dituzten bi interpretazioak izan ditzakete: “specific description” zein “existentially quantified expression”, Artiagoitiaren hitzetan jartzearren. Hots, irakurketetako bat definitua da eta bestea indefinitua, edo, nahiago bada, inongo terminologiatan sartu gabe, bata artikuludunarekin itzultzen da gainerako hizkuntzetan eta bestea batere artikulurik gabe.<sup>128</sup>


<sup>128</sup> Nire ustez, egoki azaltzen du Raskinek hurbilketa modu hau, artikuludun eta indefinitua dituen ingelesa, artikuludun baizik ez duen hebraiera, eta artikulurik gabeko errusiera alderatzen dituenean: “[I]t is assumed throughout the paper that, in accordance to the principle of effability, expressibility or universality [...], the same or very similar degrees of determination are expressible in the other two

Kontua da bitxia dela irakurketa existentziala edo indefinitua hartzea berez (eta jatorriz) irakurketa definitua izan behar duen morfema batek; 12a' eta 12b' adibideetako forma mugagabe soileko sintagmak, bestalde, ez dira gramatikalak.

Gogora dakar, era berean, euskaraz ere (italieraz eta ingelesez bezala) kanpo-argumentuek ez dutela interpretazio existentzialik onartzen, honako perpaus hau adibide (bere lanean (10b) adibidea):

- (13) *Trenak aurreratu gaituzte.*  
 ‘\*\*(the) trains have passed us’

Artiagoitiak honela deskribatzen du *Trenak* sintagmaren jokabidea: “Crucially, as noted by Laka (1993: 161) and Artiagoitia (1997: 162), Basque disallows the existential interpretation of DPs headed by the article precisely in external argument position” (2002: 78).<sup>129</sup> Murriztapen sintaktiko hori bera dute italierak eta ingelesak, baina euskarak, paradoxikoki, artikulua du murriztapen horrek kanpo uzten dituen testuinguru sintaktikoetan ere, barne argumentuetan, alegia (ik. (12)-ko adibideak); euskarazko *-a* morfemak beste hizkuntzetako artikulua eta [Ø] morfemak gauzatzen dituzten funtzioak biltzen ditu bere barnean. Jokabide hau azaldu nahian bi egitura ematen ditu Artiagoitiak:





---

languages. This assumption does not imply an ontological commitment to the above-mentioned principle, but rather a recognition of its convenience as an approximation of reality, at least for the purposes of this chapter. In fact, what is assumed is simply that all the English sentences are translatable into the other two languages. What it is not assumed, of course, is that the translations will necessarily reflect the same contrasts and oppositions which can be observed in English. The other languages may be reasonably expected to have oppositions and contrasts of their own, not necessarily coinciding either with English or with each other” (1980: 124-125).

<sup>129</sup> Beste modu batera jar daiteke: arazoa ez da zergatik den ezinezko irakurketa existentziala kanpoko argumentu posizioan, baizik nolatan izan dezaketen halako irakurketarik artikulua buru duten determinatzaile sintagmek. Lakaren eta Artiagoitiaren orokortze hau orokortze tipologiko ezagun batekin lot daiteke, zeinaren arabera subjektuak definitu izan ohi diren. Ikus 3.2.4.2 atala.

(14a)-k irakurketa existentzial edo indefinituaren egitura irudikatzen du, “I drunk wine” perpauseko objektuak duena; (14b)-k, berriz, irakurketa espezifikoko edo definituarena, “I drunk the wine” perpauseko objektuak duena.



(15a)-k irakurketa existentzial edo indefinituaren egitura irudikatzen du, “I saw trains” perpauseko objektuak duena, edo “Trains arrived” perpauseko subjektuak duena; (15b)-k, berriz, irakurketa espezifikoko edo definituarena, “I saw the trains” perpauseko objektuak duena eta “The trains arrived” perpauseko subjektuak duena.

Agerikoa denez, arazoa da zergatik den azalean irakurketa existentzialeko XS (proiekzio funtzional ezezagun) hori morfologikoki DS oso baten berdina, zergatik diren isomorfiko; hots, arazoa dator irakurketa existentzialetako XS hori zer den esaten saiatzen garenean. Artiagoitiak bi aukera logiko ikusten ditu:

- (a) XP hori, bere osoan, izen sintagma izan liteke, eta artikuluak izenaren parte bereizezin. Jakina, arazoa da artikulu horiek ez direla “hain” bereiziezinak; *ardo* eta *tren* izen sintagma oso gisa ager daitezke. Beraz, *ardoa* eta *trenak* (eta, ondorioz, XP hori) beste zerbait izan behar dira.
- (b) Beste aukera bat da XP hori bestelako buru funtzionalen bat izatea; bere ustez, izenekin zerikusia duen buru funtzionalen bat izen behar da, eta numeroa izan daitekeela uste du.


Bi aukera hauetarik Artiagoitiak lehena baztertzen du, aipaturiko arazoa tarteko dela, baina biak dira interesgarri ikuspuntu diakronikotik; bestalde, auziari ematen zaion irtenbidea gorabehera, ohargarria da Artiagoitiaren proposamena oso adibide zehatzen ganean eraikia dela: barne argumentu posizioan agertzen diren izen zenbakaitz eta zenbakarri pluralekoak dituzten sintagmen ganean, hain zuzen.

#### 2.6.4.2 Etxeberriaren lana (2005, 2007, 2009, 2010)

Etxeberriak alternatiba bilatzen dio Artiagoitiaren hipotesiari: *-a* eta *-ak* artikuluak, barne argumentuan egonik interpretazio existentziala jasotzen dutenean, numero markatzaile dira Artiagoitiaren iritziz; Etxeberriak, aldiz, *-a* artikulu definitua horixe baizik ez dela argudiatzen du, determinatzaile definitu bat.


Etxeberriak (2009: 323-324), artikuluak izan ditzakeen interpretazio existentziales ari dela, arazo nagusi bat ikusten dio Artiagoitiaren proposamenari: *ardoa edan dut* perpausean (*Maiak garagardoa edan zuen* dakar Etxeberriak) *ardoa* izen sintagma singularizat du Artiagoitiak, numero sintagma baita *-a* morfemaren agerrera azaltzeko darabilen egitura; baina, berez, masa-izenak edo izen zenbakaitzak ez dira ez singular ez plural,<sup>130</sup> zehaztugabeak dira numeroaz denaz bezainbatean. Ildo beretik, *Julenek autoa erosi du* bezalako perpausak ekartzen ditu gogora Etxeberriak: bere interpretazio existentzialesan —irakurketa indefinitu ez espezifikoa—, perpaus horretako *autoa* sintagma singularra baizik ezin da izan, eta horrek ez du bat egiten Artiagoitiaren adibideko *ardoa* sintagmari egotzi diogun numero zehaztugabetasunarekin. Funtsean, Etxeberriak (2009: 325) ohartarazten du izen zenbakarriekin eta zenbakaitzekin osatuak diren sintagmek ez dutela egitura bera, izen zenbakaitzek ez baitute numeroari dagokion proiektiorik; hona egitura proposamenak:

(16) Izen zenbakarrien egitura, Etxeberriaren arabera (bere lanean (26) adibidea):



<sup>130</sup> Bere semantikari dagokionez, masa-izenen (“mass nouns” ingelesez) eta pluralen arteko hurbiltasuna nabarmendu izan da, argudiatuz masa-izenak osagai bakun askoren taldeak direla, hots, pluralizatuak daudela berez (Chierchia 1998).

(17) Izen zenbakaitzen egitura, Etxeberriaren arabera (bere (27)):



Etxeberriaren argudiobide nagusiarekin bat, perpaus mota gehiago aurkez genezake *-a* morfemak numeroarekin zerikusirik ez duela argitzen dutenak: *umea besterik ez dago hemen* perpausean ez zaio *umea* sintagmaren singulartasunari egiten erreferentzia, izen zenbakarri bati artikulua gehituz osatua izanik ere; kasu honetan pentsa liteke izen zenbakaitz moduan funtzionatzen duela, zenbait hizkeratan mugagabe agertzen diren *bada jende bezalako*en antzera; ikuspegi “diakronikoago” bat aintzat hartuta, berriz, onarturik artikuluen etorkizuneko edo ez hain etorkizuneko bilakaeran euskal artikulua inoiz izenaren markatzaile soila izango dela (hots,  $DS \rightarrow I$  bilakaera diakronikoa; ik. hirugarren kapitulua),<sup>131</sup> pentsa liteke izen soil moduan hasiak direla jokutzen berez eta jatorriz artikuludun diren sintagmak.

Beste kritika bat ere egin dakioke Artiagoitiaren irakurketa existentzialeko *ardoa* sintagma ustez numerodunari: ez dirudi *ardoa*-k numerorik izan dezakeenik, numeroa *singular* eta *plural* nozio kontrajarrien arabera definitzen den heinean; hortaz, *ardoa*-k ezin du pluralik hartu, edo, bestela esanda, irakurketa existentzialeko *ardoak* ezinezkoa da. Hori hala dela onarturik, nola definitu orduan zerbait singular bezala, ezin badu pluralik hartu? Ideia hau berau da Etxeberriaren hitzotan dagoena (2009: 326):

Artiagoitia jarraituz, masa terminoen irakurketa esistenzialerako [-a] NumS-an agertzen dela onartuko bagenu, honek (24)-ko *garagardo-a* izenaren masa izaera ezeztatu beharko luke, baina ez da horrelakorik gertatzen.

Ekialdeko barne argumentu mugagabeekin lot liteke eztabaida hau; zub. *sagar ebatsi dii* edo *bortüan ikusi dut behi, ardi eta mando...* bezalako perpausez honela dio Etxeberriak (2010: 73):

Pentsa genezake irakurketa existentzial deitu hau pluraltasunarekin loturik legokeen irakurketa dela. [...] Pentsatzeko modu hau ez da zuzena, alabaina; izan ere, (17)ko adibideetako izenek

<sup>131</sup> Izatez, hau da Artiagoitiak ikusten dituen bi aukera logikoetako bat, baztertzen badu ere.



lortzen duten irakurketa existentzian ez du haien pluraltasunak edo singularitasunak axola. Benetan axola duena [...] *izen horrek mundu errealean erreferentzia zehatzik ez izatea da* [...]. [Etzana nirea]

Etxeberriak egiten duen analisi honek Lafonek (1999: 209) adierazitakoaren oihartzuna dakar, baina Lafonek ekialdea baino eremu zabalagoan agertzen diren aditz arinak<sup>132</sup> ere eztabaida berean sartzen ditu:

*L'indéfini, dont le nominatif est identique au thème du mot, exprime parfois le concept de l'objet, l'idée nominale sans aucune détermination ni distinction interne: on dit, par exemple, haur izan du 'elle a accouché', littéralement, 'elle a eu enfant(s)', so egin 'faire attention', lo egin 'dormir', litt. 'faire sommeil'. [Etzana nirea]*

Nabarmenduriko hitzek ideia bera adierazten dute: Etxeberriak izen biluziek (hots, determinaziorik gabeek edo mugagabeek) *saretxo*<sup>133</sup> oso bat denotatzen dutela argudiatzen du, eta ez du axola erreferentzia *saretxo* horren barreneko elementu bakar bati edo pluraltasun bati egiten zaion; *saretxo* hori da Lafonek “le concept de l'objet” gisa izendatzen duena. “Objektuaren kontzeptua” bezalako nozioen hainbat xehetasun eta bibliografia zehatzerako, ik. Chestermanen lana (1991: 25-29).

Xehetasunak xehetasun, eta auziak izan ditzakeen adarkadurak ahanzi gabe, badirudi halako adibideak Etxeberriaren ideien ildo beretik doazela, artikulak ez baitu, bere hainbat erabileratan, numeroarekin zerikusirik.

#### 2.6.4.3 *Eztabaida sinkronikoaren laburpena eta analisi diakronikotik datozkeen galderak*

Hemen labur azaldu ditudan bi analisi sinkroniko nagusiek arazo jakin bati egin behar izan diote aurre: euskal artikulak definituak ez du definitutasunaz jakin uste genuena betetzen (ik. 1.1.2 atala, hala ere, *definitutasun* nozioak dituen arazo zenbaitetarako). Hona ekarri ditut arazo horri eman izan zaizkion bi irtenbide sinkroniko nagusiak, Artiagoitiaren eta Etxeberriarena; honela laburbil genitzake:

(a) Artiagoitiaren proposamena:

<sup>132</sup> Ikus Oihartzabalen (2006) eta Rodríguez eta García Murgaren (2001) lana, hauen analisi sinkronikorako.

<sup>133</sup> “Lattice” da ingelesezko terminoa. *Saretxo* terminoaren oinarritzko azalpen baterako, ik. Etxeberria (2010: 74).

- (i) Izen zenbakarri zein zenbakaitzetarako egitura bera proposatzen du, numero sintagman oinarritua.
  - (ii) *-a* eta *-ak* numero markak dira.
  - (iii) Pluraleko *-ak* osagai banaezin moduan tratatzen da: *-ak*, bere osoan, da beharrezko pluralitatea markatzeko.<sup>134</sup>
- (b) Etxeberriaren proposamena:
- (i) Izen zenbakarriek eta zenbakaitzek zeinek bere egitura dute.
  - (ii) *-a* morfema D izango da, numerotik bereiz, eta balio semantiko ugari hartzeko gaitasunarekin.
  - (iii) Numero markak sing. [-Ø] eta pl. [-k] dira.<sup>135</sup>

Gauzak honela, hurrengo urratsa litzateke diakroniaren ikuspegitik egin ditzakegun proposamenak analisi sinkronikoekin nola egokitzen diren galdetzea. Horretarako, zilegi iruditzen zait bi galdera mota egitea: (a) analisi sinkronikoekin bat egiten al du determinatzaile sintagmaren morfologiaren diakroniaz proposatzen dugun bilakaerak?<sup>136</sup> eta (b) zein analisi sinkronikorekin ezkontzen dira hobekien determinatzaile sintagmek testu zaharretan dituzten interpretazioen jatorriaz egin ditzakegun hipotesiak (izan numero marka agerikoaren beharrak eraginiko zabaltzearena, izan artikulatu-erakusleen bilakaera “arruntarena”, edo besterik)? Funtsean, lehen galdera morfologia diakronikotik egindakoa litzateke, eta bigarrena sintaxi diakronikotik.

Lehen galdemoduari dagokionez, gogoeta hau egin daiteke: absolutibo pluraleko atzizkia *-ak* edo *-a-k* analizatu izan da analisi sinkronikoetan, eta zilegi izan liteke,

<sup>134</sup> Ikuspegi hau dago, modu batean edo bestean, lan hauetan: Goenaga (1991), Artiagoitia (1997, 1998, 2002, 2012), Rodriguez (2003), Trask (2003); orobat Ticioenean (1997: 236), erabat esplizitua ez bada ere.

<sup>135</sup> Ikuspegi honen aitzindari gisa har daiteke Azkuek dioena (*Morf* §440), *-k* atzizkia bereizten baitu pluralgile gisa, esanez *-o* eta *-a* artikuluei (baina ez *-ik* partitiboari) lotzen zaiela. Cf. halaber “lo que caracteriza al plural es sólo *-k*” (Mitx VII 199).

<sup>136</sup> Orobat galdetu liteke, galdera nagusiaren aldaera moduan, determinatzaile sintagmaren jabekuntzari dagozkion analisisiek antzekotasunik ba ote duten analisi diakronikoekin. Filogenesiaren (garapen diakronikoa) eta ontogenesiaren (jabekuntzazko garapena) arteko loturez, ikus Osawak ingelesari buruz egindako lanak (2003, 2007).

neurri batean, sinkroniazko eztabaida horiek berreraiketa diakronikoan sorturiko eztabaida jakin batekin lotzea, hots, eredu eransleko edo ez-eransleko morfologiari buruzko eztabaidarekin; eredu diakroniko eranslea hobeki ezkontzen da *-a-k* analisi sinkronikoarekin, eta ez-eranslea *-ak* analisiarekin. Bigarrenaz denaz bezainbatean, berriz, Artiagoitiaren proposamenaren jarraitzaile den Rodriguezek absolutibozko izen sintagmen interpretazioez dioskuna egia bada —“anbiguotasun hau [interpretazio espezifikoa eta ez-espezifikoa artekoaz ari da] errazago gertatzen da pluralean singularrean baino” (2003: 4)—,<sup>137</sup> haizu da testuetan arakatzea jakiteko, ahal bada, zein testuinguru sintaktikotan agertu zen lehenik pluralaren erabilera hori, edo pluralean singularrean baino lehenago agertu ote zen, eta horrek guztiak erakusleen gramatikalizazio bidearen eskalan nolako inplikazioak dituen. Are gehiago, Artiagoitiaren numero sintagmaren hipotesiak bat egin lezake zenbait diakronistak — Azkuek eta Castañosek, besteren artean— aipaturiko morfologia pluralaren eraginpeko artikulua zabaltzearen hipotesiarekin, baina hipotesi diakroniko honek ez du azaltzen, orain arteko formulazioen arabera, behintzat, *Maiak garagardoa edan du* perpausean zergatik den artikuluduna objektua.

### 2.6.5 Artikuluaren erabileraz egindako beste analisi eta deskripzio batzuk

Artikuluaren erabilera zabalduaren auzi ezaguna garaiko tresna teoriko sinkronikoekin aztertu du Artiagoitiak, eta geroztik lan gehiagok ere ikusi dute argia. Rodriguezek (2003), adibidez, artikuluaren analisi sinkroniko hertsia egiten du, itxuraz erdialde-mendebalde zabaleko hiztunen juzkuak oinarri dituela, eta Artiagoitiaren numero sintagmaren hipotesia bere egiten du (2003: 23-26). Artikuluaren balio zehaztuak eta zehaztugabeak zein testuinguru sintaktikotan gertatzen diren deskribatzea du helburu, izen zenbakaitzak eta zenbakarriak bereizirik, betiere eztabaida absolutibo singularreko *-a* eta pluraleko *-ak* formatatik atera gabe.

Bestalde, hainbat analisi sinkronikotan argumentuek ezinbestean determinatzailea izan behar dutela deskribatu izan da euskararentzat; badirudi Lakaren orokortzea

<sup>137</sup> Honako adibide hauek ematen ditu: *hostoa erori da* / *hostoak erori dira* eta *umeek oparia ekarri dute* / *umeek opariak ekarri dituzte*; nik nabarmendu ditut izen sintagmak.

dagoela tradizio honen atzean: “[A] Noun Phrase not headed by a determiner is not a well-formed argument” (1993: 157).<sup>138</sup> Ideia hau ez da okerra, baina hizkera eta garai jakin bateko gramatikaren morfosintaxia baizik ez du ordezkutzen, egungo erdialde-mendebalde zabalekoa.

Bide horren ondoan, bada beste garai eta hizkera batzuetako datuak aintzat hartu izan dituen lanik: cf. azkenaldian Coyosek (1999: 109-124) edo Etxebarnek (2010) dakartzan zubererazko datuak; bestalde, ekialdeko datuok gogoan harturik —besteak beste barne argumentu mugagabeei dagozkienak—, artikulua mendebaldetik ekialdera zabaldu zela argudiatu nuen aurreko lan batean (Manterola 2006: 659-665);<sup>139</sup> beste lan batean Nafarroa Behereko zenbait izenondo predikatutako sintagma artikuludun eta mugagabeen erabilera irizpide semantiko baten arabera azaldu nahi izan nuen (Manterola 2011); horretarako zubererazko eta erronkarierazko objektu mugagabeak ekarri nituen eztabaidara, egungo eta testu zaharretako zenbait adibiderek. Bide bertsuan koka daiteke Etxeberriaren (2010) lana: bere helburua deskriptiboa izanik, bi eremu nagusi bereizten ditu, mendebaldea eta ekialdea,<sup>140</sup> eta artikuluen erabilerak eta interpretazioak xehakatzen ditu eremu horietan; barne argumentuak eta perpaus existentzialak hartzen ditu kontuan, besteak beste, eta *-(r)ik* partitiboa ere eztabaida berean kokatzen du. Santaziliak (2010), azkenik, Bourciezek 1895ean bilduriko testuak hartzen ditu corpus moduan, eta, aipaturiko testuinguru eta irizpide esanguratsuak aintzat hartuta (predikatu ala objektu funtzioa, izenak zenbakaitz ala zenbakarri izan, eta abar), hainbat mapa osatzen ditu, egiturak eta izenen izaera semantikoaren arabera; modu grafikoan ikus daiteke, horrenbestez, Zuberoan direla nagusi artikulurik gabeko formak, beste eskualdeetako hizkeretako datuen aldean. Beste lan batean, euskal

<sup>138</sup> Cf. besteak beste “[O]ne interesting property of Basque DPs is that the presence of an overt D seems obligatory” (Artiagoitia 2002: 77), “Euskaraz ez daukagu argumentu posizioan determinatzailearik gabeko sintagmarik” (Rodríguez 2003: 20) eta “One very interesting property of the Basque DP is that bare nouns can not appear as arguments” (Etxeberria 2005: 193).

<sup>139</sup> Orain ez zait zilegi iruditzen ditugun datu historikoetatik ondorio horietara iristea: zuhurragoa da pentsatzea *-a* artikulua (eta deklinabide mugatua, oro har) Euskara Batu Zaharrean bazela —honek, jakina, EBZren kronologiarako baditu ondorioak, artikuluen kronologiaren menpe bailegoke—, eta euskalki batzuek, mendebaldekoek, bere erabilera beste batzuek baino gehiago zabaldu dutela; nolana ere, aukera batean zein bestean, ekialdeko hizkerak arkaikoak dira.

<sup>140</sup> De Rijkek (1972: 139, 15 oh.), *-a* eta *-ak* artikuluen erabilerari dagokionez, gutxienez hiru eremu daudela dio, baina eginkizun utzita eremu eta erabilera horien deskripzio zehatza.

artikuluaren hedatze “neurrigabearen” datu gehiago eman dira (Manterola 2012b), eta, azkenik, Etxeberraren (2014) lanean berariaz aztertzen da zubereraren izaera arkaikoa.

#### 2.6.6 Artikuluarekin lotura duten beste zenbait elementu: partitiboa eta artikulua indefinitua.

Beste zenbait autoreren lanetan ikusi bezala, *-a* D-elementua gramatikalizazioaren dimentsio sintaktikotik aztertzen hasi orduko, erakusle jatorria duten artikuluez bestelako elementu morfologikoak ere sartzen dira, ia ezinbestean, eztabaidan. Esanguratsua da, esaterako, *-a* artikulurik ez duten sintagmei kontrajarrita, hots, sintagma mugagabeei kontrajarrita egin izana maiz bere erabilera sintaktiko-diakronikoaren azterketa (ik. goian Mitxelenaren lana, 2.6.3.2 atala); eta, sintagma mugagabeekin batera, beste bi sintagma mota aipatu izan dira: partitibozko sintagmak, *-(r)ik* morfema dutenak (ik. goian Álvarezzen eta Etxeberraren lanak), eta *bat/batzu* artikulua indefinitudun sintagmak (ik. 3.2.5.2 atala). Arrazoi morfologikoetatik haragoko arrazoi sintaktikoak daude sintagma mota hauek batera aztertu nahi izateko: testuinguru sintaktiko beretan, zenbait aldagaiekin banaketa osagarrian daude sintagma mugatuak, mugagabeak, partitibozkoak eta artikulua indefinitua dutenak. Banaketa osagarri honen harira, adierazgarria da nola ekiten dion Azkuek partitiboaren erabilera deskribatzeari: “Los casos en que *ik* ocupa el lugar del artículo *a* son los siguientes...” (*Morf* §442).

Ez da hau alferrikako oharra, aztertu izan baita D-elementuen erabileraren zabaltzea D-elementuei berei bakarrik begiratuta, ongi argudiatuiko hautu teoriko eta oinarri enpiriko jakin batzuei jarraiki (Huang 1999; ik. 3.2.4.1 atala). Tesi honen berezko jomuga D-elementuen bilakaera diakronikoa aztertzea da, baina, arestian aipaturiko arrazoiengatik, merezi du bai partitibozko sintagmez, bai artikulua indefinituaz esandako zenbait hona ekartzea.

Ez dago ez bataren ez bestearen bilakaera sintaktikoari buruzko monografikorik. Partitiboaren kasuan, ezaguna da morfemaren jatorriak ablatiboarekin duen lotura (de Rijk 1996: 146),<sup>141</sup> baina etimologia morfologikoaren esparruari bakarrik dagokio

<sup>141</sup> Ik. Ariztimuño (2014) bien arteko loturari buruzko xehetasunetarako.

hori;<sup>142</sup> gai honi buruzko laburpen baterako, ik. Santazilia (2013: 277-280). Badira, jakina, partitiboaren erabileraren deskribapenak (cf. adibidez Azkueren *Morf* §442, edo eguneratuago daudenak: *A Grammar of Basque* eta *Sareko Euskal Gramatika*, eta abar), eta are testu historikoetako datuak darabiltzaten lanak (De Rijk 1996: 148-150), baina ez dago, ordea, partitiboaren erabilera sintaktikoaren bilakaera diakronikoa xeheki aztertzen duen lan monografikorik. Lan hauen guztien artean, aipagarria da De Rijken lana (1972), partitiboaren erabileren arteko harreman diakroniko zehatzak ezartzen egiten duen ahaleginarengatik (erabilera oinarritzko eta eratorriak bereizten ditu).

Artikulu indefinituari dagokionez, jakina da *bat* zenbatzailea duela jatorrian, eta, oro har, onartu ohi da bere erabilera hizkuntza erromantzeetan baino murriztagoa dela (Trask 2003: 122). Badirudi XVI. mendeko hizkuntza egoeran artikulu indefinitua eremu dialektal guztietan deskriba daitekeela, non eta *bat*-en zenbatzaile erabileratik bereizteko gai garen;<sup>143</sup> honek pentsaraz lezake Euskara Batu Zaharreko (EBZ) ezaugarria zela, baina zaila da esaten noizkoa den zehazki *bat* zenbatzailea artikulu indefinitu gisa erabiltzea. Pluraleko *batzu* formak, bere *-zu* pluralgilearekin, aski zaharra dela iradoki lezake (Mitx VII 529, 533, 557); cf., hala ere, erronk. *banak/banek*, itxura berriagokoak. Nolanahi ere den, eta *bat* artikulu indefinituaren jatorriaz egin genitzakeen oharrek gorabehera —ik. 2.7, 2.8 eta 2.9 ataletan hizkuntz ukipenaren arlotik esandakoak—, ez dago bere erabilera historikoaren bilakabidearen deskripzio xeherik.

### 2.6.7 *Laburpena*

Artikuluaren dimentsio sintaktikoaren azterketari haxe dagokio: artikulua zein testuinguru sintaktikotan erabiltzen den zehaztea, eta erabilera horren motibazio sintaktiko, semantiko eta diskurtsiboak zein izan daitezkeen ulertzeko analisiak proposatzea. Alde sinkronikotik hainbat deskripzio egin izan dira, eta datuen zenbait analisi proposatu (ik. 2.6.4 atala); alde diakronikotik ere hainbat ohar egin izan dira (ik.

<sup>142</sup> Beste hainbat hizkuntzatan ere aurki daitezke ablatibo > partitibo bilakaeraren adibideak, cf. frantseseko *de*; ik. Heine eta Kuteva (2002: 32-33).

<sup>143</sup> *Refranes y Sentencias*-en, esaterako, zail da bereizketa egitea; baina 88. atsotitzeko *bazuc* pluralak erakusten du artikulu indefinitua izan bazela.

2.6.2 atala), baina, Mitxelenak aspaldi ohartarazi bezala (2.6.1 atala), lan monografikoen faltan gaude oraindik.

Ikuspegi historikotik eginiko azterketei dagokienez, Álvarez-en, Mitxelenaren eta Castañosen saioak laburbildu ditut (2.6.3.1-2.6.3.3 atalak). Ikerketa modu horietako jardunetik bi jarraibide nagusi nabarmendu daitezke: batetik, azterketarako corpus jakin bat zehaztu beharra, eta, bestetik, artikulua erabilera neurtzeko egitura sintaktikoen araberrako sailkapenak emango dituen lanabesa.

Ikuspegi sinkronikotik eginiko analisisien artean, Artiagoitiaren eta Etxeberriaren proposamenak ekarri ditut hona (2.6.4.1-2.6.4.2 atalak), eta analisi sinkronikoetan zer arazo dauden aipatzen dut. Tesi honetan (hirugarren eta seigarren kapituluak) ez dut berriaz sakondu analisi horien gorabeheretan. Artikuluaren erabileraren azterketa historikorako lanabes bat proposatu dut, alabaina; datuak lanabes horren arabera sailkatzeko aukeran sakondu dut, etorkizuneko analisi sintaktiko-semanticoei begira.

Azken ohar gisa, nabarmendu dut D-elementuen dimentsio sintaktikoa aztertzean aintzat hartu ohi direla bestelako jatorria duten elementuak ere: partitiboa eta artikulua indefinitua deritzona (2.6.6 atala).

### **C. EUSKAL ARTIKULUA ETA UKIPENA**

Euskal artikulua diakronia aztertzean, ukipenarena da ezinbestean aipatu beharreko gaia (ik. besteak beste 1.1.4 atala); besterik ez bada, zenbait gramatikarrik ukipenarekin lotu dituztelako artikulua bilakaerari dagozkion hainbat gai. Bi auzi nagusi bereiz ditzakegu ukipena euskal artikularekin lotzen dugunean: batetik, artikulua sorrerarena berarena (ik. goian 2.1 atala), eta bestetik bere zabaltzearena.<sup>144</sup> Euskal artikulua sorrera Europa mendebaldeko hizkuntzetako gertakari orokor batekin lotu ohi da, ezaugarri areal moduan;<sup>145</sup> ikuspegi honek, bistan dena, Erdi Aroan kokatzen du

---

<sup>144</sup> Gaia bere zabalean hartuta eta deklinabide mugatuaren eztabaida artikulua barrenean dagoela onartuta, ukipenari egotzi izan zaio deklinabideko zenbait osagai morfologikoren jatorria; cf. adibidez leku-kasuetako *-eta-* osagaiak Schuchardtek egindako proposamena (eztabaidarako, ik. V. kapituluak).

<sup>145</sup> Artikulu indefinitua ere ikuspegi berean sartzten du Mitxelenak: “Es creencia general que el artículo determinado, o mejor el sistema de artículos, mencionado arriba, § 7.b, y lo mismo cabe decir del

artikuluaren sorrera (ik. 2.1.3.2 atala, artikulua lehenagokoa izan daitekeela dioen hipotesirako). Artikulu(ar)en erabileraren bilakaeraz eta ukipenak horretan izan lezakeen eraginaz ere idatzi izan da, eta eztabaida horretan sartzen dute *bat* artikulua indefinitu deiturikoa ere.

Artikuluaren erabileraren bilakaeraz eta, batez ere, bere zabaltzeaz arduratu diren tradizioei gagozkielarik, hauek bereiz daitezke: batetik, euskal gramatikagintza tradizionalarena, eta, bestetik, egungo ukipen teoriak oinarri hartuta taxaturikoa. Bi tradizio hauen berri emango dut ondoko ataletan: lehenik, gramatikagintza tradizionalan auziaz egindako zenbait aipu ekarriko ditut gogora, eta, bigarrenik, berriki argitaraturiko zenbait lanetan izan diren hutsak xeheki zerrendatuko ditut; huts hauek etorri dira hain zuzen ez delako aintzat hartu euskal gramatikagintza tradizionalak azken mendean erdietsiriko ezagutza.

### **2.7 Ukipena eta artikulua euskal gramatikagintza tradizionalan.**

Kapitulu honetako lehen bi atal nagusietan artikuluen morfologiaz eta erabilera sintaktikoaz euskalaritzak osatu duen ezagutzaren berri eman dut; ikerketa eta eztabaida hauek beti daude oinarrituak, neurri batean edo bestean, datuen eta euskalaritzaren esparruan esandakoen ezagutza sakonean. Zenbait gogoeta ere plazaratu izan dira, hantemenka, artikuluen bilakaeran ukipenak izan duen rolaz eta, urriak izanik ere, interesgarriagoak dira ukipenaren teoria modernoek bidetik egindako ekarpenak baino. Labur dakartzat hemen.

Arestian esan bezala, onartu ohi da euskal artikulua ukipen egoera batean sortua dela, baina, garai horretako datuen faltan, artikuluen sorrerarenak baino bere zabaltzearenak dirudi alor emankorragoa ukipenaren ikuspegitik analizatzeko, *a priori* behintzat; neurgarriagoa izan daiteke, hein ttikian izanik ere, euskal artikuluen zabalpenean ukipenak izan duen zeregina.

---

indeterminado *bat / batzu*, ha nacido a la par que el románico y el de otras lenguas occidentales (germánico, céltico). El paralelo pasa por las formas analíticas, llamadas entre nosotros perifrásticas, del verbo, tanto en perfectum como en futuro: *etorri da, egin du, est venu, ist gekommen* (ant. *es venido*) / *ha hecho, a fait, hat gemacht; joanen, joango da*, lit. ‘es de ir’, *eginen, egingo du* ‘ha de hacer’” (VII 533).



Aurreko atal batean ikusi dugu (2.6.3.1), adibidez, Álvarezek nola egozten dion artikulua zabaltzea hizkuntza erromantzeen eraginari. Aipatu dut, halaber, Azkueren hipotesia, zeinaren arabera sintagma artikuludun pluralen bidez hasi zen artikulua zabaltzen (bokatiboetan); hona hemen bere argudioa, zabalxeago (*Morf* §432):

Al decir, llamando *jaun* o *gizon* o *gazte* parece que en virtud de esta indiferencia [*gizon bat/bi gizon* bezalakoetan numeroari dagokionez *gizon* mugagabeak duenaz ari da] debiera significar lo mismo ‘señor, ayúdeme’ que ‘señores, ayudadme’ ‘hombre aguarda’ igual que ‘hombres, aguardad’... etc.; pero, por lo menos en nuestros días, los vocativos castellanos plurales exigen el artículo plural: *Jaunak, lagun zakidaz; gizonak, itxadon ezazute*. Leizarraga que tradujo el vocativo singular *frater* sin artículo *Saule frater: Saul anaye* (*Act. IX: 17*), echó mano de él para su plural *fratres: zer eginen dugu, gizon anayek = quid faciemus, viri fratres?* (*Act. II: 37*).

Interesgarria da bere planteamendua, bertatik ondorioztatzen baitu *-ak* pluralaren erabilera lehenago zabaldu zela, zenbait testuingurutan bederen, *-a* singulararena baino. Castañosen iritziz hipotesi hau ezin frogatuzkoa da (ik. 2.6.3.3 atalaren bukaeran), baina, Azkueren ideiarekin bat, uste du hizkuntza erromantzeen ereduaren eragina aintzat hartu behar dela.

Atal horretan, artikulua erabileraz emandako aipuez gainera, metodoaz ari den kapituluaren tarte bat ematen dio Castañosek ukipenaren auziari (1979: 49-52): ukipena aztergai zuten garaiko lanetatik zenbait kasu biltzen ditu (sorabierarena, liga balkandar deritzonarena eta besterena), eta euskarazko adibideak aztertzen ditu Weinreich (1953) proposaturiko formalizazioaren arabera. Euskal artikulua bilakaera Weinreichen hirugarren motakoa izan daitekeela iradokitzen du, hizkuntza erromantzeen eredura: morfema jakin bat eredu-hizkuntzako<sup>146</sup> morfema batekin identifikatzen da, eta bere funtzioa aldatzen du eredu-hizkuntzaren gramatikaren arabera (Weinreich 1953: 30, hirugarren mota). Artikuluarena ez zaio, hala ere, adibide bete-betea iruditzen Castañosi; haren ustez, hobeki egokitzen da *zu* izenordainaren erabileraren zabaltzea Weinreichen lehen mota horretan (gazt. *vos*-en eredura). Are interesgarriagoa da Castañosek *-eta-* elementuaz dioena: Weinreich proposaturiko lehen motako aldaketa moduan ikusten du, zeinaren arabera eredu-hizkuntzako morfema bera da hizkuntza hartzaileak mailegatzen duena; kasu honetan, Weinreich berak jartzen du zalantzan euskal *-eta-* honen jatorri arrotza, bere arabera horrelako osagai morfologikoak ez

<sup>146</sup> *Eredu-hizkuntza* ingelesezko “model language” itzultzeko erabili dut.

baitira mailegutzen, baina Castañosek, tradizioaren zamapean (ik. 5.2.6 atala), morfemaren jatorri latindarraren alde egiten du.

Ukipenak eraginiko aldaketen bidetik sakontzen ez badu ere —barne berreraiketaren bidetik jotzen du—, hainbat arrazoiengatik da esanguratsua Castañosen ekarpen laburra: batetik, ohartarazten gaitu ukipenaren alorrean egindako aurrerapenek kronologia erlatiboak eta are absolutuak ezartzeko duten balioaz; bestetik, lan honetan ezin utzizkoa den bide bat jorratzen du, izan ere *-a* artikulua eta *zu* izenordainaren kasuetarako eredu-hizkuntza litzatekeen gaztelaniazko datuetara jotzen baitu, horietan bilatuz bilakaera bakoitzaren kronologia zehatza (1979: 52, eta 9 oh.). Hori da, hain zuzen ere, Thomasonek ezartzen duen oinarritzko baldintzetako bat aldaketa bat ukipenarengatik gertatu dela erabakitzeke (ik. 7.4.4. atala).

Merezi du Castañosen azken aipu bat hona ekartzea, gure lanaren mugak ongi zehazten baititu: zaila da lekukotasun idatzirik gabe ukipenaren ondorioz gertaturiko aldaketen xehetasunak ongi ezagutzea (1979: 50):

Las interferencias son procesos que, en muchos casos contra las objeciones, es imposible presentar pruebas irrefutables en contra, porque, como dice Sandfeld (1930, 168), “nous ne disposons de moyens de suivre le développement de la formation”, por haber ocurrido el proceso antes de la aparición de los textos escritos, cuando no se trata de una lengua desaparecida. Hay, o quizá haya casos, en efecto, en que la convergencia haya sido espontánea, desarrollo natural del sistema, y casos en que las interferencias hayan precipitado tendencias que se insinuaban en el sistema de la otra lengua. En estos casos, lo mismo si se trata del sistema fonológico que del sistema gramatical, la demostración siempre presentará dificultades.

Castaños da, ageri denez, bere garaiko ukipenaren gaineko lanen arabera euskal determinazioaren gorabeherak aztertzen saiatu den bakarretakoa (ik., hurrengo atalean, Haaseren eta Heine eta Kutevaren ekarpenak). Beste autore baten aipua ekarriko dut hona, artikulua zabaltzean ukipenak izan duen rolaz proposatu izan dena ongi laburbiltzen duelakoan (Irigoien 1985: 132):

Artikuluak, gainera, euskaraz apurka apurka posizio predikatiboan agertzen zen adjetibora iragan zen, hark jatorrian ez baitzuen hartzen, nabari daitekeenez, eta horrela haren bidez numero komunztadura egin ahal izan zen, inguruko hizkuntzetan gertatzen den bezala, baina haiek ez dute artikulua beharrik, horretarako numeroaren mozioarekin aski baitute, —euskaraz generoarena egitea ez zen posible inondik ere—. Euskal artikuluak ez da kontestu honetan, historikoki ari garela, numero *gramatikazkoaren* ordezkotzat baino, hizkuntzak ez baitu besterik.

Irigoienek, lehenago Azkuek eta Castañosek bezala, numero morfologikoa adierazi beharrari egozten dio artikulua zabaltzea (gogoan izan numero morfologikoa artikulua menpe dagoela, 2.2.2 atala). Baina, oro har, ez dago gaiari buruzko askoz aipamen gehiago, eta are gutxiago lan zehatzik. Bestalde, *bat* artikulua indefinituari buruz, cf. Trasken aipua: “Among some younger speakers, there is a tendency to extend the use of *bat* to calque the much broader use of the Spanish article *un(a)*” (2003: 122). Eta, *-(r)ik* partitiboari dagokionez, Etxeberriak (2010: 80) ohartarazten du Lapurdiko euskara modernoan partitiboaren erabilera frantsesaren eredura egiten dela, ezezko perpausetatik kanpo ez baita erabiltzen.

## 2.8 Ukipenaren teoria modernoak eta euskal artikulua

Haaserena (1992) izan da euskal artikulua (*bat* indefinitua ere hizpide baitu) ukipenaren ikuspegitik berriaz aztertu dituen lehen lan monografikoa. Haaseren datuak eta analisia hartzen dituzte Heinek eta Kutevak iroizgarri moduan (2003, 2005, 2006, 2007), beren *ukipenak bideratutako gramatikalizazioaren* hipotesiaren alde egiteko — “contact-induced grammaticalization” jatorrizkoan—;<sup>147</sup> horixe dute arazoa, Haaseren analisia ez baita, funtsean, zuzena. Haaseren analisiak berak Iturrioren ideietatik edaten du, eta autore hau da, azken buruan, ukipenaren teoria berrien arabera lanetan euskal artikuluek argitaraturiko okerren iturburu. Hona Iturrioren laneko bi pasarte, nire ustez arazoa zein den zehazten laguntzen dutenak (1985: 181 eta 189, hurrenez hurren):

Bajo la influencia de las lenguas contiguas el numeral *bat* ‘uno’ penetra quizás progresivamente en la función de un artículo indeterminado y desaloja al individualizador *-a* de una parte de su zona de empleo; *-a* se convierte más exactamente en el polo no marcado de una nueva oposición [+/-definido], mientras que *bat* se convierte cada vez más según las zonas en la marca abierta de indeterminación:

(22) *Haiek beren artean alde txiki bat dute.*

No sé hasta qué punto la frase siguiente con un artículo indefinido plural se puede considerar como correcta; en mi opinión se trata de un calco del castellano y no corresponde a la estructura clásica del euskera:

(23) *Betaurreko batzu ematen dizkio* ‘Le da unas gafas’ (Gereño en “Aspirinarik ez. Antzerki laburra”)

<sup>147</sup> Beste aukera bat izan zitekeen euskaraz *ukipenak eragindako gramatikalizazioa* izendatzea, baina bere teoriarekin hobeki ezkontzen da *bideratu*-k ematen duen ‘eragin + gidatu’ zentzua.

Eta hona bestea:

As ‘oneness’ loosened to ‘individualization’, ‘uniqueness’ seems to have loosened to ‘distinctiveness’. (Bolinger 1980: 9)

El mismo proceso está teniendo lugar en euskera [...], pero sin que todavía haya desaparecido el sistema anterior donde *-a* es referencialmente neutral, puramente individuativo, y *no equivale por tanto ni al artículo determinado ni al indeterminado de las lenguas indoeuropeas*. En ese sistema donde *bat* es todavía exclusivamente un numeral la única oposición básica se da entre *-a* y cero (el nombre sin individualizar). [Etzana nirea]

Hona, azken buruan, Iturriozen arazoa: ez da euskal artikularen erakusle jatorriaz jabetu; horrekin batera, “sistema anterior” aipatzen du, baina ohartu gabe aurreko egoera batez arituz gero artikulua, izatekotan, balio erreferentzial handiagoa izango zuela —anaforikoa edo dena delakoa—, bere erakusle jatorriak argitzen duen bezala. Bestela esanik, artikularen erabilera zabalduarena antzinako sistema da Iturriozen ustez, kontuan hartu gabe zabaltze hori garai historikoan ere hauteman daitekeen bilakaera dela; ik. Mitxelenaren aipua (VII 301), 2.1.3.1 atalean. Datu ezagun horren berri ez duenez, Iturrioz ez da ohartzen gauza bera direla euskal artikulua eta beste hizkuntza indoeuroparretakoa, beren jatorri morfologikoz denaz bezainbatean: denak dira erakusleetatik eratorritako D-elementuak.

Nolanahi ere den, lan hauek badute aitortu beharreko balio bat: *-a* artikulua definituaren erabileraren gorabeherak modu esplizituan lotzen dituzte *bat* artikulua indefinituarekin. Horrek, 2.6.6 atalean aipaturikoaren bidetik, *-a/-ak* artikulua(arekin) batean aztertu beharreko osagaien zerrenda osatzen laguntzen digu, betiere artikulua ager daitekeen testuinguru sintaktiko nagusiez ari garela aintzat hartuta (subjektu, objektu eta predikatu posizioez); hurrengo kapituluetan ikusiko den bezala, ikuspegi diakroniko zabalagotik *-a* artikulua prototipikoarekin jatorria partekatzen duten beste hainbat “artikulu” identifika ditzakegu (gen. pl. *-en*, leku-kasuetako *-eta-*, etab.), baina bereziki esanguratsua suertatzen da *-(r)ik* partitiboa eta *bat* artikulua indefinitua *-a* artikulurekin batera kontuan hartzea posizio sintaktiko nagusi horietan.

Ondoko azpiataletan xeheki zerrendatu ditut Haaseren eta Heine eta Kutevaren lanetako ideiak; beste lan bateko eskema berari jarraitu diot horretarako (Manterola 2012a).

### 2.8.1 Haase (1992) eta euskal artikulua definitua

Haasek 4-5 orrialde (1992: 53-58) eskaintzen dizkio artikulua definituari. Deskripzio laburra egiten du artikulua eta mugagabearen erabileraz, funtsean Lafitterena (1944) errepikatuta. Perpaus predikatibo zenbaiten adibideak aurkezten ditu, eta, Iturrioren ideiei jarraiki, euskal artikulua indibidualizatzailea dela dio, ez zinezko artikulua.

Hutsune ugari ditu Haaseren analisiak: nagusia, artikulua erakusle jatorriaz deus ez aipatzea; horretaz gainera, ez du ezer esaten euskal artikulua sorrera inguruko hizkuntzetakoarekin lotzen duen hipotesi tradiziozkoaz (ik. 2.1.3.1 atala), ez eta euskal gramatikagintzan ukipenaz eta artikulua egindako gogoetaz ere (ik. 2.7 atala). Ohar bat gehiago ere egin daiteke, Haaseren hutsunea zertan datzan are garbiago agertzeko: Haasek ez dio ezer *-a* artikulua erabileraren bariazio dialektalaz, ez eta diakronikoaz ere; hauek, kontu xeheagoak izanik ere, funtsezko gertatzen dira mendeak iraun duen ukipen egoeraz hizketan ari bagara.

Artikulua definituari dagozkion oinarriko datu ezagun hauek ez aipatzeaz gain, Haasek analisi okerrak egiten ditu *-a* artikulua definituaz ari denean. Esaterako, bere laneko (134) adibideko izen sintagma (1992: 55), “transnumeral” deitzen duen horren adibidetzat du berak:

(16) *Hemen ba-di(r)a jende xahar batzu*

Haasek “transnumeral” deitzen duena euskal gramatikagintza tradiziozkoan mugagabeari dagokio; hala izanik, eta sintagma *jende xahar batzu* dela kontuan harturik, okerra da “transnumeral” moduan sailkatzea: *batzu* artikulua plural indefinituak modifikatzen du izen edo izenondo sintagma. Are gehiago, euskal gramatiketan ez da sekula nahasi deklinabide mugagabea artikulua indefinituenarekin; ik., besteak beste, Hualdek eta Ortiz de Urbinak apailaturikoa (2003: 118-136).

Huts metodologikotzat jo genezakeen bat ere egiten du Haasek: ez du ezer aipatzen hizkuntza erromantzeetako artikulua definituen historiaz eta bilakaeraz; huts hau ulergarria izan daiteke, neurri batean, izan ere ez baita jabetu euskal *-a* artikulua

hizkuntza erromantzeetako artikuluen *itzulpen-baliokidea* dela (“Übersetzungsäquivalent” alemanierazko jatorrizkoan).

### 2.8.2 Haase (1992) eta euskal artikulua indefinitua

Haasek 1-2 orrialde eskaintzen dizkio *bat* artikulua indefinituari (1992: 59-61, 71), ukipenaren eraginez sortu dela frogatu nahian.

Der baskischen Transnumeral-Singular-Plural-Opposition steht in den romanischen Kontaktsprachen die Definit-Indefinit-Opposition gegenüber. Hierbei entspricht der indefinite Artikel dem Zahlwort ‘eins.’ *Im Sprachkontakt wird das baskische Zahlwort ‘eins’ ebenfalls zum unbestimmten Artikel.*

[...]

Anders ausgedrückt: *bat* und frz./gask. *un* sind im Bereich der Zahlwörter *Übersetzungsäquivalente*. Wie in anderen Fällen [...] kann sich nun der Funktionsbereich von *bat* auf alle die Fälle ausbreiten, in denen in den Modellsprachen un gebraucht wird, also auch auf die Signalisierung von Indefinitheit. [Etzana nirea]<sup>148</sup>

Bere ideiak horrela azalduta, bi adibide gehiago ematen ditu, *bat* artikulua, zenbatzailea jatorrian, bere erabilera testuinguruak zabaldu dituela erakusteko asmoz. 1782ko Lopezen adibide bat dakar (17a), eta Etxepareren beste bat (17b); bere lanean 161 eta 162 zenbakipean daude:

- (17) a. 230 *Fraide seindu çahar bat-ec ikuss-i cie-la behin Ainguru bat, çoinh-ec*  
 b. 10: 74 *Valia diquecit senhar gayxto bat*

Eta hauxe ere esaten du *bat* artikulua indefinituaren erabileraz (1992: 60):

Der Gebrauch von *bat* könnte durch das Verb *baliatu* ausgelöst worden sein. Im Keim zeigt sich aber schon die im Sprachkontakt katalysierte Entwicklung.<sup>149</sup>

Ukipenak *bat* artikulua erabileran izan lezakeen rola onarturik ere (ik. Trasken aipua, 2.6 atala), Haasek ematen dituen adibide urriak ez dira aski irozgarri euskal *bat* eta frantsesezko eta gaskoierazko *un* itzulpen-baliokideak direla esateko, ez eta zuzenean

<sup>148</sup> “Aldea dago euskarazko transnumeral-singular-plural aurkakotasunaren eta ukipenean diren erromantzeetako definitu-indefinitu aurkakotasunaren artean. Hein horretan, *bat* zenbatzailearen kide da artikulua indefinitua. Ukipen egoera batean, artikulua indefinitu bilakatzen da, era berean, euskarazko *bat* zenbatzailea. [...] Bestela esanda: *bat* eta fr./gask. *un* itzulpen-baliokideak dira zenbatzaileen esparruan. Beste kasu batzuetan bezala [...] *bat*-en funtzioen eremua zabaldu daiteke eredu-hizkuntzetako *un* erabiltzen den kasu guztietara, indefinitutasun markaren funtzioa barne”.

<sup>149</sup> “*Baliatu* aditzak eragin ahal izan du *bat* erabiltzea. Hala ere, berez badirudi hizkuntz ukipenak abiarazitako bilakaera izan dela”.

ondorioztatzeko ustez ukipenak bideratutako aldaketaren norabidea. Hortaz, ez du hornitzen bere proposamena beharko lukeen oinarri enpirikoarekin, baina, horretaz gain, erabat isiltzen du beste datu garrantzizko bat: euskarak badu *batzuk* artikulua indefinitu plurala. Datu hau berebizikoa da, Heineren artikulua indefinituaren gramatikalizazio eskalarako dituen inplikazioetarako; ik. 7.4.3.2 atala.

Bada, azkenik, aipatzea merezi duen Haaseren pasarte bat gehiago ere (1992: 61):

Das baskische Determinationssystem, das auf der Opposition zwischen Transnumeral, Singular und Plural beruht, ist —wie wir gesehen haben— destabilisiert worden. Zum einen wird die Unterscheidung von nicht-individualisiertem und individualisiertem Prädikatsnomen aufgegeben, zum anderen wird das Zahlwort für ‘eins’ nach romanischen Vorbild zum indefiniten Artikel, der anstelle des Individualisierers eintreten kann.<sup>150</sup>

Zail da ulertzea Haasek zein ardatz kronologiko hartzen duen oinarri: batzuetan badirudi duela gutxiko aldaketez ari dela. Honen adibide izan daiteke bere (166) adibidea, aipatu berri dudana pasartearen aurretik emana:

(18) *tokero bat zen*

Hizkuntza erromantzeen ukipenak eragindako *bat*-en erabileraren adibide ona izan daiteke sintagma hau: adibidearen hizkeran lanbidea adierazten duten izen predikatuak artikulurik gabekoak izan ohi dira, eta mendebalderagoko euskalkietan *-a* artikulua hartu ohi dute. Puntu honetan, beraz, zuzen ibil liteke Haase ukipenari egozten dionean *bat*-en erabilera; adibide bakarrarekin, dena den, orokortzeak ez du oinarri sendorik.

Beste batzuetan, baina, betiere arestiko pasarteari gagozkiolarik, badirudi aspaldi gertaturiko aldaketez ari dela Haase: esaten duenean *bat zenbatzailea* hizkuntza erromantzeen ereduari jarraiki bilakatu zela artikulua indefinitu, zilegi da pentsatzea ohartua dela *bat zenbatzailea* artikulua indefinitu moduan erabiltzea aski antzinakoa dela. Hau hala bada, arazo bat dago: hizkuntzaren garai ezberdinetako sistema eta oposizio harremanak, eta ukipenak bideraturiko aldaketak, denak batera aztertzen ditu. Berak jatorrizko determinazio sistematzat duen “transnumeral-singular-plural” oposizioa ez

<sup>150</sup> “Transnumeral-singular-plural aurkakotasunean datzan euskararen determinazio sistema desegonkortu egin da, ikusi dugun bezala. Batetik, baztertu egiten da izen predikatu ez-individualizatu eta individualizatuen arteko aldea; bestetik, artikulua indefinitu bilakatzen da *bat zenbatzailea*, eredu erromantzeari jarraiki, eta honek individualizatzailearen tokia har dezake”.

da, inondik ere, jatorrizko: jakin badakigu artikulua bera bere erabilera zabaltzen aritu dela garai historiko eta protohistorikoan, eta izen sintagmetako singular/plural bereizketa artikulatu-erakusleetan dagoela oinarritua; ezin izan, horrenbestez, sistemarik antzinakoena. Haaseren ideia oker hauen guztien atzean agerikoa da Iturrioren lanen itzala.

### 2.8.3 Heineren eta Kutevaren lanak

Heineren eta Kutevaren ideiak Haaseren lanaren erabateko zordun dira; horren erakusle da ondoko pasarte (2006: 32):

[T]he primary function of the ‘definite article’ *-a* is to individualize referents, and these referents can be, and not uncommonly are, indefinite or even non-specific [...]

[T]hat Basque has a definite article can be justified on the grounds that *-a* is more likely to mark definite than indefinite reference. However, *one may argue that -a is not really structurally equivalent to definite articles in SAE languages*. In this case, a taxonomic conclusion that one could draw from the observations made is that, rather than having a definite but no indefinite article, Basque has an indefinite but no definite article – hence, quite the opposite of what a discrete-categorization approach of the kind employed by the typologists cited suggests. [Etzana nirea]

Pasarte honetan etzanean emandakoa Iturrioren esaldi honen isla betea da: “y no equivale [-a] por tanto ni al artículo determinado ni al indeterminado de las lenguas indoeuropeas” (1985: 189). Artikulu definituaz gehiagotan arduratzen ez badira ere, argi dago Heinek eta Kutevak Iturrioren ideien oihartzuna jaso dutela, Haase bitartekari.

Behin eta berriro aipatzen dute *bat* euskal artikulatu indefinituaren kasua (2003: 556-557, 2005: 101, 247, 2006: 30, 132, 246, 2007: 327), eta bi ideia nagusi errepikatzen dituzte: batetik, artikulatu indefiniturik gabeko garai baten lekukotasunik izan gabe ere, ziurtzat jotzen dute ukipenaren bitartez sortua dela: “As a result of this contact, Basque speakers introduced a category *which they did not have previously*, namely an indefinite article” (2003: 556; etzana nirea). Cf. orobat pasarte luzexeago hau (2007: 327):

[I]n the earlier history of the Basque language there was no indefinite article, while the surrounding Romance languages Spanish, French, and Gascon had indefinite articles. As a result of centuries of close contact with these Romance languages, speakers of Basque grammaticalized their numeral for ‘one,’ *bat*, to an indefinite article. [A]s Haase (1992) demonstrates, it was only one out of a large number of instances of grammatical replication that Basque speakers introduced on the model of their dominant Romance neighbor languages [...]



Pasarte hauetan izendatuki esaten da euskararen historiako lehen garaietan artikulak indefiniturik ez zela; hau ez da zuzena, ik. 2.6.6 atala. Eta gero, bestenez, esaten dute *bat* artikulak indefinituak erromantzeetako *un*-ek baino gramatikalizazio maila apalagoa duela (2003: 556-557):

The grammaticalization of indefinite articles normally proceeds along the following main stages [...] While the French indefinite article has gone essentially through all these stages, the Basque indefinite article has not. [...] While there are incipient uses as a non-specific marker as early as 1545, the grammaticalization as a non-specific article is clearly a recent innovation of Basque. [I]t has not reached the same degree of grammaticalization as e.g. the corresponding French article [...]

Beste lan batzuetan ere errepikatzen dute ideia bera (2005: 101):

[A]nd the indefinite article of Basque, replicated on the model of Romance languages, exhibit properties of categories in the early stages of grammaticalization [...] They thus differ from the corresponding categories in the model languages, which both are fully grammaticalized articles.

Hala ere, Haaseren lanetik dute jaso euskal artikulak indefinituaren gramatikalizazio mailaren irudikapen hau, eta ez dute lan egin zuzenean euskal datuen gainean. Funtsean, ukipenak bideratutako aldaketaren ereduari ongi egokitzen zaion ustezko egoera da euskararena, menpeko hizkuntzan kopiatzen den egituraren gramatikalizazio maila apalagoa izan behar baita, eredu horren arabera. Ik. 7.4 atala ukipenak bideraturiko gramatikalizazioaren teoriaren kritikarako; kritika hori teoria horretan euskal datuez eginiko erabilerari buruzkoa da bereziki.

## 2.9 Ukipena eta *-a* eta *bat* euskal artikulak. Laburpena

Artikuluaren diakroniaren azterketan bi auzi nagusi ageri dira ukipenarekin lotuta: sorrera eta zabaltzea. Esan dezakegu gai hauetaz bi tradizio izan direla: euskalaritza tradizionala dei genezakeena eta ukipenaren teoria orokorragoetatik datozen autoreena.

Euskalaritza tradizionalan (2.6 atala) bi ohar nagusi egin izan dira: batetik, Europa mendebaldeko hizkuntz esparru zabalago batean koka daiteke *-a* artikulak indefinituaren sorrera, eta, bestetik, proposatu izan da bere zabaltzea inguruko hizkuntza erromantzeetako numero morfologia agerikoaren eraginez gertatu dela. Castañosen ohar bat ere ekarri dut gogora, zeinak ohartarazten baikaitu dokumentatu gabeko garaietan zein zaila den ukipenari dagozkion gorabeherak zehaztea.

Ukipenaren teoria modernoek (2.8 atala) ezintasun horien mugak neurtzeko aukera eman lezakete. Lan hauek euskal artikulua indefinituaz gehiago arduratu dira, *-a* artikulua definituaz baino. Heineren eta Kutevaren lanetan (2.8.3 atala) euskal datuak *ukipenak bideraturiko gramatikalizazioa* teoriaren sostengu gisa erabili izan dira; datu horietako zenbaiten analisi okerraz ohartarazi dut, Iturrioren eta Haaseren lanen berri emanez (2.8.1 atala), 7.4 ataleko kritika orokorragoaren aurrerapen gisa.

## HIRUGARREN KAPITULUA

### ANALISIRAKO OINARRIAK

Kapitulu honetan zehaztuko dut zein oinarrizko lanabes erabili ditudan ondoko kapituluetakoa berreraiketa proposamenerako eta deskripziorako: batetik, maila teorikoan, artikulua definituen edo D-elementuen gramatikalizazioari buruzko zenbait ideiarene eta orokortzeren berri emango dut; bestetik, datuen mailan, tesi honetako proposamenak zein corpusen gainean bermatu diren zedarrituko dut.

Bai lanabes teorikoak, bai corpusari dagozkionak, bina ataletan antolatu ditut: batetik, berreraiketa morfologikoaren lagungarri direnak, eta, bestetik, XVI. mendeko artikulua definituaren erabilera sintaktikoa deskribatzeko beharrezko direnak.

#### A. OINARRIZKO LANABES TEORIKOAK

Artikuluaren bilakaera gramatikalizazio prozesu tipikotzat jo ohi da, eta hainbat hizkuntzatan deskribatu izan da. Atal honetan, erakusleen gramatikalizazioaz arituko naiz berariaz, eta lehen kapituluaren gramatikalizazioari buruz egindako ohar orokorretan sakonduko dut.

Himmelmani jarraiki (2001), Greenbergen (1978) oinarrizko lanaren bidetik, artikulua definituaren ikuspegi diakroniko hertsia hartu dut. Labur esanik, artikulua definitua kategoria gramatikal bat da, erakusleetatik artikuluetarako *continuum* diakronikoaren puntu jakin batean deskriba daitekeena; hauxe da *continuum* diakroniko horren eskema, Himmelmannen arabera: “demonstrative → definite article → specific article → noun marker” (2001: 832).<sup>151</sup>

---

<sup>151</sup> Eskema hau aski oinarrizkoa da, Himmelmannek berak aitortzen duen bezala. Bere barrenean, *artikulu definitu* deitzen dugun hori erabat zehaztu gabe geratzen da ikuspegi sinkroniko batetik. Berariazko zehaztugabetasun hau ondo doa hainbat hizkuntzatan erakusle eta artikulua definitutzat jo ohi diren elementuen jokabide eta erabilera eremuekin (Nocentini 1996); tesi honetan darabildan ikuspegi diakronikoak aukera ematen du saihesteko analisi sinkronikoetan arazo izan ohi diren auziak (definitutasunaren definizioa, hizkuntz arteko aldakortasuna eta abar). Bestalde, lan ugariak deskribatzen dituzte gramatikalizazio bide honen ñabardurak: cf. besteak beste Lapesa (1961) eta Company (1991),

Erakusle-artikuluen *continuum* diakronikoaren eskema honetan, bi dimentsio bereiz daitezke: batetik, morfologikoa, eta, bestetik, semantikoa dei genezakeena; ikuspegi morfologikotik, artikulua erakusle gramatikalizatu bat da, eta, semantikotik, bere balioan eta denboran zehar aldakorra den elementu bat. Bereizketa hau metodologikoa baizik ez da, bi dimentsioen arteko muga ez baita beti garbia, baina bai erabilgarria: hauen arabera zedarritu ditut tesi honen eginkizun nagusiak.

### 3.1 Berreraiketa morfologikorako oinarritzko lanabesak

Tesi honetan berebizikoa izan da euskal artikulua definitua D-elementu gisa sailkatzea (ik. hurrengo atala terminoaren definiziorako): *-a* artikulua prototipikoaz gain beste zenbait osagai morfologiko bereizteko ezinbestekoa izan da. Horrela, artikulua dimentsio morfologikotik hitz egin ahal izan dut, deklinabide mugatuaren morfologia diakronikoa hobeki ulertzen laguntzen baikaitu.

#### 3.1.1 Artikulu definitua D-elementu moduan sailkatzeaz

Oinarri moduan harturiko erakusleen gramatikalizazioaren *continuum* ikuspegi morfologiko-diakroniko jakin bat ezartzen dio artikulua definituaren analisiari. Aukera terminologiko garrantzizkoa egiten du Himmelmannek (1998: 321), eskema horren barrenean:

As a cover term for all elements found along this grammaticisation path [...], I use the term D-element. This term, then, comprises demonstratives and all adnominally grammaticised elements that derive from a demonstrative (i.e., various kinds of articles and noun markers).

D-elementu terminoak<sup>152</sup> berekin dakarren ikuspegi diakronikoaz gain, nabarmentzeko

---

gaztelaniarako; Epstein (1993, 1994, 1995) eta Marchello-Nizia (2006), frantseserako; Philippi (1997), Dahl (2004), Sommerer (2011) eta Kraiss (2014), hizkuntza germanikoetarako; Laury (1993) eta Juvonen (2000), finlandierarako; Johnstone (1970) eta Pat-el (2009), hizkuntza semitikoetarako; Lapierre (1983), Faingold (1994) eta Bollée (2007), hizkuntza kreoletarako; Radetzky (2004), saarua hizkuntza austronesiarerako; cf. orobat Meyerstein (1972) txekierarako eta Huang (1999) txinerarako, nahiz eta hizkuntza hauek ez duten berez artikulurik. Beste hainbat autoreren lanak ere azaltzen dira tesi honetan.

<sup>152</sup> Badirudi 1997ko lanean “D-Element” terminoaren oinarrian “Determinator-Element” ikusten duela Himmelmannek (1997: 11-13); baina berak ere ohartarazten du “Determinator” izenpean erakusleak, artikulua (indefinitu zein definitu) eta are posesiboak, besteak beste, egon daitezkeela. Dena den, 1997ko lan horretan ere diakronikoki erakusleetatik eratorritako osagaiei egiten die erreferentzia “D-Element” terminoak; horrenbestez, agian egokiago litzateke terminoaren azpian “Demonstrativum-Element”

moduko beste ñabardura bat ere badago Himmelmannen formulazioan: posizio adnominalen<sup>153</sup> gramatikalizaturiko edozein erakusle hartzen du bere barruan. Berebizikoa izango da ñabardura hau euskal deklinabide mugatuaren morfologia diakronikoa egiteko tenorean; *-a* morfema hartu ohi da artikulatu definitu prototipikotzat, baina ikuspegi honek ahalbidetuko du posizio adnominalen dauden beste zenbait morfema D-elementu gisa identifikatzea. Funtsean, eztabaida berean kokatuko ditut *-a* artikulatu prototipikoaz gain deklinabide mugatuan antzeman daitezkeen beste hainbat morfema.

Erakusleen gramatikalizazio aukerei buruzko bere monografian, Diesselek ere (1999a) egitura eta testuinguru sintaktikoen arabera sailkatzen ditu erakusleak har ditzaketen gramatikalizazio bideak: posizio adnominalen diren erakusleak artikulatu definitu gisa gramatikaliza daitezke, besteak beste; ik. Diessel (1999a: 155, 1999b: 39) erakusleen gramatikalizazio aukerak zein diren zehazten duten tauletarako.

Ohar orokor bat egin beharra dago, dena den, artikulatu definituen jatorri diakronikoaz denaz bezainbatean: artikulatu definituak ez dira hizkuntza guztietan D-elementu, izan ere erakusleez besteko jatorria duten artikulatu definituak deskribatu izan baitira. Frajzyngierek (1996) hizkuntza txadikoetako “definite marker” moduan sailkatzen dituen elementuen adibidea jartzen du, argituz Gidar hizkuntzan *vá* ‘esku’-tik eratortzen dela diakronikoki; familia bereko beste hizkuntza batzuetan, berriz, *\*(V)nV* moduko ‘esan’ esanahiko aditzetan<sup>154</sup> dute jatorria definitutasun markatzaile horiek — cf. halaber frantses zaharreko *ledit* (Mortelmans 2006)—. Definitutasun markatzaile hauek hizkuntza europarretako artikulatu definitu “tipikoek” duten erabilera hedadura bertsua dute. Erakusleaz besteko jatorria duten artikulatu definituei dagokienez, cf. halaber lat. *ipse* izenordainaren ondorengo artikulak (sardinieraz eta katalanaren zenbait dialektotan aurki daitezke); cf. orobat Masicak (1986: 136) gogora ekartzen

---

dagoela proposatzea, besterik gabe.

<sup>153</sup> Termino hau soilik modu deskriptiboan erabiliko dut: erakusle bat adnominala izango da, agertzen den sintagma izen + erakusle (edo erakusle + izen) egiturakoa baldin bada; erakusle izenordaina, berriz, osagai beregaina da. Ez dut *izenlagun* terminoarekin itzuli, honek bestelako erabilerak izan dituelako euskal gramatikagintzan (*EGLU-I* 157-158).

<sup>154</sup> Frajzyngierek “verbs of saying” dakar, ‘esan’ esanahia duten aditzei erreferentzia eginez; ez dut *esatezko aditz* itzuli, bestelako esanahia duelakoan.

dituen “definite particles” direlakoak, diakronikoki klasifikatzaileetatik eratorritakoak. Ik. Himmelmann (2001: 839-840), bestelako adibide eta bibliografiarako.

Halako kasuek datu interesgarriak ematen dituzte definitutasunaren markatzearen bilakaera diakronikoaz, baina ez dirudi euskal artikulu definituaz esan dezakeguna ezertan alda dezaketenik: zalantzarik gabe deskriba daiteke euskarazko artikulu definitua D-elementuen *continuum* eskemaren barrenean; ezaguna da bere erakusle jatorria (ik. 2.1.1 ataleko bibliografia).

Atal honen hasieran aipaturiko ñabarduraren bidetik, hizpide izango dut hurrengo atalean gramatikalizazio prozesuak egitura eta testuinguru sintaktikoen arabera aztertzearen garrantzia.

### 3.1.2 Egituren araberako gramatikalizazioa

Gramatikalizazio fenomenoez egin izan diren deskribapenetatik, mota honetako formulazio orokorretara iritsi dira adituak: gramatikalizazio prozesu batean, osagai jakin batek bilakabide hau izaten du: “less grammatical > more grammatical” (Hopper eta Traugott 2003: 16). Hori da, ia-ia Meilletek gramatikalizazioari buruzko lehen formulazioaz geroztik, gramatikalizazioari dagozkion definizio eta formulazioetan ageri den oinarri-oinarrizko ideia.

Bada, ordea, gramatikalizazio prozesuen deskripzioan ezinbesteko beste nozio osagarri bat, Meilletek formulazioan modu inplizituan egonik ere, XX. mende bukaerako eta XXI. mende hasieraz geroztiko lanetan bereziki aipatu eta nabarmentzen dena: osagai horiek gramatikalizatu egiten dira *egitura edo testuinguru morfosintaktiko jakin baten barrenean*.<sup>155</sup> Gisborneren eta Pattenen (2011: 92)<sup>156</sup> aipu honek ongi

<sup>155</sup> Heinek eta Narrogek (2010: 401) eta Heinek berak (2011: 697) ohar hau egin, eta, beronen irozgarri, hainbat erreferentzia bibliografiko ematen dituzte. Ikuspegi bera du Himmelmann irakasleak: “[T]he units to which grammaticization properly applies are *constructions*, not isolated lexical items” (2004: 31).

<sup>156</sup> Gramatikalizazioa *egituren gramatika* delakoan (“construction grammar” jatorrizkoan) nola ahokatzen den eztabaidatzen dute bi autore hauek, hain zuzen. Nöelek ere (2007) ideia horretan sakontzen du, eta nabarmentzen du garrantzitsua dela ongi bereiztea egituren gramatika diakronikoa eta gramatikalizazioa. Orobatsu Hilperdek ere (2013b). Gramatikalizazioari buruzko ikerketetan egituren gramatikak ireki dezakeen bidearen erakusgarri, aipatzekoa da Freiburgeko Unibertsitateko Traugotten 2012-2013ko ikasturteko ikastaro batek izenburu hau izatea: “Integrating work on grammaticalization and construction grammar”; berrikiago, eredu teoriko baten zumitzak ezarri ditu beste lan batean (Traugott 2014). Ik. orobat Fried (2013: 419-424).

laburbiltzen du ikerketen egoera hau:

The grammaticalization literature has often presupposed the existence of ‘constructions’, generally in a pre-theoretical way, as the context in which grammaticalization takes place [...] More recently, the role of context has been recognized as fundamental to the definition of grammaticalization.

Bybeek (2003: 602) honela birdefinitzen du gramatikalizazioa, xehetasun hori aintzat hartuta:

In fact, it may be more accurate to say that a construction with particular lexical items in it becomes grammaticized, instead of saying that a lexical item becomes grammaticized.

Eta Heinek are argiago ezartzen du osagai gramatikalen bilakaera egituraren menpekoa dela: “[T]he development of grammatical items is shaped by the constructions in which these items occur” (2003: 581).<sup>157</sup> Erabat argigarriak dira, tesi honen gaiari zuzenean lotzen zaizkion neurrian, Himmelmannen hitzak (2004: 31):

Strictly speaking, it is never just the grammaticizing element that undergoes grammaticization. Instead, it is the grammaticizing element *in its syntagmatic context* which is grammaticized. That is, the unit to which grammaticization properly applies are *constructions*, not isolated lexical items. For example, it is fairly common to make reference to the grammaticization of demonstratives to articles (saying, for example, that the French definite article *le* is a grammaticization of the Latin distal *ille*). But this is strictly speaking no true, since the development DEM → ART does not occur in isolation but only demonstratives which function as *adnominal modifiers* may be grammaticized as articles (in other syntagmatic contexts, demonstratives may become personal pronouns, complementizers or relative clause markers, copulas, etc. (cf. Himmelmann 1997: 31)). Hence, the development minimally should be represented as DEM NOUN → ART NOUN rather than simply DEM → ART. The syntactic context determines the outcome at least as much as the grammaticizing element itself.

Lan-ildo berean doa, bestalde, Diesselen erakusleen gramatikalizazioari buruzko lan monografikoa (1999: 115, 154). Artikuluak, horrenbestez, funtzio adnominalen gramatikalizaturiko erakusleak dira; bestelako funtzioetan dauden erakusleak, hartzekotan, bestelako gramatikalizazio bideak hartzen dituzte.<sup>158</sup>

Ohar orokor honen bidetik, badago ohar xeheago bat egiteko beharra, tesi honetan

<sup>157</sup> Cf. halaber Traugotten hitzak: “[I]ncreasing attention has recently been paid to the fact that early in grammaticalization, lexemes grammaticalize only in certain highly specifiable morphosyntactic contexts, and under specifiable pragmatic conditions” (2003: 624).

<sup>158</sup> Hona aipua: “This chapter shows that the path-of-evolution that a demonstrative might take is crucially determined by the syntactic context in which it occurs” (Diessel 1999: 115) eta “I have shown that the path-of-evolution that a demonstrative takes is largely determined by the syntactic context in which it undergoes grammaticalization” (Diessel 1999: 154).

esanguratsua izango delakoan: funtzio adnominallean egonik ere, eta erakuslea artikulua gisa gramatikalizatuta ere, kasua edo adposizioa zein den, modu batean edo bestean gramatikalizatuko dira erakusleak; hots, abs. sg. *etxea* sintagmako *-a* eta ines. sg. *etxean* sintagmako *-a-*, biak artikulua gisa analizatzen baditugu ere, ez dira modu berean gramatikalizatu. Traugotten formulazio orokor hau har liteke xehetasun honen adierazle moduan (2003: 644-645):

Because the precise syntactic structure of the original construction as well as the particular inferences from it are so crucial in enabling grammaticalization, it follows that [...] [d]ifferent contextual sources will give rise to different instances of grammaticalization.

Aipu honen arabera, aintzat hartu behar da egitura testuinguru bakoitzak gramatikalizazio bide bat dakarrela berekin. Era berean, autore honen arabera, morfonologikoa ere bada egitura horien barreneko osagaien harreman sintagmatikoa (Traugott 2003: 625):

Although grammaticalization typically results in morphosyntactic constructions, the combinations on which it operates are also morphophonological. Morphophonological constructions are intonation units, including pitch and duration contours.

Traugotten bi aipu hauek honela laburbil daitezke: egitura bakoitzak gramatikalizazio bide edo kate bat dakar berekin, eta, ondorioz, egitura bakoitzean emaitza morfonologiko ezberdina izateko aukera dago.

Puntu honetan, eta euskararen barreneko eztabaidetara begiratuz, berebizikoa da Oñederrak (2005) egiten duen bereizketa, abs. sg. *alabea* eta ines. sg. *elξαν* sintagmetako bi emaitzak aztertzen dituenean: funtsean, *-a* (izenarena) + *-a* (artik.) dugu bietan, baina absolutiboan disimilazioa gertatzen da, *-a + -a > -ea*, eta inesiboan asimilazio erabatekoa, *-a + -a > -aa- > -a-*; lehenean indarrean dagoena arau morfonologikoa dela proposatzen du Oñederrak —jatorrian bilakabide fonologiko izango bazen ere—, eta bigarrenean bilakabide fonologiko hutsa. Atal honetako ideia nagusiarekin bat, Oñederrak ere egiturak ditu aintzat pasarte honetan (2005: 395):

BBI bezalakoetan [mendeb. zabaleko *-a + -a > -ea* ordezkatzeaz ari da] hiztunak ez dira ari bilakabide fonologikoak erabiltzen, ez dira ari hotsak prozesatzen [...], baizik eta hots horien bidez eraikitako *egitura gramatikal edo lexikoen* arabera. [Etzana nirea]

Berebizikoa da tesi honetan Oñederraren bereizketa hau, arau morfonologiko



ezberdinak bereizi ahal izango baitira gramatikalizaturiko D-elementu bakoitzaren arabera. Gainera, kontu ezaguna da euskararen diakronian morfema berarekin *egitura gramatikal edo lexikoen* arabeko gertakari morfonologiko bat baino gehiago izatea: hala erakusten dute Erdi Aroko *Domicu Larrainecoa* eta *S. Larraingo (SJuan 1226)* -adibideek, besteak beste, zeinetan *-e-* epentetikoa izenaren izaera semantikoaren menpekoa den (ik. 5.2.3.4 atala). Tesi honetan, funtsezkoa da gertakari morfonologikoen testuingurua edo egitura aintzat hartzea, beren motibazioa horren arabera baita; bosgarren kapituluko deklinabide mugatuaren berreraiketa morfoloikorako zeresana du horrek.

### 3.1.3 D-elementuen gramatikalizazioa adposizio sintagmetan

Esan dut aurreko ataletan D-elementuak posizio adnominalen gramatikalizaturiko erakusleak direla, baita nabarmendu ere gramatikalizazio gertaerak egitura jakinetan gertatzen direla. D-elementuen diakronian, betiere posizio adnominalen gramatikalizatuak izanik ere, aldeak antzeman daitezke, gramatikalizaturiko sintagmaren funtzioa zein den: erakusleen gramatikalizazioa ez da berdina subjektu funtzioan, objektu funtzioan, edo sintagma adposizional batean.

Atal honetan, Himmelmannen (1998) lan bat laburbilduko dut, deklinabide mugatuaren morfologiaren berreraiketarako zenbait orokortze eta gako ematen dituelako. Abiapuntu moduan, honela ohartarazten du Himmelmannek (1998: 315):

A major problem for all theories of the definite article is to account for those instances where it is NOT used despite the fact that its use would be semantically well-motivated. This paper is concerned with one such context: the use or omission of article in adpositional (i.e., pre- or postpositional phrases).

Himmelmannek deskribaturiko fenomeno horren adibide egokia da euskara: singularreko ablatiboko eta adlatiboko sintagmak (beste zenbaitekin batera, cf. prolatiboa, etab.) beti agertzen dira forma mugagabeen, artikulurik gabe; are gehiago, morfologikoki mugagabe izanik ere, paradigma definitu singularrean sartu ohi dira *etxetik* eta *etxera* bezalako sintagmak, eta semantikoki definitutzat jo ohi dira.

Adposizio sintagmei dagokien ezaugarri hau, artikularen erabilera irregularrari dagokiona, hainbat hizkuntzatan deskribatu izan da; cf. errumanierari buruz “no article

is ever used with prepositions unless the noun phrase also contains an adjective” (Moravcsik 1969: 73), eta gaztelaniari buruz “es sobre todo en la FP [frase preposicional] circunstancial donde más difieren” (Company 1991: 420).<sup>159</sup> Nocentini ikuspegi orokorragoa ematen du, Europako hainbat hizkuntza aztertuta: “Una relazione negativa è invece proponibile, nel senso que la marca casuale, che può essere rappresentata anche da una Prep, ostacola la ricorrenza dell’articolo” (1996: 41). Honela orokortzen du Himmelmannek (1998: 342):

The grammaticalization of articles [...] begins in core argument (subject and object) positions, from where it may spread to other syntactic environments. [...] in constructions involving primary adpositions there is a strong tendency for the spread to proceed much slower [...] it is sometimes completely blocked from these constructions.

Himmelmannek errumanieraren, albanieraren, tagaloaren eta Nkore-Kiga hizkuntza bantuaren adibideak dakartza, eta aintzat hartzen du hizkuntza germanikoen arteko bariazioa ere. Interesgarria da albanieraz deskribatzen duen banaketa: ez dute artikulurik hartzen *në* ‘-n’, *mbi* ‘gainean’ eta *nën* ‘pean’ moduko adposizio primarioekiko sintagmek (ik. behean adposizioen sailkapenerako), euskarazko abl. *etxetik* eta adl. *etxera* bezalaxe; adposizio horien (eta besteen) pluraleko sintagmek, ordea, ez dute halako murriztapenik (cf. euskarazko abl. pl. *etxeetatik*, adl. pl. *etxeetara*; ik. 5.2.6 atala). Beste hizkuntzetako adibideen xehetasunetarako, ik. Himmelmann (1998: 323-338).


Himmelmannek dioenez, “the details of the interaction are highly language-specific” (1998: 337), baina bi irizpide orokorren menpe ezartzen du interakzio hori: (a) artikuluen (D-elementuen) gramatikalizazio mailaren menpe eta (b) adposizioen gramatikalizazio mailaren menpe.

D-elementuen gramatikalizazio katea ezaguna da: erakusle → artikulua definitu → artikulua espezifikoa → izen marka tzaile (ik. atalaren hasiera). Himmelmannen arabera, D-elementua blokeatzeko, artikulua definitu edo artikulua espezifikoa fasean egon behar du: adibidez, *lan hartatik* sintagman ez da blokeatzen D-elementua, erakusle fasean baitago; era berean, zenbait hizkeratako *lanatik* bezalako sintagmetan ere ez da

<sup>159</sup> Aspalditik da ezaguna hau: “Où l’article tarde le plus à s’employer, c’est après les prépositions” (Meyer-Lübke 1890-1906: 218 (3. liburukia)).

blokeatzen D-elementua, izen markatzaile fasean baitago; aldiz, galarazia dago *lanetik* sintagman D-elementua, gramatikalizazio katearen tarteko faseetan baitago.

Honela deskribatzen du Lehmannek adposizioen gramatikalizazio katea (1985): *izen erlazionalak* → *adposizio sekundarioak* → *adposizio primarioak* → *kasu-marka eransleak* → *kasu-marka fusionalak*;<sup>160</sup> ik. I. eranskina, gramatikalizazio kate honen faseen definizioetarako. Irudi hau dakar Himmelmannek (1998: 320):



1. irudia. Adposizioen gramatikalizazioaren aroak, Himmelmanen arabera (1998).


Himmelmanen arabera, adposizio primarioek eta kasu-marka eransleek blokeatzen dute artikulua erabiltzea: euskaraz, adibidez, izen erlazional<sup>161</sup> moduan sailka daiteke *aurre* izena, eta berekin osaturiko postposizio sintagmetan (cf. *etxearen aurrean*, *etxe haren aurrean*, etab.) ez dago murriztapenik artikulua erabiltzeko, D-elementuen gramatikalizazio kateko ezein osagairekin; adposizio primario gisa sailka daitekeen ablatiboazko *-tik*-ekin, ordea, murriztapena dago, eta artikulua fasean (definitu zein

<sup>160</sup> Termino hauek euskaratzeko, erabaki dut ingelesezko jatorrizkoetatik ez urruntzea, eta bazterrean utzi ditut *lehen mailako* (edo *oinarrizko*) *adposizio*, *bigarren mailako adposizio* moduko itzulpenak; arrazoia erabat praktikoa da.

<sup>161</sup> Azaleko maila deskriptiboan, honela sailka daitezke euskarazko deklinabideko atzizkiak: Hualdek (2003) kasu izendatzen dituenak Lehmanen gramatikalizazio kateko adposizio primarioak edo kasu-marka eransleak dira; adposizio gisa sailkatzen dituenak (Hualde 2003: 187-190), berriz, izen erlazionallekiko sintagmatzat edo adposizio sekundariotzat jo daitezke.

espezifiko) dauden D-elementuak blokeatu egiten dira: *\*\*laneatik* sintagma ez da gramatikala. Horretaz gain, badirudi pluraleko sintagmetan kasu-markak edo adposizioak ez direla egoten izenari hain tinko lotuak; horrenbestez, gramatikalizazio maila apaleko sintagmatzat jo daitezke pluralekoak, eta horietan ere ez dago murriztapenik artikulua erabiltzeko (ik. bi orrialde gorago albanieraren adibidea).

Irudi honen bidez irudika daiteke artikuluen eta adposizioen interakzioa; hemen ikusten da zein konbinazioen arabera blokeatzen den artikulua:



## 2. irudia. Artikuluen eta adposizioen interakzioa.

Eta honela laburbil daiteke, Himmelmanen hitzekin (1998: 337), irudi honen funtsa:

Adpositions in the early stages of their grammaticisation —relational nouns and secondary adpositions— do not interact with articles. Similarly, the use of weakly grammaticised D-elements (demonstratives) is in no way constrained by primary adpositions. And very strongly grammaticised D-elements (noun markers) do not interact with primary adpositions either.

Eta, beste modu batean azalduta: “article use is unaffected by very weakly and very strongly grammaticised adpositions, but tends to be markedly different in constructions involving adpositions in intermediary stages of their grammaticisation” (1998: 338).

### 3.1.3.1 Artikuluaren erabilera adposizio sintagmetan: murriztapenaren azalpen bat

Interakzio<sup>162</sup> edo murriztapen horren nondik norakoa eta zergatia azaltzeko, “entrenchment” kontzeptua darabil Himmelmanek, euskaraz *trinkotze* itzuliko dudana.

<sup>162</sup> Himmelmanen azaltzeko moduan, interakziorik ez egoteak adierazten du artikuluen erabileran ez dela murriztapenik; interakzioa egoteak, aldiz, artikuluen erabileran murriztapena izatea.

Bere arabera, adposizio primarioekiko sintagmetako osagaiak trinkotuagoak daude bestelako sintagmetakoak baino, eta trinkotze maila handiago honek azalduko luke zergatik diren egoskorragoak halako sintagma aldaketa berriekiko; sinplifikatuz, halako sintagmaren osagaiak hain daude elkarri lotuak non zaila baita artikulua tartean sartzea.<sup>163</sup> Trinkotze hau sintagma hauen erabilera maiztasunarekin lotzen du Himmelmannek (1998: 345); ik. Bybee (2003), eta, honi jarraiki, Pustet (2008), Shibasaki (2010), Liu (2010), besteren artean, gramatikalizazio prozesuetan erabilera maiztasunak duen rolaz. Era berean, ohartarazten du trinkotzearen araberrako azalpen honek “requires diagnostics for high entrenchment and lack of full compositionality” (Himmelman 1998: 345).<sup>164</sup> Ez dut sakonduko azalbide hauen erroetan; tesi honen eztabaidarako, aski da Himmelmannen orokortzearen berri izatea.

### 3.1.3.2 Artikuludun eta adposizio primariodun sintagmak: azalpen diakronikoa

Hizkuntzen artean deskriba daitekeen barietate handiaren jakitun, Himmelmannek galdetzen du ea nolatan zabaldu ahal izan den artikulua adposizio primarioetara. Horretarako, azalpen diakroniko batez baliatzen da: bere ustez, artikulua adposizio primariodun sintagmetan sartzen dira adposizio sekundarioen gramatikalizazioz. Hau da, murriztapenik ez duten adposizio sekundarioak artikuluekin erabil daitezke eta erabiltzen dira bere gramatikalizazio katearen fase batean; adposizio sekundario horiek adposizio primario bihurtzen direnean, artikulua atxikitzen dute, eta horrela, bide diakroniko jakin baten emaitza moduan, azal daitezke adposizio primariodun eta artikuludun sintagmak.

### 3.1.3.3 Hizkuntza eransleei buruzko orokortzea

Himmelmannen proposamenak ondorio logiko zuzen bat du: adposizio primarioekin edo kasu-marka eransleekin agertzeko artikuluek (definitu zein espezifiko) murriztapena

<sup>163</sup> Honela dio Himmelmannek: “[C]onstructions consisting of a primary adposition and a nominal expression are entrenched to a higher degree than other constructions involving nominal expressions [...] *this difference in entrenchment* provides a major reason as to why changes [...] *do not occur* [...] *in adpositional expressions involving primary adpositions*” (1998: 345, etzana nirea).

<sup>164</sup> Konposizionaltasun falta honetaz, hona Wiemerrek eta Bisangek zer dioten: “If we take constructions in the sense of Construction Grammar (see e.g. Goldberg 1995) as linguistic items with their own *meaning which cannot be derived from their components*” (2004: 9; etzana nirea).

baldin badute, zaila da hizkuntza eransleek artikulua garatzea. Honela dio (1998: 339):

If a language has an elaborate paradigm of agglutinative case markers, including markers for core cases such as nominative/ergative, accusative/absolute, dative, and genitive as well as local cases such as locative, allative, ablative, then with overwhelmingly more than chance frequency, it will not have definite or specific articles.

Hizkuntza eransle bateko kasu-marka eransleak aski gramatikalizaturiko adposizioak dira; hizkuntza horietan, gainera, izen sintagma gehienetan aski gramatikalizaturiko adposizio bat dago. Hizkuntzaren beraren izaera tipologikoak dakar berarekin artikulurik ez garatzeko joera.

#### 3.1.3.4 *Himmelmannen orokortzea eta euskara*

Himmelmannen proposamena irudikatzeko, euskarazko ablatiboaren adibidea jarri dut 3.1.3 atalean, berak azalarazitako joera orokorraren adibide egokia delakoan. Baina euskara, oro har hartuta, arazo da bere proposamenerako: euskarak kasu-marka eransleak ditu, baina artikulua ere erabil dezake horietako gehienekin; euskal gramatikan, salbuespena da ablatiboa (orobat partitiboa), adlatiboa (ekialdeko euskalkien salbuespenarekin, gainera), leku-genitiboa eta prolatiboa artikulurik gabeko postposizio izatea, ez araua.

Himmelmannek berak ikusten du arazo hau, eta salbuespen gisa sailkatzen du euskara (1997: 155, 58 oh.):

Auch für das Baskische wird gelegentlich bezweifelt, ~~da~~ als Definitivkennzeichen bezeichnete Suffix *-a* –über dessen Geschichte nichts bekannt ist – tatsächlich etwas mit Definitheit zu tun hat (vgl. Iturrioz 1982). Falls dieses Element als Definitivkennzeichen analysiert werden kann, wäre diese Ausnahme eine Ausnahme, die im wörtlichen Sinne die Regel bestätigt. Denn die Verwendung von *-a* ist auf die stärker grammatikalisierten Kasus beschränkt.<sup>165</sup>

Himmelmannen hitzen arabera, zalantzazkoa izan daiteke *-a* atzizkiak definitutasunarekin inongo zerikusirik izatea; are gehiago, bere jatorri diakronikoa ezezaguna dela uste du (“über dessen Geschichte nichts bekannt ist”). Huts honen iturria Iturrioz (1982) lana da (ik. halaber 2.8 atala), ezaguna baita euskal artikulua D-

<sup>165</sup> “Euskararekin ere zalantza izan daiteke benetan ote duen definitutasunarekin zerikusirik definitutasun markatzat jo ohi den *-a* atzizkiak —zeinaren historia ezezaguna baita— (cf. Iturrioz 1982). Osagai hau definitutasun marka moduan analizatu ahalko balitz, salbuespen hau zinezko salbuespena litzateke, zentzu literalean araua berretsiko lukeena. Kasu gramatikalizatuenera dagoke mugatua *-a* atzizkiaren erabilera”.

elementua dela.

Horretaz gainera, deklinabidean (mugatuan zein mugagabeen) agertzen diren postposizioak eta kasu-markak kasu-marka eransle tipiko moduan sailkatu ohi dira, eta aski zaharrak direla dirudi. Irakur Trasken aipu hau (1998: 318):

The dozen or so cases are all marked by agglutinated suffixes, except that the absolutive case exhibits suffix zero. The majority of the case-suffixes have no identifiable sources and appear to be ancient [...] we have little reason to doubt that the system of agglutinated case-suffixes is of some antiquity in Basque.

Lehmannek ematen dituen irizpideen arabera ere (ik. I. eranskina), sailkapen bertsua egingo genuke: adposizio primario edo kasu-marka eransleak ditugu euskarazko deklinabidearen oinarrian.

Traskek dioenez, kasu-marka eransleak aski zaharrak dira; badirudi, gainera, antzinatasun hori kronologia erlatibo baten arabera uler daitekeela: modu erlatiboan, D-elementuen gramatikalizazioa hasi zeneko garaian ere kasu-markak eta postposizioak eransle izango ziren ziur aski.

Datuak hauek izanik, Himmelmannen azalpen diakronikoak (3.1.3.2) ez du argitzen nolatan ditugun euskaraz kasu-marka eta postposizio eransle artikuludunak: ezin izan da gertatu *adposizio sekundarioa + artikulua* → *adposizio primarioa + artikulua* gramatikalizazio prozesua, adposizioak ez baitziren sekundario artikulua gramatikalizatzen hasi zenean, primario edo kasu-marka eransle baizik. Hortaz, Himmelmannek berak dioen bezala, “wäre diese Ausnahme eine Ausnahme”, salbuespena da euskara. Tesi honetan (7.1.6 atala), Himmelmannen azalpen diakronikoa zabalduko dut, bere proposamenaren mugetan betiere, eta argudiatuko dut euskara ere azal daitekeela Himmelmannen joera orokor horren arabera.

### 3.2 Artikulu definituaren sintaxiaren deskripziorako

Aurreko atalean D-elementuen gramatikalizazioaren eskema hartu dut abiapuntu: *erakusle* → *artikulu definitu* → *artikulu espezifikoa* → *izen markatzaile*. Bi ohar nagusi egin ditut: batetik, gramatikalizazioa egitura edo sintagma osoena da, ez osagai gramatikal hutsarena; bestetik, D-elementuaren nozioak, *-a* artikulu prototipikoaz landa,

bidea ematen du beste zenbait osagai morfologikoren diakronia aztertzeko.

Eskema diakroniko horrek aukera ematen du berreraiketa morfologiko hertsitik haragoko eztabaidetan sakontzeko eta bestelako eginkizunak zedarritzeko: horien artean, *-a* D-elementu prototipikoaren gramatikalizazioa eta egituraz egiturako zabaltzea da eztabaidagai nagusia. D-elementuen artean, *-a* agertzen da, hain zuzen ere, *-ak* pluralarekin batean, perpausaren funtzio nagusietan, eta, artikularen erabileraren analisi sinkroniko zein diakroniko askotan, bere funtzioen, ezaugarri semantikoaren eta erabilera testuinguruen analisia egin izan da.

Tesi honen eginkizunetako bat izan da deskripzio historiko baterako oinarriak ezartzea, XVI. mendeko datuak abiaburu moduan hartuz (VI. kapitulua); funtsean, helburua deskriptiboa da, artikularen sintaxiari dagokion alorrean. Ez da alferrikakoa Mitxelenaren hitzak berriro hona ekartzea, eginbehar horren justifikazio moduan (VII 306):

No sé que haya ningún estudio especial sobre el empleo de la determinación en el predicado nominal, ni siquiera con el auxiliar intransitivo, alias cópula, en una u otra zona o en estos y aquellos autores: no se ha pasado, si no he buscado mal, de consideraciones generales entreveradas de juicios de valor.

Atal honetan, zenbait auzi teorikoren berri emango dut, nahiz eta eztabaida horietan sakontzea ez dagoen tesi honen egitekoen barrenean. Atalaren bukaeran, alabaina, lanabes bat proposatuko dut artikularen erabilera deskribatzeko, eta berori taxutzeko lagungarri ez ezik ezinbesteko ere bada horien berri izatea, eginiko hautu jakinen argigarri.

### *3.2.1 Azterketa sintaktikoa gramatikalizazioaren barrenean*

Gramatikalizazioaren inguruko azterketetan, gramatikalizaturiko morfemaren edo, hobeki esan, sintagma eta egitura osoaren diakronia aztertu ohi da alderdi morfologikotik eta sintaktikotik. Lehen kapituluan, gramatikalizazioaren ezaugarri behinenetako moduan sailkatu dugu kasuan kasuko morfemaren hedatzea edo erabilera-testuinguruen orokortzea. Alde horretatik, ez da bestelako justifikazioen beharrik erakusle-artikuluen alderdi sintaktikoa ere aztertu beharrekoa dela esateko.

Hurrengo ataletara igaro baino lehen, ohar bat egin daiteke gramatikalizazio



bilakaeretan morfologiak eta sintaxiak duten harremanaz; Haspelmathen (2011: 355) aipu bat ekarri dut hona horretarako:

[A]nyone who wants to understand the synchronic morphosyntactic patterns of languages needs to be aware of the general tendencies of coalescence [gramatikalizazioaren barreneko termino moduan darabil], and we need a better understanding of them if we want to understand synchronic systems. Due to the influence of spelling and tradition, many linguists still think of morphosyntactic structure as strictly divided into morphology (internal structure of words) and syntax (structure of word combinations), but since we do not have a workable definition of the word as a general unit of languages, this is not helpful.

Idea horien bidetik, Haspelmathen jorratzen duen ikuspegian sakondu gabe eta horren aldeko edo aurkako hauturik egin gabe —“the very idea of a syntax-morphology distinction [is] highly doubtful” esana du lehenago (2011: 352)—, argi geratzen da morfema edo egitura baten analisi sinkronikoa egitean ezin ahantz daitekeela zein den bere dimentsio diakronikoa;<sup>166</sup> era berean, morfologia egiten arituta ere, argi geratzen da ezinbestekoa dela morfema horri dagokion egitura edo sintagma sintaxiaren ikuspegitik aztertzea.

### 3.2.2 Erakusleen gramatikalizazioa eta definitutasuna

Artikulu definitu prototipikotzat jotzen den *-a* D-elementua aztertzeko, berebizikoa izan da definitutasunaren nozioa (eta, oro har, determinazioarena). Artikulua ikuspegi diakronikotik aztertuta, ordea, bigarren mailako auzia da: definitutasuna zehatz zedarritu nahiak tokia galtzen du analisisian, izan ere, artikulu moduan izendatzen ditugun morfemen balioa aldatu egiten baita denboran zehar. Himmelmannen hitzek (2001: 832) ongi azaltzen dute ikuspegi diakroniko honen funtsa:

[F]rom a grammaticisational point of view, definiteness, though undeniably of central importance to the grammar and typology of articles, is only one of a number of meanings that can be conveyed by articles. Thus, for example, specific articles indicate specificity rather than definiteness. Definiteness and specificity are only two salient (and crosslinguistically well attested) stages of the grammaticisation path in (1) [*erakusle* → *artikulu definitu* → *artikulu espezifikoko* → *izen markatzaile* bidez ari da]. Given a sufficiently fine-grained set of criteria, many more stages could be distinguished. Thus, on the one hand, the grammaticisation approach provides a more detailed typological grid for articles and includes a variety of phenomena not considered in the definiteness-based approach [...] On the other hand, the grammaticisation approach excludes some of the phenomena dealt with in the definiteness-based approach, in particular those grammatical

<sup>166</sup> Esanguratsua da Heinek dioena: “While grammaticalization has both a synchronic and a diachronic dimension, its foundation is diachronic in nature” (2003: 575).

structures which appear to be sensitive to definiteness but are not part of a grammaticisation path for articles (such as word order, case markers or verbal agreement).

Erakusleen bilakaerak ñabardura ezberdin ugari ditu hizkuntzaren arabera, eta honek galarazi egiten du definitutasuna modu trinkoan zehaztea. Adierazgarria da Milsarkek (1977: 5) definitutasunaren nozioaz dioena:

A more fundamental difficulty concerns the notion “definite” itself, a notion whose status in linguistic theory is anything but clear. The term has been used for generations in the pedagogy and scholarly description of the Indo-European languages, but within that tradition it is usually used only in discussing the overt formal contrast between “definite” and “indefinite” determiners such as English *the* and *a/an*.

Tesi honetako ikuspegi diakronikoak aukera ematen digu Milsarkek aipatzen dituen arazo horiei ihes egiteko;<sup>167</sup> arazo horiek normalean analisi sinkronikoei dagozkie, ikuspegi sinkroniko hertsiki batetik abiatuta balizko artikulua definitu ideal baten zerizana atzitu nahi denean. Funtsean, erabaki metodologiko jakin batzuen ondorio dira arazo horiek.<sup>168</sup>

Hurrengo azpiataletan, labur aipatuko ditut beste bi eztabaidagai, azken urteotako lanetan nabarmendu direlako, nahiz eta tesi honetan ez dudan horietan sakondu.

### 3.2.2.1 Definitutasunaren adierazpena diakronikoan

Aurreko ataleko gaia diakroniaren esparrura ekarrita, honako hau izan daiteke beste azterketa gai bat: definitutasunaren adierazpen gramatikalaren bilakaera diakronikoa.

Milsarkek, arestiko aipuaren segidan, gogorarazten du hizkuntzalarientzat definitutasuna fenomeno zabalago gisa deskribatu ohi dela: izen bereziak, erakusleak edo izenordain anaforiko zein edutezkoak dituzten sintagmak, besteak beste, izen sintagma definituen barrenean sailkatu ohi dira. Gaia are gehiago zabalduz, hitz ordenak

<sup>167</sup> Horrekin batean, artikulua indefinituen gorabeherak aztergaiaren muintetik erauzten ditu. Aski jatorri ezberdina duten bi osagai gramatikal definitu/indefinitu ardatzaren arabera izendatzeak berak dakar arazoa: espresio indefinitu eta definituak ez dira elkarren antonimo edo aurkako. Funtzio ezberdinak dituzten bi espresio mota dira, gure tradizioan bata bestearen arabera izendatu nahi izan ditugunak; honetan ere, arazo terminologikoa nabarmen azaleratzen da.

<sup>168</sup> Ik. orobat Starkek, Leissek eta Abrahamek diotena: “Yet, what we find about the meaning of determiners of (*in-*)*definiteness* in modern text books is often vague or even ambiguous (see Lyons 1999), something that leaves the reader with two incompatible concepts: for example, the quantificational ‘inclusive’ vs. ‘exclusive’, à la Hawkins 1978) or the (con)textual ‘given’ vs. ‘new’ (à la Kamp & Reyle 1993)” (2007a: 2).

edo kasu-markaketak definitutasunaren adierazpenarekin duten lotura nabarmendu izan da; eztabaida gai hauen laburpen egokia da Lyonsen (1999) liburua.

Interesgarria da, puntu honetan, artikulurik gabeko hizkuntzen analisisan definitutasunaren auzia nola tratatu izan den ikustea. Xehetasunetan sartu gabe, hona suomierari buruz Juvonenek zer dioen: “The semantic/pragmatic category of definiteness can in the Finno-Ugric languages, the language family Finnish belongs to, be expressed by several different means” (2000: 30). Esanguratsua da definitutasuna kategoria semantiko-pragmatiko gisa (ere) aurkeztea, ez soilik morfema jakin bati lotua; ez da harritzekoa artikulurik ez duen hizkuntza baten azterketan nabarmentzea puntu hau. Chestermanek ere definitutasunak suomieraz duen estatusaz galdetzen du bere liburuko zazpigarren kapituluan, eta honela formulatzen du iritzi orokorra (1991: 158):

[T]he generally accepted view [...] that definiteness is not a syntactic category in Finnish, in the sense that Finnish lacks features whose explicit function is solely to express definiteness.

Esanguratsua da, orobat, definitutasunaren eztabaidaren barrenean kuantifikazioaren auziari nolako garrantzia aitortzen zaion Chestermanen lanean (1991: 133-138); Välimaa-Blumek (2000/2001), berriz, bi definitutasun mota bereizten ditu suomieraz: “discourse definiteness” eta “quantitative definiteness”.<sup>169</sup>

Honek gogora dakartza euskararen zenbait datu, eztabaidagai izan direnak: zenbait hizkeratan artikulurik gabe ager daitezke objektu zuzenak; zehazki, izen zenbakaitz eta interpretazio pluraleko sintagmak (ik. 2.6.3-2.6.4 atalak). Eta, artikulurik ez zuen garaian, euskarak ere definitutasuna kodetzeko hizkuntza horietakoen antzeko baliabide sintaktikoak ote zituen galdetzera eraman gaitzake; edo euskalki modernoetan

<sup>169</sup> Banaketa bitar honen oinarrian, artikularen funtzioaz dauden bi ikuspegi nagusi antzeman ditzakegu. Batetik, cf. Cyrrek dioena: “The effect of identifiability on discourse will be that the first mention of a referent will tend to be indefinite because it is not yet identifiable by the hearer, while second and further mentions of the same referent will most often turn out to be definite. [...] This aspect of the pragmatic use of definite markers was discussed by Christopherson (1939) as ‘mutual familiarity with the referent’” (1993: 204-205); aipu honetan artikularen funtzio diskurtsiboa, anaforikoa nabarmentzen da. Bestetik, ikuspegi honi kontrajarrita, cf. Stark, Leiss eta Abrahamek diotena: “Given the assumption that the semantic contribution of D is ‘singularity’ rather than ‘anaphoricity’ (cf. Heim & Kratzer 1998: 81)” (2007a: 7); aipu honetan, berriz, artikularen, funtzio kuantifikaziozkoa nabarmentzen da, anaforikoaren gainetik. Tesi honetan, ez dut auzi honen xehetasunetan argirik ekarriko. Ikus halaber aurreko oharra.

antzinako sintaxiaren aztarnarik antzeman ote dezakegun. Galdera interesgarriak dira hauek, besteak beste kasu-markaketaren edo hitz hurrenkeraren aldaketarekin lotu izan baita artikularen sorrera.

Honenbestez, azpiatalaren hastapenean egindako galderara itzul gaitzke: zein izan da definitutasunaren adierazpen gramatikalaren bilakaera diakronikoa euskaraz? Nolakoa zen euskara D-elementuen gramatikalizazioa gertatu baino lehen? Argi dago euskalkitik euskalkira aldeak badaudela sintagma mugatuen eta mugagabeen erabileran; eta argi dago aldakortasun hori hizkuntzaren historian ere antzeman daitekeela. Baina deskripzio diakroniko eta diatopiko zehatzak faltan ditugu. Tesi honetan, definitutasuna azterketaren muinetik bazter da, eta, hein horretan, bere irismentik kanpo geratzen da definitutasunaren adierazpen gramatikalaren bilakaera diakronikoa, baina, nolanahi ere, etorkizuneko berreraiketa sintaktiko berariazko horretarako ezinbesteko diratekeen datuak izango dira hemen sailkatu ditudanak.

#### 3.2.2.2 *Determinatzaile sintagmaren eztabaida*

Aurreko eztabaida diakronikoarekin estu lotuta daude determinatzaile sintagmaren (DS) izaera diakronikoaren inguruko zenbait eztabaida: artikulua definiturik ez duten hizkuntzetan, ba al dago DS proiektiorik? Galdera honen jiran hainbat artikulua biltzen dira Stark, Leiss eta Abrahamek editaturiko (2007b) liburuan, eta bi aukera nagusi proposatzen dira: (a) artikulua definiturik ez dagoen hizkuntzetan ere DS dagoela proposatu beharra dago, izenen estatus erreferenziala deribatuzko,<sup>170</sup> eta (b) DS proiektzioa artikulua definitua duten hizkuntzetan baizik ez dago. Lehen aukeraren adibide da serbokroaziera aztergai hartuta Progovacek (1998) proposatzen duena: izenondoak izenordainen ondotik agertzen dira baina izenen aurretik, eta ezaugarri honen bidetik argudiatzen du izenordainek D proiektzioaren pean behar dutela (izenek ez bezala); ondorioz, DS izan badela dio, nahiz eta hizkuntzan artikulua definiturik ez izan. Bigarren aukeraren adibide izango litzateke, bestalde, Boucherren lana (2005), zeinetan, frantsesaren lekukotasunik zaharrenak aintzat hartuta, esaten digun ezin bil daitekeela

<sup>170</sup> Gogoan har bitez, tradizio honetan, Chomskyren hitzak: “D may be the locus of what is loosely called ‘referentiality’” (1995: 240).

argudiorik horietan DS proiektiorik proposatzeko; jarraian, ondorengo garaietan DS nola garatu zen azaltzen du.<sup>171</sup>

Esanguratsua da, bestalde, lehenagoko zenbait lanetako izenburuetan “emergence of DP” edo “emergence of D-system” modukoak agertzea, iradokitzen baitu DS proiektzioa D-elementuen gramatikalizazioarekin batean agertzen dela, baita berau gertatu baino lehenago halako proiektiorik ez zela egongo ere; cf. bereziki Vincenten (1997) eta Osawaren (1998, 2007) lanak.

Ez dut eztabaida horretan sakondu: Stark, Leiss eta Abrahamek dioten bezala, “research for a finite list of indispensable functional categories inside nominals has not yielded a definite result shared by everyone” (2007a: 17), eta nire helburua ez da kategoria funtzional horien xehetasunen berri ematea. Euskal artikularen gaineko analisisiei dagokienez, Artiagoitiaren lana aipatu behar da, ezinbestean (1997, 1998, 2002, 2012);<sup>172</sup> determinatzaile sintagmaren hipotesiaren arabera analizatzen ditu euskal datuak.

### 3.2.3 Erakusleak eta artikulak bereizten: gramatikalizazioaren gradualtasuna

Greenbergen eta Himmelmannen bidez jasotako erakusleen ikuspegi diakronikoaren arabera, konbentzio hutsa da morfema jakin bat artikulatu definitu izendatzea, *continuum* diakroniko batean egiten dugun hautu metodologiko hutsa; ez dugu aurkituko hizkuntza bateko D-elementurik beste hizkuntza bateko D-elementu batek bezal-bezala jokatzeko duenik. *Continuum* horretan gertatzen diren aldaketak ez dira bat-batekoak; hortaz, zail gerta daiteke zer den zer erabakitzea maila sinkronikoan bereizten ditugun edo *a priori* metodologiko batzuen arabera (ik. goian Milsarken aipua) bereizi nahi ditugun kategoria gramatikal batzuen (erakusleen) eta besteen (artikuluen) artean. Honela adierazten du Haspelmathek (2011: 352), afixuen eta klitikoaren artean bereizteko ezintasunaz ari denean:

<sup>171</sup> Antzeko ikuspegia da Bauerrena (2007), hizkuntza indoeuoparretan definitutasuna determinazioa baino lehenagokoa dela argudiatu, eta definitutasuna gramatikaren beste osagai batzuetan (kasuan, aspektuan eta abarretan) islatzen dela gogora ekartzen baitu.

<sup>172</sup> Artiagoitiaren lanen garaikide, beste zenbait autorek ere hipotesi berarekin egin zuten lan; cf. Eguzkitzak (1997: 52, 10 oh.) egiten duen bereizketa: *zein soldadurekin* sintagman, *soldadu* DS gisa analizatzen du, eta, *soldadutzat* sintagman, IS gisa.

Viewing coalescence as an abrupt reanalysis from a syntactic pattern to a morphological pattern does not do justice to the full richness of the attested phenomena in grammaticalization.

Muga horren lausotasunaren adibide dira txineraren eta montagnais hizkuntza algonkiarraren deskripzioan izaniko arazoak, biak artikulurik gabeko hizkuntza moduan sailkatu ohi direnak: txinerari dagokionez, Huangek (1999) eta Chenek (2004: 1149-1156), besteren artean, iradokitzen dute txinerazko erakuslearen zenbait agerraldik artikulua definitu gisako erabilera dutela; honen arabera, pentsa liteke txinera artikulua definitua garatzen hasia dela. Montagnais hizkuntzaren adibidea, bestalde, are muturrekoagoa izan daiteke, Cyrrek (1993) dioenez, oso gramatikalizazio maila altuko D-elementua baitugu hizkuntza honetan: formaz berdin-berdinak direnez, zaila egiten da erakusleak eta artikulua bereiztea, eta oharkabean pasatu da izen sintagmaren aurretik ezartzen diren D-elementuak izatez artikulua direla eta erakusleak atzetik ezartzen direla.

Euskalaritzaren esparruan ongi ezarria dago artikulua definituaren kategoria deskripzio oinarrikoetan ere, eta ez dugu Cyrrek edo Huangek deskribatzen dituzten arazoen antzekorik. Arazoak *-a* D-elementuaren erabilera zabaldutik etorri ohi dira, analisi sinkronikoetan bere izaera atzitu nahi dugunean.

Himmelmannek (2001: 832-834) erakusleak eta artikulua bata bestetik bereizteko hainbat irizpide zerrendatzen ditu; morfosintaktikoen artean, honako hauek:

- (a) Artikuluak osagai gramatikalak dira, eta izen sintagmetan bakarrik agertzen dira.
- (b) Artikuluek sintagma horietan duten posizioa finkoa da.
- (c) Artikuluak ezinbestekoak dira testuinguru jakin batzuetan (cf. superlatiboak, besteak beste).
- (d) Maiztasun testuala ere irizpidetzat hartu izan da, D-elementu bat artikulua dela esateko.

Ikuspegi semantikotik: “[Articles] can be used in semantic and pragmatic contexts in which demonstratives cannot be used” (Himmelman 2001: 833). Erakusleak hizkuntza guztietan zein testuingurutan erabil daitezkeen zehazten saiatzen da, ondoren artikulua definituak bai baina erakusleak ezin erabil daitezkeen testuinguruak zein diren

zedarritzeko;<sup>173</sup> horrelako bi bereizten ditu:

- (a) Zabalduriko egoerazko erabilera (“larger situational use” jatorrizkoan). Erreferentea jakintza orokorraren bidetik identifikatzen da: cf. ing. *the sun, the Queen, the pub*, etab. Erakusleak ezin dira funtzio honetan erabili.
- (b) Erabilera asoziatibo-anaforikoa (“associative-anaphoric use” jatorrizkoan). Erreferente baten lehen aipamenerako D-elementua erabiltzen da, erreferente hori bakarra ez izanik ere: cf. ing. *The man drove past our house in a car. The exhaust fumes were terrible.*

Ikuspegi honen barrenean egin ohi den beste galdera bat honako hau da: batez ere zein testuingurutan (sintaktiko ala diskurtsibo) du erakusleak artikulak itzurako erabilera? Himmelmannen bidetik, De Mulderrek eta Carlierrek (2011: 530-531) erakusleen “recognitional use” ikusten dute aldaketaren gunean,<sup>174</sup> eta Seligek (1992: 166) aipaturiko latin berantiarreko honako adibidea dakarte, ingelesez azaldurik (1a):

- (1) *Hic sunt carctas de illi thellenio de illo mercatho.*
  - a. Here are the documents of the toll of *the* (lit. *that*) *market* (= of our market, of the well-known market organized on the day of the patron saint)

Diotenez, honek azaltzen du erakusleen artean artikulak bilakatzen dena erakusle urruna izatea, gainera, ez lehen (edo bigarren) gradukoa; erakusle urrunak, besteek ez bezala, diskurtso egoeratik kanpoko erreferenteak denota ditzake, hiztunaren eta entzulearen arteko ezagutza partekatu eta espezifikokoaren barreneko erreferenteak. Xehetasunetarako,

<sup>173</sup> Cyrrek (1993) “cross-linguistic quantification” delakoa darabil aztergai duen hizkuntzan, artikulak kategoria deskriba ote daitekeen zehazteko: funtsean, horren arabera, D-elementu baten erabilera artikulutzat jotzen badugu hizkuntza sorta jakin batean, zilegi da erabilera horiek dituen beste hizkuntza bateko D-elementua artikulak gisa sailkatzea. Ik. halaber Juvonenen lana (2000), aukera metodologiko beraren bidetik jotzen baitu artikulugabetzat jo ohi den hizkuntza bat aztertzeko, finlandiera.

<sup>174</sup> Gramatikalizazioari buruzko lanetan “highlighting effect” —erakuslea erabiliz izen sintagma bat nabarmendu dezake hiztunak—, “extravagance” eta “expressivity” moduko nozioak agertzen dira aldaketaren abiarazletzat (Haspelmath 1999); euskaraz *adierazkortasunaren hatsarrea* izenda genezake. Ik. Geurts (2000), kritika baterako; cf. halaber Waltereit (2012: 66), non ohartarazten zaigun gramatikalizazio sekundarioetan, *gramatikala* → *gramatikalagoa* bilakaeretan —D-elementuena horietakoa da, hain zuzen—, ez dela hain erraz proposatzen ahal adierazkortasunaren irizpidea, irizpide hau subjektibizaziozko prozesu baten ezaugarria den neurrian.

ikus De Mulder eta Carlier (2011: 527-528, 530-532).<sup>175</sup>

Himmelmannek aipaturiko irizpide horietaz gain, balio deiktikoaren galerarena funtsezkoa izan daiteke, erakusle batek erakusle izateari utzi ote dion erabakitzeke. Honela dio Diesselek: “[I]n the course of this development [D-elementuen gramatikalizazioaz ari da], demonstratives lose their deictic function and turn into formal markers of definiteness” (1999a: 129). Eta honela diote, berrikiago, De Mulderrek eta Carlierrek, erakusleetatik artikuluetarako bidean kritiko gerta daitezkeen testuinguruez: “[W]here the deictic meaning component or the demonstrative can weaken, yielding the shift from demonstrative to definite article” (2011: 526-527).

Analisi sinkronikoetan ere, deixia da erakusleak eta artikulua bereizteko erabiltzen den irizpideetako bat; honela dio Hawkinsek (1991: 414):

In general, pronouns and demonstrative expressions obey more restrictive pragmatic conditions and require *actual physical perception of entities* in the world or explicit textual mention of entities. [Etzana nirea]

Tesi honetan ez da nabarmen azaleratuko erakusleen eta artikuluen artean bereizteko beharra, eta arestiko eztabaida horiek —aldaketaren testuinguru eragilea eta abar—, interesgarri izanik ere, urruti geratzen dira euskararen egoera partikularretik: gaur egun -*a* artikulua hirugarren graduko erakusletik formalki bereizia dago, mendebaldean erakuslea eta artikulua itxuraz berdinak direla alde batera utzirik, jakina, eta zalantza gutxi dago kategoria bereziak direla.<sup>176</sup> Arazoak, eta bestelako irizpideen beharrak, hain gramatikalizatuak ez dauden lehen eta bigarren graduko erakusleetatik eratorritako artikuluekin izan ditzakegu.

Auzi honetan argigarria da De Mulderren eta Carlierren bereizketa: “[A]rticles

<sup>175</sup> Aldaketaren muinera jotzen duten bestelako galderak ere egin izan dira: zergatik sortzen da artikulua definitua? Kasu-markaketaren galerari (ik. Philippi 1997, hizk. germanikoez), komunztadura morfologiaren galerari (Boucher 2005; frantsesaren kasu eta numeroaz ari da) edo aditzaren aspektuaren gorabeherei (Leiss 2007) egotzi izan zaie artikulua definituaren kategoriaren agerrera, besteak beste. Ezin ahantz, jakina, hizkuntz ukipenaren bidezko azalpenak: Putzuk eta Ramatek (2001: 125-126, 128), adibidez, eragin semitikoaren aukera aipatzen dute Europa mendebaldeko zenbait hizkuntzaren artikuluen sorreran edo garapenean.

<sup>176</sup> Pluralean, dena den, formalki ezberdinak dira, mendebaldean ere, erakusleak eta artikulua: cf. -*ak* artikulua eta *æk* (aldaerak aldaera) erakuslea. Are singularrean ere, asimilazio eta epentesi bilakaerak kontuan hartzen baditugu, bereizi egiten dira hainbat kasutan, cf. *mendixe* eta *mendi a*; morfonologikoki ezberdinak dira sintagma artikuluduna eta erakusleduna.



can be characterized both semantically and morphosyntactically” (2011: 525); dimentsio semantikoa, diotenez, gramatikalizazio katearen lehen urratsetan da nagusi, baina testuinguru berrietara zabaltzearen gorabeherak dimentsio morfosintaktikoari dagozkio bereziki. Tesi honetan, *-a* artikulua erabilerari dagokion atala dimentsio morfosintaktiko honen barrenean kokatuko dut (ik. 3.2.4-3.2.5 atalak), hain zuzen ere; ez alferrik, esan bezala euskal artikulua ez baitago gramatikalizazioaren lehen urratsetan.

### 3.2.3.1 Gramatikalizazioaren gradualtasuna

Gogoan harturik erakusleen eta artikuluen arteko mugak *continuum* batean ezarritako fase edo aro metodologikoak baizik ez direla, interesgarria da Heineren gramatikalizazio katearen eredu hona ekartzea (2003: 589-590):<sup>177</sup>

According to this model, sketched in (6), the development of grammatical forms does not lead straight from the source meaning (or form) A to the target meaning (or form) B but invariably involves an intermediate stage where A and B coexist side by side, thereby creating a situation of ambiguity [...]: (6) A > A,B > B

Lehen kapituluaren adierazi bezala (1.1.7 atala), garai diakroniko ezberdinetako balioak ondoz ondoko egoera sinkronikoetan gainjarri edo teilakatzen dira.<sup>178</sup> Horren adibide moduan, Heinek alemanierazko *während* jartzen du: jatorrian denborazko juntagailu zenak bere erabilera esparrua zabaltzen du, eta egun kontzesio perpausetako menderagailu ere bada, jatorrizko adiera galdu gabe; hona Heineren adibideak (jatorrizkoan (5) zenbakipean):

(2) *Während er vor dem Fernseher sitzt, trinkt er Kaffee.*

a. Telebistaren aurrean dagoen bitartean, kafea edaten ari da.

<sup>177</sup> Heineren eredu honen garapenerako, cf., besteak beste, Diewalden eta Ferraresiren (2008) lana: horretan aro edo “stage” bakoitza testuinguru mota bat balitz moduan definitzen da; honek berriro uzten du agerian zein garrantzitsua den egiturak aintzat hartzea (ik. 3.1.2 atala). Bide horretan sakontzen dute beranduagoko lanetan, “constructionist scenario of grammaticalization” baten bidetik, eta ohartarazten, berriro ere, “A newly developing grammatical function [...] is bound in its origin to specific linguistic contexts or constructions” (Diewald eta Smirnova 2012: 111).

<sup>178</sup> Antzeko ideia biltzen da Hopperrek darabilen “layering” terminoaren atzean: “[W]ithin a broad functional domain, new layers are continually emerging. As this happens, the older layers are not necessarily discarded” (1991: 22). Honela berridazten du Heinek: “[L]ayering, whereby older layers of language use are not necessarily discarded when new layers emerge, but may remain to coexist and interact with the newer layers” (2003: 589; etzana nirea).

Heineren A aroaren adibide da (2)-ko perpausa, denborazko juntagailuaren interpretazio bakarrarekin. Ikus hurrengo adibidea:

- (3) *Während sie ihn um Hilfe bittet, bleibt er vor dem Fernseher sitzen.*  
 a. Laguntza eskatzen dion bitartean, telebistaren aurrean eserita geratzen da.  
 b. Nahiz eta laguntza eskatzen dion, telebistaren aurrean eserita geratzen da.

Bi modutan interpreta daiteke (3) perpauseko *während*, (3a) eta (3b) itzulpenek argitzen duten bezala. Erabilera horretan, *während* Heineren A,B aroan dago, bi esanahiak biltzen baititu. (4) adibidean, ordea, interpretazioa kontzesio perpausarena baizik ez da, eta *während*-ek jatorrian zuen denborazko balioa galdua du:

- (4) *Während sie gestern noch krank war, kann sie heute schon wieder lachen.*  
 a. Nahiz eta atzo gaixorik zegoen, gaur berriro barre egin dezake.

Egoera sinkronikoaren adibideak dira Heinerenak, baina bilakaera diakronikoaren erakusgarri. Tesi honen gaiari dagokion adibide bat jartzearen, hona italierazko hau (Kupisch eta Koops 2007: 191):

- (5) *Luca vuole farsi la macchina.*

Perpaus horretan, *la macchina* D-elementudun sintagmak bi interpretazio izan ditzake: batetik interpretazio definitua, non sintagmak hizketa jardunaren barrenean ezaguna den auto bati erreferentzia egiten dion, eta beste hizkuntza batzuetan artikulu definituaren bitartez itzuliko litzatekeen (cf. gazt. *el coche*, fr. *la voiture*, ing. *the car*); bestetik, interpretazio ez-espezifikoa, non sintagmak edozein autori egiten dion erreferentzia, eta beste hizkuntza batzuetan artikulu indefinituaren bitartez itzuliko litzatekeen (gazt. *un coche*, fr. *une voiture*, ing. *a car*). Esanguratsua da italierazko adibide hori, euskarazko -a D-elementudun sintagmek ere bi balio horiek izan baititzakete:

- (6) *Lukak autoa erosi nahi du.*

D-elementuen diakroniaz dakiguna aintzat hartuta, bi interpretazio horien artean ez-espezifikoak beranduagokoa izan behar du kronologikoki, ez baita erakusleek izan

dezaketen interpretazioa. Italiaren eta euskararen adibide honekin, beraz, argi dago garai diakroniko ezberdinetako ezaugarriak gainjartzen direla hizkuntza baten gramatika sinkronikoan. Egoki adierazten du Heinek: “The presence of such overlap stages suggests that grammaticalization chains cannot be described appropriately in terms of discrete categorization” (2003: 590).

Gradualtasun diakronikoaren eztabaida erro sakonekoa da, eta ondorioak ditu deskripzio zein analisi sinkronikoetarako ere. Auziak gaur egungo ikerketa-lerro nagusi moduan duen garrantziaren lekuko da 2010ean argitaraturiko “Gradience, Gradualness and Grammaticalization” izeneko liburua; hor, *gradualtasun* terminoa (“gradualness” jatorrizkoan) analisi diakronikoetarako bakarrik erabiltzea proposatzen dute, eta *gradientzia* (“gradience” jatorrizkoan) sinkronikoetarako. Heineren gogoetabide bertsutik, kategorien estatus diakronikoaz galdetzen dute (Traugott eta Trousdale 2010: 4):

[A] major focus of the volume is on gradience and categoriality [...] Valuable insights can nevertheless be gained by approaching a narrower question of how the different perspectives can enhance the understanding of grammaticalization, and hence of particular types of categoriality, specifically, the ‘status’ of categories diachronically.

Bariazio sinkronikoa eta aldaketa diakronikoa lotuta doazela ere gogorarazten da: “It has long been recognized that current variation is both the result of and the reason for change” (2010: 4). Liburu horretako Robertsen lana (2010) bien artean zubiak ezartzeko egiten den ahaleginaren adibide ona da: zenbait analisi sinkronikotako kategoria multzoak eta gramatikalizazioaz (hots, diakroniazko lanetatik datorren ezagutzaz, azken buruan) egindako formalizazioak bateratzeko saioa egiten du Robertsek.<sup>179</sup> Hala aitortzen dute editoreek: “[A] kind of consensus has emerged around the crucial role of micro-changes in diachronic and of gradience in synchronic accounts” (2010: 15).

Tesi honetan ez dut eztabaida horietan sakondu. Deskripzio historiko fidagarri eta

<sup>179</sup> Ik. Batllori et al. (2005), tradizio sortzailean gramatikalizazioa ulertzeko egindako saioez, bariozio parametrikoren bidetik bereziki. Cf. gainera Roberts eta Roussou (2003), minimalismotik egindako hurbilketa baterako; lan honen kritika baterako, cf. Klausenburger (2008). Gramatikalizazioaz eginiko hurbilketa funtzionalisten (tradiziozko ikuspegia) eta formalisten (sortzaileena, berriagoa) arteko aldeez, ik. Fischer (2007); maila orokorrago batean, cf. Haspelmathek (2000) Newmeyerren (1998) lanaz eginiko iruzkina (*chosmkyar funtzionalista* izendatzen du).

sendoetan oinarritu behar dira horrelako lanak, eta gradualtasun diakronikoa neurtzeko baliagarria izan daitekeen lanabes bat osatzea izan dut eginkizunik behinena; proposamen bat egin dut lanabes horretarako, ondoren corpus baten gaineko azterketa egiteko (ik. behean 3.2.5 atala).

### 3.2.4 Egituraz egiturako zabaltzea

Hainbat ikertzaile arduratu dira D-elementuen gramatikalizazioa aztertzeaz, zein bere ardurapeko hizkuntzan. Artikulua nola zabaldu den deskribatu dute askok, eta, horretarako, sailkapenak egin dituzte, eskuarki testuinguru sintaktikoen eta izen sintagmen izaera semantikoaren arabera. Hurrengo azpiataletan, lan horietan erabili izan diren irizpideak gainbegiratuko ditut, eta horrelako irizpideekin osatuko dut lanabesa, gero *-a* artikulua dimentsio sintaktikoaren datu historikoak biltzeko.

#### 3.2.4.1 Izen sintagmak perpausean duen funtzioaren arabera

Greenbergen orokortzeak (1978: 73), xehetasunetan zuzena izan zein ez, egoki adierazten du artikulua erabiltzea edo ez erabiltzea sintagmak perpausean duen funtzioaren menekoa dela (bere eskemako II. aroan dituen ezaugarriez ari da):

The subject case is, par excellence, the case which takes the article. Nominal and adjectival predication has to be considered separately. Here the subject is articulated, but the predicate often is not. However, as with the verb-object, there is the possibility of contrast roughly between permanent properties (articulated) and non-permanent (non-articulated). Proper names do not enter here.

Aipu honetan, Greenbergekin zenbait irizpide ematen ditu artikulua zabaltzea neurtzeko esanguratsuak izan daitezkeenak: batetik, izen sintagmek perpausean izan ditzaketen funtzio nagusiak aipatzen ditu (subjektu, objektu, predikatu...), eta, bestetik, izen berezietan ari denean, izen bakoitzaren izaera semantikoa garrantzitsua dela dio.

Ezinbestean aipatzekoa da gaztelania zaharraren gainean Companyk (1991) egindako lana, eredutzat hartu baitut tesi honetarako. Honela dio Companyk (1991: 403-404):

En este trabajo analizaré cómo y por qué se produjo la extensión del artículo y bajo qué circunstancias [...] Analizo estos dos tipos de FN [artikuludunak eta artikulugabeak] en tres funciones: sujeto, objeto y término de preposición en frases prepositivas (FPs) de función circunstancial [...]

Corpus bat aukeratzen du Companyk, eta corpus horretako testuetan aurki daitezkeen subjektu, objektu eta preposizio sintagma guztiak biltzen ditu,<sup>180</sup> eta artikuluekin edo artikulurik gabe agertzen diren zehaztu. Beste zenbait xehetasun ere aztertzen ditu Companyk, hala nola hitz ordenaren gorabeherak, edo beherago aipatzen ditudan izenaren izaera semantikoarenak, baina, oro har, esan daiteke Companyren hurbilketaren abiapuntua morfosintaktikoa dela: morfema jakin baten agerrera eta hedatzearen nondik norakoa neurtzeko, funtzio edo posizio sintaktikoaren arabera edo izen sintagmen sailkapenik behinena, argi baitago aldagai horrek artikulua erabiltzea baldintzatzen duela.

Tesi honetan Companyren lanaren bidetik jo badut ere, merezi du beste azterbide baten berri ematea: Huangek (1999), txineraz artikulua definiturik dagoen ala ez erabakitzeke, ahozko corpus bateko erakusle guztiak biltzen ditu; azterketarako, txinerazko erakusleek izan ditzaketen erabilerak edo funtzioak zerrendatzen hasten da, eta corpuseko erakusle bakoitza horien arabera sailkatzen du.<sup>181</sup> Azken buruan, bere asmoa da zehaztea corpuseko erakusle horietako batzuek erakusleen funtzio prototipikoez bestelako erabilerarik ote duten, hots, artikuluek dituzten funtzioen antzeko erabilerarik ba ote duten (ik. 3.2.3, erakusleak artikuluetarik bereizten dituzten irizpideetarako). Erakusle horiek perpausean dituzten funtzioak (subjektu, objektu) aintzat hartzen baditu ere, erakusleen funtzioen arabera azterketa da berea, eta datu-basean ez dago erakuslerik edo D-elementurik gabeko sintagmarik; hots, sintagma mugagabeak azterketatik kanpo geratzen dira.

Companyk eta Huangek ez dituzte helburu berak: lehenak artikulua hedatzea aztertu nahi du, eta bigarrenak erakusleen zenbait agerraldik artikulua definituen moduko erabilerarik ote duten; helburuetan dagoen alde horrek dakar corpusetako informazioa ezberdin aztertzea. Tesi honetan, esan bezala, Companyren azterketa moduaren bidetik jo dut, eta, hala berean, aintzat hartuko ditut, besteren artean, Greenbergekin aipatzen dituen izen eta izenondo predikatuak; adposizio sintagmetan artikulua erabileran

---

<sup>180</sup> Zenbait murriztapen ezartzen ditu bilketa honetan: izen bereziak, bokatiak, etab. baztertzen ditu bere bilketan; xehetasun eta arrazoiarako, ik. Company (1991: 403, 3 oh.).

<sup>181</sup> Juvonenek, helburu bertsua baitu —“Is there a definite article in spoken Finnish?” (2000: 26) galdetzen du—, antzeko azterketa-modua egiten du egungo suomierarekin.

aurki daitekeen aldakortasunari dagokionez, ik. 3.1.3 atala.

#### 3.2.4.2 Artikuluaren hedapena azaltzeko irizpide pragmatiko-semanticokak

Tesi honetan, Himmelmannen D-elementuen gramatikalizazioaren ikuspegia hartu dut, eta, *-a* D-elementuaren hedapena neurtzeko, Companyren lana izan dut eredu. Hurbilketa modu honetan, bigarren maila batean geratzen da definitutasunaren nozioa, gorago esan bezala (3.2.2 atala); badira, hala ere, definitutasuna aztergune duten lanetan, D-elementuen zabaltzea ulertzen lagundu dezaketen orokortzeak; horietako zenbaiten berri emango dut, laburki, Masicaren lana (1986) hizpide hartuta.

Asia hegoaldeko hizkuntzetan definitutasuna nola markatzen den aztertzen du Masicak (1986). Perpauseko funtzio bakoitzari dagokion “berezko” definitutasun-estatusaz mintzo da (1986: 136-137); honela laburbil daiteke dioena:

- (a) Subjektuek joera handia dute informazio zahar eta ezaguna irudikatzeko eta, ondorioz, erreferentzia definitua duten izen sintagmez osatuak izateko.<sup>182</sup>
- (b) Perpaus existentzialetako subjektuek, ordea, informazio berria aurkezten dute, eta berez dira indefinitu. Cf. ing. *there is a worm in my apple*.
- (c) Zehar objektuek, sintagma lokatibo eta genitiboek eta, oro har, akusatiboaz besteko zehar kasuetan dauden sintagmek definitu izateko joera dute; ing. *to the landlord* arruntagoa da *to a landlord* baino; *in the house* arruntagoa da *in a house* baino, etab.
- (d) Objektu zuzenek (ik. goian) joera dute indefinitu izateko; Masicaren arabera, *I bought a sweater* arruntagoa da, ziur aski, *I bought the sweater* baino.
- (e) Predikatu nominalek joera dute generiko izateko: *he is a professor* arruntagoa da *he is the professor* baino.
- (f) Izen bereziak berez dira definitu (ik. 3.2.4.1 atalean Greenbergen aipua).
- (g) Edutezko sintagma izenordaindunek interpretazio definiturako joera dute.
- (h) Sintagma zenbatzailedunek interpretazio indefiniturako joera dute.

<sup>182</sup> Masicaren eredu semantikoak bestelakoa da, eta, *grosso modo*, “identified specific” terminoa darabil mendebaldeko tradizioan interpretazio definitutzat jotzen duguna adierazteko, eta “unidentified specific” interpretazio indefiniturako. Nolanahi ere, gogoan har bedi Milsarkek mendebaldeko tradizioak ezarritako ikuspegiak eginiko oharra (3.2.2 atala).

Funtzio hauetako bakoitzean antzeman daitezkeen joera orokor hauen arabera, eta markatutasunaren hatsarre bati jarraiki,<sup>183</sup> Masicak hauxe iradokitzen du: morfologikoki markatuak izango dira dauden posizio sintaktikoaren “berezko” definitutasun-estatusaren aurkako interpretazioa duten izen sintagmak, edo, bestela esanda, funtzio bakoitzari “berez” dagokion interpretazio nagusitik aldentzen diren interpretazioek aukera gehiago dute morfologikoki markatuak diren sintagmekin adieraziak izateko; adibidez, *my friend* ez da *a friend of mine* bezain markatua, etab.

Beste hainbat lanetan ere topa daitezke Masicaren orokortze hauek; hona Givónek (1978: 306) zer dioen objektu posizioan dauden izen sintagmen markatze morfologikoaz:

The development of a special marker for definite accusative is of course not surprising. The accusative position is the ‘most indefinite’ of all major arguments of the verb, in contrast with the subject and dative which are overwhelmingly definite

Bada, hala ere, aipatu beharreko kontu bat: orokortze bera erabili izan da tasun gramatikalen adierazpen morfologikoetan deskriba daitezkeen aurkako joerak azaltzeko. Honen adibide dira arestian aipaturiko Companyren eta Huangen lanak. Companyren corpusetik nabarmen ageri da artikulua subjektu funtzioko izen sintagmetan erabiltzen dela batez ere; Companyk (1991: 416-417) Masicaren subjektuen definitutasun-estatusari buruzko ideia bera errepikatzen du:

Las FNs sujeto suelen ser referenciales definidas y, por lo general, información ya presentada en el texto o información mutuamente conocida por hablante y oyente, especialmente cuando coinciden los rasgos de humano y agente. Esta característica de los sujetos ha sido señalada por la mayoría de estudios tipológicos para un gran número de lenguas.

Baina, Masicaren markatutasunaren irizpidearen aurka, artikulua hedapena subjektu funtziotik abiatu zela azaltzeko erabiltzen du orokortze hau (Company 1991: 418):

[L]a función de sujeto disparó la propagación porque en ésta el artículo asignó carácter referencial y definido a estos sustantivos y así el comportamiento gramatical coincidía con la expectativa del hablante antes apuntada en la interpretación preferencial de sujetos.

Companyren azalbide honek bat egiten du Greenbergen oharrarekin (cf. goian “The subject case is, par excellence, the case which takes the article”), eta Stark, Leiss eta

<sup>183</sup> Ik. *markatutasunaren* nozioa (“markedness” ingelesez) bertan behera uzteko Haspelmathek (2006) egiten duen saioa.

Abrahamen hitzekin ere: “[T]he definite article in Latin/Romance is attested to emerge primarily in combination with (topicalized) subjects” (2007a: 17). Baina autore hauek berek gogorarazten dute Seligek (1992) aipuko ikuspegi horren aurka egiten duela, oinarri enpiriko sendoekin, eta Masicaren ikuspegi orokorrari ere ez zaizkio egokitzen Companyren datuak.

Alderantzizko egoera dugu Huangek txinerazko artikuluaen sorrerari buruz emandako datuetan: badirudi objektu posiziotik abiatu dela artikuluaen garapena. Hona zer dioen Huangek (1999: 91):

The emergence of the distal *nage* as a grammaticized definite article is related to and probably has originated from its use as an introducer of familiar (but unused and thus new) objects into conversation which are considered by the speaker to be identifiable to the addressee (see Laury, 1994, for a similar observation)

[...]

NPs that introduce familiar (but new) objects of topical significance into a discourse typically occur in the object position where the NP is least likely to be identifiable based on its grammatical role (Huang and Chui, 1997).

Huangen datuek eta analisiak bat egiten dute Masicaren eta Givónen azalbideekin (cf. arestiko “The development of a special marker for definite accusative is of course not surprising”),<sup>184</sup> baina ez, ezinbestean, Greenbergenekin eta Companyrenekin. Badirudi, honenbestez, definitutasun-estatusari dagokion joera orokor bera erabil daitekeela norabide ezberdineko gauzatze morfologikoak azaltzeko. DuBoisek, beste gai batez ari bada ere, zenbait analisisik izan dezaketen erru honen berri ematen du (1985: 353):

Volumes of so-called functionalism are filled with ingenious appeals to perception, cognition or other system-external functional domains, which are used to ‘explain’ why the language in question simply has to have a grammatical particularity that it does — when a moment’s further reflection would show that another well-known language, or even just the next dialect down the road, has a grammatical structure diametrically opposed in the relevant parameter.

Ikusi bezala, kontraesanak egon daitezke “berezko” definitutasun-estatusari dagozkion joera horiek aintzat hartuta egiten diren analisisetan, baina, xehetasunak xehetasun, argi dago garrantzizkoa dela sintagma bakoitzak betetzen duen funtzio sintaktikoa zehaztea, alde zuzeneko lan moduan, D-elementuen erabilera nola hedatzen den deskribatu eta

<sup>184</sup> Orobat islandiera zaharreko datuekin (Leiss 2007: 97). Masicak bezala, markatutasunaren irizpidea erabiltzen du hori azaltzeko: “[T]he fact that the rise of the definite article in Old Icelandic started out in the rhema the reason being that a functionally definite rhema is expected to be marked by a definite article in order to block the indefinite reading presupposed by rhematic objects” (Stark et al. 2007b: 9).



neurtu nahi badugu. Oinarrizko deskribapen lan horren hasikina eskaintzen du tesi honek.

Funtzio sintaktikoek izen sintagmen interpretazioan ezartzen dituzten aprioriko joera horietaz gain, beste puntu nagusi bat ere aipatu beharra dago: berebiziko garrantzia du izen sintagmaren guneko izenak zer izaera semantiko duen D-elementuen hedapena neurtzeko orduan. Honetan ere Companyren lana (1991) adibide ona da, bere gaztelaniazko corpusaren gainean emaitza zehatzak ematen baititu; hierarkia jakin bat ezartzen du, izenaren izaera semantikoaren arabera, eta D-elementuaren erabilera lehenik eta azkenik zein izen motara hedatzen den zehazten du:

- (a) Izen konkretuak (arrunt zenbakarriak) artikuluekin agertzen dira oro har, izen sintagma mugatuetan (Company 1991: 406):<sup>185</sup> *el yelmo, la lança, en el vaso, la espada*, etab.; ohar bedi hauetako batzuk objektu posizioan edo preposizio sintagma baten barrenean egonik ere artikuluekin agertzen direla.
- (b) Izen abstraktuak, masa izenak,<sup>186</sup> erreferentzia bakarrekoak eta generikoak izen sintagma mugagabe zein mugatuen gune izan daitezke, oro har (Company 1991: 407-410). Hauen artean, gainera, kronologia erlatiboa ezartzen du, zehaztuz zeinetan zabaldu zen lehenen artikuluen erabilera, eta zeinetan azkenen (Company 1991: 405):
  - (i) Izen generikoetan orokortu zen, lehenik, artikulua (*moros, castellanos*, etab.); XIII. menderako zabalitze hau burutua dago.
  - (ii) Erreferentzia bakarreko izenetan orokortu zen ondoren, XIV. mendeko bigarren zatian (*parayso, Santa Escripura, infierno*, etab.).
  - (iii) Izen zenbakaitz eta abstratuetara zabalitze hasi zen artikulua XV. mendean, gaur ere martxan den prozesuan.

---

<sup>185</sup> Izen sintagma perpausean duen funtzioaren aldagaia jokoan sartzen badugu, ikus daiteke izen konkretuen artean subjektu posizioak direla bereziki artikulua daramatenak; objektu posizioan eta preposizio sintagmetan, izenak, konkretu izanik ere, artikulurik gabe agertzeko aukera du. Orobat gerta daiteke sintagmaren gunean dagoen izenaren numeroa plurala baldin bada.

<sup>186</sup> Izendapen honi eutsiko diot, gazt. *nombre de masa* edo ing. *mass noun* deituren erabilera zabalari erreparatuta; izen zenbakaitz gisa ere sailka daitezke, xehetasunak xehetasun, (a)-ko zenbakarrien ondoan.

Garbi ondorioztatzen du Companyk: “El comportamiento gramatical de estos sustantivos es, por lo tanto, reflejo de sus peculiaridades semánticas” (1991: 401). Hemen Companyren lanaren berri eman badut ere, beste hainbat hizkuntzaren gainean eginiko lanetan ere ondorio bertsuak atera izan dira: cf. malterari buruzko Planken eta Moravcsiken lana (1996);<sup>187</sup> hizkuntza germaniko zaharrei dagokienez, Philippien lana (1997); hizkuntza algonkiarretan, Cyr (1993),<sup>188</sup> eta abar.

### 3.2.5 Artikuluaren erabilera deskribatzeko lanabesa

Aurreko atalean (3.2.4.2), artikulua erabileraren hedatzea ulertzeko erabili ohi diren joera eta orokortze zenbaiten berri eman dut: perpauseko funtzioen arabera izen sintagmek izan ohi duten definitutasun-estatusarena, batetik, eta izen sintagmen izaera semantikoarena, bestetik. Joera eta orokortze horiek, alabaina, datuak azaltzeko eta analizatzeko erabili ohi dira, datuak eurak bildutakoan. Euskalaritzaren esparruan, datu horiek ez dira sistematikoki bildu (2.6.1 atala), eta oraindik egiteko dago oinarritzko deskripzio-lan integrala; eginkizun horretarako oinarriak jartzeko asmoz, 3.2.4.1 atalean esan bezala, Companyk harturiko bideari segituko diot.

Lan honetako corpusa (ik. 3.4 atala) aztertzeo zer-nolako lanabesa taxutu dudan aurkeztu baino lehen, baliagarria izan daiteke Masicaren aipu bat hona ekartzea; aipu honetan, izen sintagmen definitutasun-estatusa nola markatzen den neurtzeko sei jarraibide nagusi proposatzen ditu (1986: 140, 13 oh.):

In order to conduct such surveys so that the results may be compared, we need a uniform matrix for classifying all nouns in texts. I have indicated the necessary components of such a matrix: 1) the discourse status of the noun: 2) the sentence function (grammatical status) of the noun: 3) the markedness relation between the two preceding, derived from the theory as discussed: 4) further semantic properties (personal/nonpersonal: animate/inanimate): 5) presence or absence of overt marking: 6) the particular marking device used. What remains is to suggest some notational symbols for the variables under each of the above, and to illustrate with a short passage how to

<sup>187</sup> Plankek eta Moravcsiketik lanak (1996: 207-208) artikulua agerrerarentzako Companyk emandako hierarkiak ematen dituzte. Moravcsiki (1969) jarraiki, izenen zenbakarritasunak eta honekin loturik dauden biziduntasunak eta indibidualtasunak artikulua erabilera erabakitzen dutela diote, eta gogorarazten dute hierarkia horretan behera egin ahala (substantzia eta nozio abstraktuak adierazten dituzten izenetara) artikulua erabilerak ere behera egiten duela.

<sup>188</sup> Hona Cyren hitzak: “The NPs are classified by semantic status and the semantic categories that were more likely to prompt the occurrence or the non-occurrence of definite articles” (1993: 209), nahiz eta horren barrenean ez duen bereizten izen sintagmak agertzen diren egituren eta izen sintagmen izaera semantikoaren artean.

apply the matrix to a text. Although this was done in one version of this paper and appended at this point, we omit this section here due to lack of space.

Programa oso bat zirriborratzen du Masicak ohar horretan, corpus jakin baten gaineko izen sintagma guztien ezaugarri erreferentzialen eta horien kodetze morfologikoaren azterketa egiteko gakoak emanaz. Aurreko ataletan aipatu ditudan zenbait puntu ageri dira bere jarraibideetan: (2) puntuan, izen sintagmak beren posizio sintaktikoaren arabera sailkatzeko beharraz mintzo da (3.2.4.1); (3)-an, perpausean duen funtzioaren arabera izen sintagmari “berez” legokiokkeen definitutasun-estatusa zehaztu beharra proposatzen du; eta (4)-an, izenaren izaera semantikoaren arabera sailkapenaren beharraz (3.2.4.2); (5-6) puntuetan, definitutasun-estatusaren gauzatze morfologikoa zein den zehaztu beharraz ari da.

Masicak dakarren egitasmo orokor hori azken helburu moduan desiragarria bada ere, tesi honetako eginkizuna xumeagoa da, eta parte batez bestelakoa, gure beharretara egokitua: Masicaren abiapuntua, (1)-en dakarrena, corpuseko izen sintagma bakoitzaren izaera erreferentziala zein den zehaztean datza; tesi honetan, ordea, bere (2) puntua izango da abiapuntua, Companyren jardunari jarraiki 3.2.4 atalean zehaztu dudana bezala. Zenbait arrazoi ere eman daitezke aukera metodologiko honen alde:

- (a) Corpuseko izen sintagmak biltzeko oinarri objektiboagoa ematen du funtzio sintaktikoaren arabera sailkatzeko, ezen ez izen sintagmak duen interpretazioaren arabera sailkapenak. Izen sintagma bakoitzaren interpretazio erreferentziala edo, Masicak dioen bezala, *definitutasun-estatusa*, anbigua izan daiteke maiz; ez, ordea, berori zein funtzio sintaktikotan dagoen erabakitzea; gainera, arrisku handiagoa dago sailkapenaren emaitzak hautu teorikoen menpe egoteko. Ikus zer dioten Stark, Leiss eta Abrahamek (2007a: 1):

One first major point in all this work indicated above [izen determinazioaz azken hamarkadetan egindako lanez ari dira] is that it has led to many competing conceptions of *nominal determination* and *definiteness/indefiniteness/bare nominals*. Notice, however, that definitions tend to overgeneralize. This can lead directly to erroneously mapping properties and indispensable characteristics of modern determination systems onto older language stages.

- (b) Masica definitutasunaren noziotik abiatzen da, baina tesi honetan helburua *-a* D-elementuaren erabilera deskribatzea da, ez gramatika jakin baten

erreferentzialitate sistema osoaren berri ematea; helburua definitutasunaren adierazpen morfologikoetako baten gorabeherak neurtzean den neurrian, egokiagotzat dut D-elementu bakoitza agertzen den testuinguru sintaktikoaren arabera sailkatzea. Ik., berriro, Stark, Leiss eta Abrahamek diotena (2007a: 1):

It is therefore methodologically indispensable to distinguish between functional categories like 'determination' or '(in-)definiteness' and their different forms (overt expressions) in different languages and diachronic states.

- (c) Sailkapen ustez objektibo horretatik sorturiko datuak, jakina, joera, irizpide eta orokortze semantikoaren arabera analizatu ahal izango dira, Masicaren (1, 3, 4) puntuak bazter utzi gabe.
- (d) Maila praktikoan, testuinguru sintaktikoaren irizpideak aukera ematen du corpus zabalak aztertzeko. Corpusak osatzea oinarrizko lana da, Trousdale eta Traugotten arabera: "A methodological issue raised in a number of the articles suggests that corpora are essential for understanding change in general, and grammaticalization in particular" (2010: 12). Irizpide metodologiko honen praktikaren adibide da, besteak beste, Diewalden eta Ferraresiren lana (2008) alemanierazko partikula modalen gramatikalizazioari buruz, zeinak bibliografian ere corpusari eskainitako atal bereizia duen. Hilpertek ere (2013a) corpusen balioaz ohartarazten du, edozein dela ere eredu teorikoa.

Azterketa modu honetan, ikuspegi morfosintaktikoa erabiliko dut funtsean (ik. goian, 3.2.3), eta ez hainbeste semantikoa; hortaz, azken helburutik hurbilago dago, hau da, sintaxi diakroniko baten esparrutik hurbilago dago. Honela dio Companyk berak, bere helburuez ari dela: "[E]ste trabajo pretende esencialmente analizar la evolución de una parte de la sintaxis del español" (1991: 421). Helburu eta eginkizun horietan, euskara aztergai hartuta egin beharreko lana iragartzeko balioa dute Masicaren hitzek (1986: 142):

It is, especially because of such cases [artikulu indefinituaren erabileraren hedapenez ari da] that we need both extensive textual studies and native speaker judgments. We need textual studies both to turn up a large sample of usage and to establish the frequency of optional usages in each environment.

Etorkizunean, jakina, euskalaritzaren eginkizunetako bat izan beharko litzateke ongi

deskribatzea zein den autore bakoitzaren —edo, testuak laburrak direnean, ahal den neurrian hizkera bakoitzaren— gramatikaren erreferentzialitate sistema. Baina, horretarako, oraindik datuak hobeki ezagutu behar ditugu; tarteko eginkizun apalago horretan kokatzen da tesi honek eskaintzen duena.

*3.2.5.1 D-elementuen hedapena neurtzeko esanguratsuak diren testuinguru sintaktikoak*  
Subjektu eta objektu posizioetako eta sintagma preposizioaletako izen sintagmak biltzen ditu Companyk. Tesi honetan, bere aztergaia zabalduko dut, eta euskal artikulua definituaren hedapenean esanguratsutzat jo izan diren edo esanguratsuak izan daitezkeen testuinguru sintaktiko gehiago sartuko ditut lanabeseko zerrendan.<sup>189</sup> Azken batean, lanabes hau ulertu behar da lematizazio morfosintaktiko moduko bat egiten hasteko tresna moduan. Testuinguruen zerrenda hau da horren hasikina:

1. Bokatiboak edo epitetoak
2. Harridura perpausak
3. Genitiboko izenlaguna duten sintagmak
4. Perpaus existentzialak
5. Perpaus predikatiboak
  - 5.1. Egitura kopulatiboak *izan* eta *egon* aditzekin
    - 5.1.1. Perpaus ekuatiboak
    - 5.1.2. Perpaus predikatiboak
      - Izenondo sintagmak
      - Predikatua konparatibo edo gehiegitasun afixuarekin
      - Izen + izenondo sintagmak
      - Izen sintagmak
      - Partizipio adberbialak: *-rik*, *-ta*, *-a*
      - Partitibo hutsak (*pozik*, *isilik*...)
      - Egitura erresultatiboak/estatiboak

<sup>189</sup> Predikatuen sailkapenerako *A Grammar of Basque* liburukoari segitu diot, batez ere (Zabala 2003).

- Predikatua superlatiboarekin / genitiboarekin
- Predikatua jatorri genitiboarekin
- Predikatua jatorri atzizkiarekin
- Predikatu nominalak konplementu klausalekin (*argi dago...*, *zilegi da...*)
- Egoera psikologikoa edo fisikoak: *beldur*, *ikara*, *gose*, *egarri*, *lotsa*, *haserre*, *izerdi*, *hotz*, *bero*, *etab.*

5.2. Iritzi aditzak konplementu predikatiboekin (*irudi*, *eman*; *iritzi*)

5.3. Aditz ebentiboak konplementu predikatiboekin (*ibili*, *azaldu/agertu*, *gertatu/suertatu*)

5.4. Aldaketa eta iraupen aditzak (*jarri*, *ipini*, *geratu*, *gelditu*, *utzi*; *bilakatu*, *bihurtu*; *hautatu*, *izendatu*, *sartu*, *joan*)

5.5. Predikatu sekundarioak

5.6. Egitura bereziak

5.6.1. "Pasiboa"

5.6.2. Antipasiboa

5.6.3. Objektu edo predikatu bikoitzeko egiturak

-Izenondoarekin: *Dirua beharrezkoa zaio* edo *Zapata horiek handiak ditu*

-Izenarekin: *Paulok Mikel anaia du* edo *Izar argiok ditugu kandela*

6. Subjektuak

6.1. Perpaus iragankorretakoak

6.2. Perpaus iragangaitzetakoak

7. Perpaus iragankorretako objektuak

8. Aditz arinetako objektuak

8.1. X + egin: *hitz egin*

8.2. X + hartu: *lo hartu*

8.3. X + \*edun: *atsegin izan*

8.4. Bestelakoak: *hotz egin*, *bero egin...*

Testuinguru sintaktiko nagusi hauen arabera sailkatu ditut corpuseko testuetako

perpausak. Hurrengo bi azpiataletan bilketa lan horretan aintzat harturiko beste zenbait testuinguru edo morfema jakinen zerrenda emango dut.

### 3.2.5.2 *Euskal artikulua indefinitua eta partitiboa*

2.6.6 atalean aurreratu bezala, euskal artikulua definituarekin lotura etimologikorik ez duten beste bi osagai gramatikalen agerraldiak ere bilduko ditut: *-rik* partitiboarenak eta artikulua indefinitu gisa ager daitekeen *bat* zenbatzailearenak. Tesi honek D-elementuak ditu aztergai, batez ere, eta, alde horretatik, azterketa morfologiko hertsitik kanpo geratzen dira erakusle jatorria ez duten *-rik* eta *bat*. Aukera honen alde egon daiteke Himmelmannek dioena (2001: 838):

It is common to think of definite and indefinite articles as a ‘natural pair’, i.e. as occurring together in one morphosyntactic paradigm. Crosslinguistically, however, this is the exception rather than the rule (see Moravcsik 1969: 85-89). There are many languages with definite articles lacking indefinite articles (classical Greek, the Celtic languages, Bulgarian, many modern Arabic dialects, etc.). Conversely, there are a few languages with indefinite articles but no definite articles (e. g., Persian, Sinhala). And even if both a definite and an indefinite article are found in a particular language, they do not necessarily exhibit similar morphosyntactic characteristics. In several languages, for example, one article precedes the noun, the other follows it (e. g., Classical Arabic, North Germanic languages).

Moravcsikek berak ere esaten du artikulua definituak eta artikulua indefinituak kategoria ezberdinetako osagaiak diruditelako: “[A]rticles prove to be independent entities when compared with each other” (1969: 87).

Horien azterketan sakonduko ez badut ere, nire ustez, erraz justifika daiteke osagai horiek ere aintzat hartzea, bilketarako baino ez bada ere, *-a* artikularen dimentsio sintaktikoa aztertzeke orduan: *-a* D-elementuarekin banaketa osagarrian egon daitezkeen osagai nagusiak direlako; hartara, D-elementurik gabeko sintagma mugagabeak biltzea bezain zilegi da horiek ere biltzea.<sup>190</sup> Are agerikoagoa da zilegitasun hori, euskal gramatiketan “zenbaitetan *bat* zenbatzailea artikularekin truka daiteke” (*EGLU-I* 101) moduko oharrak aurki daitezkeela ikusita. Orobatsu gertatzen da partitiboarekin: Euskaltzaindiaren gramatikak (*EGLU-I* 278), adibidez, partitiboaren

<sup>190</sup> Berriki argitaraturiko lan batean, sintagma mugagabeak eurak aztergaiaren jomugan jartzeko beharra aldarrikatu da, determinatzaileei eskainitako lanen uztarpetik harago: “This book envisions the study of bare noun phrases as a field of research in its own right rather than an accessory matter in the wider domain of nominal determination” (Kabatek eta Wall 2013atzeko azalean).

erabileraren berri emateko *gizona ez da etorri* eta *gizonik ez da etorri* moduko bikoteak dakartza; Etxeberriaren (2010) lanean ere izenburuan bertan ageri da partitiboa, *-a* eta *-ak* artikuluen ondoan. Euskal ikasketetatik kanpo, berriz, Goyensen lana aipa daiteke (1994); frantsesaren izen sintagmaren bilakaera diakronikoa aztertzen du, eta bere aztergaiak hauek dira: “l’actualisation de degré zéro”, “l’actualisateur *un*”, “l’actualisateur défini *le*”, “actualisateur démonstratif” eta are “actualisateur possessif”.

#### 3.2.5.2.1 Artikulu indefinituen gramatikalizazioa

Tesi honetako gaia ez bada ere, merezi du zenbait ohar egitea artikuluen indefinituen garapenez, gramatikalizazioari buruzko lanetan adibide tipikoa baita artikuluen indefinituarena ere (Heine eta Kuteva 2002: 220-221); hizkuntza jakinen gaineko azterketen adibide gisa, cf. berriki gaztelaniarako Pozas (2012) eta txinerarako Liu (2010).

Artikulu definituen sorburu tipikoena erakusleak diren bezala, hizkuntz arteko datuek argi erakusten dute artikuluen indefinitu deiturikoen jatorri nagusia ‘bat’ zenbatzailea izan ohi dela; halaxe da euskaraz ere.

Artikulu definituarekin bezala, “[T]he evolution from lexical to grammatical structure is not discontinuous but proceeds gradually” dio Heinek (1997: 71). Diakronia osatzen duten egoera sinkroniko bakoitzean artikuluen indefinituaren hedadura neur daiteke, eta horren arabera maila deskriptiboan egoki suerta daitezkeen garaietan bana daiteke bilakabidea. Kasu honetan ere, garai hauek idealizazio metodologikoa bazik ez dira. Heinek bost garitako eredu bat proposatzen du artikuluen indefinituaren bilakaera diakronikorako: *zenbatzaile* → *aurkeztaille markatzaile* → *espezifikotasun markatzaile* → *ez-espezifikotasun markatzaile* → *artikulu orokortua*.

Heineren lanera jo daiteke garai horietako xehetasunen zerrendarako (1997: 71-76); halere, beharrezkoa da gogora ekartzea bosgarren garaiaren ezaugarrietako bat: Heinek dio “the use of the article is no longer restricted to singular nouns but is extended to plural and mass nouns, as in the following example from Spanish” (1997: 73). Gaztelaniazko *uno/una* pluralean erabil daitezkeela agertzen du ondoren. 2.6.6 atalean esan bezala, euskaraz ere, *bat* singularrekoaren ondoan, *batzu-*, *banek*, *banak*



pluraleko formak ditu.

Ageri denez, artikulak indefinituaren erabilera neurtzeko artikulak definituari buruzko lanetan erabilitako zenbait aldagai errepikatzen dira, hala nola sintagmako izenaren izaera semantikoa, Heineren aipuan. Honek are gehiago uzten du agerian artikulak indefinituak ere lanabes beraren barruan sailkatzeko zilegitasuna.

#### 3.2.5.2.2 *Artikulu definituei eta indefinituei buruzko zenbait orokortze tipologiko*

Artikulu indefinituen bilakabide diakroniko ezagun honen berri emateaz landa, bada egin beharreko zenbait ohar, artikulak definitu eta indefinituen artean gertatzen diren inplikazio harremanez, zeinak hainbat hizkuntzatarako datuei begira azaleratzen diren eta orokortze gisa eman daitezkeen: batetik, hizkuntzetan lehenago garatzen dira artikulak definituak indefinituak baino, hainbat lanen arabera; beraz, hizkuntza gehiago daude munduan artikulak definitua bai baina indefinitua ez dutenak, alderantzizkoa baino. Hala orokortzen du Heinek ideia hau: “If a language has a grammaticalized indefinite article, it is likely to also have a definite article, while the reverse does not necessarily hold true. Thus, the presence of an indefinite article is likely to be accompanied by that of a definite article, but not vice versa” (1997: 69).

Idea honi lotuta dago, beharbada, tipologia arealak artikulak indefinituez dioskuna; halaxe dio Heinek (1997: 79):

Thus, one might expect with a certain degree of probability that a given language will have an indefinite article if the neighboring language or languages also have one. The older Germanic languages did not have a definite or indefinite article, in much the same way as the ancestor of the modern Romance languages did not. On the other hand, most modern European languages across genetic boundaries have both kinds of article.

Azkenik, arestian aipaturiko datu bati dagokionez, aipagarria da ez dela arrunta izen pluraletan zenbatzaitetik eratortzen den artikulua erabiltzea (gazt. *unos/unas*, eusk. *bat/batzuk*). Hizkuntzek, normalean, bestelako estrategiak darabiltzate pluraleko izenatarako (Heine 1997: 77, Himmelmann 2001: 838). Orokortze hauek gurera ekarriz, deigarria da area jakin batean halako artikulak pluralak izatea, are genetikoki lotuak ez diren hizkuntzetan ere.

Orokortze hauek berriro uzten dute agerian artikulak definituak maiz aztertu ohi

direla artikulua indefinituarekin batera, baita tipologiazko lanetan ere.

### 3.2.5.3 Lanabesa osatzeko aintzat harturiko beste zenbait datu mota

Atal honetan, bilketa lanean berariaz bildu diren beste morfema eta esapide mota zenbaiten zerrenda eman dut. Deklinabideari dagozkie, gehienbat. Hauxe izan da hauek biltzeko arrazoi nagusia: morfologiaren berreraiketarako batez ere Erdi Aroko datuak erabili ditut, baina XVI. mendera arteko datuak ere esanguratsuak dira, ezinbestean. Era berean, bildu egin ditut beste zenbait morfema edo osagai lexiko, euskal hizkuntzalarien arreta bereganatu dutelako edo beste hizkuntzetako analisisietan esanguratsutzat jo direlako.

9. Lehen eta bigarren graduko artikuluen adibideak (*lagunau, lagunori, etab.*)

10. Pluraleko *-ak* morfemaren agerraldi guztiak

11. *-(r)ik* partitiboa (ik. aurreko azpiatala)

12. *bat/batzu* zenbatzaile edo artikulua indefinituaren agerraldiak

13. Deklinabidea (orobat erakusleena eta izenordainena)

13.1. Deklinabideko kasuekiko sintagmak (sg/pl/mugag)

13.1.1. Absolutiboa

13.1.2. Ergatiboa

13.1.3. Datiboa

13.1.4. Genitiboa

13.1.5. Genitibo lokatiboa edo erlaziozkoa

13.1.6. Instrumentala

13.1.7. Instrumentala + *-ko*

13.1.8. Soziatiboa

13.1.9. Inesiboa

13.1.10. Ablatiboa

13.1.11. Adlatiboa [destinatiboa (*-rako*); hurbiltze-adl. (*-rantz*); muga-adl. (*-raino*)]

13.1.12. Prosekutiboa

13.1.13. Prolatiboa (*-tzat*)

13.1.14. Benefaktiboa (*-rentzat, -rendako*)

13.1.15. Kausala (-*rengatik*)

13.2. Bestelakoak

13.2.1. *eske*, *bila* eta halakoekiko posposizioak

13.2.2. -*ta*- mugagabeetakoa

14. Aditz-izenak

14.1. -*ten*/-*tzen* vs -*tean*/-*tzean*

14.2. Aditz-izenak oro har

15. Erreferentzia bakarreko izen esanguratsuak: *errege*, *jainko*, *jaun*, *aita* eta halakoak

16. -*ko* duten izen-deitura sintagmak: *Errodrigo Zarateko*...

17. Izengoitiak

18. Superlatibo aipagarriak: *le(h)en*, *lelen*, *lenaengo*, *goren*...

Beste zenbait testuinguru sintaktikotan eta lexikotan ere agertzen da -*a* artikulua: cf., besteak beste, perpaus kontzesiboak (-*agatik*) eta erlatibozko perpausak; elementu lexiko jakinen artean, cf. bereziki *guzti* edo *oro* zenbatzaileak eta halaber *beste*. Beharrezkoa da hauek ere biltzea, artikuluekin eta deklinabidearekin duten lotura estuarengatik, eta jokabide berezien lekuko izan daitezkeelako; hala ere, hauen azterketarako beharrezko dira lan monografiko xehakatuak, testuinguru sintatiko edo item lexiko bakoitzaren idiosinkrasiak kontuan hartuko lituzketenak. Horren kariz, artikulua erabileraren gaia bete-betean edo zeharka jotzen dutelako, taula edo lanabes orokor honetako atal dira, baina ezin izan ditut berariaz aztertu; adibidez, artikulua erlatibozko perpausetan duen jokabidea aztertzeko, erlatiboei buruzko azterketa sakon bat behar genuke, eta hori tesi honen irismenetik kanpo dago.

Lanabes osoa biltzen duen taula edo zerrenda VI.1 eranskinean jarri dut.

## B. CORPUSA

Atal honetan zehaztuko dut zein corpus linguistiko erabili dudan. Corpus honen xedea

hau da: ondoko kapituluetan egin ditudan berreraiketa morfologikoei eta deskripzioei oinarri enpirikoa ematea. Bi multzo nagusi bereiz daitezke testu eta datu motaren arabera: Erdi Aroko agiri-bildumak, erromantzez edo latinez idatzitako testuak baina euskal leku- eta pertsona-izen ugari dituztenak, eta XVI. mendera arteko euskal testu idatziak.

Ondoko azpiataletan corpusaren xehetasunak eman ditut, iturriak eta argitalpenak zerrendatu ditut, eta berak aukeratzeko zer irizpide erabili ditudan; era berean, corpusaren atal bakoitza nola eta zertarako erabili dudana azaldu dut, baita hautu horiek zein datu mota eskuratzeko helburuz egin diren ere.

### 3.3 Erdi Aroko lekukotasunak

Erdi Aroko lekukotasunak deklinabide mugatuaren morfologiaren berreraiketarako erabili ditut. Erabaki honen atzean, hautu garrantzitsu bat dago: Erdi Aroko datuak ez ditut erabili artikulua dimentsio sintaktikoaren gorabeherak aztertzeko; laugarren kapituluaren agertuko ditut hautu honen arrazoiak. Hala, erabili ditudan iturrien iruzkin laburra egin dut hurrengo azpiatalean; erreferentzia zehatzetarako, ikus bibliografiaren atala.

#### 3.3.1 Erdi Aroko agiri-bildumak, kartularioak eta kodizeak

Analisiaren abiapuntua Donemiliagako kartulario galikanoan dagoen *Reja* esaten zaion testua izan da. Berriki sarean argitaraturiko edizioa erabili dut (Tinti et al. 2013), García Andrevaren (2010) edizioko transkripzioan oinarritzen dena.<sup>191</sup> Testu honen garrantzia ezaguna da aspaldidanik, baina, nire ustez, etekin handiagoa atera dakioke euskal morfologiaren berreraiketarako.

Agiri ezagun honek, 1025ekoa izanik —XII. mende bukaerako kopia da geratu zaiguna—, ez ditu biltzen euskal artikulua aurki ditzakegun lekukotasunik zaharrenak, eta badira artikulua lehenagoko testigantzak, cf. *Larrehederra, Ocharanna* (SMillán

<sup>191</sup> Transkripzioak jatorrizkoaren argazkiekin erkatzeko aukera dago gaur egun. Mitxelenaren edizioak (XII 31-34), adibidez, Serranorenaren hutsak errepikatzen ditu, eta bere batzuk ere gehitzen.

945) eta *Galuarra, Belasco Ahardia (ColCard 944-950)*,<sup>192</sup> baina bere izaera arkaikoa bakarra da, Mitxelenak ohartarazten duen bezala: “No hay probablemente ningún documento medieval en el que los nombres vascos tengan un aspecto tan arcaico como en éste” (XII 33). Berriki argitaratu den tesi batean ere Peterson historialariak Donemiliagako dokumentazioa garrantzia handikotzat du, eta agiri sorta horren barrenean *Reja* bera nabarmentzen du: “[L]a *Reja de San Millán* [...], extraordinario, y en nuestra opinión infraanalizado, censo de Álava altomedieval” (2009: 41).

*Reja*-n oinarritu dudana hastapeneko analisi hori jarraian datozen kartulario eta agiri-bildumetako datuekin osatu dut.

Bilduma garrantzitsua da *Fuentes documentales medievales del País Vasco (FDMPV)*, Eusko Ikaskuntzaren ekimenez argitaratzen ari dena. Gaur den egunean, 150 liburukik osatzen dute bilduma, eta liburuki bakoitzean agiri-bilduma jakin baten edizioa argitaratzen da; denetarikoak aurki daitezke: herrietako udal-artxibategietako agiriak, parroketan gorde direnak, auzi judizial jakinei dagozkienak, eskualdeenak edo probintzienak, bertan zein atzerrian gorde direnak (Bizkaiari dagozkion Simancaseko agiriak, esaterako), Nafarroako Artxibo Nagusikoak (gaztelaniaz *Archivo General de Navarra* izenarekin ezaguna), latinez, gaskoiz edo bestelako erromantzetan idatzitakoak... Euskal Herri osoko agiri-bildumak argitaratu dira bilduma honetan, baina gutxi dira Ipar Euskal Herriari dagozkionak (cf. *ColBNavI* eta *ColBNavII*, bildumaren 25 eta 59 zenbakiak, hurrenez hurren), eta hori du hutsune handiena.

Euskaltzaindiaren babespean argitaratzen den *Onomasticon Vasconiae* bildumak ez ditu sustatzen kartularioen edo agiri-bildumen edizioak, baina, bilduma honetako liburuki gehienetan, iturri horietako informazioa biltzen da. Batez ere Nafarroako, Arabako eta Gipuzkoako herri eta eskualdeak dituzte aztergai, Bizkaikoren batekin batera; ez du argitara eman Ipar Euskal Herriko herrien edo eskualdeen gaineko lan monografikorik. Bilduma honek bere barrenean jasotzen du Líbanoren zuzendaritzapean egindako *Toponimia Medieval en el País Vasco* liburu-sorta.

<sup>192</sup> Ez dakit zenbateraino den adibide ziburra *pardinam de Aranna (SJPeña 828)*. Cf. halaber *Larr<a>hederra (SMillán 869)*, baina dokumentua faltsifikazio bat izan daiteke; orobat 929ko *Benifederra*, eta, gainera, ez da osaera erabat argikoa. Cf. bestalde, *-aga* atzizkiarekin, ziur aski, *de Spino abbate Helhorriga (SMillán 871)*.

Bilduma nagusi horietarik kanpo, erabili ditut han-hemenka argitaraturiko lanak ere. Ipar Euskal Herriko datuen berri izateko, cf. bereziki honako hauek: daturik zaharrenak Akizeko kartularioan, Baionako *Livre d'Or* delakoan, eta Sordeko kartularioan aurki daitezke; esanguratsua da, orobat, Zuberoako 1377ko errolda gotikoa (nahiz iritsi zaigun kopia 1690ekoa izan), eta Nafarroa Behereko erroldak (~1350 eta 1412koak), Zierbidek editatuak. Bestelako lan zenbait ere aintzat hartu ditut: cf. adibidez Goihenetxeren monografia, eta Orpustanek Erdi Aroko euskarari buruz idatziriko liburua (1999),<sup>193</sup> zeinetan Erdi Aroko hainbat lekukotasun erabiltzen diren. Oro har, Hego Euskal Herrikoak baino dokumentu berantiarragoak dira; gainera, agiri zaharretarikoak dituenak, Baionako *Livre d'Or* izenekoak, ez dakartza, tamalez, euskal leku- eta pertsona-izen asko-asko ere.

Asko dira Nafarroako lurraldeei dagozkien agiri-bilduma, kartulario eta kodizeak; cf., besteak beste, Iratxeko, Irantzuko eta Leireko monastegietako agiriak, lehenago ere ikertuak euskalaritzan, aspaldidanik izan baititugu historialariek horietaz egindako edizioak. Gipuzkoari dagokion agiri-bilduma pare bat ere bada corpusaren zerrendan, eta, Errioxakoez denaz bezainbatean, cf. adibidez, *Cartulario de Valpuesta*, Pérez Solerrek editatua (1970), nahiz eta euskal lekukotasun askorik ez izan bertan; jakina, eremu horretan interesgarriena Donemiliagako kartulario galikanoa da, goian aipatu dudana. Cf. halaber Rodríguez (1976-1990) bilketa lana eta analisisia, Errioxarekin zerikusia duten edo Errioxakoak diren agirietarako; hizkuntzari dagokion atal bat ere badu, baina, zoritxarrez, ez dirudi euskara aintzat hartzen duenik. Burgosko zenbait agiri-bilduma ere jarri ditut zerrendan: San Salvador de Oñakoa, Cardeñakoa, San Pedro de Arlanzakoa... Hauetan, hala ere, ez dago tesi honek helburu duen berreraiketa-modurako berebizikoa suerta daitekeen daturik. Burgosko eta Errioxako datuei dagokienez, zinez baliagarria da, bestalde, Peterson historialariaren tesia (2009), besteak beste, bertan ageri diren hizkuntzazko analisiengatik.

Aipamen berezia behar dute Pirinioetako iturriek: *Fuentes para la Historia del Pirineo* bildumako agiri-bildumak sartu ditut corpusean, baita *Fuentes Históricas*

---

<sup>193</sup> Lan honen kritikarako, ik. Salaberri (1999).

*Aragonesas*-ekoak ere; bigarren bilduma hauetako batzuk sarean daude, eta beste batzuk paperean eskuratu ditut; lehenekoak, ordea, paperean baizik ez daude. Horietaz gain, hor dira Ibarraren, Ubietoren, Canellas eta besteren lanak ere (Jakako udal-agirien bilduma, Rodako kartularioa, Albeldakoa, Ramiro I.a edo Antso Ramirez erregeen agiriak, San Andrés de Fanlokoak, etab.). Jakina, Corominesen lanak ere erabili ditut, eta bestelako lanak ere bai: Dalmauk editaturiko atlas historikoak, esaterako.

Hemen iruzkinduriko eta bibliografian iturrien atalean zerrenda osoan emandako agiri-bilduma, kartulario eta gainerakoetan ez daude, ziur aski, euskarazko leku- edo pertsona-izenen bat duten agiri-bilduma, kartulario eta bestelako guzti-guztiak; Artzamendiren (1985) lanean, adibidez, nik erabili ez ditudan zenbait lan eta edizio aurki daitezke (nahiz eta Artzamendiren lanak dakarren informazioa ere aintzat hartu dudana). Baina euskal eremu osoko lekukotasunak biltzen dira, aski era zabalean —230 agiri-bilduma inguru dira—, eta horrek, nire ustez, berme zerbait ekartzen du, datu jakin bat aintzakotzat hartzekoa den ala ez erabakitzeko. Bestela, Erdi Aroko *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren moduko bat beharko litzateke (ik. 4.1 atala), eta tesi honen irismenetik (eta helburuetatik) urrun dagoen proiektu zabalagoa eta denboran luzeagoa da hori.

Bi atal bereizi ditut bibliografian Erdi Aroko corpuseko bildumetarako eta kartularioetarako: batean, oro har Euskal Herriari dagozkion agiriak dituzten bildumen zerrenda dago; bestean, Pirinioetako iturriei dagozkien zerrenda.

### 3.3.2 Erdi Aroko datuak nola aztertu: hautuak eta irizpideak

*Reja*-ko datuak modu monografikoan aztertu ditut, grafema eta morfema jakin batzuen analisisa eginez. Horren arrazoia honako hau da: artikuluekin zerikusia duten elementuen berreraiketa morfologikorako ahalik eta lekukotasun zaharrenak behar ditugu, eta, zaharrena izan gabe ere, testu honen izaera arkaikoaren erakusle da hatxearen ugaritasuna, hasperena bizirik zegoen seinale; berebizikoa da ezaugarri honek D-elementuen garapenez eman diezagukeen informazioa. Honek ondo justifikatzen du deklinabide mugatuaren berreraiketa morfologikoa testu bakar honen azterketatik abiatzea.

Reja agiriaren azterketa nagusitik ondorioztatzen diren ideiak eta usteak beste agirietan egindako bilaketetatik lorturiko datuekin osatu dut; bilaketa hauek zehatzak eta gidatuak izan dira, morfemak eta morfemen ustezko aldaerak berariaz bilatuta eginak. Bilaketa horiek testuak indexatzen dituen software informatikoarekin egin dut; horretarako, agiri-bildumak digitalizatu eta OCRtu ditut,<sup>194</sup> karaktereen arabera bilaketak egin ahal izateko. Eusko Ikaskuntzaren *FDMPV* bilduman argitaraturiko edizioak *portable document format* (PDF) formatuan egoteak lana erraztu du; kartulario, kodize eta agiri-bilduma horiek osatzen dute tesi honetarako osaturiko corpusaren ehuneko handiena; cf. halaber Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae*.

Aipaturiko bilaketak egiteko, gogoan hartu dira morfema edo izen bakoitzak izan ditzakeen aldaera grafikoak: adibidez, *-aga* atzizkirako, *-ague*, *-agua*, *-aga* eta halako bilaketak egin dira; *Zurio* deiturarako, *çurio*, *churio*, *surio* eta halakoak. Beste zenbait kasutan ezinbestekoa izan da zuzeneko irakurketa egitea: Pirinioetako iturrietan, adibidez, horrela bilatu ditut euskal lekukotasunak, agiri-bildumetako aurkibide eta agiriak irakurriz.

Erdi Aroko corpora, hortaz, bi azterketa motaren arabera erabili dut: analisi zehatza egin dut *Reja* agiriarekin, berreraiketa morfologikoaren oinarriak ezartzeko, eta, corpus zabalago batean, datuen bilaketa zehatza egin dut berreraiketa proposamen hori berresteko.

Jardun honen arrazoi nagusia honako hau da: asko dira datu-iturri gisa aukeratu ditudan agiri-bilduma, kartulario eta kodizeak asko dira, eta ezina litzateke beste guztiekin egitea *Reja* agiriarekin egin dudan grafiazko zein hizkuntzazko azterketa. Jakina, horietatik eskuratu ditudan datuek ez dute *Reja* agirikoek duten fidagarritasun maila, grafia, auzi geografiko eta besteren azterketa xehakatuaren faltan, baina erabilitako iturrien bolumen handiak berak (berrehundik gora agiri-bilduma eta kartulario) txikitzen du emaitza horietako batzuk, bederen, zori hutsaren ondorio izateko aukera, eta, gerora analisiak okerrak direla erakutsiko balitz ere, datu berriak eztabaidara ekarri izanaren balioa gordeko dute.

<sup>194</sup> Ingeleseko “optical character recognition” esan nahi du OCR-k. Prozedura honen bitartez, argazki huts diren testu eskaneatuak prozesatzen dira, eta testu horietako karaktereak letra gisa identifikatzen.



### 3.4 XVI. mendera arteko testuak

Artikuluaren erabilera sintaktikoa neurtzeko erabili ditut, gehienbat, XVI. mendera arteko euskal testuak, baina baita Erdi Aroko datuetan aurki ez daitezkeen zenbait xehetasunen berri izateko ere, deklinabide mugatuaren morfologiaren berreraiketarako. Testu hauetako perpaus eta sintagmak 3.2.5 atalean taxuturiko lanabesaren arabera sailkatu ditut.

Hiru sailetan bana daitezke garai horretako corpora osatzen duten testuak: hiztegiak, atsotitz bildumak eta denetariko testu eta esaldiak. Hiztegien artean Picaudena, Von Harffena, Sículorena eta Landuchiorenak dira aipagarrienak (cf. halaber Ibarguen-Cachopín kronikakoak). Atsotitz bildumei dagokienez, XVI. mendekoez landa (cf. *Refranes y Sentencias*, Garibairenak eta Ibarguen-Cachopínen esaerak), Oihenartenak, Zalgizerenak, Belarenak eta Isastirenak sartu ditut, XVII. mendekoak izanik ere lehenagoko hizkuntz egoera islatzen delakoan genero honetan. Beste testuei dagokienez, corpusean hartu ditut Mitxelenak argitaraturiko *Textos Arcaicos Vascos*-en, Sarasolaren *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*-en, Satrustegiren *Euskal Testu Zaharrak*-en eta berrikiago Arriolabengoak editaturiko Ibarguen-Cachopínen kronikan dauden testu laburrak, eta han-hemenka argitaraturiko beste batzuk; testu luzeagoei dagokienez, osorik aztertu ditut Etxepare, Lazarraga, Betolatza eta espioitzako gutunak; Leizarragaren lanetatik, *ABC, edo Christinoen instructionea* baizik ez dut aztertu, arrazoi nagusi batengatik: ezin egina da testu osoaren perpausez perpauseko azterketa morfosintaktikoa, ez bada azterketa monografiko baterako.

Ondoko azpiataletan dago testuen zerrenda osoa, euskalkika antolatuta; zenbaki bana eman diet testuei, aurretik “T(estu)” dutela, eta ondoren testuaren izenburuak eta dagokien laburdura jarri; bibliografiaren atalean dago erabilitako edizioei buruzko berri xeheagoa. Testuak hizkera baten edo bestearen barrenean kokatzeko, Mounolen hautuei segitu diet (2011: 13-19), oro har. Mounolek erabili ez dituen hainbat testu sartu ditut nire corpusean. Arrazoia agerikoa da: izenaren morfologiari buruzko informazioa errazagoa da eskuratzen aditzen sintaxiari buruzkoa baino, are transmisio arazo larriak

dituzten testuetan ere (irakurketa arazoak, desitxuratzeak...); arrazoi beragatik sartu ditut hiztegiak ere nire corpusean. Mounolek ez bezala, orobat, testu apokrifoak (Andram, KantabKant, etab.) corpusean sartzea erabaki dut; analisisirako utzi dut erabakitzea zenbateraino den baliagarria horietako informazioa.

#### 3.4.1 Bizkaierazko testuak

T.1 testua.	Abendañoren heiagora (Abendaño)
T.2 testua.	Olasoren eresia (Olaso)
T.3 testua.	Milia Lasturkoren eresia (MLastur)
T.4 testua.	Martin Bañez Artazubiagakoren heriotzean (Artazub)
T.5 testua.	Arrasateko Erreketa I. Butroeko Andrearen Eresia eta ganboarren erantzuna (ArrasErreKI)
T.6 testua.	Arrasateko Erreketa II. Butroeko Gomez Gonzalezen heriotzako kantuak I (ArrasErreKII)
T.7 testua.	Arrasateko Erreketa III. Butroeko Gomez Gonzalezen heriotzako kantuak II - <i>Argui yçarrac urten dau</i> (ArrasErreKIII)
T.8 testua.	Salinasko Kondearen kantua (SalKond)
T.9 testua.	Jaun Diaoz Arokoaren kantua (DiaozAro)
T.10 testua.	Martin Juanes Labierukoaren hilartitza edo epitafioa (Labieru) eta Akondiako guduaren kantuaren hasiera (Akundia)
T.11 testua.	Sorabilako hidalgoen kantua (Sorabila)
T.12 testua.	Bergara aldeko Sarasketaren hiztegitxoak (Sarask)
T.13 testua.	Esaerak eta Esaldiak (IbargCEs)
T.14 testua.	Sandailia (Sandailia)
T.15 testua.	<i>Refranes y Sentencias</i> (RS)
T.16 testua.	Garibairen atsotitzak (Garibai)
T.17 testua.	San Frantziskoren Hirugarren Ordenako mojenzako formula (FrantzOrd)
T.18 testua.	Fray Juan Zumarragakoren gutuna (frJZum)
T.19 testua.	Esaldi eta leloak (EsLel)

- T.20 testua. Andramendiko idazkiak (Andram)  
 T.21 testua. IbarGC-ren hiztegiñoak eta beste (IbarGCHiz)  
 T.22 testua. Kantabriarren kantua (KantabKant)  
 T.23 testua. Maitasun poesia bizkaitarra (BizkOlerk)

### 3.4.2 Arabako euskaraz dauden testuak<sup>195</sup>

- T.24 testua. Urrexolako guduaren eresia (Urrexola)  
 T.25 testua. Errodrigo Zatekoren kantu epikoa (ErrodZar)<sup>196</sup>  
 T.26 testua. Lucio Marineo Sículoren hiztegitxoia (MSiculo)<sup>197</sup>  
 T.27 testua. Perutxoren kantua (Perutxo)<sup>198</sup>  
 T.28 testua. Landuchioren hiztegia (Land)  
 T.29 testua. Lazarragaren eskuizkribua (Lazarg)  
 T.30 testua. Betolatzaren *Doctrina Cristiana* (Betol)

<sup>195</sup> Jakob Gebarakoren hiletako kantuak (TAV 3.2.3) ez ditut aintzat hartu, Mounolek ez bezala: interpretazio arazo batzuk daude, baina, horretaz gain, ez dago izen morfologiari buruzko informazio esanguratsurik. Mounolek *Fray Vicentec esala fedea cina liçala* esaldia arabar gisa sailkatu du; nik bizkaieraren barrenean sartu dut, Garibairen beste testuak bezala, T.19-koen artean.

<sup>196</sup> Araban kokatzen diren gertakari zenbaiten berri ematen digu kantu honek (Markina, Zuia, Zate...); pentsatuz IbarGuen-Cachopínek hango laguntzaile edo berriemaileren batenganik jaso ahal izan zuela, Arabako euskaraz dauden testuen artean sailkatu dut hau.

<sup>197</sup> Testu hau Arabako euskararen lekuko izan daiteke: Nafarroako konkistaren testuinguruan, 1512ko abenduan, Logroñotik Iruñerako bidea egin zuen Lucio Marineo Sículok, gerra izandako tokiak ikuskatzera (Jiménez 2001: 69-70). Ezin izan dut ondorio argirik atera, zein bide erabili zuen: Logroñotik atera eta zuzenean ekialdera jotzea litzateke biderik laburrena, Biana, Arkueta eta Lizarran barna; beste aukera bat da, askoz luzeagoa, Arabako lurretan barrena egin izana bidea. Nolanahi ere den, pentsatzekoa da Marineo Sículok berak hartu zituela bere hiztegitxorako oharra; honela zioen gutun batean, Lynnen ingelesezko itzulpenean: “On the Calends of December, departing secretly from Corunna [Logroño da], I set out for Navarra, to the Camp of Duke of Nájera, for I was desirous of seeing the great armies of the Spanish and the French, so that when I write, as I am to do, *De Cantabrico bello*, I may say, “I saw”” (Lynn 1937: 238). Ongi deskribatzen du Jiménezek Marineo Sículo historialariaren jarduna: “[D]entro de este proceso previo a la propia redacción del relato, se hace hincapié en la recogida de datos y en la investigación de los hechos sobre el terreno” (2001: 337; bertan aurki daiteke gutunaren jatorrizko bertsioa). Pentsa liteke berdin jokatu zuela euskal hizkuntzarekin, eta *in situ* jaso zituela hitzak, Arabatik pasatzean, beharbada; edo, Logroñon zegoela, arabarren bati galdetuta; edo errioxarren bati? Ikus Aznar (2011: 308-311), nahiz eta Alhama ibaiaren inguruaz ari den. Jakina, ezin da erabat baztertu bizkaierazko testua izatea.

<sup>198</sup> Arabako testutzat jo dut, interpretazio zaileko *Astobicarra* adlatibo moduan uler daitekeela iritzita, *Astobitzara* (gaurko Baranbioko lurretan dago Astobitza).

### 3.4.3 Gipuzkerazko testuak

T.31 testua.	Tolosako ezkontza zinak (EzkonTolos)
T.32 testua.	Juan de Lazkanoren eresia (JLazkano)
T.33 testua.	Chanfarronen kantua (MosChanf)
T.34 testua.	Miserere (Miser)
T.35 testua.	Beotibarko guduaren eresia (Beotib)
T.36 testua.	Bretainiako kanta (BretKant)
T.37 testua.	Debako seroraren gutuna (SerorGut)

### 3.4.4 Goi-nafarrerazko testuak

T.38 testua.	Aymeric Picauden hiztegitxoa (APicaud)
T.39 testua.	<i>Pater Noster</i> txikia (PNoster)
T.40 testua.	Mattin Zalbako eta Martin San Martingoren arteko gutunak (ZalbGut)
T.41 testua.	Arnold von Harff zaldunaren hiztegitxoa (VonHarff)
T.42 testua.	Nafarroako Kondestablearen kantua (NafKondest)
T.43 testua.	Beorburuko ezkontza zinak (EzkonBeorb)
T.44 testua.	Utergako ezkontza zina (EzkonUterg)
T.45 testua.	Olatzagutiko ezkontza zinak (EzkonOlaz)
T.46 testua.	Juan Irañetaren gutuna Pedro Iterori (IrañGut)
T.47 testua.	Bakedanoko ezkontza zinak (EzkonBaked)
T.48 testua.	Zufiako ezkontza zinak (EzkonZufia)
T.49 testua.	Henrike III.aren jaiotzean (HenrIaun)
T.50 testua.	Taxoareko eta Espartzako ezkontza zinak (EzkonTaxoar)
T.51 testua.	Amenduzeren poema (Amendux)
T.52 testua.	Jainkoaz arnegatzeko (JainkArneg)
T.53 testua.	Lehentasun auziak elizan (ElizLehen)
T.54 testua.	Nafarroako agiritan sorginkeriari buruzko auzietan bilduak (SorgNaf)
T.55 testua.	<i>Gure Aita</i> zaharra (GurAit)
T.56 testua.	<i>Credo</i> zaharra (Cred)

T.57 testua. Isastiren errefrauak (Isasti)

#### 3.4.5 Lapurterazko testuak

T.58 testua. Rabelaisen euskal testua (Rabelais)

T.59 testua. Leizarragaren *ABC* eta *Çuberoaco herrian* hiztegia (Leiz)

T.60 testua. Sunbillako lapurreta (SunbLap)

T.61 testua. Espioitzako gutunak (EspGut)

#### 3.4.6 Behe-nafarrerazko testuak

T.62 testua. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (Etxep)

T.63 testua. Etxauzen gutuna (EtxauzGut)

#### 3.4.7 Zubererazko testuak

T.64 testua. Zalgizeren atsotitzak (Zalgiz)

T.65 testua. Oihenarten atsotitzak (OihAtsot)

T.66 testua. Belaren atsotitzak (Bela)



## LAUGARREN KAPITULUA

### ERDI AROKO DATUAK

Kapitulu honetan, Erdi Aroko datuen analisia egin dut, deklinabide mugatuaren diakronia egiteko garrantzi handikoak baitira. Kapitulu honetako datu eta analisiak, funtsean, V. kapituluko berreraiketa morfologikoaren abiapuntu dira; kapitulu banatan bereizirik eman ditut, hala ere, Erdi Aroko datuen azterketak duen garrantzia nabarmentzeko.

Mitxelenak, Erdi Aroko lekukotasunak oinarri harturik, euskal deklinabidearen eskema bat proposatu zuen; deklinabide mugaturako abs. sg. *-a*, ines. sg. *-ean*, abs. pl. *-aga* eta leku-kasu pluraletako *-eta-* morfemak aurkitzen edo ondorioztatzen ditu garai horretako leku- eta pertsona-izenetan (ik. 2.4.2 atala). Aitortzen du ez duela aurkitu bestelako kasuen lekukotasunik: “Tampoco creo conocer ningún testimonio de *-en*, *-ei*, etc., en los casos no locales de plural” (Mitx IX 282).

Kapitulu honetan Mitxelenak irekitako bideari jarraitu diot, Erdi Aroko datuak berriro arakatuz. Esan bezala, euskal deklinabidearen morfologia berreraikitzeke erabili ditut datuok, eta artikulua erabilera sintaktikoaren bilakaera bazter utzi; hautu metodologiko honen arrazoi berri emango dut hurrengo atalean, datuen analisiarekin hasi baino lehen.

#### **4.1 Erdi Aroko lekukotasunak, artikulua eta beronen dimentsio sintaktikoa**

Erdi Aroko agirietako euskal lekukotasunak testu latin-erromantzeetan txertaturiko leku- eta pertsona-izenak dira, ia erabat. Salbuespen aipagarri zenbait alde batera utzita (cf. Donemiliagako glosak), ez dugu perpausik Erdi Aroko agirietan, eta, ondorioz, pentsa liteke artikulua erabilera sintaktikoa ezin azter daitekeela; ez da erabat zuzena ondorio hau, maila apalean izanik ere, testuinguru sintaktorik gabeko euskal lekukotasun onomastiko hauek izen sintagma mailako sintaxiaren erakusgarri izan

baitaitezke: besteak beste, bada forma artikuludunen eta mugagabeen adibiderik konparagarri izan daitezkeen egituretan. Horren lekuko da Mitxelenak iradokitzen duen azterbidea (IX 471-472):

Así el ejemplo del artículo en los nombres propios —y por inferencia, en los comunes— merecería un estudio detenido que sigue sin hacerse, por todo lo que toca a la toponimia moderna y medieval. Puede señalarse, por ejemplo, la alternancia de formas determinadas e indeterminadas en un mismo nombre, en el mismo documento [...]

Xeheki egin beharreko lan honetan aitzindari izan dira Altuna eta Azkarate (2001: 53-65), eta bada ildo beretik egindako beste saiorik ere (Manterola 2005); Orpustanek ere (1999: 152-167) hainbat ohar egiten ditu. Lan hauetan, egituraren arabera sailkatzen da Erdi Aroko onomastika (leku- zein pertsona-izen), begiraturaz sintagma mota bakoitzean artikulurik erabiltzen den ala ez. Altunak eta Azkaratek, adibidez, honako egitura hauek zerrendatzen dituzte, leku-izenez ari direla: *izen + izenondo*, *-ko + izen*, *izen* (soil, eratorri zein elkartu), *izena + [x + -ko]*; eta honelako bikoteak, artikulugabe/artikuludun: *Ibarguren/Hurigurrena* (SMillán 1025), *Ayzburu* (ColRonces 1284) / *Hazpurua* (SMillán 1025), etab. Adierazgarria da lan hori egin ondotik ematen duten ondorioa (2001: 60):

Datu hauek ikusirik, zaila da ondorio orokorrik ateratzea artikulua erabilerari dagokionez. Badirudi esan daitekeela izen arruntak edo izenondoak artikulua daramala leku bat izendatzeko erabili denean. Hortik aurrerako egituretan artikuludunak eta artikulugabeak ere aurki ditzakegu.

Hots, forma artikulugabeak zein artikuludunak ditugu garai protohistoriko honetan, eta, datuak xeheago eta zabalago aztertu gabe, aitortu beharra dugu ezin egin dezakegula orokortze jakinik. Altuna eta Azkarate ere ez dira ausartzen orokortze apal eta zuhur bat egitera baizik, toponimia nagusia eta txikia bereizita: itxuraz, joera dago toponimia nagusian forma artikulugabeak izateko, eta txikian artikuludunak, baina honen kontraadibideak ere ugariak dira.

Pertsona izenekin ere antzeko saioa egiten dute (2001: 60-65), eta *Açeari Guruciricoa/Garcia Çubirico* bezalako bikoteak iruditzen zaizkie aipagarrienak artikulua erabileraren hedapenaren auzian; *-ko* duten sintagmetan bizirik dago, egun ere, mugagabearen jatorrizko erabilera hau: cf. zub. *Nonko(a) da gizon hori? Mauleko düzüü*



(Etxebarne 2010: 68). Azken ohar moduan, zera diote leku-izenak eta pertsona-izenak konparatuta: pertsona-izenetan leku-izenetan baino gehiago erabiltzen da artikulua, funtsean berez definitua den pertsona-izenari izenondoa, izena eta beste aposizio moduan gehitzen zaizkiolako.

Proposamen interesgarriak izanik ere, berezko arazo bat dute halako azterketek: datu-iturri moduan erabiltzen diren agiri-bildumen corpora ez dago behar bezala zehaztua; Altunaren eta Azkarateren lan aitzindaria, adibidez, Mitxelenaren lanetan zerrendaturiko izenetan oinarritzen da gehienbat. Honenbestez, ezin daiteke besterik egin etorkizuneko eta epe-luzeko izan beharko duen egitasmo baten oinarritzko irizpideak zein izan litezkeen zerrendatu baizik:

- (a) Corpora zehaztu beharko litzateke. Azken urteetan argitaraturiko agiri-bildumen edizioak hartuko lituzkeen corpus zabala izan beharko luke, Iratxeko edo Leireko dokumentazio klasikoaz gainera: cf. bereziki Eusko Ikaskuntzaren babespean argitaratzen den *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* argitalpen sorta.
- (b) Agiri-bildumen banakako azterketa linguistikoa egin beharko litzateke. Azterketa linguistiko honetan euskal lekukotasunen analisi sistematikoa egin beharko litzateke, irizpide fonetiko-fonologikoak eta morfologikoak oinarri moduan hartuta eta, besteak beste, Altuna eta Azkaratek goian aipaturiko egiturak aintzat hartuta, adibidez.
- (c) Azterketa linguistiko horrek azterketa historiko eta geografikoz osatua beharko luke, ezinbestean; besteak beste, agiri bakoitzeko euskal lekukotasunak zein eremu geografikori (eta, ondorioz, dialektali) atxikitzen zaizkion ahalik eta hobekien zedarrizteko; auzi honetan kontuan hartzekoa da agiri jakin baten testuinguru historiko-geografikoa ez dela beti agiri-bilduma idatzi edo kopiatu zen tokikoa: adibide garbia da *Reja*-rena, agiria Errioxako Donemiliagako kartulario galikanokoa izanik ere hor islatzen den informazio linguistikoa Arabari baitagokio.

Euskal lekukoaren izaera linguistikoa are hobeki zehazteko, inportantea da

bildumetako agirien transmisioaren berri izatea: historiaren ikuspegitik iruzurrezko dokumentuak ote diren, data jakin bat izanik ere beranduago idatziak ote diren eta abar. Historialariek dute hitza halako auzietan.

Funtsean, protohistoriaren edo erdaraz idatziriko agiri-bildumen tradizio sekundario honen *Orotariko Euskal Hiztegia* egin beharko litzateke; bestela, informazio sintaktikorako izatez urria den lekukotasun mota hau zatikako eta osatugabeko azterketen arabera ariko gara analizatzen, eta halako jardunbidetik proposaturiko orokortze sintaktikoak ezinbestean suertatuko dira zalantzezko. Maila orokorrago batean, Jose María Lakarraren hitzek (1957: 9-30) balio bete-betea dute, oraindik ere, tradizio berezi honek berekin dakartzan arazoez eta aukerez ari dela.<sup>199</sup>

Honenbestez, Erdi Aroko zein beranduagoko tradizio sekundario honek ematen duen informazioaren ustiaketa sistematikoa osatu artean eta bitartean artikulua erabilera sintaktikoaz egin litezkeen azterketen etekinari txikiegi iritzita, erabaki dut informazio mota hori aurreragoko analisisetarako uztea.<sup>200</sup>

#### 4.2 Erdi Aroko D-elementuen morfologia protohistorikoa, *Reja*-ko datuen argitara

Aurreko kapituluan (3.3 atala) azaldu dut zein corpusen arabera egin dudan Erdi Aroko datuen azterketa; honen hasieran, berriz, aztergaia zein izan den zehaztu dut. Honela laburbil daitezke corpusari eta aztergaiari dagozkionak:

- (a) Oinarrizko analisirako corpusa: Donemiliagako kartulario galikanoko *Reja* esaten

<sup>199</sup> Artikuluaren gorabeherez landa, ustiatu gabe dago agiri horietako euskal altxorra, are aspaldi editaturiko agiritakoa ere: cf. *Sagibahia* (SMillán 1128), *ibai* hitzaren forma zaharrarekin, beharbada; edo *Sarassako ola niquea* (LibRub XIII. m.), non *nike* ezezagunaren lekukoa dugun, *Etxenike* deituran gordetzen den bera (Salaberri 2003: 181, Salaberri eta Salaberri 2011: 141); edo Legazpi inguruko *Bederatçuyturrieta* (ArchLegazp 1483; cf. *Amabiyturrieta* (ArchZest 1479)) erreka izena, zenbakiaren jatorrizko forma *bederatzu* zela ziurta lezakeena, erronkarierak eta zubererak (*bederatzü*) gorde duten bezala.

<sup>200</sup> Ik. Bermeoko leku-izenen gainean eginiko azterketa (Allika 2006); *-a* artikulua zabaltzea aztertzen dugunean egon litezkeen arazoak ongi erakusten ditu lan honek. Euskal ikasketetatik kanpo, zinez aipagarria da Putzuren lana (2005): Erdi Aroko dokumentazioko corpus jakin bat zedarrizten du, sardinierazko testuena, artikulua zabaltzea deskribatzeko. Ezin da, dena den, erabat parekatu euskal datuen egoerarekin: aztergai beharko luketen euskal datuen garaikide dira sardinierazko testuak (XI-XIII. mendekoak dira), baina euskaraz leku- eta pertsona-izenak ditugu bakarrik, testurik ez.

zaion agiriaren gainean egin dut azterketa linguistikoa.

- (b) Corpus osagarria: *Reja*-ko lekukoetan oinarrituriko azterketa Erdi Aroko bildumen corpus zabalagoarekin osatu da, hala dagokionean (3.3 atala).
- (c) Aztergaia: Mitxelenak aipaturiko *-a*, *-eta*, *-aga* eta D-elementu izan daitezkeela susma daitekeen beste osagai batzuk aztertu dira, *-en* esaterako.

Corpus jakin batean oinarrituta (a-b), osagai morfologiko zenbaiten (c) formarik arkaikoena zein den zedarritu dut. Erdi Aroko ezinbesteko datuek sustengatu dute deklinabide mugatuaren morfologiaren berreraiketa, eta, aldi berean, jardun horretan euskalaritzaren historian zerrendatu diren arazoak (II. kapitulua) argitzen lagundu didate.

Osagai morfologiko horiek D-elementutzat eta, horrenbestez, erakusleen ondorengo zuzentzat ditugun neurrian, zilegi da bere lekukorik arkaikoenetan forma hasperendunak bilatzea; hori izan da *Reja*-ren analisi linguistikoaren abiapuntua (4.4-4.7 atalak). Horretarako, Donemiliagako idatz ohituran <h> grafemak hasperena adierazten duela ziurtatuko dut lehenik (4.3 atala), morfema bakoitzaren azterketarekin hasi baino lehen.

### 4.3 Erdi Aroko agirietako hatxeak eta euskal hasperena

Erdi Aroko euskal datuei ekin baino lehen, komeni da argi uztea XI. mendeko gaztelaniaz ere <h> bitartez adieraz zitezkeen hasperena bazela. Catalánek (1968) arabiar tradizioko aipu bat aztertzen du, zeinetan ohar metalinguistiko bat datorren Abū Bakr b. Abd al-‘Rahmān autore arabiarrena: erromantzez <f> grafema [h] ahoskatu ohi zela berariaz aipatzen du. Are interesgarriagoa da berri hori zein eremu geografikori dagokion, izan ere Iruñea-Naiarako erresumako testuinguruan kokatzen baita: orduko errege baten semeari, “ifante”-ari, [ihante] deitzen zitzaiola aipatzen zaigu. Hala, Catalánek nabarmen uzten du eremu geografiko horretan hasperenak izaera fonetikoa zuela (1968: 414-418), besteak beste Donemiliagako agirietako datuak erabilia:

Gracias al historiador árabe podemos asegurar que la alternancia gráfica entre *f*-, *h*- y *cero* en los textos escritos del rincón vasco-cantábrico responde efectivamente a la existencia en el habla

romance local de un sonido [h] (equiparable al *hā'* árabe); a su vez, los documentos nos perfilan, con gran precisión, el área de este dialectalismo, cuyo centro se hallaba evidentemente en la región castellano-navarra colindante con los pueblos vascófonos o bilingües.

Interesgarria da datu metalinguistiko hau autore arabiarren tradiziotik jaso izana, hasperenak arabieraz fonema maila zalantzagabea baitu. Catalánek aipagai duen autore hau, Abū Bakr b. Abd al-‘Rahmān, ez da, gainera, horren berri ematen duen arabiar bakarra: Mascarók (2013) Kordobako Ibn Ḥazm autorearen beste ohar bat atera du ahazmenetik, ildo beretik doana. Catalánen proposamena berresten du Mascarók (2013: 774), eta, gainera, erromantzezko hasperenari balio fonemikoa aitortzen dio:

En conclusión, durante el siglo XI existía una parte importante de la zona cristiana del centro y oeste peninsular que tenía /h/ bien establecida en su repertorio fonológico, un fonema que por otros datos bien conocidos, correspondía al resultado de la *F*- latina en la mayoría de contextos.

Catalán (1968) eta geroztikako lanak lagun, argi dago XI. mendeko erromantzearen inbentario fonemikoan /h/ bazegoela. Gogoan harturik euskarazko lekukotasun idatziak kultura latin-erromantzeak ezarritako idatz ohituren barrenean kokatzen direla, zinez da ohargarria erromantzez ere hasperena izatea: euskal hitz eta izen hasperendunak idazteak ez zuen ekarriko eredu-hizkuntzak ez zuen grafia arazorik; bestela esanda, hasperena idazteko irtenbide grafiko bertsuak izango zituzten erromantzeak eta euskarak.

Quilis (1996, 1997, 1999, 2003) arduratu da, zalantzarik gabe modurik zehatzenean, Erdi Aroko euskal lekukotasunen hasperenaren adierazpen grafikoaren gorabeheraz. Berez, latin-erromantzearen hasperenaren adierazpen grafikoa du aztergai Quilisek, eta jardun horretan Väänänenen lana hartzen du abiaburu, erreferentzia klasiko moduan: “La grafía <h> era un signo vacío fónicamente, procedente de una aspirada que pasó a muda sin valor fónico, en una tendencia que tiene su origen en latín clásico” (1999: 240). Orokortze horri hainbat zehaztapen egiten dizkie Quilisek, eta bere helburuetako bat da <h> eta <f> grafemak hasperena adierazteko nola erabiltzen ziren deskribatzea; auzi horretan, hitz hasieran hatxea noiz agertzen den eta noiz ez azaltzen du adibide zerrenda batekin, besteak beste, hatxearen balio foniko eza erakusteko; hitz barreneko erabileretan, berriz, gogora ekartzen du hiatoak markatzeko edo apurtzeko

balio zezakeela.

Euskal lekukoak idazteko ohiturak bestelakoa dirudi, Quilisen arabera (1999: 243-244), eta honela dio beste lan batean: “En el caso de las palabras vascas, sin embargo, quizá tendríamos que considerar una auténtica correspondencia entre la grafía <h> y la aspiración en la lengua hablada [h]” (1997: 109). Euskal terminoak idaztean erregularra da <h> grafemaren hitz barreneko erabilera, erromantzezkoetan ez bezala; zantzu garbia da hau, bere ustez, pentsatzeko euskal lekukoetan <h> grafema hasperena adierazteko erabiltzen zela. Erabilera ezberdinak izango zituen, ondorioz, <h> grafemak, eta eremu linguistikoak (latin-erromantzea, euskara, arabiera)<sup>201</sup> bereizteko beharra ikusten du Quilisek (1999: 245):

No creemos pues que se pueda ser tajante al determinar que la grafía <h> tenía un valor fonéticamente nulo en todas las ocasiones y sí que pudo estar condicionada por el reflejo del fenómeno fonético que se producía en la lengua vasca, que pudo haber sido un factor determinante en esta notación.

Are interesgarriagoa da euskal eremuaren barrenean egiten duen banaketa: Araban eta Errioxan <h> grafia hasperena markatzeko erabiltzen da; Nafarroako dokumentazioan, aldiz, ez du ikusten erabilera horren zantzurik, eta bi aukera ikusten ditu hori azaltzeko: (1) Mitxelenak aipatutako hasperenaren galera goiztiarra; (2) Nafarroan bi komunitate linguistikoak —erromantzea eta euskalduna— bereizita zeudenez, euskarak erromantzean eraginik ez izatea eta, horrenbestez, euskarak hasperena izanik ere, horren islarik ez izatea erromantzez idatzitako dokumentazioan.<sup>202</sup>

Xehetasunak xehetasun, honela laburbiltzen du Arabako eta Errioxako agiriari: <h> eta <f> grafemen jokabidea, euskal hasperenari dagokionez: “Por lo tanto, se puede hablar de una relativa coherencia en la transcripción de la aspirada mediante esta grafía”

<sup>201</sup> Esanguratsua da izen arabiarrak idazteko tenorean, Quilisen arabera beti ere (1999: 241), <h> zein <f> erabili izana arabierazko hasperena adierazteko (bibliografiarako eta xehetasunetarako ik. Quilis 1996: 426-429, 1997: 109-113). Honela laburbil daiteke haren irakaspena: hasperena zuten bi hizkuntza, arabiera eta euskara, latin-erromantzearen tradizio grafikoan txertatzen dira, jatorrian —Iberiar penintsulan denez geroztik, behintzat— hasperenik ez duen beste hizkuntza baten tradizioan, eta biek erabiltzen dute tradizio horrek eskaintzen dien baliabide grafiko bera antzekoa duten hotsa adierazteko. Honek <h> grafemak euskal lekukoetan hasperena adierazten duelako ustea indartzen du.

<sup>202</sup> Gai bera du hizpide Quilisek beste lan batean ere (2003), baina euskal datuak ez ditu hain xeheki aztertzen.

(1996: 395).

Ondorio hauek guztiak Erdi Aroko euskal lekukotasunak biltzen dituzten zenbait agiri alderatuta jasotzen ditu Quilisek, eta Mitxelenak *Reja*-ko hasperenaz dioenari jarraitzen dio, gehienbat,<sup>203</sup> agiri horren eta besteren berariazko azterketa egin ondotik (1997: 100-109).

Are interesgarriagoa da ikustea bere ondorioek bat egiten dutela Erdi Aroko grafiaz egindako bestelako azterketekin. Arizak (2008: 160) XII. mendeko agiri-bildumetako erromantze itxurako hitzetan <h> grafemak duen balioa aztertzen du; euskal datuetatik kanpo ari da, eta besteak beste grafema horrek hasperena adieraz zezakeela aipatzen du:

Puede representar una velar aspirada /h/: *Hernandez* (ES 1146), *Hormaza* (MO 1139, BU 1160). Se supone que esta aspirada solo existió en castellano, como evolución de la F inicial, sin embargo en los arabismos tenemos la H para representar F y aspiradas arabes en zonas no castellanas. Por poner unos ejemplos: *alhoz* (SH 1127), *alifala* (< ihala) (PI 1135 y muchos más), *alherez* (al faris) (VE 1176), etc., etc. Pero bien sé que el tema de la F de los arabismos es complejo, como en su día mostró Alarcos.

Hauxe ondoriozta daiteke berariaz euskal datuez Quilisek dakartzanetatik eta penintsulako Erdi Aroko ohitura grafikoez Arizak emandako orokortzeetatik honakoa ondoriozta daiteke: *Reja*-n ere hasperena izan daiteke <h> grafemaren balio fonetiko nagusia; erromantzezko zein arabierazko hitz eta testuetan ere agertzen da grafemaren balio hau.

Ondoko ataletan, xeheki erakutsiko dut <h> grafemak hasperena adierazten duela *Reja*-ko euskal lekukotasunetan; honek oinarri sendoa ezarriko du D-elementuen gaineko eztabaidarako.

#### 4.3.1 Euskal itxurako erroak dituzten leku-izenak, analisirako ilunak

Atal honetan eta hurrengoan *Reja*-n <h> duten izen guztiak aztertu ditut, eta bi talde nagusitan sailkatu <h> hori duten erroak edo osagaiak: batetik, euskal itxura izanik ere

<sup>203</sup> “La abundancia de *hh*, que da un aire tan “vascofrancés” a este documento, es indicio seguro de que la aspiración vivía todavía en la lengua hablada, incluso al parecer tras *l* (*n*), *r* y *rr*. Obsérvese que es la región vasca donde predomina claramente” (Mitx XII 33).

analizatzeko zail direnak, eta, bestetik, hurrengo atalean, euskal hitz ezagunak direnak; bigarren taldeko hauek emango digute oinarria <h> grafemak hasperena adierazten duen esateko; D-elementu izan daitezkeenak ez dira sartu atariko sailkapen honetan (4.4.-4.7 ataletan berariaz aztertuko dira horiek).

Euskararen ikuspuntutik analisirako ilunak diren izenak bildu ditut (1)-en: lehenik, ustez bereiz daitezkeen osagaien arabera sailkatu ditut leku-izenak, eta, ondoren, beste guztiak, “Beste hatxeak” goiburupean eta hurrenkera alfabetikoan; bereiz daitezkeen erroko edo osagaiko hatxeaz gain besterik duten izenak errepikatu dira, eta zerrenda bakoitzean dagokion <h>-a nabarmendu:

(1) baha-	<i>Bah̄aeztu, Bah̄anezta.</i>
hama-	<i>H̄amamio, H̄amarita.</i>
hiras-	<i>H̄iraszaeza</i> (cf. <i>Malizhaeza</i> ).
-(a)hia	<i>Arcah̄ia, Harhah̄ia, Harrah̄ia.</i>
-hin	<i>Hereinzguh̄in, Orengoh̄in.</i>
	<i>Agian -goh̄in/-guh̄in osagaia bereiz liteke? eta goihen-ekin lotu?</i>
-ahin	<i>Anduiah̄in, Hagurah̄in, Munniah̄in</i> (cf. halaber <i>Hurabagin</i> ).
-hiz	<i>Gasteh̄iz</i> (cf. <i>Andahiz</i> <sup>204</sup> ( <i>SMillán</i> 864)).
-z(h)aeza	<i>Malizhaeza</i> (cf. <i>Hiraszaeza</i> ).
Beste hatxeak	<i>Armendihi</i> (ik. behean <i>hegi</i> ), <i>Barh̄oa</i> ( <i>Barolha</i> -rekin lotua?), <i>Berrozih̄avi</i> , <i>Eh̄ari</i> , <i>Elh̄eni Villa</i> , <i>Hararih̄ini</i> (ik. behean <i>haran</i> ), <i>Hereinzguh̄in</i> , <i>Habaunza</i> , <i>Haitzara</i> (ik. behean <i>haitz</i> ), <i>Hagurah̄in</i> , <i>Harhah̄ia</i> (ik. behean <i>harri</i> ), <i>Harrah̄ia</i> (ik. behean <i>harri</i> ), <i>Heinhu</i> , <i>Hurabagin</i> (ik. behean <i>ur</i> ), <i>Luperh̄o</i> , <i>Uh̄ulla</i> .

Hauetaz guztietaz gain, hor dago itxura erromantzeko *Huerzas* ere. Bestalde, hauen artean badira oharren bat merezi dutenak: *Hamamio* eta *Hamarita*-ren kasuan *hamar* dagoen galdetu daiteke, adibidez; *Berrozihavi*-ren kasuan, bestalde, pentsa liteke *-havi* —edo *-havi*, jatorrizkoan halaxe agertzen baita— atzizkiren bat edo dela, geroztiko lekukotasun guztietan *Berrozi* baita, aldaerak aldaera, agertzen den forma (cf. *Veroci*

<sup>204</sup> David Petersonek ohartarazten nauen bezala, *Andaluz* irakurri behar da, ez *Andahiz*; hortaz, ustezko *-hiz* amaiera paralelo garbirik gabe geratzen da.

1257an);<sup>205</sup> zaila da *Hararihini*-ren bigarren osagaia zein izan litekeen asmatzea (eta hori onarturik lehen osagaia *haran* izan daitekeela pentsatzea); denboran zehar jasandako laburtzeengatik eta aldaketengatik (grafiko zein fonetiko) aipagarriak dira *Hereinzguhin* eta *Heinhu*, gaur *Erentxun* eta *Egino*: lehenengorako, cf. *Arancerenchu* 1257an, *Herenchoyn* 1294an, etab.; bigarrenengorako, cf. *Eguinioa* 1257an, *Heguinoa* 1308an, etab.

#### 4.3.2 *Euskal erro hasperendun ezagunak dituzten leku-izenak*

Bi sail nagusitan bildu ditut *Reja*-ko lekukotasun hauek: batetik, egungo euskaran hasperena duten erro edo osagaiak dituztenak, eta bestetik *Reja*-n <h> bai, baina egungo euskaran hasperenik ez dutenak.

Honela antolatu dut erro edo osagai bakoitzari dagokion azterketa: ezker zutabea hitza edo erroa bera, bere forma hasperendunean (euskara batuan hala izan zein ez); eskuineko zutabea hitzaren *Reja*-ko agerraldiak bildu ditut, <h> gabeko agerraldiak eta zalantzazko adibideak barne; eskuineko zutabea beti ere, iruzkin eta oharrak eman ditut, hitzak iparraldeko euskalki historikoetan hasperenik duen adieraziz (*OEH*-ko datuak harturik oinarri), eta <h> grafemaren erabileraren gorabeherak komentatuz, beharrezko balitz.

##### 4.3.2.1 *Egungo euskaran hasperena duten hitzak*

Egungo euskaran hasperena duten hitzak zerrendatu ditut (2)-n, eta horien *Reja*-ko adibideak aztertu:

(2) elhorri            *Elhorriaga, Elhossu, Elhorzahea.*

Ipar Euskal Herriko hizkeretan *elhorri* da tradiziozko forma, eta halaxe agertzen da *Reja*-ko adibide guztietan.

galhar                *Galharreta.*

Hitzak Ipar Euskal Herriko hizkeretan hasperena duen toki berean du <h> leku-izen honek; hots, izan zezakeen toki bakarrean.

<sup>205</sup> *Reja*-ko eta, oro har, Arabako leku-izenen aldaera historikoak, kontrakorik adierazi ezean, López de Gereñuren (1989) lanetatik hartu ditut.



- haitz *Haizcoeta, Haizpilleta, Hassarte,*<sup>206</sup> *Hazpurua*; badirudi *Haiztara* eta *Haztegieta* hitzaren adibide izan daitezkeela.  
Hitzak adibide guztietan du <h>. Ipar Euskal Herriko hizkeretan ere hasperena du hitzak hasieran.
- haritz *Harizavalleta.*  
Ipar Euskal Herriko hizkeretan hitzak hasperena du hasieran, *Reja*-ko adibideak <h> duen toki berean.
- harri *Arbelgoihen, Arriaga, Arzubiaga, Carrelucea, Harrieta, Harriolha, Harrizavallaga.* Badirudi bitan agertzen den *Harhazua*-n ere *harri* dagoela.  
Ondoko hauek ez dira hitzaren adibide seguruak: *Arbuslu, Argendonia, Argote, Argumaniz, Armendihi, Armentei*; cf. orobat *Hollarruizu* (*ola + harri + tzu?*); *Harhaia* ere ez da adibide seguru, lehen osagaia *harri* bada ez baita ulertzen gaur *Araia* izatea, eta ez *\*\*Arraia* (cf. gaurko *Arrazua, Reja*-n *Harhazua*).<sup>207</sup>  
Ipar Euskal Herriko hizkeretan hasperena du hitz hasieran; *Reja*-ko izenetan ez du beti ageri <h> grafema, eta, *Harhazua* kontuan hartuko ez bagenu, erdi eta erdi lirake <h>-rekin eta <h>-rik gabe agertzen diren formak. Adibide ez ziurrak gehituko bagenu, bestalde, nagusi lirake <h>-rik gabeko formak.  
Aipagarria da *Carrelucea* forma (gaur *Arlucea*, 1067ko Donemiliagako agiri batean *Harrilucea*), hastapeneko herskariak hasperenaren nolakotasunaren berri eman bailiezaguke; cf. bnaf. *kharbe* (*OEHS* s.v. *karbe*), Arabako *Peña Carria*, etab.
- hegi *Arzanhegi, Gelhegieta, Hegilior, Hegiraz, Heguiraz*; hitzaren adibide izan daiteke *Igahigi*; orobat *Heinhu*. Ik. behean *Gardellihi*; *Hararihini*-ren kasua ez da hain argia.  
-tegi aldaera: *Haztegieta, Salurtegi, Zornozaegi*; cf. agian *Armendihi*.

<sup>206</sup> *Hassarte*-ren <ss> digrafoak afrikatua adieraz lezake, edo igurzkari sabaikaria; egun *Ajarte* da, *Reja*-ko *Mendissur* eta *Bassauri* hurrenez hurren *Mendijur* eta *Bajauri* diren bezalaxe. Eztabaida honetarako, cf. halaber *Lassarte* eta *Essavarri*, digrafoaren balio ezberdinen adibide izan daitezkeenak.

<sup>207</sup> Izenaren lehen osagairako, cf. *Munio Lopez de Arhahuri* (*SMillán* 1104).

Hitzak <h> du adibide ziur guztietan, izan hitz hasieran zein barrenean. *Igahigi*-k ere <h> du, *Heinhu*-k bezala (*Heguinoa* dokumentatzen da 1308an, *Egino* da gaur). *Gardellihi*-ren kasua (gaur *Gardelegi*) esanguratsua izan liteke: itxuraz *hegi*-ren ordez dagoen *-ihi*-k ez du hastapeneko hasperenik, baina aipagarria da aurretik <ll> egotea, albokari bortitzaren adierazle izan litekeena (agian *Hollarruizu* eta *Betellogaha*-n ere gauza bera gertatu da, *olha* hitzarekin); hori, jakina, lehen osagaia *gardel* ezezaguna dela onartuta; beste aukera bat da *garde* dagoela (bere arazo semantiko larriekin, arrain izena baita), eta *-legi* dela atzizkiaren aldaera.<sup>208</sup> Txistukari eta dardarkari ondotik *-tegi* da agertzen den aldaera.<sup>209</sup>

Ipar Euskal Herriko hizkeretan hitzak hasperena du hitz hasieran, lekukotasun ziurretan <h> agertzen den toki berean.

huri

*huri*:- *Huriarte*, *Huribarri*, *Hurigurenna*, *Hurivari*, *Hurivarri*, *Hurizahar*; cf. halaber *Horivarri* eta *Hurrivari* desitxuratuak. Ez dago garbi hitzaren adibide den *Urriald*o (ik. behean *ur*).

*-huri*: *Atahuri de Iuso*, *Atahuri de Suso*, *Bardahuri*, *Bassahuri*, *Okerhuri*, *Sarricohuri*; cf. halaber *Haberasturi*, *Hobecori*, bere *huri* osagaien hasperenik ez dutena.

Ipar Euskal Herriko hizkeretan *hiri*-k hasperena du hitz hasieran; *Reja*-ko adibideen ia ehuneko ehunean agertzen da <h>

<sup>208</sup> Aldaera hau dardarkari ondotik agertu ohi da: cf. *Balcoe de Latorlegui* (*DocLeire* 1105), *Erlegi* (*ColRach* 1114; gaurko *Arlegi*), *Yrurlegui* eta, <ll>-rekin, *Yrurlegui* (*AGNComp1* 1259), *Beorlegui* (*ColRonces* 1203; baina *beortegui*, *SMig* d.g.). Inoiz txistukari ondotik ere, cf. *Ayzlegui* (*ColRonces* 1284). Lehen osagaiak hasperena izan ohi du, bigarren osagaiaren aldaera *-legi* denean: *behor*, *hirur*, *harri* (*erle*-ren aukera baztertuta *Erlegi*-rako) eta *haitz*; salbuespena *lator* ezezaguna da (zaila da *dator* adizkiarekin lotzea). Baliteke lehen osagaiko hasperenak disimilazio moduko bat eragin izana, *-h* > *-l*. Egiantzekoagoa izan daiteke, ordea, tarteko *-degi* proposatuta, *-degi* > *-legi* bilakaerarekin azaltzea (Joseba Lakarrari zor diot ohar hau); honen arazoa da *d* > *l* bilakaera hasiera absolutuan gertatu ohi dela, batetik, eta, bestetik, *-tegi* > *-degi* ordurako gertatua behar bazuen, *-tegi* formaren antzinatasunaz zerbait esan beharko genukeela.

<sup>209</sup> Ik. 5.2.6 atalean *-heta*/*-keta* atzizkien txandakatzeaz esaten dudana. *Hegi*-ren eta *heta*-ren hasperenak testuinguru bertuan emaitza ezberdinak izan zituela onartzeak bide eman lezake pentsatzeko jatorrian bi hasperen ezberdin zeudela euskaraz. Agian, Martineten eta Mitxelenaren aitzineuskararen sistema kontsonantikoaren barrenean, hasperenean ere ahul/bortiz oposizio proposa liteke, baina ez dugu aski daturik aukera hau sustengatzeko. Hualdek ere bi hasperen deskribatzen ditu (2003: 24-25), ahokaria eta sudurkaritua, baina bestelakoa da hauen azalpena: hasperen sudurkariak bokalarteko /n/ dute jatorrian.

grafemarekin; *Hobecori* da, izatekotan, salbuespen bakarra (osaeraz *Hobeko* + *huri* da, ustez, *FHV* 207), baina bestela ere ohartzekoa da izenaren bi osagaiak aski bat egirik daudela eta bigarren osagaia beste kasuetan baino gehiago laburtu dela (cf. *Sarricohuri* “osoagoa”); *Haberasturi*-ren kasua ezberdina da, *-t*-ondotik ezin gorde baitzezakeen hasperenik.

- ilhar(re) *Hillarrazaha, Hillardui.*
- (txilar) *Ilar* eta *ilarre* formetan agertzen da hitza *OEH*-ren arabera; badirudi Ipar Euskal Herriko hizkeretan *ilharre* forma dela nagusi, baina bada *hillarre* formaren adibiderik. Ez dago argi zergatik den eratorpeneko forma *ilarra-*, eskuarki bi silaba baino gehiagoko hitzek azken bokala galtzen baitute (cf. *itsaso/itsas-*, *iturri/itur-* eta *Hillardui* bera; *FHV* 127-128). Cf. bestalde *Monnio Alvarez de Ilharraz* (*SMillán* 1080), kartulario bereko beste agiri batean.
- lehor *Hegilior.*
- Euskara historikoan hasperena du hitzak bigarren silabaren hasieran; *Reja*-ko leku-izen honetan <h>-rik gabe agertzen da, bilakaera fonetikoa urrunago joan dela salatzen duen *-e-* bokalaren hersketarekin, gainera. Cf. hala ere kartulario bereko beste agiri bateko *Gundissalvo Scemenez Heguilior et Beila Gondissalvez Heguilior* (*SMillán* d.g.): leku-izen berean <h>-rekin zein <h>-rik gabe agertzen da *lehor*.
- olha *Harriolha, Mendiolha, Olhaerrea, Olhavarri, Zuhazulha;* ilunxeagoak dira *Barolha* (cf. agian *Barhoa*) eta *Hollarruizu* (*olha* + *harri* + *tzu?*). *Betellogaha* ere (egun *Betolatza*) hitzaren adibide dela dirudi, *behi* + *olha* + *-tza* analizatuta (Knörr 2000: 618).

Bere agerraldi guztietan <h> du hitzak, beti albokariaren ondotik; zalantzazkoa den *Hollarruizu*-n <h> hasieran agertzen da, baina ez dago argi ustezko hasperen lekualdatu hori (ik. Lakarra 2009b) hitzarena den, edo leku-izenaren osagaietako bat izan litekeen *harri*-rena (<ll>-ri dagokionez ik. *hegi*-n *Gardellihi-z* esandakoa); *Betellogaha*-k, hitzaren adibide ziurxeagoa izanik ere,

bere-bereak ditu transmisio arazoak (konpara bedi gaurko *Betolatza* formarekin), baina hala izanik ere aipagarri izan liteke honetan ere <ll> izatea.

Ipar Euskal Herriko hizkeretan hitzak historikoki hasperena du albokariaren ondotik.

hondo

*Zalduhondo.*

Leku-izen honetan bigarren osagaia *hondo* dela pentsatu dut; *ondo* ere izan zitekeela pentsa zitekeen, eta <h>-ak hitz elkarketako hasperena adierazten duela (*FHV* 211-216), nahiz eta euskara historikoan konposaketaren lehen osagaia silaba bakarrekoa izan behar den: cf. Leizarragaren *gauherdi* baina *eguerdi*. Lakarraren ustez (2009a), gainera, ez dago aski irozgarririk hasperen horiek elkarketaren ondorioz sorturikoak direla esateko.

Ipar Euskal Herriko hizkeretan *hondo*-ren hasperena ez da orokorra, baina, kontuan hartuta errom. *fondo* dela bere jatorria, inoiz hasperena izan behar izan du.

zahar

*Hurizahar.*

Ipar Euskal Herriko hizkeretan hitzak hasperena du bigarren silabaren hasieran.

zuhatz

*Zuhazu, Zuhazu, Zuhazu, Zuhazulha.*

Hitza *zuhaitz*, *zuhatz* eta horrelakoekin konparatzen badugu Ipar Euskal Herriko hizkeretan hasperena duen toki berean dute <h> *Reja*-ko adibideek.

#### 4.3.2.2 Gaurko euskararen hasperenik ez duten hitzak

Iparraldean dokumentatzen diren hitzak eman ditut lehenik:

(3) aberats

*Haberasturi.*

Hitza orokorra da euskal eremuan, baina ez du euskara historikoan hasperenaren aztarnarik. Ez da egiantzekoa *-huri*-ren hasperena izenaren hasierara lekualdatu izana.

ametz

*Hamaezaha.*

Hitza orokorra da euskal eremuan, baina Ipar Euskal Herriko

lekukoetan ez da sekula hasperenduna.

elge

*Helkeguren.*

Hitza iparraldean dokumentatzen da historikoki, baina beti *elge* formarekin, *Reja*-ko *helke*- formak adieraz lezakeen hasperenaren aztarnarik gabe. Ipar Euskal Herriko hasperen falta *\*helkhe* > *\*elkhe* > *\*elke* > *elge* moduko bilakaera baten bidez azaltzeak arazo gehiegi lituzke.

Historikoki mendebaldean baizik dokumentatu ez diren hitzak ematen ditut ondotik; lekukotasun hauekin ezin ditugu Ipar Euskal Herriko lekukotasun historikoak erabili <h> grafemaren hasperentasuna neurtzeko:

(4) azkar

*Hascarzaha.*

*Reja*-ko adibidea *azkar* ‘astigar’ hitzaren adibide gisa har liteke, abiaburu moduan behintzat, baina horretarako onartu beharko genuke igurzariaren neutralizazioa gertatu dela. Garai historikoan hitza mendebaldean baizik ez da dokumentatzen, eta jatorrian izan zezakeen hasperenaren aztarnarik ez da geratu, hortaz. Dena den, *azkar* ‘astigar’-en jatorri etimologikoa *hazi*-n balego (ik. *EHHE* s.v.), *Hascarzaha* leku-izenak jatorrizko hasperena gorde lezake. Esan bezala, hipotesi honen aurka dago <s> izatea bere lehen igurzkaria, apikaria itxura guztien arabera. Arazo hau gainditzeko, *hasi* aditzetik abiatzea litzateke aukera bat, baina esanahiaren gorabeherak ez lirateke argiak.

azu

*Hazua, Harhazua, Harhazua.*

*Azu, asu* ‘sasi’ hitzaren adibide izan litezke; hitza mendebaldekoa da, eta jatorrian izan zezakeen hasperenaren aztarnarik ez da geratu, hortaz. *Asun* hitzarekin lotzerik balego, kontuan hartzekoa litzateke hitz hau hasperenduna dela iparraldean.

4.3.2.3 *Zalantzazko kasuak*

- (5) ur *Uarte, Urbina*. Cf. halaber *Húrnaga*<sup>210</sup> eta *Hurabagin* hitzaren adibide ez hain ziurrak; orobat *Urriald*.  
Hitzaren adibide ziurretan ez dago <h>-rik. *Uarte*-n hasperenik ez izatea bilakaera erregularra litzateke, Lakarraren arabera (2012: 674, 41 oh.); zailagoa litzateke azaltzen *Urbina*-ren hasperen falta, baina bestela ere bere osaera ez da argia.
- Ipar Euskal Herriko hizkeretan ere hasperena ez da orokorra, baina zuberazko *hur* jo daiteke hitzaren jatorrizko formatzat (ik. *EHHE* s.v.).
- haran Adibide ziurrik ez da; cf. agian *Arangiz*; ilunagoa da *Hararihini*.  
Egungo Ipar Euskal Herriko hizkeren arabera hasperenaren izaera ez da argia (zub. ez du hasperenik; ik. *EHHE* s.v.). Erdi Aroko hainbat lekukotasunetan hastapeneko <h> (edo beste adierazpen grafiko) batekin agertzen da hitza: cf. *Faranlucea* (*SMillán* 947), *Haralarre* (*GuipAlb* 1025).
- herri *Ermua*.  
Ez dirudi *herri* denik *Ermua* leku-izenaren (gaur *Hermua*) lehen osagaia; izena errom. *yerma*-rekin dago lotua ziur aski (cf. eusk. *eremu*); Bizkaiko herria adierazten duen izenaren jatorri bera baldin badu, aipatzekoa da *-a* ez duela berezkoa, eta, beraz, inork proposa lezakeen *herri* + *muga* etimologiak indarra galtzen du.
- zuhur *Mendissur*.  
Zaila da izen honen osaeran *zuhur* ikustea; <ss> grafiaz ik. goian *haitz*.

4.3.2.4 *Bestelakoak*

*Reja*-ko *Lehete* Ipar Euskal Herriko *Lehet(e)* deiturarekin konparatu behar da: cf. *Aner*

<sup>210</sup> *Reja*-z egin den ediziorik modernoenean ez dira azentu grafikoak adierazi: *Húrnaga* eta *U'arte* irakurtzen dira jatorrizkoan; adierazgarria da lehen adibidea, tilet bidez adierazi den azentuak sinkopa eragin baitu; egun, gainera, azentua bestelakoa du, eta *Urrúnaga* da forma osoa (Knörr 2000: 611); azentu honek ez du bat egiten *-aga* atzizkidun izenek dutenarekin, ik. 5.3.3 atala. Cf. halaber *Úrbia*-ren azentua: gaur oraindik hala ahoskatzen dute hainbat arabarrek.

*de Lehet* (*LivOr* 1233), edo, beranduago, Etxepareren obraren eskaintzako *Bernard Lehete* eta besterekin; aipagarria da beste agiri bateko *Lekete* forma (*SMillán* 952), <h> izan beharrean <k> baitu.

*Zuhia Barrutia* izena, bestalde, *zubi* hitzaren aldaera da, eta egun *Zuia* da; aipatzekoa da *Reja*-ko bertako *Zuffia* ere, *-b-*, *-f-* eta *-h-* hotsen arteko hirukoa osatu bailezake (cf. bnaf. *ofe* ‘ohe’, Mitxelenak tarteko *\*obe* batetik eratortzen duena, *FHV* 266).

#### 4.3.2.5 Transmisioan gorabeherak izan ditzaketen adibideak

*Mendihil* erratatzat jo ohi da (Mitx XII 33), egun *Mendibil* baita, baina, *Zuhia*-ren adibidearekin konpara liteke, eta pentsatu gerora arrakastarik izan ez zuen *-b-* > *-h-* bilakaeraren adibide dela. *Heinhu*-ri dagokionez ik. goian *hegi*; *Betellogaha*-ri dagokionez, ik. behean 4.4 atala.

*Oronda*-ren kasuan, baliteke eskribauak hastapeneko <f>-rik jarri ez izana, hiperzuzenketa grafiko moduko batengatik edo (<f>-k hasperena adieraz zezakeen); gaur egun *Foronda* dugu, eta hau berau dago beste agiri batean (*SMillán* 984).

#### 4.3.2.6 <h> grafemak /g/ adierazten duen adibideak

Arizaren lanean (2008: 155, 160) deskribatzen denaren arabera, <h> grafema /g/ belar ahostuna adierazteko erabil zitekeen.<sup>211</sup> *Reja*-n ere aurki litezke horrelako adibideak: *Armendihi* eta *Gardellihi* batera har daitezke, pentsatuz bigarren osagaien *-hegi* dagoela;<sup>212</sup> *Heinhu*-ren kasua nahasixeago da, jatorrian *hegi-* dagoela onarturik ere ez baitago argi zein <h>-k adieraz lezakeen /g/ belar ahostuna. *Reja*-tik kanpo, cf. *Ereihehi* (*SMillán* 871), *Eiheregi* agian (ohar bedi Araban eta Bizkaian ez dagoela Erdi Aroan *eihera* hitzaren adibide ziurrik, *EHHE* s.v. *eihera*).

*Hurabagin* adibideak bestelakoa dirudi: *-ahin* amaiera duten *Agurahin*, *Anduiahin*

<sup>211</sup> Bere adibideek, hala ere, belar ahostun zein ahoskabearenak dirudite.

<sup>212</sup> Badirudi *Armendihi* hau gaurko Trebiñuko *Armentia* dela; osaez *armen* + *-tegi* baldin bazen, ez da zaila azaltzen *-tegi* > *-ti* bilakaera, Araban bai baitira horrelako adibideak: cf. *Reja*-ko *Salurtegi*, gaur *Sallurti* (1873an ere bai, *TopAlav*); Iburguen-Cachopínek bi esanahi ematen dizkio *armen*-i: “ganado menudo” eta “montón de piedras”. Arabako beste *Armentia*, Gasteizkoa, *Armentei* agertzen da *Reja*-n (*Armentegui* 1086an).

eta *Munniahin* aintzat hartuta, pentsa liteke <g>-k, Arizaren deskripzioaren aurka, hasperena adierazten duela;<sup>213</sup> beste aukera bat da pentsatzea, jakina, *-ahin* horietan denetan *-agin* dagoela. *Sagassaheta* ere ez da eztabaida honetarako adibide garbia: <g>-k besterik gabe /g/ adierazten duela pentsa daiteke, eta *sagar* dagoela leku-izenaren oinarrian (*sagats* baino hobeki; cf. 1089ko *Sagarzaheta*); bestela, <g>-k /h/ adierazten duela pentsatu nahi badugu, leku-izenaren oinarrian *sahats* dagoela onartu beharko genuke.

Hurrengo ataletako eztabaidarako, *Hamaezaha* da leku-izen esanguratsuen: gaur *Amétzaga* da, eta, hortaz, argi xamar dago <h>-k kasu honetan /g/ adierazten duela; baliabide grafiko baten aukera hutsak eraman ahal izan du kopista *-zaha* idaztera, baina baliteke, *Hamaezaha*-ren kasuan, *-zaha* amaiera duten hitzen ugaritasunak ere eragin izana *-zaha* eta ez *-zaga* idaztea (cf., *-aga* amaierarekin, *Arzubiaga*, *Elhorriaga*, *Harrizavallaga*, etab.). Arazoak arazo, *-aga* atzizkiaren lekuko izan liteke *Arroiaha* bera, López de Gereñuk dakarren 1731ko *Royaaga* izenarekin berdintzen badugu; orobat *senior Alvaro Gonçalvez Delhorriaha* (*SMillán* 1087),<sup>214</sup> *de Elhorriaga* interpretatzen badugu (*Helhorriga* ere bada, 871n). Hauetan *-aga* baldin badago, <h>-k /g/ adierazten dueneko adibide gehiago genituzke. Ik. II.2 eranskina.

#### 4.3.3 Laburpena eta ondorioak

Atal honek helburu zehatz bat izan du: *Reja*-ko <h> grafemak hasperena adieraz dezakeela ziurtatzea. Horretarako, agiriko euskal hitz <h>-dunak bere Ipar Euskal Herriko oinordeko modernoekin konparatu dira. Sei puntutan laburbil daiteke emaitza, betiere adibide ziurak bakarrik hartuta:

<sup>213</sup> Badira Donemiliagako kartularioan hasperena adierazteko <g> erabili deneko adibide garbiak: cf. *Monnio Garan* eta *Munnio Gharanna* (*SMillán* 1067 eta ~1174), *haran* hitzaren adibide; *Hurabagin*-en kasua hitz barneko <g>-ren adibidea litzateke. Bide honetatik, *Reja*-ko *Gogate* (egun *Otxate*) *Hotxate* letralda daitekeela dirudi: hastapeneko <G>-k, aurreko adibideetan bezala, /h/ adieraz lezake, eta barreneko <g>-k afrikatua adieraz dezakeela ezaguna da (Ariza 2008: 161). Horrek guztiak, bistan dena, etimologiarako ondorio esanguratsuak ditu, *otso* hitzaren oinarrian *hor* ikusi nahi badugu (Lakarra 2012: 698). Bestalde, izen berean <g> grafema bi baliorekin ager daitekeela erakusten du *Sangogarcez* (*DocMont* 1086) adibideak. Egiteko dago, euskal lekukoei dagokienez, grafiaren eta hotsen arteko harremanari buruzko azterketa zehatua.

<sup>214</sup> Andrevaren edizioak (2010: 829) *de Horriaha* irakurketa dakar, baina originalean argi irakurtzen da *Delhorriaha*.



- (a) Hasperena hasieran dutenen artean (*haitz, haritz, harri, hegi, huri* eta *hondo*) *Reja*-ko adibide ia guztiek dute <h> gaur hasperena gorde duten euskalkiek hasperena duten tokian. Salbuespen bakarra *harri*-rena da: hitz hau duten leku-izenen artean erdiak baizik ez du, estu hartuta, <h> grafema; ez dago argi zergatik den hala, baina baliteke hitz jakin horren hasperenak izaera berezia izatea, *Carrelucea* leku-izenaren herskaria lekuko. Martineten hipotesiaren irozgarri moduan har liteke (1950), azken buruan desagerturiko jatorrizko herskariaren adibide gisa (ik. goian *karbe*); baina adibidea bakarra litzateke, eta horrek ahultzen du proposamena.
- (b) Albokari ondotik hasperena duten hitzetan ere (*elhorri, galhar, ilhar(re)* eta *olha*) <h> dute *Reja*-ko adibideek, oro har. Adibide aipagarri bakarra *ilhar(re)*-rena da: izan ere, *Reja*-ko bi adibideetan <h> izenaren hasieran agertzen baita, ez albokariaren ondotik. Baina gogoan hartzekoa da Lakarrak deskribatzen duen \**hVR*- > *VRh*- hasperenaren lekualdatzea (2011[2014]: 191); cf. *onherran, onhetsi* eta *onhest*, besteren artean (< \**honerran, honetsi, honest*), eta aitortu beharra dago *hillarre* aldaera ere dokumentatua dagoela iparraldean (cf. halaber *txilar* aldaera).
- (c) Hasperena bokalarrean dutenen artean (*lehor, zahar, zuhartz* eta *Lehete*) *Reja*-n <h>-rik gabe agertzen den bakarra *lehor* da, baina *-lior* forman, hitzaren higatze fonetikoak bere bidea egina zuela adierazten duena (elkartuetan, batez ere bigarren osagai moduan erabiltzen zelako, ziur aski).
- (d) Adibide guztiak zenbatuta,<sup>215</sup> 47tik 40k dute <h> euskara modernoan hitz horiek hasperena duten tokian, eta salbuespenak hauek dira: *Arbelgoihen, Arriaga, Arzubiaga, Hegilior, Hilarrazaha* eta *Hillardui*. *Carrelucea*, goian esan bezala,

<sup>215</sup> Hau da zerrenda osoa, dagokion erroaren edo osagaiaren <h> nabarmenduta: *Elhorriaga, Elhossu, Elhorzahea, Galharreta, Haizcoeta, Haizpilleta, Hassarte, Hazpurua, Harizavalleta, Arbelgoihen, Arriaga, Arzubiaga, Carrelucea, Harrieta, Harriolha, Harrizavallaga, Arzanhegi, Gelhegieta, Hegilior, Hegiraz, Heguiraz, Huriarte, Huribarri, Hurigurrena, Hurivari, Hurivarri, Hurizahar, Atahuri de Iuso, Atahuri de Suso, Bardahuri, Bassahuri, Okerhuri, Sarricohuri, Hilarrazaha, Hillardui, Hegilior, Harriolha, Mendiolha, Olhaerrea, Olhavarri, Zuhazulha, Zalduhondo, Hurizahar, Zuhazu, Zuhazu, Zuhazu, Zuhazulha*. Kanpoan geratu dira osagaien identifikazio argirik ez zutenak, izen arrunt ezagunekin berdindu ezin direnak (cf. *Lehete*), dagokion erroa desitxuratua dutenak (*Horivarri, Hurivari*) eta elkarketako gertakariengatik hasperenik ezin izan zezaketenak (cf. *Haberasturi* eta *Hobecori*, zeinetan *huri* osagaia ezin ager zitekeen <h>-rekin).

bestelako kasua da. Estu harturiko salbuespenak dira hauek, *Hilarraza* eta *Hillardui*-ren kasuan, adibidez, hasperenaren gorabeherak ez baitaude argi *ilhar(re)* hitzean (ik. goian eztabaida). *Hegilior*-en kasuan, esan bezala, *lehor*-en hatxerik gabeko aldaera ez agertzea ondo azal daiteke. Salbuespen garbi bakarrak, nire ustez, *harri*-renak dira; hauetan <h> ezak bi gauza adieraz litzake, halere: hasperena ez zela grafikoki adierazi, edo hasperena galdua zutela leku-izen horiek (bigarren kasu honetan, jakina, ez genuke benetako salbuespenik grafiari dagokionez); aipagarria izan daiteke, dena den, hasperenik ez duten *harri*-ren hiru adibide hauetan *-aga* eta *-en* D-elementuak izatea leku-izenaren osagai moduan.

- (e) Hiru baizik ez dira (*Haberasturi*, *Hamaezaha* eta *Helkeguren*) lekuko modernoan arabera hasperenik beharko ez luketen baina *Reja*-n <H>-rekin agertzen direnak, beti hasieran. Ez da erraza jakiten nondik norakoak diren <h> horiek, hasperena adierazten duten ala grafikoki hiperkarakterizaturiko adibideak diren; bigarren aukera honen arabera, <h>-k balio fonetikorik ez lukeen adibide ziur bakarrak lirateke hiru hauek; balio huts hau, jakina, ongi dokumentatua dago Erdi Aroan ere (Ariza 2008: 160).
- (f) Bigarren mailako balio fonetikoa ere izan dezake <h>-k, /g/ belar ahostunarena (cf., ziur antzean, *Armendihi*, *Gardellihi*, *Hamaezaha*).

Sei puntu hauetatik haxe ondoriozta daiteke: <h> grafemaren balio fonetiko nagusia hasperenarena da *Reja*-n. Hizkuntza erromantzeetan eta arabieraz ere agertzen da grafemaren balio hau (Ariza 2008: 160).

#### **4.4 -a artikulua *Reja*-n**

Euskal artikulua duten leku-izenak zerrendatu ditut, alde batera utzirik zalantzazkoak izan litezkeen kasuak; hauen artean nagusi dira *-a* amaiera izanik ere artikuludun diren ezin erabaki ditzakegunak, hain zuzen toponimoaren osaera bera iluna delako eta ez dakigulako zein diren ustezko *-a* artikulua aurretik dauden osagaiak: cf. *Arina*, *Barhoa*, *Eztarrona*, *Gamarra*, *Gessalva*, *Oquina*, etab.

Hauek dira, honenbestez, *-a* artikulua duten leku-izenen adibide ziurak:

*Ubarundia, Larrea, Hazpurua, Hurigurenna, Zavalla, Zuhia Barrutia* (izenaren bi osagaietan), *Olhaerrea, Carrelucea, Kessalla* (gezal hitzaren adibidetzat hartu dut), *Zuffia de Suso* eta *Zuffia de Iuso*; *Hazua* eta *Harhazua* ere, mendebaldeko *asu* ‘sasi’ hitzaren adibide baldin badira, artikuludunak lirateke; orobat *Ermua*, errom. *yermo* eta eusk. *eremu*-rekin lotzen badugu.

Aurreko lan batzuetan ohartarazi bezala (Manterola 2006, 2008, 2009), baliteke *-ha* duten zenbait leku-izen artikuludun izatea. Hauek dira *Reja*-n *-ha* amaiera duten leku-izenak: *Adurzaha, Aialha, Arroiaha, Artazaha* (Axkoeta ondokoa), *Artazaha* (Legarda ondokoa), *Betellogaha, Gersalzaha, Hascarzaha, Hillarrazaha, Otazaha, Udalha*. Hauen artean sailkapen nagusi bat egin daiteke: *-zaha* amaiera dutenak — *Betellogaha* barne, egun *Betolatza* baita, eta bai baitirudi desitxuratua dagoela (Mitx XII 33)—,<sup>216</sup> eta beste guztiak, hots, *Aialha, Arroiaha* eta *Udalha*. Azpiatal banatan aztertu ditut bi sailotako leku-izenak.

Hauetaz gain, hauek aipatu behar dira *-ha* amaierako leku-izenei buruzko eztabaida honetan: *Barizahaza, Berrozihavi, Elhorzahea* eta *Larrahara*. Erraz pentsa liteke *Barizahaza*-n, gaur Trebiñu Konderriko *Pariza*, azken *-za* errata bat dela, baina leku-izen horrek historian zehar agertzen dituen aldaerek (*Pariçioça, Parizcicua, Parizuza...*) kontua uste baino konplikatuagoa dela iradokitzen dute; *Elhorzahea*, gorabeherak gorabehera (ik. 4.4.2.2 (c) atala), *-zaha* dutenen sailean sar daiteke, *Elhorzaha* forman ere agertzen baita (SMillán 1129). *Berrozihavi*-ren kasuan, goian esan bezala, baliteke *-havi* (edo *-havi*) atzizki moduko bat izatea, eta bide horretatik zilegi izan liteke *-ha* atzizkiarekin lotzea; datu gehiagoren faltan, jakina, ezin da ezer erabaki. Orobat gertatzen da *Larrahara*-rekin; gaurdaino *Larrara* forman iritsi da. Honenbestez, hauetarik *Elhorzahea* baizik ez dugu kontuan hartuko *-ha* amaiera dutenekin batera.

Leku-izen hauetan guztietan <h> grafemak hasperena adierazten duela ondorioztatu dut, ez baitago inongo zantzurik /g/ adierazten duela pentsatzeko: esaterako, *Adurzaha, Artazaha* eta besteren gaur egungo formak *Adurtza, Artaza* eta

<sup>216</sup> Beste agiri batean bi formatan agertzen da: cf. *Betolazha* eta *Betelozha* (SMillán 1062).

abar dira, eta ez dira inoiz **\*\*Adurtzaga** edo **\*\*Artazaga** bezalako aldaerak dokumentatzen leku-izen horietan; azentuari dagokionez, gainera, *Adúrtza* modukoak ditugu gaur, ez **\*\*Adurtzá** (-aga atzizkiak Arabako leku-izenetan duen azentu markaturako, ik. 4.3.7.3 atala).

#### 4.4.1 -ha amaiera Reja-ko eta Erdi Aroko beste agiri batzuetako leku-izenetan

Gogoan hartuta -a artikulua jatorritzat *\*(h)ar* itxurako erakuslea hartu ohi dela (2.1 atala), -ha duten lekukoak aurkitzeak jatorrizko formatik hurbilagoko datuen berri emango liguke.

Bukaeran -ha soila duten *Reja*-ko leku-izenak *Aialha*, *Arroiaha* eta *Udalha* dira; hauetan artikulua dagoen erabakitzeko, ezinbestekoa da ustezko artikulua ezkerretara dagoen osagai nagusia identifikatzea. Hiru kasu hauetan ez da erraza, ordea, eginkizun hori.

- (a) *Aialha*-ren kasua da ilunena. Ez dago modurik, ditugun lekuko arabera, *aial* moduko errorik bereizteko: gure corpusean ez du emaitzarik eman *aialtza*, *aialegi*, *aialtzu*, *aialeta*, *aialaga* modukoak bilatzeak; *Aial* eta *monte Aial* (*OnomVasc13* 1804 eta 1806), berantiarak izatez gain, badirudi hobeki azaltzen direla gazt. *hayal* ‘pagadi’-ren bitartez, cf. *monte haial* (*OnomVasc13* 1809). *OEH*-n, jakina, ez dago *aial* moduko hitzik. *Aiala*-ren beraren osaera azaltzeko, agian *aia* osagaia bereiz genezake: cf. López de Gereñuren leku-izenen artean, cf. *Ayamendi* (1737), *Ayaosta* (1710), *Ayarro* (1695); baina -l- zeri legokiokeen ez legoke argi.
- (b) *Arroiaha*-ren kasua bestelakoa izan daiteke. Gaurko *Arroiabe* da, eta hau *arroiabe* zatitzeak bide eman lezake *Arroiaha*-ko -ha osagai morfologiko beregaina zela pentsatzeko. Bestalde, onar daiteke *arroi* osagaiak Arabako toponimian beregaintasun moduko bat duela: cf. 1753ko *Arroyaburu* (*Arroyagaburu* 1713an, itxuraz), *Arroyacheta* eta *Arroyalde*. Agian *arro* hitza ikus genezake erro nagusi moduan, artikuluaekin eta -i- epentetikoarekin: cf., betiere López de Gereñuren adibideen artean, *Arrua* (1827), *Arrue* (1712), *Arruia*, etab.; cf. halaber *Arroyandi*

(*ArchZest* 1479).<sup>217</sup> *Arroiaha* bera horrela azaldu nahi bagenu, ordea, zailtasun nagusi bati egin beharko genioke aurre, onartu beharko baikenuke aski garai antzinakoan *Arroiaha*-k bitan hartu zuela artikulua: *arro* + *-a* (> *arroia*) + *-ha* (> *arroiaha*). Gainera, ez da inolaz ere baztertzekoa kasu honetan ere <h> grafemak /g/ adieraztea, *Arroyaga* bera dokumentatua baitago (1587).

- (c) *Udalha* izan liteke, ustez, kasurik argiena, *udal* hitzarekin lotzen badugu. Baina honen aurka dago *udal* hitzaren izaera bera, izen arrunt moduan XX. mendetik aurrera baizik ez baita dokumentatzen euskaraz; gainera, *OEH*-n izendatuki esaten zaigu balitekeela Erdi Aroko lekukoek *udal* hitzarekin zerikusirik ez izatea. Arazo horiek alde batera utzirik, Erdi Aroko lekukoetan oinarrituta *udal* erroa bereiz dezakegun erabaki behar dugu lehenik; corpusean, ordea, ezin izan dut aurkitu horren aldeko lirakeen *udalaga*, *udalegi*, *udaltza* edo *udaleta*<sup>218</sup> modukorik. Bestelakoak izan daitezke *Garsias Udalbeeco de Igusquicia* (*SJuan* 1196), *Garcia Udalveco* (*SJuan* XIII. m.) eta *vinea de Udal ondoa* (*SJuan* XIII. m.); hauetan *udare* hitzaren elkartuetako forma ikusi ohi da, azken bokalaren galerarekin (cf. *abere/abel-*, *FHV* 317), eta, hortaz, ez dirudi zerikusirik luketenik *Reja*-ko *Udalha*-rekin (Orpustan 1999: 345, Salaberri 2014).<sup>219</sup>

*Reja*-ko *Udalha*, honenbestez, analisi zailekoa da, eta, *udal* + *-ha* osaera erabat baztertzekoa ez bada ere, ezin da ziur esan artikulua zela amaierako *-ha*; Orpustanek (op. cit.), esaterako, *uda* + *alha* osaera proposatzen du.

*Reja*-tik (eta Arabatik) kanpo, berriz, bereziki aipagarria da *Salaha*-ren kasua:<sup>220</sup> cf. *don Pere Arnalt de Lucxa*, *seynnor de Salaha* (*AGNRealIII* 1294), *don Remon Arnalt de Salaha*, *alcayt del castieylo de Sant Iohan de Pie del Puerto* (*AGNRealIII* 1321),

<sup>217</sup> Orpustanek (1999: 237) gazt. *arroyo* ikusten du *Arroiabe*-ren osieran; nire ustez, ez dago horretarako arrazoirik.

<sup>218</sup> *Udalaga* bat dago Elgetan (*OnomVasc21* 179 or.), baina besteren faltan ezin da jo adibide esanguratsutzat; orobat *Udaeta*-ren aldaera gisa behin agertzen den *Udaleta* (*OnomVasc22* 354 or.).

<sup>219</sup> Orpustanek *Garsias Udalbeeco* izena *Udalha*-rekin batean dakar, eta *Udal ondoa* izena *udare*-rekin; nire ustez, ordea, ez dago arrazoirik bi *udal*- horiek jatorri ezberdinekotzat jotzeko, are gehiago aintzat hartuta ondotik dituzten *-ondo* eta *-be* osagaiak kidekoak direla. Mitxelenak (X 145) *udaletxe* sarrerapean dakartzu *Udala* leku-izena eta Erdi Aroko *Udal ondoa*, Kantabrian ere *Udalla* dagoela gogoratuz.

<sup>220</sup> Iñaki Caminori eskertzen diot hauetako batzuen berri eman izana.

gaurko Nafarroako muga-mugan —Valdonsellakoa da, itxuraz— *la eglesia de Salaha* (*DocSos* ~1350) eta Aiziritzen *Bertran de Salaha* (*CenBNav* 1353), besteak beste.

Adibide hau esanguratsua da, izan ere *sala* osagaia ezaguna baita: jatorri germanikoko hitza da, euskarara hegoaldeko hizkuntza galo-erromantzeen bitartez sartua; Galorromania iparraldean ‘gela (nagusi)’ adierazten zuen, baina hegoaldean ‘jaunaren bizitoki’ adiera garatu zuen, eta leku-izen gisa ere agertzen hasi zen (iparrean ez hain maiz). Hauxe da euskal eremuan duguna. *Sala* forma erromantzearen barrenean azaltzen da, *halla* ‘toki, gela estali’ germanikoaren eraginez (Wartburg s.v. \**sāl*). Okzitania zaharrean *sala* forma dugu, bearnesez *sale* (cf. halaber fr. *salle*).

Lehen osagaia ezaguna izanik —baita euskal izendegian ere, cf. *Salaberri*, *Salaburu* deiturak—, eta aintzat harturik erromantzez *Lasala* edo *Lasalle* moduko artikuludunak badirela, zilegi da *Salaha*-ren bigarren osagaia euskal morfologiaren bidez azaltzen saiatzea, eta *-ha* hori artikulua dela esatea.

*Salaha*-z gainera, badira *Salha*, *Salhea* eta *Saleha* aldaerak ere.<sup>221</sup> Leku-izenetatik kanpo, bada *salha* aldaera izen arrunt gisa, baina, dirudienez, XIX. mendearen bigarren erditik aurrerakoak dira adibide guztiak (*OEH* s.v. *sala*). Nire ustez, leku-izenetako aldaera horiek are gehiago argitu lezakete arazoa. Hasteko, hauetan guztietan hatxea ezin da azaldu erromantzearen barrenean: kontu grafiko hutsa baldin bada, ez dago argi zer funtzio lukeen hizkuntza erromantzeak idazteko dauden ohitura grafikoaren barruan, ez baitirudi <lh> duten kasuetan (*Salha* eta *Salhea*) /ll/ albokari sabaikaria adierazi nahi denik (*Salfa* ere horren aurka legoke), eta hasperena ote dagoen aztertu nahi badugu, gogoan hartzekoa da jatorrizko formak ez duela hasperenik (\**sal* edo *sala/sale*).<sup>222</sup> Are

<sup>221</sup> Adibide gehiago dakartza Goihenetek: *Rémon Arnaut, seigneur de Salaha* (1322), *Bertrand de Salaha* (~1327), *Petrus Arnaldi de Salaha* (~1327), *Lupus Aznarii de Salaha* (~1327) etab. Beste aldaera batzuk ere badira: *Salha*-rako, cf. *Gilem Furt de Salfa* (*CartSord* 1125; hau da hitzaren adibide zaharren, Orpustanen arabera, 2000: 131), *Menaut de Salha* (*CenBNav* 1412), *La Sale de Salha* (*CenBNav* 1412) etab., Aiziritze eta Donapaleukoak; badira halaber *seigneur de Salhea* eta *seigneur de Saleha* (1378). Adibide gehiagorako, ik. Goihenetxe (2011: 223-225).

<sup>222</sup> Santanok (2008: 234) “labortano *salha* (cf. gascón *salhe*)” dakar, baina nik ez dut aurkitu aldaera hori gaskoierazko edo bearnesezko hiztegiatan (Palay, RayLesp edo Wartburg). Bada Galorromanian \**salha* ‘sahats’, jatorri germanikoa duena (ik. Wartburg s.v.), baina ezin da euskal hitzarekin lotu, euskal eremutik aparteko tradizioa baitu.

gehiago, kontu grafiko hutsa izatea oso da zalantzazkoa: jatorrizkoak *Salaha* eta *Saleha* direla onarturik, *Salhea* edo *Salha* bezalakoetan ez legoke argi nolatan lekualdatu den <h> grafema, hain zuzen ere bere funtzio grafikoa galduko bailuke; hortaz, <h> horrek hasperena adierazten duela pentsatzea da egiantzekoena, eta hasperena izan dela lekualdatu dena.

Goihenetxek, hipotesi klasikoaren bidetik, honela azaltzen ditu *Salaha*, *Salha*, *Salhea* eta *Saleha*: “Maintien ou déplacement de *h-* pour éviter les hiatus et voyelles doubles” (2011: 551); ez du argi adierazten hiatoak apurtzeko <h> erabiltzea bere ustez kontu grafiko hutsa den ala gertakari fonetiko baten isla, baina, esan bezala, nire iritziz hasperenaren (ez <h>-ren) lekualdatzeaz baizik ezin da hitz egin *Salha* eta *Salhea* adibideak azaltzeko.<sup>223</sup> Hori guztia hala izanik, hasperen horren izaera zehaztea baizik ez da falta, eta, nire ustez, jatorrizko morfologiari, hau da, *-ha* artikuluari dagokio; hasperenaren murriztapenak gogoan hartuta (*FHV* 215), nekez justifika daiteke hitz baten hirugarren silaban hasperen bat sortu izana, are gutxiago gramatikalizaturiko eta berez fonikoki urritua den osagai baten aurrean. Hitz arrunt gisa, baliteke beste azalpenen bat behar izatea XIX. mendeko *salha* aldaera azaltzeko; *salhatu* aditzaren oihartzunez sortu ote zen?

Artikuluaren *-ha* aldaeraren adibide izan liteke, orobat, *Lauoha* (*DinChampI* 1234), gaurko *Laboa*, Lizoaingo herri hustua. Izena, dena den, zaila da analizatzen: ez da egiantzekoa bere osieran *labo* ‘ikusmen txarreko’ egotea, eta, agian, hobe da *lau* ‘ordoki’-tik abiatzea. Orobatsu *la barhoha* (*OnomNord* 1479): lehen osagaia *\*bar* ‘behe’ izan liteke (cf. *barren* eta beste), izan ere izen hori Zuberoako Pettarra eskualdea izendatzeko izen zaharra baita, hain zuzen Zuberoako iparraldean dagoena, mendi altuenetatik urrutien, behean; ez dago argi, dena den, zer litzatekeen *-ho*; cf. Arabako *Barhoa* (*SMillán* 1025), gaur *Barrón*, baina herri hau mendialdera dago, egotekotan.<sup>224</sup> Ziurxeagoa dirudi, osaera ezagunekoa dirudien neurrian, Armendaritzeko *vedado de*

<sup>223</sup> Euskal lekukoak azaltzeko ez da egiantzekoa germ. *\*sal*-etik abiatzea, eta euskaraz *\*sal-ha* > *salha* gertatu dela pentsatzea.

<sup>224</sup> Agian, Arabako izena aintzat hartuta eta Zuberokoaren kideztat jota, jatorrian *-n-* bat zegoela pentsa liteke, eta *barhoha* lekukoa *\*bar + hon + -a* analizatu, bokalarteko *-n-*ren galerarekin; kasu honetan izenaren bigarren hatxea ez litzateke artikulua, jakina.

*Sorhoha* lekukotasunak (*OnomNord* 1364; *soro* + *-a* ulertu dut).<sup>225</sup> Azkenik, Arabara itzuliz, cf. Opakua eta Okariz arteko *Azaeha* (*ArchSalvatIV* 1469) lursaila, baina itxura susmagarria du: ezin da baztertu idazte huts bat izatea, eta ez da erraz analizatzen; cf. agian Opakuko *Azca* (*TopAlav*), edo urrutixeagoko Txintxetruko *Azasolo* (*TopAlav* 1716).

Laburdilduz, zaila da erakustea artikulua dagoela *Reja*-ko izenetan *-ha* soila duten hiruretan; *Udalha*-rena izan liteke adibide erakargarriena, baina argitu gabeko xehetasun gehiegi dago. *Reja*-tik kanpo, ordea, baliteke adibide ziurragorik izatea; *Salaha* edo *Sorhoha*-renak, esaterako. Adibide hauek euskal eremuko ekialdekoak dira, garai historikoan hasperenak gehien iraun duen eremukoak.

#### 4.4.2 -zaha amaiera Reja-ko leku-izenetan eta beste agiri-bildumetan

Honako hauek dira *Reja*-n *-zaha* amaiera dutenak, *-ha* dutenen artean nagusi: *Adurzaha*, *Artazaha* (gaur *Artatza-Axkoeta*), *Artazaha* (gaur *Artatza Foronda*), *Betellogaha* (gaur *Betolatza*, horregatik sartu dut sail honetan), *Gersalzaha*, *Hascarzaha*, *Hillarrazaha* eta *Otazaha*; arestian esan bezala, *Elhorzahea* ere aintzat hartzekoa da, cf. beste agiri bateko *Elhorzaha* (*SMillán* 1129).

Ez du inork zalantzan jartzen osagai modura eratorpenezko *-tza* atzizkia dagoela.<sup>226</sup> Izenen lehen osagaiek, dagokienean, eratorpen forma hartzen dute (*arte/arta-*, *hillarre/hillarra-*, *ote/ota-*), eta, oro har, erro ezagunak dira: *adur* da azaltzen zailena, ez baitugu *-tza* atzizkiarekin espero euskara modernoan ‘bits’ eta ‘zori’ esanahiak dituen izen bat.

Beste agiri-bilduma batzuetan ere aurki daiteke adibiderik; badirudi gehienak

<sup>225</sup> Lat. *solum* baldin badago *soro*-ren jatorrian (*FHV* 312), gerora sortua behar du *sorho* aldaeraren hasperenak, euskararen barrenean. Hori azaltzeko, aukera bat izan liteke artikularen hasperenaren lekualdatzearena, *Salha*, *Salhea* leku-izenetarako proposatu bezala; *Sorhoha*-k, hasperen (edo hatxe) bikoitzarekin, ez du honen alde egiten. Arestiko *salha* ez bezala, *sorho* aldaera hasperenduna aski zaharra da testuetan: Etxeberri Ziburukoak badakar, behintzat (*OEH* s.v. *soro*). Nolanahi ere den, ikus zer dioen Lakarrak: “Resultan, en cambio, inmotivadas segmentalmente *sorho* ‘prado’, *bulhar* ‘pecho’ y la mayor parte de las CVRh- (claros préstamos tardíos en su gran mayoría), los cuales cabría atribuir a una tendencia a fortalecer el onset de la 2.<sup>a</sup> sílaba, sílaba en la que se situaba la antigua raíz monosilábica y, con ella, el acento originario” (2012: 674, 41 oh.).

<sup>226</sup> Ez dut garbi ikusten nola lot daitekeen leku-izenetako *-tza* hau *Anderaza* bezalako pertsona-izenetan agertzen denarekin (Salaberri 2009: 229-230).



Arabari dagozkion agirietan ageri direla: cf. *Habaunçaha* (*DocLeire* 1066),<sup>227</sup> *Arispaldizaca* (*CartSMill* 1095), Maeztuko *Dominicum de Lorzaha* (*CartCalah* 1179), *Sancti Petri de Gorostiçaha* —Arabako elizgizon bat— (*CartCalah* 1295). Ez da baztertzekoa hauetakoren batean *-aga* egotea, jakina (cf. adib. *Pedro de Gorostiçaga* (*ArchBizkII* ~1501)). Arabatik kanpo, cf. agian *Juan de Harrçaha* (*ArchDurIV* 1456), gaurko *Artza* deiturarekin konpara litekeena, ez baitirudi *Artzaga* leku-izenik dagoenik: ugaria da *Arça* nire corpusean, eta behin aurkitu dut *Arçaa* (*ArchBizkIII* 1507); ik. II.2 eranskina, *-çaha/-zaha* idatzita egonik ere, *-aga* atzizkia duten izenen zerrendarako.

Atzizkiaren analisi morfologikorako bi aukera aipatu izan dira: Mitxelenaren ustez (VII 13, IX 144, XII 33), *Reja*-ko *-zaha* hauek *-tza* atzizkiaren jatorrizko forma luzeagoa erakusten dute; Knörrek, aldiz, *Betellogaha* hizpide duela, honela dio: “‘la vaquería’, de *behi* + *olha* + *-tza* + *-a*, con hache antihiática” (2000: 618). Knörrek, beraz, azken osagaia *-a* artikulua dela uste du, baina antihiatikotzat du <h> grafema, grafia kontu soiltzat, itxuraz (gauza bera dio *-heta* atzizkikoaz, 2000: 612).<sup>228</sup>

#### 4.4.2.1 Reja-ko -zaha amaieraren analisisa: -tza atzizkia

Aipaturiko lehenagoko lanetan plazaratu nuen hipotesia Knörrenetik hurbilago zegoen Mitxelenarenetik baino: artikulutzat nuen *-ha*, eta <h> horren atzean hasperena zegoela proposatu nuen, jatorri etimologikoaren arabera dagokion bezala. Zenbait argudio eman daitezke hipotesi honen alde:

<sup>227</sup> 1066an agertzen diren *Beila Didaz de Habaunçaha* eta *Didaco Begelaz de Ahbaunçaa*, Leireko dokumentazioko agiri batekoak izanik ere, ez dira Nafarroakoak: zalantzarik gabe jatorri arabarrekokoak diren beste hainbat pertsonarekin batean agertzen dira zerrendan, hala nola *Albaro Munioz de Ozchariz*, *Gundesalbo Albaroiz maior de Ehari*, *Gundessalbo Didaz de Aialla*, *Fortun Gundessalboiz de Ainnu*, *Garcia Fortuniones de Arzubiaga*, *Santio Fortuniones de Oçaeta*, *Garcia Fortuinons de Maturana* eta abar, denek patronimikoaren ondotik Arabako herrien izenak dituztelarik (cf. egungo *Okariz*, *Ehari*, *Aiala*, *Añua*, *Arzubiaga*, *Ozaeta*, *Maturana*). Zerrenda honetako *Habaunçaha* eta *Ahbaunçaa* Nafarroako lekukotasuntzat jo nituen beste lan batean (Manterola 2008: 375), Arabatik kanpo *-ha* gordetzearen adibide moduan; Zierbideren zerrendari (1977) begiratu nion bakarrik, ez agiriari berari, bere testuinguru historiko-geografikoari zegokion informazioa kontuan izan gabe. Honek berriro uzten du agerian tradizio mota honen sistematizazioaren beharra, euskal datuen ikuspegi oso bat izan nahi badugu (ik. 4.1 atala).

<sup>228</sup> 4.3 atalean ikusi bezala, erabilera antihiatiko hau izan badu <h> grafemak latin-erromantzezko agirietan (Quilis 1999: 241). Salaberrik (2015: 2.1.3 atala), <h> horiei balio fonetiko aitorzen badie ere, morfema muga markatzen dutela uste du. Mitxelenarengan ere aurki daiteke honen antzeko ideia: *lehoin* hitzean, adibidez, esaten du hiatuan diren bokalen artean garatu dela hasperena, eta muga silabiko zaharra markatzen duela (*FHV* 210, 220). Ik. 4.6.2 atala.

- (a) Balizko *-zaha* atzizkiaren osaera osagai gehiago bereiz daitezke, beti ere *Reja*-ko datuak oinarri hartuta: *-za* eta *-ha*, zein bere aldetik, beregain topa daitezke, modu urri xamarrean bada ere. *Habaunza*, *Izarza* eta *Larraza* leku-izenetan *-tza* atzizkia dago, bere hutsean; hizkuntzaren aldetik gordetzailatzat jotzen dugun *Reja* bezalako agiri batean —hitzen luzera bera aipatzen du Mitxelenak (XII 33), izaera gordetzaille horren adibide—, zail da onartzen balizko *-zaha* baten forma laburtuak direla *Habaunza*, *Izarza* eta *Larraza*, tarteko *-zaa* aldaerarik izan gabe (are gehiago *Havaunzia* bezalakoak aintzat hartuta, ik. behean).

*Barizahaza*, *Hiraszaeza*, *Malizhaeza*, *Loza*, *Mendoza*, *Mesanza* eta *Narbaiza* bezalako leku-izenetako batzuk *-tza* atzizkiaren adibide izan litezke, zein bere arazoekin: *Narbaiza*-k, adibidez, bigarren osagaian *-haitz* izan lezake, garai historikoko *Narbaja/Narbaxa*-ren txistukariaren ahoskera *Ajarte/Axarte*-renarekin (*Reja*-n *Assarte*) konparatzen badugu.

Horien aldean, *Izarza* eta *Habaunza* izenak *-tza* atzizkiaren lekuko garbiagoak dira, bere osaera zehatza erabat argia izan gabe ere (cf. lehenengorako *Izarra*, *Izardui*, etab.) Eta ia zalantzarik gabekoa da *Larraza* leku-izena, itxura guztien arabera *larre*-ren eratorpeneko *larra*- formari gehitu baitzaio atzizkia.

Horren osagarri, argudia liteke *-ha* osagaia ere bereiz daitekeela, adibideak erabat garbiak ez badira ere (ik. 4.4.1, *Aialha*, *Arroiaha* eta *Udalha*).

- (b) *Habaunza*, *Izarza*, *Larraza* eta besterekin batean, gainera, *Azazaheta* eta *Gazaheta* aztertu behar dira: *aza*, *gatz* + *-tza* + *-eta* analizatu behar dira; hots, *-tza* atzizkiaren ondotik D-elementua izan daitekeen beste osagai bat dagoenean (*-heta*), ez da behinere bere *-zaha* forma ustez luze eta jatorrizkoan ageri. Errazagoa dirudi pentsatzea *-ha* eta *-heta* kategoria berekoak direla eta horregatik ez direla konbinatu; antzeko irizpidea darabil Mitxelenak (IX 277) *-aga* eta *-eta* konbinatzeko ezintasunaz ari denean. Baliteke, bestalde, bi hauei *Hamaezaha* ere gehitu behar izatea, bere egungo *Amétzaga* azentuari erreparatuta oinarrian dagoen osaera *ametz* + *-tza* + *-aga* dela onarturik; ik., bestalde, *Ametzeaga*-ren osaeraz emandako azalpena (4.5.1 (b) atalean).
- (c) Hitz barrenean hasperena lukeen atzizki bakarra litzateke. Mitxelenak dioenez “*h*

tiene poco papel en la morfología: no aparece en ningún sufijo casual” (*FHV* 213); oharrean, berriz, “Sí llevan aspiración, sobre todo en sul., algunos sufijos de derivación” (*FHV* 213, 20 oh.). Mitxelenak hizpide dituen eratorpen atzizkien artean ez dago bi silabakorik hasperena bigarren silabaren hasieran duenik, eta zub. *-khói*, *-tharzun* eta halako atzizkiak erabiltzen ditu herskari hasperendunek azentuarekin duten loturaren erakusgarri (ik. halaber *FHV* 417-419).

- (d) Aurreko gogoetaren bidetik Lakarrak erro egiturez garatu duen azterbidea ekarri beharra dago eztabaidara: horren arabera, ez dirudi  $C_1V_1C_2V_1$  egitura duen atzizki bat espero izatekoa denik, bereziki  $C_2$  hasperena bada; bi bokalak berdinak izatea ere susmagarri egiten zait, intuizio mailan baino ez bada ere. Honela dio Lakarrak berak *-tza* atzizkiaz (2006: 605, 111 oh.):

Sé que *-tza* tiene una variante antigua (medieval) *-tzaha*, *-tzahe* y de ahí el asterisco; sin pretender cerrar aquí la cuestión me es suficiente con recordar que, dado su tamaño y estructura, ninguna de estas últimas formas pueden aspirar a pertenecer al PV, al menos como suf. simples.

Lakarraren arabera, hortaz, *-zaha*-k ez du atzizki zahar tipiko baten neurri eta egiturarik.

- (e) Aditzetako *-tza* pluralgileak (cf. *daramatza*, *dabiltza*, etab.) aztergai dugun leku-izenetako *-tza* ugaritasun atzizkiarekin lotura etimologikoa duela aipatzen du Lakarrak (2006: 605); hala bada, eta badirudi esanahiaren aldetik erraz ezkon daitekeela pluralgile funtzioa ugaritasunaren adierazpenarekin, aipagarria da adizkietan ez izatea balizko atzizki luzeagoaren aztarnarik. Ñabardura hau, ezer izatekotan, arazo izango litzateke Mitxelenaren hipotesirako, ez badugu euskalki guztietarako eta atzizkiaren funtzio ezberdinetarako laburtze goiztiarrik proposatzen bederen. Bi bokalen laburtzeaz eta erabateko asimilazioaz besteko bilakabideak bilatuta ere, aipatzekoa da, balizko disimilazioaren bidetik, *\*\*tzae* bezalako morfemak ezin aurkitua (ik. Oñati aldeko *-tzaia* bukaeraren inguruko eztabaida, 4.4.3 (d) atala).
- (f) Leku-izenetako *-tza* atzizkiak ekialdean *-tze* aldaera du. Aldaera hau errazago azaltzen da jatorrizko *-tza* batetik abiatuta: *-tza* > *-tz* lehenik (cf. *\*duda* > *dut*, *FHV* 235), eta *-tz* > *-tze* ondoren, (cf. *atz* > *atze*, *FHV* 133). Badirudi Azkuek

(*Morf* §32) *-tze* duela jatorrizkotzat, eta *-tza* forma mendebaldean hitzen amaiera *-a* izateko dagoen “joerarekin” lotzen du; baina mendebaldeko fenomeno hori (cf. *labe/laba*; *FHV* 128) ezin da parekatu *-tza* atzizkiak duen hedadurarekin. Jatorrizko forma *\*-tzaha* dela onartzeak, bestalde, ez du ezer argitzen *-tza/-tze* aldaera dialektalen diakroniaz.<sup>229</sup>

- (h) Ekialdeko *-tze* eta *-tz* aldaerak zaharrak dira: cf. besteak beste *Garsia Xemenones de Olaze* (*DocLeire* 1057), *ual de Elorçę* (*DocLeire* 1067), *ualle de Elorçęibar* (*DocLeire* 1095), *Bazterreco Ardancea* (*Collrach* 1164); cf., *-tz* aldaerarekin, *Sancte Marie de Irach* (*Collrach* 1054), *Sancte Marie Iraz* (*Collrach* ~1064), *uilla de Olaz* (*DocLeire* ~1055), etab. Jatorrizkoa *\*-tzaha* baldin bazen, onartu beharko genuke aurreko puntuan aipaturiko bilakaera gertatua zela erabat ekialdean, mendebaldean oraindik *-tzaha* genuen garaian. Ez da egiantzekoa.
- (i) Jatorrizko forma hasperenduna baldin bada, zub. *-tze* azaltzeko pentsatu behar genuke hasperena galdu zela lehenik (*-tzaha* > *-tzaa*, eta bokalen disimilazio eta asimilazioak gertatu zirela ondotik (*-tzaa* > *\*-tzae* > *\*-tzee* > *-tze*). Hala izan balitz eta hasperenaren galera onartuko bagenu ere, galdetu beharra legoke zergatik ez dagoen zubererazko azentueran laburtze horren aztarnarik; hots, zubereraz *āhántze*, *sagártze* eta antzekoek azentua bigarren silaban dute, ez azkenekoan, laburtze batek eskatuko zukeen bezala (cf. zub. *ardú* < *\*ardáno*). Gogoan hartzekoa da zubereraz, azentuera arauzkoa paroxitonoa izanik ere, badirela hitzari azentu oxitonoa ekartzen dioten atzizkiak ere, eta, horrenbestez, zubererazko fonologiaren ikuspegitik ez dela ezina hitz atzizkidun oxitonoa (ik.

<sup>229</sup> Mitxelenaren iritziak aldakorrak dira *-tza* eta *-tze* atzizkien harremanaz; oro har, zalantzazkotzat jotzen du bien arteko harremana, eta jatorri ezberdinekoak izan daitezkeela uste du: “Es para mí dudoso si *-tza* / *-tze*, que en algún caso (cf. *bizitza* / *-tze* ‘vida’, *eriotza* / *heriotze*) son variantes de un mismo sufijo, occidental y oriental, respectivamente, lo son siempre. Tal vez haya que contar, en parte, con sufijos de origen distinto” (*FHV* 500); eta “*-tz(e)* suf. equivalente a *-tza*: *Aldaz*, *Iharce*, *Larraz*, *Olaz*, etc. *Elorçę Ibar* ‘val de Elorz’, *Leire* 1095. No se ve bien si *-tza*, *-tza(h)a*, y *-tze* son variantes de un mismo sufijo o sufijos de origen diverso. En todo caso, cuando la alternancia se da en una misma palabra (así en *baratza* / *baratze*, etc.), *-tze* es propio de los dialectos orientales” (IX 144); cf. orobat VII 692. Atzizki beraren aldaeratzat tratatzen ditu beste batzuetan: “[E]l sufijo *-tza*, *-tze*” (IX 98) eta “*-tza(a)*, que parece tener una variante oriental *-tze* (cf. *Guipulaza* en Álava, 1545, navarro *Dipulatçe*, mod. *Tipúlaz*)” (IX 276). Nire ustez, *-tz* aldaera ere aintzat hartzea gakoa da auzia erabakitzeke, ekialdekoa baitirudi, *-tze* bezala, azterketa xehegoen faltan. Eztabaidan sakonduz gero, bestalde, *-ta/-te* bikoteaz arduratu beharko genukeela dirudi, jatorri berekotzat jo zein ez.

Hualde 1997: 76-77).

Argudio hauek eman daitezke, gutxienez, jatorrizko *\*-tzaha* baten aurka; ez dirudi beharrezkoa *-tza* baino luzeagoa den formarik berreraikitzea. Jakina, *-tza* eta *-tze* aldaeren arteko harreman etimologikoan oinarriturako argudioek (f-i) ez lukete indarrik, baldin jatorri ezberdinekoak direla onartuko bagenu; nire ustez, ez da horretarako arrazoirik, besteak beste banaketa dialektal osagarrian daudelako, eta biak jatorri beretik azaltzen saiatu behar dugu; gainera, hemen plazaraturiko hipotesiak eztabaidan sartzen du *-tz* aldaera ekialdekoa ere.

#### 4.4.2.2 Reja-ko *-zaha amaieraren analisia: -ha atzizkia*

Ugaritasun atzizkiaren izaera zehaztuta, zilegi da ondotik duen *-ha* atzizkia artikulua dela proposatzea; halaxe proposatu nuen aurreko lanetan (Manterola 2006, 2008, 2009, 2012). Labur esanik, *Hascarzaha* adibide gisara hartuta, *haskar* + *-tza* (atzizkia) + *-ha* (artikulua) analizatzea proposatzen nuen. Hipotesi honi galdera bat egin zekioken, arazo moduan: zergatik ez ote dugun dokumentatuta *\*\*Larreha* modukorik; horretaz oharturik, orduko hartan esan nuen *-a* amaierako hitzetan baizik ez zela gorde *-ha*, hain zuzen ere *-aa* bilkura ez gertatzeko (2006: 674).

Badago analisirako beste aukera bat, erakusle-artikuluen azalpen orokorretik aldenitu gabe: euskal toponimia zaharrenean dokumenta daitekeen fenomeno orokor baten pean ezar daitezke *Reja*-ko *-ha* hauek ere, berranalisi ezagun baten argitara (ik. 5.2.6.1 atala). Berranalisi honek hainbat leku-izenetako *-e*, *-ea*, *-enea* eta *-eta* amaierak azaltzen ditu: egungo *Azkaine*, adibidez, inoiz *Azkain* izan da, eta amaierako *-e* deklinabideko leku-kasuetako epentesia da, eta *-e* hori izenaren parte balitz bezala ulertu da; hastapenean, *Azkain* izango zen absolutiboko forma, eta *Azkainen* inesiboarena; inesibozko forma abiaburu hartuta, *-n* markatik ezkererako guztia izena zela ulertu zen, kontsonantez bukatzen ez ziren izenetan gertatzen zen bezala (cf. *Ziburu*, ines. *Ziburun*). Orobat gertatu zen zerrendako besteekin: cf. adibidez *More Bilibilea* (*DocLeire* 1002) eta *Erret Ihera Guiuelea* (*Collrach* 1150), abs. mugag. *biribil/gibel*, mug. *biribila/gibela*, baina ines. mug. *biribilean/gibelean*. Bereziki etxe-

izenetan agertzen den *-enea* atzizkiaren jatorria azaltzeko, berranalisi honen bidetik jo zuen Mitxelenak (IX 85; cf. *Mikel-en (etxe)-an* → *Mikelenean* → *Mikelenea*); leku-izenetan ugaritasun markatzat jo izan den *-eta* atzizkiak ere antzeko azalpena jaso dezake (ik. 4.6).

Deklinabideko berranalisiaren fenomeno hau, modu batean edo bestean, orokorra da euskal eremuan, eta ezin konta ahala adibide ditugu. *Artazaha*, *Otaza* eta bestetan ere fenomeno horren aztarna dugula uste dut orain: *artaza han* ‘artatza hartan’ litzateke jatorrizko sintagma (berreraiketarako ik. bosgarren kapitulua), eta *artazahan* bera *artazaha-n* zatituz, *Artazaha* berranaliziz.

Nire aurreko lanekiko berria da ikuspegi hau; hona hemen bere alde bil daitezkeen zenbait argudio:

- (a) Euskal deklinabideko datu historikoekin hobeki ezkontzen da hipotesi hau, gogoan harturik mendebaldeko testu zaharretan gordetako inesibo mugatuko *-aan* forma inesiboaren gramatikalizazio berantiarragoaren zantzutzat hartu izan dela (Mitx VII 534). *Reja*-ko lekukotasun hauek, hortaz, bat egingo lukete kronologia honekin, eta, bide batez, frogatuko lukete egungo inesibo mugatu singularreko forma *-han* zela jatorrian, ez *-gan* (ik. 5.2.3 kapitulua).
- (b) Lehen argudioaren bidetik, ikuspegi honek bide ematen digu hobeki ulertzeko zer alde dagoen *Reja*-n *-a* artikulua dutenen (cf. *Larrea*, *Hazpurua*, etab.) eta *-ha* dutenen artean. Honela erlatibizatu egiten dut aurreko lanetan onartu eta arestian aipatu dudan soluzioa (hasperena *-a* amaierako izenetan *-aa* bilkura gerta ez zedin gordetzea); hau da, hipotesi honek lehendik ezaguna zen azalpen baten pean ezartzen ditu datuak, eta deklinabidearen diakroniaren ikuspegi orokorretik azalduko luke zergatik agertzen diren batzuk *-ha* artikuluekin, beste batzuk *-a* soilarekin agertzen diren bitartean.
- (c) Forma ohikoenetik urruntzen den adibideak ere, *Elhorzahea*-k, azalpen egiantzekoagoa jasotzen du berranalizatutako inesibo singularreko erakuslearen hipotesi honen barrenean; egiantzekoagoa, hain zuzen paralelo formal bete-beteak dituelako hipotesi honen begiradapean: *Galarrete*a (*ArchSalvat*III 1457) eta *Zubiague*a (*TopAlav* 1531) bezalakoetan, artikulua gehitu zaio lehendik

gramatikalizaturiko eta berranalizaturiko D-elementu bat (-*eta* eta -*aga*) duen leku-izenari. *Elhorzahea*-ren kasuan horrelako zerbait gertatu dela proposatzen dut oraingoan: -*a* artikulua gehitu zaio lehenik D-elementu bat gramatikalizaturiko (\**Elhorzahan*) eta berranalizaturiko (*Elhorzaha*) leku-izen bati.

Hots, -*agea* eta -*etea* duten leku-izenen ondoan -*hea* ere jar daiteke, oso-osoko paralelo formal eta geografiko moduan (denak dira Arabakoak). Salbuespen bakan moduan agertzen zena, hortaz, lehendik ezagun genituen adibideekin multzokatu dezakegu. Mitxelenak ere (IX 281, 12 oh.) aipatzen ditu Arabako -*agea* eta -*etea* formak,<sup>230</sup> *Elhorzahea* eztabaida berean jarriz, baina, bere ustez, arazo bat da *Elhorzahea* beste horiek baino askoz goiztiarragoa izatea: corpusean aurkitu ahal izan ditudan formarik zaharrenak XV. (*Galarrete*) eta XVI. (*Zubiague*) mendekoak dira (ik. II.7 eranskina). Mitxelenak, hortaz, ez du baztertzen *Elhorzahea* adibide bakana idazketa akats bat izatea.

#### 4.4.3 Analisiaren ahulguneak

*Reja*-ko -*zaha* atzizkiak analizatzeko hipotesi bat plazaratu dut: lehen osagaia -*tza* ugaritasun atzizkia da, eta bigarrena, -*ha*, gramatikalizatu ondotik izenaren parte balitz bezala berranalizatu den inesibo singularreko erakuslea izan daiteke. Proposamen honek baditu, hala ere, zenbait ahulgune:

- (a) Arestian aipatu bezala, *Reja*-ko datuetan oinarrituta, morfema beregain gisa -*tza* eta -*ha* bakartzeko arazoak izan ditzakegu, bereziki -*ha*-ri dagokionez: -*zaha* amaieraz besteko izenetan, *Aialha*, *Arroiha* eta *Udalha* dira -*ha* duten bakarrak, eta horietan bereizi nahi genituzkeen \**udal*, \**aial* eta \**arroi*-ren estatusa zalantzazkoa da euskal izen gisa.
- (b) Salaberrik (2015: 2.1.3 atala) -*tza* atzizkiaren jatorrian -*tzaha* dagoela uste du,

<sup>230</sup> Beste lan batean harrigarri egiten zaizkio: “Es sorprendente que los sufijos ubicuos -*aga* y -*eta* parecen a veces, las menos, llevar sufijado algo que a primera vista tiene aspecto de artículo: cf. *Osinague* frente a *Osinaga* [...] o *Landetea* junto a *Landeta* [...] Y posiblemente no todo quede en mera apariencia” (V 408). Baina beherago azalduko dudana bezala, horrelako formek ez dute informaziorik ematen deklinabideaz, leku-izenen etengabeko determinazioaz baizik.

Mitxelenak bezala. Nire hastapeneko hipotesirako (Manterola 2006) arazo interesgarri bat identifikatzen du: galdetzen du, 1025ean *Artazaha* baldin bada, ea nolatan dugun, hasperena galdu ondotik, *Artaçaa* 1257an eta 1295ean, eta ez *\*\*Artaçea*, artikulua izatera legokiokeen bezala. Hortik ondorioztatzen du *-aa* segida erroarena berarena izan behar zela, ez dagokiola erroa eta artikulua elkartzeari. Nire hipotesi berrituan, ordea, arazo hori gainditzen da, mendebaldeko euskararen inesibo singular mugatuan ez baitago absolutiboko disimilaziorik; hots, *-a + -an > -aan > -an* da, ez *\*\*-ean*.

Arazo hori gaindituta ere, arrazoi du Salaberrik dioenean *Elhorzahea*-ren kasua esplikatzeko onartu beharko gukeela oso goiz galdu zela *-ha* hori erakusle/artikulu zelako sentipena, baina egia da, hala berean, berranalisia (cf. *-eta* eta besteren kasua, 5.2.6.1) gertatzen den momentutik izen beregain eta bakar gisa funtzionatzen duela jatorrian osagai morfologiko bat baino gehiagoz osaturiko sintagmak; berranalisi hori, esan bezala, aski goiztiarra da, eta *Elhorzahea*-ren kronologiarekin bat egiten du, arazorik gabe. Ikuspegi honen aurka, jakina, gogoratzekoa da *-hea* honek ez duela *-agea* eta *-etea* ezagunek duten kronologia berdina.

Kronologiaren auzia estu hartzeak badu, bestalde, txanponaren gurutzea Salaberriren proposamenerako: nola liteke 1025eko *Habaunza*, *Izarza* eta *Larraz*a adibideetan (besteak beste), ustezko *-aha > -aa > -a* erabateko asimilazioarekin, *-tza* atzizkia hain murriztua agertzea, *-tzaa* aldaerarik ere izan gabe?

Kronologiaren ikuspegitik bi proposamenek dituzte arazoak; ohartzekoa da, hala ere, Salaberrirenak salbuespen gehiagori egin behar diela aurre: *-za* amaiera soila dutenak —*Barizahaza*, *Habaunza*, *Izarza*, *Larraz*a, *Mendoza*, etab.—, leku-izen analizagarri izan zein ez, ugariagoak dira *Reja*-n *Elhorzahea*-ren adibide bakarra baino. Badirudi hobe dela *Elhorzahea*-ri berariazko azalpena bilatzea, gertakari orokorragoetatik kanpo (gogoan har bedi Mitxelenarentzat idazketa-hutsa ere izan daitekeela).<sup>231</sup>

<sup>231</sup> Salaberrik gogora dakarren bezala, badago Lukun izen bereko lur-sail bat: *Elorzaea* da XVII.



Horiek oro hala izanik ere, erabakigarria izan liteke *Garcia Monnioz de Havaunzia* (SMillán 1089): itxura guztien arabera 1025ean artikulurik gabe dokumentatzen den *Habaunza* bera da, baina artikularekin: nahiz eta goiztiar xamarra izan, *-a + -a* (artik.) > *-ea* > *-ia* bilakaera izateko denbora izan du. Hori da azalpenik errazena, nire iritziz, eta zailagoa litzateke ustezko *Habaunzaha + -a* osaeratik abiatzea (cf. *Habaunçaha* (DocLeire 1066)), adibide goiztiarra izanik, zaila baitirudi ordurako *Habaunzaha* > *Habaunzaa* > *Habaunza* murriztea gertatu izana, gero, *-a* artik. gehituta, *\*Habaunzea* > *Havaunzia* disimilatzeko. Laburbilduz, kronologia estu hartuz *-zaha* jatorrizkoaren hipotesia onartu nahi izango bagenu, *\*Habaunza(h)aa* > *\*Habaunzaea* > *\*\*Habaunzaia* bilakaeraren antzeko zerbait esperoko genukeen, xehetasunak gorabehera. Alabaina, antzeko bilakaerak beranduago baizik ez dira dokumentatzen.

- (c) Ahulgune larriagoa izan daiteke deklinabidearen berreraiketari dagokion hau: *Reja*-ko leku-izenetako *-han* inesibo berranalizatua (*-ha-n* > *-ha*) izan bazen jatorrian, zergatik dugu *Udalha*, eta ez *\*\*Udaleha*? Inesibo singularrean, jakina denez, *-e-* epentetiko dugu (cf. abs. mugag. *gibel*, ines. mug. *gibel-e-an*). Bi aukera ditugu hau azaltzeko: batetik, sakondu dezakegu *Udalha* leku-izenean euskarazko *udal* modernoa ikusteko genituen arazoetan (4.4.1 (c) atala), esanez argudio bat gehiago dela hau *Udalha* izena eztabaida honetan ez kokatzeko. Bestetik, *udal*-en aukerari eutsi nahi izanez gero, *-ha* absolutiboa dagoela pentsa genezake, nire hipotesiaren lehen bertsioari jarraiki (Manterola 2006); irtenbide hau, ageri denez, *ad hoc* xamarra da, eta, ezinezko izan gabe ere, aurreko ataletan garaturiko azalpen orokorraren batasunaren kaltetan lihoake.
- (d) Hipotesiaren ahulgune nagusia, nire ustez, *-tza* atzizkiaren berreraiketari dagokio, eta alde horretatik Leintz bailarako eta Oñatiko datuak datoz eztabaidara. Azkuek, Altubek eta Mitxelenak atzizkiaren oinarritzko forma zein den eztabaidatzen dute, eta honela dio Azkuek (*Morf* §83):

En Mondragón este sufijo profesional debe ser o haber sido *tzae* pues al recibir el artículo

---

mendean, *Elorzaya* 1701ean; baina *Elorza* da 1618an (*TopAlav*). Bestalde, Arabako beste eremu batekoa da *Elhorzahea*; gaur *Leorza* du izena.

intercalan siempre una *i*. *Maistrutzaia* por nuestro *Maisukuntza* magisterio, *argintzaia* profesión de cantero, *alkatetzaia* profesión o cargo de alcalde. Lo mismo sucede en el *tza* en acepción de grupo: *bedartzaia* campo de hierba, *artotzaia* maizal.

Hots, Azkueren ustez, Arrasateko absolutibozko *-tzaia* azaltzeko, jatorrizko *\*-tzae* forma behar dugu; Altubek (1934: 18-19, 221), hari beretik tiraka, eta *alkatetza* hitza adibide moduan jarrita, jatorrizko forma *\*-tzaa* izan behar zela ondorioztatzen du: oinarritzko *\*-tzae* forma batek absolutibo mugagabeen *\*\*-tzai* moduan agertu beharko luke (cf. *gaztai* < *gaztae*), eta forma mugagabea *alkatetza* da, ez *\*\*alkatetzai*. Mitxelenak (*FHV* 111) Oñatiko datuak ere badakartza, eta horietan mugag. *-tzaa* eta mug. *-tzaia* dago (Izagirrerren hiztegian bi bokalekin agertzen da beti atzizkia; ik. s.v. *eskóntzaa bat/eskóntzaia*, besteak beste).

Bai Altubek bai Mitxelenak *Reja*-n *-zaha* duten leku-izenekin lotzen dituzte datuok. Erostarbek (1995: 497-501), bestalde, modu berean azaltzen du Oñatiko aditz-izenetako *-tzeia* forma, bokal bikoitzeko jatorrizko *-tzee* baten disimilazioz; cf. OñatEsk *galtzeen/galtzen* eta *galtzeia*; are interesgarriagoa da ikustea badirela *-teen* eta *-teia* aditz-izenak, *-tza/-tze* atzizkitik kanpo, cf. OñatEsk *izteen/izten* eta *izteia*.

Funtsean, datuoi begiratzeko bi modu daude: Leintz bailarako datuek azalpen espezifikoa eta lokala jaso behar dute, ala, Mitxelenak eta Altubek nahi duten bezala, balio sakonagoa du mugag. *-tzaa* / mug. *-tzaia* bikoteak, eta morfemaren jatorrira hurbiltzen gaituzte. Bi aukera hauetan egin daitekeen bidea agortu gabe, ohar batzuk gertatzen dira egin beharrekoak (ik. goian halaber *-zaha*-ren ustezko antzintasunaz egindako ohar orokorrak):

- (i) Altubek paralelo moduan *te* hitza darabil: mug. *teia* eta mugag. *te ederra* aintzat hartuta, *tee* du hitzaren jatorrizko formatzat euskaraz (cf. Izagirre s.v. *tée, téia*). Kasu horretan, mailegu ezaguna den neurrian, badakigu azken buruan ez dela hala, eta euskarazko balizko *tee* formak berriagoa behar duela.
- (ii) Altuberen adibide horren bidetik, gogoan hartzekoak dira etimologikoak ez diren bokal bikoitz ugariak (Izagirrerren hiztegiko adibideak dira): *aántzixa*

*txarra* (cf. gazt. *ansia*), *Billaargo tellerixia* (cf. gazt. *Villar*), *atzamaarkatuta itxi* baina *atzámarrak* (cf. *atzamar* < *hatz hamar*),<sup>232</sup> *albérea sartu* eta *albéera jua*n (-*ra* adlatibokoarekin). Cf. halaber *-kari* atzizkiaren aldaerak: *larráakari* eta *larrákaari*, beste hitz bateko *sórakari*, beste bateko *tabérnaakarixa*, etab. Badira laburtzeen ondorio garbi diren bokal bikoitzak (cf. *zurrixa/zurrixa*), eta beste zenbaitetan luzetasuna silaba bateko bokaletik beste silaba batekora pasatu da itxuraz, baina xehetasun ugari dago argitu beharrean; adibidez, baliteke zenbait kasutan azentuaren gorabeherak lotura izatea bokalen bikoiztasunarekin. Funtsean, ez ditugu oraindik ongi ulertzen Oñati aldeko (eta mendebaldeko) bokal bikoitzen nondik norakoak, eta berriaz aztertzen dituen lan gutxi dago; cf. Hualderen lanak (1991, 1996: 53), batez ere Arbizuko hizkerako zenbait laburtzeetatik eratorritako bokal bilkurez ari bada ere, Oñatiko kasua aipatu, behintzat, aipatzen du.

- (iii) OñatEsk-ek *kanpae jote* dakar (Izagirrek *kanpáa*, halere). Datu hori aintzat hartuz gero, pentsatu beharko genuke *-tzaha* > *-tzaa* beranduago gertatu zela *kanpana* > *kanpaa* > *kanpae* baino; hots, hasperena berandu xamar galduko zen, bestela atzizkia *\*\*-tzae* izango baitzen. Ez dirudi horren aldeko zantzurik dagoenik. Hortaz, pentsa liteke fonetika hutsaz haragoko zerbait dagoela atzizki honen jokabidean.
- (iv) Oñatiko hizkerako datuak modu osoagoan aztertzen baditugu, bestelako xehetasunak ere hobeki azaldu beharko lituzke hipotesi tradizionalak:

<sup>232</sup> Bestelako etimologia proposatzen du Lakarrak (2012: 693), ohartaraziz *hatz hamar* sintagmaren osagaien hurrenkera, eskuinetarako zenbatzailearekin, irregularra litzatekeela. Ohar bat egin dakiok argudiobide horri, Oihenarten atzotizetan *hamar* zenbatzailea izenaren eskuinetara agertzen baita behin: 356 *Oilar bat aski da oilo hamar baten, hamar gizon ez emazte baten*. Esanguratsua da kasu horretan lehendabiziko *hamar* izen moduan agertzea, *bat* artikulua eta guzti; bigarrena, *hamar gizon* sintagman, zenbatzaile garbia da, eta, hortaz, ezkerrean dago. *Ehun* zenbakirako antzeko adibideak ditugu autore beraren atzotizetan, eta bere olerki batean. Ez dago argi Oihenarten adibideak bere berezitasun bat diren (ikus jarraian hiperbatoaren aukera), edo, aldiz, hitzaren jatorrizko kategoria zein zen erabakitzeke lagungarri izan daitezkeen arkaismoak; *ehun*-en kasuan, badirudi partizipioa izana zela (cf. *ehun* ‘oihal’, ik *EHHE* s.v.). Ez da ahantzi behar autorearen baliabide estilistikoa izan daitekeela, eta hiperbatoitzat jo litezkeen adibide gehiago daudela Oihenartengan, cf. superlatiboarekin 660 *Orotako gaxtoen ozpina, da arno ezitik egina*.

batetik, baldin eta jatorri komuna dutela onartzen badugu, azaldu beharko du jatorrizko *-tzaa* atzizkiaren bi bilakabideak zehazki nola gertatu ziren, multzokari edo ofizio-izenetakoarena (*alkatetza/alkatetzaia*) eta aditz-izenetakoarena (*kentze/kentzeia*). Bestetik, *izteen* eta *izteia* moduko aditz-izenak badirela kontuan hartuta, hipotesi tradizionalaren arabera ondorioztatu beharko genuke aditz-izenetako *-te* atzizkiaren jatorrizko forma *\*-tee* moduko zerbait izan zela, eta ez dugu horren aldeko bestelako zantzurik.

- (v) Bi bokalen artean *-i-* tartekatzea fenomeno epentetiko ezaguna da: cf. Izagirrerren *apéa batzuk*, *apéia*, eta, jad. 1068an, *Haraluçeia* (*CatBurg* 1068), edo *Reja*-ko *Arreio*, *Gobeio*, *Kineia*, *Meiana* (egun *Arreo*, *Gobeo*, *Ginea*, *Meana*), edo *Gorbea/Gorbeia* bikotea.<sup>233</sup> Zenbait hizkeratan bi bokalak *a* direnean ere aurki daiteke *-i-* epentetikorik, ia testuinguru morfosintaktiko bakarrera mugatutako epentesia: cf. partizipioa *atera*, erresultatiboa *ateraia*. Baliteke Oñatiko aditz-izenetako *kentzeia* eta halakoak fenomeno horren adibide izatea, besterik gabe;<sup>234</sup> mugag. *-tzaa* / mug. *-tzaia* auzian ere fenomeno hau kontuan hartzekoa izan liteke, honenbestez. Fenomeno morfonologikoa izan liteke, Oñederrak (2005) deskribatzen dituenen pareko.

Honenbestez, arazo honen behin-behineko irtenbide moduan honako hau landu beharko litzateke, nire ustez: Oñati eta inguruko hizkeretako bokal bikoitzeko *-tzaa* berrikuntza da. Mitxelenak (*FHV* 111-114) mendebaldeko hizkeren izaera gordetzailea nabarmentzen du bokal bikoitzei dagokienez, baina analogiaz zabaldutako bokal bikoitz batzuen adibideak ere zerrendatzen ditu; honela dio berak: “Esta cuestión está lejos de haber sido estudiada con la atención que merece su trascendencia para la reconstrucción de las formas del protovasco”.

<sup>233</sup> Gertakari honek eremu zabala hartzen du, eta ez dagokie, itxuraz, euskal hitzei bakarrik: cf. besteak beste *Remon de Exeya* (*LibOliv* 1319) eta *Abiminna de Boleia* (*SJPeña* 1043), Aragoiko *Ejea* eta *Bolea* gaur; leku-izen horien aragoierazko forma *Exeya* eta *Boleya* da, hain zuzen. Ik. 4.9.2 (e) atala.

<sup>234</sup> Aditz-izenetako eta leku-izenetako *-te*, *-tze*, *-ta*, *-tza*, *-tzaite* etab.-en arteko harreman etimologikoa ez da beti argia; ik. Trask (1995) eta Urgell (2006).

Atzizkiaren berreraiketan sakonduz, ezin da ahaztu aditz-izenetan *-tze* dela nagusi banaketa dialektologikoaz denaz bezainbatean, ez *-tza*, nahiz eta *-tze* bera berria den, itxuraz, *-te* ustez arkaikoaren aldean (cf. *kalte/galte* arkaismo orokorra; Urgell 2006: 928, 18 oh.); aditz-izenetan *-e* duen *-tze* aldaera orokor antzekoa izateak —nahiz eta agian *-te* zaharragoaren eraginez izan— ez du laguntzen *-tza* jatorrizko formatzat hartzen. Hau guztia, jakina, aditz-izenetako *-tze* osagaia *-tza* atzizkiaren aldaeratzat hartzen badugu (ik. *FHV* 111).

- (e) Aurreko puntuko auziarekin batera trata daiteke Arabako herrien izenen azentuera, izan ere *-tza* atzizkia duten izenek azentu paroxitona baitute, ez “arauzko” proparoxitona (Knörr 2000: 617-618): *A-báun-za*, *Ar-tá-za*, *Be-to-lá-za* eta abar (*I-lá-rra-za* eta *As-tó-bi-za* ematen ditu salbuespen moduan). Honela azaltzen du Knörrrek: “Es difícil explicar el acento grave predominante en esta terminación. Podríamos quizá suponer que *-za* procede de una pronunciación esdrújula antigua, de *-tza* + artículo determinado”.

Nire hipotesiaren aldeko eta aurkako argudioak aurkeztu ditut. Auzian inportantzia duten zenbait puntu azaleratu ditut (zubererazko azentuerarena, esaterako), eta izan ditzakeen arazoen artean Oñati inguruko datuena iruditzen zait inportanteena. Nire ustez aldekoek pisu handiagoa dute aurkakoek baino, eta Leintz bailarako eta Oñatiko datuak, xehetasunak ongi ezagutzen ez baditugu ere, fenomeno lokal gisa aztertu beharrekotzat joko nituzke.

Honek guztiak gauza bat argi uzten du: *-tza* atzizkiaren diakronia ez dugu ongi ezagutzen. Berriki argitaraturiko lan baten arabera (Igartua eta Santazilia 2013), adibidez, *-z* instrumentalak *-tza* atzizkian du jatorria, zenbait paralelo tipologikotan oinarriturik;<sup>235</sup> ikerbide interesgarria izanik ere, gogoan izan behar ditugu atzizkiak berak euskararen barrenean dituen berezko arazoak (*-tza/-tze* aldaerak, *-zaha* auzia, zubererazko azentuera, *-ta* eta *-te* atzizkiekin duen harremana, etab.), konpondu gabe dirautenak, eta atzizkia bere osotasunean aztertzekeo deia egiten dutenak.

<sup>235</sup> Cf. halaber Martínez (2010: 44), *har-za-z* bezalakoetan instrumental pleonastikoaren aukeraz mintzo baita.

#### 4.5 *-aga/-haga* atzizkia *Reja-n* eta Erdi Aroko beste zenbait agiritan

Bigarren kapituluan (ik. 2.4.2.5.1 atala) ikusi bezala, leku-izenetako *-aga* atzizkiaren jatorriaz bi hipotesi nagusi proposatu izan dira: batetik, deklinabideko *-ak* pluralekoarekin duen hurbiltasun formalaz ohartarazi izan da, eta, bestetik, Mitxelenaren hipotesi horren aurkako argudioak aurkeztuta, De Rijkék proposatzen du *-ga* leku-atzizkia dela, eta hasierako *-a-* hori artikulua baino ez; Castañosek, bestalde, aipatzen du *-(h)a* erakuslearen forma plurala gramatikalizatu ahal izan dela (cf. Hualderen *\*gizon haga*). Hipotesi hauen alde edo aurka Erdi Aroko datuek argi zerbait eman dezakete: horretarako, *-haga* aldaera hasperenduna bilatu dut lehenik *Reja*-ko lekukoetan.

Honako hauek dira *Reja-n -aga* atzizkia dutenak: *Arriaga*, *Arzubiaga*, *Elhorriaga*, *Harrizavallaga*, *Húrnaga*; hauei *Hamaezaha* gehi dakieke (egun *Amétzaga*), azken silabako <h>-k /g/ adierazten duela onarturik. Ageri denez, *Reja-n* ez dago *-aga* atzizkiaren *-haga* aldaera hasperendunik.

Erdi Aroko corpus gisa zehazturiko agirien artean, ordea, aurki daiteke atzizkiak <h> dueneko adibiderik: Ipar Euskal Herriko leku- edo pertsona-izenak dira Goihenetxek dakartzan *casa de Yturrihaga* (*OnomNord* 1364) eta *Gastea de Laharhaga* (*OnomNord* 1381; *Gastea de Laharhague* forman ere ematen du); hasperenik gabeko *-aga* atzizkiaren aldaerak ere baditu horrek, *Garcia de Laharagua* (1381), *Ga. de Laharagua* (1397) eta abar, betiere izena pertsona berari dagokiolarik (2011: 591). Aipagarriak dira, orobat, *Bernardo de Lasahaga d'Ostauallyes* pertsona-izena (*ArchPampI* 1323)<sup>236</sup> eta *Per Arnaut, seynor d'Insarhague* (*CenBNav* 1452). Adibide hauetako askotan <rh> dugu; ez dirudi ustezko digrafo hau inoiz erabili denik dardarkari bortitza adierazteko, ez gaskoierazko ez beste ezein erromantzetako idatz ohituretan; hortaz, interpretaziorik sinpleena da pentsatzea <h>-k hasperena adierazten duela.

Ezin da *-haga* hasperendunaren adibide moduan onartu Baionako *Livre d'Or*-eko

<sup>236</sup> Agiria Iruñekoa izanik ere, badirudi Nafarroa Behereko izena dela: esaldi berean *Petro Arnaldi, domino de Larçabal d'Ostaualles* oztibartarra eta *Guyllermo Arnaldi, viçino de Guarriç* amikuztarra (Garrüzekoa) ditugu.

*Harrivilhague* (*LivOr* 1257), gaskoizko testu batekoa izanik <lh> digrafoak /ll/ albokari sabaikaria adierazten baitu ziur aski (Zierbide 1994: 45); agiri-bilduma berean *Harrevillaga* (*LivOr* 1235)<sup>237</sup> dago, latinez idatziriko testu batean; Orpustanek *rebilhague* (1249) eta *rabihague* (1498) dakartza (2000: 267 eta 346, hurrenez hurren).

*Reja*-ren bide beretik, hegoaldeko adibideak are urriagoak dira: cf. *Fagohaga* (*ArchBizki* 1456), baina <h>-rik gabe ageri dira agiri bereko beste *-aga* guztiak (*Boluçarraga*, *Ornartarriaga* eta *Murgeoloaga*). Arrasateko *Ochoa Vannes de Artaçoguihaga* (*ArchMondIII* 1457) izenean, berriz, zail gertatzen da <h> grafema hasperenaren adierazle ziurtzat hartzea: *Artazubiaga* da izen beraren beste agerraldietan dagoena, eta hain zuzen izena desitxuratuen ageri den adibidean dago <h>; agiri bereko beste izenetan, bestalde, *-aga* da beti atzizkia, <h>-rik gabe (cf. *Lope Ferrandes de Osinaga*, besteak beste). Azkenik, baztertu beharra dago Salaberrik (2015: 2.1.3 atala) aipatzen duen *Berasarihaga* adibidea (*ArchBilbi* 1458): *Beraxarichaga* (1385) eta *Berasarechaga* (1389) daude agiri-bilduma berean, eta, errata ez bada, <h>-k afrikatua adierazten duen adibideetako bat izango da (Ariza 2008: 151-152).

Honenbestez, badirudi hegoaldean ez dagoela *-haga* aldaera hasperendunaren adibiderik. Iparraldean ere ziur antzeko adibideak ez dira asko: *Insarhague*, *Laharhaga*, *Lasahaga* eta *Yturrihaga* dira nire uste egiantz handiena dutenak, beti ere abiapuntu gisa <h>-k hasperena adierazten duela onartuta.<sup>238</sup> Pentsatzen badugu *-ak* atzizkia lehenik gramatikalizaturikoen artean dagoela (ik. 4.8 atala eztabaidarako), beharbada ez da harritzekoa hasperenak fonema moduan garai historikora arte iraun duen eremukoak izatea *-haga* adibideok.<sup>239</sup>

<sup>237</sup> Badirudi hau bera dela Goihenetzek *Harreuilhaga* forman eman duena (2011: 509); lehenago *Harrevillaga* forman emana du (2011: 50).

<sup>238</sup> Agiri hauetako gehienek gainean ezin izan dut berariazko azterketarik osatu, <h> grafemak hasperena adierazten duen zehazteko; Nafarroa Behereko erroldetako *Insarhague* da, alde horretatik, ziurtasun handiena ematen didana, bilduma horretan zalantzarik gabe hasperena adierazten duten <h> ugari baitago. Ikus *-hen* atzizkiari dagokion 4.7 atala. Gogoratu beharra dago, dena den, Ipar Euskal Herrian ez dugula hain antzinako agiririk, eta baliteke IX., X. edo XI. mendeko agiririk izatera forma hasperendunen adibide gehiago agertzea.

<sup>239</sup> Atzizkiaren forma inoiz *-haga* (hasperenarekin) izan zela onartzeak zalantzan jarriko luke Lakarraren *\*har-ga* > *\*hahga* > *\*ahga* > *aga* bilakaera (2013: 579); ik. halaber 5.5.2 atala.

#### 4.5.1 Erdi Aroko -aga eta deklinabideko -ak atzizkiaren morfologia

Beste bi auzi nagusi daude -aga atzizkiaren inguruan Erdi Aroko corpusean neur daitezkeenak:

- (a) Mendebaldeko deklinabide plural zaharrear, -aak bezalako forma murriztu gabeak ditugu. Orpustanek (2000: 311) dioenaren aurka —“*eliza-aga* n’est jamais attesté”—, gutxi izanik ere, -aaga murriztu gabearen adibideak aurki daitezke zeharkako tradizioan: cf. Nafarroako *Larraaga* (*OnomVasc*19 1194),<sup>240</sup> *Joan de Goyçaaga* (*ArchDebal* ~1436)<sup>241</sup> eta *Juan de Bexaaga* (*ArchMirav* 1509); cf. halaber *Royaaga* (*TopAlav* 1731), zeinaren lehen osagaia gaurko *Arroiabe-*renarekin erka daitekeen (ik. goian *Reja*-ko *Arroiaha*, 4.4.1 (b) atala). Badira adibide zalantzazkoagoak ere, hala nola Hondarribi aldeko *oiann(o?)darraga aquerrir con sus laderas* (*OnomVasc*23 1555).<sup>242</sup>

Adibide hauen arazo nagusia da han-hemenka baizik ez daudela -aaga forma ustez murriztu gabeak, eta ez dute multzo dialektal esanguratsurik osatzen; baina ontzat emango bagenitu, lotura are nabarmenagoa litzateke toponimiako -aga atzizkiaren eta deklinabideko -ak-en artean.

- (b) Bigarren kapituluan esan bezala (2.4.2.2.1 eta 2.4.2.5.1 atalak), abs. pl. -ak atzizkiak bat egiten du ines. sing. -an atzizkiarekin mendebaldeko datuei gagozkielarik, izan ere -a berezkoa duten hitzetan *aldapaak* eta *aldapaan* bezalako forma murriztugabeak baititugu. Ohartarazi dugu, hala ere, kontsonantez bukatzen diren hitzetan ez dutela bat egiten abs. pl. -ak atzizkiak eta ines. sing. -an atzizkiak, eta hau euskal eremu osoko gertaera da: hots, abs. pl. *lanak* dugu, baina ines. sing. *lanean*, -e- epentetikoarekin.

Garai historikoan hala izanik ere, zilegi da Erdi Aroko datuetan kontsonante

<sup>240</sup> *Larraaga* ugariaren artean *Larraaga* bakarra da hau; cf. bestalde Bilbo inguruko *Larreagaburu* (*ArchBilbil* 1500). Horrelakoetan zail izaten da *lar* jatorrizkoan oinarrituriko formak ote ditugun zehaztea, edo -e paragokekoa duen *larre* berriagoan.

<sup>241</sup> Izen honen beste aldaerarik ez dago agiri-bilduma berean.

<sup>242</sup> 1705ean *oynon darraga aquerri* agertzen da; *oihan ondarraga agerri* edo antzeko zerbait bada, argi dago jatorrian ezin egon litekeela -aaga bezalakorik. Orobat gertatzen da *Martin Saes de Arriaaga* (*SimancVizcV* 1484) adibidean, eta *Derrondiaaga* (*OnomVasc*11 1604) izenean, honen osaera argia ez bada ere (1819n *Derrondeaga* da): *dorre* + *ondo* + -aga, beharbada?



ondoko *-aga* atzizkiaren adibideetan *-e-* epentetikorik ba ote den ziurtatzea, inoiz *\*laneak* modukorik izan dela frogatzen lagun dezaketen zantzuen bila. Horrelako adibide batzuk aurkitu ditut: cf. Nafarroan *Leherreaga* (*ColRonces* 1193),<sup>243</sup> *Vedareaga* (*ColRonces* 1284),<sup>244</sup> *Bideederreagua Arburua* (*ColRonces* 1284),<sup>245</sup> *Iturriotceaga*<sup>246</sup> (*OnomVasc12* 1305) eta *Ezpeleaga* (*LibOliv* 1311),<sup>247</sup> erdialdean *Joan de Liçareaga* (*ArchRentII* 1478) eta mendebaldean *Acheaga* (*AGVizc* 1493).<sup>248</sup>

Nire ustez, adibide ia seguru gehiago ere bada erdialde-mendebaldean, hala nola *Sancho de Ameçeaga* (*ArchPlen* 1494), *Luys de Unçeaga* (*ArchSoral* 1517) eta, *gatzaga* izenaren aldaera diruditenak, *Martin Perez de Gaçeaga* (*ArchBilbi* 1389, 1402), *Pero de Gaçeaga* (*VecVizcI* 1511), *Juan de Gaçeaga*, *Martin de Gaçeaga* eta *Pedro de Gaçeaga* (*VecVizcII* 1514) eta Albizturko *casa de Cazeaga* (*JuntGuip* 1514). Azken hauek ez ditut erabat ziurtzat jo, datuak estu hartuz pentsa bailiteke hauen jatorrizko osieran *-tza* dagoela *-aga* atzizkiaren aurretik (cf. *Reja*-ko *Gazaheta* < *gatz* + *-tza* + *-eta*); irozgarri sendorik ez duen analisi hori hobetsiko bagenu, bestalde, *-a* + *-a-* > *-ea-* disimilazioaren adibide lirarteke, De Rijkek *Oleaga* izena hizpide hartuta deskribatu bezala (ik. hurrengo atala).

Ustez *-eaga* duten adibide hauek berriz ere uzten dute agerian *-aga* atzizkiak deklinabide mugatuarekin duen lotura.

<sup>243</sup> Bide batez, baliteke *Lerga* izena izen beraren adibide izatea, D-elementua gramatikalizatu baino lehenagoko *-ga* mugagabearekin; cf. *Leerga* (*DocMont* 1086 eta *Collrach* 1104).

<sup>244</sup> Badirudi *belar* + *-aga* izan daitezkeela saroi izen honen osagaiak; *belar* hitzak badu ekialdean ere (zub. eta erronk.) *beda-* aldaeraren adibiderik, cf. *bedatse*, *bedajo*, *bedaro*, etab. Baliteke bilduma bereko 1193ko *Badagarra* izen bera izatea, metatesiarekin eta lehen bokalaren asimilazioarekin.

<sup>245</sup> Badirudi urte bereko *Vaide*, *Ederraga Burua* izen bera dela, gaizki zatitua edizioan (bildumako 291 agirikoa da hau, bestea 290ekoa). Bi agiri hauetan, 290 eta 291 zenbakidunetan, hainbat izen errepikatzen dira, baina badirudi bigarrenean zenbait izen desitxuraturik daudela: cf. *Menditartea* lehenean, *Moditarte* bigarrenean.

<sup>246</sup> Izen honen aldaera nagusia *Iturriotzaga* da, hala ere, epentesidunaren aldean; ez da baztertzekoa, gainera, *Iturriotze* bezalako forma baten gainean osatu izana.

<sup>247</sup> Dokumentuan bertan *Ezpelaga* irakurtzen da ageri den adibide bakarrean; edizioaren aurkibidean, ordea, *Ezpeleaga* da beti. Agiri-bildumaren editore den Munitak berak diostanez, litekeena da *Ezpelaga* hutsa izatea.

<sup>248</sup> Euskarazko tradizio idatzian zein ahozkoan *haitz* hitzak ez du *atxe* aldaerarik inon (*OEH* s.v.); toponimian baizik ez da agertzen (cf. *Aranaratxe*, etab.), baina halako izenetako *-e* paragogeko tipikoa da.

#### 4.5.2 Erdi Aroko -aga eta De Rijken hipotesia

De Rijken beraren bi argudioek ere (1981: 93; 2.4.2.5.1 atala) ohar bana merezi dute Erdi Aroko datuen ikuspegitik:

- (a) Gogorarazten du -aga erreferente bakarreko elementuei ere lotu izan zaiela (cf. *Andrearriaga, Arespakotxaga*), eta horregatik ezin dela pluralitatearekin lotu; badira, bi horietaz gain, erreferente bakarreko -aga atzizkidun leku-izenak, Orpustanek (1999: 244) aipatzen duen *elizaga* bera bezalakoak, zeinak ‘eliza multzoa’ ez baizik ‘eliza ingurua’ adieraziko duten. Ohartzekoa da, hala ere, semantikoki erraz azal daitekeela pluralitatea adierazten duenak lekua adieraztea toponimian; gainera, bada beste atzizkirik euskararen barnean bilakaera bera izan duenik: -eta atzizkiak, zalantzarik gabe pluraleko deklinabidearekin lot daitekeenak, baditu halako leku balioak jadanik Erdi Aroan, *Reja*-ko *Sansoheta* eta *Mariaeta* horren testigu. Ikus, hala ere, 5.5.5.2 (a) atala, ‘inguru, leku’ adieraren lehentasunaren aldeko hipotesiaz.
- (b) Mitxelenak (*FHV* 529) dakarren *Oleaga* aipatzen du De Rijknek, argudiatuz -aga atzizkidun leku-izen horretan disimilazioa gertatzen dela, deklinabideko -ak atzizkiarekin ez bezala, eta horregatik ezin direla morfema bera izan. De Rijken ideia honen aurka zortzi argudio edo datu mota eman daitezke, gutxienez:
  - (i) *Oleaga*-renez gain aurki daitezke *Olaga*-ren adibideak mendebaldean: Araban, Plentzia aldean... Ekialde zabaleko adibideek, jakina, ez dute eztabaidan esangurarik. *Olaga*-ren eta *Oleaga*-ren artean lehentasun kronologikoa zeinek duen erabakitzeke, aipatu beharra dago, dena den, corpusean *Olaga*-ren lehendabiziko agerraldia 1402koa dela (*Yraolaga* da adibidea), *Oleaga*-rena (1307) baino berantiarra. Ikus II.3 eranskinen 41. taula.
  - (ii) *Oleaga* izena, corpusean ugaria izanik ere, oso eremu jakinekoa da, eta bi gune nagusi antzeman daitezke izen honen erabileran: Debagoiena eta Busturialdea-Mungialdea. Ikus II.3 eranskinen 42. taula.
  - (iii) Ez dirudi *Oleaga*-z gain -a + -a- > -ea- disimilazioaren adibide askorik

aurki daitekeenik *-aga* atzizkiarekin. Aurkitu dudak bakarra *Kobeaga* da; bere lehen agerraldia 1456koa da corpusean (*Juan de Cobeaga*, *ArchDurIV*), eta aski urria da, bestela ere (hamar adibide inguru baizik ez dira);<sup>249</sup> arestian esan bezala, nire ustez, *Gatzeaga* edo *Ametzeaga* bezalakoak ez dira hartu behar fenomeno honen adibide moduan.

- (iv) Aldiz, Mitxelenak iradokitakoaren bidetik, *gaztaina*, *kapana*, *elexa* eta halakoetan —denak bi silaba baino gehiagokoak— ez dago disimilaziorik *-aga* atzizkiarekin: cf. *Gaztainaga*, *Elexaga*, *Kapanaga*, *Madaltzaga*, *Loitzaga*... Cf., besteak beste, *Sancha Lopes de Gastannaga* (*SDomLeq* 1383), *Martin Sanches de Capanaga* (*ArchDurIV* 1463), *Pero de Elexaga* (*VecVizcI* 1511), eta *-tza* atzizkiarekin *Madálçaga* (*ArchElgoi* 1346), *Careouiçaga* (*ArchDebaI* 1412), *Hortun Saes de Loyçaga* (*ArchPortuI* 1424), eta bese. Ikus II.3 eranskinetako 43. taula zerrenda osoago baterako. Hauen guztien aldean, bakan xamar geratzen dira *Oleaga*-ren adibideak (eta *Kobeaga*-renak).
- (v) Bestalde, *Oleaga* agertzen den agirietan —eta besteetan ere—, askoz ugariagoa da *Olea*, oro har; Arrasateko agiri-bildumak dira salbuespen nagusia, horietan ez baitut aurkitu *Olea*-ren adibiderik. Baliteke *Olea* izenaren ugaritasunak zerikusia izatea *Oleaga*-ren sorreran.<sup>250</sup>
- (vi) Aurreko argudioan sakonduz, kontuan hartzekoak dira adibide hauek: *Pero Lopes de Oleaçarraga e Juan Yuanes de Oleaçarraga* (*ArchOñatI* 1479) eta *Pero de Oleasagasti* (*ArchMondIV* 1475); hauek agerian uzten dute nolako beregaintasuna eskuratu zuen singularreko *Olea* ugariak Debagoienera izen bakun moduan, eta bidea errazten du *Oleaga* bera ere *Olea*-ren gainean (edo

<sup>249</sup> Hauek dira corpusean aurkitu ditudanak: *Juan de Cobeaga* (*ArchDurIV* 1456; bitan agertzen da, eta hirugarren batean *Coleaga* dakar), *Juan Saes de Cobeaga* (*ArchPortuI* 1476), *Juan ferrandes cobeaga* (*ValmJud* 1478), *Juan Saes de Cobeaga* (*ArchBilbII* 1486), *Pero abad de Cobeaga* (*ArchLeqII*, *ArchLeqIII* 1510), *Furtunno de Coveaga* (*PadrLeq* ~1510), *Coveaga* (*ArchLeqII*, *ArchLeqIV* 1514) eta *Anton de Cobeaga* (*ArchLeqII*, *ArchLeqIV* ~1520); cf. *Martin de Hordenana, el de Coleaga* (*VecVizcII* 1514).

<sup>250</sup> Azalbide honek ez du balio *Kobeaga* berantiaragorako, ez baitut *\*\*Kobea* izena aurkitu.

bere eraginpean) osatu zela pentsatzeko.<sup>251</sup>

(vii) Ildo beretik, *Oleaga*-ren ondoan jar daitezke Arabako *Oleagea* (*OnomVasc*29 1578) eta *Oleagueta* (*OnomVasc*29 1656): horietan argi dago *-aga* + *-a* eta *-aga* + *-eta* dagoela, hurrenez hurren, baina hortik ezin da ezer ondorioztatu euskal deklinabidearen morfologiaren (-*agea* eta *-ageta* modukoek ez dute inoiz tokirik izan deklinabidean). Jatorrian atzizkidun izanik, beste atzizki bat erantsi zaie leku-izen bakuntzat hartu diren izenei, behin eta berriz: *Oleagea*-ren kasuan, beraz, *ola* + *-a* dugu lehenik, *Olea*, honi *-aga* gehituz *Oleaga*, eta, azkenik, *Oleaga*-ri berriro *-a* gehituz, *Oleagea*. Debagoieneko eta beste zenbait tokitako *Oleaga*, beraz, atzizki eranste etengabe horretako tarteko urrats bat baino ez da, Araban are urrunago jo duena. Ezer izatekotan, eratorpenezko bilakaera bat da, ez izenaren deklinabidearen morfologiari dagokiona.

(viii) Ez dirudi De Rijken hipotesiak *-haga* aldaera azal lezakeenik.

Mitxelenaren ustea berresten dute datu eta argudio hauek guztiek: *Oleaga*-rena “*conato del cambio occidental -a + -a > -ea*” (*FHV* 529, etzana nirea) dela dio,<sup>252</sup> oroitaraziz *Capanaga* eta *Maltzaga* bezalakoak ere badirela, eta beste toki batean ere *Oleaga* berriagotzat jotzen du (Mitx IX 281, 12 oh.). Nire argudiobidean, aldaketa horren “conato” beharrean, esan dut forma lexikalizatuari beste D-elementu bat gehitu zaiola, baina ondorioa bera da: De Rijken *Oleaga* salbuespena da, eta ez dirudi deklinabidearen berreraiketarako datu esanguratsu moduan erabil daitekeenik, ez baitigu ematen deklinabidearen jatorrizko osaeraren arau orokorren berri.

#### 4.5.3 *-aga/-haga Erdi Aroan: laburpena*

Ororen buru, eztabaida honek ziurtatzen du *-aga* atzizkiak erakusle jatorria duela eta

<sup>251</sup> Bide beretik, esanguratsuak dira Elgetako agiri-bildumako (*ArchElguet*) *Urtacoollea* leku-izenari dagozkion lekukoak: cf. *seles llamados Vrtacoolaveytia e de Vrtacoolagaray* (1458), edo *seles de Vrtacoolabeytia e Vrtacoollea de arriaba* (1458) edo *Urtacoolagaraya* eta *Urtacoollea de baxo* (1487); hots, gaztelaniazko izenerako, *de abajo* edo *de arriba* gehitu behar zaionean, *-olea* duen forma mugatua da oinarria beti, nahiz eta, berez, bere euskal ordain zuzenek ez duten horrelakorik, artikulua sintagma osoaren bukaeran jartzen baita, behin (*Urtacoolagaraia* edo *Urtacoolabeitia*).

<sup>252</sup> Beste toki batean esaten du: “No sé si esto, dentro de esa zona es la excepción o la regla” (IX 74).

deklinabidearekin lotura estua duela. Lotura hau berresteko hiru datu mota berri ekarri ditut hona: *-haga* arkaikoa duten leku-izenak, *-a* amaierako izenetako *-aaga* asimilaziorik gabekak eta kontsonante amaieradunetako *-eaga* epentesidunak. Horren gehigarri moduan, De Rijken hipotesia baztertzeko zenbait datu eman ditut, eta *Oleaga* izenaren esanguratasuna auzitan jarri.

#### 4.6 *-eta/-heta* atzizkia *Reja-n* eta Erdi Aroko beste zenbait agiritan

Deklinabideko atzizkien artean *-eta* izan da bere jatorriaz zeresan handiena eman izan duenetakoa, *-aga* atzizkiarekin batera (ik. 2.4.2.6 atala); hemen, betiere deklinabidea erakusleen gramatikalizazioarekin lotzen duen hipotesiaren bidetik, onartuko da erakuslea euskal jatorrikoa dela, eta, jatorrian hasperena zuela berresteko, horrenbestez, Erdi Aroko lekukotasunak arakatuko dira.

Honako hauek dira *Reja-n -eta/-heta/-keta* atzizkia duten adibideak: *Andozketa*, *Azazaheta*, *Bagoeta*,<sup>253</sup> *Berroztegieta*, *Erroheta*, *Gazaheta*, *Galharreta*, *Gelhegieta*, *Harizavalleta*, *Harrieta*, *Haizcoeta*, *Haizpilleta*, *Haztegieta*, *Mariaeta*, *Sagassaheta* eta *Sansoheta*. Ez dira atzizkiaren adibide ziurrak *Anuzquita*, *Mandaita*<sup>254</sup> eta *Hamarita*; eta *Frasceneta*-k ez du euskal itxurarik (*Fresneda* da gaur).

Salaberrik (2015: 2.1.3) ongi adierazi bezala, <h>-rik gabeko *-eta*-ren adibideak azal litezke aurretik beste hasperenen bat dutelako: cf., bere zerrendari segituz, *Gelhegieta*, *Haizcoeta*, *Haizpilleta*, *Harrieta* eta *Haztegieta*. Baina ustezko arau honek ez ditu azaltzen <h>-rik gabeko *-eta* atzizkiaren adibide guztiak, bai baitira batere hasperenik ez duten leku-izenak: *Bagoeta*, *Berroztegieta* eta *Mariaeta*.

Ezaguna den bezala, txistukari ondotik *-keta* da atzizkiaren aldaera (cf. *Andozketa*). Bestalde, adibide goiztiarrak izanik ere, badirudi zenbait kasutan *-eta* atzizkiak bere jatorrizko plural balioa galdu eta lekua baizik ez duela adierazten: hori iradokitzen dute *Mariaeta* eta *Sansoheta* lekukotasunek, *Maria* eta *Sanso* izen

<sup>253</sup> Aurreko lan batean oker eman nuen *Reja*-ko leku-izen hau, hasperenarekin (\*\**Bagoeta*; 2006: 674); baina cf. *Beguheta* (*SMillán* 952).

<sup>254</sup> Bi hauetan hurrenez hurren *ahuntz* eta *mando* daudela onartuko bagenu, animalia edo bizidun izen bakarrak lirateke *-eta* atzizkiarekin (alde batera utzirik *Mariaeta* eta *Sansoheta*). Lehenari dagokionez, ik. 5.3.3 atala.

berezietan oinarrituak baitira, eta badirudi errezagoa dela pentsatzea ‘Mariaren edo Sansoren lekua’ adierazten dutela, eta ez ‘*Maria* edo *Sanso* izenekoak ugari diren lekua’ edo antzeko zerbait.

Erraz aurki daitezke *-heta* <h>-dunaren adibideak *Reja*-tik kanpo ere; zerrenda osorako, ik. II.4 eranskina.

Donemiliagako kartulario galikanoan berean badira gehiago: *Beguheta* (952; cf. *Reja*-ko *Bagoeta*), *Beila de Sagazaheta* (1089; ik. goian *Sagassaheta*), *domno Orbita de Hareizelheta* (1106) eta *Gomiz de Larrinhetago*<sup>255</sup> (1129; *Elhorzaha* dago agiri berean). Jakina, *-eta* aldaera hasperenik gabea maiz agertzen da *Reja*-z besteko agirietan ere.

#### 4.6.1 *-heta* aldaeraren iraupena eremu geografikoen arabera

Arabako lehen lekukotasun horietatik kanpo, oso eremu geografiko jakinekoak dira nire corpuseko gehienak, eta Gipuzkoa mendebaldean agertzen dira, gehienbat: Debagoieneko izenetan, Debabarrenekoetan eta Urola Kostakoetan bereziki. Bizkaian, berriz, Gipuzkoako eskualde horiekin mugakide diren Ermuan, Ziortzan eta Ondarroan, eta bada, era berean, bai urrutixegoko Gernika inguruko adibideren bat edo beste. Orobatsu Araban, adibide gehienak Agurain aldekoak eta Arratzua-Ubarrundikoak baitira. Hauen artean, cf. *Arteheta*, *Meçeheta*, *Muruheta*, *Oçaheta*, *Olaheta*, *Leçeheta*, *Elgueheta*, *Çumeheta*, *Landaheta*, *Çuloheta*, *Yraheta*, etab.

Nafarroako agirietan adibide bakarra jo dut ziurtzat: *uilla de Verroheta* (SGarc ~1030). Ipar Euskal Herriko agiri-bildumetan, bestalde, adibide garbiak urriak dira, eta direnak Nafarroa Beherekoak dira: *Goihenetxek dnus de Sorohete* (*OnomNord* 1381), *el palacio de Soroheta* (*OnomNord* 1388), *Metge Sanz de Sorohete* (*OnomNord* 1405) eta *Soroheta* (*OnomNord* 1513) dakartza, baina gehiago dira *Sorhoeta* aldaeraren adibideak, hasperena dardarkariaren ondotik dutela (Goihenetxe 2011: 170).

Zuberoan, *ostau d’Arhanchete* (*CenSoul* 1377) ez da adibide ziurra: *arhantz(e)* + -

<sup>255</sup> Baliteke adibide honetan *-ko* atzizkiaren herskaria ahostundu izana, bokalarteko herskari ahoskabeen bilakaera erromantzeari jarraiki (cf. lat. *lacus* > gazt. *lago* etab.). *Sarrigo arana* (SMig d.g.) adibidean gauza bera gertatu ahal izan da, *Sarriko harana* ulertu behar bada.

*heta* izan liteke, <c>-k txistukaria (cf. bilduma bereko *ostau d'Arhanspea*) eta <h>-k hasperena adierazten badute, baina baliteke <ch>-k afrikatua adieraztea, besterik gabe; orobat Nafarroa Behereko *Gassernaut, seynor d'Udareschete* (*CenBNav* 1452). Kontuan hartzekoa da, gainera, txistukari ondotik *-keta* espero beharko genuela, eta, beraz, leku-izen hauen bilakaera bestelakoa izan zela: *arhantze + heta > \*Arhantzeheta > \*Arhantzeeta > Arhantzeta* eta *udaretze + heta > \*Udaretzeheta > \*Udaretzeeta > Udaretzeta*; azkenurreko silabako *-e-* bera ere, zalantzabide dudan <h> bezalaxe, erroarena izan daiteke, ez atzizkiarena; cf. gainera *Arnaut, seynor d'Arhancete* (*CenBNav* 1452) eta *Hudareceta* (*TopOlivI* 1538). Azkenik, *Lostau de domesainhete* eta *Lostau despaynhete* adibideetan (*CenSoul* 1377) <nh> digrafoak sudurkari sabaikaria adierazten du, ziur aski, eta dirudienez atzizki ttikigarri erromantzea dago horietan.

II.4 eranskinetako taulan zerrendaturiko lekukotasun gehienak XIV-XVI. mendeetakoak dira, eta, esan bezala, adibide gehienak Gipuzkoa mendebaldeko eskualdeetakoak dira, eta bere lurralde mugakideetakoak, Arabakoak eta Bizkaikoak, alegia. Datu hauek mapa batean antola daitezke, betiere gogoan atxikiz datu eta zenbaki hauek lehen hurbilketa bat baizik ez direla, Erdi Aroko lekukoek eman dezaketen informazioaren erakusgarri. Hona hemen 44. taulako lekukoaren adibideen kopuruak eskualdeka:

<b>Araba</b>	
<b>Eskualdea</b>	<b>Adibide kopurua</b>
Aguraingo eskualdea	17
Zuia-Gorbeialdea	3
Trebiñu	2
Kokapen ezagunik gabeak	2
<b>Gipuzkoa</b>	
<b>Eskualdea</b>	<b>Adibide kopurua</b>
Debagoiena	33
Debarrena	2
Urola Kosta	19
Goierri	2
Tolosaldea	1
<b>Bizkaia</b>	
<b>Eskualdea</b>	<b>Adibide kopurua</b>
Busturialdea-Urdaibai	3
Lea-Artibai	3
<b>Nafarroa</b>	
<b>Eskualdea</b>	<b>Adibide kopurua</b>
Atetz ibarra	1
<b>Nafarroa Beherea</b>	
<b>Eskualdea</b>	<b>Adibide kopurua</b>
Arberoa	2
Kokapen ezagunik gabeak	2

4. taula. 44. taulako adibideak eta lekukotasunak zenbakitan.


Ohartu beharra dago Nafarroa Behereko guztiak *Soroheta* izenaren adibideak direla.

Bestalde, mapa osatzeko, hauetako datu gutxi batzuk baztertu ditut:

- (a) Adibide bakarra duten eskualdeak kanpo utzi ditut: Atetz ibarra eta Tolosaldea.
- (b) X.-XIII. mendeetako datuak kanpo utzi ditut: Trebiñukoak, Zuia-Gorbeialdekoak eta Atetz ibarrekoak; ohar bedi, hala ere, lehen bi eskualdeak *-heta* duten besteekin mugakide direla.



Hona, bada, kopuruak mapan irudikatuta:



3. irudia. *-heta* duten izenen banaketa geografikoa XIV. mendetik XVI. mende hasierara.<sup>256</sup>

Nire ustez, esanguratsua da mapa honek *-heta* aldaeraren erabileraz (eta, nire hipotesian, bere iraupenaz) ematen duen irudia, banaketa geografikoagatik, eta, era berean, sinesten dut hizkuntzaren ezaugarri fonologiko eta are morfologikoen berri ematen digutela. Jakina, pentsa liteke eskribauen ohitura grafiko hutsa izan zela, baina, orduan, ez da ulertzen, adibidez, zergatik ez dagoen Bizkaiko eta Gipuzkoako beste udal-agiritegietan adibiderik, ez eta zergatik agertzen diren berriz ere Nafarroa Beherekoetan. Era berean, bestelako galderetarako bidea ere irekitzen da, hala nola zergatik ez dagoen Durangaldean *-heta*-ren adibiderik,<sup>257</sup> ezinbestean etorkizuneko ikerketetarako geratuko direnak.

#### 4.6.2 *-heta*-ren hasperena: morfema arteko muga markatzeko sortua ala jatorrizkoa?

Salaberriren ustez (2015: 2.1.3 atala), *-heta* atzizkiaren kasuan hasperenak morfema

<sup>256</sup> Mapa hau <http://muturzikin.com> gunetik jaitzita irudi baten moldaketa da.

<sup>257</sup> Iñaki Camino irakasleari eskertzen diot ohar hau.

arteko muga markatzen du, eta ez da, hortaz, berezkoa edo jatorrizkoa; Knörrek ere antihiatikotzat jotzen du (2000: 612; “con hache antihiática” dio, argitu gabe fonetikotzat ala grafikotzat duen). Zenbait argudio eman daitezke iritzi hauen aurka: (1) gertaeraren paralelo moduan Salaberrik ematen duen *Arzanhegi* ez da kontuan hartzekoa, *hegi*-k berezkoa baitu hasperena (cf. *Hegilior* eta *Heguiraz*; Salaberrik berak *hegi*-ren hasperenaren berezko izaera aitortzen du aurrerago); (2) morfema muga markatzeko hasperena agertzearen fenomeno ez da dokumentatu euskara historikoan modu emankorrean; (3) Mitxelenak dio hasperenak betekizun exkaxa duela morfologian (*FHV* 213); (4) 4.4.1 atalean esan bezala, hasperenaren murriztapenak gogoan hartuta (*FHV* 215), fonetikaren ikuspegitik nekez justifika daiteke hitz baten hirugarren eta are laugarren silaban hasperen bat ezerezetik sortzea, eta errazago azaltzen da jatorrizko hasperen baten iraupenaren bidez.

Funtsean, jatorri etimologikoa bila dakioke Salaberrik aipatzen dituen morfema gehienetako hasperenari, eta, nire ustez, hori da lehenetsi beharreko bidea; bestalde, hasperenaren galera progresibo orokorraren lekuko gisa har liteke *-eta* atzizkiaren hasperena orokorra ez izatea, edo erakusleen gramatikalizazio prozesuaren barreneko soilte fonologikoaren adibide gisa.

#### 4.6.3 *-eta/-heta Erdi Aroan: laburpena*

Laburbilduz, *Reja*-ko adibideetan *-heta* atzizkiaren adibideak badaude, eta hauetan hasperena adierazten du <h>-k; nire ustez jatorrizkoa du hasperena, ez da morfema muga markatzeko sorturikoa. Atzizki <h>-dunaren beste lekukoek oso hedadura geografiko zehatza dute (ik. 3. irudiko mapa), eta, agiriz agirikako grafia-azterketa egiten ez den bitartean, hau bitara uler daiteke: eremu jakin bateko ohitura grafiko baten ondorio izatea, edo <h>-k hasperena adieraztea.<sup>258</sup> Uste dut badela bigarren aukera honen aldeko zantzurik: Ziortzako kolegio elizako agiritegian, *fasta el dia que llaman Donestefahe* dugu (*ColCenar* 1353), eta argi dago izen horren jatorrizko formak,

<sup>258</sup> Hirugarren aukera bat ere bada: baliteke jatorrian esangura fonetikoaren zuen grafia batek, hotsa bera desagertuta ere, iraun izana. Tradizio grafikoak, hortaz, ordurako desagertua zegokeen hotsaren adierazpen idatzia iraunaraziko zuen. Joseba Lakarrari eskertu nahi diot ohar hau.

\**Donestebane*-k, *-n-* duela; bokalarteko *-n-* > *-h-* bilakaera ezagunaren adibide bat gehiago da (cf. lat. *anate* > eusk. *ahate*; *FHV* 300), eta, beraz, horrek iradokitzen du *Donestefahe*-ko <h>-k hasperena adieraziko zuela; interesgarria da, azken silabakoa baita sudurkariaren ondorengo hasperen hau. Agiri berean, bestalde, *Hondarroa* dago, eta baliteke adibide honetan <h>-k *hondar* hitzaren jatorrizko hasperena adieraztea. Jakina, iturri hauetako <h> guztiek ez zuten hasperena adieraziko, baina zenbait kasutan argi dago hala dela.

Datu garrantzizkoak dira horiek mendebaldeko hasperenaren galeraren historiarako: Mitxelenak aipatzen du (*FHV* 205) mendebaldean hasperenak berandu arte iraun ahal izan zuela, XIII. mendera arte gutxienez; datu hauekin XIV. eta XV. mendeetara arte luza daiteke epe hau, egiantz handiarekin (cf. bereziki 1353ko *Donestefahe*). Hasperenaren lekukotasunak garai historikora —hots, testuen garaira— hurbiltzen badira ere, zaila dirudi Mitxelenak (XI 159-167) *Refranes y Sentencias* testuko <h>-ez egindako oharrauzitan jartzea;<sup>259</sup> nolana ere, bidea izango dugu Mitxelenak garai historikorako deskribatu zituen hasperenaren kokaleku murriztapenetan sakontzeko (*FHV* 215), baita galdetzeko ere bigarren silabatik aurreragoko hasperen ugariak zeri dagozkion (cf. *Reja*-ko adibideak, *Donestefahe*, etab.), edo bertan “sorturikoak” izan ote daitezkeen, edo ezinbestean jatorrizkoak ote diren.

#### 4.7 *-en/-hen* atzizkia *Reja-n* eta Erdi Aroko beste zenbait agiritan

Aurreko atal batean esan bezala (2.4.2.5.4), deklinabideko genitibo pluralekoarekin lotu ohi da superlatiboko *-en* atzizkia. Mitxelenak dioenaren kontra —“Tampoco creo conocer ningún testimonio de *-en*, *-ei*, etc., en los casos no locales de plural” (IX 282)— eta superlatiboaren eta genitibo pluralaren arteko erkatze horren bidetik, bada, nire ustez, genitibo pluralaren forma arkaikoaren adibiderik Erdi Aroko eta bestelako

<sup>259</sup> Aipagarria da Nafarroako hasperenaren galeraren auziaz datu berrien argitara esan daitekeena: Mitxelenak Erdi Aroko datuetan oinarriturik eraikitako ustearen aurka, badirudi XIV. mendean bazela oraindik hasperena Nafarroa hegoaldean, Lizarra aldeko pertsona baten izenean hasperenaren zantzu zalantzarik gabea baitugu; alde horretatik, baliteke hasperen gehiagoren lekukoak izatea Nafarroako agiri eta testuetan. Ikus 7.3 atala.

hainbat lekukotan.

Honako hauek dira *Reja*-n superlatiboarekin agertzen diren izenak: *Arbelgoihen* eta *Mengano Goien*. Badirudi eztabaida berean ezar daitekeela *Goiahen* ere (gaurko *Goiaín*); *Cogahan* forma desitxuratuán ere agertzen da (*SMillán* 952). Pentsatzekoa da *-guren* osagaian ere superlatibozko *-en* atzizkia dagoela (cf. *Helkeguren*, *Hurigurrena*, *Ibarguren* eta *Mendiguren*). Donemiliagako kartulario galikanoko ustezko adibideen artean, aipagarria da Bermeo inguruko *Urho Ghennaga Sursum* (*SMillán* 1093), baina pasarte horrek arazoak ditu transkripzioan eta leku-izenen identifikazioan.

*Reja*-ko adibideetan, hortaz, *-hen* bat eta *-en* bat ditugu, biak *goien* hitzean. Hurrengo ataletan, eztabaidan sartu ditut *goien*-ez gain superlatibotzat jo ohi diren (Orpustan 1999: 196-197) beste hitz batzuk ere, eta *Reja*-z besteko agirietan euskara modernoko *barren* eta *behe* hitzekin loturiko aldaerak bilatu ditut. Denetan aurkitu ditut <h>-dun adibideak; II.5 eranskinetako tauletan dago bilduriko lekukotasun guztien zerrenda.

#### 4.7.1 Goihen superlatiboa *Reja*-z besteko Erdi Aroko agirietan

Bereziki aipagarriak dira Nafarroa Behereko eta Zuberoako adibideak, bere ugaritasunagatik (45. taula, II.5 eranskinetan): cf. Zuberoako errolda gotikoko *Irigoyhen*, *Jaurgoihen*, *Echegoyhena*, *Goyheneche* ugariak; hasperenik gabeko *goien*-en lau adibide baizik ez ditut jaso bilduma horretan. Nafarroa Behereko lekukoén artean, bi datu dira aipagarri: Zierbidek editaturiko erroldetan (*CenSoul* laburdurapean), irizpide nabarmen bat antzeman daiteke, izan ere *Goihenetxe* deitura 1412koan beti idatzi baita <h>-rekin, baina inoiz ez ~1350ekoan; badirudi zaharrenean ez dela islatu hasperena idatzizkoan.<sup>260</sup> Bestalde, Carrascok bildurikoen artean (*PobNav* laburdurapean),

<sup>260</sup> Pentsa liteke honek Mitxelenaren hipotesiaren alde egiten duela (*goihen* hasperenduna berriagoa dela dio berak, *FHV* 220). Baina badirudi idatz ohitura edo idatz-irizpide orokorragoen bitartez azaldu behar direla errolda hauetako <h>-ren erabilerari dagozkionak: cf. Izpurako *Bernart*, *seynor de Olaga* (~1350) eta, hatxerekin, *Olhague* (1412); izen honetan, gainera, hatxe dagoenean *-ague* dugu, Nafarroa Behereko bertako idazkari edo eskribau baten eskua sala lezakeena, hots, hasperenak aise entzun edo idatz zitzakeen batena, eta hatxerik gabeko *Olaga*-n *-aga* dugu, Pirinioez bestaldeko norbaiten eskua sala lezakeena. Orobat gertatzen da *eyera* eta *eyhera* bikoteekin, etab. Zierbide editoreak (1993: 4) dioskunarekin bat egiten du honek guztiak: 1350eko errolda nafar erromantzez dago idatzia, Iruñean ziur aski, eta 1412koa gaskoieraz.

Nafarroa Beherekoek baizik ez dute <h>, Nafarroa Garaiko *goyen* ugarien aldean; esanguratsua izan daiteke datu hau, Ipar Euskal Herriko eremuan hasperenak luzaroago iraun duela kontuan hartuta. Forma hasperendunaren lekukotasunik zaharrena, ordea, ez da ez Zuberoakoa ez Nafarroa Beherekoa: cf. Uztaritzeko *Yrigoihen* (*LivOr* 1256),<sup>261</sup> Arabako *Arbelgoihen* ahaztu gabe, jakina; Zuberoan eta Nafarroan Beherean antzinagoko dokumentaziorik bagenu, ziur egon gaitezke han ere izango genituzkeela -*hen* atzizki hasperendunaren adibide zahar gehiago.

Nire ustez, ez dago zalantza handirik lekukotasun horietako <h>-k hasperena adierazten duela: euskara historikoan dokumentatua dago *goihen* hasperenduna, Etxeparerekin hasi eta beste hainbat autorerekin segi (ik. *OEH* s.v. *goien*).

*Goien*-i dagozkion datu hauen artean, dena den, beste lekukotasun batzuk berebizikoak iruditzen zaizkit eztabaidarako: Araban eta Debagoienan *gohen* eta *goihen* duten izenak daude; hauen banaketak, kopuruetan dauden aldeak gorabehera, bat egiten du *-heta* aldaeraren eremu geografikoarekin (ikus 3. irudiko mapa). Nire ustez, honek indartu baizik ez du egiten 4.6.1 atalean *-eta/-heta* atzizkiari buruz eta hasperenaren iraupenaz proposaturikoa; *-hen* atzizkiari eta *-heta* atzizkiari dagozkion datuak elkarren osagarri dira, eremu geografiko bertsuan aurkitzen ditugulako.

Honek guztiak aditzera ematen du *-hen* atzizkian hasperena inoiz orokorra izan dela, eta, nire ustez, horrek Mitxelenaren ustearen aurka egiten du: zioenez, *goihen*-eko hasperena gerora sorturikoa da (*FHV* 220); nire hipotesi nagusiaren barruan, errazagoa da onartzea jatorrizkoa zela, erakusletik zetorkiona.

#### 4.7.2 Barhen *Erdi Aroko agirietan*

*Goien*-ek *goihen* aldaera garai historikoan dokumentatua duen bezala, *barren*-ek ere badu *barhen* aldaera Zuberoan eta Nafarroa Beherean (*OEH* s.v. *barren*); cf. adibidez Oihenarten 634. atsotitza, *Ibia duenak igaren, daki osina zein den barrhen*.<sup>262</sup>

<sup>261</sup> Lapurdikoa delako, deigarria da agiri bereko *Hurigoien* aldaera, *-u-* duen *huri* aldaerarekin. Cf. halaber Ulibarrik (2011: 379, 12 oh.) zer dioen Araba ekialdekoa izan daitekeen testu bateko *uri-z*.

<sup>262</sup> Cf. bide batez Oihenarten beraren *Atsotitzen urrhenkina*.

Zilegi da, beraz, Erdi Aroan horrelakoak bilatzea. Aurkitu ditudan guztiak<sup>263</sup> Zuberoako errolda gotikoan daude (46. taula, II.5 eranskina): cf. *Barhnetche* eta *Barhene*; badira, jakina, *Barreneche* eta *Iribarren* ere. Itxuraz *barren* hitzaren aldaera moduan ageri den *barre*-k ere badu *barhe* aldaera: cf. *Barhechea*, baina ugariagoak dira *Barreche* bezalakoak; cf. *goyheche(a)* Zuberoako erroldan.

Ez da ahaztu behar, bestalde, *barne* aldaera, leku-kasuetako formaren sinkopaz sorturikoa (cf. *barrean* > *barnean*), ugaria eta goiztiarra dela Erdi Aroko lekukoetan; Zuberoako *barhen* horiek, hortaz, arkaismo moduan ikus daitezke *barren* eta *barne* formen aldean.<sup>264</sup>

#### 4.7.3 Behen Erdi Aroko agirietan

Euskara historikoan *behen* ez da ageri hitz bakun gisa: horren ordeaz, *behengo*, *beheneko* edo *beherengo* modukoak ditugu (ik. *OEH* s.v.), eta, jakina, *behe* bera. Bereziki azken honetan argi dago <h>-k hasperena adierazten duela.

Erdi Aroko agirietan *behen* eta *behe*- modukoak bilatu ditut (ik. II.5 eranskinetako 47. eta 48. taulak). Aipagarria da *behengo* osagaia duten izenak Aguraingo eskualdean aurkitzea (cf. besteak beste Okarizko 1322ko *Martin Xemenes Vehengoa*), hain zuzen *goihen* eta *-heta* <h>-dunen adibideak ere eskualde horretan aurki daitezkeelako (ikus berriro 3. irudia); horretaz gain, Tolosaldean eta Urola Kostan ere aurki daitezke adibide zenbait, denetan lehena den Nafarroakoaz gain. Hatxerik gabeko *been* duten adibideak ere bildu ditut 47. taularen bukaeran, baina gutxi dira corpusean; jakina, *Bengoa* edo *Bengoetxea* modukoak askoz ugariagoak dira *behen* edo *been* dutenak baino.

Bestelako egoera dugu *behe*- duten izenekin, kasu honetan Zuberoako eta Nafarroa Behereko adibideen ugaritasuna deigarria baita (*behen* bakar bat ere ez dut aurkitu han): cf. besteak beste Izpurako *Elgue-Behere* (*PobNav* 1366) edo Lexantzüko

<sup>263</sup> 1249ko *Arnalt de Chavahen* ere *barhen*-en adibidetzat har liteke, “forme altérée avec mécoupure romane pour Etxabarren” baita, Orpustanen arabera (1997: 178); baina desitxuratuegia dago adibide ziurtzat hartzeko.

<sup>264</sup> Ez du iritzi bera Orpustanek, *barhnetchia* bezalakoez ari dela: “[L]’aspiration de la vibrante n’a manifestement pas toujours d’origine étymologique [...] c’est manifestement un mode d’articulation de la vibrante, spécialement en début de seconde syllabe des mots de trois syllabes et plus” (1999: 80). Honek, jakina, ez du azaltzen nola sortu den hasperena *goihen* edo *behen* hitzetan.

*Urrutibehety* (*CenSoul* 1377). Arabako adibideak, ordea, Gipuzkoako adibideak baino urriagoak dira. Nafarroako adibideen artean, cf. *Beheriain*-en aldaerak (gaurko *Beriain*) eta *Beherin* (gaurko *Bearin*, Lizarra aldekoa), datu hauen argitara beharbada *behe*-rekin lot daitezkeen leku-izenak; aipagarria da, bere antzinasunagatik, XI. mendeko *Eleicauehea*. Berriz ere, ugariak dira <h>-rik gabeko *bee*- duten aldaerak; horietako batzuk bildu ditut 48. taularen bukaeran.

#### 4.7.4 Ohar etimologiko bat barren, behen eta goien superlatiboen lehen osagaiez

*Barren*, *behen* eta *goien* superlatiboetan *-hen* bereizten badugu, *bar*, *be* eta *go(i)* geratzen zaizkigu lehen osagai gisa. *Bar* bestelako hitzetan ere aurki daiteke, hala nola *ibar* (< *ur-bar*, ziur aski), eta esanahiari buruz “une racine *barr*- exprimant l'idée de ‘fond’” dakar Lafonek (1999: 289).

*Go(i)*-ri dagokionez, nire ustez \**go* errotik abiatu behar da (nahiz eta, bere horretan, ez den CVC egiturakoa, ikus Lakarraren lanak), eta *gogo* hitzean erreduplikatuta ageri den bera izan daiteke;<sup>265</sup> nire ustearen arabera, *-i*- ez da jatorrizkoa, eta hasperenaren aurretik sorturikoen artean sailkatu behar da (cf. *saihets* edo *Beriainen aihek* erakuslea, ik. 7.3.1.2 (f) atala; cf. halaber *gora* adlatiboa, ez \*\**goira*). Argudia liteke *goiz* hitzean, *-z* instrumentala bereizita, *goi*- geratzen dela erro moduan; baina honen ondoan *noiz* jar daiteke, eta honi dagokion erroa \**no*- da, zalantzarik gabe: cf. *nor*, *non*, *nora*, etab.

Hala balitz, *Pero Sanches de Ybargohen* (*ArchMondII* 1438) eta *molino dicho por su nonbre Gohenbolu* (*ArchBergII* 1506) bezalakoetan jatorrizko \**go* gorde da; orobat hatxerik gabeko *goen*-en adibide ugarietan; *goren* ere horren aldaera izan daiteke, *-r*-epentetikoarekin. Aldaeren arteko loturan sakontzeko aukera ematen digute Donemiliagako kartularioko agiri beraren bi erredakziok (1062. urtekoak):<sup>266</sup> lau anaiaren berri ematen zaigu hauetan, batean *Lakenti Goen et Ionti, suo germano* agertzen dira, eta bestean *Iaundi, et Lachendi et Beila Goico, germanos de abbate*

<sup>265</sup> Antzeko egitura duten hitzetarako, cf. adibidez *zozo*.

<sup>266</sup> David Peterson historialariari eskertu behar diot datu hauetara erakarri izana nire arreta; orobat eskertu behar diot datu hauen gaineko eztabaida.

*domno Nunno de Ghagoien* eta *Ionti de Ghagoien*; badirudi *Nunno de Ghagoien* izenean <i>-ren gainean <r> idatzi zuela kopistak, eta horrela *Ghagoren* geratu zen, nahiz eta editoreak *Ghagoien* hobetsi. Lau anaiak *Goen*, *Goico* eta *de Ghagoien/Ghagoren* deiturekin agertzen dira. Dirudienez, Zigoitiko Etxaguenekin lotu behar da *Ghagoien*;<sup>267</sup> cf. halaber *villa Eggagoien* (*SMillán* ~1067). Horrela bada, *goen*, *goren* eta *goien* aldaerak ditugu hemen, betiere leku bera adierazteko.

Bestalde, cf. agian Zuberoako 1377ko erroldan Iruriko *Lodit ostau de mendigoren* eta Altzaiko *Lostau de Miagorene*. Orpustanen iritiz, Zuberoako izen horietan *guren* dago, eta honela azaltzen ditu: “[G]raphie du Censier qui signale una attraction du moderne *goren* ‘le plus haut’ qui a remplacé l’ancien *goien*” (2000: 155); *guren* azaltzeko, berriz, \**gur* errora jotzen du (agian *gurtu*-koarekin lotu behar da?), baina ez dago argi nola lot daitezkeen *goihen* eta *guren* (Orpustan 1999: 197). Pentsa liteke bilakaera *-gohen* > *-goen* > *-guen* > *-guren* (*-r-* epentetikoarekin) izan zela, baina ohartzekoa da *guren* bera aski antzinakoa eta orokor antzekoa dela toponimian —cf., Araban, *Mendiguren*, *Helkeguren* (*SMillán* 1025) eta, Zuberoan, *ostau de Echegurenne*, *Lostau de Iburgurene* (*CenSoul* 1377)—.

Azkenik, *be* ere bereiz liteke osagai gisa, nire ustez (cf. arestian \**go*-rekin egindako oharra, CVC egiturari buruz). Hortaz, Erdi Aroan aurki daitezkeen *-be* ugariak<sup>268</sup> ez dira guztiak, ezinbestean, *-behe* laburtzearen ondorio: cf. *domnum Galindonem de Lisabe* (*SJPeña* 928), *villa que vocatur Ayçpe* (*GuipAlb* 1007), *Arrigu de Arbe* (*DocLeire* 1032),<sup>269</sup> *Agierbe* (*SancRam2* 1075; *gaurko Aierbe*), etab. Adibide nahasgarrien artean, cf. *Zetzave* (*SMillán* 871), 424 urte beranduago *Çeçtafehe* (*CartCalah* 1295) formapean ageri dena. Baliteke, orobat, *pe* ere jatorrizko *be* horren ondorengo zuzena izatea (*OEH*-n *behe* sarrerepean dago).<sup>270</sup> Hipotesi honen barrenean, gerorakoa da *behe* forma, agian *behengo/beheko* moduko bikoteetatik ondorioztatua (cf.

<sup>267</sup> Badirudi afrikatua adieraz dezakeela <gh> digrafoak: cf. *Ocharanna* (*SMillán* 945) eta *Munnio Gharanna* (*SMillán* ~1174), non *Munnio* izenaren *-o* bukaerarengatik esplikatzen den *Gharanna*; orobat gertatuko zen *Ghagoien*-ekin ere, *de* preposizioarengatik.

<sup>268</sup> Zerrenda luze baterako, ikus Artzamendi (1985), *-be* lemapean.

<sup>269</sup> Cf. lehenagoko *Suprarbi* (*SJPeña* 1014).

<sup>270</sup> Bere antzinasunari dagokionez, cf. *una vinea de Garcia Lup in una gangape* (*SJPeña* 1041); ez dago argi zer den *ganga* (ik. *OEH* s.v.), cf. *Pero Ganga* (*MerMont* 1350).



*etxeko* / *zub. etxenko*), eta *behere*-k berak *beheren* superlatibo itxuraz pleonastikoan luke jatorria; xehetasunak, dena den, ez daude argi, eta ez da baztertzekoa, adibidez, genitibo pluraleko forma zaharra *hen*-ez bestelakoa izatea (*he* agian?). Ez dago argi *-n* gabeko *goihetxe* eta *barhetxe* (ugariagoak dira *goihenetxe* eta *barhenetxe* Zuberoako errolda gotikoan) eztabaida berean koka daitezkeen; hauetan baliteke, arazoak arazo eta izena erabat lexikalizatua zegokeela onarturik, bokalarteko *-n-* galdu izana, *goihenetxe* > *goiheetxe* > *goihetxe*, etab.

Nire ustez, *lehen*-ek ere superlatiboko *-hen* hau bera du, nahiz eta ez dagoen argi zein den hasierako osagaia (cf. *azken* < *hatz* + *-hen*); *lepo* hitzeko *le*-rekin lot liteke;<sup>271</sup> ezaguna da ‘lehen’ eta ‘azken’ esanahia duten hitzak superlatiboak izan ohi direla hainbat hizkuntzatan, cf. ing. *first* eta *last*, lat. *prīmus* eta abar. Alabaina, Erdi Aroan ez dago *lehen*-en adibide garbirik: cf. agian *Lostau de Leherence de Berraute*, baina Orpustanek (1999: 28, 277) *leher*-ekin lotzen du Zuberoako erroldako lekukotasun hau,<sup>272</sup> akit. LEHERENNO-tik bereiziz, honetan bai, *lehen* ikusten baitu.

#### 4.7.5 -hen Erdi Aroan: laburpena

Atal honetan, *-aga* eta *-eta* atzizkien eztabaida berean kokatu dut superlatiboko *-en* atzizkia, genitibo pluralean ikusi izan baita beronen jatorria. Deklinabidea erakusleekin uztartzen duen hipotesiaren bidetik, superlatiborako ere forma hasperendunak aurkitu ditut Erdi Aroko agirietan, hipotesi nagusiaren indargarri.

#### 4.8 Zenbait ohar orokor *-aga/-haga*, *-eta/-heta* eta *-en/-hen* atzizkiez

Bukatzeko, zenbait galdera eta iruzkin etortzen dira gogora onomastikako *-(h)aga*, *-(h)eta* eta *-(h)en* atzizkiak hizpide hartuta. Batetik, Erdi Aroko aldaera hasperendunei dagozkien bi ohar:

- (a) Gutxi dira *-haga* hasperendunaren adibideak, *-hen* eta *-heta*-renekin alderatuta; lehenago gramatikalizatu zela adieraz lezake honek.

<sup>271</sup> *Lepo*-ren bigarren osagairako, cf. *orpo* eta *albo* (Lakarra 2011: 25, 110).

<sup>272</sup> *Lehete* deitura ere *leher*-ekin lotzen du, *-eta* atzizkia duela adieraziz (2000: 190).

- (b) Galdetu daiteke zergatik ez dagoen iparraldean *-heta*-rik, eta aldiz *-hen* (eta *-haga*) bai; agian lotuta egon daiteke *-heta* osagaia atzizki berranalizatua izatearekin, ik. (d) puntuan.

Bestetik, beste bi ohar deklinabidearen morfologiari eta atzizkien aldaerei lotuak:

- (c) Euskara historikoan, *-(h)aga* eta *-(h)eta* ez dira, forma horietan, deklinabideko atzizkiak: *-(h)aga*-ren deklinabideko ordaina *-ak* da, eta *-(h)eta* ez da bete-beteko atzizkia, ondotik kasu-markaren bat duelako beti (cf. *-etan*, *-etara*, *-etatik*, *etab.*).
- (d) Azkenik, atzizki hauek bi multzotan banatu daitezke: *-haga* eta *-hen* gaurko deklinabideko formen zuzeneko aitzindariak dira; *-heta*, ordea, leku-kasuetako formatatik berranalisisiz sorturikoa da,<sup>273</sup> eta, neurri horretan, onomastikari baizik ez dagokio.

Galdera eta iruzkin hauen esangura deklinabidearen morfologiaren berreraiketari dagokion bosgarren kapituluan geratuko da agerian.

#### **4.9 -a, -aga, -eta eta -en D-elementuak Pirinioetako Erdi Aroko lekukotasunetan**

Erdi Aroko agiri-bildumek ematen duten informazioaz ohar bat egin beharra dago, Pirinioetako euskaraz denaz bezanbatean.

Corominesek (*Estudis de toponímia catalana* 1965, 1970) Pirinioetako leku-izenen gorabeherak aztertu zituen, eta, euskarari eta tesi honen gaiari dagokionez, hiru lan dira bereziki aipatzekoak bere artikulu bilduma horretan: *Sobre els elements preromans del domini català* (1965: 67-91), *La survivance du basque jusqu'au bas Moyen Âge* (1965: 93-151) eta *Els noms cerdans en -guja i en -barre* (1965: 153-172).

Lan horietan, gaur egun klasikoa den ikuspegia taxutzen du Corominesek, eta

---

<sup>273</sup> Berranalisiarena da tesi honetan landuriko hipotesia (5.2.6.1 atala). *Erroheta* moduko izenak azaltzeko, beste aukera bat da proposatzea *\*erroheta* (< *\*erro heta*) moduko sintagmak egon zirela, lokatibokoak edo, *\*erohetan* sintagmen berranalisisirik gabe. Izan ere, nire hipotesian bada gauza ohargarri bat: *\*erohetan* → *Erroheta* gertatzeko, *-(h)etan* atzizkia aski gramatikalizatua egon behar zen, berranalisi horretan hiztunak *-eta* atzizkia izenaren parte zela ulertu bazuen, eta, hala izan bazen, bitxi egin lekioko norbaiti artean hasperena gordetzea. Ustezko eragozpen honen aurka, ordea, komeni da gogoratzea galera fonetikoa gramatikalizazioaren epifenomeno edo are azken ondorio gisa ikusi izan dela (1.1.7 atala).

saiatzen da Erdi Arora arte eta Erdi Aroan zehar euskal irla linguistiko moduan Pirinioetan iraun zuten eremuak zehazten. Horretarako, euskal lexikoaren hainbat osagai bereizten ditu Oskako eta Lleidako ibarretako leku-izenetan: cf. Aragoin, Ribagorzako *Alascor(re)* (gaur arag. *Llascuarre*, kat. *Lasquarri*), non *-gorri* ikusten duen, edo 996an dokumentaturiko *Illacorre* (gaur *Llaguarres*), *lakar*-ekin lotzen duena, eta gogora ekartzen du *Lacarro* (*CartAlaón* 942) (1965: 110-112); cf. halaber Lleidako Pallars Sobiráko *Uribida*, *Urdossa* (cf. Baigorriko *Urdoze*, 1965: 83), *Urci*, *Uliviergo*, *Broate* (< *buru-ate*, 1965: 128, 23 oh.), Alós de Balaguerko *Lats* (eusk. *lats*, 1965: 129), eta beste. Horrelako izenen iraupena erromatartze berantiarrarekin lotzen du Corominesek (1965: 117), eta, bereziki Pallarsez ari dela, esaten du euskarak Erdi Aroan irla linguistiko moduan iraun zuela.

Ikuspegi klasiko horren laburpen egokia dakar Badiak, “Catalunya bascónica” delakoaz mintzo denean (1987: 62):

Efectivament, hi ha unes terres que semblen haver-se escapat de la romanització en el sentit de transmissió i assimilació de les maneres romanes de pensar, de viure i de parlar, dins un marc cronològic que no sol ultrapassar la fi del segle V: són les terres de la Catalunya bascónica, al nord de la serra del Montsec i a l'oest del curs mitjà del Segre, és a dir les comarques del Pallars i la Ribagorça i, bé que amb un abast diferent, la Vall d'Aran.

Eta, Corominesen ideiei jarraiki, X-XI. mendeetara arte luzatzen du lurralde horietako euskaltasuna (1987: 66-67):

En tercer lloc, si, a la resta del país, l'extinció de les llengües pre-romanes s'ha de considerar consumada al segle V o, tot al més tard, al VI [...], a la Catalunya bascónica, en canvi, la llengua de substrat, ço es, és clar, el basc, hi romangué fins cap a l'any 1000.

#### 4.9.1 Corominesen datuak eta euskal artikulak

Datu deigarri bat nabarmendu daiteke Corominesek darabiltzan leku-izenei begira: Pirinioetan, Lleidako eta Ribagorzako lurraldeetan bereziki, ez dago *-a*, *-aga*, *-eta* eta *-en* D-elementuen adibide garbi bakar bat ere. Bere *La survivance du basque...* lanak eranskin interesgarri bat dakar (1965: 142-146), eskualdez eskualde, Nafarroako mugatik eta Andorrakora bitartean, Oskan eta Lleidan dauden herri izenak zerrendatzen dituen, izena bera edo izenaren osagaietako bat aurre-erromatarra dutenak soilik

hartuta. Izen horien guztien artean, ez dut *-aga*, *-eta* edo *-en* bakar bat ere aurkitu; *-a* amaiera duten izenak ez dira gutxi (cf. *Baranguá*, *Navasa*, *Ovarra*), baina bakar batean ezin da ziurtatu artikulua dagoenik; agian aipagarrienetakoa *Belarra* da,<sup>274</sup> izenaren lehen osagaia eusk. *belar* hitzarekin lotzea lortuko bagenu, baina, hala balitz ere, ohartu beharra dago ez dela Pirinioetako ekialdeko muturrekoa, eta Nafarroatik hain urrun ere ez dagoela.

Corominesek izendatuki proposatzen du euskal artikulua dagoela Pirinioetako izen batzuen osieran; hona horietako batzuek:

- (a) Lleidako Alt Urgelleko *Arfa*, Corominesen ustez (1965: 85), eusk. *asu-a* analizatu behar da; antzina *Assua* dokumentatua dagoela dio, eta hori da bere hipotesiaren helduleku nagusia. Bi arazo nagusi ikusten dizkiot Corominesen usteari: batetik, gaurko *Arfa*-rainoko bilakaera ez da erraz azaltzen, eta, bestetik, hitza erabilera murriztekoa da euskararen barruan, eta mendebaldekoa, nahiz eta balitekeen antzina zabalduagoa egotea (ik. 4.3.2.2 ataleko (4) adibidean *Reja*-ko *Hazua* edo *Harhazua* izenez emandako azalpena). Horretaz gain, *Asfa* ere badago XI. mendean (*EtimCat* s.v. *Arfa*), eta baliteke Corominesen *Assua* gaizki irakurritako adibidea izatea, <ʃ> grafemaren gorabeheraren batengatik.
- (b) Corominesek (1965: 105-106) gaurko Pallarsko *Salàs* aipatzen du (*Salasse* dokumentatua 840an); hortik ipar-mendebaldera 40 bat kilometrora dagoen *Salasa* izeneko mendi-lepo batekin lotzen du, eta *Salasa* honetan *-a* artikulua dagoela interpretatzen. Izenaren lehen *sal-* osagaia *Sara*, *Zaldibar* eta *Zaraitzu*-renarekin lotzen du. Eskualde bereko *Gavàs/Gavasa* eta Aragoiko *Navàs/Navasa* bikoteak ematen ditu, izenen osaera morfologikoa argitzeko paralelo moduan.

Nire ustez, izen horien euskaltasuna, eta, ondorioz, bere osaera lexiko-morfologikoa, ez da begien bistakoa; *Salàs*-en kasuan, gainera, lehen osagaia zein den argitzeko ematen dituen euskal paraleloak ez zaizkit egokiak iruditzen, euskararen barrenean ere ez baitirudi denak lexema beraren adibide direnik.

---

<sup>274</sup> Nire corpusean 1054an aurkitu dut leku-izen honen lehen lekukotasuna: *Eximino Cardelli de Belarra* (*ColRamI*).

- (c) Bukaeran *-eja* eta *-uja* duten izenetan ere *-a* artikulua ikusten du Corominesek (1965: 88-89). Lehenari dagokionez, eusk. *-egi* ikusten du jatorrian: Cerdanyako *Osseja* izenean —*Olcegia* dokumentatua— osagai hori ikus litekeela dio, “proveït d’article *egia*, ‘versant’, ‘bord, angle’”, eta lehen osagaia *eltze* litzateke. Cf. halaber *Seneja*, 839an *Exenegia* dokumentatua, *etxe-n egi-a* “versant de la maison” analizatzen duena, edo *Sareja* (gaur *Cereja*), bere ustez *sare-egi-a* ‘versant du bercail’. Azken honi oharra egiten dio: 1040an *Cereia* dagoela, eta ondoko Llivia herriko *Cere* izenarekin lotu behar dela; ondoren ohar argigarria egiten du: “Sigui com vulgui, la terminació és basca i ho deu ésser també el radical” (1965: 89, 19 oh.).<sup>275</sup> Artikulurik gabe ere agertzen da *-egi*, bere ustez (1965: 154):<sup>276</sup>

La semblança entre els noms en *-uja* i els en *-eja* té un abast molt limitat: en *-eja* només n’hi ha a Cerdanya, i al costat d’ells hi ha la variant sense article basc, *Enveig*, mentre que al costat dels noms en *-uja* no hi ha tal variant, també a d’altres, no solament a Cerdanya.

Amaieran *-uja* dutenentarako bi hipotesi plazaratzen ditu: *Les Oluges* izena *ol-oia* ‘ohol korta’ analizatzen du,<sup>277</sup> eta *Sanaiija*-rako *za(i)n(a)-oia* proposatzen du, esanahiz ‘artzainaren korta’ edo ‘erroen korta’; jakina, *heia*-rekin nahasten du *-oia*, baina, huts hori gorabehera ez genuke artikulurik izen hauetan (1965: 89). Beste hipotesi bat dakar *Els noms cerdans en ‘-guja’...* artikuluan: Cerdanyako *Estaiija*, *Gorguja*, *Naiija*<sup>278</sup> eta *Ataiija* aipatzen ditu, Urgelleko *Barguja*-rekin eta ekialderagoko *Aguja*-rekin (Garrotxakoa) batera.<sup>279</sup> Bere ustez, azken osagaien *-goia* dago, *-goi* + *-a* artikulua. *Estaiija*-ren ondoan *Estavar* jartzen du, bikote esanguratsua dela iritzita, eta, *Irigoi*en eta *Iribarren* ezagunekin konparatu ondoren, honela dio (1965: 159):

<sup>275</sup> Almeriako *Huécija* (Plinioren *Alōstīgi*-rekin lotzen du) modu beretsuan azaltzen du (1965: 98), *-a* artikulua konturik aipatu gabe bada ere: eusk. *-tegi* legoke bigarren osagai moduan. Jakina, izena hain hegoaldekoa izanik, nahiago du “ibéro-basque”-z mintzatu, euskararekiko lotura zuzena proposatu baino.

<sup>276</sup> IX. mendean *Envegi* da gaurko *Enveig* (*EtimCat* s.v.).

<sup>277</sup> *Vulvigia* da XI. mendean (*EtimCat* s.v.).

<sup>278</sup> *Anaugia* IX. mendean (*EtimCat* s.v.).

<sup>279</sup> *Les Oluges* eta *Sanaiija* izenak ere bigarren hipotesi honen arabera analizatzen ditu (1965: 165-170). Bide batez, bi izen hauek Segarrakoak dira, Pallars eta Cerdanya baino hegoalderagokoak.

Ara bè, el basc antiquissim de Cerdanya, potser ja extingit cap al segle VI, degué usar semblantment la forma primitiva *-gōia* per anomenar tots aquests llocs situats part damunt d'altres, i el cas d'*Estavar* ens ensenya que el mateix feia amb *-barr* per designar els indrets inferiors.

Nire ustez, bi ohar egin dakizkioke hipotesi honi: batetik, ez du azaltzen zergatik agertzen den artikulua beti *goi*-rekin, eta inoiz ez *bar*-ekin;<sup>280</sup> bestetik, interesgarria da ematen duen kronologia, VI. mendea baino lehenagoko euskal lekukoez ari dela uste baitu eta horrek talka egiten duelako artikulua agerreraren kronologiaz dagoen ikuspegi klasikoarekin (ik. 2.1.3.1 eta 5.1 atalak). Leku-izen horien lehen osagaiez ere mintzo da Coromines, baina, nire ustez, ez dago aukerarik modu seguruan euskal ordainekin lotzeko.

- (d) Leku-izenetatik kanpo, Ribes ibarreko hizkerako *gallorça* ere euskararen bidez azaltzen du (1970: 195-205); “ramat foraster que entra a pasturar o afemar les terres a l'estiu” esan nahi du hitzak, hots, abere talde mota bat. Bere ustez, eusk. *gailur* hitzarekin lot daiteke, hain zuzen ere abere talde horiek gailurretan bazkatzen direlako. Azken buruan, *gailurtzea* proposatzen du *gallorça*-ren jatorri moduan (\**gallortiea* dakar, Schuchardtek *-tze* atzizkiaz zuen ideari jarraiki); berariaz esaten ez badu ere, badirudi bere ustez *-a* artikulua dagoela hitzaren jatorrizko osaeran.

Oro har, esan daiteke Corominesek bere etimologiak ontzeko dituen euskal baliabide linguistikoen artean erabiltzen duela artikulua, euskal osagai bat gehiago balitz bezala, euskara modernoaren gramatikaz dakiena erabilita; baina darabilen Pirinioetako toponimian ez dago ebidentzia beregainik artikulua existentzia ziurtatzeko. Bere jardunaren muturreko adibidea izan daiteke *Segarra*-ren etimologiaz dioena, eusk. *sagarra*-rekin lotzen baitu, euskararen ikuspuntutik egin litekeen bestelako oharrik egin gabe (1965: 165).

Moran, Batlle eta Rabellaren lanean (2002; *EtimCat* laburdurarekin), ordea, ez da izen horietaz aparteko zehaztapenik egiten, horietako asko jatorri aurre-erromatarrekoak direla esateaz gain. Lan horretan, adibide gutxi batzuk aurkitu ditut, itxurarengatik

<sup>280</sup> Cf. agian *Obarra*, baina beste eskualde batekoa da.

deigarriak izan litezkeenak: cf. *Ondara* izeneko ibaia, Segarrako eta Urgelleko lurretatik pasatzen dena, XI. mendean *castrum de Hondara*; Conflenten, Frantziaren menpeko Catalunyan, cf. halaber *Saorra*, X. mendean *Savor(r)a* —jatorri latindarraren aukera aipatzen dute autoreek— eta *Oleta* —IX. mendean ere hala ageri da— herri-izenak. Autoreek jatorri ezezagunekotzat dituzte hauek guztiak; euskararen ikuspuntutik, ez dute aski eremu zehatza osatzen, horietan inongo euskal morfologia edo osagairik bereizteko.

#### 4.9.2 Pirinioetako bildumen corpora eta euskal artikulua

Aurreko atalean esan dut Corominesek darabiltzan datuetan ez dudala aurkitu *-a*, *-aga*, *-eta* eta *-en* atzizkien adibide ziurrik Pirinioetako leku-izenetan; *-a* artikuluari dagokionez, bereziki Lleidako Pallarsko<sup>281</sup> eta Cerdanyako ustezko adibideak auzitan jarri ditut.

Horretaz gain, egoki iritzi diot Pirinioetako euskal lekukotasunak izan ditzaketen Erdi Aroko zenbait agiri-bildumarekin berariazko corpora osatzeari (ik. bibliografian), Corominesen datuetatik abiatuta osaturiko irudipena bermatzeko. Ez dut corpora mugatu Badiak “Catalunya bascónica” izenpean sartzen dituen Ribagorza, Pallars eta Arango ibarretara bakarrik, eta bereziki Oskara probintziari dagozkion hainbat bilduma ere arakatu ditut, Lleidako beste batzuek gain.

Eraitza nabarmena da: corpus horretan ere ez dut gramatikalizaturiko D-elementuen adibide ziurrik aurkitu, *-a* artikulua hainbat ustezko adibide baino ez.

Era berean, kontsultatu ditut Rafael Dalmauk editaturiko eta Bolòsek eta Hurtadok onduriko *Els Atles dels comtats de la Catalunya carolíngia* bilduman Urgelli eta Osonari dagozkion liburukiak ere (Cerdanyari, Pallarsi eta Ribagorzari dagozkienak, zoritxarrez, ez dira oraindik argitaratu). Atlas hauetan VIII. eta X. mendeen arteko leku-izenak biltzen dira, eta jatorriaren arabera sailkatu: aurre-erromatartzat jotzen direnen

<sup>281</sup> Euskararen iraupenari dagokionez, Pallars Sobiràko iparraldea eta Arango ibarra ditu bereziki gordetzailatzat Corominesek (1965: 121; ik. halaber 152b-ko mapa), hango izenen hainbat ezaugarri fonetiko substratuz baizik ezin baitira azaldu, ez erromantzearen bitartez.

artean ezin izan dut D-elementurik antzeman, ez Urgellekoan (2006: 44-45)<sup>282</sup> ez Osonakoan (2001: 32).

Emitza hauek Mitxelenak euskal dialekto ezagunen eremu historikoaz esaten duenaren osagarri dira (VII 532):

Pero, tal como se han dado las cosas entre nosotros, las coincidencias, y esto es algo más que mera sospecha, están lejos de proceder todas de una herencia común. Bien al contrario, sabemos o creemos saber por indicios internos o externos a la lengua, que en buena parte son la consecuencia de innovaciones *compartidas por todos los dialectos*, vizcaíno incluido. Si consideramos la compacta distribución de los topónimos en *-aga* ya mencionados (supra, §§ 6, 7.e) que, desde *Liginaga*, fr. *Laguingue*, en la Soule, se extienden hasta *Lizarraga*, igual sin duda a *Fresneda*, en tierras de San Miguel de Pedroso (siglo XI), cubren la totalidad del territorio en que alrededor del País Vasco actual se habló vascuence en la alta Edad Media (por lo menos), no se puede menos de sospechar que la abundancia y la compacidad apuntan más bien a fechas relativamente recientes.

Labur esanik, Pirinioetako euskara euskalki tradizioaletatik bereizi beharra dago.

Pirinioetako D-elementuen bilaketan emaitza ustela izanik ere, zenbait adibide aipagarri bildu ditut hemen, iruzkintzeko:

- (a) Nire ustez, *Arbe(a)* izenena da adibide ziurrenetako bat, itxura guztien arabera *arbe* + *-a* analizatu behar baitira, *-a* amaiera dutenean. *Arbe* soila maiz ageri da Erdi Aroko lekukoetan, Iruñea-Jaka-Oska ardatzeko testuinguru dokumentaletan: cf. *Arrigu de Arbe* (*DocLeire* 1032) edo *serra de Arb* (*ColRamI* 1049). Nabarmen ageri da, gainera, gaurko Sobrarbe eskualdearen izena *super Arbe/sobre Arbe* dela jatorrian,<sup>283</sup> *Arbe* mendizerraren iparraldera dagoen eskualdea: cf. *domno Ranemiro [regnante], in Aragone et Superarbe* (*SMillán* 1062).

Forma artikuluduna askoz urriagoa da, eta ezaguna da *in loco qui dicitur Arbea, id est petra super petram* (*DocLeire* 1104; Mitx XII 48-49). Euskal eremu historikoko agirietan, cf. *don Martin d'Arbea, vezin de Pampalona* (*NavOccit* 1296) edo Idauzeko *Lostau darbea* (*CenSoul* 1377). Horietaz gain, cf. *Pero*

<sup>282</sup> Honela zehazten dute bere jarduna: “En aquest mapa, de la mateixa manera que en el mapa general toponímic, hem fet l'esforç d'incloure no sols els topònims esmentats als documents i que són considerats pels lingüistes com a preromans, sinó també tots aquells que han estat classificats com a preromans pero que, pel motiu que sigui, no són esmentats en els documents entre els anys 788 i 993, i que han arribat fins a nosaltres” (2006: 44).

<sup>283</sup> Magallónék (1903: 94) hipotesi hau hobesten du, proposatu izan den *super Arborem* aukeraren ginetik.



*d'Arbea* (*DocSos* ~1416) eta *Sancti Stefan de Arbeia* (*DocMont* 1172), agirien testuinguru geografikoaren arabera Nafarroatik aski hurbilekoak. Pertsona-izenetan, cf. *Johan Perez d Arbe* eta *Martin Perez d Arbea* (*TesorArag* 1304), forma artikuludunaren eta gabearen arteko txandakatzearekin, eta Montalbángo (Teruel) *Domingo Arbea* (*ActTamar* 1375).

Gauza bat ohartu beharra dago, hala ere: pertsona-izena izanik, adibide hauen jatorri dokumentalak ez digu ezinbestean aztergai dugun izenaren jatorri geografikoaz informazio zuzena ematen. Ik. jarraian *Bizkarra*-ri dagozkion adibideak.

Lacastak (1994: 194-195) bi *Arbea* dakartza leku-izen gisa, Bolea eta Ruestakoak, XIX-XX. mendean bilduak.

- (b) *Arbea*-ren antzekoa izan daiteke *Bizkarra*-ren kasua, cf. *Garcia Lopece de Bischarra* (*DocMont* 1172), arestiko *Sancti Stefan de Arbeia* dagoen agiri berean, bide batez. Cf. halaber *Bischarra* (*SancRamI* 1090), editoreak gaurko *Biscarrués*-ekin lotzen duena; bilduma berean, cf. *Bischarraesse*, *Biscarruesse* eta *Biscarrose* (1083) aldaerak, hobeki azaltzen dutenak gaurko *Biscarrués*. Pertsona-izenetan, cf. *Lop de Bischarra* (*DocMont* 1181), Murtziako erresuman barrena ibilitako *Rodrigo de Bischarra* (*FZurit* 1302), Ribagorzan *Dominicum de Bischarra* (*RentRib* 1322), besteren artean. *Biscarrués* euskal eremu historikotik hurbil dago.

Orobatsu gertatzen da Zaragozaren eta Nafarroaren mugatik hurbileko *Luesia* herriarekin, Erdi Aroko agirietan maiz dokumentatua, *Lusia* eta *Losia* aldaerekin batera; euskararen ikuspegitik aztertu nahi izango bagenu, agian *lur* + *hesi* + *-a* moduko osaera bat proposa liteke, artikularekin. Inguru horretako inoizko euskaltasunaren adierazle gisa har liteke *Gaiçco in Luesia* (*PobArag* 1124),<sup>284</sup> pertsona-izen euskaldunarekin;<sup>285</sup> handik ez oso urrun, cf. Uncastilloko *Petro Aquerra* (*DocRamII* 1136), euskal goitzen eta artikulatu garbiekin.

<sup>284</sup> Bilduma berean *Miguel Perez de Sagara* (1262) eta *Miguel Pereç de Sagarra* (1267) daude, Teruelgo pertsona baten izenaren aldaerak; ez dakit eusk. *sagar* hitzarekin lotu behar den. *Gaiçco* izenari dagokionez, cf. *Gazco de Biota*, Luesiatik ez oso urrun, eta *Gazco de Belsa* ekialderagokoa eta mendialderagokoa, gaurko Bielsakoa (*DocSigen* 1212 eta 1216, hurrenez hurren).

<sup>285</sup> Euskal izenekiko pertsonak aurki daitezke, baita Zaragoza hiritik hegoaldera ere, cf. *dompnus Sancius de Lop Gacha* (*ColAlmun* 1246).

Azkenik, baliteke *Aranna*-ren adibideak euskarazko *haran* hitzaren adibide moduan hartu behar izatea: cf. *ecclesiam de Aranna* (*SancRam2* 1071), *donna Tota de Aranna* (*SancRam2* 1086) eta *Santio Garcez de Aranna* (*CatHuesc* 1120); gaurko *Araña* da, dirudienez, Jakakoa.

Pertsona izenen artean, aipagarria izan daiteke *Garcie Escherra* (*CatHuesc* ~1182), aski ekialdekoa baita, Monzón herrikoa; cf. halaber *Garcia Urria* (*CatHuesc* XII. m.), Oskatik gertukoa.

Amaieran *-a* duten beste hainbat izen bildu ditut, inork artikuluduntzat jo litzakeela ikusten baitut:

- (c) Jaka ondoko *Larbesa*, *Larbes* aldaerarekin ere ageri dena (baina cf. *-tza* atzizkiaren *-tz* aldaera): euskararen ikuspegitik aztartzekotan, *lahar* + *be* + *-tza* proposa genezake? Lacastak (1994: 247-249) *-sa* atzizki ugariaren adibidetzat du.<sup>286</sup>

Merezi du bukaeran *-s(a)* duten beste izen batzuk batera biltzea, gogoan izanik Corominesen (ik. goian) Pallarsko *Salàs/Salasa* eta *Gavàs/Gavasa*<sup>287</sup> eta Aragoiko *Navás/Navasa* leku-izen bikoteak. Moran, Batlle eta Rabellaren (2002) lanetik hartu ditut, Corominesen eta Badiaren “euskal” eremuetako izenetatik abiatu eta urrutiagoko eskualdeetara joz.

Ribagorzan aipa daitezke Areny de Noguerako *Betesa* (X. mendean *Bellasia*), jatorri antroponimikokoa, edo *Bonansa* (XII. mendean *Bonnansa*), lat. *bonu*-rekin lotzen dutena.

Hegoalderago, Noguerako *Albesa* (XII. m.), jatorri ezezagunekotzat jotzen dute, eta lat. *albus*-ekin lotua dagoen galdetzen. Noguerako *Artesa de Segre* eta hegoalderagoko Segriàko *Artesa de Lleida* (XI. eta XII. mendeetan lekukotuak, hurrenez hurren) konpara litezke ekialderagoko Bages eskualdeko *Artés* (IX. mendean *Artes* lekukotua) izenarekin; autoreek hirurak jotzen dituzte aurreerromatartzat. Cf. halaber Noguerako *Camarasa* (XI. m.), eta orobatsu gertatzen

<sup>286</sup> *Arasa, Arbisa, Ardisa, Arresa, Buesa, Navasa, Garasa* eta *Sarasa* aipatzen ditu.

<sup>287</sup> *Gavasa* Huescako La Litera eskualdekoa da; XI. mendean dokumentatua da forma horretan.

da are hegoalderagoko Terra Altako *Gandesa* (XII. m.)

Ustezko euskal eremuetatik urrunago, cf. Alt Empordáko *Borrassà* (IX. mendean *Borraciano*); badira beste batzuk are nabarmenago direnak jatorri latin-erromantzekoak: cf. *la Ginebrosa* (XIII. mendean *Genebrosa*; Teruelgoa da, Catalunyako hego muturrarekin muga-kide), Les Garrigues eskualdeko *Juncosa* (XII. mendean *Ionchosa*), Ripolléseko *Ogassa* (X. mendean *Aquacia*), Conflenteko *la Cabanossa* (XVI. mendean), *cabana*-tik eratorria, etab.

Adibide hauek guztiak aintzat hartuta, ez dago modurik *-sa* amaiera duten zenbaitetan *-a* euskal artikulua dagoela erakusteko: adibideek ez dute eremurik osatzen, leku-izenen analisisa ez da argia euskal ikuspuntutik (eta horietako askok jatorri latindarra dute, argi eta garbi), eta *-s/-sa* duten adibide bikoteek ez dute aukera garbirik ematen artikulua bakartzeko. Are gehiago, *Petro Larre* (*CatHuesc* 1209) eta *Petro Larressa* (*CatHuesc* 1200) bezalako bikoteekin, *-s(s)a* da bakartu daitekeena, ezer baino gehiago.

- (d) Antzekoa gertatzen da *-rra* dutenekin: ezaguna da *Andorra* izena, baina bere osaera ez da argia; cf. *Segarra* bera, edo *Segarra* bertako *Ivorra* (*EtimCat* XI. m.), eta baita Conflenteko *Nyer* (VII. mendean *Angerra*). *Obarra* ere hauekin sailka daiteke: bere lehen lekukotasunetan *U*-rekin dago, cf. *Uarra*, *Ubarra*, *Uvarra* (*DocObar* 905, 907, 911, hurrenez hurren), edo *Uuarra* (*ColObar* 1002, 1004, 1007, etab.), eta agian *ur* hitzarekin lot liteke horrela (< *ur-bar* + *-a* artikulua?); Ribagorzan dago Santa María de Obarra monasterioa.<sup>288</sup> Gorago (4.9.1 atala) esandakoa gorabehera, agian Sabiñánigo eta Oska arteko *Belarra* bera ere talde honetan sartu beharko genuke. Izen hauetaz hau da nire irudipena: badira amaieran *-rra* duten hainbat izen, baina horietan ere ez dago modurik *-a* artikulua bereizteko.
- (e) Badira Aragoi euskal izenetan antzeman daitezkeen fonetismoak dituzten izenak: cf. *Arbea/Arbeia*, *Bolea/Boleia*, *Exea/Exeya*, *Gurrea/Gorreia*, etab. Euskal izen

<sup>288</sup> *Loarre* izena har liteke paralelo moduan, *-u-* > *-o-* aldaketarako, *lur-arre* balitz jatorrian; cf. *Luarre* (*ColAlfon* 1105, *DocLeire* 1131, *ColFanlo* 1134); lehenago ageri da gure corpusean, halere, *Loarre* (*SJPeña* 1046).

garbi batean, cf. *Sancti Michaelis de Haraluçeia* (*CatBurg* 1068; ik. 4.4.3 ataleko (d) puntuan). Baina izen hauetako aldaerak ez dira ezinbestean azaldu behar euskararen bitartez: aragonesismoak izatea da litekeena; cf., urrutiago, jatorri arabiarreko *Aldea* izena, Baix Ebrekoa, *Aldeya* XIII. mendean (*EtimCat*).

- (f) Horietaz gain, Lacastak artikuluduntzat jotzen ditu zenbait izen: Belchiteko —aski hegoaldekoa, beraz— *Aina*, adibidez, *gain-a* analizatzeko aukeraz mintzo da (1994: 182); Nafarroatik hurbileko Sinués inguruko *Sodarana* (*SJPeña* 1030) *so d'Arana* analizatzen du (1994: 194); inguruko *Aisa*, bere arabera, *haitz + -a* da (1994: 235), eta Oska aldeko *Ayera*-k ere, *Aierbe*-rekin lotzekotan, euskal artikulua luke (1994: 237). Darocako *Atea* ere badakar, “a pesar de encontrarse distante de nuestra zona de estudio” oharrarekin (1994: 227). Argi dagoenez, berezko analisi arazoak dituzte leku-izen hauek.

*Arbea* da (1994: 195-196), aipatzen dituenen artean, interesgarriena; ik. goian eztabaidarako. Aipatzen dituen Laruésko *Arria* (1994: 211) eta Boleako *Orbea* (1994: 242) izenak 1979an bildutakoak dira.

Hauek guztiak *-a* bukaera dutelako aipatu ditut hemen, eta, hori aitzakia hartuta, inork euskal artikulua dutela argudia lezakeelako. Ez dut zalantzan jarriko izen horietako batzuk euskararen bitartez azal daitezkeela, baina, hala izanik ere, zailagoa da artikulua dutela erakustea. Horietako batzuetan euskal artikulua dagoela onartuko bagenu ere, bi ohar nagusi egin behar dira:

- (a) *Aranna*, *Arbea*, *Bizkarra* edo *Luesia* bezalakoak euskal lekukotasuntzat jota ere, ohartzekoa da ez daudela euskal eremu historikotik urrun; halakoen artean gehienak Oskan edo Zaragozan daude. Lleida alderako Pirinioetako adibideak ez dira inondik ere hain erakargarriak; ekialderagoko eremu honetan, dena dela, Ribagorzako Sopeirako *Lacarro* (*CartAlaón* 942) leku-izena aipagarria da zinez, nahiz eta *-a* artikulua adibide garbia ez den.
- (b) Artikulua dagoela onarturik ere, zergatik ez dago *-aga*, *-eta* edo *-hen* bakar bat ere? Deklinabide mugatuaren gramatikalizazioa sistema osoaren arabera aztertuz gero, zinez deigarria da datuetako hutsune hau. Hutsune honen salbuespen bakar

moduan hauek aurkitu ditut:

- (i) Grierak *-en* atzizki bat ikusten du berak aurre-erromatartzat jotako izen batzuetan: adibidez, gaurko *Berèn* izena aipatzen du (Alt Urgellen dago), eta Erdi Aroko *Berhen* adibidea dakar; agian Ribagorzako *Beranuy* izenarekin lot daiteke?<sup>289</sup> *Berenuy* aldaera zaharra dakar Grierak. *Baèn, Odèn*,<sup>290</sup> *Orden* eta *Tuixen* izenetan atzizki bera ikusten du. Interesgarria da lehena, Pallars Sobiràkoa, VIII. mendean *Bahen* aldaera bat dagoelako (*EtimCat*; IX. mendean *Baiene*). Ageri denez, hauetako bakar batean ezin da lehen osagaia euskal hitzen batekin lotu.
- (ii) Lacastaren lanean (1994), Aragoi Garaiko hainbat leku-izen biltzen dira, horien artean *-aga* duten zenbait: *Aliaga, Arrabaga, Arriaga, Basaga, Botaga, Eisaga, Lanaga, La Raga, Larraga, Larriaga, Larriaca, Lizarraga, Ubaga, Yaga*. Amaieran *-iga* duten batzuk ere talde berean sartzen ditu: *Arriga/Arrica, Artiga, Botiga*, etab.

Nire ustez, ez da argia *Aliaga, Arrabaga, Botaga, Lanaga* (gaur *Lanaja*), *Larriaca, Ubaga* eta *Yaga* bezalako euskaltasuna. Besteen artean, gehienak XX. mendean bildutakoak dira: 1979an, *Arriaga* Sabiñánigon, *Eisaga* Ribagorzan —*Eleizaga* analizatzeko aukera aipatzen du Lacastak— eta *Lizarraga* Oskako Esplúsen; 1974an Luesiako *La Raga*; 1902an, *Casa Larraga* etxe-izena; 1949an *Larriaga* Sabiñánigon. *Basaga* da lehenagoko lekukotasuna duen bakarra: Basa ibarreko San Román herriskaren berri ematen du “In sancti Romani de bassaga casas et hereditate” 1042ko pasarteak, eta *Bagasa* aldaera dakar agiriaren beste kopia batek; Basa ibarrekoa denez, *Bassaga* irakurketa hobesten du Lacastak.

Izen hauek ez dute eremu geografiko trinkorik osatzen, han-hemenkakoak dira, eta adibide ziur antzekoen artean ia gehienak XX.

<sup>289</sup> *Veranus* antroponimoaren gainean osaturikotzat jo izan da, *-ui* atzizki piriniarrarekin; X. mendeko *Veranoi* aldaera ere bada (*EtimCat* s.v. *Beranui*).

<sup>290</sup> Solsonèsko herri hau *Odden* da IX. mendean (*EtimCat*); bada *Òdena* ere Anoiako eskualdean (X. m.).

mendean jasotakoak dira; nire ustez, ezin dira hartu antzinako euskararen adibidetzat. Bestalde, ez dakar *-eta* eta *-en* atzizkien adibiderik.

- (iii) Azken ohar gisa, erromantzezko ttikigarri femeninoa da hainbat izenetako *-eta*, ia zalantzarik gabe: cf. *Dolzeta mea neta* (*CatHuesc* 1195; cf. *Dolza* izena), *Heloneta mea filia* (*ColObar* 1007) edo *dopna Lorereta* (*ColObar* 1060); nabarmena da *Sancheta* (*CatHuesc* 1209). Zalantzazkoagoak izan litezke inorentzat *Iohannis de Gasseneta* (*ColObar* 1296) edo *Bernardus Loreta de Erdao* (*ColObar* ~1257), baina euskal lekukotzat hartzeko ere larriak dira eragozpenak.

#### 4.9.3 Pirinioetako datuen analisirako

Eskuzabal jokatur, argudia daiteke Pirinioetako erdialde-mendebaldean (Oska probintziaz ari naiz) *-a* artikularen adibideren bat edo beste egon daitekeela (cf. *Arbea* izenaren adibide argigarria); ez dago, ordea, *-aga* eta *-eta* atzizkirik. Ekialdean, aldiz, Ribagorzako eta Lleidako lurraldeetan, ez dago ez *-a* artikularen ez besteren adibide garbirik.

Euskarak bizirik iraun duen eremuaren eta Piriniotako euskararen arteko alde nabarmen hau azaltzeko, beste azterbide zenbait jorra daitezke.

- (a) Pentsa liteke Pirinioetako euskarak ez zuela deklinabide mugaturik, eta hortaz, deklinabide mugatua sortu baino lehenagoko euskal populazioei dagokiela hango leku-izenek erakusten duten hizkuntz egoera.
- (b) Beste aukera bat da pentsatzea hango euskarak deklinabide mugatua izanik ere, ez zela “modan” izan horiekiko izenekin izendatzea hango leku-izenak; hipotesi hau, jakina, frogatzeko zailagoa da, bere aldeko datu positiborik eskuratzea zaila baita.
- (c) Ribagorzako eta Lleidako izenei dagokienez, aukera bat da zalantzan jartzea Corominesen lana, eta aurre-erromatartzat jotzen diren leku-izen horiek euskararen hizkuntz familiaren barrenekoak ez direla proposatzea. Honek erroitik aldatuko luke euskararen erabilera eremuaz eta iraupenaz dugun ikuspegia; aintzat hartuta Pirinioetako eremua akitanieraren garaiko euskaren jarraipen moduan har

litekeela, ez diot aukera honi helduko, oraingoz.

Lehenengo (a) ikuspegi hau da interesgarriena, nire ustez, tesi honen eginbide nagusiaren barrenean: Pirinioetako euskal populazioez ditugun ideiez erabateko haustura ekarri gabe, populazio horien eta euskal eremu historikokoan arteko harremanean sakontzen laguntzen digu. Badirudi Euskara Batu Zaharra (Mitx VII 517-543) euskal dialekto modernoan azalpenerako baliagarria den konstruktio gisa baino ezin dela hartu,<sup>291</sup> eta Pirinioetako euskara ez dela marko horren barrenean aztertu behar: hauxe litzateke nire ikuspegiaren ondorio nagusia.

Azken aldi euskal dialektoen sailkapenean eta Euskara Batu Zaharrari buruzko ikerketan zenbait aurrerapen egin da; horren erakusgarri dira Caminoren (2011[2014]) eta Lakarraren (2011[2014]) lanak. Pirinioetako euskarari dagokionez ere zenbait oinarri zedarritzen has gitezke, beharbada: agian hor ere zenbait eremu bereizten hasi beharra dago, Pallars eta Cerdanyakoa alde batetik, eta Oskako probintziakoak bestetik, adibidez; artikulak (-a, -aga, -eta, -en) izatea ala ez izatea irizpide hartuta, agian Oskako zenbait eremutako lekukoak Euskara Batu Zaharraren marko orokorraren barrenean aztertu beharra dago, ekialderagokoetatik bereiziz. Bide horretatik, argudia liteke, beraz, horietako zenbait datu berrikuntza baten aurreko egoeraren erakusgarri direla, garai bateko euskararen banaketa dialektalaren berri ematen digun berrikuntza, eta, horrela, zenbait ikerketa ildo ireki daitezke euskara protohistorikoaren dialektologiarako.

Bestalde, Corominesen lan aitzindaria gutxietsi gabe, mereziko luke Pirinioetako lekukotasunak berriz aztertzea, gaur egun euskalaritzaren ikuspegitik dakigunarekin. Ekinbehar honetan, ezinbesteko bidelagun dirateke Salaberrik ematen dituen hogeitaz irizpide baliotsuak (2011: 1019-1038). Corpusaren urriak zenbait zehaztapen egitea galaraziko digu, baina nabarmena da Pirinioetako hainbat ustezko euskal lekukotasun aski ezberdinak direla euskara historikoaren ikuspuntutik begiratuta, eta baliteke ondorio interesgarri berriak ateratzea horien azterketatik; cf. bereziki arestiko (c) puntuan aipaturiko aukera. Funtsean, Pirinioetako hori, euskara bada, ze euskara mota

---

<sup>291</sup> Erdi Aroko Burgos-Errioxako euskara ere honen barrenean ulertu behar da; ikus 4.10 eta 5.1.3 atalak.

den argitzeko deia da hau, zeren hondar eta aztarna linguistiko den aztertzeo proposamena.

#### 4.10 Azken hitz bat Erdi Aroko datuez: Pirinioetako eta Burgos-Errioxako euskara

Erdi Aroko euskal datuez mintzo garenean, batera eman ohi dira Pirinioetakoak eta Burgos-Errioxakoak. Nire ustez, garaikide izanik ere, ezin dira hartu hizkuntzaren egoera beraren erakusgarri. Aurreko 4.9 atalean, arakatu dut ba ote zegoen D-elementurik Pirinioetako leku-izenetan, eta emaitza negatiboa izan da; horrenbestez, proposatu dut datu horiek Euskara Batu Zaharretik kanpo utzi behar direla. Bestela gertatzen da Burgos-Errioxako onomastikarekin, Petersonen hitzak horren lekuko (2009: 304):

Uno de los argumentos más determinantes a la hora de contextualizar cronológicamente el euskera encontrado al sur del Ebro en periodo altomedieval es su proximidad morfológica al euskera observado al norte del río, una característica incompatible con un aislamiento plurisecular, incluso milenario, y difícilmente el resultado de esporádicos contactos que en cambio sí podrían haber dejado las dispersas huellas onomásticas arriba contempladas. De ser el heredero de un hipotético vascuence prerromano esperaríamos mucha mayor divergencia entre lo observado (*Larrehederra, Ocharana* etc.) y el euskera de más al norte.

Are esanguratsua da artikulu definitua sartu izana eztabaida horretan (Peterson 2009: 305):

La otra innovación observada en la documentación demandesa es la presencia del artículo definido. Ausente de los registros euskéricos del periodo imperial, se entiende que se desarrollaría en imitación de su paralelo morfológico-funcional en las vernáculos romances, y por lo tanto de nuevo se nos obliga a contemplar una cronología postromana.

Argudio honetan aipatzen ez baditu ere, Burgos-Errioxako euskararen ezaugarri dira beste zenbait D-elementu ere: cf. adibidez *Lizarraga* (*SMillán* 1028), ziur aski gaurko Burgosko Fresneda de Río Tirón herria, Errioxako mugan, eta, lehenago, agian, *Farraga* (*SMillán* 1015), nahiz eta ez dagoen argi zein den lehen osagaia;<sup>292</sup> cf. halaber Sajazarra inguruko *Sagarraga* (*SMillán* 1098). Badirudi *-eta*-ren adibideak beranduagoko agirietan daudela: cf. Mujikak dakartzan *Arizeta, Maldeta* eta beste (1992).<sup>293</sup>

<sup>292</sup> Izenaren osaera *harri + -aga* balitz, *Farriaga* izan beharko genuke.

<sup>293</sup> Petersonek idatziz helarazi didanaren arabera, ez dago euskal *-eta* atzizkiaren adibide ziurrik Burgos-Errioxako agiri zaharretan; adibide hauek bidali dizkit: Pancorbon *Aranetum* (*SMillán* 1058),



Xehetasunak xehetasun, Arabako lekukotasunekin lotzen ditu Burgos-Errioxakoak Mitxelena: “La toponimia medieval de carácter vasco en tierras de la Rioja y Burgos está en estrecha relación con la que encontramos por las mismas fechas, al norte del Ebro, en territorio alavés” (V 372). Eta izendatuki kokatzen ditu Euskara Batu Zaharraren eztabaidan Petersonek (2009: 305):

La escasa divergencia entre los dialectos vascos llevó a Michelena a contemplar la idea de una hipotética ‘lengua común’, la ‘raíz de los dialectos conocidos’ de los cuales el vasco demandés, prácticamente un calco del alavés, parece ser uno.

Honenbestez, atal honetan gogorarazi dut Euskara Batu Zaharraren barrenean azaldu ohi direla Burgos-Errioxako euskal datuak; alde nabarmena dago, beraz, aurretik Pirinioetako euskarari buruz esandakoekin.

---

Pazuengosen *Aurcoquieta*, *Liçarita*, *Maeleda* (ColRioja 1074; *Yeztoquieta*, *Heztaquieta* aldaerak ditu lehen izenak, agiriaren beste kopia batzuetan; hirugarrenak *Maeleta*), Naiaran *Ulzeta* (SMillán 1074), Bureban *Zunieta* (SMillán 1058, 1073 etab.), *Zonneta* (ColCard 1085), gaurko Zuñeda da. Horrela bada, *-aga* badugu Burgos-Errioxako agiri zaharretan, baina ez *-eta*. Datu honi izaera linguistikoa aitortzen badiogu eta ez badiogu hutsune dokumentalei edo zori hutsari egozten, pentsa genezake hizkuntzaren egoera zahar baten berri ematen digula, eta hara joaniko lehen populatzaile euskaldunek *-aga* bai baina *-eta* ez zutela artean gramatikalizatua. Burgosko eta Errioxako hurrenez hurrengo populatzeez eta migrazioez, ikus Mitxelena (V 375) eta Mujika (1992: 424). Ikus bestalde 5.2.5.3 atala.



BOSGARREN KAPITULUA  
**DEKLINABIDE MUGATUAREN BERRERAIKETA**  
**MORFOLOGIKOA**

Kapitulu honetan, deklinabide mugatuaren morfologiaren berreraiketa proposamen bat egingo dut. Hirugarren kapituluan zedarritutako oinarri teorikoak eta laugarrenean xehakaturiko Erdi Aroko datuak daude berreraiketa proposamen horren muinean. Ekinbide nagusi honetaz gain, hizpide izango ditut II. kapituluan zerrendaturiko beste zenbait eztabaida eta arazo ere, hala nola artikuluaen sorrera garaiari edo erakusleen berreraiketari dagozkionak.

### **5.1 Artikuluaren sorrera garaia**

Aurreko atal batean (2.1.3) agertu bezala, egiantzekotasun maila ezberdinekoak izanik ere, bi hipotesi nagusi daude artikulua noiz sortu zen erabakitzeke eztabaidan: batetik, artikulua Erdi Arokoa dela eta, bestetik, artikuluaen adibideak antzinatean ere badaudela. Ondoko azpiataletan, bi hipotesi horien aldeko eta aurkako argudioak aletuko ditut.

#### *5.1.1 Euskal artikulua Erdi Aroan sortua da (ik. 2.1.3.1)*

Hiru argudio nagusi eman daitezke Mitxelenak laburbiltzen duen ikuspegi klasikoaren alde:

- (a) Bigarren kapituluan esan bezala, artikuluen gramatikalizazioa ez da euskaraz bakarrik gertatu, eta Europako mendebaldeko beste hainbat hizkuntzatan ere gertatu da. Hortaz, euskararena gertakari zabalago baten barnean dagoela uler daiteke.
- (b) Ikuspegi tipologikotik, hizkuntza eransleek ez dute artikulurik izaten (Himmelman 1998: 339); onartuta azken bi mila edo mila eta bostehun urteetan euskara hizkuntza eranslea izan dela eta halako hizkuntzen eredu tipologikoaren

barrenekoa dela (buru-azkena etab.),<sup>294</sup> artikulua gerora sorturikoa dela baizik ezin da pentsatu, hizkuntzaren eredu tipologiko orokorraren aurka. Beste aukera bat da, jakina, oso arkaismo zaharra izatea artikulua, euskara beste eredu tipologiko baten arabera zenekoa; euskal ikasketetan ez da inoiz eman aukera honen aldeko datu edo argudio sendorik. Ukipen edo gertakari areal moduko batek (a) ongi azaltzen du aipaturiko eredu tipologiko orokor horretatik aldentzea; azalpen horixe bera eman dakioke hungarierari ere, eransle izanik artikulua baitu (Himmelman 1998: 350, 34. oh.).

- (c) Erdi Aroan hainbat D-elementuk hasperena zuten; artikulua erakusleetatik datorrela onarturik, Erdi Aroko lekukoetan oraindik aldaera hasperendunak aurkitzeak iradokitzen du erakusleen gramatikalizazioa ez zela oso aurreratua, hots, bilakaera ez zela aspaldi hasia.<sup>295</sup>

Beste bi ohar egin daitezke, hipotesi honetarako arazo izan litezkeenak:

- (d) Hipotesi honen aldeko argudio gisa erabili ohi da akitanierazko lekukotasunetan artikulurik ez izatea, baina galdera egin liteke ea akitanierazko lekukotasunetan artikulurik ez agertzea ezereen seinale den: izan ere, baliteke lekukotasun horien izaerak berak, gehienak izen bereziak izateak (antroponimo zein teonimo), artikulua erabiltzea galaraztea. Ik. 5.1.2 ataleko (e) puntuan akitanierazko zenbait daturi buruzko gogoetak.
- (e) Inguruko hizkuntzen testuinguruan, euskal artikulua definituaren gramatikalizazio

<sup>294</sup> Lacombek (1938: 423) uste du *aurten* eta *auri* 'euri' hitzetan *a-* artikulua dagoela, antzinako hurrenkera baten lekuko; Lafonek (1933) ideia hori onartzen du. Kritika baterako, ik. *EHHE* s.v. *aurten*.

<sup>295</sup> Argudio honen aurka, Elexpuruk (2009: 101-102) nire 2006ko laneko proposamena kritikatzeko du, esanez *Reja*-n ez dagoela *-a* artikulua aldaera hasperendun ziturrik. Nire ustez, egoki bildu dut Erdi Aroko *-a* artikulua aldaera ustez hasperendunei buruzko eztabaida (ik. 4.4 atala), baina, Elexpuruk arrazoiz izango balu ere, ohar nagusi bat egin behar zaio bere kritikari: ezin zaio *-a* artikulua prototipikoari bakarrik begiratu, D-elementuen sistema osoaren bilakaera hartu behar baita aintzat, eta, hau eginez gero, argi geratzen da aldaera hasperendunak bazirela Erdi Aroan deklinabide mugatuan (cf. bereziki *-heta* eta *-hen*). Horretaz gain, bestelako hutsak ere antzeman daitezke Elexpururen lanean: besteak beste, osaera ezberdineko izenak konparatzen ditu (*Reja*-ko *Arroiaha* eta gaurko *Arroiabe*, adibidez), eta eztabaida horri ez dagokion *olha* osagaia eztabaidan kokatzen du, nik horrelakorik proposatu ez banuen ere. Labur esanik, autoreak analisi eta datu jakin batzuk kritikatzeko ditu, baina ez dirudi analisi eta datu horien iturria zuzenean irakurri duenik (Manterola 2006): eztabaidari dagozkion datuak nahasten ditu, eta ez dakar lan horri dagokion erreferentziarik.

maila altua da: gramatikalizazioaren erritmoa hizkuntzatik hizkuntzara beti berdina dela onartuko bagenu,<sup>296</sup> pentsatu beharko genuke euskarazkoa lehenagotik hasi zela gramatikalizatzen, eta, hortaz, Erdi Aroa baino lehenagokoa izan litekeela. Baina eskenatoki horren aurka mintzo dira, Erdi Aroan bertan, Picauden eta Von Harffen hiztegitxoaren artean dauden aldeak eurak (ik. 6.1.1 atala), eta konstatazio enpiriko horretan errotu daitezke Mitxelenaren hitzak: “Lo que sí es un hecho plenamente histórico es su proliferación” (ik. 2.1.3.1 atala). Artikuluaren erabilera garai historikoan zabaldu da, eta, beraz, kronologia horren menpe egon beharko lukete bere gramatikalizazio mailaz atera ditzakegun ondorioek.

### 5.1.2 Antzinateko artikulua adibideak (ik. 2.1.3.2)

Bigarren hipotesiari dagokionez, ebidentzia enpiriko gisa aurkeztutako adibideek banan-banako kritika jaso dezakete:

- (a) Galiziako *Iria Flavia* leku-izenerako bestelako jatorriak proposatu izan dira (Delamarre 2009: 101-102). Horretaz gain, ez dago inongo frogarik Galizian inoiz euskara hitz egin dela erakusten duenik. Ikus orain, gainera, *hiri/huri* hitzaren etimologiari buruzko Lakarraren proposamena (2010: 222-227).<sup>297</sup>
- (b) Iberiar idazkeran emana den ustezko GUDUA DEISDEA bestela irakurri behar da, KUTUR OISOR, alegia (*MLH III*, F.13.13); *kutur* eta *oisor* osagaiak, gainera, zein bere aldetik, idazkun gehiagotan ere agertzen dira (*MLH III*, F.13.35 eta *MLH III*, F.13.36, hurrenez hurren); kritika zabalago baterako ikus halaber Lakarra (2006b: 237-238).

<sup>296</sup> Ez da inon erakutsi, nik dakidala, tasun, egitura edo egitura gramatikal jakin baten aldaketa erritmoa berdina izan behar denik hizkuntzatik hizkuntzara; ikus Nettle (1999: 119-120), orokorraren sarrera labur baterako. Are gutxiago, nire ustez, artikulua definituaren kasuan, kontuan harturik kategoria gramatikal hau berez dela ezegonkorra (Croft 2003: 244-245), egituren egonkortasuna Wichmannek eta Holmanek ulertzen duten bezala ulertuta: “[S]tability [...] is defined as the probability that a given language remains unchanged with respect to the feature during 1000 years” (2009: 2. atala); hots, hizkuntzetan erraz agertu edo desagertzen den kategoria da artikulua (definitu zein indefinitu).

<sup>297</sup> Aipatzekoa da, besteak beste, ustezko lekuko hau ez zaiela egokitzen euskal dialektologia (proto-)historikoak eskaintzen dizkigun datu ziurrei: mendebaldeko forma (*h*)uri da, Erdi Aroz geroztik gutxienez; bestalde, *Iria Flavia*-ren hipotesi honek ez du ezer berririk esaten euskal hitzak dituen arazoez (hastapenean izan lezakeen jatorrizko hasperenez, adibidez).

- (c) IBARRA-k, itxura erakargarria izanik ere, aurreko biekin partekatzen du arazo orokorrago bat: adibide bakartua da, euskal eremutik kanpoko, eta ez du zerekin konparatu, ez baitu bat egiten garai hartako eta ondokoetako euskal datuez dakigunarekin. Euskal lurraldean, 1087koa da aurkitu dudana lekukotasunik zaharrena, eta Arabako leku-izen bat da (*SMillán*): ez, beraz, VIII., IX. edo X. mendeetan, eta ez antroponimo gisa. Are gehiago zaildu daiteke kontua, aintzat hartuta iberieraz ere antzeko antroponimo bat egon zitekeela: “Ybañ (§ 578): además de ser elemento antropónimo aparece varias veces en la cerámica de Liria, a menudo en la proximidad de *ban*” (De Hoz 2011: 291).

Bestalde, gaur desagertuta dagoen Arabako idazkun batean ILLVNA SOCRA irakurri izan da; idazkun berean, TICHIA VXOR izena dago (Fita 1883). Lehen idazkunekoa eusk. *ilhun* hitzarekin lotzen du Fitak, akit. ILVNNI bezalakoekin konparatuta (ik. halaber Gorrotxategi 1995: 51); Elexpuruk eusk. *iluna* sintagma artikuludunarekin erkatzen du zuzenean (2009: 106); baina gogoan hartu behar da izen horren lehen hiru hizkiak erditik moztuta daudela (*OnomAquit* §231), eta irakurketa bera ez dela ziurra. Bigarrena eusk. *txikia*-rekin lotzeko aukeraz mintzo da Elexpuru (1999: 107), baina ohartaraziz, Fitarekin bat, izen greziarra dela ziur aski; euskal ikuspuntutik, gainera, ohartu behar da lekukotasun zaharrenetan *-pi* bukaeradun formak direla zabalduenak, baita mendebaldean ere (*EHHE* s.v. *txiki*).

- (d) Azkenik, ustezko APALONIS Irigoienek Erdi Aroko *Apalo*-rekin lotzeko *ad hoc* egindako zatiketa batetik dator, eta SAPALONIS da irakurri ohi dena; honek ez luke ezinbestean galaraziko *-o* artikulutzat hartzea, *sapal* euskal hitz moduan onartuta ere (eztabaidarako ik. *OnomAquit* §292), baina bada SECUNDO SAPALONIS F(ILIO) bat Nîmes inguruan (*CIL* XII, 3886), euskara hutsaren bidezko interpretazioa behin betiko baztertzeraz eraman gaitzakeena. Horretaz gainera, ez dirudi zilegi *-o* artikulutzat jotzea artikulatu moduan *-a* bakar bat ere ez dagoen hizkuntza egoera batean.

Irigoienek (orobat Martínezek 2010: 26), gainera, *-o* hori artikulutzat jotzen du, eta ez dago frogatua hori hala denik: Erdi Aroko *apalo*, *ezquerro*, *zailo* eta abarretan ez du artikulurik ikusten Mitxelenak (IX 522, 48 oh., 525), morfologia

erromantzea baizik, *-a* artikulua femenino markatzat joz *-o* izenondo maskulinoak sortu zituen, *Anso/Ansa* edo *Semero/Semera* izenetan bezalaxe.<sup>298</sup> Salaberrik (2009: 187-188) bi hipotesiak ikusten ditu posible: Irigoienek eremu erromantzatutik kanpoko adibideak azalduko lituzke; Mitxelenarenak, berriz, eremu erromantzatuenetakoak.<sup>299</sup>

Auzi hau argitzeko, Erdi Aroko corpusean *-o* duten izengoitiak bildu ditut (cf. *apalo*, *ezkerro*, *zurio* etab.), gizonetzko izenekin egokitasunik duten ikusteko; *-a* dutenak, definizioz, gizonetzkoentzako zein emakumezkoentzako izan daitezke euskaraz, cf. *Maria Ezquerria/Johan Ezquerria* edo *Toda Çuria/Miguel Çuria*, besteak beste.<sup>300</sup> Eraitza argigarria da: *-a* duten izengoitiek gizonetzkoak zein emakumezkoak izenda ditzakete, baina *-o* dutenak gizonetzko izenetan baizik ez dira agertzen, salbuespenik gabe (ik. II.6 eranskineko taulak); hipotesi honekin bat egiten du zenbait adibidetan erromantzezko artikulua erabiltzeak (cf. *Sancho Lezquerro* eta *Hurraca la Behorra* etab.). Alde horretatik, Mitxelenaren hipotesia Irigoienaren gaintik hobetsi daiteke, eta honetarako adibide argigarria da *ezkerro*-ren banaketa geografikoarena: ia guztiak Nafarroa hegoaldekoak dira, Azagra, Milagro, Azkoien, Fustiñana, Funes, Tutereta eta halako herrietakoak; bada Iruñeko adibideren bat, eta Erriberakoak ez diren Mendigorriko eta Artaxoako batzuk ere bai (ik. 50. taula, II.6 eranskinean).

Salaberrik dioena ere egia da, eta Nafarroa hegoaldea baino euskaldunagoko eskualdeetan badira *-o* adibideak (cf. bereziki *Zurio*-ri dagozkionak, 51. taula), baina, nire ustez, *-o* duten izengoiti edo izenondoetan emakumezkoak ez izatea

<sup>298</sup> Euskal gramatikaren beste zenbait ataletan, deskribatu izan dira loturik egon daitezkeen fenomenoak: *-ka* edo *-txa* ttikigarrien azken bokala femeninoa markatzeko zela esan izan da (cf. *behoka*, *neskatxa* etab.; *Morf* §293 eta *Mitx* IV 234, V 215). Beste hizkuntza batzuek ere mailegatu dute gaztelaniazko *-o/-a* genero bereizketa; ikus Hekking eta Bakker (2007: 444), Otomi hizkuntzaz. Ezaguna da, bestalde, izenondo mailegatuaren kasua: *mutil hori altoa da*, baina *neska hori alta da* eta abar; ikus orain Eliasson (2012: 278-279).

<sup>299</sup> Ez dago argi zein den Orpustanen iritzia: *-o* atzizki batez mintzo da batetik, *harro*-renaz ari dela (1999: 277-278), baina “finale castillanisante” batez ere ari da, bestetik, *gayztarro* eta *leçquerro* hizpide dituela (1999: 287).

<sup>300</sup> Nabarmendu izan da emakume-izena izan ohi dela *Apala* (*Mitx* IX 522, 48 oh.), baina, gutxi izanik ere, bada adibiderik gizonetzkoen deitura moduan: cf. *Gasto Apala* eta, hitzaren adibide moduan onartzen badugu, *Pero Garçeyz Apaylla*.

berebiziko datua da horietan ere. Gainera, aipagarriak dira auzi honetan Landuchioren hiztegiko datuak: “*bruxa* xorguina” eta “*bruxo* xorguinoa” dakartza; datu hauek iradokitzen dute aski sartua zegokeela orduan ere morfologia erromantze hau euskararen barrenean.

Laburbilduz, esan daiteke (a-d) puntuetan kritikaturiko lekukoek arazo nagusi bat partekatzen dutela: bakan batzuk baizik ez dira, zein bere interpretazio arazoekin, eta ez dute zerekin konparatu beren testuinguruan (geografikoan eta denborazkoan), ez baitute gutxieneko adibide sortarik osatzen eremukide edo mota bertsuko izan litezkeen beste idazkun edo lekuko batzuekin. Honek guztiak gutxitu egiten du adibideok euskarazkotzat jotzeko aukera; hortaz, ezin erabil daitezke antzinateko artikulua hipotesiaren alde egiteko. Eragozpen honen oinarria ongi laburbiltzen du Corominesek (1965: 103), Pirinioetako leku-izen ustez zeltikoez ari dela:

Pour que nous nous mouvions dans un terrain plus solide, les noms celtiques sont trop rares et trop clairsemés. Cela nous enlève les deux appuis les plus forts qu'on peut trouver en toponomastique: la possibilité de former des séries de noms de lieux ayant une terminaison, un préfixe ou une signification communs, et d'autre part l'existence de zones où les noms de lieux provenant d'une certaine langue sont en majorité ou du moins forment une minorité nombreuse.

Hori guztia hala izanik ere, saia gintezke hipotesi honetan sakontzen, eztabaidan inoiz aipatu ez diren akitanierazko datu batzuk hona ekarrita:

- (e) Artikuluren forma zaharra hasperenduna izan behar zela onarturik, pentsa liteke ARTEHE eta ARTAHE jainko izenetan eusk. *arte* zuhaitz-izenaren eta artikulua -*ha* formaren adibideak ditugula, latin arruntaren datiboaren *-ae* > *-e* bilakaerarekin; nire ustez, izatekotan, antzinateko ustezko artikulua adibide garbiagoak izango lirateke, IBARRA, GUDUA DEISDEA eta halakoak baino: batetik, agertzen diren lekuarengatik euskal adibidetzat jo daitezkeelako, eta, bestetik, hasperena dutenez artikuluen bilakaera diakronikoaz dakigunarekin bat egiten dutelako.

Baina aukera honek ere eragozpen larriak ditu: *arte*-rekin lotu behar bada, ARTAHE formako *arta-* azaltzeko, badirudi euskara modernoko elkarteratorrietako fonetismoetara jo beharko genukeela, eta honek, era berean, arazo



bikoitza dakar, batetik akitanieraz ez baita horrelakorik (Mitx V: 231-233, Gorrotxategi 1984: 370-371, Trask 1997: 187) eta bestetik artikulua ez baitzaio lotzen izenaren elkartu-eratorrietako aldaerari.

Hau guztia arazo orokorrago baten pean ezarri behar da, jainko-izen horien segmentazioari dagokiona, hain zuzen. Gorrotxategik *-e* amaiera duten beste izen batzuekin batera aztertzen du, eta, ERGE jainko-izenaz ari dela, hauxe dio (2010: 86):

Una cuestión difícil es decidir si la terminación *-E* es alguna especie de desinencia o bien pertenece al tema de la propia palabra. En algunos otros teónimos procedentes de la región pirenaica, como *Erriap(p)e*, *Andose* y *Buaigorixe*, hay variantes con *-o* (*Erriap(p)o*, *Andosso* y *Baigorixo*), que llevan a pensar en una especie de desinencia propia alternante con la latina *-o*. [...] La cuestión se complica con la atestiguación de una variante con aspiración, que no sabemos si debe ser entendida como la forma más antigua de la desinencia, mantenida tras vocal como en *Artahe* y reducida tras consonante como en los casos citados. En el interesante teónimo *Herauscorritsehe* (CIL.13.00409) podemos hacer una segmentación de morfemas: *heraus-corri-ts-e*, (como en *buaigori-x-e*), al que se añade *-he*. ¿Se trata de alguna especie de especificador añadido a la forma sufijada del teónimo o una repetición de la desinencia en su variante postvocálica? Frente a estos casos de teónimos largos, segmentables en varios morfemas, el caso del dios *Erge* como el de algunos otros invariables (*Elhe*, *Lahe*) es difícil, porque no sabemos si la *-e* final perteneció al tema nominal. [Etzana nirea]

Eta hona, azalbide bertsuarekin, *Artahe/Artehe/Arte* aldaerez dioena (*OnomAquit* §455-461):

Las tres formas atestiguadas *Artahe/Artehe/Arte* presentan dificultades para su análisis [...] podría decirse que la forma sin aspiración es secundaria [...] habría que pensar que *Artahe/Artehe* presentan la forma indeclinada de la palabra. Pero por otro lado la terminación *-e* nos lleva a comparar estas formas con otros testimonios semejantes: *Erge*, *Garre*, *Buaigorixe*, etc., en los que puede apreciarse una desinencia *-e*, de modo que la *-h-* pueda ser entendida como un signo gráfico para marcar la separación entre el tema y la desinencia: *arta/arte-h-e*.

Xehetasunak xehetasun, aipu batean zein bestean *-e* atzizki batez ari da Gorrotxategi, akitanierazko jainko-izenetan maiz agertzen dena; hori hala izanik, *Artehe*-ko *-he* jatorrian *-ha* izan zela proposatzea arazoa da, *-e* amaierak talde ongi definitu bat osatzen baitu akitanierazko gainerako lekukoekin. Horretaz gain, *-he* duten beste jainko-izenen arazoa dago, ELHE, LAHE eta ARHE izenetan balitekeelako *-e* oinarriarena izatea, Gorrotxategik dioen moduan; HERAUSCORRITSEHE eta ARTEHE dira, luzeragatik, zatitzeko aukera ematen duten bakarrak. Honenbestez, ez dirudi akitanierazko datu hauek ere berebiziko frog

osatzen dutenik antzinako artikulua honen hipotesiaren alde.

### 5.1.3 *Datu mota bat gehiago eztabaidarako: Pirinioetako Erdi Aroko leku-izenak*

Aurreko kapituluan, 4.9 atalean, saiatu naiz argitzen Pirinioetako leku-izenetan D-elementurik ba ote zegoen. Euskarak luzaroen iraun zuen eremuetan —beti ere Corominesen lanen arabera—, Pallars ingurukoetan, ez dugu adibide ziur bakar bat ere. Datu hauek erabat egiten dute hipotesi klasikoaren alde, eta zailagoa da horrela antzinatean artikulurik bazela uste izatea.

Era berean, osatu egiten dute euskal eremu modernotik kanpoko Erdi Aroko euskal lekukotasunez dugun ikuspegia: batera aztertu ohi dira Burgos-Errioxako lekukotasunak eta Pirinioetakoak. Baina errealitate linguistiko ezberdinen lekuko dira bi lekukotasun mota horiek; ikus 4.10 atala.

### 5.1.4 *Artikuluaren datazioaz. Laburpena*

Lau puntutan laburbil daitezke esanguratsutzat jo ditudan alderdiak artikuluaren sorrera datazioari dagokion eztabaidan:

- (a) Tesi honen ikuspegi orokorrari jarraiki, artikulua ez da bakarrik *-a*, eta beste D-elementuak aintzat hartu behar dira, bereziki gure protohistoria ezagunean —Erdi Aroko toponimian— ugariak direlako.
- (b) Amaieran *-a* duten lekuko zenbait erabili izan dira antzinateko artikuluaren hipotesiaren alde; bi ohar egin ditut horietaz:
  - (i) Bakanak dira, eta zalantzazkoak, horietarik batzuk euskal eremutik urrunekoak direlako, edo irakurketa zailtasunak dituztelako.
  - (ii) Antzinateko lekukoetan ez dago *-aga*, *-eta* edo beste D-elementuren baten adibiderik, eta horren azalpenik ez du ematen Irigoienen eta Iglesiasen hipotesiak.
- (c) Antzinateko artikuluaren hipotesian sakondu nahian, saiatu naiz artikulutzat jotzen akitanierazko zenbait *-he*, baina akitanierazko lekukoan azterketari dagozkien bestelako arazoak sortu dira; eta hemen ere aipatu behar akitanierazko

lekukoetan ere ez dugula beste D-elementurik.

- (d) Orobatsu gertatzen da Erdi Aroko Pirinioetako datuekin: *-a* artikulua adibideak ez dira garbiak, eta, horretaz gainera, ustezko *-a* horienak bakarrik ditugu, ez bestelako D-elementuenak.

Honek guztiak argudio bat gehiago osatzen du esateko euskal artikulua Erdi Aroan sortu zirela, eta antzinatean ez zegoela kategoria gramatikal hau. Antzinateko artikulua hipotesiaren aldekoek (a-d) puntuak erantzun beharko lituzkete; aukera bat da, jakina, esatea *-a* lehenago gramatikalizatu zela beste D-elementuak baino, baina horrek berak azalpena eskatuko luke, artikuluen paradigma osoaren gramatikalizazioari legokiokeen azalpen orokorra.

Antzinatean artikulua bazela proposatzeak erabat aldatuko luke agertoki klasikoa: besteak beste, hasi beharko ginateke pentsatzen Europako mendebaldeko hizkuntzetan behialako euskara indartsuago bategatik garatu ote zen artikulua; baina halako galderak egiten hasi orduko datoz arazoak: hizkuntza horietan, artikulua sorrerak kronologia ezaguna du, eta ez dago zantzurik pentsatzeko hain garai hurbilean holako indartsu izan denik euskara. Ditugun datu historiko eta kronologia ezagunek ez dute, artikuluari dagokionez, behintzat, biderik ematen norabide horretan pentsatzeko.

## 5.2 Deklinabide mugatuaren berreraiketa morfologikoa

Proposamen honetan, deklinabide mugatuaren berreraiketa bateratua eman dut, ez kasuak banaka hartuta, baizik kasu guztietako deklinabide mugatua D-elementuen gramatikalizaziotzat hartuta.

Berreraiketa proposamen honek Duvoisinena du eredu, funtsean, eta alde batera uzten du Schuchardten lanek ekarritako nahasmena. Bi oinarri nagusiren arabera sakonduko dut berreraiketa hipotesi honetan: laugarren kapituluaren xehakatu ditudan Erdi Aroko agirietako datuek oinarri enpiriko ezinbestekoa ezarriko dute, batetik, eta hirugarren kapituluaren aipaturiko orokortze tipologikoek oinarri zabalagoa emango diote hipotesiari; hauek ohartaraziko gaituzte beste hizkuntzetan dauden murriztapenak eta joerak euskaraz ere betetzen direla. Oinarri enpiriko eta tipologiko horietan bermaturik,

azalduko dut nola argitu daitezkeen bigarren kapituluaren zerrendaturiko auziak hipotesi honen arabera.

Honako taula hauetan laburbiltzen da deklinabide morfologikoki mugatuaren bilakaera diakronikoa:

	Hirugarren graduko erakusleak	D-elementuaren bilakaera diakronikoa, izenondo funtzioan		
Kasu-gramatikalak		Osaera	Tarteko forma	Emaitza
Abs.	<i>ha</i>	<i>mendi + ha</i>	> <i>mendiha</i>	> <i>mendia</i>
Erg.	<i>ha(r)k</i>	<i>mendi + hak</i>	> * <i>mendihak</i>	> <i>mendiak</i>
Gen.	<i>haren</i>	<i>mendi + haren</i>	> * <i>mendiharen</i>	> <i>mendiaren</i>
Dat.	<i>hari</i>	<i>mendi + hari</i>	> * <i>mendihari</i>	> <i>mendiari</i>
Leku-kasuak		Osaera	Tarteko forma	Emaitza
Ines.	* <i>han</i>	<i>mendi + *han</i>	> <i>mendihan</i>	> <i>mendian</i>

5. taula. Singularreko deklinabide mugatuaren bilakaera diakronikoa: oinarritzko eskema.

Singularreko deklinabide morfologikoki mugatutik kanpo geratzen dira ablatiboa eta adlatiboa: izan ere, interpretazio definitua izanik ere, morfologikoki mugagabeak dira *menditik* eta *mendira* bezalakoak; zub. eta erronk., hala ere, aurki daitezke adlatibo mugatuak, hala nola erronk. *mendiara* edo zub. *mendiala(t)*. Singularreko leku-kasuetan artikulurik ez erabiltzea, edo kasu-gramatikaletan erabiltzen diren bezainbeste ez erabiltzea, ez da harritzekoa, joera tipologiko ezagun bati jarraitzen baitio ezaugarri honek (Himmelman 1998; 3.1.3 atala).<sup>301</sup> Orobat gertatzen da *-(r)ik* partitiboarekin, *-ko* leku-genitiboarekin<sup>302</sup> eta *-tzat* prolatiboarekin; hirurak dira morfologikoki mugagabe.

Singularreko deklinabide mugatutzat dugun hori aspaldidanik azaldu izan da D-elementuen gramatikalizaziotik (*FHV* 213). Pluralerako ere eredu beraren arabera proposamena egin daiteke, Oñederraren hitzek iragartzen duten bezala: “Gauza onartua

<sup>301</sup> Nire proposamenen bidetik, adlatibora eta ablatibora ere zabaldu izan dute D-elementuen gramatikalizazioan oinarrituriko paradigma, *mendira* eta *menditik* hurrenez hurren *mendi + hara* eta *mendi + hatik* sintagmetatik eratorriz diakronikoki (Santazilia 2013: 237). Hau ez da zuzena: semantikoki singularreko paradigma mugatuaren barrenean ezartzen baditugu ere, *mendira* eta *menditik* (eta baita *mendiko* ere) beti izan dira morfologikoki mugagabeak (ik. 5.2.4 atala); *hatik* erakuslea, gainera, ez dago lekukotua (cf. *arik*, *arean* eta *handik*).

<sup>302</sup> Nabarmena da partitiboak eta leku-genitiboak leku-kasuekin duten lotura. Partitiboaren eta ablatiboaren arteko harremanaz, ik. berriki Ariztimuño (2014). Leku-genitiboari dagokionez, cf. ArrasErrek *barruango* artikuluduna; *barruko/barruango* eta adlatiboko *mendira/mendiara* bikoteak elkarren artean konpara daitezke horrela (ik. 5.2.3.2 atalean).

da oro har hizkuntzalari eta filologilari artean egungo euskararen singular eta plural markak ziurrenera noizbait beregaintasuna galdu zuten izenaren ondorengo erakusleak izan zirela” (2005: 386-387).

	Hirugarren graduko erakusleak	D-elementuaren bilakaera diakronikoa, izenondo funtzioan		
Kasu-gramatikalak		Osaera	Tarteko forma	Emaitza
Abs.	<i>*hak</i>	<i>mendi + *hak</i>	> <i>*mendihak</i>	> <i>mendiak</i>
Erg.	<i>hek</i>	<i>mendi + *hak/hek</i>	> <i>*mendihak/-hek</i>	> <i>mendiak/mendiek</i>
Gen.	<i>hen</i>	<i>mendi + hen</i>	> <i>*mendihen</i>	> <i>mendien</i>
Dat.	<i>hei</i>	<i>mendi + hei</i>	> <i>*mendihei</i>	> <i>mendiei</i>
Leku-kasuak		Osaera	Tarteko forma	Emaitza
Ines.	<i>hetan</i>	<i>mendi + hetan</i>	> <i>*mendihetan</i>	> <i>mendietan</i>
Ablat.	<i>hetarik</i>	<i>mendi + hetarik</i>	> <i>*mendihetarik</i>	> <i>mendietarik</i>
Adlat.	<i>hetara</i>	<i>mendi + hetara</i>	> <i>*mendihetara</i>	> <i>mendietara</i>

6. taula. Pluraleko deklinabide mugatuaren bilakaera diakronikoa: oinarritzko eskema.

Deklinabide mugatuaren proposamen honek berarekin dakar erakusleen paradigmaren berreraiketa jakin baten proposamena; taula hauetan, hastapeneko hotsa gorabehera —*h*-rekin jarri ditut, etimologikoki zor zaion bezala—, erakusleen forma lekukotuak erabili ditut, izartxoarekin daudenak salbu. Erakusleen paradigma hau ez da, bere horretan, inongo euskara historikotan aurki daitekeenaren berdin-berdina; erakusleen berreraiketari buruzko atalean (5.5) dagozkion azalpenak ematen ditut xehetasunez buruz. Hautu honek, deklinabide mugatuaren diakronia azaltzeko behar ditugun erakusleak zuzenean taulan jartzeak, *ad hoc* xamarra irudi lezake, erakusleak eurak berreraiki baino lehen. Baina testuan ezin dira bi gaiak, deklinabide mugatuarena eta erakusleena, batera eman; elkarren segidan ematea da aukera bakarra, bietako bati lehentasuna emanaz. Hizkuntzaren diakroniaren hurrenez hurreneko kronologian, jakina, erakusleena dator lehenago, horren ganean eraikitzen baita deklinabide mugatua; baina hautu metodologiko garbia egin dut, tesi honen jarduna ongi irudikatzen duena: deklinabide mugatuaren diakronia egiteak ahalbidetzen digu hainbat ohar egitea erakusleen diakroniari buruz.

### 5.2.1 D-elementuen gramatikalizazioaren ereduaz bestelako bilakaerak

Hurrengo azpiataletan, erakusleen gramatikalizazioaren hipotesi orokor honen arabera azalduko ditut deklinabide mugatuaren diakronian dauden auziak, bigarren kapituluaren zerrendatuak. Hori egin baino lehen, ordea, eredu nagusi horretatik kanpo geratzen diren zenbait datu mota zerrendatu nahi ditut:

- (a) Izen bizidunen deklinabideaz ez dirudi gauza handirik dagoenik esateko D-elementuen gramatikalizazioaren ikuspegitik: adposizio sekundariotzat jo daitezke *-gan*-ekin osaturikoak (Lehmann 1985: 302-303; ik. I. eranskina), eta absolutiboaren edo genitiboaren gainean eraikiak dira singularrean (cf. *lagunagan* eta *lagunarengan*); pluralean, berriz, beti eraikitzen dira genitiboaren gainean (cf. *lagunengan*).
- (b) Era berean, badirudi D-elementuen gramatikalizazioaren azalpen orokorretik kanpo dagoela beste zenbait kasuren diakronia: mendebaldeko *-gaz* soziatiboa eredu eranslearen arabera osatu da, singularrekoa absolutibo singularraren gainean osatua baitago (*lagunagaz* < *laguna* + *-gaz*; *alabeagaz* < *alabea* + *-gaz*) eta pluralekoa absolutibo pluralekoaren gainean (*lagunakaz* < *lagunak* + *-gaz*).<sup>303</sup> Funtsean, bizidunetako *-gan* sintagmen kidekoa da *-gaz* postposizio sintagmen osaera, eta nabarmena da osagai bera dagoela bien oinarrian, *-n* inesiboaz eta *-z* instrumentalaz lagundutako *\*-ga*, hain zuzen.

Eredu eransleak deklinabidean duen bazterreko izaeraren adibidetzat har litezke beste zenbait datu ere; bazterreko izaera hau, oro har, berantiartasun zantzu gisa har daiteke:

- (i) Mendebaldeko soziatiboan bertan zenbait hizkeratan singularrean *-gaz* eranslea erabiltzen bada ere, *-ekin* itxuraz ez-eranslea da pluraleko forma.
- (ii) Ubillosen *-akkin* pluraleko soziatiboa ere, *-ak* + *-kin* gordina, berrikuntza da.
- (iii) Horretaz gain, badirudi berrikuntza analogikotzat jo daitezkeela Bidaso

<sup>303</sup> Joseba Lakarrak ohartarazten nauen bezala, badira adibideak non *-gaz* atzizkidun sintagmak genitiboaren gainean osatzen diren, baina ez dira mendebaldekoak: cf. *Jaunarengaz* edo *Kristorengaz*, Orexan jasoak, Azkuek “acerca del Señor” eta “acerca de Cristo” glosatzen dituenak (*Morf* §495, *Anomalías en la declinación* izenburupe esanguratsuan).

aldeko *lagunaken* eta Lapurdiko eta Nafarroa Garaiko beste eremu batzuetako *hauken* eta antzeko formak (ik. 5.2.7.5 atala).

(iv) Azkenik, motibatiboarenak adibide ezagunak dira, hala nola *RS 404 meniagayti*, edo Leiz Mat II: 18 *haourracgatic*. Izenordainean *zuengatik* du Leizarragak, ik. Martínez (2010: 91-93), baina *gugatik*.

(c) Ez dira baztertzekoak erakusleen deklinabidearen eta izen sintagmaren deklinabidearen arteko elkarreraginak, erakusleen gramatikalizaziozko bilakaerari hertsiki lotu gabe; honen adibide izan daitezke pluraleko instrumentalean dauden *-ez*, *-etaz*, *-ezaz* formak, erakusleetan ere atzeman daitekeen polimorfiarekin bat egiten dutenak (cf. *hez*, *haiez*, *hetaz*, *hezaz* etab.). Etxeparek, adibidez, *-ez* du deklinabide mugatuan, eta *hezaz* erakuslean: I 29 *Hilez vnsa orhit adi*, edo I 161-162 *Gure gaucez ordenatu osso guiren artian / Guero eztugun eguiteco heçaz azquen finian*.<sup>304</sup> Hori da, deskripzio zehatzagoen faltan, Belapeireren eredia (*-ez* deklinabidean, *hetzaz/haietzaz/haiez* erakuslean), baina Egiategik *-etzaz* eta *hetzaz/haiez* ditu. Eguskitzak (1931) egoki biltzen du ikuspegi hau, Gavelen hitzak gogora ekarrita (*Gramm* §72):

En souletin il peut arriver que le substantif reçoive lui aussi, par réaction analogique, la terminaison *-tzaz*, tant lorsque le sens est celui du singulier que lorsqu'il est celui du pluriel; ainsi, dans les deux derniers exemples ci-dessus les formes *herriaz* et *adiskideez* peuvent être remplacées respectivement par *herritzaz* eta *adiskidetzaz*.

(d) Hainbat hizkeratan, *-a-* bokala nagusitu da pluraleko atzizkietan: cf. Goizuetako dat. pl. *gizònari*, soziet. pl. *gizònakin* (Hualde eta Lujanbio 2008: 379); nire ustez, berriak dira bilakaera hauek, eta baliteke azentuaren arabera bereizten delako

<sup>304</sup> Erakusle singularren artean, aipagarriak dira Etxepareren beraren 13: 73 *honez* 'honetaz' edo Leizarragaren 1394 *hunez* 'honetaz', *-ta-* edo *-za-* gabekoak; Zuberoan ere entzun daiteke (Etxebarne 2010: 78). Honek galdetzera eraman gaitzake bere hitzaurreko 23-24 *çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta* adibidean *honetik* 'honetatik' ote dagoen, eta ez *honetik* 'onetik', itzuli ohi den bezala (Lafon 1999: 763). Bestalde, galdera egin liteke, nondik nora hasi zen erabiltzen erakusleetan *-za-* edo *-ta-* artizkia (forma zaharrak gabekoak baldin badira, jakina). Adibide interesgarri batzuk ditu Beriainek, instrumentalari begiratzen badiogu, bai baitirudi izenordainetan agertzen dela *-za-* artizkia, ez izenondoetan: BerMez 11 *veztidura ones* eta 87 *oneças*, eta pluralean 2v *gauzahoes* eta 11v *ohesas*; cf. bestalde 59v *ones aurrera*, non badirudien adverbio funtzioan forma zaharra gorde dela. Orobatsu hirugarren graduoketan: BerMez 26v *mistrío ayes* eta 7v *ayhesas*. BerDot 96 *señale onesas* orokortze honen aurkakoa da. Ikerbide hau erakusleen berariazko berreraiketa bati dagokio, eta hemen ez dut sakonduko bide honetan.

galdu izana tinbrearen arabera bereizketa. Azalpen hauetatik kanpo utzi behar dira jatorrian *-a-* duten erakusleen gramatikalizazioz gertatu diren atzizkiak (cf. mendebaldeko gen. pl. *-aen*, ik. 5.2.7.5 atala).

Oro har, (c-d) puntuen garrantzia apaldu gabe —hainbat aldaera moderno azaltzeko balio lezakete—, esan daiteke deklinabidearen osaeran bi eredu ditugula: batetik, D-elementuen gramatikalizazioaren arabera azal daitekeen paradigma, eta, bestetik, eredu eranslearen arabera. Nire proposamenean, D-elementuen gramatikalizazioaren arabera azaltzen da deklinabide mugatuaren muina, eta eredu eransleak bazterreko zenbait kasuren gorabeherak baizik ez ditu azaltzen.

### 5.2.2 Singularreko kasu gramatikalak

Singularreko kasu gramatikalei dagokienez, ez da morfologiako auzi berezirik nabarmendu euskalaritzan; ez, behintzat, berreraiketa kontuetan (ik. 2.2 atala). Merezidu, dena den, gogora ekartzea 2.4.2.1 atalean egindako oharra: ez dira, ezinbestean, maila bereko gertakarien ondorengoak absolutibo singularraren aldaeratzat jo ohi diren *-ea*, *-aa*, *-ara* eta *-á*, mendebaldeko *-a + -a > -ea* kasu gramatikal guztietan —eta *-gaz* soziatiboarekin— gertatzen baita, eta zar. *-ara* ez. Beste bi ohar ere egin daitezke *-a + -a > -ea* bilakaeraz: batetik, ez hain mendebaldeko zenbait hizkeratan, ez da gertatzen kasu gramatikal guztietan, cf. SerorGut 1 *cartaren* genitiboa, baina 11 *espera(n)cea* absolutiboa, eta Miser 7 *kulpea* absolutiboa, 73 *Aitearekin* soziatiboa, baina 17, 28 *graziak* ergatiboa, 48 *justizia* eta 73, 74 *gloria* absolutiboak;<sup>305</sup> bestetik, bestelako funtzio batekin aurki daiteke beste eremu batzuetan ere (cf. *botea*, *aterea* etab.). Ohar gisa, *-aa* ez asimilatuaren adibideak ditugu Isastigan, absolutiboan (67 *Olaa olaguiizonarenzat*, eta *barca barca maisuarenzat*), ergatiboan (12 *Balizco olaac*, *burnia guichi*) eta konparatibozko atzizkiarekin (22 *Çura beraago*, *arra barrenago*).

Errepikaturiko ohar honen helburua da gogoraraztea artikuluari dagozkionak ez

<sup>305</sup> Jakina, *-ia* amaiera duten maileguak dira hauek guztiak, eta horrek galarazi ahal izan du bilakaera. Bada Miserere gipuzkoar honetan 66 *altura* mailegua, absolutiboa, itxuraz, eta *-ea* gabea; baliteke, dena den, adlatiboa izatea, baina badago 69. bertsoleerroan adlatibo ezin izan daitekeen *altura* hitzaren agerpen bat.



direla bilakaera fonetiko huts moduan hartu behar; berebiziko garrantzia du auzi horien izaera morfonologikoa gogoan edukitzea.

Ohar bat egin daiteke, dena den, erg. sing. *-ak* atzizkiaz, Jacobsenek (1972) sinkretismo moduan deskribatzen zuen erg. sing. *-ak* eta abs./erg. pl. *-ak* atzizkien arteko homofonia erabatekoa, eta, horren bidetik, nire proposamena izango da esatea jatorrian morfema bera zirela erg. sing. *-ak* eta abs. pl. *-ak* atzizkiak, *\*haga* D-elementua; morfema honek bi gramatikalizazio bide segitu zituen, *-ga* osagaiak izan zituen erabilera ezberdinengatik, eta horrela azalduko litzateke morfema berak euskara modernoan funtzio ezberdinak izatea. Ik. 5.5.5.2 atala.

### 5.2.3 *Inesibo singular mugatua*

Aurreko lan batzuetan (Manterola 2006, 2009b) hau proposatu nuen: inesibo mugatu singularrean izenari *han* erakuslea lotu zitzaien, osorik. Nire ustez, honela gaudituz egiten dira Jacobsenek, De Rijkek eta Traskek<sup>306</sup> proposaturiko *-gan* atzizkian oinarrituriko hipotesiaren arazoak (ik. 2.4.2.2.1 atala), eta bestelako galderak ekartzen ditu. Kontsonantez bukatzen diren hitzen eztabaidaren bidetik, hona nire proposamena:

- (1) *\*lan han* ‘lan hartan’ > *\*lan-e-han* > *lanean* ‘lanean’

Hipotesi honek zerbait esatera garamatza hirugarren graduko erakuslearen inesibo singularraz, izan ere *hartan* baita forma historikoa. Lafonek berak, gaur adberbio baizik ez bada ere, *han* du jatorrizko formatzat: “le suffixe *-an* est identique à l’adverbe *an* “là”, qui est certainement un ancien inessif du démonstratif” (1999: 608).<sup>307</sup> Bilakaera hori, bestalde —erakuslearen inesibozko forma deklinatutik adberbiorakoa—, lekukotua dago beste hizkuntza batzuetan; hona Diesselen (1999: 8-9) dakarren Ngiyambaa

<sup>306</sup> Etxeparek (2013a, 2013b) berriki plazaraturiko hipotesia ere autore hauenaren tradizio berean kokatzen dut: bere ustez *-ga-* ergatiboa dago inesibo mugatuaren jatorrian. Ez ditut orain zalantza jarriko analisi sinkronikorako aukera honek izan litzakeen hobariak; eztabaida honetan, Etxeparek jatorrian *-g-* hotsa zegoela defendatu izana interesatzen zait.

<sup>307</sup> Cf. halaber “La finale de l’inessif singulier repose sur *a-n*, ancienne forme d’inessif du démonstratif, que a subsisté comme adverbe signifiant “là”” (Lafon 1999: 168). Ikus 5.5.2 (d) atalean erakusleen berreraiketaz. Bestalde, badirudi *hartan* bera berriro gramatikalizatu dela zenbait hizkeratan: cf. Ulibarrik (2015: 170) dakarren *-atan* inesiboa, *egunatan*, *meseatan*, etab.; berrikuntza nabarmena da, eta *-atan* honekin ez dira gertatzen *-an* atzizkiarekin gertatzen diren bilakaera morfonologikoak.

hizkuntzako adibidea:

- (2) *ɲani*                      ‘han’  
hura.LOK

Eta honela orokortzen du Kuryłowiczek, kasu deklinatuen eta adberbioen harremanaz ari dela: “The semantic relations between the multifunctional forms *in this, from this, to this*, and the spatial adverbs *there, thence, thither (here, hence, hither)* have been always and everywhere the driving force of the renewal of declension” (1975[1970]: 16).

Lehen fasean, bada, D-elementuen *continuumean* artean *han* erakusle izenondo zela, *\*lan han* izango genuen; bigarreanean, *han* erakuslea gramatikalizatzen hasiko zen, izenari lotuz eta kontsonante arteko *-e-* epentetikoa eraginez.

Beste hizkuntza batzuetan ere aurki daiteke bilakaera honen kidekorik: hizk. algonkiarretan, izen sintagmei loturik ager daiteke *nete* “there” erakusle lokatiboa gaur, balio adberbiala izan dezakeena, izen sintagma lokatibo definituak egiteko; kasu honetan ere inesibo mugatu singularra ez da absolutibo mugatu singularraren gainean eraiki, eta erakusle deklinatua da izen sintagmari lotu zaiona (Cyr 1993: 199-201, adibideak 212-213).

Hipotesi honetarako arazo moduan har liteke absolutiboan epentesirik ez izatea; ikus (3b):

- (3) a. *\*lan + ha > \*lanha > lana*  
b. *\*lan + ha > \*lan-e-ha > \*\*lanea*

(3a)-ko azken faseko *lana* dugu euskaraz, eta (3b)-ko *\*\*lanea* ez da gramatikala. Galdera hauxe litzateke: zergatik ez dugu epentesirik absolutibo singularrean? Galdera honen erantzunaren nondik norakoaz, ikus behean, 5.2.3.4 atala.

Aztertu beharreko beste datu mota bat mendebalde zabaleko hizkerei dagokie, *-a* berezkoa duten hitzei, zehazkiago; gogoan izan absolutibo mugatu singularrean *olea* dugula (cf. mugag. *ola*); honelakoa litzateke bilakaera nire proposamenaren arabera:

- (4) a. *\*ola + han > \*olahan > olaan > olan*

Badirudi erabat eranslea ez den eredu honen arabera izan behar dela bilakaera, eta, egiari zor, Jacobsen eta besteren *-gan*-en hipotesiak ere datu hauek egoki azalduko lituzke, nahiz eta haiek ez zituzten zuzenean aztertu *-a* berezkoa duten mendebaldeko hitzen gorabeherak. Esan bezala, ez da eredu eranslearen arabera bilakaera: inesibo mugatu singularra ez da eraiki absolutibo mugatu singularraren gainean; bestela, *ola* + *-a* > *olea* izango genuke lehenik eta *olea* + *-n* > *\*\*olean* ondoren.<sup>308</sup> Gogoan izan beharrekoa da *olaan* bezalako formak lekukotuak daudela, absolutibo (eta ergatibo) pluraleko *olaak* bezalakoekin batera: cf. Lazarg *bervaac* (AL: 1143r, AL: 1153r) eta *erropaac* (AL: 1144v), pluralean, eta inesiboan *Domecaan* (A7: 107), *arcaan* (A24: 27); cf. halaber *RS 214 errecaac*, *451 marcaac*, etab.

Amaieran beste bokalen bat duten hitzekin, ez dago berreraiketarako aipagarria den fenomenorik.

#### 5.2.3.1 Ohar bat zub. arratsan eta goizan bezalako sintagmez

Zubereraz badira *goizan* eta *arratsan* bezalako sintagma itxuraz mugatuak, *-e*-epentetikorik gabeak. Nire proposamenaren barrenean, jatorrizkoak dira *-e*-epentetikoaren fenomeno morfonologikoa erakusten duten sintagmak, eta berriagoak izan behar dira *goizan* eta *arratsan* bezalakoak:

- (a) Zubereraz, hitz horietatik kanpo, beti dago *-ean* (*-ian*) sintagma mugatuetan.
- (b) Hitz horietan ere badira mugag. *-en* eta mug. *-ian* aldaerak: cf. *arratsen* eta *arratsian* edo *goizian*. Ik. *OEH* s.v. *arrats* eta *goiz*.
- (c) Euskal eremu osoan zubereraz baizik ez daude, *OEH*-ren arabera, eta, hortaz, aukera bat da zubereraren berrikuntza izatea.
- (d) *Goizan* duten autoreek badute *arratsen* ere: Belapeirek eta Maisterrek, adibidez.
- (e) Testuen kronologiari begira, *arratsan*, *arratsian* eta *arratsen* aldaeren artean badirudi *arratsen* zaharragoa dela *arratsan* baino: *arratsen* mugagabe arkaikoa

<sup>308</sup> Gaurko erdialdeko zenbait hizkeratan, badugu *-ean* inesibo mugatua *-a* berezkoa duten hitz jakin batzuekin: cf. *hamaiketan*. Baina bestelako fenomeno bat da hau: (1) hizkera horietan absolutiboan ez dago *-a* + *-a* > *-ea* disimilaziorik, (2) hizkera horietan hainbat izenen *-a* berezkoa artikulua gisa berranalizatu da (cf. *botil*, *gauz* etab.), eta (3) *hamaika* hitzaren kasuan, *\*\*hamaik* absolutiborik ez badugu ere, badirudi *hamaiketan* inesiboa azaltzeko sakonean bukaerako *-a* artikulutzat berranalizatu duen *hamaik* forma dugula. Ik. Oñederra (2005: 385, 9 oh., 393, 16 oh.).

(ik. behean *etxen* eta bestez esandakoa, 5.2.3.3 (b) atala) Belapeirerengan (1696) edo Maisterrengan (1757) aurki daiteke; *arratsian* mugatua Tartasek (1666, 1672) eta Egiategik (1785) darabilte, eta *arratsan*, *OEH*-ren arabera, Salaberrik 1870ean argitaraturiko kantuetan eta Etxahun Barkoxekorengan<sup>309</sup> aurki daiteke. 1880an jaiotako Kadet Otsibar gamerearraren testuetan ere aurkitu dut *arratsan*, baina *arratsen*-ekin batera.

- (f) Esanguratsua da, deklinabideari dagokionez hainbat puntutan zubererarekin bat egiten duelako, erronkarieraz ez izatea *arratsan*-ik (ez dut adibiderik aurkitu, behintzat); bai, ordea, *arratsen* (Mitx VII 601, cf. *arratsen áigal*, eta Mendigatxaren gutunak).<sup>310</sup>

Horrenbestez, nire ustez, hurbilketarik behinena da *goizan* eta *arratsan* bezalako sintagmak salbuespen gisa tratatzea eta berariazko azalpen bat bilatzea horietarako. Funtsean, erabil daiteke Mitxelenak zenbait maileguren antzinatasun harreman erlatiboa ezartzeko erabilitako argudio bera, nahiz eta hura gertakari fonetikoez ari den (V 308):<sup>311</sup>

Serán antiguos [maileguez ari da], en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento.

Horren arabera, *zekürü*-k zaharragoa behar du *sekula*-k baino, eta abar. Deklinabide mugatuaren morfologiari dagokionez, beste hainbeste pentsa daiteke: inesibo mugatuko sintagma batek *-e-* epentetikoa baldin badu, zaharragoa izan behar du; hots, *goizean* zaharragoa da *goizan* baino.

Horrela, bada, zub. *arratsan* eta *goizan* bezalakoetarako azalpen berariazkoa

<sup>309</sup> Etxahun Barkoxekoren bertsoetan *arratsen* da nagusi. Bitan aurkitu dut *arratsan*: bata, Francisque-Michelen eta Salaberrirenetik hurbileko Hegiaphalen aldaeretan (Haritzelhar 1970: 346-347); bestea Salaberriren bildumatik jaso du Haritzelhar editoreak (1970: 506-508). Adierazgarria da Etxahunen erabileraz Haritzelharrek egiten duen oharra: “*Arratsan*: inessif archaïque; cf. *goizan*, *etxen*. Actuellement on dit *arratsen*” (1970: 509); *arratsen* ere inesibo arkaikotzat joa du lehenago (1970: 353).

<sup>310</sup> Bitan darabil Mendigatxak: *atzorratsen* (Irigoien 1957: 132) eta *atso rratsen* (Irigoien 1957: 141). Adibide hauek, *atzo arratsen* sintagmarekin, ongi erakusten dute halako adberbioek lexikalizatzearen duten joera.

<sup>311</sup> Céline Mounole irakasleari eskertu behar diot paralelo hau iradokirik.

proposatzea baizik ez zaigu falta. Nire ustez, bi aukera logiko daude: (1) baliteke, eta hau da hobesten dudana aukera, forma mugagabetik (cf. zub. *arratsen*) abiatutik, hitzaren egitura bisilabikoa hautsi gabe egin izana mugaturako bidea, \**goizen*<sup>312</sup> → *goizan*, *arratsen* → *arratsan* bilakaera ez-fonetikoarekin; ohartu behar da halako hitzak, ia denborazko adberbio bilakatuak direnak, aski lexikalizatuak daudela, eta horregatik gertatu da bilakaera ezohiko hau, nire ustez. Azalpen honetan, jakina, ez da baztertzekoa abs. *goiza*-ren eragin analogikoa; cf. Etxart zuberotarraren gutunetako 04.1v 11 *ustallan* eta 05.2r 9 *agorrillaco*, XVII. mendearen hasieran (cf. orobat OihAtsot 669 *agorrilan*), eta, denbora unitateetatik kanpo, 01.2r 9 *çoinetan guagnan*.<sup>313</sup> Funtsean, beraz, absolutiboko eta beste kasu gramatikaletako morfonologia gailentzen da inesiboan ere; antzeko fenomenoak dugu Landuchiogan, cf. *vrquean* eta *temporeã* inesiboak, ik. 2.4.2.2.1 atala. (2) Beste aukera da pentsatzea zuzenean *goiz* + *han* > *goizan* sintagmaren gramatikalizazioa gertatu zela, epentesirik gabe, baina honek ez luke azalduko zergatik gertatu den sintagma jakin batzuetan bakarrik.

Badirudi, gainera, *goizan* izan dela aldaketan aitzindari (garai historikoan ez dago mugag. \**goizen* aldaeraren adibiderik) eta ondotik etorri dela *arratsan*-en bilakaera, haren analogiaz. Leku-genitiboko *goizanko* azaltzeko, egokiagoa dirudi *goizan* + *-ko* osaeratik abiatzea (*goizan* lexikalizatu batekin), *etxenko*-ren eredura, eta ez *goiz* + *hanko*-tik. Proposamen orokorraren indargarri moduan ikus daiteke \*\**arratsango* edo \*\**arratsengo* moduko sintagmarik ez izatea: beti da *arratseko*.

### 5.2.3.2 Ekialdeko adlatiboa eta beste leku-kasuak

Eredu bera proposatzen dut ekialdeko adlatiboetarako ere (erronk. *-ara*, zub., zar. -

<sup>312</sup> *Euskal Klasikoen Corpus*-aren arabera, Mirandek baizik ez darabil, behin, *goizen* forma, *Haur besoetakoa* eleberrian. Horregatik eutsi diot izartxoari.

<sup>313</sup> Hona zer dakarren *OEH*-k (s.v. *gain*): “En suletino (y en parte al menos en mixano), los casos locales presentan, a veces en un mismo autor, un doble sistema de declinación. Así, el ines. es por lo general *gañen* (S ap. A; Gèze) —que aparece tbn. en *msMur* (19) y *CatUtz* (28), y un par de veces en Voltaire (253 y 254), y es recogido en Juslapeña (AN-gulina) por *EI* 125—, pero hay *gañian* en Eguiateguy (219) y *Xikito* (7) y, junto a *gañen*, en Etchahun (276), *CatS* (108) y *UNLilia* (8); hay *gañan* (recogido por Bon-Ond (loc. cit.) en AN-egüés-ilzarb) en Lopez (70, 122, etc.) y una vez en *CatLan* (128, frente al más frec. *gañian*), y algunos ejs. de *gaiñen* en Tartas (en quien es más frec. *gaiñian*), y un ej. al menos en *CatLan*. v. *AtSac* 21 para la distribución dialectal de las variantes de *gainean*”. Agian ez alferrik, badirudi sintagma mugagabeekin daudela txandan *-an* sintagma hauek (cf. *arratsen* eta *gainen*).

*ala(t)*);<sup>314</sup> orain arte eztabaidagai izandako epentesiaren fenomenoari dagokionez, inesiboak bezala jokutzen dute hauek. De Rijkek (1981: 94) proposatzen dituen *-gara* eta *-gala(t)* aukerei aurka egiten diet honela:

- (5) a. *etxe + hara > etxeara* (erronk.)  
 b. *etxe + hala > etxeala* (zub.)

De Rijken proposamenean bada puntu interesgarri bat: zub. *-ala(t)* atzizkiko *-l-* albokaria azaltzeko jatorrizko *\*-gan-la > -galla* proposatzen du; nire proposamenaren arabera, *\*-han-la (> \*halla)*<sup>315</sup> litzateke atzizkiaren azken buruko jatorria. Ezagunak dira inesiboaren gainean osaturiko beste atzizki batzuen adibideak: cf. erakusleetan *hon-i*, *horr-i*, edo, garbiago, *handik* eta *hango*; mendebaldean pluralerako orokortu den oinarria da inesiboa (*honeek*, *horreek* etab.).<sup>316</sup>

Inesiboaren gainean osaturiko *\*hanla* hau ongi ezkon daiteke leku-genitiboari dagokion datu ezagun batekin. Kasu honen forma artikuludunak ere badira testu zaharretan, cf. ArrasErrek *barruango*; horrelakoan diakronia honela azalduko nuke:

- (6) *barru + hango > barruango*

Beraz, jatorrizko *barruko* mugagabearen ondoan, erakuslea bera hartu zen oinarri leku-genitibo artikuluduna eratzeko, gaur egun ere *hango* den leku-genitibozko hirugarren graduko erakuslea. Beste aukera bat da, jakina, zub. *goizanko*-rako proposatu bezala, *barruan + -ko* moduko osaera bat proposatzea, besterik gabe, baina, orduan, kasu hau

<sup>314</sup> Baliteke berdin analizatu behar izatea testu zaharretako *jakiara* ‘jakinaren gainean’ ere, *jakin + -ara*. Leizarragarengan aurki daiteke, baina baita Etxeberri Ziburukoarengan ere, besteren artean (OEH s.v.)

<sup>315</sup> Tentagarria izan liteke zubererazko gutunetako adibide hauek albokari bortitz baten adierazpidetzat: Etxart 02.1v 15 *hallaber*, 03.1r 12 *hallaber*, 05.1r 21 *hallaco*, 06a.1r 5 *hallaber*, 06a.1r 8 *hallaco*z eta 07.2r 12 *hallacoric*. Baina <ll> digrafoak /l/ soila ere adieraz lezake gutun hauetan: cf. *fidella* edo *tranquillitatearen*; ik. III. eranskina. Bide beretik, interesgarria izan liteke De Rijken hipotesirako testu horietako *duiella* adibidea; *duela* adizkiaren adibideen artean hori da, gainera, bokalardi epentetikoa duen bakarra, ahozko ahoskatzetik hurbilago dagoela adieraz lezakeena. Testu horietatik kanpo, baina oraindik zubereraz, cf. SermZub 23, 78 *halla noulla*, 37, 144 *noulla*, 71, 135 *berhalla*, 78, 168 *berehalla*, 105, 124, 129 *beçalla*, 148 *beçallaco*; Nafarroan, cf. ZalbGut *alla* ‘hala’, eta, Lapurdin, cf. EspGut 3: 10, 13: 30 *alla* ‘hala’. Nolanahi ere, ohar bedi ez dugula holako kontsonante bortitzen bestelako lekukorik XVII. mendean.

<sup>316</sup> Aipagarriak dira, dena den, Belapeireren 1: 62 *gagnelaco*, 1: 92 *gagnela*, besteren artean; inesiboaren gainean osatu da hau ere (*gainen + -la*) ala bestela izan da (*gain + -la*, besterik gabe)? Hala balitz, De Rijkek behar duen *-nl-* taldea ez litzateke ezinbestekoa emaitza *-l-* izateko, eta, aagian, bestelako aukerak hobetsi beharko genituzke. Ikus 5.5.2.4 atala.

atera egin beharko genuke erakusle deklinatuen gramatikalizazioaren azalpen orokorretik, eta *etxeara*-eta horietatik bereizi. Horretaz gain, *eguneango* bezalakoak jarri behar dira *barruango*-ren paradigman (cf. jadanik Betol *egunean eguneango gure ogui*);<sup>317</sup> honek are nabarmenago galarazten du *goizanko*-rako emaniko azalpena aplikatzea.

Leku-kasuen artean, beraz, singularreko inesiboak bete-betean eta euskal eremu osoan hartu zuen artikulua modu erregularrean, eta arkaismo moduan geratu dira *etxen*, aditz-izenetako *-ten* eta beste; adlatiboko erakusleak ekialdeko hizkeretan baizik ez dira gramatikalizatu eta izen sintagmari lotu (funtzio gramatikal nagusietan artikulua gutxienik erabiltzen den eremuetan, bide batez esanda); bestalde, leku-genitiboko *-ango* testu-zaharretako ezaugarri arkaiko moduan aztertzen da,<sup>318</sup> nahiz eta, izatez, artikulurik gabeko *barruko* izan arkaismoa: *barruango* bezalakoak arrakastarik gabeko berrikuntza izan ziren, erakusleen gramatikalizazioaren gertakari zabalaren bidetik gertaturiko berrikuntza.

Horrenbestez, berriak dira forma artikuludun hauek guztiak, eta jatorrizkoak morfologikoki mugagabeak dira; are berriagoak dirudite inesiboaren gainean eraturikoek (*-ango*, eta beharbada *-ala(t)*), baina horien berritasun maila erakusleen berreraiketan proposatzen ditugun kronologia erlatiboen arabera da. Ik. 5.5.4.1 atala.

### 5.2.3.3 Hipotesiaren abantailak

Hipotesi honek aldarrikatzen du inesibo mugatu singularrean *han* gramatikalizatu zela, ez *-gan*, ezta *-a* artikulua lehenik eta *-n* ondoren ere. Jacobsenen, De Rijken eta Trasken *-gan* hipotesiaren arazoak eta salbuespenak D-elementuen gramatikalizazioan ezagunak diren ezaugarrien bidez azaltzen ditu (ik. 3.1.3 eta 3.2.4 atalak):

<sup>317</sup> Cf. halaber Lazarg AL: 1142v *osteango*, A16: 98 *gorpuceango*, MogelPask VIII *osteango*, AñibGer 485 *urteango* eta AñibEsk 31 *bagaango*, frBart 787 *verbaan verbaango* eta 819 *astian astiango*, AMZabala 75 *curutzeango* besteak beste; izenordainen paradigman, cf. Garibai *nolaango* eta *alaango*. RS-ko 191 *Hurtealango murcoa* atsoitzeko *hurtealango* ere *urte* + *alango* osaeraz interpreta liteke; bilduma berean, 35 *alangoa* eta 20 *alacoa* daude. Cf. bestalde Irigaraik (1933: 133) Arizkunen bildutako kantu bateko *bezalangorik*; OEH-k (s.v. *bezalako*) ez dakar *bezalango* aldaera hau.

<sup>318</sup> Analisi sinkronikoetan, gainera, sakoneko egituratzat jo izan da, *-ko*, izenlagunak osatzeko, adizlagunei lotzen zaiola dioen hipotesiaren aldeko argudio gisa (EGLU-1 200-201). Analisi sinkroniko horietan, dena den, *hemengo* eta *eguneango* batera aipatu ohi dira, eta, nire ustez, bai osaerari eta bai bilakaera diakronikoari dagokionez, ezberdinak dira.

- (a) Aise azaltzen da leku-izenetan *\*\*Maulean* (< *\*Maulegan*) bezalakorik ez izatea: eskuarki leku-izenek ez dute D-elementurik izaten, cf. errom. *en Paris*, ing. *in Paris*, etab.
- (b) Arkaismotzat jo daiteke, besterik gabe, zenbait izenetan (cf. *etxen*, *soinen...*) -a- artikulurik ez izatea. Himmelmannek (1998) bildu bezala, halako sintagmek iraun ohi dute luzaroena, beste hizkuntzetan ere, artikulurik gabeko forman, eta izenak mugagabeen agertzen dira, bereziki erreferentzia bakarrekoak direnean: cf. *etxen*, eskuarki norberaren etxea adierazten duena, *etxean*-i kontrajarriz, gazt. *en casa*, ing. *at home*, alem. *zu Hause* eta besterekin konpara daiteke.<sup>319</sup> Orobat TarOns 114 *curutcia soiñen carreyatu* adibidean, *soina* erreferentzia bakarrekoa delarik; zuzenagoa dirudi honek, De Rijken azalpen lausoak baino: “*soiñen* testu inguru honetan *soiñian* baino artezago eta aproposago zirudiolako edo” (1981: 93). Traskek hizkuntza erromantzeen ustezko eraginaren bitartez azaltzen du *etxen* sintagma mugagabea, baina azalpen hori ez da egiantzekoa: ez du ezer esaten mendebaldeko *baten* sintagmaz, ezta ekialdeko adlatiboaz eta Tartasen adibideaz ere.
- (c) Arkaikotzat jo daiteke aditz-izenetako -*ten*; horretan ere ez dugu ustezko -*gan* baten aztarnarik.

Artikulua erabiltzen ez den testuinguru horiek ezagunak dira —(a-b) puntuetakoak, bereziki—, eta deskribatu izan dira munduko beste hainbat hizkuntzatan. Hortaz, ustezko salbuespen horiek azal daitezke D-elementuen gramatikalizazioaren ezaugarrien arabera. Horretaz gain, badira -*gan* elementuan oinarrituriko hipotesiak ongi azaltzen ez dituen beste zenbait xehetasun, D-elementuen gramatikalizazioaren hipotesian nekerik gabe azaltzen direnak:

<sup>319</sup> Zubererazko adlatiboan ere antzeko zerbait gertatzen da, eta *etxera* eta *etxeala* kontrajar daitezke; -*ra(t)* artikulugabea bera izen bereziekin erabili ohi da, -*alat* izen arruntekin. Orobat gertatzen da erronkieraz, De Rijkek berak adierazten duen bezala: Hualde Mayoren itzulpenean (BonapOnd), -*ara* dugu izen arrunteko *lurriara* sintagman, baina -*ra* izen bereziekin, cf. *Egiptora*. Are interesgarriagoa da zubereraz ablatiboarekin gertatzen dena, bertan ez baitago forma morfologikoki mugaturik: cf. *Maulerik*, baina *etxetik*; hots, ablatiboaren forma zaharra izen berezietan edo hala jokatzeko dutenetan gorde da, baina, izen arruntetan, -*tik* forma berria erabiltzen da (gaurko zub. datuetarako ik. Etxebarne 2010: 74-77). Arrunt/berezi bereizketa hau bera dugu epentesiaren jokabidean, ik. 5.2.3.4 atala.



- (d) Ez dirudi hipotesi honek *-on* inesibo mugatu hurbila azal dezakeenik (cf. ArrasErrek *lasterreon*); baina aise zuzentzen du arazoa D-elementu ezberdin baten gramatikalizazioa proposatzeak, izan ere erakusle-artikuluen artean pluraleko *-ok* ere bai baitugu. Bestalde, horrek bidea eman lezake jatorrizko *\*hon* ‘honetan’ erakuslea proposatzeko (ik. 5.5.2 (d) atala).
- (e) Adlatiboan zubereraren eta erronkarieraren artean ikus daitekeen aldea hobeki azal daiteke erakusleen gramatikalizazioaren hipotesiaren barrenean: zub. *-ala* dugu, baina erronk. *-ara*. De Rijken arabera, zub. *-gan* + *-la* dugu, eta erronk. *-ga* + *-la*, baina ez da argi geratzen nondik norakoa den bien arteko aldea, zergatik dugun batean *-n* eta bestean ez. Alabaina, erraz azal daiteke erakusleetan ezaguna den ezaugarri batetik abiatuz: aski dugu esatea zubereraz *\*hanla* gramatikalizatu zela, eta erronkarieraz *hara*; arazoa erakusleen berreraiketaren arlora eramango genuke, baina, esan bezala, zubererazko erakusle berreraiki horrek paralelo garbiak ditu inesiboan oinarrituriko *handik* eta *hango* bezalakoetan.<sup>320</sup> Ezin da baztertu, hala ere, erakuslearen *ha* + *-la* gertatu izana; ik. 5.5.2.4 atala (modu adberbioen eta adlatiboaren arteko hurbiltasunaz, cf. fr. *à la mode* eta *à Paris*, hurrenez hurren).
- (f) Hobeki azaltzen da D-elementuen gramatikalizazioaren hipotesiarekin zergatik diren inesibo mugatuak azentudunak zubereraz eta erronkarieraz *-a* berezkoa duten hitzetan (Mitx VII 645, Hualde 1997: 94): cf. erronk. *ermitán*, *plaztán*<sup>321</sup>

<sup>320</sup> Badirudi *\*hanla* hau jatorrizko *hara* adlatibozko adberbioa baino beranduagokoa dela; cf. ablatiboan ere *harik* zaharra, *handik* berriagoaren ondoan). *\*Hanla* bera, deklinabidean sarturik, adberbio gisa lexikalizatuko zen (cf. *honela*, *horrela*, *hala*), eta *hartara* sortuko zen azkenik, erakuslearen gaurko forma deklinatu arrunta.

<sup>321</sup> Oinarrian *plaza* hitzarekin lotua dagoela argi badago ere, ez dago *plazta* hitzaren etimologia zehatzik, eta hala galdetzen du Mitxelenak (VIII 570). Mitxelenak berak ohartarazten du *plazta* Nafarroako agiri zaharretan agertzen dela (VII 498-499). *CORDE*-n, bestalde, hitza beti agertzen da Nafarroako agirietan, ez beste inon, eta nire corpusean Nafarroako agiri-bildumetan baizik ez da agertzen (*TextNav*, *Collrach*, *RegOlitII*, *AGNRealIV*, *AGNComp6*, *LibOliv*, *DinChampl*, *AGNComp3/4*, *AGNComp5*, *FuerGNV*; Mitxelenaren arabera *FuerGNV*-en ere ageri da, baina nik ez dut aurkitu; bertako *plazto* hitzarekin nahasi ote zuen?). Honenbestez, hitzaren nafartasuna agerikoa da, eta, hala izanik, zilegi da euskaratik abiatzea bere azalpena emateko: Salaberrik (1994: 554, 3278 oh.) B. Estornés Lasak Izaban jasotako *Platzaberri* eta *Platzabizkarra* leku-izenen ondoan jartzen du, eta aldaeren arteko harremanaz galdetzen du; nire ustez, baliteke *plazta* nafarra *placeta* hitzaren aldaera izatea, ez *plaza*-rena. Sinkopaz galduko zen bigarren silabako *-e-* (cf. erronk. *tenpra* etab., *FHV* 160-163). Hipotesi honek *-zt-* taldea azalduko luke, *plaza*-tik abiatuz azal ez daitekeena, baina horren aurka hau adieraz daiteke: sinkopa gertatu baino

etab.; Leizarragak ere baditu tiletadunak, cf. Luc IX: 46 *dispután*, CorintII XI: 12 *gauçán*, etab. Azentu modu honetan bat egiten du inesiboak absolutibo, ergatibo singularrekin (zub. *alhabá*, *alhabák*) eta absolutibo pluralarekin (zub. *alhabák*); horrek agerian uzten du inesiboak erakuslean oinarrituriko deklinabidearekin duen lotura (cf. halaber *-eaga* duten leku-izenez esandakoa, jarraian).

- (g) Beste datu batek ere agerian uzten du zer lotura duen inesiboak deklinabide mugatuarekin eta, beraz, artikuludunarekin. Aurreko lan batean (Manterola 2009b: 97), ohartarazi nuen kontsonantez amaituriko hitzetan inesiboak ez zuela bat egiten absolutibo pluralarekin, hots, ez dagoela *\*\*laneak* bezalakorik (abs. pl. *lanak* baina ines. sing. *lanean* epentesiduna), *-a* berezkoa duten izenetan gertatzen denaren kontrara (abs. pl. *olaak* / ines. sing. *olaan*). Laugarren kapituluan erakutsi dudaren arabera, ordea, bada horiek inoiz izan direlako zantzurik: cf. *Leherreaga*, itxura guztien arabera *leher* + *-aga*, epentesiarekin (ik. 4.5.1 (b) atala); leku-izenetako *-aga* atzizkia deklinabideko *-ak*-en aurreko formatzat joz gero, hortxe dugu inoiz *\*laneak* izan delako zantzua. Are gehiago, badirudi garai historikoko testu batean ere badela horrelako adibiderik, izen sintagma (*ezer bere ez*) bitxi xamarra baldin bada ere: Garibai B9 *Maria gurea-ren barriac*, *Ecervere eçeac gustiac*; itzulpenean “nadas” pluralean; cf. atsotitz bera, epentesirik gabe, A58 *Eçe vere eçac gustiac*, *Maria gurearen verriac*. Adibide bakarra denez, ez dago argi garai zaharrago baten aztarnatzat har daitekeen Garibairen hau; baliteke, gainera, normalean deklinatzen ez den sintagma bat deklinatu delako gertatu izana epentesia, modu irregularrean.<sup>322</sup>

Jacobsenen eta besteren hipotesiak ezin ditu halakoak azaldu (*\*lan-e-gaga* berreraikiko zuketan absolutiborako ere?).

Horrela, epentesiaren auzia ez da inesibo mugatu singularrarena soilik; epentesiarena da, hain zuzen ere, nire hipotesiari egin dakioken kritikarik

---

lehenago behar dugun *\*pláceta* aldaerak eta sinkopak berak aski zaharrak behar dutela, Erdi Aroan baitugu hitza. Gertakari horiek euskaraz garai historikoan ezagunak izanik ere, *plazta* hitza azaltzeko beharko genukeen kronologiak ez du, itxuraz, bat egiten dakigunarekin.

<sup>322</sup> Markel Lizasoainek eta José Ignacio Hualdek ohartarazten didatenez, ez da ahaztekoa *eze* izan zitekeela jatorrizko forma; ikus *OEH* s.v. *ez*.

behinena (ik. jarraian horren beste alderdi bat). Honek are gehiago nabarmentzen du inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko atzizkien arteko lotura; nire ustez, azalpenaren batasun eta orokortasun honek D-elementuen gramatikalizazioaren hipotesia aldeztu du.<sup>323</sup>

#### 5.2.3.4 Hipotesiaren balizko arazo bat: epentesiaren auzia

Goian aurreratutako epentesiaren auzia har liteke arazo nagusizat: zergatik ez dago *\*\*lanea*, inesiboan *lanean* badago? Hala kritikatu du Etxeparek ere (2013b: 46-47). Nire ustez, auzia ezin da oinarri fonetiko hutsen arabera argitu, Azkuek berak ongi agertu zuen bezala (1927: 79-80) eta galdera ez da izan behar zergatik ez dugun *\*\*lanea*-rik, baizik zein diren epentesiaren agerreraren motibazio eta testuinguru zehatzak.

Berriazko lan monografikoen faltan (cf. Azkueren arestikoa; ik. halaber Artiagoitiaren (1990) ohar interesgarriak), ez ditugu behar bezala ezagutzen epentesiaren erabilera baldintzen edo arauen bilakaera diakronikoaren gorabeherak. Eztabaidarako lagungarria da Mitxelenak (IX 511) Erdi Aroan deskribatu zuen egoera: *Domicu Larraineco* eta *S. Larraingo* (*SJuan* 1226) bikotea hizpide, lehenean, “de la era” itzulita, *larrain* izen arrunta litzateke, eta, beraz, epentesiarekin, eta bigarrean, “de Larrain” itzulita, *Larrain* izen berezia litzateke, eta, hortaz, *-e-* epentetikorik gabe. Kasu honetan, badirudi epentesia izenaren izaera semantikoaren arabera dela, eta, orobat, sintagmaren osagaien (izen eta kasu-marka edo D-elementuen) arteko harremanaren adierazle.

Honek zerikusitu zuzena du 3.1.2 puntuan agertutakoarekin: gramatikalizazioaren teorizazioetan, bereziki azken hamarkadan, egituren arabera gramatikalizazioaz aritu beharra azpimarratzen da. Erakusleak ere, beraz, egitura sintagmatiko edo testuinguru morfosintaktiko jakin baten barrenean gramatikalizatzen dira, eta, horren arabera, gramatikalizazioaren ondorio morfonologikoak batekoak edo bestekoak izango dira.

<sup>323</sup> Nire ustez, (a-g) puntu hauek eta *neurehan* bezalako lekukotasunek (ik. 5.2.3.7 atala) aski izan beharko lukete Rebuschik izan litzakeen zalantza uxatzeko: “[L]’auteur développe ensuite l’idée que le suffixe de locatif dériverait de l’adverbe déictique *han* ‘là’, ce qui n’a rien d’in vraisemblable, mais sans apporter de critique suffisante à l’hypothèse généralement acceptée d’un ancien support en *-ga* qu’on retrouve dans la postposition *-gan* ‘dans’” (Rebuschi 2013: 317).

Funtsean, hortik eman dakioke irtenbidea epentesiaren arazo honi: bi gramatikalizazio bilakaera bereizi daude jokoan, erakuslea zein egitura sintagmatikotan dagoen: bat singularreko kasu gramatikalei dagokiona, bestea, xehetasunak xehetasun, singularreko leku-kasuei eta absolutibo pluralari dagokiona; ikus hurrengo (c) puntuan hipotesi bat bi hauen harremanaz. Epentesia eta epentesirik eza —eta mendebaldeko *-a* + *-a* > *-ea* disimilazioaren gorabeherak— gramatikalizazio bilakaera bereizi horien adierazle dira, horien azaleko epifenomenoak baizik ez.

Hipotesi honetan, beraz, egitura sintagmatiko ezberdinen arabera gramatikalizazio bide ezberdinak daude; honela laburbil daitezke hipotesi honen aldeko argudioak:

- (a) Beste zenbait hizkuntzatan ere antzeman daitezke halako patroï morfosintaktikoak (Himmelman 1998; ik. 3.1.3 atala); leku-kasuetako D-elementuen bilakabide diakronikoa eta kasu gramatikalea ez doaz batera. Ez da absolutiboaren eta inesiboaren arteko alde soila: singularreko kasu gramatikalen eta leku-kasuen arteko aldea da.
- (b) Bestelako auzi batzuk azaltzeko, funtsezkoa da leku-kasuen gramatikalizazioaren eta kasu gramatikalenaren arteko aldea kontuan hartzea; hala, bide honetatik azal liteke, kontsonantez amaitzen diren izenetako epentesi fenomenoaz gain, *-a* berezko dutenetako disimilazioaren auzia ere:

	Kasu gramatikal artikuludunak	Leku-kasu artikuludunak
Amaieran kontsonantea duten izenetako epentesia	<i>lana/lanak/lanari/lanaren</i> (epentesirik ez)	<i>lanean</i> (epentesiduna)
Amaieran <i>-a</i> duten izenetako disimilazioa	<i>olea/oleak/oleari/olearen</i> (disimilaziodunak)	<i>olan</i> (< <i>olaan</i> ; <b>**olean</b> ) (disimilaziorik ez)

7. taula. Singularreko kasu gramatikal eta leku-kasu artikuludunen gertakari morfonologikoak, izenaren amaierako hotsaren arabera.

Amaieran *-a* duten izenetan *ola* + *han* gertatu zela proposatu beharra dago. Absolutiboaren gaineko edo bere araberrako gramatikalizazioa proposatuko bagenu inesiborako, arazoak izango genituzke: *ola* + *-a* > *olea* absolutiboren gainean eraikiz gero inesiboa, *olea*-ri *-n* gehituz, **\*\*olean** izango genuke. Ondorioa argia da: *-a* berezkoa duten izenek frogatzen dute ezberdina izan zela kasu gramatikal singular disimilaziodunen gramatikalizazioa eta inesibo singular

(eta absolutibo plural) disimilaziorik gabearena.

Azalpen osoagoa da hau, amaiera ezberdineko izenetako epifenomeno ezberdinak sakoneko arrazoi eta orokortze beraren arabera azaltzen baitira.

- (c) Orobatsu gertatzen da absolutibo pluralarekin: Himmelmannek aipatzen dituen hizkuntzetako datuen arabera (ik. 3.1.3 atala), pluraleko kasuek ez dute jokatzeko singularreko kasu-gramatikalek bezala; hots, pluraleko kasuak, bere gramatikalizazio mailari dagokionez, hurbilago egon ohi dira singularreko leku-kasuetatik. Baditugu euskaraz hori frogatzen duten datuak (cf. halaber mendebaldeko azentuari dagozkion auziak, 2.4.2.8.3 atala), berriz ere kontsonantez amaituriko zein *-a* berezkoa dutenak modu bateratuan tratatuz:

	Kasu gramatikal artikuludunak	Leku-kasu artikuludunak eta pluraleko absolutiboa
Amaieran kontsonantea duten izenetako epentesia	<i>lana/lanak/lanari/lanaren</i> (epentesirik ez)	<i>lanean/*laneak</i> <sup>324</sup> (epentesiduna)
Amaieran <i>-a</i> duten izenetako disimilazioa	<i>olea/oleak/oleari/olearen</i> (disimilaziodunak)	<i>olan/olak</i> (< <i>olaan/olaak</i> ) (disimilaziorik ez)

8. taula. Singularreko kasu gramatikal artikuludunak eta absolutibo pluralaren gertakari morfonologikoak, izenaren amaierako hotsaren arabera.

8. taulako datuek erakusten duten bezala, inesibo singularrak eta absolutibo pluralak jokabide bera dute bai kontsonantez amaituriko izenetan, eta bai mendebaldeko *-a* berezkoa duten izenetan. Pluraleko datuak ere inesibo mugatu singularraren auzian emandako irtenbidearen indargarri suertatzen dira: epifenomeno berberak ditugu bietan euskaraz, eta beste hizkuntzetako datuen arabera ere argi dago bataren zein bestearen gramatikalizazioa singularreko kasu-gramatikalenetik bereizi behar dela.

Proposamen honi kritika jakin bat egin dakioke: pluraleko deklinabide mugatuaren barrenean, besteetatik bereizi behar da absolutiboa. *Laneak* bezalako sintagmekin ez bezala, ez dirudi zantzurik dagoenik *lanek*, *lanen* edo *lanetan* sintagmek inoiz *\*laneek*, *\*laneen* edo *\*laneetan* aldaera epentesidunik izan dutenik (< *\*lan-e-hek* < *\*lan hek*, < *\*lan-e-hen* < *\*lan hen* eta < *\*lan-e-hetan* <

<sup>324</sup> *Leherreaga* eta horietan oinarriturik proposatu dudun hipotesia onartuz gero, izartxoia ere ken liteke (ik. 4.5.1 (b) atala).

\**lan-hetan* bilakaerekin, hurrenez hurren); pluraleko marken artean bereizi behar honetaz, ik. xehekiago *-ak* atzizkiari dagokion atalean (5.2.5.3).

Arazo hau, ordea, saihestu daiteke, *-ak* atzizkiak gaur duen balioari begiratu beharrean, bere jatorri morfologikoari begiratzen badiogu: argudia liteke absolutibo plurala jatorrian singularreko leku-kasua izan zela, (1) singularretan bezala *ha-* oinarria duelako, ez *he-*, eta (2) bere bigarren osagaia *-ga* leku-kasu bat dela esan daitekeelako, lokatiboa edo, *-n* inesiboaren antzera.<sup>325</sup> Hipotesi honen barrenean, *han*-en kide morfologiko bete-betetzat jo daiteke *haga*.

Modu batean (Himmelmannen lanen bidetik) edo bestean (*-ak* eta *-an* atzizkien hurbiltasun morfologikoaren bidetik), egoki justifika daiteke absolutibo pluraleko *-ak*-ek singularreko kasu gramatikalek dituztenez besteko ezaugarri morfonologikoak erakustea.

#### 5.2.3.5 Inesibo sintagmen trinkotzea

Aurreko azpiatalean emandako argibideak gorabehera, nire ustez, maila sintagmatikoan ez dago erabat garbi zergatik agertu behar den *-e-* epentetikoa izenaren eta erakusle-artikulu baten artean. Epentesiari buruz dakigunaren arabera, kontsonantez bukatutako izen baten eta kontsonantezko hasiera duen atzizki baten artean txertatu ohi da: *lan + -tik > lan-e-tik*, *lan + -ra > lan-e-ra*; paradigma honetan, *-han* erakusle inesibozkoa *-tik* eta *-ra* atzizkien pare-parekoa da, jatorriz osaera ezberdinekoa izanik ere.

Azalpen erabatekorik ez badut ere, agian Himmelmannek aipaturiko trinkotzearen bidetik jo daiteke (ik. 3.1.3.1 atala); hau da, *-han* erabiliaren erabiliaz “trinkoturiko” osagai bilakatu zela.<sup>326</sup> Bestalde, ez da erabatekoa izaten horrelako sintagmen konposizionalitatea, eta agian horrela azal daiteke inesibozko sintagma mugatuetan, jatorriz artikuludun izanik ere, artikuluekin zerikusirik ez duten balioak aski goizik garatu izana. Honen adibide nabarmena izan daiteke *hala* edo *honela* bezalako

<sup>325</sup> Baliteke bi osagai lokatibo hauek, *-ga* eta *\*-na*, hitano eta alokutiboetako berberak izatea, cf. *duan* (< *\*du-ga-n*) eta *dunan* (*du-na-n*, agian). Hirugarren kasu lokatibo bat ere bereiz liteke euskaraz, *-ta-* bera; ik. 5.5.5.3 atala.

<sup>326</sup> Agian trinkotze honen azalpenaren barruan koka daitezke kode-aldaketazko fenomenoak; cf. Mitxelenak aipatzen dituen “joan da *a París*” edo “etorri da *de Italia*” moduko sintagmak, non kode-aldaketa ez den gertatzen postposizio sintagmaren osagaien arteko mugetan (Mitx XIV 94, 4 oh.).

adberbioekin gertatu dena: mendebaldean, *alan* eta *olan* bezalako formak ditugu gaur egun, inesiboarekin, eta testu zahar zenbaitek erakusten dute ez zitzaiola *-n* bakarrik gehitu adberbioari, *-an* osoa baizik; cf. adibidez frJZum 1, 33, 42 *alaan* eta 25, 37 *edolaan*, eta Garibai B42 *Nolaango lecuca*, *Alaango cobrua*. Hauetan, argi dago *-an* D-elementuak bere jatorrizko izaera definitua galdua zuela ordurako. Galera semantiko horren beste adibide nabarmen bat *batean* izan daiteke, inesibozko artikulua indefinitua; arkaismoa da, jakina mendebaldeko *baten*. Cf. halaber Land *açertadu çerbaytean*, ezin daitekeena izan interpretazioz definitua (gaztelaniazko “açertar en algo”-ren itzulpena da).

#### 5.2.3.6 Erakusle jatorriaren aldeko datu enpiriko gehiago: hasperena

Gramatikalizazio bide ezberdinen alde emandako argudioekin batera jarri behar dira inesiboaren jatorrizko forman erakuslea eta, ondorioz, hasperena egon zitekeela iradokitzen duten datuak:

- (a) Inesibo mugatu singularraren auzi diakronikoak argitzeko erabili ditut absolutibo pluralari dagozkion datuak. Argudiobide beretik, absolutibo pluralean *-haga* aurkitu izanak inesibo singularrean ere *-han* egon zitekeelako hipotesia indartzen du: pluraleko *-ak* D-elementu gisa identifikatzeak laguntzen digu, erakusletik datorkion hasperenarekin, inesiboko *-an* ere kategoria bereko morfema dela aldarrikatzen. Gramatikalizazio bide bertsuak jarraitzeaz gain, epifenomeno berberak erakusten dituzte —epentesia eta disimilazioa, izen motaren arabera—, hain zuzen formalki ere hasperenaren ezaugarria partekatzen zutelako. Funtsean, inesiboan ere hasperena zegoela pentsatzeko erabil ditzakegu pluraleko datuak.
- (b) Hasperenaren jatorriaren harira, ezinbestekoa da gogoraraztea *Adurzaha* eta bestez esandakoa, horietarako *\*Adurzahan* → *Adurzaha* bilakaera eman baitut aukera moduan, inesiboko *-n* markaren berranalisiarekin (ik. 4.4.2.2 atala). Horrelako datuetan ere ikus liteke inesiboan ere hasperena zegoela (ez *-g-*); gogoan izan behar dira, nolnahi ere, *Udalha* eta besteri buruz esandakoak horietan artikulua balego, ez baitago epentesirik (ik. 4.4.3 atala, (c) puntuan). Hipotesi hauek, arazoak arazo, Erdi Aroko datuetan sakontzeko aukera ematen

dute.

### 5.2.3.7 Erakusle jatorriaren aldeko datu berri bat: 1554ko neurehan ‘neurean’

Aurreko ataleko datuen osagarri, nire ustez zalantza guztiak uxa ditzakeen datu bat bada, 1554ko Gorritiko agiri batekoa (Maiora 2011: 48):

(7) *senarray porchara neurehan porchara eguyten deraut*

Euskarazko hitz hauek erromantzezko testu nagusian txertatuta ageri dira; badirudi *neurehan* horretan *neure (etxe)an* dela; izan ere, testu nagusiaren arabera, bertatik atera nahi baitute, indarrez, “bortxara”, senarra (“el algoazil Taborga a su marido [...] quando le prendio en su casa”).

Datu hau berebizikoa izan daiteke, lehenago berreraikitakoaren froga dokumentatua izan daitekeelako, adibide bakarra izanik ere. Inesibo mugatuaren diakroniarako berreraikitako *izena + han* egituraren hipotesiaren alde egingo luke (7)-ko datuak, eta beste hipotesiak erabat baliogabetu. Nafarroan hasperenak izandako iraupenaz eta adibide hauetan <h> grafemak hasperena adieraz zezakeelako frogez, ikus 7.3 atala.

Nire ustez, datu hori baztergarri egiten ez badute ere, ohartu beharra dago Nafarroako Erdi Aroko zenbait agiritan badirela inesibo mugatuaren adibideak, <h>-rik gabekoak: cf. *Otra pieça Donna Maria Uidean* [...] *Dos pieças Nouare Uidean* [...] *Otra pieça Guessaluidean* (*Collrach* 1246), edo *e otra pieça en Vassavean* (*LibOliv* 1311); badira, jakina, inesibo mugagabearen adibideak ere, cf. *Larrandorenen bi sarohe* (*ColRonces* 1284),<sup>327</sup> ondoko agirian “itzulia” *en Larrandoren dos bustalizas* (*ColRonces* 1284).

### 5.2.3.8 Ohar bat kronologia erlatibo hutsen bidezko azalpenez

Mitxelenak berak (VII 533-534, 543; ik. 2.4.2.2.1 atala) eman zuen absolutibo eta inesibo singular mugatuaren arteko aldearen berri, nahiz eta *-a* berezkoa duten izenak zituen burutan: iradoki zuen absolutiboa lehenago lotu zitzaiola izenari inesiboa —eta

<sup>327</sup> Berez *Larrandoren* dakar Ostolazaren edizioak, baina José María Lacarrak, *Vasconia Medieval* lanean (1957: 44), *Larrandorenen* dakar.



abs. plurala— baino, eta alde kronologiko honek azalduko lituzke azalean bereizten dituzten fenomeno morfonologikoak ezberdinak izatea (VII 543):

En el terreno de lo histórico, la explicación que se ofrece sin esfuerzo es la que se funda en una diferencia de épocas. El plural es comparativamente reciente, como lo indican también otros indicios, y lo mismo ocurre con los casos locales, subsistema que va en muchos puntos —y en especial en cuanto a la determinación— por su camino propio dentro de la declinación. Y esto en ninguna parte es más patente que en el locativo sg., en especial en el de los temas en *-a*. También aquí la forma, con doble *a* no final, nos lleva a través de *-aa-* a *-a-*: *domekaan* > *domekan* ‘in die dominica’, frente a *domekea*, *domekeak*, *domekearen*, *domekeari*, etc., en los casos no locales del singular.

Gertakari fonetikoaren kronologia erlatiboaren arabera irizpidea darabil Mitxelenak, eta neronek ere irizpide fonetiko hertsuari segituz eman nien azalpena auzi hauei (Manterola 2006: 670-672). Mitxelenaren azalpena klasikoa da, eta badirudi Hualdek ere (2005: 301-302) bide hori hartzen duela. Interesgarria da Oñederraren jarrera, hipotesi klasiko horri jarraituta ere —“Ongi erakutsi du Mitxelenak halaber singularra plurala baino lehenago itsatsi bide zitziola elementu lexikoari” (2005: 387)—, auzia zertan datzan bete-betean definitzen baitu, ondoko aipuek dakarten bezala (2005: 393):

Ez dezala inork pentsa BBI-ren [Beheko Bokalaren Igotzea] sorrera singular markatzearekin lotzen dudala, are gutxiago hori duela kausa pentsatzen dudala. Izan ere sorrera fonologiari dagokio eta disimilazio modura sortu bide zen hizkera BBI-dunetan. Gerora, fonologiaren baldintzapetik libratutakoan eta singularrari lotua egonik bereziki, sortu zaio kategoria morfoloogikoarekiko loturaren aukera

Honek ez du zehatz azaltzen zergatik ez dagoen bokalaren igotzerik inesibo singularrean; azalpen modu hau dakar Oñederrak jarraian, De Rijken *-gan* hipotesia aipatu ondotik: “BBI-k ez zuen analogiaz-edo singularraren lekuzko azpiatalera hedatzeko beharrik izan”. Aurrerago, morfologiak baliabide fonologiko bati ateratzen dion etekinaz mintzo da, eta ohar interesgarri bat egiten du singularraren eta pluralaren arteko harreman sinkronikoaz (2005: 395):

BBI singularraren markatzaile bihurtu dela onar liteke, egiteko hori mugatzailearekiko desberdintasunean gauzatzen delarik. Ez dut esan nahi hori denik erregelaren arrazoi, baizik eta historia fonologikoak hor utzi duenez gero, hizkuntzaren morfologiak etekin hori ateratzen diola [...]. Esplikazio hau ez da, noski, ehuneko ehunetan betegarri, baina *singularra eta plurala sinkronikoki gramatikaren maila ezberdinetan* dauzkagula baino irensgarriagoa gertatzen zait. [Etzana nirea]

Oñederraren lana eredugarria da, auziaren xehetasun morfonologikoak zertan dautzan

zehatz zedarritzen baitu, baina bestelakoa da nire proposamena: aipuko azken esaldi horren bidetik, singularra eta plurala (eta leku-kasuak) maila ezberdinetan daudela proposatzen dut, ñabardura txiki batekin, ordea, Oñederra azalpen sinkronikoak arduratzen baitu eta nirea proposamen diakronikoa baita.

Nire proposamenaren oinarrian, 3.1.2 ataleko ideiak daude. Hartan gogora ekarri dut egitura sintagmatikoak direla gramatikalizatzen direnak, osorik, ez osagai morfologiko soilak; zilegi da, beraz, pentsatzea egitura sintagmatiko ezberdinak antzeko osagaiak izanik ere ezberdin gramatikaliza daitezkeela. Horrela pentsatzeak berarekin dakar modu bat baino gehiago izatea egitura sintagmatiko horien arteko ezberdintasun morfonologikoak azaltzeko: Mitxelenaren hipotesi klasikoan bezala, gertakari fonetikoaren kronologia erlatiboaren arabera azal daitezke, baina beste aukera bat da egitura sintagmatiko ezberdinen gramatikalizazio bilakaera ezberdinen arabera azaltzea alde morfonologiko horiek; hala, faktore kronologikoaren esangura apaltzen da.

Ikuspegi honen arabera, singularreko kasu gramatikaletako, inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko sintagma erakusle-artikuludunak garai bertsukoak izan daitezke,<sup>328</sup> baina absolutibo pluralekoa, adibidez, gutxiago gramatikalizatu egon daiteke, beregaintasun azentual eta morfologikoari denbora luzeagoan eutsirik, edo beste modu batean gramatikalizatu ahal izan da, bilakaera morfonologiko ezberdinekin. Himmelmannen orokortzea gogora ekarriz (1998, ik. 3.1.3 atala), zeinaren arabera singularreko sintagmak gramatikalizatuagoak egon ohi diren pluralekoak baino, esan daiteke ezin dela gramatikalizazio maila erabili egitura sintagmatiko biren arteko lehentasun kronologikorik ezartzeko, ez huts-hutsean, behintzat.<sup>329</sup>

Honenbestez, nire proposamenaren arabera, deklinabide mugatuko disimilazioarena —eta beste gertakariena— ez da kontu fonologiko hutsa, jatorrian ere ez, eta ez dut uste kasuen arteko aldeak azaltzeko soil-soilik disimilazio arauetarako proposaturiko kronologia erlatiboaren irizpideari lotu behar gatzazkionik; morfologiak

<sup>328</sup> Mitxelena (VII 532) euskalki guztiek egindako berrikuntza komun batez mintzo da, oharturik *-aga* atzizkia egungo euskal eremu osoan dagoela. Nire ustez, ez da arazorik pluraleko deklinabidea ere Euskara Batu Zaharrekotzat jotzeko.

<sup>329</sup> Beste aukera bat litzateke esatea munduko hizkuntzetan singularreko artikulua zaharragoa dela pluralekoa baino; ez dut irakurri horren berri ematen duen lanik. Céline Mounole irakasleari eskertzen diot ohar hau.

betekizun nabarmena du disimilazio eta beste gertakarien arauen garapenean. Biak, beraz, fonologia eta morfologia, elkarren osagarri dira auzi hauetan.

Atal honetako ideiak euskararen barreneko datu batzuekin osatuko ditut. Fonetikaren, morfologiaren eta testuinguru sintaktikoen elkarreraginaren adibide egokia izan daiteke zenbait hizkeratako honako fenomeno hau: *-a* D-elementuak balio erresultatiboa hartua du (cf. *joana da*, *etorria da*, etab.); zenbait hizkeratan, *aterea* eta *botea* bezalakoak dituzte egitura horietan aditzak *a-z* amaitzen baldin badira, baina deklinabidean ez dute *-a + -a > -ea* disimilazioarik.<sup>330</sup> Badirudi hizkera hauetan disimilazioa ez dela inoiz izan soilik fonologikoa, egitura hauetan bederen; hau Oñederrak beste batzuei buruz dioenaren aurka doa (ikus goiko aipuak). Egitura erresultatiboetan, badirudi disimilazioa *-a* atzizkiaren balio morfologikoari estu lotzen zaiola edo beronek eragiten duela, hain zuzen ere (ik. *FHV* 115). Arestian aipaturiko *Larraingo/Larraineko* bikotea ere adibide egokia izan daiteke (4.3.2.3 atala), izenaren izaerak erabakitzen baitu gertaera morfonologikoa eta epentesiak ez duelako motibazio fonologiko hutsa.

#### 5.2.3.9 Bestelako hipotesiak

Mitxelenak eta Castañosek lausoki aipaturiko hipotesi batean sakontzen du Martínezek (2010: 48-49; ik. 2.4.2.2.1 atala). Hipotesi honen ezaugarriak emango ditut, eta, ondoren, bere arazoak zerrendatuko. Martínezen arabera, jatorrizko *lanen* morfologikoki mugagabearen barrenean txertatuko zen *-a-*:

That is, under the model of, for example, erg. sg. *etxe-a-k* and *lurr-a-k*, the article was interpreted as a way of fixing lexical items as definite sg. and *jumped* to the realm of local cases. In this, though, it was successful only in the ines., where it relegated the archaic form to the marginal borders. But it made some *incursion*, too, into the allat. [...] [Etzana nirea]

Hori hala izanik, *-e-* epentetikoa ez da hasperenak edo Jacobsenen eta besteren herskari belarrak eraginikoa, inesiboaren forma mugagabea gertaturiko hitzaren amaierako kontsonantearen eta inesiboko *-n* atzizkiaren artean egin beharreko loturaren ondorio baizik: inesiboko epentesi honen kronologiaz esaten du gertatu zela “at a time when the

<sup>330</sup> Beste hizkera batzuetan *ateraia* eta *botaia* ditugu, absolutiboan ez dagoen *-a + -a > -aia* bilakaerarekin.

article had not been yet borrowed from the non-local cases”. Esan bezala, hipotesi honen ahulguneak zerrendatuko ditut:

- (a) Ez dago argi *-a-* artikulua bera nondik nora txertatu zen: hots, *lanen* inesibo sintagma mugagabea hain ihartua baldin bazegoen, *-a-* sartuta *-e-* epentetikoak gordetzeko, ez dago argi zergatik txertatuko zen *-a-* artikulua sintagma horren barruan, eta ez bukaeran, *\*\*lanena* ezinezko bat emateko.
- (b) Ez dago argi txertatze hori bera zein prozesu morfologikoren arabera den, ez eta zein ote diren ere beste hizkuntza batzuetan bila litezkeen paraleloak.
- (c) Ezagutzen ditugun datu historikoen aurka doa Martínezek proposatzen duen kronologia erlatiboa. Ergatibo singular mugatuko *\*\*laneak*-en ezintasuna azaltzeko hau proposatzen du: bilakaera diakronikoaren lehen fasean ergatibo singular mugatua dugu, *lanak*, baina artean inesibo singularrarena *lanen* da; bigarren fasean hartuko zuen inesiboak *-a-* artikulua, kasu-gramatikaletatik, gaurko *lanean* emateko. Arazoa da euskal testuen historian ergatibo mugagabeak askoz ere biziago daudela inesibo mugagabeak baino (ik. Mitx VII 231, 305-306); egitura jakin batzuetatik kanpo (cf. aditz-izenetako *-ten* etab.), garai historikoan gutxi dira artikulurik gabeko inesiboak,<sup>331</sup> XVI. mendean oraindik modu produktiboan erabiltzen diren ergatibo mugagabeen aldean, nahiz eta honen erabilera absolutua gainbeheran egon ordurako.<sup>332</sup> Hortaz, Martínezek proposatzen dituen fase horiek ez dute iroizgarri historikorik.

Arazo orokor horietaz gain, azaldu gabe uzten ditu hainbat xehetasun:

- (d) Ez du inesibo mugatu hurbilaren kasua aipatzen (cf. *lasterreon* etab.): bere

<sup>331</sup> Bistan dena, orokortze honetatik kanpo utzi behar dira *-ta-* osagaia duten inesibo mugagabeak (*lekutan*, *bekaturan*) eta izen bereziekikoak (*Bordelen*, *Bilbon*).

<sup>332</sup>Argi dagoenez, ergatibo mugagabeak modu zabalean erabiltzen dira gaur ere, hainbat zenbatzailerekin eta determinatzaileekin: cf. *zenbait gizonak*, *gizon gutxiak*, *bi gizonak* etab.; inesiboan, ordea, halako zenbatzaileekin *-ta-* duten formak sortu dira, hala nola *zenbait etxetan*, *etxe gutxitan*, *bi etxetan*. Orobatsu gertatzen da ablatiboko eta adlatiboko formekin: *etxetik* eta *etxera* mugagabeak dira berez, baina deklinabidearen paradigma mugatuko formekin jarri ohi dira, eta hor iraun dute, arkaismo gisa; paradigma mugagabeen, berriz, *zenbait etxetatik* eta *zenbait etxetara* ditugu. Deklinabide mugagabearen diakronia eta, beraz, *-ta-* osagaiaren gorabeherak ez dagozkio tesi honi; dena den, toki bat eman diot *-ta-* artizkiari VI.1 eranskinean (13.2.2 puntua), eta XVI. mendeko testuetako *-ta-* guztiak bildu ditut, etorkizuneko ikergai.

hipotesiaren arabera -o- “txertatu” beharko zen jatorrizko \**lasterren* batean, baina, horretarako, -o artikulua beregaintasuna eta erabilera maiztasuna frogatu beharko lirake. Berriz ere, datu historikoek ez digute ematen halako egoera baten berri.<sup>333</sup>

- (e) Ez du zehatz azaltzen amaieran -a duten izenen mendebaldeko jokabidea: bere hipotesiaren barrenean, badirudi, kasu gramatikaletan *olea*- zegoen garai batean, inesiboa jatorrizko \**olan* mugagabea izan beharko zela; horrek zer esan nahiko luke, zehazki, bigarren fasean -a- “txertatu”, eta ez zela disimilaziorik gertatu? Zergatik? Nola azaldu testu zaharretan dugun -aan? Castañosek ematen du azalpen bat (1979: 139-140, oh.), pluraleko -aak atzizkiarekiko analogiaz gertatu dela inesibo singularreko *olaan*, baina Martínezek ez du aipatzen arazo hau.
- (f) Erronkarietako datuak azal ditzake esateak ekialdeko adlatibo mugatuetan ere (zub. -*alat*, erronk. -*ara*) momentu baten buruan -a- txertatu zela, baina ez zubereraz -l- albokaria egotea: bilakaera *lan* + -*la* > \**lanela* > *lanera* izan bazen, eta azken urrats moduan -a- artikulua txertatu zela onarturik, erronk. *laneara* esplika daiteke, baina ez zub. *laneala*. Kontuan hartzekoa da, bestalde, ekialdea dela -a artikulua testuinguru sintaktiko ezberdinetara gutxien zabaldua duen euskal eremua; honela, bitxia gertatzen da artikulua erabilera murriztagoa zuketan kasu gramatikal ustez “emaileetatik” zabaltzea artikulua.
- (g) Ez dago argi nola azalduko lirakeen *barruango* bezalako leku-genitiboaren datuak hipotesi honen barrenean: jatorrizko *barrungo* bati -a- “txertatuta”? Berez sintagma horren forma mugagabea *barruko* da. Egia da zubereraz *etxenke* moduko sintagmak badirela, baina erabilera eremuari dagokionez, ez du bat egiten mendebaldeko *barruango*-rekin, eta badirudi bilakaera morfologiko ezberdinei dagozkiela datu horiek.
- (h) Martínezen hipotesiak ezingo lituzke azalpen orokorraren barrenean integratu \**laneak* (cf. *Leherreaga* etab., 4.5.1 (b) atala) bezalako datuak. Zergatik agertzen da epentesia -*ak* (< -*aga*) pluralarekin ere? Hemen ere gerora “txertaturikoa”

<sup>333</sup> Ik. 5.1.2 ataleko (d) puntuan, Erdi Aroko *Ederro*, *Ezkerro* eta beste esandakoa; ez dirudi datu horietan berma daitekeenik -o artikulua hurbilaren ustezko erabilera zabaldua.

litzateke *-a-* artikulua? Horretarako, badirudi euskaraz inoiz deskribatu edo dokumentatu gabeko *\*lan-e-ga* plural mugagabe bat onartu beharko genukeela (gogoan har numero morfologikoa artikulua menpekoa dela euskaraz).

- (i) Azkenik, arazo handia da Martínezentzat *neurehan* adibidea, hasperena duela onartuta (5.2.3.7 atala). Ezin du azaldu nolatan “sartu” den *ha* artikulua, “sartze” hori artikulua aski gramatikalizatua zegoenean gertatu baita, bere hipotesiaren arabera; hau da, hasperena galdua zukeen garai batean.

Hemen xeheki agertu dudanaren arabera, Martínezek hipotesiak arazo asko uzten ditu azaldu gabe, eta proposatzen dituen bilakaera morfologikoetarako ez du paralelorik ematen. Nire hipotesiak, Martínezek dituen arazoak azaltzeaz gain, izen mota guztiak hartzen ditu aintzat, kontsonantez amaiturikoak zein bestelakoak, eta datu berriak ere azalpen orokorraren barnean azaltzen ditu; horretaz gainera, beste hizkuntza batzuetan deskribatu izan diren patroien barrenean kokatzen du euskal deklinabide mugatuaren diakronia.

#### 5.2.4 Singularreko beste leku-kasuak: ablatibo eta adlatibo mugagabeak

Aurreko atalean (5.2.3.1 eta 5.2.3.2), aipatu ditut ablatibozko, adlatibozko eta leku-genitibozko sintagma mugatuak; ArrasErrek *barruango* bezalakoak arkaismotzat jotzen baditugu ere, ohartarazi dut jatorrizkoak *barruko* bezalako sintagma mugagabeak direla. Ablatiboetan eta adlatiboetan ere jatorrizkoak sintagma mugagabeak dira: *menditik* — kasu-markaren aldaerak gorabehera— eta *mendira*; ablatiboan, sintagma mugagabeak baizik ez daude, eta ia orokorrak dira adlatiboan, ekialdeko hizkerak alde batera utzita.

Mugagabe izanik ere, paradigma definituan egoteak nahastea ekarri izan du hauen diakronia zehazteko garaian; hona Martínezek hitzak (2009a: 79-80):

That is, they [ablatibo eta adlatiboez ari da] are sg. (not indef.), and hence definite, even if they have never had any *-a(r)*-. This is precisely the crux of the matter: why have these cases acquired the grammatical status of what in historical Basque we call abs. sg. without incorporating the *-a(r)*-, as done by the other cases?

I think that this issue must be related to the fact that at least some of these cases seem somewhat spurious. Their origins are heterogeneous, and if we study the historical development of each one, the general impression is that their rise shows dialectal variations and is relatively recent, and that several elements of different origin have combined to form new cases of the same morphological

status as the ones that were already integrated in the system.

This means that the entrance of at least some of these elements into the case system may have been probably recent. This might have something to do with the fact that they are not singularized by *-a(r)-*. But, this being so, we find the paradox that although their formation seems to be more recent, they preserve a more archaic situation. As Trask (1997: 202) points out: “This suggests that the local cases to some extent preserve the state of affairs just referred to: the addition of case-suffixes to NPs with no determiner”.

Martínezek aipatzen duen “crux of the matter” horrek azalpen diakroniko egiantzekoa du beste hizkuntzetan gertatzen denari erreparatzen badiogu: hain zuzen ere, leku-kasuetako sintagmak izan ohi dira azkenak singularrean D-elementua hartzen; Himmelmannen irudiari begiratuz gero (3.1.3 ataleko 1. irudia), ablatiboa eta adlatiboa erdi-erdian daude, artikulua hartzea zailen duten adposizioen artean. Hala izanik, inesibo (eta adlatibo) mugatua da joera diakroniko orokorraren salbuespena eta azalpen eske legokeena: ablatibo eta adlatibo mugagabeak egitura arkaikoak baizik ez dira, definitutasuna morfologikoki markatzen ez zen garai batekoak.<sup>334</sup>

Bestalde, bi gai ezberdin nahasteagatik dugu aipuaren hirugarren paragrafoko ustezko paradoxa: batetik, kasu-marken jatorriaren eta kronologiaren auzia dugu, eta, bestetik, deklinabide mugatuaren jatorriarena; 2.4 atalean egin dut bi alor horien arteko berariazko bereizketa metodologikoa. Kasu-marken formaren ibilbide diakronikoa gorabehera, Traskek bete-betean asmatzen du egitura mugagabeak kontserbatzaileak direla dioenean; ideia hau aspaldikoa da, eta ildo berean koka daiteke Schuchardtek berak esandakoa: “gibt es doch *noch heute* in der bestimmten Deklination Kasusformen die ihn [artikulua] nicht aufweisen” (1899: 177; etzana nirea).<sup>335</sup>

### 5.2.5 Absolutibo (eta ergatibo) plurala: -ak D-elementua

Hainbat hipotesi izan dira euskal deklinabidearen historiografian absolutibo pluraleko *-ak* atzizkiaren jatorriaz (ik. 2.4.2.5.1 atala): ideia nagusi bezala, nabarmendu dezakegu onomastikako *-aga* atzizkiarekin lotu izan dela; Mitxelenak berak onomastikako *-aga* eta *-eta* atzizkiek dituzten deklinabide ezaugarriak zerrendatu zituen.<sup>336</sup>

<sup>334</sup> Izatekotan, sinkronian dira arazo *etxen*, *menditik* edo *mendira* bezalako sintagmak, morfologikoki mugagabe izanik ere interpretazio aldetik definitu baitira.

<sup>335</sup> “Deklinabide mugatuan, badira *oraindik* kasu batzuk artikulurik ez dutenak”.

<sup>336</sup> Ageri denez, bestelako azalpenak baztertzin ditut: *-ak* atzizkia modu akroniko xamarrean *-a- + -k*

Datu gehigarri batzuk eman ditut, onomastikako *-aga* eta deklinabideko *-ak* lotzen dituztenak, bide batez bere erakusle jatorria are gehiago nabarmenduta:

- (a) Auzia erabakitzeko, nire ustez, aski da onomastikako *-aga* atzizkiaren *-haga* aldaera hasperenduna, kontuan izanik erakusleen ezaugarri tipikoa dela hasperena. Bi adibide hatxedun aurkitu ditut, bestalde, garai historikoko euskal testuetan:<sup>337</sup> batetik, *armahaq* agertzen da Arabako ekialdekoa izan daitekeen 1619ko testu batean. Testu horren edizioan, konbentzio grafiko soiltzat jotzen da <h>, hiatoa markatzeko erabili ohi zen baliabide grafikotzat (Ulibarri 2011: 374); hatxearen erabilera horren adibide moduan aipatzen dira Refranes y Sentencias, Viva Jesús eta Beriainen testuak. Bestetik, Kapanagaren adibidea dugu: *legueac eauren erriai, liburuac escolai, Armahac soldaduai*, dotrinako eskaintzan; esaldi bereko eta testu osoko *-ak* atzizkiaren adibideei begira, badirudi *Armahac*-eko hatxeak ez duela balio fonikorik. Deigarria da hitz berarekin gertatzea hau bi testuetan, *arma*-rekin. Ikus 7.3.2.3 eta 7.3.3 (b) atalak, *-aa-* hiatoan hatxea erabiltzeari buruzko zenbait datu eta gogoetatarako.
- (b) Horretaz gain, asimilaziorik gabeko *-aaga* aldaera dugu *-a* berezkoa duten izenekin, hain zuzen mendebaldeko testu historikoetan aurki daitezkeen antzera (cf. *olaak* etab.); euskal eremuko lurralde zabal batean (Nafarroan, erdialdean eta mendebaldean) agertu diren kontsonante ondoko *-eaga* adibide epentesidunak (*Leherreaga, Ezpeleaga, Acheaga* etab.) are gehiago hurbiltzen dute *-aga* atzizkia deklinabidera, horietan irudi baitu inesibo singularrean dagoen epentesi bera dugula.
- (c) Erdi Aroko datuen gaineko atalean erantzun diet De Rijkek bere hipotesiaren alde ematen zituen bi argudioei (4.5.2); horretaz gain, kontuan hartzekoa da De Rijken hipotesiak ezin azaldu dituela kontsonante ondoko *-eaga* epentesidunak, *-aga*

---

zatitzen duen azalpenak, adibidez, pluraleko *-k* proposatzen du, baina morfema hori ez da modu beregainean inon ageri.

<sup>337</sup> Borja Ariztimuñori eskertu behar diot Materraren 171 *çazpi hac* adibidearen berri eman izana. Nire ustez, errata da, eta *hauc*-en ordez dago idatzia. Testuaren esanahiari begira, testuinguruan ongi heldu da lehen graduako erakusle bat: *Ez ceren becatu mortalac ez tiren çazpi baino guehiago, baiña ceren çazpi hac bertce guztien erroac eta ithurburüa baitira*. Gainera, izenetik bereiz dago idatzia, eta horrek are zailagoa egiten du deklinabide mugatuko atzizkitzat hartzea.



atzikia absolutiboaren gainean osatua baita, bere ustez, eta absolutiboan epentesi hori gertatu zela esateko ez baitugu bestelako argudio beregainik.<sup>338</sup>

- (d) Inesiborako erabilitako argudio bera erabil daiteke *-ak* atzizkirako ere: *-ok* hurbilarekin txandaka daiteke, eta ez da zalantzazkoa *-ok* hau D-elementua dela (ik. 5.2.3.4 ataleko (d) puntua).

Horrenbestez, pluraleko *-ak*, Erdi Aroan *-aga*, D-elementu bat da, beste batzuk bezala izen sintagmari atxikia geratu den erakusle espezializatu bat. Bigarren kapituluan, *-ak* atzizkiari dagozkion zenbait arazo zerrendatu ditut (2.4.2.5.1); orain D-elementuen gramatikalizazioaren ikuspegi hertsia honetatik ondorioztatzen diren ideiak aletuko ditut, eta azalpen eske dauden arazo horiek nola ulertu behar diren zehaztuko.

#### 5.2.5.1 Pluraleko *-ak* atzikia eta inesibo singularreko *-an*

Aurreko ataletan, aurrera egin dut Mitxelenak jorraturiko ideian, pluraleko *-ak* atzizkiak eta inesibo singularreko *-an*-ek partekatzen dituzten ezaugarrien bidetik:<sup>339</sup> Mitxelenak *-a* berezkoa duten izenetan mendebaldeko *-aak* eta *-aan* aldaerak aipatzen ditu, bokala asimilatu gabeko aldaerak (FHV 112-113); Erdi Aroko zenbait lekuko oinarri hartuta, kontsonantez bukatuikoetan ere batera doazela edo joan zirela aldarrikatu dut, inesiboan bezala (cf. *lan-e-an*) pluralean ere *-e*- epentetikoa izan zela proposatu baitut.

Proposamen honek, dena den, azaldu behar du gaurko euskararen *-ak* atzizkiarekin epentesirik ez izatea: *lanak* dugu, ez *\*\*laneak*. Bitara interpreta litezke Erdi Aroko *Acheaga*, *Bideederreagua*, *Leherreaga* edo *Liçareaga* bezalako adibideak: *-ak* atzizkiarekin epentesia orokorra zen garai bateko aztarna izan litezke, edo, bestela, inoiz orokortu gabeko ezaugarri morfonologiko baten hondarrak. Aukera batean zein bestean, *-Cak* (*lanak*) nagusitu zaio *-Ceak* ereduari (*\*laneak*). Hau azaltzeko, irtenbide bakarra

<sup>338</sup> Egiari zor, *-ega* horiek *-ak* atzizkiaren aztarna direla esateko darabildan argudioa zeharkakoa da: inesiboarekin bat egiten du absolutiboak *-a* berezkoa duten hitzetan, eta, hortaz, kontsonante amaieradunetan ere antzeko fenomeno morfonologikoak partekatzea espero nuen; horixe bilatu dut 4.5.1 (b) atalean.

<sup>339</sup> Partekatzen dituzten ezaugarrien bidetik, galdera egin liteke *-ak* plurala ere (cf. *hango/-ango* etab.) ez ote den inesiboaren gainean osatua, baina hori *\*haga* erakuslearen diakroniari dagokion kontua da. Ikerketa bide honetan, arakatu dut ba ote zegoen Erdi Aroko corpusean *-(h)anga* atzizkiaren aztarnarik, eta agerian utzi ditut bide honen arazoak; ik. 5.5.5 (e) atala.

ikusten dut: absolutibo/ergatibo pluraleko ustezko *-Ceak* singularreko absolutibo/ergatiboen eredura berdindu zen (cf. *lana/lanak*), indar analogikoarengatik. Singularreko eta pluraleko absolutibo/ergatiboek testuinguru sintaktiko bertsuak partekatzen dituzte, inesiboaren aldean; horregatik ez zen zabalduko analogiazko indar berdintzaile hori inesibo singularrera, eta hala eutsiko zion honetan *-Cean* ereduari (cf. *lanean*).<sup>340</sup>

Inesibo singularraren eta pluraleko *-ak* atzizkiaren arteko aldea, beraz, indar analogiko bati egotzi diot, testuinguru sintaktiko jakin baten arabera indar analogiko bati: horren bidez, perpausaren muineko oinarritzko harreman gramatikalak adierazten dituzten absolutiboko eta ergatiboko atzizkiak, singular zein plural, berdindu egin dira ezaugarri morfonologikoei dagokienez.

Horretaz guztiaz gain, erakusleen berreraiketari dagokion atalean xehekiago aztertuko dudan gai bat aurreratu dut (5.2.3.4 atala): aipaturiko ezaugarri morfonologiko horietan ikus daitekeen antzekotasuna, inesiboaren eta absolutibo pluralaren artekoa, osaera morfologikozko antzekotasun batekin lotzen saiatu naiz, esanez funtsean *ha-*erakusle oinarriari leku-kasu bat gehitzen zaiola batean zein bestean, *-n* inesiboan, *-ga* pluralean.

#### 5.2.5.2 Mendebalde-erdialde zabaleko ergatibo pluraleko *-ak*

Pluraleko *-ak* atzizkiari dagokion beste auzi nagusi bat da mendebalde-erdialde zabaleko hizkeretan morfema sinkretikoa izatea, eta absolutiborako zein ergatiborako erabiltzea (bokatiborako ere bai, jakina, baina perpausaren muineko funtzio gramatikalak bakarrik landuko ditut). Sinkretismo hau azaltzeko bide klasikoa izan da aldarrikatzea jatorrian bi morfema ezberdin zirela edo, hobeki esanda, ergatiboa absolutiboaren gainean eraikia zela, eredu eranslearen arabera: abs. pl. *-ak* (< *-aga*), eta erg. pl. mendeb. *-ak* / ekial. *-ek* (< *\*-aek* < *\*-agek* < *\*-ag(a)* + *-e* + *-k*). Beste modu batean esateko, hipotesi klasikoaren arabera, bi morfemen sinkretismoa da diakronikoki

<sup>340</sup> Zenbait gazteren ahotan ines. sing. *aldapean* eta pl. *aldapeak* entzun daitezke gaur mendebaldean, *aldapa(a)n* eta *aldapa(a)k* forma historikoen aurka; aipatuak ditut Landuchioren inesiboko adibideak ere bai, cf. *vrquean yfini* “empicotar” eta (*B*) *ynolaco temporeã* (2.4.2.2.1 atala). Ohargarria da aldaketa hau (etorkizun arrakastatsua izan zein ez) beti singularreko formen eredura egitea.

azaldu behar dena, homofono izatera nola iritsi ziren, eta onartu ohi da jatorrian erg. eta abs. pluralaren artean bereizketa morfologiko garbia zegoela. Izendatuki nabarmentzen dute Lafonek (1999: 612) eta Jacobsenek (1972: 68, 70-71) ergatibo eta nominatibo pluralaren homofoniaren izaera sekundarioa. Gavelen garaitik dator gutxienez ideia (ik. 2.4.2.3.1.1 atala), eta hala onartu ohi da gaurko lanetan ere (Hualde 2008: 208). Berrikiago, hipotesi tradizionala onartzen du Aldaik ergatiborako (\*-ag-ek > -ak), eta hasiera batean zaila egiten zaio erabakitzea zer den mendebalde-erdialdeko ergatiboko -ak, berrikuntza ala arkaismoa (2014: 225-226); baina honela dakar azken hitz gisa edo: “En principio también, esas formas occidentales (ergativo plural -ak, dan, dativo plural -ai, futuro -ko) parecerían innovaciones o elecciones más que arcaísmos” (2014: 236).<sup>341</sup>

Nire hipotesiaren arabera, aldarrikatuko dut ez dagoela aztarnarik, ez morfologikorik ez azentuzkorik, esateko mendebalde-erdialde zabaleko absolutiboko -ak eta ergatiboko -ak jatorrian bi morfema ezberdin zirela:

- (a) Mendebaldeko azentubidean, azentuera berbera dute erg. pl. -ak eta absol. pl. -ak atzizkiek (2.4.2.8.3 atala).
- (b) Mendebaldeko testu zaharretan, -aak asimilaziorik gabeko forma ergatiboa zein absolutiboa izan daiteke: XVI. mendeko testuetan adibide bakarra aurkitu dut ergatiboarentzat, Lazarg A21: 11 *ayta-amaac liqueoela berebico afrontua* perpausean; cf., beranduago, Kapan 48 *Vgaçabaac criaduacaz [çelan igaro veardabe?]* eta frai Bartolomerenak; ik. 2.4.2.5.1 atala. Are gehiago, absolutiboaren barrenean, izan perpaus iragankor bateko objektu zein perpaus iragangaitz bateko subjektu, biek ala biek ager dezakete -aak forma.
- (c) Mendebaldeko gen. pl. -aen erabili ohi da eredu eranslearen (< \*-ag-en) aldeko argudio gisa. Ez dago dokumentatuta erg. eta abs. pluraleko -ak atzizkiaren \*\*-aek aldaerarik.

Ez dago oinarri empirikorik esateko mendebaldeko eta erdialde zabaleko erg. pl. morfema jatorriz ezberdina dela. Zeharkako beste hiru argudio ere eman daitezke -ak

<sup>341</sup> Tartean, esana du, berebat, antzinako ezaugarria izan daitekeela ergatibo pluraleko -ak (2014: 227). Baina ez dago argi nola ezkontzen den hau berak onartzen duen \*-agek hipotesi klasikoarekin.

atzizkiaren jatorri bakarraren ideian sakontzeko:

- (d) Inoiz orokorra izandako *-ok* (< *-oek*) artikulua plural hurbilak ere bi balioak ditu testuetan, ergatiboa eta absolutiboa: cf., Lazarragaren absolutiboko adibide ugarien artean, ergatiboko A23: 83 *limosneraoc salçaen daue* eta Andram 2 *gustioc Artudabe bereçat oraynganic betico*. Orobat ekialdean: absolutiborako, cf. Etxep 10: 38 *Bioc iagoyticoz galdu guituçü*; ergatiborako, Leiz Apost IV: 10 *Iaquiçue çuec gucioc*, Leiz Philip III: 15 *perfect garen gucióc dugun sendimendu haour* etab.

Bestalde, *-ok* duten sintagmek pluraleko *-ak* dutenen azentuera bera dute mendebaldean (Jacobsen 1972: 82-83).

- (e) Deklinabide mugatuaren jatorri den erakusle sisteman ere ez da bereizten, oro har, absolutibo eta ergatibo pluralen artean; orobat, *zuek* eta *guek* bezalako izenordainetan. Zenbait hizkerak erakusle pluraletara zabaldu dute abs./erg. bereizketa (cf. zub. abs. *hurak* / erg. *haiek*), baina, zalantzarik gabe berrikuntzak dira halakoak, eta antzinakoenak diren Etxepareren edo Leizarragaren testuetan ez dugu horrelakorik (Altuna eta Azkarate 2001: 12-20, ik. bereziki 9, 13 eta 19 oharra). Ez da kasualitatea, gainera, halakoak ekialdeko hizkeretan gertatu izana —zubereraz, bereziki—, hain zuzen deklinabide mugatuan ere abs. *-ak* / erg. *-ek* bereizketa egiten duen hizkera batean; badirudi han egon dela biziena pluraleko sistema eredu ergatiboaren arabera orekatzeko indarra (pluraleko jatorrizko sistema ez zela ergatiboa proposatuko dut, ik. 5.3.1, 5.3.2 eta 5.5.5 atalak).
- (f) Aurrekoaren bidetik, ergatibo pluraleko antonomasiatzko markatzat jotzen dugun *-ek* berak ere —bere jatorria *hek* erakuslea dela proposatu dut, ik. behean— ekialdeko izen sintagmaren deklinabidean baizik ez du ergatiboa eta bakarrik ergatiboa adierazten: euskal eremu osokoa den *zuek* izenordainean, aldiz, absolutibo zein ergatibo izan daiteke.<sup>342</sup>

<sup>342</sup> Beste sintagma batzuetan ere *-ek* atzizkia absolutibo pluraleko marka izan daiteke: cf. BerDot 113 *ceñec baytirade junto*. Baina *zein* izenordainarekin baizik ez da gertatzen hau, eta, gainera, *ceñec* forma ergatibo plurala izateaz gain (cf. BerDot 117 *Ayhec ceñec ezpaytute sinestatu Christioec sinestatcendugun fedea*), erabil daiteke ergatibo singularerako (BerDot 130v *ceñec mantenacen baytu arima*) eta

Esan daiteke mendebaldeko *-ak* ergatiboaren jatorri konplexuaren hipotesiak ez duela oinarri enpirikorik. Hizkuntza ulertzeko eredu eransle baten arabera ondorioa izan da, ikertzaileen *a priori* batek ezarritako eredu baten arabera: maila funtzionalean bi modutan analizatzen den morfema bakarrari ezberdinak diren bi jatorri bilatu zaizkio. Ekialdeko hizkeretan eta euskara batuan hala izateak, bi funtziotarako bi morfema ezberdin izateak (*-ak* eta *-ek*), uste hau indartuko zuen, jakina; eta, hala, ez da harrizkoa jatorrizkotzat hartu izana ergatibitatea izen sintagmaren erabilera sintaktikoen maila guztietan gordetzen zuen eredu hori. Eredu eransle-funtzionalista hau erlatibizatzeke, beharrezkoa da aintzat hartzea arestian eginiko oharra.

Beste modu batean jar daiteke mendebaldeko eta erdialde zabaleko *-ak* funtzioz sinkretikoaren auzia: ez da ergatiboa hizkera horietako izen sintagma pluraleko sistema, euskal eremu ia osoko erakusle pluralen paradigma bezalaxe (cf. abs./erg. pl. *hauek*, *horiek*, *haiek* etab.); ezin ahantzizko puntua da hau, are gehiago kontuan izanik erakusleetan dagoela deklinabide mugatuaren jatorria. 5.5.5 atalean, argudiatuko dut berria dela ekialdeko (eta euskara batuko) izenaren deklinabide mugatu pluralaren sistema ergatiboa, numeroaren arabera izen sintagmaren ergatibitate erdibitua proposatuta.

Honek guztiak, bestalde, ekialdeko izen sintagmetako erg. pl. *-ek* atzizkiaren estatusaz pentsatzera garamatza: zantzu guztien arabera, ergatiboaren marka honen espezializazioa *-ak* baino berriagoa da. Ideia honetan sakonduko dut ondoko azpiataletan.

#### 5.2.5.3 *-ak* atzizkiak pluraleko paradigmaren duen lekua

Aurreko azpiatalean, ondorio nagusi moduan, hauxe esan dut: berria da ekialdeko pluraleko izen sintagmaren sistema ergatiboa; hortaz, erg. pl. *-ek* ere berria da izenaren deklinabide mugatuan, *-ak* atzizkiaren aldean. Hurrengo ataletan argudio gehiago emango ditut horren alde, eta zenbait zehaztapen egingo berri izaera horren inguruan.

---

mugagaberako (cf. BerDot 164v *Auniz aprouechacen çaygu: ceren consideradeçanec bearden bezala becatu mortalean dagon vitartean dagola laungoyco gucis poderosoaren etsaytasunean, beldurcenda eta procuracendu becatu mortaletic atracera hartan dagola gastiga ezteçan*); abs. eta erg. pluralekoetan badirudi atzizkia *-ek* dela, eta, erg. singular eta mugagabeen, epentetikoa litzateke *-e-*; *-k*, berriz, kasu-marka bera.

Orain, pluraleko *-ak* atzizkia pluraleko beste atzizkietarik bereizten duten ezaugarrien zerrenda emango dut:

- (a) Zubereraz *-ak* atzizkidun sintagmen azentuera singularreko paradigmarena da (mendebaldean pluraleko azentu-ereduaren araberakoa da). Ik. azentuerari buruzko 5.3 atala.
- (b) Bokalismoa ere singularrekoa du, *-a-* baitu, besteen *-e-* bokalaren aldean (mendeb. gen. *-an* eta dat. *-ai* pluralez, ik. 5.2.7.5 eta 5.2.7.6 atalak).
- (c) Ezin da lotu erakusle sistema modernoko ezein erakuslerekin; *-ek*, *-en*, *-etan* eta bestek *hek*, *hen* edo *hetan* dituzte kide. Ik. 5.5.5 atala eztabaidarako.

Eta, Erdi Aroko datuei begira, puntu hauek zerrendatu daitezke:

- (d) Erdi Aroko agirietan *-heta* eta *-hen* zabal lekukotuak ditugu, baina *-haga* hasperendunaren adibideak aski urriak dira.
- (e) Onomastikan *-eaga* epentesiduna aurki daiteke kontsonantez amaituriko izenei lotzen zaienean; ez dirudi horren adibiderik dagoenik *-e-* duten *-hen* eta *-heta* D-elementuarekin: cf. *Larrinhetago*, ez *\*\*Larrinehetago*, eta cf. *Barhene*, ez *\*\*Barrehene*.<sup>343</sup>
- (f) Mitxelenak ohartarazi zuen *-aga* atzizkiak ez zuela, *-eta*-k *-keta* duen bezala (cf. *Amezqueta*), txistukari ondoko *\*\*kaga* aldaera belardunik (cf. *Ametzaga*, ez *\*\*Amezkaga*). Agian *-(h)aga* atzizkiak epentesia eragitearekin lot liteke datu hau, eta *\*\*kaga* aldaerarik ez izatea azal genezake horrela: epentesia eragiten bazuen, *ametz + haga > \*ametz-e-haga* (cf. *Ameçeaga*), ezin gerta zitekeen hasperenaren herskaritzea. Hartara, Mitxelenak aipaturiko ezberdintasun horren azalpena izango genuke.

Ez da erraza datu eta orokortze hauen interpretazioa, auziari nondik heldu ondorio kontrajarrietara hel baikaitezke: adibidez, Erdi Aroko agirietan hain *-haga* hasperendun gutxi aurkitu izanak —ez dago adibide ziurrik mendebaldeko agirietan, *-heta* ugarien

<sup>343</sup> Ez ditut berriro adieraziko dagoeneko laugarren kapituluan agertu diren izenen datuak (urtea eta iturria).

aldean— pentsaraz liezaguke *-haga/-ak* D-elementuaren gramatikalizazioa edo izen sintagmari lotzea aski goizik aitzinatua zela (ik. 4.8 (a) atala); baina, era berean, mendebaldean bertan ditugu erabat asimilatu gabeko *-aak* bezalakoak.<sup>344</sup> Beste horrenbeste gertatzen da ekialdeko datuei begira jarrita: han aurkitu ditugu *-haga* forma hatxedunak (Nafarroa Beherean), baina, era berean, zubereraz jokutzen du pl. *-ak* atzizkiak singularrekoekin batera, aski izenari lotua balego bezala. Ik. 5.3 atala, azentuaren gaineko eztabaidarako.

Nolanahi ere den, datu hauek elkarren ondoan jartzeak, *-ak* atzizkiak inesibozko *-an*-ekin partekatzen dituen ezaugarriekin batera (5.2.5.1 atala), are nabarmenagoa egiten du *-ak* atzizkiaren eta pluralean *-e-* dutenen arteko aldea: pentsa daiteke azken hauek beranduagoakoak direla (cf. *-aga* hasperengabearen nagusitasuna Erdi Aroan) edo, hobeki (ik. 5.2.3.8 ataleko oharra), izen sintagmari hain lotua ez egotera eraman duen gramatikalizazio bide batean daudela. Bestela esanda, pluraleko atzizkien artean badirudi bi multzo nagusitan aztertu behar dela D-elementuen gramatikalizazioa: absolutibo pluralarena batetik, beste guztiena bestetik.

#### 5.2.5.4 *-ak-ek izan ditzakeen interpretazio indefinituez*

Erakusle jatorria garbi aldarrikatzen dugun momentutik, *-ak* atzizkiak zenbait testuinguru sintaktikotan izan ditzakeen interpretazio indefinitu guztiak diakronikoki sekundarioak direla pentsatu beharra dago, ezinbestean: hots, Artiagoitiak aztergai dituen *trenak heldu dira* edo *trenak ikusi ditut* bezalako perpausetan, sinkronian *trenak* sintagmak izan ditzakeen balio indefinituak. Horrek agian oinarri diakroniko zehatza eman liezaioke Etxeberriaren hipotesi sinkronikoari, zeinaren arabera *-ak*-en berezko izaera definitua baita, eta interpretazio indefinituak tipo-aldaketen bitartez azaltzen ditu.

#### 5.2.5.5 *Zer da, azken buruan, -aga?*

Badirudi argi xamar dagoela onomastikako *-aga* atzizkia, *-haga* aldaera ustez hasperenduna lekuko, erakuslea dela jatorrian; horrekin lotu behar da *-ak* pluralekoa.

<sup>344</sup> Burgos-Errioxan, gainera, bada *-aga* lekuko zaharretan, baina ez *-eta*, itxuraz. Lurralde haietarako lehen migrazioak gertatu zirenean, artean *-aga* baizik ez ote zen gramatikalizatua egongo? Beranduagoko populazio mugimenduek eraman ote zuten *-eta* ere bazuen gramatika modernoago bat? Ikus 4.10 atala.

Forma hasperendunak berak galarazten du, bestalde, *-a* (artik.) + *-ga* analizatzea: osorik behar zuen erakusle. Honela zerrendatu daitezke *-ak* atzizkiaz ateratako ondorio nagusiak:

- (a) Pluraleko *-ak* atzizkia D-elementua da, eta erakusle jatorria du; badirudi *\*haga* proposatu behar dela azken buruko jatorri gisa.
- (b) Erakusle jatorria izanik ere, *-ak* duten sintagmak interpretazio indefinituak izatera iritsi dira.
- (c) Mendebalde-erdialde zabalean, bi funtzio betetzen ditu *-ak*-ek: kasu absolutiboa zein ergatiboa.
- (d) Pluraleko *-ak* eta inesibo singularreko *-an* atzizkiak hainbat ezaugarri morfonologiko partekatzen dituzte.
- (e) Pluraleko *-ak* pluraleko beste atzizkietatik (*-ek*, *-en*, *-eta* etab.) bereizi behar da, zenbait ezaugarri morfonologikorengatik.

D-elementu gisa *\*haga* berreraikita, alabaina, arazo bat dago: ez dirudi abs. edo erg. pluraleko erakusle ezagunen artean bere ondorengo zuzena litzatekeen *hak* aurki daitekeenik (cf. *aek*, *haiek*, *hek*). 5.2.3.4 atalean, ines. sg. *han* eta *\*haga* D-elementuen arteko antzekotasunak nabarmendu ditut; bide horretatik, singularrekoekin izan lezakeen harremana aitortuta, egin liteke abs./erg. pl. *-ak* atzizkia erg. sg. *-ak* homofonoarekin lotzeko saioa. Homofonia honen atzean homomorfia erabatekoa ikustea da nire proposamena; erg. sg. *hak* aldaeran ikus genezake, hortaz, erakusle paradigmaren falta uste den *\*haga* D-elementuaren ondorengoa.

Nire proposamen hertsiki morfologikoan, forma bera duten *-ak* hauek azaleko homofoniaz gain jatorri bera dute; *emakumeak lan egin du* eta *emakumeak lanetik etorri dira* perpausetan funtzioari dagokionez duten aldea D-elementu beraren bi gramatikalizazio bideren emaitza gisa ikusiko dut.

Arazoak arazo, badirudi auzia deklinabide soiletik atera eta erakusleen berreraiketarekin ere lotu behar dela, zehazkiago, *-ga* osagaiaz esan dezakegunarekin, ikusiko den bezala; nire ustez, hori egite hutsa aurrerapauso bat da. Ik. 5.5.5 atala xehetasun gehiagorako.



### 5.2.6 Pluraleko leku-kasuak: -eta-dun D-elementuak

Hipotesi zenbait izan dira euskal deklinabidearen historiografian pluraleko leku-kasuetako *-eta-* artizkiaren jatorriaz (ik. 2.4.2.6 atala): han agertu bezala, badirudi Schuchardten jatorri latindarraren hipotesia gailendu dela, zeinaren arabera latinezko *-eta* atzizki multzokaria (*-etum-*en plurala) euskal leku-izenetan mailegatu zen lehenik, eta hortik deklinabidera zabaldu. Hipotesi horren arrakasta gorabehera, emankorragoa iruditzen zait Mitxelenak jorraturiko bideari jarraitzea: onomastikako *-aga* eta *-eta* atzizkiek (cf. *Pagoaga*, *Pagoeta*, *Galarraga*, *Galarreta* etab.) dituzten deklinabide ezaugarriak zerrendatu zituen berak.

Deklinabidearen eta onomastikako atzizki horien arteko harremanean sakonduz, eztabaidarako esanguratsuak izan daitezkeen hainbat datu bildu ditut aurreko atal batean: bereziki aipagarria da *-eta* atzizkiak duen *-heta* aldaera hasperendun arkaikoa (cf. *Azazaheta*, *Erroheta*, *Sagassaheta*, *Sansoheta* etab.; ik. 4.6 atala). Honek argi frogatzen du *-eta* atzizkiaren erakusle jatorria, eta Schuchardten hipotesia baztertzeko bidea ematen du. Eman ditzadan, gehigarri, Schuchardten hipotesiak ongi azaltzen ez dituen puntu batzuen zerrenda:

- (a) Aurreko lan batean (Manterola 2009: 98), Weinreichek zioenaren bidetik,<sup>345</sup> ohartarazi nuen ez dirudiela horrelako osagai morfologikoak mailegatu ohi direnik; berrikiago, Gardaniren hitzek biltzen dute irudipen hori: “morphemes that realize inflection are believed to be among the most change-proof elements in any language and highly resistant to borrowing” (2012: 72).<sup>346</sup> Ikuspegi hau eguneratu

<sup>345</sup> “The transfer of morphemes which are as strongly bound as inflectional endings in many European languages seems to be extremely rare. The study of the phenomenon is unfortunately encumbered by the often unsatisfactory description of its few known instances” (Weinreich 1953: 31). Eta hau dio orrialde bereko 6. oharrean: “Many alleged instances of bound-morpheme borrowing are not described in sufficient detail [...] his view [Schuchardtez ari da] on the Latin origin of Basque plural *-eta* (*ibid.*) is doubted by Lafon (292, 507)”.

<sup>346</sup> Gardanik Thomasonen eskala ematen du erreferentzia moduan, eta, egiari zor, bertan ez da ageri irudipen hau hain modu kategorikoan, lau aroko eskala batean —ukipen maila txikienetik handienera antolatua— hirugarrenean baitakar ezaugarri hau Thomasonek: “In morphology, borrowed inflectional affixes and categories may be added to native words, especially if they fit well with previously existing patterns” (2001: 70-71). Lehenago esana du Thomasonek berak “A popular view rules out the adoption of an entire inflectional paradigm, or indeed any morphological interference except for superficial features” (2001: 65).

daiteke, pluraleko morfologiari berariaz begiratuta; Gardaniren (2012) lanaren arabera, badirudi izenaren pluraleko morfemak beste kategoria batzuetakoak baino errazago mailegatzen direla.<sup>347</sup> Matrasetik ere hala dakar: “Borrowing of bound markers favours in particular plural markers” (2007: 44). Begiratu batean, orokortze honek Schuchardten hipotesiaren aldekoa dirudi, baina ohar garrantzizko bat egin behar da: Gardanik, abiapuntu metodologiko gisa, zenbait murriztapenen arabera definitzen du *flexio mailegaketa* (“inflectional borrowing” jatorrizkoan), honako hau, besteak beste (2012: 74):

A further criterion that can be applied to characterize inflectional borrowing is the maintenance of function, that is, the morphemes, once borrowed, must maintain the meaning (and function) which they had in the source language.

Murriztapen honek Gardaniren aztergaitik kanpo uzten ditu *-eta*-ren mailegaketaren ustezko kasua bezalakoak, ez delako latin-erromantzezko plural marka baten zuzeneko mailegaketa eta, ondorioz, ezin da ezarri bere orokortzearen pean. Honenbestez, hizkuntza ukipenaren barreneko orokortze honi dagokionez, bederen, Schuchardten proposamenak ez du berariazko sostengu teorikorik aurkitzen.

- (b) Mailegaturiko morfema baldin bazen, ez dira argi azaltzen bere erabileraren zabaltzearena, kategoria aldaketarena eta bestelako xehetasunak (baina ik. Castaños 1979: 52).
- (c) Nire ustez, ez da behar bezala azaltzen zergatik erabili behar izan zen funtzio horretan atzizki multzokari baten plurala, eta ez multzokaria singularrean berean, *\*\*eto* moduko zerbait (lat. *-etum*);<sup>348</sup> toponimia latin-erromantzean *Pineda* eta *Fresneda* (*Frasceneta* da *Reja*-n) bezalakoan ondoan baditugu *Valle de Spineto* eta *Valle Enzinetto* (*S Millán* 927 eta 1062) bezalakoak, baina euskaraz ez dugu agian espero izatekoa zatekeen *\*\*eto* horren aztarnarik.

<sup>347</sup> Orokortze honen esplikazio gisa, Gardanik argudiatzen du plural markak *berezko flexio* moduan sailkatu ohi direla — “inherent inflection” jatorrizkoan—, eta flexio mota hau eratorpenetik hurbil dagoela (ezaguna da eratorpen atzizkiak errazago mailegatzen direla). Xehetasun honi helduta baizik ezingo litzateke egin Schuchardten lat. *-eta* hipotesiaren alde.

<sup>348</sup> Agian (a) puntuko orokortzearen arabera ulertu ahal izango litzateke *-eta*-ren aldeko hautua, Schuchardten hipotesiarekin zein Gardaniren orokortzearen xehetasunekin eskuzabal izanik.

- (d) Euskal eremuko *-eta* atzizkidun leku-izenek euskal hitz bat dute eskuarki lehen osagai moduan. *Reja-n*, adibidez, *Frasceneta* (egun *Fresneda*) baizik ez dugu osagai erromantze argiarekin.<sup>349</sup> Maiztasunak txikiegia dirudi, euskal leku-izenen sorreran eredu izan dadin.
- (e) Azkenik, honela dio Castañosek: “[C]omo dice Lafon [...] “le thème nu n’est employé que comme toponyme et n’a pas été intégré lui même à la déclinaison”, esto es, agregaríamos nosotros, que formas en *-eta* no aparecen como nominativo plural de los apelativos” (1979: 68). Ezaugarri hau ere ez da argi azaltzen Schuchardten hipotesiaren barrenean: zergatik ez da *-eta* absolutibo gisa ageri?

Arazo horiek (a-e) eta *-heta* aldaera argigarria ikusita, nire hipotesi alternatiboan, *-eta*-ere D-elementua dela aldarrikatuko dut, beste zenbait autorek ere egin duen bezala (cf. bereziki Duvoisin; 2.4.2.7 atala). Erakusle deklinatuak, bere osoan, lotu zitzaizkion izenari. Horrela, ondoko galderak erantzun berehalakoa jaso dezakete:

- (f) Zergatik dute interpretazio definitua *-eta*- duten sintagmek?
- (g) Nola azaldu txistukari ondoko *-keta* aldaera (cf. *Andozketa* etab.)?
- (h) Zergatik dute zubereraz ablatibo, adlatibo eta bestek [-3] azentuera arauz kanpokoa (cf. *mendiétara*, *mendiétako*)?
- (i) Amaieran *-a* duten hitzei *-eta* atzizkia gehitzen zaienean, zergatik ebazten da beti eta euskal eremu osoan *-ae-* > *-e-*, eta ez *-ae-* > *-ai-*, adibidez?

Agerikoa da lehen (f) galderari eman dakioken erantzuna: D-elementu denez, bere ezaugarrietako bat da definitutasuna. Nire hipotesia ongi ezkontzen da egiten diren deskripzio sinkronikoekin: “Gauzak horrela, *-eta* definitutasuna eta numeroa markatzen dituen morfema bat dela ondoriozta genezake” (Etxeberria 2011). Txistukari ondoko *-keta* aldaerari dagokionez (g), bestalde, gogoan hartzekoa da banaketa osagarri bera dugula herskaridun eta herskarigabeen artean D-elementutzat joko dudana beste atzizki batean ere (ik. 5.2.7 atala; cf. superlatiboazko, hots, genitibo pluraleko *goihen*, baina

<sup>349</sup> Jakina, alde batera utzirik *Mariaeta* eta *Sansoheta*, zeinak erromantzez ere azaltzeko zail xamarrak liratekeen.

*azken*); batetik, bi D-elementu ditugu herskaridun aldaerekin, biak ala biak D-elementu direlako hipotesia indartuz, eta bestetik, *-keta* herskariduna hobeki azaltzen da jatorrian kontsonante bat baldin badugu, hau da, txandan dauden aldaerak *-heta* eta *-keta* baldin badira, eta ez *-eta* eta *-keta*.<sup>350</sup> Hirugarren galderaz denaz bezainbatean (h), modu sinplean azal daiteke [-3] azentuera, erakuslearen azentua gorde zuela onartzen badugu: *mendi hétara* > *mendiétara*; ik. 5.2.7.3 atala azentueraz. Azkenik (i), azentuak berak azaltzen du *-a* berezkoa duten hitzetako *-ae-* > *-e-* bilakaera (cf. *alaba/alaben*, *aldapa/aldapetan* etab.): beste kasu batzuetan (cf. *\*gaztane/gaztana* > *gaztae* > *gaztai* eta *apaez* > *apaiz/apez*, besteak beste), *-ai-* emaitza ere badugu hizkeraren arabera, baina deklinabidean *-e-* orokorra da halakoetan; nire ustez, atzizkiaren azentua *-éta-* izateak *-e-* bokalaren tinbrea gordetzen lagundu zuen. Honek pentsaraz diezaguke inoiz euskal eremu osokoa izan zela zubereraz pluralean gaur aurki daitekeen azentuera, edo antzekoren bat, behintzat; azalpen honek balio du behean aztertuko ditudan *-ek*, *-en* eta bestetarako ere (ik. 5.3 atala, azentueraz ematen den ikuspegi bateraturako).<sup>351</sup> Ohar bedi, osagarri moduan, aski luzaz irauin dutela *-a* amaierako hitzetan asimilatu gabeko formek, atzizkiaren izaera azentual beragainarengatik, nire hipotesian: Land *faldaetaco chacurc[h]oa* “perrito de falda”, Lazarg AL: 1139r *gauçæetan* edo, aditz-izen bilakaturik, AL: 1140r *suplicaetan*, eta, ekialderago eta are beranduago, LizSand 93 *limosnaetán*, 100 *letraetán*, 101 *Elizaetan* etab.

#### 5.2.6.1 Proposamenaren xehetasunak: deklinabidetik leku-izenetarako berranalisia

Proposatzen dudana hipotesiaren arabera, *-eta* atzizkia ez da zabaldu leku-izenetatik deklinabidera, alderantziz baizik. Norabide hau Azkuek berak iradoki zuen (1927: 71, 1928: 212), atzizkiaren eta erakuslearen arteko loturarik egiten ez badu ere. Zabaltze hau euskaraz ezaguna den berranalisi prozesu baten arabera azaltzen dut nik, honela: lehenik, *erro hetan* ‘erro haietan’ sintagma dugu; ondoren, leku-izen bihurturik,

<sup>350</sup> Erakusleen lehen kontsonantearen berreraiketan honek izan ditzakeen ondorioez, ik. 5.5.1 atala.

<sup>351</sup> Berdin azal daitezke ahozko hizkeran *Ozéta* eta *Záita* formatan jasoriko Arabako izenak (ik. Knörr 2000: 610, 613; *Ozaéta* eta *Azázeta* dira laburtzerik gabeko gaurko ahoskerak): lehenean, azentua *-e-* bokalaren gainean gorde denez, asimilazioa bokal horren alde gertatu da (ez dago *\*Ozaita* formatik); bigarrean, aldiz, azentua ez zegoen atzizkiaren gainean, eta *Záita* formatarainoko bilakaera izan du, *-ae-* > *-ai-* bilakaerarekin.

*Errohetan* sintagma inesiboa, eta, azkenik, *-n* inesibo markaren aurretik dagoen guztia, *-eta* atzizkia barne, leku-izenaren partetzat berranalizaturik, *Bagoheta-n*.

Berranalisi hau ezaguna da leku-izenetan (4.4.2.2), eta gertatu da halakorik deklinabideko beste D-elementu batzuekin ere:

- (a) Inesibo singularreko *gibelean* (*gibela* absolutiboan), adibidez, *gibelea* berranalizatu da zenbait leku-izenetan, *-n* inesibo markaren aurretik dagoen guztia izen gisa harturik: cf. *More Bilibilea*, *Erret Ihera Guiuelea* etab.
- (b) Gauza berbera gertatu da etxe-izenetako *-enea* atzizkiarekin; *Errandorenean* ‘Errandoren etxean’ bezalako sintagmetan bilatu behar da horren jatorria, *pertsona izen + genitibo* [+ *etxe* eliditua] + *inesibo singular* mugatu egitura dutenetan. Hauetan ere etxe-izen gisa geratu zen *-n* aurretik zegoen guztia, eta ustezko *-enea* atzizkia agertu zen horrela (Mitx IX 85).
- (c) Orobat gertatzen da *Parise*, *Azkaine* eta beste hainbatetan: kasu honetan, sintagma mugagabeak ditugu, artikulurik gabeak, baina hauetan ere, izenaren parte moduan hartu dira *-n* inesibo (edo adlatibo, etab.) markaren aurretik dagoen guztia, berez deklinabidearena —eta ez izenarena— den *-e-* epentetikoa izena balitz bezala hartuta.
- (d) Hain arrunta ez bada ere, inesibo singularreko *hartan* duten sintagmak ere berranalizatu izan dira: Lafittek *Behereharta* izena aztertzen du, eta *Behere hartan* sintagmatik berranalizatu dela dio. Are gehiago dio: “Mais ce phénomène morphologique n’est pas un isolé dans le vocabulaire basque. On sent une tendance de la langue à partir du locatif d’un vieux mot pour la formation de nouveaux noms propres” (1935: 259). Jarraian, leku-izenetako *-enea* eta *-eta* atzizkien gorabeherak aztertzen ditu; besteak beste, atal honetan egin bezala.<sup>352</sup>

Gauzak honela, gogoratzekoa da leku-izenak leku-kasuetan erabiltzen direla maizenik;

<sup>352</sup> Baliteke erakusle honen berranalisiaren adibide zaharragorik izatea: cf. *Andraurianarta* (*ArchMond* IV 1476), *Andra Auriaren hartan* jatorrian, beharbada; baina ez dirudi nire Erdi Aroko corpusean *Auria* oso ugaria denik XV. mendean, eta honek leku-izenaren interpretazio honen aurka egin lezake. Cf. halaber Otazuko *Ganarta* (*TopAlav*), *gan hartan* sintagmatik eratorria bada. Hala ere, eztabaida zaildu lezakete *Domingo Narta* (*PobNav* 1330) izenak eta gaurko *Gallarta* izenaren jatorrian *Galarreta* dagoela ohartzeak.

eta gogoratzekoa da, halaber, Mańczaken joera ezaguna (apud Hock 1991: 233):<sup>353</sup>

If a paradigmatic form of a geographic noun undergoes an analogical change under the influence of another form of the same paradigm, the starting point of that change more often lies in the local cases than in the non-local ones.

Horregatik aurki daitezke euskaraz sintagma horietarik abiatutako hainbat berranalisisiren adibideak. Berdin sortuko zen leku-izenetako *-eta* atzizkia, leku-kasuetako pluraleko D-elementua jatorrian.

#### 5.2.6.2 Ohar etimologiko bat: keta ‘bila’

Aipatu dut txistukari ondoko *-keta* aldaera ezaguna; gaur egun aditz-izenen osagai gisa ere ageri da, eta beste balio batzuk ere baditu, Urgellek egoki laburbildu bezala (ik. Urgell 2006: 926; aditz-izenetakoaren gorabeheretarako, 934-936).

Hay consenso, creo, en considerar que se trata en su origen del mismo *-eta* de la declinación, que se ha especializado, sobre todo en inesivo, de muchas maneras a lo largo de Euskal Herria: cf. por ejemplo el conocido *egurketa* (GN, Bazt, L, BN, S), *egurreta* (V, G-azp) ‘busca de leña; trabajo, operación de hacer y transportar leña’ (sust. declinable, sobre todo en inesivo); *egurketa* (Bazt) ‘montón de leña’ y *egurketa* (no declinable) ‘en busca de leña’ (ap. DGV, s.v. *egurketa*).

Balio ezberdinak izanagatik ere, morfema bakar gisa sailkatu ohi da *-keta*, Uhlenbecken (1909: 200-201) garaitik gutxienez (ik. orain Martínez 2009a: 81, erabat esplizitua ez bada ere): *-keta* ‘bila’ ere (cf. *egurketa* ‘egur bila’, *urketa* ‘ur bila’ etab.) deklinabide-toponimiako *-eta/-keta* atzizkiekin batera sailkatzen du Uhlenbeckek. Nire ustez, hautu honen aurkako zenbait arrazoi bil daitezke, *-keta* ‘bila’ jatorri ezberdinekoa izan daitekeela argudiatzeko:

- (a) *-keta* ‘bila’-k ez du, estu hartuta, *-eta* aldaerarik, eta, beraz, ez dago banaketa osagarrian beste ezein formarekin (ezaguna da toponimiako *-keta* txistukari ondotik ageri dela herskariarekin).
- (b) Mendebalde-erdialdeetako *-eta/-keta* beti deklinatua agertzen da, eta badirudi horrek ematen diola ‘bila’ adieraren ñabardura. Hori hala dela ziurtatzeko, Azkuek (*Morf* §155) “acepción de rebusca” adierapean sailkaturiko *andraketa*, *arrainketa*, *bihozketa*, *egurketa*, *larruketa*, *lurketa*, *mandoketa*, *mahasketa*,

<sup>353</sup> José Ignacio Hualde irakasleari eskertu behar diot aipu hau gogora ekarri izana.

*ongarriketa, ogiketa, sagarketa, teilaketa, urketa, zorriketa, zozketa* hitzak kontsultatu ditut *OEH*-n; hauen guztien artean, ‘bila’ adiera izan lezaketan mendebalde-erdialdeetako adibideetan, ez dago *OEH*-n deklinatu gabeko adibide bakar bat ere.

Esanguratsua da *andraketa*-ren kasua, Gipuzkoa eta Bizkaikoa bakarrik izanik, honelaxe baitio *OEH*-k: “Se trata, sin duda, de la construcción de *-keta* con sufijos locales de declinación y no propiamente de un sust. pleno”; *OEH*-k berak dakartzan adibide urrietan (Larramendirenak dira) beti dago deklinatua. Antzeko adibidea da *zorriketa*-rena, hau ere bakarrik Gipuzkoa eta Bizkaian dokumentatua; bere adibideetan (cf. *oilluak zorriketan dabitz* edo *oiloak zorriketan badiardue, euria*) beti deklinatua ageri da *-keta*. Azkenik, *egurketa*-ren kasua aipa daiteke: *egurretan, egurketan, egurretara, egurretako*, etab. Gipuzkoa eta Bizkaiko adibideak dira, oro har; deklinatu gabeko *-keta* ‘bila’ beti eremu horretatik kanpokoak. Azkueren zerrendatik kanpo, orobatsu gertatzen da *gatzketa* eta *gatzetara* bikotearekin.

- (c) Ez dira deklinatzen ekialderagoko adibideak (*urketa joan, onddoketa ibili* etab.), cf. Urgellen aipuko “no declinable” zehaztapena. Hauetan, garbia da *keta* osagaiaren ‘bila’ esanahia.
- (d) Esanguratsua da *-keta* ‘bila’-ren erabilera eremua: *OEH*-ren arabera —s.v. *keta*, adberbio edo postposizio erabilerari dagokion azpisarreran, bereziki—, iparraldekoa eta Bortzerri eta Baztan inguruetakoa da.
- (e) Are esanguratsua dirudi, *OEH*-ren sarrera beraren pean, Duvoisinin *keta goatea* “aller chercher” adibideak: honetan, hitz beregain gisa ageri da *keta*.

Argudio hauek bilduta, ez dirudi zentzugabea denik pentsatzea *-keta* ‘bila’ gaskoieratik edo bearnesetik harturiko mailegua dela: cf. erromantze hauetako *queta* ‘bilatu’ forma, edo *quète, quète* “action de chercher” izena;<sup>354</sup> nire iritziz, bereziki ongi lotzen da ekintzari dagokion azken adiera hau Duvoisinin adibidearekin.

<sup>354</sup> Palayren (s.v. *quetà*) eta RayLespen (s.v. *questa*) arabera, forma frantsestak dira txistukaririk gabeko aldaerak.

Pentsatzekoa da *keta* ‘bila’-k bestelako euskal sintagmekin duen antzekotasun itxurazkoak eta hurbiltasun semantikoak deklinabideko formekin nahastea erraztuko zuela, bai ikertzaileen artean, baina baita hiztunaren oharmenean ere: cf. *egurretara joan* bezalakoak, non *egur* hitza deklinatua dugun, besterik gabe. Nahaste honen adibide adierazgarria da *OEH*-k s.v. *egurketa* eta s.v. *keta* dakartzanak: lehenean *egurreta/egurketa* (jarduerazkoa) formekin batean biltzen dira ekialdeko *egurketa* bezalako *-keta* ‘bila’-dunak, eta bigarrena, aldiz, ekialdekotzat baizik ez da jotzen, aldaerarik gabe, gainera.

Funtsean, beraz, badirudi bi *-keta* bereiz daitezkeela jatorriari dagokionez: bata, *-eta* formarekin batera sailkatu behar dena, euskararen barreneko datuen bitartez azal daiteke, eta deklinabideko formekin lotu; bestea, jatorri arrotzekoa eta ‘bila’ esanahia duena, errom. *queta* ‘bilatu’ aditzarekin lotu behar da.

#### 5.2.7 Genitibo plurala eta ekialdeko ergatibo plurala: *-en eta -ek D-elementuak*

Aurreko ataletan erakutsi dut pluraleko *-ak* eta *-eta* D-elementuak direla. Agerian utzi dut, hala berean, pluraleko deklinabidean *-e-* duten ergatiboa, genitiboa eta leku-kasuak beste gertaera morfonologiko batzuen menpe daudela, *-aga/-ak* atzizkiarekin konparatuta (5.2.3.4 eta 5.2.5.3 (f) atalak). Atal honetan, aldarrikatuko dut D-elementuak direla genitibo plurala *-en* eta ekialdeko ergatibo plurala *-ek* atzizkiak ere, eta bazter batera utzi behar direla eredu eranslearen arabera *-aga* osagaiaren gainean oinarrituriko bilakaera diakronikoak.

Bi auzi nagusi aztertu izan dira kasu hauen bilakaera diakronikoaz egindako berreraiketa proposamenetan: lehenak ekialdeko hizkeretako azentuarekin du zerikusia, izan ere [-1] azentu oxitonoa baitute, eta ez dute bat egiten [-2] azentu paroxitonoaren arau orokorrarekin; bigarrenak mendebaldean aurki daitezkeen bokal ezberdineko aldaerekin du zerikusia, *-ak* eta *-an* aldaerak baititugu. Eredu eransle baten arabera esplikatuta izan dira bi auzi hauek: erg. *\*-ag-e-k > \*aek > -ak/-ek* eta gen. *\*-ag-en > -aen > -en* (cf. halaber dat. *\*ag-i*); xehetasunetarako, ikus 2.4.2.5 atala.

Are gehiago, argudia liteke hipotesi klasiko honek proposatzen duen *\*-agen* dokumentatua dagoela: Hondarribiko 1778ko testu batean (*ETZ* 31) bitan aurki daiteke



*Belzebu Demoniuguen Principia*, gaur herri horretako hizkeran *demoniuaken* esango litzatekeen tokian. Hala ere, datu hori horrela interpretatzeak hiru arazo nagusi ditu: (1) beste genitibo pluraletan *-aken* dago, cf. *personaquensat* ‘pertsontzat’; (2) testu horretan, badirudi inoiz <gu> erabiltzen dela /k/ adierazteko, cf. soziatibozko *Jaincoicuaren virtutiareguin* eta *Belzeburenareguin*, <qu> duen *virtutiarequiñ* batean; (3) datibo pluraleko formak beti dira *-aqui*, inoiz ez *-agui*, cf. *Isrraelitaqui*, *sacerdotiaqui* etab. Horrenbestez, pentsatu behar da *Demoniuaguen*-en adibideak irudipen faltsu bat direla.

Hondarribiko adibide ustel hauen ondotik, Lafonek eta Mitxelenak bere egindako proposamen klasiko honen zenbait arazo zerrendatuko ditut:

- (a) Ez dago argi zein den genitiboaren eredu eranslea: zer da *-en*? Genitiboa da hori? Ez al da *-e-* bokala epentetikoa, ergatiboan bezala? Hala bada, zer da *-n*? Lafonek ere ikusi zuen arazo hau, 2.4.2.5.3 atalean esan dudana bezala, baina genitiboko marka *-en* izatea beste irtenbiderik ez du ikusten.
- (b) Zergatik ez dugu Irun-Hondarribian *\*\*mendiak* bezalako formarik, genitiboan *mendiaken* baldin badugu?
- (c) Zergatik ditugu mendebaldean kasuaren arabera emaitza ezberdinak —erg. *-ak*, gen. *-en*, Mitxelenak ohartarazi bezala—, funtsean jatorri berbera badute eta bilakaera fonetiko berberen emaitza izan behar badira? Hots, erg. *\*lagunagek*-en emaitzak mendeb. *lagunak* / ekial. *lagunek* izan badira, zergatik ez dugu hein bereko banaketa gen. *\*lagunagen*-ekin (cf. mendeb. eta ekial. *lagunen*; mendeb. *lagunan* aldaeraz, ik. 5.2.7.5 atala).
- (d) Zergatik dugu Erdi Aroko *-hen* superlatiboetan hasperena?
- (e) Zergatik dugu *-ken* aldaera *azken* superlatiboan?

Arazo hauek guztiek konponbide bateratua izan lezakete, *-ek* eta *-en* gramatikalizaturiko erakusleak, hots, D-elementuak direla proposatuz gero. Erakusle deklinatuak, bere osoan, lotu zitzaizkion izenari:

- (8) a. *mendi hek* > *mendihek* > *mendiek*  
b. *mendi hen* > *mendihen* > *mendien*

Bi datu mota eman daitezke hipotesi honen alde, hurrengo azpiataletan azalduko dudan bezala.

#### 5.2.7.1 Erdi Aroko superlatiboak: -hen

Aurreko atal batean esan bezala (2.4.2.5.4), genitibo pluralaren berezitze moduan aztertu ohi da euskarazko *-en* superlatiboa: bi morfema hauek erabat berdinak dira; mendebaldeko testu zaharretako *-aen* aldaera bera bi funtzioetan agertzeak, genitibo pluralean zein superlatiboan, bien arteko identitatea bermatu baizik ez du egiten, cf. Kapan *ilaen arterean*, eta Lazarg *ederraena* (ik. halaber 5.2.7.5 atala).

Erdi Aroan, bere osagaien artean superlatiboa duten hainbat leku-izen eta deitura aurki daitezke: ik. 4.7 atalean, *goihen*, *barhen*, *behen* etab. Lekuko hauetan, datu interesgarria da <h> bat izatea superlatibozko atzizkiaren hasieran, nire ustez hasperenaren adierazpen gisa analizatu beharrekoa;<sup>355</sup> cf. halaber *-eta* atzizkiaren *-heta* aldaera hasperenduna, arestian aztertua. Honek guztiak ahalbidetzen du egun bizirik dirauen genitibo pluraleko *hen* erakusle urrunarekin berdintzea. Erdi Aroko datuak are gehiago zukutu litezke, *Reja*-ko *Goiahen* bera *-aen* aldaeraren aitzindari moduan hartuz; ikus erakusleen berreraiketari dagokion atala (ik. 5.2.7.5 (e) eta 5.5.3 (b) atalak).

Aipagarria da, bestalde, *azken* hitza: superlatibo gisa ikusi ohi da (ik. 2.4.2.5.4 atala), baina, lehen osagaia *atz(e)* dela argi xamar badago ere, superlatiboaren hastapeneko *-k-* belarrak ez du izan azalpen egiantzekorik. Nire ustez, erraz azal daiteke belarra D-elementutzat jo dudan beste osagai batekin konparatuta: leku-kasuetako *-eta-* osagaiak, *-heta* Erdi Aroko leku-izenetan, *-keta* belardun aldaera bat du banaketa osagarrian (cf. *Amezqueta*), txistukari ondotik beti; hain zuzen ere, banaketa osagarri berean du *-hen* superlatibozkoak *-ken* aldaera, txistukari ondotik.<sup>356</sup>

Superlatibotzat jo izan da, halaber, zub. *ürhentü* ‘bukatu’, *hur* ‘hurbil’-ena (Mitx VII 81, 48 oh., *FHV* 410); kasu honetan, lehen hasperenaren disimilazioarekin (*FHV*

<sup>355</sup> Mitxelenaren ustez (*FHV* 220, VII 31-32) *goihen*-en hasperena ez da etimologikoa, silaba markatzeko sorturikoa baizik.

<sup>356</sup> Cf. halaber *janhari* eta *barazkari*, *askari*. Baliteke *ezkur* hitza ere gertakari honen adibide izatea, bigarren osagaia *hur* hasperenduna dela onarturik: honetan ere, txistukari ondotik *-kur* aldaera herskari belarduna genuke (ik. *EHHE* s.v.).

212). Hemen ere, *-hen* jatorrizkoa gorde da.<sup>357</sup>

Labur esanik, Erdi Aroan aldaera hasperendunak ditu genitibo pluralak, bere superlatiboa funtzioan gorderiko leku-izenetan, eta aldaera hau orokorra da euskal eremu osoan; Erdi Aroko lekukotasunetatik kanpo ere aurki daitezke superlatibo hasperendun hauek (cf. *goihen*, *barhen*, *geihen*, *ürhentü*... lexikalizatuak). Bestalde, *-ken* aldaera aurki daiteke *azken* hitzean, *-(h)eta/-keta* D-elementuan aurkituriko banaketa osagarri berean. Honek guztiak ez du uzten zalantzarako biderik: genitibo plurala ere D-elementu bat da.

#### 5.2.7.2 Superlatibozko sintagmen jatorrizko sintaxiaz

Ohar bat egin beharra dago superlatiboaren diakroniaz: argi dago formalki genitibo pluralarekin berdindu daitekeela, baina ez dut argitu forma horien jatorrizko sintaxia zein den; 2.4.2.5.5 atalean, Gavelen eta Martínezen proposamenak aurkeztu ditut. Aintzat harturik Erdi Aroko superlatiboek —eta zenbait superlatibo lexikalizatuk— hasperena dutela, erakusleen gramatikalizazioaren ereduaren arabera, honelako egitura proposa daiteke sintagma mota horren jatorrirako: *gizon handi hen(a)* litzateke, ‘haien arteko gizon handi(a)’, *hen* izenordain funtzioan dagoelarik, ez *gizon handi* sintagmaren izenondo funtzioan. Multzo batetik ale bat bereizten da, adibide honetan “gizon handi” bat, eta multzo batetik bereizte horrek ekarriko zuen superlatibotasuna (Heine 1997: 124-126).

Ez dago argi zer toki duen eztabaida honetan Oihenarten 660 *Orotako gaxtoen ozpina*, *da arno ezitik egina* atsotitzeko *gaxtoen ozpina* ‘ozpin gaxtoena’ sintagmak, erimaren faktorea aintzat hartu behar baita, eta baliteke hiperbatoiarene baliabidea erabili izana autoreak (4.4.3 (d, ii) atala); arkaikotzat hartuko bagenu hurrenkera hori, abiatu beharko genuke *handi hen gizon(a)* sintagmaren ‘handi haien arteko gizon(a)’ moduko esanahi batetik, eta ez daude argi ondoko bilakaera semantikoaren xehetasunak.

<sup>357</sup> Zubereraz *hüllan* da ‘hurbil’ adierazteko hitza, baina Leizarragak *hurbil*-en zubererazko ordaintzat *hurren* dakar; *ürhen*-ek ‘hurbilen’ adieraziko zuen jatorrian (cf. *hurren* ‘ia-ia’, ‘hurbil’ etab., *OEH* s.v.), eta ‘bukatu’ adiera azaltzeko, badirudi ‘hurbilen’ → ‘(bukaeratik) hurbilen’ moduko bilakaera semantiko batetik jo behar dela: *ürhentü*, beraz, ‘bukaerara hurbildu’ izan daiteke. Mirandek *urhen* darabil, ‘amaiera’ esanahiarekin (*OEH* s.v. *hurren*), baina baliteke *ürhentü* aditzetik idazleak ateratako forma izatea.

Erdi Aroko *goihen* bezalako antzinako hasperendunek iradokitzen dute genitibo pluraleko erakuslea izenondoari lotu zitzaiola. Horrenbestez, indarra galtzen du Martínezek proposatzen duen aukerak: *altu gizonena* bezalako jatorrizko egiturak proposatzen ditu, gaurko *gizon altuena* modukoaren aitzindari; baina hipotesi honetan, hitz hurrenkeraren aldaketak (*altu gizon* → *gizon altu*) hasperena galdu ondokoa beharko luke, eta ez dugu halako hitz hurrenkeraren aldaketa berantiar baten zantzurik. Gainera, superlatiboaren *-aen(a)* aldaerak (cf. Garibai *onaena*, *gueiaenean*, Lazarg *ederraena* etab.) beronen gramatikalizazioa aski berantiarra dela iradokitzen du, erakusleen berregituratze formalaren ondotik gertatua (*hen* → *a-hen* > *aen*, ik. 5.2.7.5 atala). Azkenik, arestiko Oihenarten adibideak ere ez du hurrenkera horren alde egiten; adibide horretan, superlatiboko sintagmaren hurrenkera ez da kanonikoa, baina ez Martínezen proposamenean bezala: elkarrekin doaz izenondoa (*gaxto*) eta atzizkia (*-en*).

### 5.2.7.3 Ekialdeko azentuera

Goian esan bezala, zubererazko erg. pl. *mendiék* eta gen. pl. *mendién* sintagmek [-1] azentuera oxitonoa dute, [-2] azentu paroxitonoaren arau orokorraren kontra. Nire iritziz, ustezko salbuespen hau ez da azaldu behar kontrakzioen bidez: batera azaldu behar dira ergatibo eta genitibo pluraleko azentu ustez irregular hau eta leku-kasu zenbaitetan dugun [-3] azentu ustez irregularra:

- |     |                         |   |                          |
|-----|-------------------------|---|--------------------------|
| (9) | a. <i>mendi hék</i>     | > | <i>mendiék</i>           |
|     | b. <i>mendi hén</i>     | > | <i>mendién</i>           |
|     | c. <i>mendi héi</i>     | > | <i>mendiéi (mendiér)</i> |
|     | d. <i>mendi hétan</i>   | > | <i>mendiétan</i>         |
|     | e. <i>mendi hétara</i>  | > | <i>mendiétara</i>        |
|     | f. <i>mendi hétarik</i> | > | <i>mendiétarik</i>       |

Modu bakar eta bateratuan azal daitezke zubereraren deklinabideko [-2] azentu-arauaren salbuespen hauek guztiak:<sup>358</sup> aski da erakusleetako azentua gorde dutela onartzea; ildo horretatik, ohar bedi ezkerreko zutabeaz ez dagoela izartxorik. Inesiboko *mendiétan*

<sup>358</sup> Zuberera hartzen dut adibide gisa, baina berdin balio du ekialdeko beste hainbat hizkeratarako.

bera, azentua [-2] izanik ere, ez da, hortaz, arau orokorraren arabera azaldu behar, nahitaez. Orokortze tipologikoak ere bat datoz honekin: badira hizkuntzak non deklinabide pluraleko atzizkiak ez diren egoten singularrekoak bezain izenari lotuak (ik. 3.1.3 atala), eta beregaintasuna galdu ez duten klitikoak izan ohi dira pluraleko atzizkiak: horrexegatik gordetzen du D-elementuak bere azentua. Hala gertatzen da, bestalde, mendebaldeko hizkeretan (ik. 5.3 azentueraz). Larrasketek (s.v.) dakartzan *góihen* eta *úrhent* jatorriz superlatiboetako azentua hitz horien lexikalizazioz azal daiteke (bereziki nabarmena da *goihen*-en kasua, leku-izenetako osagaia baita); horietan, superlatiboko *-hen*-ek beregaintasun azentuala galdua du, eta hitzak [-2] eredu orokorrera berdindu dira.<sup>359</sup>

Estu harturik, beraz, eta ikuspegi diakronikotik, ez dugu [-1] edo [-3] azenturik, [+1] azentua baizik, atzizkiaren hasieratik kontatuta. Jakina, *hek* eta *hen* erakusleak monosilabiko direnez, azentua silaba bakar horretan dago, ezinbestean. Funtsean, esan daiteke zubererazko deklinabide pluralaren azentua gordetzaila dela.<sup>360</sup>

Analisi honen ekarpen nagusia, horrenbestez, bi motatako salbuespenak azalbide bakarraren pean ezartzea da: denak dira orain [+1] azentuzkoak, zenbatzen nondik hasi behar den argitzen badugu. Sinkopa adibideak ere (cf. adlat. *-étra*, ik. 2.4.2.8.2 atala) ongi azaltzen dira horrela. Ez dago, hortaz, Mitxelenak (*FHV* 421; ik. 2.4.2.8.1 atala) aipatzen duen “típica movilidad del acento que hallamos en los dialectos orientales” modukorik.

Zeharkako argudio gisa erabil daitezke zubereratik kanpoko zenbait datu, [-2] azentuera paroxitonoaren araua ez duten hizkeretakoak; Leizarragaren testuetan, ergatibo eta genitibo pluraleko sintagmetan azentu grafikoa erabiltzen denean, atzizkiaren gainean agertu ohi da: Marc XIII: 14 *Iudean diratenéc, ihes albeileguite mendiétarat*, Marc XIII: 65 *Eta officieréc cihor vkaldi emaiten ceraucaten*, Luc II: 31 *Cein preparatu baituc populu gucién beguitharte aitzinean* etab. Berariaz azentuari

<sup>359</sup> Cf., bestalde, Goizuetako superlatiboaren azentueraz: “Superlatiboan azentua beheranzkoa da beti. Badira arrazoi sendoak superlatiboa genitibo pluralarekin batzeko diakronian eta azentuzko datu hau bat dator hipotesiarekin” (Hualde eta Lujanbio 2008).

<sup>360</sup> Zubererazko azentuera erromantzeen eraginpekotzat jo izan da, hots, berritzailetzat; baliteke hala izatea hizkera horretako lexikoaren edo gramatikaren beste hainbat ataletan, baina ez dirudi hala denik deklinabide mugatu pluralean.

dagozkion datu hauez gain —grafikoki adierazia den neurrian—, nire ustez, aintzat hartu behar da *-a* berezkoa duten hitzetan asimilaziorik ez gertatzea Lizarragaren testuetan, *-ek* atzizkiaren beregaintasun azentualaren lekuko (ik. *-aetan* adibideak, 5.2.6 atala): LizSand erg. 142 *arribaec*, 193 *aizpaec*, 309 *Poetaec*, 311 *erruedaec*, 316 *Profetaek*, eta gen. 148 *letraen*, 179 *Persaen*, 354 *Monjaen* eta abar; hor dugu, halaber, Lazarragaren gen. A9: 5 *andraen*.

Zubereratik kanpoko datu hauek aintzat harturik, badirudi ez dugula beharrik hipotesi klasikoak aldarrikatzen dituen kontrakzioak proposatzeko.<sup>361</sup> Honetaz guziaz gainera, ikus goian zer esan dudan *-a* berezkoa duten hitzetako *-ae-* > *-e-* bigarren bokalaren tinbrearen aldeko asimilazioaz, euskal eremu osoko gertakaria baita (5.2.6 atala).

#### 5.2.7.4 *Beriainen deklinabidea*

Aurreko bi azpiataletan, datu ziurrak erabili ditut nire hipotesiaren alde egiteko: Erdi Aroko *-hen* superlatibo hasperendunak eta ekialdeko azentuera markatua. Atal honetan, eztabaida berean kokatu dut euskalaritza klasikoan hain ziurtzat joko ez litzatekeen datu bat.

Beriainek baditu <h> grafemarekin hasten diren atzizkiak, deklinabide mugatu pluralean: cf. ergatiboko BerMez 7 *Erregue Magohec*, 40v *onlacohec* eta 59v *apetitu gaystohec* eta komitatiboko 30v *gucihequi*, 40 *obligaciohequi* eta 55 *demoniohequi*. Nagusi dira, jakina, <h> grafemarik gabekoak: 9v *sacerdote sanduec*, 9v *ceruiçariéc*, 10v *soldadoec*, 18 *Christio fielec*, 31v *onlacoec*, 42v *guiçonec*, 42v *Ayngueruequi*, 54v *Apostuluéc*, 56 *predicaçallec*, 56 *obligacioequi*, 59v *ene bearriéc*, 90v *Ayngeru sanduec* eta beste hainbat. Adibide horiek BerMez-ekoak dira, BerDot-en ez baitago *-hec* edo *-hequi* izenaren deklinabidean: 101v *Apostoloec*, 117 *Christioec*, 125v *becatuec*, 129 *Ayngueruec*, 137 *guciec*, 159v *guciequi* etab.

Nire ustez, <h> grafemak hasperena adieraz lezake deklinabideko adibide hauetan: <h> grafema hasperena berreraikitzen dudan toki berean agertzen da, eta,

<sup>361</sup> Jakina, azentuerari dagokionez Leizarraga zubererari jarraiki bazitzaion, edo bere laguntzaile zuberotarrek jarri bazituzten tiletak, ohar honek ez luke baliorik izango.

beraz, aukera moduan, behintzat, zilegi da hasperena adieraz dezakeela proposatzea. Honek, jakina, hasperenak Nafarroan izan zuen iraupenaz galdetzera garamatza; orobat 5.5.3.2 (b) ataleko datuek. Argudio gehiago eman ditut hipotesi honen alde 7.3 atalean.

#### 5.2.7.5 Mendebaldeko -a(e)n genitibo plurala

Genitibo pluraleko formarik zaharrena *-(h)en* dela onarturik —Erdi Aroko superlatiboetako formaren orokortasunak horretara garamatza—, azalpenen bat bilatu behar zaie beste aldaerei. Bereziki esanguratsua da mendeb. *-aen* aldaera zaharra (2.4.2.5.3. atalean aipatua),<sup>362</sup> superlatiboan ere badagoena; Castañosen aipuak ongi biltzen du aztergaia (1957: 65):

La forma de gen. pl. más antigua atestiguada en vasco parece ser la que hallamos en Capanaga: *ilaen eta vicién juzgaetara* (página 6) y *erresucitadu cidin ilaen arterean* (pág. 6). En Betolaza la hallamos con *-r-* epentética: *ilaren arterean* (5/1 y 7/3). Estas formas con *-a* parecen ser atestiguadas por Landuchio que ofrece gen. pl. en *-an*, como en sing.: *oyalan puyatea* “colada de paños”, *conquista erriana* “conquista dellas” (de las tierras).

También en Refranes y Sentencias de 1596 aparece *Iusturiaen acean* (n.º 201) “después de los truenos” y en los Refranes de Garibay (Cc 79, XIII, pág. 50) *onaena*, superlativo, pero en su origen gen. pl.

Castañosek uste du *-aen* hau dela genitibo pluraleko formarik zaharrena, izendatuki aipatzen ez badu ere, *\*-ag-en-en* hipotesi klasikoa duelako burutan, beharbada. Nire hipotesiaren barrenean bestelako azalpen bat jasoko dute halako formek, erakusleen gramatikalizazioaren bidetik:

- (10) a. *ilaen* < *il aen*  
 b. *onaena* < *\*on aena*

Hots, berriro ere, erakuslearen berreraiketaren esparruan kokatzen dut arazoa: *aen* da gramatikalizatu den erakuslea, eta forma horrek azaltzen du deklinabide mugatuan *-a-* agertzea.

Nire hipotesiaren barrenean, mendebaldeko berrikuntza bat deskribatzen da honela, *aen* erakusle eraberritua hasi baitzen erabiltzen deklinabide mugatuko genitibo plurala osatzeko, *en* zaharragoaren partez (ik. erakusleen berreraiketari dagokion atala,

<sup>362</sup> Ez dago argi *los seles de Caraçeta e Andraonaena Entre Anbas aguas* (ArchDonem 1415) adibideko *Andraonaena* hitzak pluraleko genitiboa duen.

## 5.5.3).

Zerrendan eman daitezke hipotesi honen xehetasunak eta hipotesi eransle klasikoaren aldean dakartzan hobariak:

- (a) Datu historikoekin has gaitzke. XVI. mendeko testuei begira, mendebaldean *-an* eta *-aen* ez dira orokorrak, eta *-en* forma ere bada. Taula honetan bildu ditut XVI. mendera bitarteko mendebaldeko testuetako pluraleko genitibo guztiak (alde batera utzi ditut, jakina, *-oen* hurbilak):

Testua	Adibideak <sup>363</sup>		
	<i>-en</i> dutenak	<i>-a(e)n</i> dutenak	Superlatiboak
MLastur			30 <i>leen</i>
ArrasErrekII	B8 <i>Chibuluen</i>		
ErrodZar			6 <i>lelengo</i>
IbargCEs		B4 <i>aita onaen</i>	
RS	38 <i>vere guachen</i> 80 <i>aurtengoan</i> 198 <i>oroen</i> 200 <i>Iaquindunen</i> 347 <i>osoen</i> 371 <i>jaunen</i> 387 <i>dustien</i> 395 <i>gogayeren</i> 523 <i>sey goseen</i>	201 <i>Iusturiaen</i>	58 <i>lenago.</i> 65 <i>Lenaengo</i> 86 <i>lenago</i> 194 <i>lenago</i> 194 <i>gueroengo.</i> 286 <i>gojenean</i> 376 <i>Lenaengo</i> 403 <i>yndarsuen</i> 408 <i>lelengo</i> 448 <i>Aurrereen</i> 448 <i>osteyren</i>
Garibai			B4 <i>Gueiaenean</i> B13 <i>onaena</i>
frJZum	18 <i>elexaen</i>	39 <i>besteaendaco</i>	16 <i>gueyaena</i> , 23 <i>onaena</i>
Andram	2 <i>IbargoyengoEn</i>	2 <i>Oña enganean</i>	2 <i>Urrengo</i>
Betol	53 <i>andra gustien;</i> 54 <i>Santuen</i> 54 <i>pecatuen</i> 54 <i>prometimentuen</i> 58 <i>proximoen</i>	54 <i>hilaren</i> 55 <i>hilaren</i>	52 <i>Lelengoa</i> 54 <i>Lelengo</i> 57 <i>guichienaz</i> 57 <i>lenago</i> 57 <i>Lelengo</i> 59 <i>Legengoa</i>
BizkOlerk			16 <i>leenago</i>
Land	<i>oyalen rotea</i> “batan de	<i>beguian yzarra</i> “catarata de ojos”	<i>guiadorea, leñayngoa</i> “guia, o guiador”

<sup>363</sup> Adibideetako batzuk ez dira erraz sailkatzen, singular, plural ala mugagabe diren; arazo honen adibide dira RS-koak.



	paños” Adibide bakarra da, eta ezin da baztertu errata edo transkripzio hutsa izatea. B eskuarena da; cf. ondoko zutabeen esku nagusiaren <i>oyalan puyatea</i> . B eskuarena da <i>-an</i> duen <i>beguian yzarra</i> .	<i>oyalan puyatea</i> “colada de paños” <i>eçurran conçertadorea</i> “conçertador de huessos” <i>conquisteia erriana</i> “conquista dellas” <i>olloã corralea</i> “corral de gallinas” Eta ezin konta ahala adibide gehiago. Ohar bedi singularrean ere <i>-an</i> dela genitiboaren forma.	<i>açerayngoia</i> “postrero” <i>lenayngoia</i> “primero”
Lazarg	A9: 5 <i>andraen</i> AL: 1143r <i>bien</i> A26: 76 <i>deseoen</i>  B: 28 <i>sure atean</i> <sup>364</sup> <i>arteti</i>		AL: 1147v <i>lagundasunic onaena</i> A4: 15 <i>uste guchien doçun</i> A14: 49 <i>lenaengo</i> A23: 39 <i>lenaengo</i> A24: 49 <i>lenaengoa</i> A24: 75 <i>lenaengoa</i> B3: 50 <i>lora ederraena</i> B14: 1-2 <i>Estandarteric onaena</i> B32: 3 <i>Damarica dan galantaena</i>

9. taula. Genitibo pluraleko sintagmen adibideak XVI. mendera bitarteko mendebaldeko testuetan (T.1-T.30 testuetako datuak).

Arrasateko erreketan *chibuluena* dugu; Debagoienekotzat jotzen badugu, gaurko egoerarekin bat egiten du datu honek (ik. behean, (b) puntuan); mendebalderagokotzat jotzen badugu, hurbilago legoke RS-ko datuetatik, adibidez. Aipagarria da, halaber, Betolatza: *-en* du beti, *hilaren arterean* esapidean izan ezik. Deigarria da, orobat, Refranes y Sentencias testuan ia beti *-en* izatea, *iusturiaen* adibide bakarraren eta superlatiboazko *lenaengo* formaren ondoan; superlatiboazkoen artean, dena den, salbuespena da *lenaengo* hau, nagusi baitira *yndarsuen*, *gojenean* edo *aurrereen* bezalakoak. Lazarragak ere *-en* du genitibo pluralean, eta *-aen* forma superlatiboan baizik ez da ageri.

Oro har, esan liteke *-en* forma dela ugariena; are gehiago, Arabako testuei

<sup>364</sup> Ez dago argi singularra, *atearen*, ala plurala den, *ateen*. Sasiolakoaren zatian agertzen da.

begira (Lazarg eta Betol), pentsa daiteke *-en* eta *-aen* formen artean banaketa garbi bat dagoela: *-en* forma nagusi da genitibo plural gisa, eta *-aen*, agertzekotan, maizago agertzen da superlatibo gisa, genitiboko adibide bakan batzuk gorabehera; analisi bertsua egin liteke Bilbo inguruko *Refranes y Sentencias* testuko adibideez. Genitibo pluralean, Arabako testuetatik aldentzen da Landuchioren hiztegia, *-an* baita forma nagusia (*-en* bakarria dago); superlatiboari dagokionez, ordea, bat egiten du Arabako beste testuekin, *-aen* baitu (horren aldaeratzat dut *-ayn*).<sup>365</sup> Bestalde, taula honetan bildu ez badira ere, ekialderagoko XVI. mendera bitarteko testuetan, *-en* da beti genitibo pluraleko forma, baita gipuzkerazkotzat jotako testu guztietan ere (T.31-T.37 testuak).

Bistan dena, helburua da formen arteko lehentasun kronologikoak ezartzea. Nahi izatera, soiltze fonetikoaz azal daitezke *-en* guztiak, *-aen* formatik eratorriak, baina datuek ez dute ezinbestean aukera horren alde egiten, eta analiza daitezke jatorri morfologiko ezberdineko morfema gisa ere. Aurreko paragrafoan aipaturiko aldeak —gen. pl. *-en*, baina superlatiboan *-aen* izateko joera— analisi morfologiko bereizien aukera indartzen du.

- (b) Castañosek dioen bezala, *-an* aldaera *-aen* zaharragoaren bilakaera fonetiko soiltzat jo daiteke;<sup>366</sup> ikuspegi honen arabera, bizkaieratzat jo ohi diren hizkeretan bertan bi eremu bereiz daitezke gaurko euskaran, deklinabide mugatuko morfemaren jatorriari dagokionez: *-an* (< *aen*) hainbat hizkeratan topa daiteke, baina badaude *-en* (< (*h*)*en*) orokorragoa dutenak ere mendebaldean, Debagoienean adibidez (Zuazo 2006: 70). Alde horren jatorri diakronikoa, esan bezala, erakuslearen forma ezberdinen gramatikalizazioari egotz dakioke,

<sup>365</sup> Interesgarria da *leñayngo* formaren sabaikaria; garbi xamar uzten du zein izan zen superlatibo pleonastiko honen bilakaera: *lehen* > *leen* > *lein* → *\*leinaen(go)* > *leñain(go)*. Euskara batuko *lehenengo* formaren kideak dira hauek, baina superlatiboaren *-aen* formarekin.

<sup>366</sup> Nire ustez, azalpen honek mendebaldeko *-an* genitiborako baizik ez du balio, hots, inoiz *-aen* moduko atzizki bat izan dela ziurtasun gutxieneko batekin jakin dezakegun eremuetarako. Badira euskara modernoan genitibo pluraleko *-an* atzizkiaren ekialderagoko adibideak; Mitxelenak Oiartzungo eta Errenteriako hizkerak dakartza gogora, Landuchiorenarekin konparatzeko (XII 221; genitibo singularrekoa ere *-an* da hizkera horietan). Nire iritziz, hauek beste modu batean azaldu behar dira: adibidez, baliteke singularra eta plurala azentuen arabera bereizteak bokalaren tinbre aldaketan zerikusia eduki izana.

bestelako bilakabideen eragina baztertu gabe, jakina (konbergentzia fonetikoak etab.).

- (c) Ildo beretik, hobeki azaltzen da erg./abs. pl. *-ak* duten hainbat hizkerak gen. pl. *-en* izatea; formaz ezberdin diren erakusleak daude alde horren oinarrian, ez *\*ag-e-k* eta *\*-ag-en* balizkoen bilakaera fonetiko soilak.

Xehetasunetan bestelako ondorioetara iristen bada ere, Castañosen hitzetan ideia bertsua aurki daiteke (1979: 136):<sup>367</sup>

Vemos que la situación es compleja: los dialectos han podido formar el plural de manera diferente en doble sentido: que hayan empleado diversos procedimientos para distintos casos, que un dialecto haya procedido de manera distinta que los otros, de modo que las diferencias estén motivadas *no por diferente evolución fonética, sino porque los elementos que intervinieron en la formación fueron diversos*, o diversas también las acciones de unos casos sobre otros. [Etzana nirea]

- (d) Deklinabidearen sorrera garaiaren berri ere ematen digu, modu erlatiboan: pluraleko deklinabide mugatua artean osatzen ari zen, erakusleen berregituratzea gertatu zenean. Horrela, erakusle berriagoak ere —*aen* eta halakoak— deklinabide mugatuaren osaeran sartu ahal izan ziren; horren lekuko dirudi, genitibo soiletatik kanpo, Juan Zumarragakoren gutuneko 39 *besteaendaco* formak, *aendako* erakusle batean pentsarazten gaituena.

Deklinabide mugatuaren sorrera Erdi Aroan kokatzen laguntzen du honek, berriz ere (ik. 5.1 atala).

- (e) Aurrekoarekin lotuta, erakusleen berreraiketarako datu moduan har litezke mendebaldeko genitibo pluraleko datuak: zaharrena (*h*)*en* da, euskal eremu osoan zabalduea eta Erdi Aroan orokorra; *aen* berrikuntza da, mendebaldean sorturikoa, ziur aski. Aurreko (d) puntuaren osagarri, erakusleetako berrikuntza honen kronologia erlatiboa ezar dezakegu: hiztunak artean deklinabide mugatuko morfemen eta erakusleen arteko lotura garbi hautematen zuela gertatu zen.

<sup>367</sup> Aipua luzatu daiteke, jarraian dioena esanguratsua baita: “Hay, evidentemente, dos tipos de formación: instr. vizc. *sacramentuez*, por una parte, y gen. vizc. *ilaen*, por otra. Ambos tipos de formación pudieron coexistir y el primero fue suplantado por el segundo en la mayoría de los dialectos y en la mayoría de los casos; o hubo dos épocas: una en la que se empleó el primer tipo para determinados casos, y otra, el segundo, para los casos restantes, con posibles interferencias mutuas. Y la extensión de un tipo o de otro, así como las mutuas interferencias, ha podido variar de dialecto en dialecto”. Ikus, halaber, liburu bereko 203 eta 204 orrialdeak.

- (f) Aurreko (d-e) puntuetako kronologia erlatiboekin bat egiten dute superlatiboaren datu zaharrek: superlatibozko sintagma horietan hiztunak erakuslea zegoela hauteman behar zuen, *ederraena* edo *onaena* bezalakoetan *aen* erakusle berriagoa sar zedin. Are gehiago, baliteke aldaketari kronologia absolutua eman ahal izatea, *Reja-ko Goiahen* aintzat hartuz gero: izen horretan superlatiboa ikusten badugu, eta *goihen*-en kide morfologikotzat jotzen badugu (cf. agiri berean *Arbelgoihen*), *-ahen* izan liteke beranduagoko *-aen* superlatibozkoaren (eta gen. pluralekoaren) jatorrizko aldaera.

Superlatiboak egiteko euskara modernoak duen moduak berri xamarra behar duela berresten du honek guztiak, erakusleen gramatikalizazioaren menpe baitago.<sup>368</sup>

- (g) Genitibo pluralean *-an* duten gaurko mendebaldeko hizkeretan, superlatiboan *-en* dute, halere. Nire azalpenaren barrenean, mendebaldeko hizkera horietatik atera gabe ere genitibo pluralaren jatorrizko *-en* forma berreraiki liteke, superlatiboan forma arkaikoa gorde dela onarturik. Hizkera horietako datuek genitibo pluralaren eta superlatiboaren arteko bereizketa morfologiko baten berri ematen dute, nahiz eta (a) puntuan aipatutakoaren ispilu irudia izan: Lazarraga eta bestetan gen. pl. *-en* / superlatibo *-aen* genuen, joera gisa, eta hizkera hauetan gen. pl. *-an* (< *-aen*, Castañosi jarraiki) / superlatibo *-en*. Badirudi aukera morfologiko ezberdinak modu ezberdinean espezializatu direla mendebaldean, hizkera eta garaiaren arabera.
- (h) Azkenik, badirudi erakuslearen forma berria ez dela bakarrik genitiboan gramatikalizatu: cf. Ulibarrik (2015: 170) bere tesian dakartzan *-aik* pluralaren adibideak, *aec escu dibinuaic*, *âec berbaic*, *aec lecuaaic*, *demoniñoaic*.<sup>369</sup>

<sup>368</sup> Lakarrak *hobe* izenondoan *on*-en konparaziozko forma zaharra ikusten du, *-e* genitibo arkaikoarekin, eta gaurko *-en* superlatiboekin erkatzen ditu: “[E]l comparativo antiguo y el genitivo arcaico compartían marca como hacen sus descendientes modernos” (2006a: 576). Honi ohar bat egin dakioko: bi egiturek dute genitiboa oinarri, baina gaurko superlatiboa ez da *hobe*-n ikusi nahi den konparaziozko egitura arkaiko horren ondorengo zuzena; izatekotan, egun galdua den eredu zahar bati dagokio *hobe*-rena, genitibo marka soilarekin osatzen zena. Euskara modernoko *-en* superlatiboa, berriz, erakusle plural baten gainean osatua da.

<sup>369</sup> Lau adibide hauetarik, absolutibokoak dirudite lehen hirurek; laugarrenak, ordea, ergatibokoa (ikus 7.2 atala). Laugarren hau da, hain zuzen, sintagman beste erakuslerik ez duen bakarra. Koldo Ulibarriri berari

Mendebaldeko genitibo pluralaren auziarekin bukatzeko, aipagarria da, beste behin ere, Castañosen iritzia. Autore hau *-aen* formaren aitzinatasunaren hipotesitik abiatzen da, baina esaten du ez daitekeela baztertu *-en* forma izatea jatorrizkoa; hona bere artikulua bururatzean dakartzan hitzak: “Dada la escasez de datos, la solución de la forma primitiva del genitivo plural sólo puede ser intentada dentro de una teoría general de la formación del plural” (1957: 69). Horixe da nik hemen egin dudana. Teoria orokor horren barrenean, atal honetan ere agerian geratu da deklinabide mugatuaren berreraiketaz diogunak zuzen-zuzeneko ondorioak dituela erakusleen berreraiketaz esan dezakegun horretan.

Orobatsu esan daiteke Bidasaldeko formen berritasunaz. Argudiobide nagusi honen barrenean, Irun-Hondarribiko *-aken* formak ezin dira inolaz ere zaharrak izan (ik. goian eredu eransleez esandakoa, 5.2.1 (b) atala): batetik, *-aken* atzizkiaren gardenak bere berritasuna salatzen du, *-en* zatikagaitzagoaren aldean; bestetik, hizkera horietan beretan superlatiboa *-en* da (edo *-an*), inoiz ez *-aken*: argi dago, horrenbestez, gen. pluralekoa berrikuntza izan dela, superlatiboak gorde duen forma arkaikoaren ondoan. Jakina, abs. pl. *-ak* + *-en* osaera eranslearen aukeraren ondoan, beste aukera bat da proposatzea Irun-Hondarribian, mendebaldean bezala, *-aen* izan dela inoiz gen. pl. forma, eta silaba muga markatzeko sortu zela *\*-agen* lehenik, eta *-aken* azkenik, absolutiboko formaren indar analogikoz edo. Caminok ere berrikuntzat dituzte hauek guztiak (2013: 128-129).

#### 5.2.7.6 Mendebaldeko *-ai* datibo plurala

Datiboari dagokionez, XVI. mendera bitarteko mendebaldeko testuetan *-ai* atzizkia baizik ez dago. Ikus honako taula hau:

Testua	Adibideak
RS	404 <i>ysquilosay</i>
FrantzOrd	3 <i>cerucu sanctu eta sancta custiaj</i>
Land	<i>andray emona</i> “dado a mugeres” <i>viçioay emona</i> “dissoluto en viçios”
Lazarg	AL: 1144v <i>musicoay</i>
Betol	53 <i>gueure çordunay</i> 56 <i>onay, deungay</i> 57 <i>Apostolu Santuay, Ceruco Santu gustiay</i> 57 CON <i>Apostolu Santuay, Ceruco Santuay</i>

10. taula. XVI. mendera bitarteko mendebaldeko testuetako datibo pluraleko sintagmen adibideak (T.1-T.30 testuak).

Datuek bestelako egoera erakusten badute ere —forma bakarra dago datibo pluralean—, nire ustez, hobetsi behar da genitiboaz eman dugunaren antzeko azalpenen bat: berreraiketa proposamen orokorrak berritzailetzat jotzen du *-ai* aldaeraren bokalismoa, *-ei* formaren aldean.<sup>370</sup> Badirudi Mitxelenak berak ere jatorrizkotzat *-ei* duela eta *-ai* bilakaera fonetikoaz azaltzen saiatzen dela (VII 164, 1 oh.). Baina hori baino esanguratsuagoa da Mounolek Lazarragaren gramatikan dakarrena (2014: 3.1.1 atala), deklinabideko *-ai* atzizkiak ari dela: pluraleko erakusle forma *ai* ‘haiei’ da Lazarragagan, eta bakarra da *ae-* oinarria ez duena (nire hipotesian, jakina, *ai* bera *aei* batetik eratortzen da).

Mendebaldeko eta erdialdeko testu zaharretan, ez dira asko ‘haiei’ erakuslearen adibideak: XVII. mendean, Kapanagarengan *ai/ay* aurkitu dut, ez *aei*: 19 *cerren ay deiengoiatee* eta 128 *eta ai iatordeçan*. XVIII. ean, Otsoa Arinengan *aei* (23, 35, 165) / *aei* (164) eta *ayei* (75) formak aurkitu ditut, ez *ai*. Bestalde, *aec* eta *aen* dituzte bi autore hauek, eta deklinabide mugatu pluralean *-ai*, cf. Otsoa Arinen 35 *aei guciay*.

Lazarragaren lekukotasunaren arabera, badirudi aski goizik izan zuela izaera beregaina datiboko erakuslearen *ai* aldaerak, eta horrek berak azal lezake deklinabide mugatuan *-ai* atzizkia orokorra izatea. Goiztiartasun honen azalpen gisa, ohartu behar da beste kasuetan baino errazago azal daitekeela soiltzea datiboan, jatorrizko *aei* batetik abiatuta, zeinak *bokal + diptongo* egitura fonologikoa duen (VVW); horrek bakarrik

<sup>370</sup> Mendebalde-erdialdeko *-ak* absolutibo/ergatiboa eta *-ai* datiboa batera tratatzen ditu Aldaik (2014: 226), *-a-* bokala dutelako; baina, nire analisiaren arabera, arrazoi diakroniko ezberdinengatik dute antzekotasun hori, eta biak bereiz aztertu behar dira.

bereizten du *aek*, *aen* eta *aetan* eta halakoetarik (VVC-). Honek guztiak berriz ere adierazten digu deklinabide mugatu pluraleko datibo marka berandu gramatikalizatu zela: erakuslea berregituratu ondotik gramatikalizatu zen deklinabidean, genitiboko *-aen* bezala, nahiz eta genitiboko honen arrakasta urriagoa izan zen. Eta are argiago uzten du ezin dela egin deklinabide mugatuaren diakroniarik erakusleei begiratu gabe.

Gutxienez bi modutan azal daiteke Zeanuriko, Oñatiko, Burundako, Goierriko eta Usurbilgo *-airi* aldaera (2.4.2.5.7 atala): batetik, *-ai* atzizkiari *-ri* pleonastikoa gehitu ahal izan zaio; hipotesi honen barrenean, onartzen ari gara Oñatin *-ai* zutela lehenago, ez *-ei*. Bestetik, baliteke berriz gramatikalizatu izana *haieri* erakuslea, *aieri* > *-aieri* > *-airi* bilakaerarekin. Formaz berdinak izanik ere, ez dute zertan azalpen diakroniko bera izan herri hauetako *-airi* aldaerek.

Datiborako ez dugu Erdi Aroko daturik,<sup>371</sup> genitiboren kasuan ez bezala, baina deklinabide mugatuaren eta erakusleen sistemaren berreraiketarako proposamen orokorrak *-ei* formaren antzinasunaren alde egiteko bidea ematen du. Jakina, mendebaldeko *ei* ‘omen’-en jatorri etimologikoa *hei* dela proposatzen badugu —‘haiei entzuna’ bezalako esapideren batetik, agian—, partikula modal horretan genuke ihartua jatorrizko forma mendebaldean ere; ik. *EHHE* (s.v. *ei*).

#### 5.2.7.7 Ohar bat iberierazko *-en* eta *-sken* atzizkiei buruz

Bigarren kapituluan (2.4.2.5.6) eman dut iberierazko *-en* eta *-sken* atzizkien inguruan sorturiko eztabaidaren berri. Laburbilduz, esan daiteke hemen proposatutako berreraiketa modua ez dela bateragarria iberierazko datuei buruz egin daitezkeen analisiekin. De Hozen ondorio orokor honetatik abia gaitzezke (2011: 270)

Finalmente ninguno de los sufijos ibéricos más frecuentes y de comportamiento describable se deja

<sup>371</sup> Itxurazko hurbiltasuna aipagarria izanik ere, xehetasunetan ez dago argi nola lot litekeen *hegi* ‘ertz’, ‘malda’ (ik. *OEH*), ugarria Erdi Aroan, datibozko erakusle pluralarekin; superlatiboan *hen* genitiboa ikusi ohi den bezala, gehiegizko izenondoetako *-egi* (cf. *handiegi*, *luzeegi*) datibo pluraleko *\*hegi* berreraiki batekin lotzeko ahalegina egin liteke, baina ez dut aurkitu horren aldeko argudio indartsurik. Lizarra aldeko XVIII. mendeko *-egi* jatorrizkotzat jotzea zaila da (Lekuona 1973): cf. *desdichatu aiegui*, *aurguciegui*, *vere discipuloegui*, *gaiztoegui*, baina bada mugagabea ere, cf. *confesore vategui* ‘konfesore bati’; azken adibide honen aitzindarizat jo litezke BerMez 26 *oficialebatey*, 30 *Erregue batey*, 44v *batey* adibideak; Beriainek berak *-ei* du datibo pluralean, ez *-egi*. Ziur aski errazago da *-g-* epentetiko bat dagoela pentsatzea (ik. 5.2.7 atala). Bestalde, datiboko *-i* marka *\*nin* erroarekin lotu izan da (Lakarra 2008: 481-482), eta horrek zailtzen du Erdi Aroko *-gi* batekiko lotura.

reducir a una hipótesis semántica particularmente sólida, tenemos sólo indicios y posibilidades; podemos sin embargo aceptar que un sustantivo ibérico recibía marcas gramaticales, realizadas como sufijos aglutinantes pospuestos, entre cuyas funciones debían estar sin duda la categoría caso. [...] Lo que sabemos del ibérico es sin embargo todavía muy poco para que podamos insistir en la cuestión.

Iberierazko datuak ulertzeko De Hozek aipatzen dituen zailtasun berariazkoek gain, honako hauek aipa daitezke, euskarazkoak eta iberierazkoak elkarren argitara analizatu nahi direnean:

- (a) Iberierazko *-en* atzizkiarekin egin nahi den edozein konparaziok aintzat hartu behar du *-e* dela euskal genitibo zaharra, ez *-en*.
- (b) Euskararen deklinabide mugatuaren diakronia ezin da modu eranslean berreraiki; horrela, deklinabide mugatuko atzizkiak ezin dira eztabaidarako erabili, De Hozek iberierari buruz dioenari segitu nahi badiogu.
- (c) Aurrekoarekin bat, kronologiak ere kanpo uzten du deklinabide mugatuarekin egin nahi den konparazio oro.
- (e) Pluralarekin ikusten da hobekien aurreko puntuko arazoa zenbaterainokoa den: adibidez, iberierazko *-sken* ez daiteke lot *azken* bezalako hitzetako bukaerarekin, superlatibo honetan pluraleko morfologia baitago (5.2.7.1), aski berantiarra berez. Horretaz gain, edozein parekatze semantiko zailtzeko, ohar bedi proposatu dudala *hen* erakusle plurala jatorrian inesibo bat dela (5.5.3.5).

Ez dirudi aurrerago jo daitekeenik bi hizkuntzen arteko konparazioan, iberieraren kasu edo postposizio sistemaz gehiago jakin ezean, bederen.

### 5.3 Deklinabide mugatu pluraleko azentuera: ikuspegi bateratua

D-elementuen gramatikalizazioan oinarrituriko berreraiketa saio honek batera azaltzen ditu hiru esparru geografiko nagusietako azentuerak: ekialdeko, erdialdeko eta mendebaldeko pluraleko paradigmatako azentuera azalbide beraren pean ezartzen ditu.

Honela laburbil daiteke auzia: Hualdek deskribatu izan duen bezala (ik. 2.4.2.8.3 atala), deklinabide pluraleko atzizkiak dituzten hitzek azentu markatua dute ipar-mendebaldeko hizkeretan, atzizkiek bere azentuari eusten diote. Era berean, Goizuetako



eta inguruko hizkeretako azentueraz egindako lanetan, autore berak (2007: 313) uste du Goizuetakoa dela arkaikoena —Leitzakoarekin konparatzen du—, bi silaba azentudun gordetzen dituelako pluraleko sintagmetan. Zubereraz, berriz, aurreko ataletan erakutsi dudan bezala, pluraleko deklinabidea ez da azaldu behar [-2] azentuera paroxitonoaren arau orokorraren arabera, baizik eta deklinabide pluraleko atzizkiek erakusle ziren garaitik gordetzen duten [+1] azentueraren arabera (diakronikoki, behintzat).

Ipar-mendebaldeko eta erdialdeko (Goizueta, Oiartzun...) azentueren arteko lotura genetiko zuzena Hualdek berak uzten du agerian: “A pesar de las diferencias de realización, no cabe duda de que el sistema acentual de Goizueta (y hasta hace poco de Oiartzun) y el norvizcaíno están genéticamente relacionados” (2008: 203). Nire proposamen honen barrenean ekialdeko hizkerak ere, zuberera horren adibide moduan harturik, lotura genetiko zuzen horretara ekar daitezke.

Fenomeno beraren isla dira hiru eremu nagusi hauetako pluraleko azentuerak, eta Hualdek (2007: 314) mendebaldeko eta Nafarroako azentuerak berdintzeko darabilen gogoetabide bera erabil daiteke zuberera ere patroi beraren pean ezartzeko:

As mentioned above, arguably in the Bizkaian/Gipuzkoan area plural words are lexically accented because historically they had a different morphological structure from singular forms and were assigned an accent by the same rule that assigns accents to compounds and clitic groups. For Western Navarrese as well, we may assume exactly the same historical distinction between singular and plural morphemes.

Egitura morfosintagmatiko ezberdina zuten singularreko eta pluraleko paradigmek; horrenbestez, azalpen diakroniko bat eta bakarra jaso dezakete mendebaldeko, erdialdeko zein ekialdeko deklinabide pluraleko azentuerek: deklinabide pluraleko atzizkiek bere azentua gordetzen dute, besterik gabe, erakusle ziren garaiaren arrasto. Honek berak azal lezake, gainera, *-a* berezkoa duten hitzetan pluraleko deklinabideko *-ae-* bilkura beti *-e-* bokalaren alde ebaztea (ik. 5.2.6 atala).

Pluraleko atzizkiak ez daude izen sintagmari erabat loturik, eta azentu beregaina gorde dute; mendebaldean eta erdialdean azentu markatua dutela esanez deskribatu ohi da hori, eta ekialdean arau orokorrari itzuri egiten dioten azentu ezberdinak agertzen direla oharraraziz. Baina, funtsean, jatorrizko azentuera orokor eta bakar batetik azal daitezke.

Proposamen orokor hau gogoan harturik, eremu nagusi horien azentuerari dagozkion zenbait auzi aletuko ditut ondoko azpiataletan.

### 5.3.1 Zubererako pluraleko -ak absolutiboa eta -e-dunak: azentuera eta kronologia

Zubereraz absolutibo pluralaren azentua paroxitona da, oro har (cf. *lagúnak*);<sup>372</sup> hots, singularreko azentuerarekin bat egiten du; ergatibo, genitibo, datibo eta instrumental pluralaren azentua, berriz, oxitona da (cf. *lagunék, lagunén, lagunér, lagunéz*), eta leku-kasuetan, oxitono izan gabe ere, azentua -e-ren gainean ezartzen da (cf. *mendiétan*, baina *mendiétako*). Aurreko ataletan erakutsi bezala, zilegi da pentsatzea atzizki horiek guztiek erakusle jatorria dutela; hala izanik ere, azaldu beharra dago -ak eta -e- dutenen (-ek, -en etab.) arteko azentu aldea. Ezberdintasun honen xehetasunetan sakonduko dut ondoko lerroetan.

Ikuspegi klasikoari jarraiki, zubererarako [-2] azentuera orokorra aitortuz eta gaurko *lagúnak* inoiz *\*lagunaga* izan zela onartzen badugu, arazo bat dugu: *\*lagunága*-k [-2] azentu hori baldin bazuen, gaur, azken bokalaren apokopearen ondotik, *\*\*lagunák* oxitona izan beharko genuke, eta ez dugu holakorik, *lagúnak* baizik. Betiere ikuspegi klasikoari jarraiki, zeinaren arabera zuberera [-2] azentudun hizkera den, bi aukera logiko azter daitezke hau azaltzeko:

- (a) Pentsa liteke deklinabide mugatu gisa gramatikalizatu baino lehenago, hots, D-elementuaren ibilbidean hasi baino lehenago gertatu zela *\*haga* > *\*\*hak*,<sup>373</sup> artean erakusle zela. Aukera honen aurka egiten dute onomastikako -aga atzizkidun leku-izen ugariek, horietan argi baitago -aga forma osoa dela izen sintagmaren parte; are -haga duten leku-izenak aurkitu dira ekialdean, Zuberokoak ez badira ere (-haga aldaeraren datu hau, itxuraz atzizkiaren beragaintasun fonologikoa salatzen duena, ez da bereziki ongi ezkontzen zub. aurki daitekeen *lagúnak* azentuarekin, izen sintagmarekiko lotura estua erakusten baitu honek; ik. 5.2.5.3 atala).

<sup>372</sup> Amaieran -a duten izenetan oxitona da, bokalen erabateko asimilazioz eta kontrakzioz: cf. *alhabák* (< *alhabáak* paroxitona) etab. Honetan ere singularrekin bat egiten du: cf. *alhabá* (< *\*alhabáa*).

<sup>373</sup> Ez dugu pluralean erakusle honen aztarnarik: cf. *aek, aiek, hek*, etab. Ik. erakusleen berreraiketari dagokion atala.

- (b) Ia ezinbestean beste aukera baten alde egin beharko genuke: zubererak bereberezkoa duen [-2] azentuera beranduagokoa da euskalkian edo, gutxienean, atzizki horretan: *-aga* deklinabide mugatuan sartu, gramatikalizatu eta azken *-a* bokala galdu baino beranduagokoa izan behar da. Hots, *\*lagunága* > *\*lagunák* genuke, eta ondoren, [-2] orokortu zenean, *lagúnak*.<sup>374</sup>

D-elementuen gramatikalizazioaren ikuspegitik, beste modu batean formulatu genezake eztabaida hau: jatorrian *\*lagun hága* bezalako sintagmak zeudela onartzen badugu, erakusleak bere azentua gordetzen zuelarik, galdera da azentua noiz aldatu den: hots, ustezko *\*lagun(h)ága*-tik abiatuz, azken bokalaren galtzearekin *\*\*lagunák* behar genuke, ez berez dugun *lagúnak*.

Lehendabiziko (a) puntuari dagokionez, ohar bat egin behar da: *hek* erakuslearen jatorrizko forma *\*héga* izan zela onartuz, ez dirudi amaierako *-a* bokalaren galera esanguratsua denik azentuerari dagozkion kronologia erlatiboak ezartzeko; ohar bedi *-ak* eta *-ek* atzizkiek, jatorrian osaera morfologiko antzekoa izanik (*\*ha-ga* eta *\*he-ga*), azentuera ezberdineko sintagmetan agertzen direla.

Ageri denez, ikuspegi klasikoaren bidetik jo zein D-elementuen gramatikalizazioarenetik, zubererazko absolutibo pluraleko sintagmetan azentu aldaketa bat gertatu dela proposatu beharra dago; nolana ere den, bidea irekitzen da zubereraren [-2] azentuera modernoaren sorrera kronologia erlatibo baten menpe ezartzeko: deklinabide mugatua sortu ondotikoa behar du.

Konpara dezagun orain *-e*-dun kasuak dituzten sintagmen azentuarekin: *lagunék*, *lagunén*, *lagunér*, *mendiétara* (ik. 5.2.7.3 atala hauen azentuaren berreraiketaren

<sup>374</sup> José Ignacio Hualde irakasleak ohartarazten nauen bezala, Mitxelena proposamenekin bat egiten du honek: zub. *ákher*-en herskari hasperenduna azaltzeko —gogoan izan azentuarekin lotzen duela hasperena—, jatorrian *akhér* izango zen hitzaren azentua zubereraz ere. Azentuera aldatu zela proposatzen du, hasieratik zenbatzen hasita bigarren silaba azentuatzen bazen gero bukaeratik zenbatzen hasi zirela (cf. *ithúrri* anbigua): hots, zub. *\*akhér* → *ákher* (FHV 424). Bestalde, ez dago argi Belaren tiletek modu fidagarrian islatzen ote duten euskal azentua; hala balitz, aipagarria da A8 *Beharrác çaharrá merkatura*, non erg. sing. *beharrák* eta abs. sing. *çaharrá* azentu oxitonoarekin ageri diren; garai zaharragoetako hondar? Aipatzekoak dira, orobat, Leizarragaren adibideak: 1394 *iracasteco cargua duçuenác* etab. Onartu ohi da azentua adierazten dutela Leizarragaren erg. pl. *-éc*, dat. pl. *-ér* marketako tiletek, besteren artean; zergatik ez pentsatu gauza bera absolutibo pluraleko *-ác* honetarako? Esplizituki aipatzen du Leizarragak azentua markatzeko erabiltzen dela tileta: 1396 *Accentuaren eguitecoa* ‘.

xehetasunetarako). Hauetan ez da aurreratu azenturik *-ak* absolutibodun sintagmetan bezala, hau da, ez da izan azentu oxitonotik paroxitonorako aldaketarik.<sup>375</sup> Bi modutara azal liteke alde hau:

- (a) Halako aldeak kronologia ezberdinen arabera azalduko lituzkeen ikuspegi klasikoaren arabera, esan genezake absolutiboko *-ak* zaharragoa dela zubereraz, *-e-* dutenak baino.
- (b) Gramatikalizazioaren ikuspegitik, berriz, bi gramatikalizazio bide proposatu beharko genituzke, zein bere aldetikakoa, testuinguru sintaktiko ezberdinetan erabiltzen diren morfema ezberdinena; xehetasunetan sakondu gabe, esango genuke pluraleko *-ak* atzizkiak gramatikalizazio bidean urrunago jo duela, are singularreko azentuera hartzeraino, edo, hain zuzen, morfologikoki singularra delako jatorrian.<sup>376</sup>

Bi ikuspegi hauek elkarren osagarriak izan daitezke, 5.2.3.8 atalean agertu bezala. Beste faktore bat ere egon liteke jokoan, aurreko bi ikuspegien osagarri: pluraleko sistema ergatiboa (abs. *-ak*, erg. *-ek*) berrikuntzatzat joz gero, baliteke berrikuntza horrek berak bultzatu edo sendotu izana azentu ezberdintasuna. Honen harira bada, azkenik, ohar bat gogora ekarri beharra ergatibo pluraleko *-ek* atzizkiari buruz: ergatibo pluraleko marka da ekialdean, baina, euskal eremu osoko *zuek* izenordainean (< *zu* + *hek* jatorria onarturik, ik. 5.5.3.2 atalean), absolutiborako zein ergatiborako balio du. Izenordain honen azentuari dagokion fenomeno ohargarri bat dago: *ziék* paroxitonoa dago zubereraz, izenaren deklinabideko *-ék* oxitonoetarako aipaturiko arautik at; hala ere, genitiboan “arauzko” *zién* oxitonoa dago, eta Leizarragak badakar datiboan *çué*r (Larrasket s.v.; Lafon 1999: 699, 702). Izenordainaren jatorrizko azentua *\*ziék* zela onartzen badugu, azaldu beharko genuke zergatik aurreratu den azentua. Azalpen simple bat egon daiteke, izenordain horren erabateko lexikalizazioaren bidetik (gogoan har

<sup>375</sup> Hipotesi erdi-klasiko baten arabera (klasiko-klasikoa eredu eranslearen araberako *-ag-e-k* litzateke), pentsa liteke *\*lagun-héga* > *\*lagunéga* > *lagunék* dugulako *-ek* zaharragoa dela *-ak* baino (edo garai berekoa), baina, *-e-* dun guztiak batera hartuta, argi dago ez dela hala.

<sup>376</sup> Testuinguru eta erabilera sintaktiko ezberdinetan agertzeak argi dago morfemaren ezaugarri morfosemantikoak baldintzatu ditzakeela: ezaguna da *-ak* absolutiboak interpretazio indefinituak izan ditzakeela, ergatiboak ez bezala (2.6.4.1 atala).

*góihen* edo *úrhent* bezalakoak, 5.2.7.3 atala). Lafonek *biek* zenbatzailea ere aipatzen du, eta bestelako aukera bat ematen: “Ainsi, d’après les observations que j’ai faites en Haute-Soule, il me semble qu’un recul de l’accent tend à se produire à l’actif du pluriel quand la voyelle de l’avant-dernière syllabe est un *i* (Lafon 1999: 699). Azken aukera bat aipa liteke: honek gogora dakar zubererazko *-ak* atzizkia duten sintagma paroxitonoen egoera, eta agian horiekin batera azal litezke *zíek* izenordainaren azentuaren gorabeherak, Silversteinen hierarkiaren *markatu/ez markatu* irizpidea aintzat hartuta; aukera honen arazoak 7.2.3.2 (c) atalean aztertuko ditut.

Atal honetan, morfemen araberako azentuaren ezberdintasunei buruzko zenbait xehetasun emateaz gain, aurreratu dut berrikuntza izan daitekeela deklinabide mugatuan abs. *-ak* / erg. *-ek* bereizten dituen sistema; ondorio sakoneko proposamena da hau, Silversteinen ergatibitatearen hierarkiarekin eta ergatibitate erdibituaren eztabaidarekin lotura zuzena duena. Horrela, 5.5.5 eta 7.2 ataletan argudiatuko dut jatorrizko sistemak ergatibitatea erdibitua duela deklinabide mugatu pluraleko paradigmaman.

### 5.3.2 Mendebalde-erdialdeetako eta zubererako pluraleko sistemak: azentuera eta kronologia

Jar gaitezen orain mendebalde-erdialdeetako azentubideari begira: *-ak* atzizkia, izan absolutibo zein ergatibo, pluraleko azentuaren paradigmaman sartzen da bete-betean (ik. 2.4.2.8.3 atala). Zubereraz *-ak* duten sintagmek, aldiz, singularreko azentuaren arabera jokatzeko dute. Mendebalde-erdialdeen eta ekialdearen arteko desadostasun hau azaltzeko, bi aukera daude, lehen begiratuan:

- (a) Pentsa liteke zubereraz dugun ezberdintasuna dela jatorrizkoa, eta, inoiz, euskal eremu osokoa; hala balitz, mendebalde-erdialdeetako pluraleko paradigmaren azentuera litzateke hein batean berritzaile, abs./erg. *-ak* duten sintagmen azentuera erabat berdindu baita beste kasuenekin.
- (b) Pentsa liteke mendebalde-erdialdeetako ez dela berritzailea, eta, Himmelmannen orokortzearekin eta Mitxelenak esandakoarekin bat (3.1.3 eta 5.2.3.8 atalak, hurrenez hurren), pluraleko deklinabide mugatu osoak, *-ak* barne, eutsi diola

beregaintasun morfologiko zein azentuzkoari.<sup>377</sup> Ikuspegi honen aldeko datutzat jo daiteke mendebaldean *-a* berezkoa duten hitzetan *-aak* formak izatea; ekialdeko hizkeretan ez dago horrelakorik. Honen aurka egon liteke, neurri batean, hegoaldean *-haga*-rik aurkitu ez izana leku-izenetan; honek iradoki lezake *-aga/-ak* atzizkiaren gramatikalizazioa aski goizik aitzinatua zegoela (ik. honetaz 5.2.5.3 atala).

Erakusleen gramatikalizazioaren hipotesian sakonduz, bada, nire ustez, hirugarren aukera bat ere, itxuraz ezin uztartuzkoak diren (a-b) aukerak gaindi ditzakeena:

- (c) Nire hipotesi orokorraren barrenean, D-elementu bakarra ikusten da funtzio ezberdinak dituen *-ak* atzizkiaren atzean, izan ergatibo singularra zein pluraleko absolutibo edo ergatiboa. D-elementu hau *\*haga* dela proposatuko dut, eta 5.5.5.2 atalean azaleratuko ditut izan dituen gramatikalizazio bideen xehetasun zenbait.

Abiapuntu hori onarturik, mendebalde-erdialdeetan jatorriz morfema bera denak bi azentuera garatu ditu, gramatikalizatu den sintagmaren arabera: erg. singularrean azentu ez markatuko sintagma baten barruan gramatikalizatu da; abs./erg. pluralean, berriz, azentu markatuko sintagma batean; hots, sintagmaren arabera, ezberdin gramatikalizatu da morfema bera, eta, ondorioz, azentuera ezberdina hartu du gramatikalizazio bide bakoitzeko.

Ekialdean, ordea, sintagmen funtzio ezberdinek ez dute ekarri, azentuari dagokionez bederen, gramatikalizazio bide ezberdinik, eta *-ak* atzizkia duten absolutibo singular zein pluraleko sintagmak berdin gramatikalizatu dira; ekialdean, hortaz, jatorri morfologiko bera izateak eutsi dio azentua berdin gordetzeari, eta ez da garatu funtzioaren arabera bereizketarik. Baliteke hau lotua egotea ergatibo pluraleko *-ek* (< *hek*) D-elementuaren gramatikalizazioarekin, mendebalde-erdialdeetan gertatu ez dena.

Hirugarren (c) aukera honen bidetik, aurreko atalean aurreraturiko auzi berera iritsi

<sup>377</sup> Mendebaldeko pluraleko azentuera berdin(du) hau aski zaharra izan daiteke, edo horren aldeko zantzu moduan har liteke Arabako onomastikan *-ága* eta *-éta* atzizkidun izenek azentua toki berean izatea.

gara: azentuerazko eztabaida hauek estu lotuta egon daitezke nik berrikuntza moduan deskribatuko dudan pluraleko abs. *-ak* / erg. *-ek* bereizketarekin. Ekialdeko hizkeretako paradigmak eredu ez-ergatibotik ergatiborako bidea egin duela proposatuko dut, Silversteinen ergatibitatearen hierarkia oinarri hartuta. Esan bezala, 7.2 atalean eman ditut horren xehetasunak.

### 5.3.3 Ohar bat Arabako leku-izenen azentueraz

Azentuaren auzi honetan aipagarria da Knörrek (2000: 611) nola sailkatzen dituen Arabako leku-izenak azentuaren arabera: azentu proparoxitonoa duten hainbat izen jasotzen ditu (*Étura*, *Mendíguren*, *Éncia*, *Ollábarre*, besteak beste), baina, *-aga* eta *-eta* atzizkia dutenez, esaten du “me parece que no puede deberse a la casualidad que por lo general los terminados en *-aga*, *-eta*, *-ano* y *-ana* sean graves”, eta besteren artean aipatzen ditu *Luzuriága*, *Galarréta*, *Arzubiága*, *Elorriága* eta *Mariéta*, azentu paroxitonoarekin; artikuluan zehar, berriz, hauek aipatzen ditu: *Pa-yué-ta*, *O-gué-ta*, *Ma-ña-rrié-ta*, *Ga-la-rré-ta*, *As-te-guié-ta*, *A-re-cha-ba-lé-ta*, *Be-rros-te-guié-ta* eta *Ar-zu-biá-ga*, *E-lo-rriá-ga*, *A-re-chá-ga*.<sup>378</sup>

Hemen landutako ikuspegiaren arabera, erregularra da hauen azentuera: pluraleko D-elementu diren neurrian dagokien azentua gorde dute, eta datu hauek bat egiten dute mendebaldeko deklinabidearen azentu markatuarekin (eta, funtsean, ekialdekoarekin ere bai). Honek, bestalde, berretsi egiten du *-a* berezkoa duten hitzetako *-ae-* bokal bilkura *-e-* ebaztearen orokortasunetik ateratako ondorioa (5.2.6 (i) atala): azentu hori orokorra izan da inoiz. Hizkuntza galdurik ere, jatorrizko azentuera gorde da Arabako izenetan, itxura guztien arabera, leku-izenak ahozko erdal jardunean txertatu direnean ere.

Salbuespen batzuk zerrendatzen ditu Knörrek: *-eta* atzizkia duten *A-nú-ci-ta*,<sup>379</sup>

<sup>378</sup> *O-si-na-guéa* ere badakar azentu paroxitonodunen artean, baina datu hau ezin da aintzat hartu azentuaren kokapenaren eztabaidarako: *-aga* duen sintagma jatorrizkoa erabat lexikalizatu eta *-a* D-elementua gehitu zaio; horrenbestez, izen hau ez da esanguratsua hizkuntza arrunteko determinatzaile sintagmen osaeraren gorabeheretarako.

<sup>379</sup> Leku-izen hau *Anuzquita* da 1025eko *Reja*-n. Baliteke *Anuzquita* zaharraren eta *Anuntzeta* modernoaren arteko aldeak *ahuntz* hitzarekiko lotura erraztea: lehenean, *-keta* dagoela dirudi, hitza txistukariarekin bukatuko balitz bezala, bigarrenean bokalez amaituriko hitzei dagokien *-eta* soila, eta hitz honen eztabaida etimologikoan *\*-tzV* eta *\*-tz* duten protoformak proposatu izan dira, amaierako bokalarekin eta gabe, hain zuzen. Ik. *EHHE* s.v. *ahuntz*.

*Gá-ce-ta*, *I-ñú-rrí-ta*, *Sá-se-ta* eta *Télleta* leku-izenetan, kontrakzioa aipatzen du azentu irregularren sorburutzat, denak lau edo bost silabako formak dituztelarik jatorri; orobatsu *Men-da-róz-que-ta*, zein hexasilaboren kontrakzio den argi ez badago ere (< *mendaro* + *hotz* + *-keta*?). *Sáseta*-ren kasua garbitzat jo bageneza ere (< *Sagassaheta* 1025ean; cf. halaber *Azázeta* < *Azazaheta* 1025ean), besteen ez da hain argia, izan ere *O-cé-ta* (< *Ozaeta*) leku-izenean antzeko kontrakzioa baitago baina azentuaren aurreratzerik gabe. Nire ustez, sinpleagoa litzateke esatea horietan azentuera proparoxitonoko eredua zabaldu dela.

Berdintsu gertatzen da *-aga* atzizkiarekin; honako salbuespen hauek dakartza Knörrek: *A-rrí-za-la*, kontrakzioz azaltzen duena (< *Harrizavallaga* 1025ean), baina *A-mé-za-ga*, *O-sí-na-ga*, *U-rré-cha-ga* eta *Sa-rá-sa-ga* leku-izenen azentuerrako ez du azalpen garbirik, ez bada, arestian aipatu bezala, eredu proparoxitonoa zabaldu. Aipagarria da, Knörrek zerrendetan ez badakar ere (lehenago du aipatua), egungo *Urrúnaga*, arautik kanpoko azentuarekin: ohartzekoa da *Reja*-n *Húrnaga* ageri dela, sinkopa eragin duen azentu grafiko eta guzti.

#### 5.4 Berreraiketa proposamen honen laburpena eta ondorioak

Proposaturiko deklinabide mugatuaren berreraiketa diakronikoaren laburpena dira 5. eta 6. taulak; bertan ageri denez, erakusleen gramatikalizazioz azaltzen da deklinabide mugatuaren diakroniaren muina. Eredu eransleak ere bere tokia izan duela agertu dut (5.2.1 (b) atala), baina nabarmenduz eredu horrek ez duela azaltzen deklinabide mugatuaren funtsa, eta bere osieran kronologikoki ere beranduagokoa dela.

Gramatikalizazioaren ereduaren barrenean, bi orokortze edo ideia nagusiren bidetik jo dut: (1) leku-kasuetan artikulua gutxiago erabiltzen da, kasu-marka horiek dituzten sintagmek sintagma trinko bat osatzen dutelako eta edozein D-elementuren erabilera galarazten edo zailtzen (5.2.3 eta 5.2.4 atalak); (2) deklinabide mugatu plurala, kasu gramatikal zein leku-kasuetan, ez da inoiz egon izenari hain lotua, eta ez da arrazoirik izan pluraleko sintagmetan D-elementuen gramatikalizazioa galarazteko.

Emaitza morfonologiko ezberdinak azaltzeko ez ditut ezinbestean erabili



kronologia fonetiko erlatiboak (5.2.3.8 atala): egitura sintagmatikoan singularreko zein pluraleko *izena + D-elementua* sintagmak garai bertsukoak izan badaitezke ere, D-elementuak maila ezberdinetan egon daitezke gramatikalizatuak, egitura ezberdinetan ari baitira gramatikalizatzen (horrek dakarren guztiarekin: sintagmak oso funtzio sintaktiko ezberdinetan erabiltzea, erabilera maiztasun ezberdinekin eta abar).

Proposamen honek argi uzten du deklinabide mugatuaren erakusle jatorri erabatekoa eta elementu arrotzik gabea; era berean, morfologiaren berreraiketarik harago doazen zenbait zehar ondorio dakartza, hala nola deklinabide mugatu pluralaren azentuera azalpen bakarraren pean ezartzeko aukera eta numeroaren araberako ergatibitate erdibitu batez mintzatzeko aukera. Horretaz gain, berreraiketa eredu honek hainbat ondorio ditu erakusleen diakroniarako, ondoko atalean ikusiko den bezala.

Puntu konkretu hauetan laburbil daitezke nire proposamenak:

- (a) Inesibo singularreko *-an* ez dator *-gan* batetik, jatorrizko *-han* D-elementu batetik baizik (5.2.3 atala).
- (b) Epentesiaren auzia, gramatikalizazioaren ikuspegitik, egitura sintagmatikoen testuinguruan kokatu behar da.
- (c) Analisi honen pean morfologiako arazo berri zenbait identifikatzen dira, bereziki pluralari dagozkionak: cf. bereziki pl. *-ak* atzizkiak *-en*, *-ek*, *-etan* eta besterekin dituen ezberdintasun morfonologikoak, azentuzkoak eta abar (5.2.5.1 eta 5.2.5.3).
- (d) Leku-kasuetako *-eta-* osagaiaren euskal jatorria aldarrikatu dut, eta Schuchardten mailegu latindarraren hipotesia errotik baztertu (5.2.6 atala).
- (e) Deklinabide mugatu pluralaren azentuerari azalpen bateratua eman diot, bereziki erg. *-ek* eta gen. *-en* atzizkien azterketaren bidetik (5.2.7.3 eta 5.3 atalak).
- (f) Beriainen deklinabideko zenbait <h> aintzat harturik, hasperenak Nafarroan zenbait hitzetan XVII. mendera arte iraun zuelako hipotesia zabaldu dut (5.2.7.4 atala).
- (e) Bide jakin bat ireki dut pluraleko *-ak* eta *-ek* atzizkien analisi morfologiko diakronikoarekin: numeroaren araberako ergatibitate erdibitu bat deskribatzen has gaitzke (5.2.5.2, 5.3.1 eta 5.3.2 atalak).

### 5.5 Zenbait ohar erakusleen berreraiketaz

Erakusleen berariazko berreraiketa saio orokorra egiteke badago ere, aurreko ataletan deklinabide mugatuaz proposaturikoak hainbat ondorio ditu erakusleen berreraiketarako. Atal honetan, horiek aletuko ditut, deklinabide mugaturako proposaturiko berreraiketa ereduari inplizituki emanak badaude ere.

Argudiobide nagusi honetan sustengatuko da erakusleen zeharkako berreraiketa: deklinabide mugatuan dauden atzizkiak orokor xamarrak dira, eta, inoiz erakusle izan zirela onarturik, pentsatu behar da erakusleen forma arkaikoa gorde dutela. Argudiobide hau lehenago erabili izan da erakusleen berreraiketari: artikularen forma orokorra *-a* denez, proposatu ohi da erakuslearen jatorrizko forma, *a* eta (*h*)*ura* forma nagusien artean, *\*(h)a(r)* dela (ik. 2.3.2 (a) atala),<sup>380</sup> are gehiago, irizpide beraren arabera zedarritu zuen Lafonek berak *han*-en lehenetako kronologikoa, *hartan* formaren aldean (ik. 5.2.3 atala).

Atal honetan, argi geratuko da argudio modu klasiko hau zabaltzeak nolako onura dakarren beste hainbat erakusle formen berreraiketarako.

#### 5.5.1 Erakusleen hasierako kontsonantearen jatorrizko izaera

Jakina den bezala (ik. 2.3.1 atala), ez dago ahobateko iritzirik erakusleek jatorrian lehen hots gisa izango zuten kontsonantearen izaeraz: hasperena, herskari belar ahostuna eta ahoskabea proposatu izan dira. Auzia erabat ebazteko asmorik gabe, zenbait argudio emango ditut jatorrizko kontsonantea /h/ zela erakusteko:

- (a) Jatorrizkoa *\*ka* 'hura' herskariduna balitz, ez legoke argi nolaz den artikulua beti *-a*, ez *\*\*ka*; onartu beharko genuke artikulua sortu baino lehenagokoa dela herskariaren galera, edo bestelako aukerak aztertu beharko genituzke (beste lan

<sup>380</sup> Etxeberriaren arabera (2005: 191-192), bizk. *a* → *hura* gertatu ez izana arrazoi bati egotz dakioko: hizkera horretan *a gizona* erakusleduna *gizona* artikuludunetik bereizteak galaraziko zuen aldaketa. Baina azalpen hau ezin da osoa izan, *a gizona* bezalakoak berantiarak baitira, eta XVI. mendean, adibidez, ez dago horrelakorik. Joseba Lakarrak ohartarazten nauen bezala, *Errosariyo*-koak dira (~1780), ziur aski, dokumentatzen diren lehenak; ez dirudi Ibarge-eko *Aguichona* eta *a Cherren* deiturak egitura honen adibidetzat har litezkeenik (ik. 5.5.2.2 atala). Azkuek iradokitzen du *hau etxe hau* moduko sintagmak gatzelaniaren eraginez sorturikoak direla (*Morf* §652bis).

batean, artikulua mendebaldetik ekialdera zabaldu zela proposatu nuen, baina orain ez zait beharrezkoa iruditzen aukera hau; ik. Manterola 2006: 664-665).

Bestalde, erronk. eta zar. *kura* herskariduna berrikuntza, da bestela ere, berriagoa baita *hura* aldaera *ha* aldaera baino (ikus 2.3.2 (a) atala); herskaria ere berriagoa dela pentsaraz lezake honek. Ahultasun bat proposa liteke argudio honetarako, pentsa baitaiteke herskaria, erakusleen ezaugarri izanik, forma berregituratuetara ere ekarri zela forma zaharretatik. Bestela esateko, morfologikoki berriagoa izateak ez du ezinbestean esan nahi bere fonologia guziaz berria denik; horren lekuko da *hura* hasperenduna. Baina, era berean, herskariaren hipotesiak ez dakar *hura*-ren etimologiarako aurrerabiderik; jatorrizko hasperenaren hipotesiak bai, ordea, ikus erakusleetako *hur*-en aukera 5.5.3.3 (c, iii) eta 5.5.3.4 ataletan.

- (b) D-elementuez (eta, hortaz, erakusleez) ditugun lekuko zaharrenek /h-/ dute (cf. Erdi Aroko *-heta* eta *-hen* ugariak; orobat *-ha* urriagoa).
- (c) Badaude aldaera herskaridunak Erdi Aroko lekukoetan (cf. *-keta*; aintzat hartzekoa da, bestalde, *azken* hitzaren orokortasuna), baina testuinguru fonetiko jakin batean daude, hasperenarekiko banaketa osagarrian: txistukari ondotik agertzen dira beti. Hots, testuinguru fonetiko jakin baten baldintzapean dago herskaria. Hau agerikoa suertatzen da *-aga* atzizkiari begiratuta, jatorrian hasperena izanik ere (cf. *-haga* duten Erdi Aroko adibideak), *\*\*kaga* aldaerarik ez duena: nire ustez, *-haga* ez zen txistukari ondotik gertatzen, tartean *-e*-epentetikoa zegoelako, gramatikalizazioaren hastapenean, bederen; arrazoi morfonologikoengatik ez dugu, hortaz, *\*\*kaga* aldaerarik (cf. agian *Ameçeaga* etab.; ik. 4.5.1 (b) eta 5.2.5.3 (f) atalak).
- (d) Deklinabide mugatuan ez dugu kontsonantearen aztarnarik: sinpleena da pentsatzea hasperena izan dela galdutako hotsa, sintagma barrenean herskari bat hain modu orokorrean galtzea zailagoa baitirudi: hots, zaila da azaltzea *\*\*mendiketan*, *mendikek* > *mendieta*, *mendiek* bilakaera.<sup>381</sup> Irizpide hau atal

<sup>381</sup> Martineten ereduaren arabera (1950: 228-229), baliteke hitz hasieran hainbat herskari galdu izana,

hasieran aipaturiko irizpide orokorra da, adibidez *(h)æk* eta *(h)ek* formen artean jatorrizkoa zein den erabakitzen lagunduko gaituen bera: deklinabide mugatuan gorde da jatorrizko forma, eta bestelako formak berriturikoak edo berregituraturikoak dira (ik. behean, 5.5.3 atala).

- (e) Erronkarietazko lekukotasun zaharrenetan ez dago ia herskariaren arrastorik: XVII. mende hasierako Rosen gutunetan behin baizik ez dago herskari belarra — ahostuna gainera, ez ahoskabea—, *gauça guengati* adibidean. Beste guztietan, eta asko dira, gehienez ere hasperena dago erakusleetan, edo <h> grafikoa bederen: cf., lehen gradukoaren artean, singularreko *gutun auor*, pluraleko *gauça huec*, izenordain lanetan *huec*, eta abar; hirugarren gradukoaren artean, cf. singularrean *ceren ura ezpaita gure juez*, eta pluralean *hec*, *urac* eta halako izenordainak.<sup>382</sup> Ikus IV. eranskina, Rosen erakusleen zerrenda osorako.

Orobat esan daiteke zaraitzuerari buruz. Herskaririk gabe agertzen da esaldi honetan *ori* erakusle izenordaina (Maiora 2011: 104): *encuna baycic espadaguic ori estuc denare eta (?) lagun daquiala*; 1598ko data duen agiri batekoa da esaldia, Otsagabiko alkateak esandakoa.

- (f) Erraz azal daitezke, gainera, gerora ditugun datuak, hau da, erronkarietazko eta ekialdeko erakusle herskaridun eta herskarigabeen arteko banaketarenak: erakusle herskaririk gabeak izenordainetan gorde dira, inon gordetzekotan. Arau edo joera ezaguna da hau, berregituratze edo aldaketa gutxien izandako erakusleen formak izenordainetan gordetzearena, alegia, eta adibide klasikoa dugu latinetik gaztelaniarako bidean: lat. *ille* erakuslea dago gaztelaniazko *él* izenordainaren eta *aquel* erakuslearen jatorrian; *él* izenordainak gorde du jatorrizkotik hurbileneko itxura, zenbait lenizio fonetikorekin, baina berregituratze morfologiko sakonik gabe; *aqué* erakusle berria osatzeko, ordea, berregituratze morfologikoa gertatu

---

baina D-elementuak ez dira inoiz gertatzen posizio horretan. Bestalde, aurreko lan batean (Manterola 2006: 664-665) proposatutako azalbidea gaitzesten dut orain: hartan, herskariaren jatortasunaren alde argudiatu nuen, artikulua mendebaldetik ekialdera zabaldu zelakoan; nire ustez, ez da horrelako azalpenen beharrik, deklinabide mugatua orokorra den neurrian.

<sup>382</sup> Burgiko sorginkeria auzietan bilduriko testuan *aren* erakuslea dugu, *SorgNaf eta Andre Dona Mariaz, eta aren semeaz* esaldian; hastapeneko herskaririk gabe dago, baina izenordain funtzioan agertzen da, hizkera horietako egoera modernoan bezalaxe. Ez da, horrenbestez, eztabaidarako adibide esanguratsua.

da. Euskaraz ere arau edo joera honen zenbait adibide zerrendatu daitezke:<sup>383</sup>

- (i) Lazarragak *a* erakuslea izenordain gisa darabil, eta *oa* berria da erakusle izenondo funtzioan erabiltzen dena (Mounole 2014: 3.4 atala);<sup>384</sup> argi dago *a* dela forma zaharretik hurbilen dagoena, besteak beste, euskal eremu osoan geratu baita *-a* artikulua gisa. Landuchiok ere badakar *oa* forma hori, eta esanguratsua izan daiteke *el*, *articulo* sarrerapean ekartzea, hots, ezinbestean “izenondo” den osagai baten sarrerapean.
- (ii) Belapeireren testuan, *hek* erakusleak izenordain funtzioa baizik ez dezake bete, eta *haiek* formak erakusle izenondo zein erakusle izenordain funtzioak izan ditzake, ik. VII. eranskineko 77. taula.<sup>385</sup> 5.5.3 atalean azaldu bezala, *haiek* bezalako formek berriago behar dute.
- (iii) Erronkarierazko *ori* errespetuzko erakuslea izenordaina da, eta *kori* forma dugu erakusle sistema berrituan, erakusle izenordain funtzioan baina baita izenondo funtzioan ere agertzen dena. Orobatsu gertatzen da erronk. *ura* izenordainarekin, Hualde Maioren ebanjelioan, bederen: beti izenordain gisa agertzen dira (*h*)*ura* eta (*h*)*urac*; izenondo eta izenordain moduan agertzen dira, berriz, *cura* eta *curac*; ik. V eranskineko taula. Berariazko azterketaren faltan, nire aurreikuspena litzateke patroï bera antzematea erronkarierazko, aezkerazko eta zaraitzuerazko beste testuetan.
- (iv) Lizarraga Elkanokoaren datuak berdin azal daitezke: erakusle izenordainetan eta adberbialetan daude, berriro ere, herskaririk gabeko

<sup>383</sup> Diesselen arabera, hala ere, “most languages use the same demonstrative forms in the position of independent pronouns and adjacent to a cooccurring noun” (1999: 60).

<sup>384</sup> Landuchiok ere badakar *oa* erakusle hau: *vera*, *orrec*, *oa* “el, articulo”.

<sup>385</sup> Antzeko banaketa ikus daiteke beste erakusleetan ere. *Euskal Klasikoen Corpus*-ean Belapeireren kateximan *hen* beti da izenordain (37 agerraldi) eta *haien* izenordain (22 agerraldi) zein izenondo (agerraldi bat); *hetaz* beti da izenordain (2 agerraldi) eta *haiez* beti izenondo (agerraldi bat); *heki* beti da izenordain (2 agerraldi) eta *haieki* izenordain (agerraldi bat) eta izenondo (agerraldi bat); *her* eta *haier* beti dira izenordain (7 eta 6 agerraldi, hurrenez hurren), ez dago izenondo funtzioaren adibiderik. Itxura denez, *haie*- formak bakarrik izan daitezke izenondo Belapeirerengan. Salbuespen bakarra leku-kasuen izan daiteke: *hetara* izenordain (9 agerraldi) eta izenondo (agerraldi bat) izan daiteke; *hetan* izenordain (6 agerraldi) eta izenondo (3 agerraldi); *hetarik* beti da izenordain (5 agerraldi). Aipatzekoa da *hetara*-k ez izatea *haietara* aldaerarik; *haietan* behin agertzen da, izenondo funtzioan, hain zuzen. Azaleko azterketa izan da hau, eta baliteke irudipen hau datu gehiagorekin osatu beharra.

formak, eta herskaridunak erakusle izenondoetan.<sup>386</sup> Honela dakar *OEH*-k (s.v. *hura*): “Hay *gura* [...] sólo con valor adj., en Lizarraga de Elcano, que usa *ura* como pronombre”. Are interesgarriagoa da Mitxelenak artikuluen formez egiten duen oharra (*FHV* 247, 39 oh.):

En a.-nav. de Elcano tienen en cambio inicial vocálica tanto el demostrativo de 3.<sup>a</sup> pers. en función de artículo como los otros dos en el mismo empleo: *ene eriaú*, *nere escuaú* (Ioh. 20, 25), en Leiz. *neure erhia*, *escua* ‘tón dákutulón mou’, ‘mo tè-n kheîra’; *ceure eri-orí*, *nere escuóc* (20, 27), Leiz. *eure erhia*, *ene escuac*; *bere buruói* (10, 33), Leiz. *eure burua* ‘seautón’. Es lo mismo que ocurre con la aspiración en otros dialectos (supra, 11.9, nota 3).

Goiko (d) puntuaren arabera, D-elementurik gramatikalizatuenetan, hots, deklinabide mugatuko formetan, ditugu jatorrizko formak. Lizarraga Elkanokoaren hiru graduko artikulua sistemak ere herskaririk gabeko formen jatorriaren alde egiten du, beste behin. Are gehiago, Lizarraga Elkanokoa baino berrehun bat urte lehenagokoa den Beriainek ez du *g*- duen formarik; ikus orain Camino (2013: 116).<sup>387</sup>

Laburbilduz, hauxe da argudiobide nagusia: forma zaharra izenordainetan eta artikuluetan (D-elementuetan) gorde da; datu historiko gehiagoren faltan, erakusle izenondoak hartu behar ditugu berritzailatzat.

Oro har hartuta, datu hauek hasperenaren jatorriaren alde egiten dute, eta berreraiki ohi den *\*(h)a(r)* horri, atal honetan aipaturikoak eta Erdi Aroko forma hasperendunak lagun, lehendabiziko parentesia ken dakioke, eta *\*ha(r)* proposatu.<sup>388</sup>

Hala bada, Nafarroan aurki daitezkeen *g*- eta *k*- hasieradun erakusleak moderno antzekoak direla proposatu beharko da, eta berariazko azalpena eman beharko zaie bilakaera horiei; ziur aski funtzioen araberrako bilakaera gertatu da, baina xehetasunak

<sup>386</sup> Antzeko datu batzuen berri ematen dit Céline Mounole irakasleak, Ondarrak (1981) editaturiko 1729ko sermoi batekoak: cf., artikuluaekin, *au guciaú*, *neure maldicioau*, *ene entendamentuau*, *bataú* [...] eta *berceau* (ohar bedi, gainera, sintagma hauetako askok edutezko izenordaina dutela aurretik, Mitxelenak dakartzan Lizarragaren adibideetan bezala); erakusle gisa, cf. *debociogau*, *privilegiogau*, *predicugau*, *exemploau*. Atal honetako irizpide orokorra antzeman daiteke adibide hauetan, berriz ere: deklinabide mugatuan gorde da forma zaharra.

<sup>387</sup> Aipatu beharra dago PNoster 7 *gura jruretán* lekukotasuna. Mitxelenaren ustez, *gura* hori erakusle izenordaina izan daiteke, ‘hura’. Hala balitz, Beriain baino bi mende lehenago genuke *g*- herskaria erakusle izenordain batean, *Pater Noster txikia* XIV. mendekoa baita, itxura guztien arabera.

<sup>388</sup> Ez dut argi, dena den, berreraikitako formetan zein den parentesiaren estatus teorikoa.

azaltzeko daude. Caminok ere berrikuntzatatu ditu eta (2013: 116), bere azalpenaren arabera, baliteke *\*etxe ogek* ‘etxe hauek’ moduko sintagmetatik *etxe goek* izatea gero, metatesiz; cf. gainera Beriainen *ohec* zaharra, eta, metatesirako, *ogatzea* > *goatze* eta beste. Ikus 7.3.1.2 (g) atala xehetasun gehiagorako.

### 5.5.2 Hirugarren graduko erakusle singularraren jatorrizko forma ha da, ez \*ha(r)

Aspaldidanik berreraiki izan da hirugarren graduko erakusle singularra *\*(h)a(r)* formarekin; Van Eysek atal oso bat eskaintzen dio auzi honi, bere hiztegiko sarreraren eranskin batean, *Le pronom démonstratif a-t-il toujours été a?* izenburupean, eta amaierako *-r* horren jatorrizkotasunaren aldeko argudioak ematen ditu.

Nire ustez, lehen hotsari parentesia kendu ondotik, *\*ha(r)* formari bigarren parentesi artean eman ohi den dardarkaria kentzeko argudioak bil daitezke (ik. gaurgero 2.4.2.3 atalean agerturikoak):

- (a) Artikuluaren Erdi Aroko lekukotasun zaharretan ez dago *-ar* formaren aztarnarik, eta honek jatorrizko dardarkaririk gabeko erakusle baten alde egin lezake. Honen aurka, argudia liteke gramatikalizazio prozesuek berezkoa dutela osagai fonetikoaren galera, eta higitze fonetiko goiztiar bati egotz lekiokela dardarkariaren galera, baina, era berean, ohartu beharra dago galera fonetiko gramatikalizazio prozesuetako kronologian azken emaitza gisa deskribatu izan dela (1.1.7 atala).
- (b) Aurreko puntuari eragozpen moduan ekarritako argudioa baztertu beharra gertatzen da, bizkaierako *a* erakusleari begira jarriz gero ere: forma honi dagokionez, ustezko dardarkariaren galera ez litzateke erraz azalduko gramatikalizazio prozesuetako soiltze fonetiko arrunten barrenean, bizk. *a* erakuslea ez baitago D-elementuen gramatikalizazio kate baten eskuin muturrean.
- (c) Badirudi deklinabide mugatuko ergatibo singularreko *-ak* atzizki orokorrak ere dardarkaririk gabeko *hak* baten alde egiten duela, nahiz eta, berriro ere, jatorrizko *hark* baten alde ere argudia litekeen, gramatikalizazio bilakaeran murrizketa fonetiko gertatu dela esanda. Dena den, ergatibo singularreko *-ak* morfemaren

jatorria pluraleko *-ak* atzizkiarenarekin berdintzen badugu (ik. 5.5.5.2 atala), ohartzekoa da lekuko zaharretan *-haga* dugula, berriro ere *-r* gabeko formaren alde.

Proposamen honen aurka, esan beharra dago (*h*)*ark* forma antzinakoa dela: Etxeparek, Leizarragak, espioitzako gutunetako autoreak, Lazarragak eta Landuchiok erabiltzen dute; *ak* forma, berriz, RS-n eta IbarGCEs-en aurkitu dut XVI. mendean.

- (d) Bide beretik, deklinabide mugatuko *-an* formari begira, erabakitzen badugu erakuslearen inesibo singularreko *han* forma *hartan* baino zaharragoa dela (ik. 5.2.3 atala), badirudi hirugarren graduko erakusle singularraren jatorrizko formarako ezin dugula amaierako *-r* dardarkaririk berreraiki: hots, *han* forma azaltzeko, *ha* + *-n* proposatzea aski da.

Hurbileko inesibo mugatuko *-on* formak ere ikuspegi honen alde egiten duela dirudi: bere jatorrian *\*hon* erakuslea dagoela onartzen badugu, badirudi bere jatorrizko osaera *hau* + *-n* zela, diptongoaren bakuntzearekin; ez dago hor dardarkariaren aztarnarik. Ikuspegi honen arabera, *haur* bezalako formek osaera konplexukoak behar dute, eta aukera bat baino gehiago dago bere jatorria azaltzeko: (1) Rosen erronkarierazko *auor* forma kontuan hartuta —adibide bakarra dago, *aor* ugariagoaren aldean, eta ezin da huts baten aukera baztertu—, aukera bat da *hau* + *hor* bezalako osaera baten alde egitea; (2) beste aukera bat da *ha* + *hur* moduko osaeraren batean pentsatzea, ik. 5.5.3.3 (c, iii) atala.

- (e) Azkenik, Van Eysen proposamenaren aurka, ohartu beharra dago izenordainetan ere *-r-* ageri dela: cf. *hire*, *hiri*, *gure*, *guri*..., baina hauetarako ez da *\*\*hir* edo *\*\*gur* bezalakorik proposatzen.

Ikuspegi honek talka egiten du Lakarraren (2008: 484, 2013a: 584, 41 oh.) proposamen batekin: bere ustez, *\*har* forma berreraikiari jatorri lexikoa bilatu ahal zaio, *hartu* partizipioaren erroarekin lotuz. Hipotesi honek bi motatako arazoak ditu:

- (a) Batetik, Lorden lanean oinarritzen da ‘hartu’ > erakusle bilakaera proposatzeko; Lordek (1993: 114-117) gogora dakar txinerazko *bǎ* ‘hartu’ objektu markatzaile



izatera iritsi dela, eta *bã*-rekin ageri diren izenek interpretazio definitua dutela beti. Nire ustez, hortik ezin da ondorioztatu ‘hartu’ esan nahi duen aditz bat erakusle izatera irits daitekeenik: erakusleetatik artikulak definiturako bilakaera ongi dokumentatua dago, baina ez dut aurkitu objektu definituen markatzaile den osagai morfologiko batetik erakusle beregain bat sortzea posible dela erakusten duen adibiderik (gramatikalizazioaren norabide bakarrekotasunaz, ikus 1.1.7 atala).

- (b) Bestetik, Lakarra onartzen ari da *ha* erakusleak jatorri lexikoa izan behar duela, eta hori ez da ezinbestean hala. Diessel (1999: 150-152) berariaz arduratzen da erakusleen jatorri diakronikoaz, eta hona zein den bere ondorioa:

Grammaticalization theory holds that all grammatical items are eventually derived from lexical expressions [...], but there is no evidence from any language that demonstratives developed from a lexical source or any other source [...] As Himmelmann (1997: 20) notes apart from those cases where a demonstrative developed from a lexical item that functioned to reinforce a weakened demonstrative, there is no convincing evidence from any language that demonstratives may have evolved from a lexical source [...] All this suggests that demonstratives are not ordinary grammatical markers, and hence it would make sense if they do not derive from lexical items as all other grammatical markers.

Diesselen orokortze hau Planken gogoeta batetik abiatzen da, elementu gramatikal ororen jatorria osagai lexikoetan ote dagoen zalantzan jartzen duena. Plankek dioenez (1979: 331-332), zenbait kategoria gramatikaletan, non formaren eta esanahiaren arteko lotura ikonikoa den (sinbolikoa baino gehiago),<sup>389</sup> aintzat hartu behar da osagai morfologikoak sortzeko bestelako bideak egon daitezkeela; erakusleak talde honetan sartzen ditu.<sup>390</sup> Hala dio Schulzek ere: “We can hardly tell what the lexical basis for many such [demonstrative] pronouns has been [...] Very often it seems there is a strong phonosymbolic or phonesthematic relation between form and meaning/function” (2003: 292); eta Hymesen (1972) eta Woodworthen (1991) lanak ekartzen ditu gogora, harreman fonosinboliko horren berri ematen dutenak. Eta honela segitzen du Schulzek, beheraxeago: “[T]he

<sup>389</sup> Bereizketa honi buruzko eztabaidarako, ik. Diessel (2012).

<sup>390</sup> Frajzyngierrek (2010) jatorri lexikoa ez duten beste gramatikalizazio adibide batzuk ere ematen ditu, eta zenbait hizkuntza txadikotan tonua nola gramatikalizatu den erakutsi. Dena den, Frajzyngierrek gramatikalizazioaren ikuspegi zabalagoa darabil.

phonetic make-up of demonstrative pronouns often differs from what can be assumed to be canonical for the phonotactics of the lexicon”. Lakarrak erakusleatarako ere CVC egitura bilatu nahi du, baina baliteke gramatikaren atal honetan horrelakorik ez izatea. Bukatzeko, nire ustez euskal erakusleen azterketen egoera laburbiltzen duten hitzak idazten ditu Schulzek: “[D]eictic elements have always been deictic as long as we cannot demonstrate a different origin” (2003: 294).

Atal honetan, argudio zenbait eman ditut *\*ha(r)* formarekin berreraikitzen dugun erakusle singular urrunak amaierako dardarkaririk ez duela proposatzeko, eta agerrarazi jatorri lexiko bat bilatzea zaila dela. Honenbestez, jatorrizko forma *ha* litzateke, eta erakusle sisteman *ha/he* bikotea genuke, singular/plural bereizketarekin. Baina, hala balitz, zer da *-r*? Agian beste zenbait osagai gramatikaletakoekin lot daiteke: badirudi *nor* eta *zer* izenordain galdetzaileetan *no-* eta *ze-* bereiz daitezkeela; cf. bereziki *no-la*, *no-n* edo *no* bera. Mitxelenak ere bide hau aztertu zuen, eta honako hau esaten du ustezko *-r* atzizkiak: “Se trata acaso de un antiguo morfema de declinación o de derivación” (*FHV* 335-336, eta 16 oh.); bere arabera, bizkaieraz eta gipuzkeraz arrunta da *zer/ze* bereizketa egitea, izenordain eta izenondo, hurrenez hurren. Mikoletaren adibideak dakartza Mitxelenak: *Ser nay daude almorzadu?* eta *Se ordu dá?*, baina are lehenagokoak ere topa daitezke, hala nola Iburguen-Cachopinen kronikan, ArrasErreIII 24 *semea çerdoc orrelan* eta IburgCEs B3 *Aita bichia, se bichiac dira onec?*. Argudiobide honen barrenean, ez da baztertu behar bizk. zah. *nok* bezalakoak arkaismo izatea (cf. *RS* 21 *noc gudura aroa*).<sup>391</sup> Nire ustez, *-re* genitibo zaharra izan daiteke *-r* hori, azken *-e* galduta (*zer* < *\*zere*); zailagoa dirudi *-ra* adlatibokotik abiatzea. Partitibo balioa zukeen genitibo horrek, eta horrek azal lezake, agian, *zer* izenordain / *ze* izenondo bikotea. Erakuslearen kasuan, aztertzeke legoke jatorrian zer sintaxi zegokeen *hark* formaren osagaien artean.

<sup>391</sup> Hipotesi honen aurka, ohartarazi liteke *Euskal Klasikoen Corpus*-aren barrenean lehenetsun kronologikoa dutela *zerk* edo *nork* bezalakoek, *zek* eta *nok* modukoaren aldean. Baina, corpus honetan, ez daude jasoak ez Garibairen adibideak ez eta *RS*-koak ere. Antzekoa esan daiteke ergatibo singularreko *hark* eta *hak* formez: askoz ugariagoa da *hark* forma corpus horretan; Leizarragak, adibidez, hori baizik ez darabil.

### 5.5.2.1 Hirugarren graduko erakusle singularraren jatorrizko forma eta lekukotasun idatzi bat

Atal honetako orain artekoan hainbat xehetasun eman ditut hirugarren graduko erakusle singularraren protoformaren inguruan. Honela laburbil daitezke:

- (a) Mendebaldeko *a* aldaeraren eta beste euskalkietako *aura*, (*h*)*ura* eta abarren (cf. Land. *oa*) artean lehena jo izan da jatorrizko formatik hurbilenekotzat.
- (b) Berreraiketa klasikoaren araberrako *\*(h)a(r)* protoformaren hasierako hasperenari parentesia kentzeko zilegitasuna aldarrikatu dut, eta erakusleen hasierako hotsaren izaeraren gaineko hainbat ohar egin, hasperenaren jatorritasunaren alde. Protoforma are gehiago zehaztu, eta *\*ha(r)* irudika zitekeela proposatu dut.
- (c) Bukaerako dardarkariaren izaera aztertuta, iradoki dut *\*ha* izan zitekeela jatorrizko forma, dardakaririk gabe.

Baliteke hiru zehaztapen hauen aldeko datu bat izatea berriki argitaraturiko Maioren (2011: 81) liburuan: cf. 1582ko Urrozko adibidean *guycona charduc bufetabat emanagatic quexasen den ha* (itzulpenean *ruyn es el hombre que por un bofeton que le dan se quexa*). Bi modutara da berebizikoa Urrozko adibide hau. Batetik, <h> grafikoari balio fonikoa aitortu zein ez, argi dago *ha* D-elementua aditzetik bereizia dagoela, eta, hartara, argudia daiteke artikulua baino erakusle izatetik hurbilago dagoela. Berebizikoa da hau, izan ere mendebaldetik kanpoko *a* itxurako erakusle baten adibidea baikenuke; honek forma horien garai bateko hedadura zabala eta orokortasuna ziurtatzen du, eta egun zabalduen den (*h*)*ura* formaren berritasuna are nabarmenago uzten. Bestetik, <h> grafemak hasperena adierazten duela onartzen badugu, berreraikitako *\*ha* erakuslearen protoforma lekukotua genuke, eta *ha* jartzearekin aski genuke. Hurrengo azpiatalean ideia honetan sakonduko dut, eta ekialdean *ha* gehiago aurki daitezkeela aldarrikatuko.

### 5.5.2.2 Ibarguen-Cachopínen lekukotasuna eta iparraldeko autoreen interjekzioetako *ha*

Nire ustez, eztabaida berean sar daiteke interjekzioetako *ha*; horrelaxe, hasperen eta guzti, ageri da iparraldeko hainbat autoregan.

Proposamen honen abiapuntu gisa, merezi du gogora ekartzea Altubek *a*-ren zenbait erabileraz egiten duen oharra: “En la comarca gernikesa al menos, la vocal *a* de las locuciones como *a mutil*, no tiene significación exclamativa, sino la de un morfema que determina el carácter vocativo de esa clase de expresiones; así se dice: *A mutil ¿Aita non dok?*” (1934: 49-51).

Aipu honetan, Altubek bokatibotzat ditu *a* duten sintagma hauek, ez harridurazkotzat, eta, dirudienez, lagun duten izenek ez dute artikulurik hartzen (*a mutil!* esapidean *mutil* mugagabea dugu). Badira, ordea, antzeko esapideak, harridurazkoak: adibidez, *a ze parea!*. Nire ustez, hauetan guztietan aurretik jartzen den *a* hori erakuslea bera da; Iburguen-Cachopinen hitzak irakurrita, argi geratzen da *a* erakuslearen eta *a* interjekziozkoaren arteko lotura hau (Arriolabengoa 2008: 157):

*Aguichona (a guichona)*: “Estos dos caudillos se dezían, al de Andramendi *Embiañido*, y al de Iburgüen *Aguichona*” (II: 676); “Este bocablo de *Aguichona*, según el bascuence antiguo, en él quiere tanto dezir como en castellano ‘aquel hes hombre’, como si más claro dixésemos ‘aquel hes hombre baliente’.

Iburguen-Cachopinek berak izena mugagabean duen beste adibide bat dakar: “Íñigo Sáez de Iburgüen, con[ominado ...] *a Cherren*, que quiere dezir [... ....] porque hera muy desabrido en cualquiera ocasión” (Arriolabengoa 2008: 160); zoritxarrez, esanahiaren berri ematen duen pasarte ez daiteke irakur, baina argi dago egitura beraren adibidea dela.

Kontuak kontu, Iburguen-Cachopinen *a gizona!* moduko esapideek ordain betebetea dute *hura gizona!* bezalakoetan, zalantzarik gabe erakuslea dutenak; alde horretatik, proposamenak ez du bestelako irozgarriren beharrik. Badirudi, bestalde, esapide hauetan, *a* osagaia erakusle izenordain bat dela, izen sintagma soilaren (*txerren*) edo sintagma mugatuaren (*gizona*) aurretik jarrita balio kataforikoarekin.

Euskaratik kanpo, gogora ekar daiteke Ipar Ameriketako ing. *ataboy* esapidea, paralelo moduan: *that (is) a/the boy* da jatorrian, ziur aski (*OED* s.v.).<sup>392</sup> Irakur, halaber, Wang eta Caoren lana (2014): erakusleetatik datozen interjekzioak deskribatzen dituzte txinerazko *huangxiao* dialektoetan, eta, horiek bide hartuta, beharra ikusten dute

<sup>392</sup> Beste jatorri bat izan lezakeela uste du Libermanek, *a tout a boy!* (2000: 209, 2006).

kategoria berri bat gehitzeko Diesselen (1999) erakusleen sailkapenean, “demonstrative interjections”; beharbada, eztabaida berean koka litezke euskal datuak ere.

Harridurazko esaldietako *a* horrek erakuslearekin dukeen lotura are nabarmenagoa gertatzen da hasperena duen *ha* ere aldaera soil gisa sartzen badugu eztabaida berean. Iparraldeko hainbat autoregan *ha* aurki daiteke kidekoak diren harridura esaldietan: cf. Ax 174 *Ha cer bidea eta moldea*, 599 *Ha gau lucea*, 605 *Ha mundu çoroa*, beste hainbat adibideren artean; Materra 242 *ha ene Salbatçaillea*, 265 *Ha cerüetaco iaquia*; PovvFil 60 *Ha miserablea*, PovvGud 119 *Ha sugue madaricatua!* eta beste; zubereraz, cf. SermZub 54 *Ha beccatoria* eta 68 *Ha jauna*.

Honenbestez, iparraldeko testuetako *ha* hori jatorrian erakusle dela onartzeak ez du zailtasun handirik: batetik, agertzen den egiturek paralelo bete-betea dute erakusle garbiak dituzten beste esapide batzuekin, euskaraz eta euskaratik kanpo, eta, bestetik, harridurazko *ha* bera hasperenduna izateak are gehiago indartzen du erakusle jatorriaren hipotesia. Nolanahi ere, ohar bedi egin gabe dugula harridurazko esapideei buruzko lan xehea, eta egin gabeko lan horren aiduru geratzen direla, beraz, hipotesi honen xehetasunak.

Hipotesi honek *ha* erakusleaz dugun ikuspegia osatzen du: mendebaldean ez ezik, ekialdean ere iraun du (*h*)*a* erakusleak, *hura* berriagoaren ondoan; mendebaldean ez bezala, ordea, ekialdean funtzio sekundario batean gorde da *ha* forma zaharra. Ezaguna da Kuryłowiczen legea, zeinaren arabera forma zaharrak bazterreko funtzio batean irauten duen; harridurazko esapideen esparruan, gainera, bada euskaraz antzeko kasurik: genitiboko *ene* izenordaina harridurazko esaldietan baizik ez da erabiltzen gaur mendebaldean, *ene!*, eta funtzio nagusia *neure* edo *nire* formek dute hartua.

### 5.5.2.3 Ohar bat leku adberbioez

Aurreko atal batean (5.2.3), aipatu dut *han* zela erakusle singular urrunaren jatorrizko inesiboa, eta halaxe dugu *-an* atzizkia deklinabidean; euskara modernoan *han* bera adberbio moduan gorde da, eta forma berri batek hartu du funtzio nagusia, *hartan*-ek.<sup>393</sup>

<sup>393</sup> Aipagarriak izan daitezke Doroteo de Miguel uztarroztarraren bi perpausen itzulpenak: “*En aquel monte abunda la hierba. Méndi kan dágo ánitx bélar*” eta “*En aquel monte abundan las abejas. Méndi*

Baliteke lehen eta bigarren graduko erakusleetan ere antzeko zerbait izatea: 5.5.2 (d) atalean esan bezala, *\*hon* izan zitekeen euskara historikoko *honetan*-en kidea; kasu honetan, ez da berau geratu adberbio gisa, baina baliteke *heben* epentesiduna (< *hau* + *-e* + *-n*) sortu eta orokortu baino lehenago *\*hon* honek balio adberbiala garatu izana (Irigoién 1981: 374-376); horren alde egingo luke Lazarg *onerean* ‘hemendik’ formak. Gauzak honela, zilegi da bigarren graduko *hor* ere azalmodu beraren pean ezartzea eta jatorrian *hori* erakuslearen inesiboa zela proposatzea, gaurko *horretan*-en kide; ez da erraza, hala ere, formalki *hor* adberbioa *hori* + *-n* moduko osaera batetik eratortzea. Inesiboetan oinarrituriko formen berritasunaz, ikus 5.5.4.1 atala.

#### 5.5.2.4 Ohar bat modu adberbioez

De Rijken ustez (1981: 94), *horrela* adberbioa jatorrian *horren* + *-la* da, genitiboko erakuslearen gainean osatua. Azalbide hori beste graduetara zabalduz, badirudi gen. *honen* eta *haren*-etik azaldu beharko genituzkeela *honela* eta *hala* ere. Lehen bi graduekin zalantzaren bat izan bagenezake ere, hirugarren graduari dagokionez ez dirudi *hala* forma *haren* + *-la* osaeratik azal daitekeenik.

Nire ustez, sinpleago da pentsatzea hauek ere, beste forma batzuk bezala (5.5.4 atala), inesiboaren gainean osatuak direla: lehen bi graduetan, *hon* eta *hor* + *-la* atzizkia, *-e*- epentetikoarekin *honela* eta *horrela*; hirugarrenekoari dagokionez, ez da baztertu behar zuzenean absolutiboaren gainean osatua izatea, *ha* + *-la*, bokalarteko *-l* > *-r*-bilakaerarik gabe, beharbada modu adberbio hauetan *-la* atzizkia ez zelako erabat lotu erakusleari;<sup>394</sup> absolutiboaren gainean osaturiko 3. graduko erakusleez, ik. 5.5.3.3 (c, iv) atala.

---

*kan dago ánitx érle*”. Baina orobat dira ezinbestean aipatzekoak bere herrikide Balbina Ederra anderearen perpaus berberen itzulpenak: “*Méñdi kartán ba dion ánitx bélatx*” eta “*Méñdi kartán ba dion ánitx érle*” (Estornés Lasa 1982: 469-470). Doroteo de Miguel jaunaren datu horiek aintzat hartuz gero, adibide horietan *kan*-en erakusle funtzio jatorrizkoa geneukake; Balbina Ederra anderearenetan, ezagun da, *kartán* berritua dugu, besterik gabe.

<sup>394</sup> Baliteke horretan oinarritzea *hara* adlatiboaren eta *hala* adberbioaren arteko aldea, onaturik jatorri bera dutela: adlatiboak, erakusleari “gehiago” lotu zitzaionez, oinarri lexiko soil bezala jokatu zuen, eta, lat. *gula* > eusk. *gura* gertatu zen bezala, bilakaera hori izan zuen *hara*-k ere; moduzko *-la* atzizkia, ordea, ez zitzaion maila berean lotuko erakusleari. 3.1.3 ataleko 1. irudiak azalpen bat iradoki lezake: adlatibo irudiaren erdi-erdian dago, izenarekin edo dagokion DS-rekin sintagma bereziki trinkoak sortzen dituzten kasuen artean (cf. 3.1.3.1 ataleko *trinkotze* nozioa). Berriz ere da nabarmena morfema bera fenomeno fonologiko ezberdinen menpe gera daitekeela, betetzen duen funtzioaren arabera.

Inork pentsa lezake hainbat autorerengan aurki daitezkeen *honla* eta *horla* aldaeretan ez dela epentesirik gertatu (cf. adibidez Beriain eta Lizarraga Elkanokoa). Aukera hori ezin bazter badaiteke ere, testuetako datuen argitara irudi luke zaharragoak direla *honela* eta *horrela* formak eta sinkopaz azaldu behar direla *honla* eta *horla*. XVI. mendera arteko nire corpusean, (*h*)*onla* ez dut behin ere aurkitu (1609an Elizalderen poeman aurki daiteke, TAV 3.1.20, 138 bertsoerakoan), eta (*h*)*onela/hunela*, aldiz, ugaria da. Bigarren gradukoari dagokionez, *orrela* edo bere eratorriak Lazarg, ArrasErrek edo SunbLap-en aurki daitezke (hauetan ez dago *orla*-rik), baina egoera apur bat diferentea da Etxeparerengan eta Leizarragarengan: Etxeparerengan *horla* oinarria duten erakusleak zortzi zenbatu ditut, eta bi *horrelaco* (VIII 7 eta XII 31); Leizarragarengan 3 *horla/horla*-, eta 16 *horrela*.<sup>395</sup> Orobatsu gertatzen da XVI. mendean inesiboko *honetan/honetako* eta *horretan/horretako* formekin: nekez aurki daitezke *hontan/hortan* moduko aldaerak.

### 5.5.3 Hirugarren graduko erakusle pluralaren oinarria: bisilaboa ala monosilaboa jatorrian?<sup>396</sup>

Bigarren kapituluaren esan bezala (2.3.2 (b) atala), bi silabako oinarria duten formak hartu ohi dira jatorrizkotzat; hots, konparagai moduan (*h*)*aek* eta (*h*)*ek* hartuta, lehena jo ohi da jatorrizkotzat. Atal honetan, iritzi horren aurka egingo dut, eta jatorrizkoa silaba bakarreko *he*- oinarria dela proposatuko.

Auzi honen konponbiderako sarrera gisa, zinez esanguratsua da Duvoisinek (1866: 39) bilatzen duen irtenbidea; ekar dezadan bere aipua berriro:

La syncope dans le pronom du troisième degré [*haek* > *hæk* > *hek* bilakaeraz ari da] doit dater d'une haute antiquité, puisqu'elle a pénétré dans la déclinaison où elle est très-généralement observée. C'est à cette cause qu'il faut attribuer la conservation du paradigme unique de la déclinaison.

Duvoisinek ere, atal honetako jarraibide nagusiarekin bat, erakusleen berreraiketa deklinabidean dauden formen menpe ikusten du, baina, erakusleen bi silabako

<sup>395</sup> Etxeparerengaren eta Leizarragarengaren datu hauetarako *Euskal Klasikoen Corpus*-eko datuekin lagundu dut nire bilketa.

<sup>396</sup> Atal honetako ideia nagusiak beste artikuluan batean landu ditut (Manterola 2009a).

oinarriaren jatortasuna zalantzarik gabekotzat joz, behartua da proposatzera bi silabako oinarria oso aspaldi bakundu zela. Nire ustez, zuzenagoa da alderantzizko bidea hartzea: deklinabide mugatuan dauden silaba bakarreko oinarridun D-elementuak (*-ek*, *-en*, *-etan* etab.) erakusleen jatorrizko formaren lekuko dira, eta, horrenbestez, berriago behar dute bi silabako oinarria duten gaur egungo erakusleek. Zenbait argudio eman daitezke hipotesi honen alde:

- (a) Duvoisinek nahi duen bezala erakusleetako silaba bakuntzea hain zaharra baldin bada, ez legoke argi nolatan dauden hain zabalduak bi silabako oinarria duten formak. Deklinabidean hain orokorra baldin bada bakuntzea, beronen jatorri den erakusleetan are orokorragoa behar luke.
- (b) Leku-izenetako *-(h)eta* eta *-(h)en* euskal eremu osokoak dira, eta antzinakoak (cf. Erdi Aroko lekukoak); orokortasun hau hobeki azaltzen da erakusleen oinarriaren jatorrizko forma silaba bakarrekoa zela proposatuta, mendebalde-erdialde zabalean deklinabidean arkaismo moduan gorde dena, eta horren aldean *ae-* duten erakusleek forma berritua dute. Aipatu dugu, gainera, *hen* → *aen* bilakaeraren kronologia absolutua ezar genezakeela, *Reja*-ko *Goiahen* superlatiboduntzat analizatuko bagenu, *goi* + *ahen*, non *\*ahen* erakusle berregituratua litzatekeen, *ahen* (ikus 5.2.7.5 (e-f) atalak).
- (c) Mitxelenak dioen bezala (*FHV* 109-110), halako bokal bilkurek (*-ae-* erakusleon kasuan) motibazio morfologiko zehatza izan ohi dute, eta morfema ezberdinen arteko talka erakusten dute; honela dio, gainera, hiato horiek egokitzeko gertaturiko bilakaera fonetikoek: “se trata de fenómenos recientes por lo general y de poca trascendencia [...] para la reconstrucción comparativa”. Laburbilduz, *-ae-* bokal bilkura ez dago jatorrizko lexemetan edo morfemetan aurkitzen, ez ekialdeko hizkeretan ez mendebaldekoetan.
- (d) Jatorrizkoa *-ae-* dela onartuko bagenu, zilegi litzateke hirugarren graduko erakusleetan gertatu uste diren bilakaera fonetikoak erakusleetatik kanpo ere bilatzea, bilakaera fonetikoaren itsutasunaren printzipioari jarraiki.<sup>397</sup> Baina aurki

<sup>397</sup> Gogoan har bedi, hala ere, Schulzeren arabera bilakaera fonetikoak ez direla berdin aplikatzen



ditzakegun adibideek ez dute bat egiten erakusleetan dugun banaketa dialektalarekin: Mitxelenak (*FHV* 117) Leizarragaren *gizerhaile* dakar (< *giza-erhaile*), eta horrek bat egingo luke erakusleetan ikusi uste dugun *-ae-* > *-e-* bilakaerarekin —ustez elkarketarik gabe, cf. halaber erdial. *apaiz* / ekial. *apez*—, baina mendebaldeko edo erdialdeko *asteme*, *amaka* edo *amaika* ere badakartza, eremu horietako erakusleetako hiatuetan dagoenaz bestelako bilakaerekin.

- (e) Altunaren eta Azkarateren lanean (2001: 13-16) Etxepareren eta Leizarragaren erakusleak biltzen dira; silaba bakarreko eta silaba biko oinarriaren arabera sailkatu ditut formak:

- (11) a. Etxepare: *hayec*, *heyec*, *hayen*, *heyen*, *hayez*, *hayetarik* / *hec*, *hequi*, *hetan*, *heçaz*  
 b. Leizarraga: *haey*,<sup>398</sup> *hayen* / *hetan*, *hetarat*, *hetarik*, *hec*, *heçaz*, *hequin*, *hetaco*

Formen irregulartasuna agerikoa da, autore bakoitzaren barrenean ere. Zaila da bi sailak, *-aye-* dutenak eta *-e-* dutenak, jatorrizko *\*hae-* batetik bilakaera fonetiko hutsen arabera azaltzea: zergatik gertatzen da sail batean *glide* epentetikoa, eta bestean, aldiz, erabateko asimilazioa? Zergatik ditugu bi bilakaera fonetiko? Irtenbidea ia bakarra da: morfologikoki ezberdinak dira.

- (f) Berrito ekar daiteke hona 5.5.1 (f, ii) ataleko oharra: erakusleen berregituratzeari dagokionez, onartzen badugu izenordainetan forma zaharragoak gordetzen direla, *-e-* soila duten formen antzintasunaren aldekoa da Belapeiregan *hek* izenordain gisa agertzea (ik. VI. eranskina) eta *haiek* izenordain eta izenondo funtzioak betetzea.<sup>399</sup>
- (g) Aurreko atal batean aipatu dut *ha-*ren harridurazko balioa (5.5.2.2 atala); balio

---

erakusleetan; ik. 5.5.6 atala.

<sup>398</sup> *Hayér* ere bitan aurki daiteke Leizarragarengan, biak *ABC*-n, 1402 eta 1410 orrialdeetan. Ikus hurrengo oharra.

<sup>399</sup> Ohar bedi adibide gutxi direla, hala ere: 3 *hek* eta 6 *haiek*. Argudio honen aurka, testu zaharragoetan, oharrezkoa da Leizarragak bi aldiz darabilela *haiek* forma, nire bilaketan arabera —Altunak eta Azkaratek ez dute Leizarragaren forma honen berri ematen, ikus (10b)-ko zerrenda—, biak izenburu banatan eta biak izenordain gisa: Luc XXIII *Christ Apostoluac benedicaturic, cerurat igaiten, eta hayéc adoratzten* eta 1 Thess I *Paulec haey efficaciorequin hitza predicatu, Hayéc hura tribulationerequin recebitu*; bestalde, *hek* formaren 457 adibideren berri jasotzen da *Euskal Klasikoen Corpus*-ean. Etxepareren kasuan, lau dira *hek* formaren adibideak, beste lau *haiek*-enak eta bat *heiek*-ena; bederatziak izenordain: cf. 1: 31 *Hec veçala hil behar duc*, 1: 128 *Hec nigatic ciradela ari nuçu qhonduya*, 3: 39 *Hec guiçoner vaha valite* eta 4: 28 *Hec dostetan ni nequetan*, etab.

horren bidetik, ezaguna da erakusleak indartzeko halako osagaiak erabiltzen direla: “[S]trategies to reinforce (weakened) demonstratives with the help of pseudo-lexical entities such as (exclamative) particles” (Schulze 2003: 292). Hipotesi orokor honen barrenean azal daiteke hirugarren gradu singularreko *aura* aldaera ere, *ha* + *hura*. Honek Irigoienek ustearen aurka egiten du, *haur* + (*h*)*a(r)* proposatzen baitu berak; baina *aura* forma azalpen orokorrago baten pean ezartzen du nire hipotesiak, eta hori du alde.<sup>400</sup>

- (h) Erakusleak indartzeko estrategia moduan, ezaguna da erromantzezko *aqu*-osagaiarena (cf. gazt. *él/aquel* bikotea, etab.); *aqu*- honen jatorria lat. *ecce* (*eccum*) partikulari lotu behar zaio (Piel 2005: 109-110). *Ecce* hau “adverbio demostrativo” izendatzen du Menéndez Pidalek (1904: 148), eta *eccum* ere “particule démonstrative” gisa izendatzen da Ernout eta Meilleten hiztegian (s.v. *ecce*). Partikula hauek berak erakusle baten edo gehiagoren konbinaziotik eratorriak dira: *ecce*-ren kasuan, *ec-ce* zatitu ohi da, non *ec*- erakusle funtzioa duten partikulekin lotzen den, eta *-ce* hainbat adberbiotako eta erakusletako partikulu enklitikoak da; *eccum*-en bigarren osagaia, berriz, *hunc* ‘hau, hemen’-ekin lotu behar da; ik. ErnMeill s.v. *ecce* eta *hic*, *haec*, *hoc*. Honenbestez, errom. *aquel* edo *aqueste* bezalakoak paralelo formal egokiak izan daitezke euskarazko *aek* moduko pluralak azaltzeko: denetan ditugu erakusle jatorria duten osagaiak, non erakusle forma nagusiari (errom. *el/este* eta eusk. *hek*) indartzaile bat jarri zaion aurretik (errom. *aqu-*, eusk. *a-*). Funtsean, bizk. *amen* bezalako formetarako Mitxelenak ematen duen azalpenaren antzekoa da hau (*hara hemen* sintagmetatik eratortzen ditu, ik. 2.3.2 (e) atala), baina askozaz lehenagoko garai batean gertatutako bilakaerez ari gara *aek*-ez ari garenean, eta aurretik jarritako erakusle partikula (*h*)*a* da, ez *hara*.

<sup>400</sup> Irigoienek iritziak, *hura*-ren eta *aura*-ren artean, *aura* da jatorrizko forma (1981: 392-393), eta bere antzinako orokortasunaren alde Nafarroako *ore* aldaera dakar, *aure* (< *aura*) batetik baizik ezin dena esplikatuz, bere ustez. Nire ustez, forma horren *o*- erraz azal daiteke *u*- bokalaren irekitze baten bitartez; horrela, *hura*-ren aldaera baizik ez da. Horrenbestez, nahiago dut mendebaldeko eremu jakin bateko berrikuntzat hartu *aura* forma. Irigoienek hipotesiaren alde, dena den, Arabako *oa* aldaera ekar liteke gogora: *hau* + *ha* osaera erraz azal daiteke *oa*; nire azalpenaren barrenean, Araban ere *u*- ireki dela proposatu beharra legoke, *ura* > *ora*, eta, bokalarteko dardarkaria galdu dela, *ora* > *oa*.

- (i) Azken ohar gisa, interesgarria da *aqu-* osagaiaren funtzioaz Pielek egiten dituen oharrak: bere arabera, *aqu-* duten formek (*aqueste*, *aquese*) funtzio jakin bat betetzen dute, forma soilenaz (*este*, *ese*) bestelakoa; ñabardura semantikoak daude forma osatuen eta soilen artean (Piel 2005: 110-125). Interesgarria litzateke euskaraz ere halako ñabardurarik dagoen aztertzea, *haiek* eta *hek* formak dituzten hizkeretan (ik. goian (e) puntua). Lan hori erakusleen berriazko berreraiketari eta deskripzioari dagokio, eta tesi honen helbururik behinenetatik kanpo geratzen da.
- (j) Beste hizkuntzetarik eman daitezkeen paralelo ororen ginetik, beharbada merezi du nabarmentzea Hondarribian entzun daitezkeen *uraiek* ‘haiek’: itxura guztien arabera, *hura* + *haiek* da, hau da, *ha* + *hek* osakeraren paralelo bete-betea (Sagartzazu 2005: 89).

Hipotesi klasikoak hainbat kontu uzten ditu azaldu gabe (gogoan izan Castañosen ideiak bereizi behar direla, ik. 2.3.2 (b) atala). Hemen garaturiko hipotesiaren arabera, *-ae-* duten erakusle formak morfologikoki konplexuak dira, eta bi osagaien elkartetik eratorriak; halaxe iradokitzen dute Azkaratek eta Altunak ere, *-ek* pluralgileaz hitz egiten dutenean (2001: 18).

Pluraleko formez den bezanbatean, euskalkirik gehienetan, jakina den bezala, singularreko absolutiboan oinarritzen dira eta horri gehitzen *-ek* plural marka: *hau* / *hauek*; *hori* / *horiek*; *ha* (hura) / *haek* > *haiek* (>*heiek* > *hek*).

Bistan dena, jatorrizko *æk* formaren lehen osagaia *ha* ‘hura’ baldin bada (*ha* harridurazkoan espezializatua, beharbada), *ha-ek* zatitu liteke, eta hor dugu arestian aipatu dudan konplexutasun morfologikoa. Hurrengo urratsa, jakina, delako *-ek* pluralgilea zer den zehaztea izango da. Nire ustez, *hek* erakuslea bera da.

#### 5.5.3.1 *-ek* pluralgilea

Plural markek euskararen gramatikan duten estatusaz ez dute oharririk egiten Altunak eta Azkaratek, izan maila diakronikoan zein sinkronikoan. Gogoan hartzekoa da pluraltasunaren nozioa beste modu batean gauzatzen dela euskaraz, auzo hizkuntzen gramatikekin alderatuta: euskaraz *hiru etxe* diogu, izena forma mugagabea dela, baina erdaretan *tres casas*, *trois maisons* edo *three houses* bezalako sintagmak ditugu,

berariazko -s plural markarekin.

Bestalde, ezaguna da euskarazko izen sintagmetan singular/plural bereizketa artikuluen bidez baizik ezin dela egin (2.2.2 atala), eta artikulua, D-elementu diren neurrian, erakusleak dira funtsean (bai -a artikulua prototipikoa, bai deklinabide mugatuko beste atzizki guztiak ere). Nire ustez, erakusleen barne morfologia ulertzeko, ezinbestean hartu behar da aintzat ohar hori.

Honela formulatu daiteke aurreko bi paragrafoen oinarrian dagoen argudioa: ageriko pluraltasun morfologikoa deklinabide mugatuaren menpe baldin badago eta deklinabide mugatuko pluraleko atzizkiak erakusleetatik baldin badatoz, -ek atzizkiak ere erakusle behar zuen jatorrian, izan izen sintagmaren deklinabidean zein erakusle edo izenordainenean (cf. *zuek* orokorra, baina baita historikoki mugatuxeagoa ageri den *guek*<sup>401</sup> ere). Funtsezkoa da ikuspegi hau bururaino eramatea.

Lau puntutan bilduko dut -ek pluralgilea erakusletik datorrelako hipotesia, eta hona ekarriko auzo hizkuntza baten paraleloa.

- (a) Gaztelaniazko *nosotros* eta *vosotros* izenordainen diakronia, batetik, eta *estotro* eta *esotro* bezalako erakusleena, bestetik, euskal datuen paralelo moduan aurkez daitezke. Antzinako gaztelaniazko (latinezko) izenordainak *nos* eta *vos* ziren, eta izenordain berrietarako jauzia aski “moderno” da (XI-XII. mendeko *Cantar del Mio Cid*-en *nos* eta *vos* erabiltzen dira). *Vos* bera, jatorriz bigarren pertsona plurala, errespetuzko bigarren pertsona singular gisa erabili izan da, eta erabilera hori geratu da, ihartuta, Hego Ameriketako zenbait hizkeratan; euskaraz horixe bera dugu gaur egun, *hi* izenordainaren kaltetan. Adizkietan, plural balioa gordetzen duten hainbat -zu ere bada testu arkaikoetan (Lakarra 1986: 650-651); horrela, *zuek* (eta *guek*) formak ere ezin dira oso antzinako izan. Itxura guztien arabera gaztelaniazko izenordainen berregituratzearen garaikide dira euskarazko gertakariak ere.

Gaztelaniazko *nosotros* eta *vosotros* izenordainen bilakaera ezaguna

<sup>401</sup> Cf. DonemGI *guedc ajutuezdugu*, ergatiboan, eta Lazarragagan, absolutiboan, AL: 1147r *ece guec goacela* eta A26: 72 *guedc gueoncen lecuan*, eta ergatiboan AL: 1147v *ece guec al daigun lagundasunic onaena egingo deusugu* eta AL: 1154v *guedc eta çuedc bearco dogu*.

konpara daiteke euskarazko *guk* eta *zuek* izenordainenarekin, eta garaikidetzat jo. Gaztelaniazko berregituratzea jatorrizko izenordainari *otros* osagaia gehituz gertatu zen; hots, bi morfema beregain konbinatu ziren.<sup>402</sup> Paraleloarekin segituz, proposa liteke euskaraz ere antzeko zerbaite gertatu izana: *hek* erakuslea da *gu* eta *zu* izenordainekin konbinatzen den morfema beregaina.

Gaztelaniaren eta euskararen artean ezarri dugun paralelo honen arabera, badirudi *otros* osagaiaren funtzioa *hek* erakuslearenarekin parekatzen dela. Izenordainetan hala bada, baliteke hiru graduetako erakusle pluraletan ere hala izatea: *\*ha-hek*, *\*hori-hek* eta *\*hau-hek* gaztelaniazko *estotro* eta *esotro* erakusle arkaikoekin konpara daitezke, azken hauek singularrekoak badira ere.

- (b) Aipagarria da ustezko *-ek* pluralgilea duten osagaiek, hala izenordainek nola erakusleek, bi balio izatea, absolutiboa eta ergatiboa: horixe da erakusle pluraleri dagokien jokabidea, eta funtzio bikoiztasun hori jaso dute oinordekotzan bere ondorengo morfologikoek (ik. 7.2.3.2 atala Silversteinen hierarkiak euskararen ergatibitate erdibituaz esateko duena).
- (c) Erakusle pluralen eta izenordainen bilakaera diakronikoa azaldu bezala gertatu baldin bazen, hipotesi honek *-ek* pluralgilearen jatorria argitzen du: ez da hutsetik sortua, beren gramatikaren inbentarioan zegoen osagai bat erabili zuten hiztunek, eta *hek* erakuslea funtzio berri zenbaitetarako erabili, besterik gabe.
- (d) Goian esan bezala, artikuluen menpe dago deklinabideko singular eta plural banaketa; erakusleen menpe, azken buruan. Hipotesi honek proposatzen du hala dela pluraleko zenbait izenordainen eta erakusleen deklinabidean ere.

Ondoko atalean, berreraiketa eredu honetan sakonduko dut; *-ek* pluralgilearen jatorrian *hek* erakuslea dagoela frogatzeko erabat argigarri litzatekeen daturik ez badut ere —cf. leku-kasuetako *-eta-* artizkiaren kasuan ditugun *-heta* hasperendunak—, nire ustez eztabaida honetan kokatu behar diren datuak ekarriko ditut hona.

<sup>402</sup> Gaztelaniaz gertaturiko *otro(s)/otra(s)*-en bitarteko izenordain eta erakusleen indartzeaz, ikus orain Piel (2005, 2011, 2014).

## 5.5.3.2 Erakusle pluralen eta izenordainen diakronia

Aurreko azpiatalean proposatutakoaren arabera, honela irudika genezake erakusle pluralen eta izenordainen jatorrizko osaera morfologikoa:<sup>403</sup>

- (12) a. *hau* + *hek* > *hauek*  
 b. *hori* + *hek* > *horiek*  
 c. *ha* + *hek* > *haek*<sup>404</sup>
- (13) a. *zu* + *hek* > *zuek*  
 b. *gu* + *hek* > *guek*

Osaera honi dagokionez, 5.5.2.2 atalean aipaturiko *a mutil* edo *a gizona* bezalako esapideak ekar litezke gogora, horietan ere izen edo determinatzaile sintagmaren aurretik jarri baita hirugarren graduko *a* erakuslea. Nire iritziz, *a*-ren erabilera harridurazko eta kataforiko hori aintzat hartuta, errazago azal liteke *ha* + *hek* osaera; baina aukera honek ez ditu erabat argitzen 1. eta 2. graduetako erakusleen nondik norakoak; 5.5.3.3 (b) atalean esplizituki formulatu dut arazo hau. Bi datu mota gehiago erabiliko ditut berreraiketa proposamen honetan sakontzeko:

- (a) Baliteke esanguratsua izatea mendebaldeko erakusle pluralen paradigmaren *-e*-bikoitzak izatea: cf. *honeek*, *horreek* etab. (ik. 5.5.4 atala, forma hauen kronologiaz). Nire hipotesi nagusiaren arabera, *hon-e-hek*, *horr-e-hek* litzateke forma horien jatorria, eta lehendabiziko *-e-* bokala epentetikoa litzateke, hasperenaren aurrekoa. Agian ez da kasualitatea horrelako formak hain zuzen Erdi Aroan *-heta* ugari agertzen den eremukoak izatea (ikus 3. irudia, 4.6.1 atalean). Epentesiaren hipotesi honek, ordea, nabarmentzeko moduko bi arazo ditu, gutxienez: XVI. mendeko testuetan ez dut bokal bikoitzeko formarik aurkitu, eta

<sup>403</sup> Van Eysek ere denak batera biltzen ditu: “[I]l a fallu une distinction pour le pluriel; et c’est alors qu’on y a postposé le caractéristique du pluriel *-k*: *zu* devint *zuek* comme le pron: *a*, ‘celui-la’ est devenu *ae*k, ‘ceux-la’ (*ayek* Guip); et *ori*, ‘celui-ci’, *oriek*, ‘ceux-ci’” (1867: 21).

<sup>404</sup> *Heiek* aldaera (eta, hortaz, *heien*, *heiei* etab.) azal liteke Azkarateren eta Altunaren azalpenaren arabera (2001: 18), *haiek* > *heiek* asimilaziozko bilakaeraz. Nire ustez, beste bi azalbide daude aukeran: (1) pluralean *he-* duten beste formen eraginez, *haiek* → *heiek* analogiazko bilakaerarekin; (2) osaeraz *he-ek* izatea, *he-* oinarri hartuta, zaharragoa dirudien (orokorragoa delako) *ha-ek*-en ez bezala. Adibidez, Etxarten 01.1r 15 *hein* izan liteke *he-en* > *hein*, edo *ha-en* > *heen* > *hein*, edo, editoreek zuzentzen duten bezala, *heien* bera, erratarekin, bere bilakaera aukera guztiakin.

baliteke beranduagokoak izatea, pluraltasun marka berranalizatu baten zabaltzearen ondoriozkoak; ustezko zabaltze hau XVII. menderako beharko zuen gertatua, Kapanagak bai baititu bokal bikoitzeko formak. Bestalde, 5.2.5.3 (e) atalean deskribatu bezala, ez dirudi zantzurik dugunik proposatzeko *-hek*, *-hen*, *-hetan* eta abarren gramatikalizazioak epentesirik eragin zuela.

Bestalde, ohargarria da forma hauen azentuera: izenaren deklinabidean bezala, azentu markatua dute, eta hala dio Castañosek (1979: 90), Azkueri jarraiki: “en singular son monótonas y en plural son dítonas”.

- (b) Deigarriak dira Beriainen *ohec*, *orihec* eta *ayhec* bezalako erakusle pluralak (Beriainen erakusleen zerrenda osorako, ik. VII. eranskina). Halako formak esperoko genituzke, hasperenari dagokionez, protoformak *\*hau-hek*, *\*hori-hek* eta *\*ha-hek* baldin badira; hitz berean bi hasperen ditugunean, lehena galtzen da, Grassmannenaren moduko arau bati jarraiki (cf. *ilherri*, *ilhort*, *aurhíde* etab., *FHV* 211-212). Nire ustez, hortaz, Beriainen <h> grafema horietan hasperena ikusi behar da, ez kontu grafiko hutsa, are gehiago kontuan hartzen badugu *aihec* eta *aihen* bezalakoetan ezin dela argudiatu <h> horren funtzioa antihiatikoa dela. Ideia bera aurreratu dut 5.2.7.4 atalean. Nafarroako hasperenaren iraupenaz dugun tradiziozko ikuspegiaren aurka egiten du honek, baina hipotesi klasiko honen aurkako zantzu gehiago ere egon daitezke. 7.3 atalean garatu dut ideia hau.

### 5.5.3.3 Proposamen honen argi-ilunak

Hipotesi honek zenbait auzi uzten ditu argitu gabe, eta beste zenbait galdera sortzen; hiru puntutan banatu ditut, (a) erakusleen fonologiari dagozkionak batetik, eta (b-c) morfologiari dagozkionak bestetik:

- (a) Erakusle pluralen egitura fonologikoari dagokionez, proposatu behar dugu hasperenaren aurreratze bat gertatu dela: protoformak *\*hau-hek*, *\*hori-hek* eta abar baldin badira eta aipaturiko hasperenaren disimilazioaren bidez *\*auhek* > *ohek* eta *orihek* baldin baditugu, egungo *hauek*, *horiek* eta beste azaltzeko, proposatu beharra dago bigarren silabako hasperena lehenera igaro dela. Gertakari honen adibideak badira hizkuntzan, Lakarrak gogoratu bezala (2009): cf.

esaterako *\*enuskara* > *\*ehuskara* > *heuskara* (Garibai *enusquera*), edo Mitxelenak dakarren *\*enazur* > *\*ehazur* > *hezur* (VIII 249). Nafarroako erakusleetan, bestalde, Caminoren proposamenaren arabera (ik. 5.5.1 atala), antzeko lekualdatzea gertatu da herskari belar ahostunarekin. Ez da baztertzekoa, jakina, pluralekoek erakusle singularren paradigmaren analogiaz berrezarri izana hasierako hasperena; bi azalpenak bateragarriak dira.

Caminoren proposamenak Nafarroako eremu zabal batean dokumentaturiko *g*-dun erakusleak azaltzen ditu, baina ez ditu azaltzen zaraitzuerazko eta erronkariarazko *kau*, *kori* eta horrelako herskari belar ahoskabedunak; baliteke herskari ahostunetik abiatuta tinkatu eta ahoskabetu izana. Beste lan batean ere aipatu nuen aukera hau, Hualdek iradokita (Manterola 2006: 665), baina xehetasunak ez ditugu ongi ezagutzen. Baliteke ikuspegi honen alde egitea XVII. mende hasierako erronkariarazko gutunetako erakusle herskaridun bakarrak: *gauça guengati* dugu han, ez herskari ahoskabearekin, erronkariara modernoan bezala, ahostunarekin baizik; bide honetatik, gainera, Caminok emandakoaz gain, beste aukera bat legoke herskaria azaltzeko, izan ere *uek* > *guek* bilakaera *u*- bokal belarraren kontsonantizazioaz azal bailiteke (cf. gazt. *huevo* > *güevo* etab.).<sup>405</sup>

- (b) Erakusleen berreraiketa morfologikoa, bi aukera nagusi aipatu ditut, eta kontraesanean daudela pentsa daiteke: batetik, 5.3.3 atalean, *hek* erakusle plurala hartu dut abiapuntu *æk* azaltzeko, eta proposatu dut *ha* gehitu zaiola *hek* erakusleari. Bestetik, hipotesi honen aldaera bat aurkeztu dut 5.5.3.2 atalean, abiapuntua alderantzizkatuta, eta erakusle singularretatik beretatik abiatu naiz (1. eta 2. graduetan ere bai): proposatu dut *ha* singularrekoari gehitu zaiola *-ek* “pluralgilea”, beste graduetako *hau-ek* eta *hori-ek* modu berean azaltzeko.

<sup>405</sup> Joseba Lakarrak ohartarazi didan bezala, beste aukera bat da *toki*, *tarzun* edo *tegi* bezalakoetan herskari ahoskabea “erregularizatu” den bezala, ekialdeko erakusleetan ere antzeko zerbait gertatu izana. Mitxelenak ere, bi datu motetarako azalpen bateratua ematen ez badu ere, elkarren ondoan ematen ditu eztabaidan: “Nadie ha dado, que yo sepa, una explicación satisfactoria de R *kau* ‘éste’ etc., dentro del supuesto de que la oclusiva no es antigua, pero hemos sido varios los que nos hemos resistido a aceptar su valor probativo extensible a la totalidad del vocabulario. En cuanto a *-kume*, *-kide*, *-tegi*, *-toki*, etc., las explicaciones alternativas [...]” (VII 38). Ohartu behar da, halere, gaur eskura ditugun datuen arabera, oso kronologia ezberdineko herskariak direla hitz horietakoak eta ekialdeko erakusleetakoak.



Eztabaida honetan, gogoan hartu beharko da *hauek* eta *horiek* erakusleek ez dutela aldaera morfologiko esanguratsurik —bazter uzten ditut *hauek*, *horiek* bezalakoak—, eta *haek* eta *hek* ditugula hirugarren graduan.

Ez dakit oraindik nola bateratu daitezkeen bi aukerak, baina erakusleen diakroniaz berriaz arduratzen garenean xehetasun horiek argituko direlakoan nago. Hurrengo puntuko eztabaidak ere baduke loturarik arazo honekin.

- (c) Erakusle pluralen diakroniarako proposaturiko berreraiketak ondorio larri bat du: lehen eta bigarren graduko *hauek* eta *horiek* erakusle pluralak hirugarren graduko *hek* erabilia osatu baziren, zein zen bi horien jatorrizko forma? Bestela esanda, pluralean gradu bakarra duen sistema bat berreraikitzen du proposamen honek, *he-oinarria* duena.

Ezaguna da pluralean maiz ez direla egiten singularrean egiten diren bereizketak, maskulino/femenino edo kasuen formena, esaterako (Greenberg 1966: 25-55), baina ez dut aurkitu hizkuntzarik singularrean eta pluralean gradu kopuru ezberdina duenik (Diessel 1999: 25-33, 2013). Horrenbestez, bi aukera daude pluralean berreraikitzen dugun gradu bakarreko sistema hau azaltzeko: batetik, pentsa liteke hiru gradukoa zela baina galdu egin direla lehen eta bigarren graduetan pluraleko jatorrizko formak, batere arrastorik utzi gabe. Bestetik, proposa daiteke sistema osoa, singularrekoa barne, gradu bakarrekoa zela; bigarren aukera honi heltzen badiogu, zenbait ohar egin behar dira:

- (i) Ikuspegi tipologikotik ez dira oso arruntak gradu bakarreko erakusle sistemak, baina izan badira, eta alde horretatik ez legoke arazorik horrelako proposamena egiteko (ik. Diessel 1999: 35-39, 2013).
- (ii) Kronologia erlatibo bat ezar daiteke bi irizpide nagusiren arabera: hiru graduko sistemak pluraleko deklinabidea gramatikalizatu ondorengo behar du izan, batetik; bestetik, gradu bakarreko sistemak Euskara Batu Zaharra baino lehenagokoa beharko luke, hiru graduko sistema orokorra baita euskalki modernoetan. Erromatarren etorreraren aurreko garaia garamatza egoera honek, eta, horrela, zilegi izan liteke galdetzea hiru graduko

sistamarako jauzia hizkuntz ukipenaren ondorio izan ote den; antzeko galderak egiten ditu Seiciucek (2014: 551). Zoritxarrez, datuak urriegiak dira azken auzi hau eztabaidatzeko.

- (iii) Singularrean ere gradu bakarra baldin bazegoen, zein zen? Bigarren graduko *hori* lehenekotik eratorri izan da, baina hori hala dela onarturik ere *hau* eta *ha* formen artean jatorrizkoa zein den erabaki beharra legoke. Pluralean ikusi dugunari jarraiki —gaur hirugarren gradukoa dena zatekeen forma bakarra—, azter daiteke singularrean ere hala izan ote zen: singularreko forma bakarra *ha* izango zen. Hipotesi honek, jakina, berarekin dakar gaur lehen gradukoa den *hau* azaldu beharra, eta baita bigarren graduko *hori* ere; ikus 5.5.3.4 atala.
- (iv) Aipagarria da erakusle singularretan lehen eta bigarren gradukoek hirugarrenarekin duten alde nabarmen bat: badirudi lehen eta bigarren graduko erakusleetan absolutiboaz besteko kasuak inesiboaren gainean osatuak direla: abs. *hau*, *hori* baina erg., gen. etab. *hon-/horr-* (ik. 5.5.2.3 atalean, hauek erakusleen inesibozko formak direla esateko eman daitezkeen argudioak). Hirugarren gradukoan, ez dirudi *han*-en gainean osatu direnik *hark*, *haren*, *hari* eta beste, absolutibozko *ha*-ren gainean baizik, *-r*-epentetikoa edo berezkoa izan gorabehera. Onartzen badugu inesiboan oinarrituriko formak oro har berriak direla (ik. 5.5.4.1 atala), honek ere egin lezake lehen eta bigarren graduko erakusleen berritasunaren alde, hirugarrenekoarekiko berritasun erlatibo baten alde, bederen. Gogoan har bedi, halaber, hirugarren gradukoan aldaera morfologikoak daudela pluralean (*haek/hek*), baina ez dela halakorik besteetan (*hauek, horiek*).

Azaleratu dut zer alde duten hirugarren graduko erakuslearen paradigmak eta lehen eta bigarrenekoak, singularrean zein pluralean. Alde horretatik ondorio nagusi bat atera dut, lehen eta bigarren graduko erakusleak berriagotzat joz. Ondorio hau zuzena izan zein ez, uste dut berezko balioa duela ezaugarri horiek eztabaida berean batera ezarri eta aztertzeak.

Erakusle sistemaren gradu kopuruaren auzian bestelakoak izan dira proposamenak eta hipotesiak eta berorien irozgarri emaniko argudioak (2.3.4 atala); horietan jatorrizko erakusle sistema bi edo hiru gradukoa ote zen eztabaidatu da, gehienbat. Hemen, bestelako hipotesi bat aurkeztu dut, aukera moduan: pluraleko formen deklinabidearen berreraiketa bere azken ondorioetara eramatea; bestelako emaitzak ditu —gradu bakarreko sistemara jotzen da hipotesi honetan—, horietara iristeko argudioak ere bestelakoak baitira. Arazoak ere, jakina, bestelakoak ditu: besteak beste, singularreko lehen eta bigarren graduko *hau(r)* eta *hori* formen jatorria iluna izatea oraindik ere.

Hemen agerturiko hipotesiak berezko ezaugarri bat du: ez dator, berez, erakusleak eta erakusle sistema berreraikitze berriazko saio batetik, singularreko eta pluraleko deklinabide mugatuko forma zenbaiten diakroniarako proposaturiko berreraiketaren zehar-ondorioa da. Nolanahi ere den, baliteke ohar hauek lagungarriak izatea, erakusleen berreraiketa saio orokorra egiten denerako.

#### 5.5.3.4 Ohar etimologiko bana *hau(r)* eta *hori* erakusleez

Aurreko atalean, erakusle pluralei begira, aipatu dut zilegi izan daitekeela berreraikitzea gradu bakarreko erakusle sistema bat. Argudioak bil daitezke horretarako pluraleko paradigmaren, baina hipotesi horren arabera zehaztu beharra dago zertan datzan singularreko *hau(r)* eta *hori* erakusleen berritasuna, hots, zein den beren jatorri etimologikoa.

Gradu bakarreko erakusle sistema duten hizkuntza zenbaitetan bestelako baliabideak dituzte gradua markatzeko, eta alemanieraz, adibidez, erakusle neutroari (*der/die/das*, generoaren arabera bereizketarekin) adberbio bat gehituz egiten da, honela: *der/die/das hier* eta *der/die/das da*, eta hauetan, *hier* ‘hemen’ eta *da* ‘hor, han’ adberbioak dira. Pentsa liteke euskaraz ere *ha* osagai deiktiko bakarrari beste osagai lexikoren bat gehitu zitzaiola gradu hurbila markatzeko: *hau*-ren jatorrizko forma *haur* dela onarturik —baina ikus 5.5.2 (d) atalean *hau* + *hor* aukeraz esandakoa—, *hur* ‘hurbil’ bakarrik datorkit burura, eta \**ha-hur* ‘hurbileko ha’ litzateke *hau(r)* jatorrian.<sup>406</sup>

<sup>406</sup> Ez dago argi *ahur* ‘esku barru’-rekin lotu behar ote den; ezaguna da harreman espazialak adierazteko erabili ohi direla gorputz atalak, ikus Ibarretxe-Antuñanoren lana (2012: 258-263); cf. *aurre* ‘aitzin’ bera.

Schulzek antzeko bilakaeren berri ematen du, osagai lexikoak erakusle paradigmaren nola sar daitezkeen argitzeko, eta hauxe ematen du adibide gisa: “Consider a structure DISTAL + <GROUND> which may be grammaticalized as a distal deixis with the notion ‘downwards’ or ‘down there’” (2003: 292); bestalde, ez da urrun joan beharrik antzeko adibideak bilatzeko, cf. fr. *là-bas*. Paralelo formal egokiak izan daitezke hauek; gradu aldaketak azaltzeko (adibide horietan gradua “distal” da beti, urrunekoa), gogora ekar litezke berriro Schulzeren hitzak: “a *proximal* can be additionally marked by a *distal* to indicate a *medial*, or *distals* are marked by the proximal for emphasis, etc.” (2003: 293).

Bigarren graduko *hori* azaltzeko, beste azalbide batzuk aztertu behar dira. Azkarate eta Altunaren arabera (2001: 40), *\*haur-i* berreraikitzen du Irigoienek, datiboarekin, nahiz eta ez dudan bere aipu zehatza aurkitu. Nire ustez, aukera egiantzekoagoa da *hi* izenordainaren bitartez azaltzea, hots, *\*haur-hi* edo *\*hor-hi* bezalako sintagmaren bat izatea jatorrian. Bi argudio mota erabil daitezke honen alde, (a) euskararen barreneko paraleloak, eta (b) paralelo tipologikoak:

- (a) Absolutiboko *neroni* izenordain indartuaren jatorrian ere datiboa ikusten dute Azkuek (*Morf* §652) eta Irigoienek (1981: 384-385), baina nire ustez argi dago azken osagaia *ni* izenordaina dela, Lazarragaren A19: 1 *neurau ni* erabilerak nabarmen erakusten duen bezala; *neure hau* sintagmari *ni* izenordaina gehitu zaio. *Neure hau* sintagmaren paralelo gisa, gogoan har bedi *guzti hau* sintagmak izan dezakeen ‘ni, nihaur’ adiera (cf. Lazarg A5: 9 *guztiau çurea nax* eta BizkOlerk 17 *vaquiçu zurea orain gustiau naçana*, beste hainbaten artean).

Ergatiboko *neronek* forman, datiboko *neroni* homonimoan eta beste formetan, bestalde, ez dirudi berrindartzeko erabili denik izenordaina: *neronek* eta *neroni* (dat.) hurrenez hurren *neure honek* eta *neure honi* sintagmen bidez azal

---

Eztabaida honetan, interesgarria izan daiteke ohartzea ‘esku’ hitza artikulatu definitu gisa gramatikalizatu dela gidar hizkuntza txadiarrean (Frajzyngier 1996: 179-182). Bestalde, baliteke beste erakusle batzuen osieran ere parte hartu izana *hur* osagai honek: hirugarren graduko *hura* aldaera *hur* + *ha* analiza liteke, beharbada. Berriagoa litzateke *hura* hau, *hau(r)* eta *hori* baino, hauek orokorrak baitira, eta *hura* ez. Xehetasunak argi ez badaude ere, kronologia ezberdinak azaldu lezake posizio eta funtzio ezberdinekin agertzea *hur* osagaia.

litezke. Absolutibokoa izenordainarekin indartu baino lehenagoko egoera islatuko luke Axularren abs. *neror* vs. dat. *neroni* bikoteak (Irigoien 1981: 380).

- (b) Funtsean, izenordainarekin indarturiko erakusleak dira *\*hor-hi* eta *\*neure hau ni* egiturak, eta paralelo bete-beteak dituzte beste hizkuntzetan; honela orokortzen du Souag ikertzaileak, hizkuntza berberei buruzko lan batean: “The person-oriented nature of a demonstrative system can be marked explicitly *by incorporating person markers into demonstratives*” (Souag 2014: 535; etzana nirea). Are interesgarriagoa da zer dioen bigarren graduko erakusleen jatorri diakronikoaz: siwi hizkuntzan —hiru graduko erakusle sistema du gaur—, lehen graduko erakusleek historia luzeagoa dute bigarrenekoek baino; berriago hauek osatzeko, lehen graduko erakusleari gehitu egin zaizkio bigarren pertsonako izenordainei dagozkien atzizkiak. Euskarazko *hori* bezalaxe, *hor* osagaia lehen graduko *hau* erakuslearekin lotzen badugu. Paraleloa borobiltzeko, badirudi siwi hizkuntzan ez zegoela, jatorrian, bigarren graduko erakuslerik (bere ahaideei begira daki *hori* Souagek), eta hiru graduko erakusle sistema batera igaro zela zaharragoko biko batetik. Uste dut euskaraz ere antzeko zerbait gertatu zela, absolutiborako bederen; ergatiboan eta bestetan ez dago *\*\*hor-hik* modukorik, arestiko (a) puntuan aipaturiko erg. *neronek* eta dat. *neroni* izenordainen kasuan bezalaxe.

Hipotesi honen barrenean, aztergai geratzen dira zenbait xehetasun: zenbateraino izan zen azkarra gradu bakarreko sistema batetik hirukora pasatzea? Izan al zen inoiz bi graduko sistema iraunkorrik? Galdera honi dagokionez, gogoan har bitez Schulzeren hitzak: erakusle sistemak aski aldakorrak dira (ik. 5.5.6 atala).

Morfologiazko auzietara itzulita, zein izan zen abiapuntuko forma, *haur* edo *hor*, eta izan al da inoiz *\*hauri* aldaerarik? Honi erantzuteko, aintzat hartu behar da *hori*-ren orokortasuna; bide horretatik, pentsa liteke *hor* monoptongatua izan zela abiapuntua. Bigarren graduko erakuslearen berritasunaren alde egin lezake horrek, eta ohargarria da, halaber, inesiboan *-n* ez duen bakarra bigarren gradukoa izatea (cf. lehenean *hon-* eta hirugarrenean *han*).

Beste auzi bat da erabakitzea *haur* edo *hor* horrek zein funtzio edo erabilera zuen,

azaltzeko zer bide egin zuen erakusle sisteman bigarren graduko paradigmaren parte izan arte. Nire ustez, egiantzekoa izan daiteke (*haur* >) *hor* erakuslearen aurkezle funtziotik abiatzea, ‘hona, horra (lat. *ecce*, fr. *voilà*)’-tik:<sup>407</sup> funtzio honetatik, erraz azal daiteke, nire ustez, *hor* izatea bigarren graduko erakuslearen inesiboko forma; funtzio horretatik, berebat, ongi azal daitezke *\*hor-hi* sintagma izenordainez indartuaren bilakaera semantikoa.

Ustekizun hauek guztiek eskas dituzte datuak, jakina; garai historikoa baino lehenagoko gertakariak dira.

#### 5.5.3.5 Ohar etimologiko bana genitiboko *hen* eta datiboko *her/hei* erakusleez

Atal honetan, proposatu dut erakusle pluralen oinarria *he-* dela. Bide horretatik, erakusleen formen osaera aztertzen has gintezke. Nire ustez, argi xamarra da leku-kasuetako formak, *hetan*, *hetarik* eta beste, *he-ta-n*, *he-ta-rik* eta halako analisisen bitartez ulertu behar direla; orobatsu ergatiboko *hek*, nire iritziz *\*he-ga* analizatu beharrekoa; hauetarako, ikus 5.5.5.3 atala. Nola analizatu behar da, orduan, genitiboko *hen*? Nire ustez, defenda daiteke *he-n* analisia, eta proposatu *-n* bukaerakoa inesiboa dela. Hortaz, genitibo pluraleko forma inesibo edo lokatibo bat da jatorrian, eta, funtsean, *he-ta-n* bera da, *-ta-* artizkirik gabe.<sup>408</sup> Bilakaera ezaguna da jatorrian lokatiboa adierazten duen adposizio batek gero genitiboa adieraztea; ikus faroerazko adibide hau, jatorrizko ingelesezko glosekin (Heine eta Kuteva 2002: 204):

(14) <i>hestur-in</i>	<i>hjá</i>	<i>Jógvan-i</i>
horse- DEF:SG:M:NOM	at	John- SG:DAT
‘John’s horse’		

Euskararen kasuan, badirudi *hen* lokatibo zaharra genitiborako espezializatu zela, eta lokatiborako *he-ta-n* berria erabiltzen hasi zela, Kuryłowicz-en lege ezagunari jarraiki. Horrela, hiru lokatibo zaharrak ditugu erakusleen deklinabidean: *\*he-ga*, *\*he-na* eta

<sup>407</sup> *OEH*-ren arabera (s.v. *hau*), autore zuberotarrengan aurkitzen da garai historikoan *haur* ‘hona hemen’ aurkezlea. Nire hipotesiaren barrenean, inoiz zabalduago egondako erabilera baten aztarna izango litzateke zubererazko hau, arkaismo bat.

<sup>408</sup> Oro har, berriago dirudite *-ta-* artizkia duten formek: cf. erakusleetan *han* eta *hartan*, *honz* (Etxep, Leiz) eta *honetaz* bikoteak eta deklinabide mugagabeen *etxen* eta *etxetan*.

\**he-ta-* (ikus 5.2.3.4 atala); jakina, ez ditugu oraindik ongi ezagutzen bakoitzaren ñabardurak.

Datibo pluralari dagokionez, ezagunak dira deklinabide mugatuko *-er* formak eman dituen arazoak (2.4.2.5.7 atala);<sup>409</sup> tesi honetako jarraibide nagusiari segika, erakusleetan kokatuko nuke arazoa. Arazoan sakondu gabe, eta onarturik *hek* eta *hen* formetan azken bokala galdu dela, *her* bera *heri* batetik erator daiteke. Ez dut izartxorik jarri, Egiategirengan dokumentatzen baita *heri* (lehen liburukian, 101), baina honek ez du esan nahi Egiategiren hori jatorrizko formaren azken hondarra denik: izan liteke *her* formari *-i* gehituta sortutako forma pleonastiko berri bat. Ez da oraingoa jatorrizko *-i* baten galera proposatzen duen hipotesia (Gavel 1921: 99-100):

M<sup>r</sup> Vinson, dans son *Premier essai de phonétique basque*, note que la désinence *-er*, employée dans certaines régions pour le datif pluriel, paraît due à une chute de l'*i* final du type *-eri*. Nous ajouterons que cette chute, de caractère quelque peu exceptionnel, s'explique peut-être par le désir de rapprocher, quant au nombre des syllabes, le type *-eri* du type *-ei*, dans lequel les deux voyelles formaient sans doute déjà une diphtongue; en d'autres termes, *-er* serait dû à une sorte de contamination entre *-eri* et *-ei*.

Baina bi berritasun dakartza nire ikuspegiak: batetik, erakusleetan kokatzen du arazoa, eta, honela, proposatuko nuke ekialdean inoiz *heri* epentesiduna izan dela, *hei* orokorrigoaren ondoan; aztertzeko daude datiboko atzizkiak eragiten dituen epentesi fenomenoak, cf. BerMez 26 *oficialebatey*, 30 *Erregue batey*, 44v *batey* adibideak, *bati* orokorrigoaren ondoan. Bestetik, erorketa hori, Gavelek “de caractère quelque peu exceptionnel” izendatzen duena, nahiko modu erregularrean azal daiteke erakusle pluralen paradigmaren kontuan hartzen baditugu berreraikitako \**hega* eta \**hena* formetako galerak.

Ageri denez, eredu eranslearen arabera analizatu dut erakusleen jatorrizko barne morfologia, deklinabide mugatuaren diakroniaz egindako proposamenez bestela. Ikus 7.1.5 atala auzi honetarako.

#### 5.5.4 Mendebaldeko lehen eta bigarren graduko erakusle pluralen paradigma

Singularreko lehen eta bigarren graduko erakusleen paradigmaren, absolutibotik bereiz

<sup>409</sup> Hona zer dioten Mitxelenak: “[T]he easternmost form is *-ér*, which seems to be irreducible to a common proto-type” (VII 164, 1 oh.).

daitezke beste kasu guztiak, beste oinarri baten gainean osatzen baitira: lehen gradukoetan, abs. *hau* dugu, baina erg., gen., dat. eta besteetan *hon-* da oinarria (*honek*, *honen*, *honi* etab.); orobat gertatzen da bigarren gradukoetan, abs. *hori* da, baina besteek *horr-* dute oinarri (*horrek*, *horren*, *horri* etab.). Absolutiboaren eta zehar kasuen arteko banaketa morfologiko hau euskal eremu osoko ezaugarria da (Altuna & Azkarate 2001: 12).

Pluraleko paradigmetan bestelako egoera dugu, eta mendebaldeak eta erdialde-ekialdeak hautu ezberdina egin dute (ik. 2.3.2 (c) atala): mendebaldeko eremu batean *hon-* eta *horr-*en gainean osatzen dira kasu guztiak —absolutiboa barne—, singularreko zehar kasuetan bezala, hain zuzen, eta *hone(e)k*, *hone(e)i*, *hone(e)tan* eta halako formak daude lehen graduan, eta *horre(e)k*, *horre(e)i*, *horre(e)tan* eta halakoak bigarrenean;<sup>410</sup> erdialde-ekialdean, berriz, singularreko absolutiboa da forma guztien oinarri, eta *hauek*, *hauei*, *hauetan* edo *horiek*, *horiei*, *horietan* bezalako formak ditugu.

Bi paradigma hauetan zaharrena zein den ebatz daiteke, atal honetan darabildan irizpideari jarraiki: kontuan hartzekoa da deklinabide pluralean badela hurbileko *-ok* artikulua; itxura guztien arabera *hauek* > (*h*)*oek* > *-ok* izan da bere bilakaera diakronikoa. Hurbileko *-ok* artikulua plurala euskal eremu osokoa da historikoki, baita mendebaldekoa ere (bertan gorde da gaur arte, gainera), eta, horrenbestez, pentsatu beharra dago *hauek* forma mendebaldean ere izan zela. Honek kronologia erlatibo bat ezartzeko aukera ematen digu: mendebaldeko *hone(e)k*, *horre(e)k* eta abarrek berriago behar dute izan, deklinabidea —pluraleko *-ok* bera barne— gramatikalizatu baino beranduagoak. Halaxe proposatzen du Castañosek ere: “es evidente que el nominativo plural fue en vizcaino *auek*, como lo atestigua el artículo plural concreto *-ok* < *-auek*” (1979: 90).<sup>411</sup>

<sup>410</sup> Arabako euskarak, mendebaldeko hizkera izanik ere, erdialde-ekialdearekin egiten du bat ezaugarri honetan: cf. Lazarragaren *berva oriek*, *berva oec* etab. Landuchiogan ez dut aurkitu pluraleko erakuslerik.

<sup>411</sup> Martínezek bestela ondorioztatzen du: “The logical implication of this is that, unlike the plural of the noun declension, the formation of the plural of these demonstratives cannot be brought back to the common language. Therefore, the plural must be older in the noun than in the 1st and 2<sup>nd</sup> grade demonstratives” (2009b: 263). Nire ustez, inplikazio logikoa ezin da hori izan; izatekotan, deklinabideko *-ok* inoiz orokorraren bidetik, pentsatu beharra dago mendebaldeko erakusleak berriagoak direla.



#### 5.5.4.1 Inesiboaren gainean osaturiko formen kronologiaz

Beste modu batera formulatu daiteke aurreko atalean aipatutakoa, orokortze modura: inesiboan oinarrituriko formak beranduagokoak dira. Kronologia erlatibo hau beste datu batzuetatik ere ondorioztatu izan da: Azkuek (*Morf* §631) gauza bera dio *nondik* izenordain galdetzailea eta *andik* adberbioa aztertzen dituenen, eta *norik* eta *norean* eta *arrik* eta *arean* ditu, hurrenez hurren, horien forma arkaikotzat; azpimarratzen du *no-* eta *a-* direla horien oinarriak, ez *non-* eta *an-*, azken hauek inesiboak direla izendatuki aipatu gabe bada ere.

Aurreko bi adibideak, mendebaldeko *honeek* bezalako pluralen azalpenarena batetik eta *nondik* eta *handik* ablatiboen berritasunarena bestetik, datu historikoetan ezarritako eta erabakitako auziak dira. Baliteke, horietaz gainera, orokortze horren beste adibiderik ere izatea erakusle sisteman. 5.5.3.3 ataleko (c, iv) puntuan ohartarazi bezala, singularreko lehen eta bigarren graduko erakusleak ezaugarri funtsezko batean bereizten dira hirugarrenetik: lehen eta bigarren graduko erakusleen paradigma inesiboan oinarritzen da singularrean (cf. abs. *hau/hori*, baina erg., dat., gen. *hon-/horr-*); hirugarren graduko erakusleen paradigma, ordea, absolutiboan oinarritzen da, Azkuek berak dioen bezala —abs. *ha*, erg. *ha(r)k*, dat. *hari*, gen. *haren* etab.—. Atal honetako orokortzea estu hartuz gero, esan nahi luke lehen eta bigarren graduko erakusle singularretako zehar kasuak hirugarrenekoak baino beranduagokoak direla; horrekin, beharbada, ondoriozta liteke beranduagokoak direla lehen eta bigarren graduko *hau* eta *hori* beraiek ere.

Laburbilduz, badirudi euskararen bilakaeran momentu batean inesibozko formak hasi zirela erabiltzen deklinabidearen beste kasuetarako oinarri gisa, lehenago erabiltzen zen forma hutsaren edo absolutiboaren kaltetan. Atal honetan oinarri historikoetan ongi ezarritako datu mota biri beste baten aukera gehitu diot; ikus, halaber, deklinabide mugatuari dagokionez, *goizanko* edo *barruango* bezalako ez esandakoa (ik. 5.2.3.1 eta 5.2.3.2 atalak, hurrenez hurren).

#### 5.5.5 Pluraleko -(h)ak eta -(h)ek D-elementuak

Deklinabidearen berreraiketa proposamen honetan *\*haga*-ren izaeraren auzia da

eztabaidagarriena. Erakusle plural gisa *hek* erraz berreraiki daiteke: gaur egun ere erakuslea da forma horretan berean, eta D-elementu gisa ongi identifikatua dago deklinabidean, izenarenean, izenordainenean zein erakusleenean (cf. aurreko ataletan aipaturiko *zuek*, *horiek* etab.).

Bestelakoa da ustezko *\*haga* erakuslearen egoera: pluraleko deklinabidean *-ak* atzizkia dugu, baina hortik kanpo ez dago modurik erakusle sisteman *\*\*hak* moduko erakusle pluralik berreraikitzeke; bestela esanda, gaurko erakusle sisteman ez dago zantzurik inoiz *\*\*hak* moduko erakusle plural bat izan denik pentsatzeko. Erdi Aroko leku-izenetan ustezko *-haga* D-elementua agertzen bada ere, ez dago benetan argi inoiz pluraleko *\*haga* erakuslerik izan ote den.

Aurreko atal batean (5.2.5.5 atala), *\*haga*-ren arazoa erakusle sisteman kokatu dut, deklinabidetik atereaz. Bi modutan formulatu daiteke honek dakarren arazoa:

- ◆ Erakusle plurala, absolutiborako zein ergatiborako, *hek* baldin bazen, ez dago argi zergatik dugun *-ak* ere izenaren deklinabidean eta ez zen aski izan *-ek* gramatikalizatzea, izenordainetan gertatu zen bezala (cf. *zuek*).
- ◆ Erakusleen gramatikalizazioan oinarrituriko berreraiketa eredu batean ari garela onarturik, ez dago argi zergatik ditugun bi plural, *-ak* eta *-ek*, zuzenean berreraiki daitekeen erakusle plurala bakarria baldin bada (*hek*).

Egiari zor, arazoa erakusle sistemaren berreraiketan baino, erakusleen gramatikalizazioaz esan dezakegun horretan kokatu behar da. Bi puntu horietan deskribaturiko arazoari erantzuteko gogoeta bide bat baino gehiago dago:

- (a) Pentsa daiteke *-ek* deklinabidean sartzen hasi zenean bazela ordurako izen sintagman plurala adierazten zuen *-ak* (< *-aga*) atzizkia, eta ez zuela izenaren deklinabide mugatuan tokirik izango, salbu eta ekialdean, ergatiborako espezializatuz, berrikuntza moduan.<sup>412</sup>

---

<sup>412</sup> Amenduxen testuan 7 *Haydeac eta adisquideac vrte gutis acenduric* / 8 *Ycusetut ysuriric* dugu. Salaberriren iradokizunaren bidetik (1996: 91-92), pentsa liteke *-ak* atzizkiak ergatibo funtzioa duela Iruñeko euskararen lekukotasuntzat hartu ohi den testu honetan. Hizkera bertsukotzat jo ohi den Beriainen testuetan, ordea, *-ek* da pluraleko ergatibo marka nagusia hirurogei urte beranduago. Ez dago argi alde

- (b) Erakusle plurala *hek* izanik, azter daiteke *\*haga* bere osoan inoiz erakusle plurala izan ote den. Aurreko atal batean *-ak* atzizkia *-ek*, *-en*, *-eta* eta abarretatik bereizten duten ezaugarri morfonologikoen zerrenda eman dut (cf. gramatikalizazio maila eta bokalismo ezberdinak, inesibo singularrarekin partekatzen dituen ezaugarriak etab.); ezaugarri horietako askok bat egiten dute singularreko paradigmako atzizkienekin (5.2.5.3 atala).
- (c) *\*Haga* pluraleko paradigmako erakusle bat ez bada baina hala ere erakuslea baldin bada —hala iradokitzen dute ia ez bairik gabe forma hasperendunek—, eta singularreko paradigmako atzizkien ezaugarri batzuk baldin baditu, singularrarekin izan lezakeen lotura aztertzea zilegi da.
- (d) Singularreko formaren batean oinarrituriko erakuslea baldin bada, deklinabidean balio plurala hartu duena, bi gauza galdetu beharko ditugu: singularreko zein formaren gainean osatu den (e, f) eta nola hartu duen balio plurala (g).
- (e) Singularreko formaren bat *-aga* atzizkiaren oinarritzat hartu nahi badugu, zilegi da inesiboaren aukera aztertzea absolutiboarena berarena baino lehenago, *-ak* pluralekoak eta inesiboko *-an* atzizkiek partekatzen dituzten ezaugarri morfonologikoak lagun (5.2.5.1 atala). Horrela izanda eta inesiboan oinarrituriko *hango* eta *handik* bezalakoak badirela gogoan hartuta,<sup>413</sup> Erdi Aroko corpusean *-(h)anga* atzizkirik ba ote dagoen arakatu dut, *-(h)aga* atzizki orokorra garen ondoan, hipotesi hau sustenga lezakeen froga dokumentalen bila.

Oro har, aipa daitezkeen adibideak ez dira argigarriak (aurkituriko adibideen lehen agerraldiak baizik ez ditut aipatzen): cf. *Sancio Fortuniones de Artanga* (*DocLeire* 1096), *Martin Martinez de Çeranga*<sup>414</sup> (*SDomLeq* 1330), *Sancho Peres de Uzcanga* (*ArchZumai* 1352), *Juan Perez de Zuzanga* (*AGVizc* 1376), *Martin Yuannes d'Ubyrichanga* (*ArchLeqI* 1394), *Iohan Lopez de Estanga* (*ArchToll*

---

hau *-ek* atzizkiaren zabaltzearen adibide gisa har daitezkeen; ikus Salaberrik berak *-ek* atzizkiaren hedaturaz ematen duen berri laburra. Ohar bedi Mitxelenak hurrengo bertsolerroko *Ycusetut ysuriric*-en objektutzat duela *haydeac eta adisquideac* sintagma, eta absolutiboa dela *-ak*, bere ustez.

<sup>413</sup> Cf. hala ere *arik* forma, *handik* baino zaharragoa, nire ustez (5.5.4.1 atala); inesiboan oinarrituriko formak oro har berriagoak direla uste badugu, arazo bat gehiago luke hipotesi honek.

<sup>414</sup> Salaberrik 1325eko *Pasqual Martines de Çaranga* bat aipatzen du (2011: 169), baina 1374koa dela dirudi (*ArchLeqI*, 20. agiria).

1391), *Martin abad de Vrribanga* (*ArchDurIV* 1456), *Martin de Larrauanga* (*sic*) (*ArchOñatI* 1470; *Larrainaga* ote?), *Juan de Luchanga* (*VecVizcI* 1511); aipagarriak izan litezke, halaber, *Pero Maçuaçangua* (*NavOccit* 1282) eta *Maria Periz Rumangua* eta *Domenga d'Umangua* (*PobNav* 1330), *-anga* baldin badute bukaeran <gua> grafiak /ga/ adieraz baitezake.

Adibide hauek ez dira aski datu atal honetan agertu dudana proposamena sendotzeko: izen horiek ez dute aldaerarik *-aga* atzizkiarekin, eta, gainera, horietako askotan ez dago argi lehen osagaia zein den; are okerrago, *Artanga* izenean *arte* hitza dagoela pentsatzen badugu, badirudi *arta-* elkartu-eratorrietako forma dagoela eta deklinabidearen hipotesia baztertu beharko dugu.

Eztabaidarako esanguratsutzat jo daitezkeen bi adibide baizik ez ditut aurkitu: *Martín de Uranga* (*ArchSegII* 1449) eta *Garçia Martines de Careanga* (*SimancVizcVI* 1485). *Uranga*-ren aldaeratzat har liteke *Uganga*, eta, hala, *Bernardo de Ugange* (*CartDax* XII. m.) lehenagokoa litzateke; cf. halaber *Arnalt Guillem, seynor d'Ugange* (*CenBNav* ~1350); baina, Orpustanen ustez (1990: 122-123), leku-izen honen forma osoagoa ikusten da *Remon d'Uguenaga* bezalakoetan (*CenBNav* 1412), eta jatorrian *\*ur-gain-aga* edo horrelako zerbait izan liteke. *Uranga/Uganga*-z gain *Uraga* (*TopAlav* eta *OnomVasc17*) ere aurki daiteke. *Kareaga* izenaren *Kareanga* aldaerari dagokionez, esan beharra dago agiri berean pertsona bera *Garçia Martines de Careaga* izenarekin ageri dela, baina baita *Garçia Martines de Arcanga* aldaerapean ere; honek pentsarazten du adibidea ez dela hain ziurra eta idazketa huts soil bat izan daitekeela. Bi adibide hauek (baita goragokoak ere), bestalde, ez dira oso antzinakoak, eta horrek ere sinesgarritasuna kentzen dio hipotesiari. Horretaz guztiaz gain, gogora ekarri beharra dago inesiboaren gainean osaturiko formen berritasunaz esandakoa (5.5.4.1 atala).

Oro har, badirudi Mitxelenak atzizki honetaz esan zuenak balio osoa duela gaur ere: “*-anga* terminación de *Estanga*, *Uranga* (de [*h*]jur?), *Uzcanga*, del que no hay, que yo sepa, explicación satisfactoria” (IX 55). Atzizki hori erakusleekin/deklinabidearekin lotzen duen hipotesi bat aztertu dut, baina

emaitzak ez dira izan, inondik ere, argigarriak; gainera, orain arte aipatu gabeko oinarritzko arazo batekin ere topo egiten du hipotesi honek, ez baita erraz azaltzen nolatan igaroko ginatkeen *-anga* batetik *-aga* formara, are gehiago *-aga* honen antzintasuna kontuan hartuta. Bestelako aukerak aztertzen ditu Salaberrik (2011: 169) atzizkiaren jatorriari dagokionez, eta, besteak beste, gogora ekartzen du *-ngo* tikiarriarekin lotzeko aukera; horiek guztiak aintzat hartzekoak izango dira.

- (f) Inesiboaren aukeraren emaitza urria ikusirik, absolutiboaren aukera aztertzea beste biderik ez da. Aukera hau De Rijken (1981: 93) hipotesira itzultzea litzateke, baina erroko aldaketa batekin: erakusleen diakronia egiten ari gara, ez deklinabidearena; ikusi dugu, gainera, bere hipotesiak datuak aurka zituela (cf. *Oleaga* leku-izenaren gaineko eztabaida, 4.5.2 atalean). Proposamena hauxe litzateke: *\*haga* moduko erakusle bat dugu, singularrekoa jatorrian, *\*ha* erakusle absolutiboari *-ga* atzizkia gehituta. Honek, ezinbestean, pluraleko *-ak* atzizkiak ergatibo singularreko *-ak* atzizkiarekin duen loturaz galdetzeraz garamatza, ergatibo singularreko *-ak* ere *\*haga* berreraiki beharko genukeela dirudielako. Forma bera dugu ergatibo singularrean eta absolutibo pluralean (mendebalde-erdialde zabalean ergatibo plurala ere bada); homomorfismo horretan jatorri morfologiko bera ikus genezake, eta ezaugarri morfonologikoei dagokienez, bi gramatikalizazio ezberdini egotz geniezazkieke bien artean antzeman daitezkeen aldeak (mendeb. erg. sg. *-a + -a > -ea*, pluraleko atzizkian ez duguna, pluralean *-aak* aurkitzea eta erg. singularrean ez, azentuera ezberdina, etab.).
- (g) Funtsean, hau da proposamen honen oinarrian dagoen auzia: zer da *-ga*, eta nolatan garatu du plural balioa berori atzizki moduan hartu duen erakusle batek? Pluraleko balio horri beste balio bati gehitu behar zaio, *-ga* atzizkiari lehenagotik aitortua geniona: lokatibo bizidun markarena (cf. bizidunetako *-gan* inesiboa); era berean, *-k* ergatibo marka bizidunetako *-ga* lokatibo horretatik beretik eratorri du Lakarrak, egiantz handiarekin (2005: 442-444, 2006b: 263, 60 oh.). Hortaz, izen bizidunetako deklinabidean bere CV itxura osoarekin ageri den *-ga-* osagaiak hiru emaitza izan ditu, hirurak deklinabidean: erg. *-k*, pl. *-k* eta bizidunen paradigmagan agertzen den *-ga-* bera.

Ez daude argi ustezko bilakaera hauen xehetasunak, Lakarrak berak aitortzen duen bezala. Paralelo tipologikoetan oinarrituriko saio moduan, hauxe esan liteke: *-ga-* lokatibo zahar bat da,<sup>415</sup> eta, zenbait testuingurutan, agente marka ere bilakatu da; Joseba Lakarrak berak ohartarazten nauen bezala, bilakaera hori ongi deskribatua dago (Heine eta Kuteva 2002: 199).

Balio pluralari dagokionez, hasiera batean zerbaiten tokia adieraziko zuen, eta gero zerbait horren ugaritasuna edo multzoa (ik. 4.5.2 (a) atalean aurkako bideaz); eta gero hasiko zen plurala adierazten, Kuryłowiczek dakartzan adibideetan bezalaxe (1975[1965]: 52):

Numerous instances may be found for the evolution *collective (derivative) > plural (inflectional)*, cf. the fate of the Slavic collective suffix *-ja, -je* (Russian plural *druz-ja < drug* ‘friend’, Polish plural *liście < list* ‘leaf’), the Persian plural in *-hā*, an old collective, the so-called broken plurals of Southern Semitic, originally collectives (Arabic plural *kutub < kitāb* ‘book’ etc.).

Badirudi Lakarrak (2005: 444, 25 oh.) azalbide honetatik jotzen duela lokazioaren eta pluraltasunaren arteko harremana gogora ekartzen duenean; bilakaera *lokazioa* → *multzoa*, *ugaritasuna* → *plurala* litzateke. Bilakaera semantiko honen hipotesiak berezko ahulgune bat izan lezake: erraz azal daiteke leku-izenetan horrelako bilakaera gertatzea,<sup>416</sup> baina ez dago argi nola gertatuko zen izen horietarik kanpoko gramatikaren ataletan; onartu beharko genuke *multzoa*, *ugaritasuna* balioa zuen garaian zabaldu zela izen mota guztietara. Ohartzekoa da, bestalde, Heineren eta Kutevaren lanean ez dagoela *lokatibo* → *plural* bilakabidearen berririk.

Gogoeta hauen ondotik, zenbait punturen arabera zehaztu daiteke nire hipotesia: (1) *\*haga* D-elementu bat proposatu dut, deklinabide mugatuan gramatikalizazio bide bat baino gehiago izan dituen, erg. sg. *-ak* eta abs./erg. pl. *-ak* izan arte; (2) bi bide hartu izanari egotzi behar zaizkio emaitza morfonologiko ezberdinak, cf. pluraleko *-a + -ak >*

<sup>415</sup> Oñederra ondorio berera iristen da: “Toponimo eta lekuarekin zerikusia duten deituretan ere aurkitzen dugu delako /ga/ horren arrastorik, beraz ederki asko izan liteke nolabaiteko lekutasuna adierazten duen afixuren bat” (2005: 387-388).

<sup>416</sup> Mitxelena toponimiazko adibideak ditu hizpide, *-aga* atzizkiaz ari dela: “Un suf. que signifie ‘lugar de algo’ pasa fácilmente a expresar ‘conjunto, colección, abundancia de algo’. Así, en la toponimia, aparecen con valores difíciles de diferenciar *-aga, -(k)eta* y *-(t)egi*” (VIII 240).

-*ek* bilakaeraren falta eta beste; (3) gramatikalizazio ezberdin horiek -*ga*- osagaiaren ñabardura semantikoek baldintzatu dituzte; (4) deklinabide mugatua berrikuntza da -*ek* ekialdekoa (ez ordea izenordainetan edo erakusleetan, cf. *zuek* eta *hauek* ia orokorrak); (5) berreraikitako \**haga* erakuslea singularreko *ha-ri -ga* osagaia gehitutakoa da; (6) -*ga*-dun erakusle honek garatu dituen balio ezberdinen azalpena egokiago kokatzen da erakusle horren gramatikalizazio bidez esan dezakegun horretan, erakuslearen berreraiketa soilaren auzian baino.

Hurrengo bi azpiataletan, bi hipotesi aurkeztuko ditut, -*ga*-dun D-elementu honen gramatikalizazio ezberdinak nola azal daitezkeen argitzeko; biek ala biek jomuga dute -*ga* osagaiaren jatorrizko balioa argitzea.

#### 5.5.5.1 Ikerketa ildo bat: pluraltasunaren eta biziduntasunaren arteko lotura

Funtsean, -*ga* osagaiaren izaera eta bere bilakaeraren xehetasunak zehaztea faltako litzaziguke. Nire ustez, zeregin horretan, ezinbestekoa da aintzat hartzea Smith-Starken (1974) hierarkia; hona nola formulatzen duen Haspelmathek: “An apparently exceptionless generalization is that *human nouns are more likely to have plural marking than non-human (especially inanimate) nouns*” (2013, etzana autorearena).

Zinez da esanguratsua pluraltasuna biziduntasunarekin hain estu loturik agertzea, euskaraz izen bizidunekin agertzen den marka eta pluralaren jatorri bereko morfemak direla gogoratu baitugu 5.5.5 ataleko (g) puntuan.

Orokortze tipologiko honen arabera, balirudike lokazioaren eta pluraltasunaren arteko lotura zuzena baino biziduntasunaren eta pluraltasunaren artekoa hobetsi behar dela. Hipotesi honetan, -*ga* atzizkiaren baliorik behinena eta, agian, jatorrizkoa biziduntasun markarena litzateke, eta pluraltasunaren adierazpen morfologikoa izenen biziduntasunarekin lotzen duen hierarkia horrek erraztuko zuen -*ga* plural marka gisa berranalizatzea. Hau guztia hala balitz, arestian aipaturiko eta Lakarrak gogora dakarren lokazioaren eta pluraltasunaren arteko loturak arazo bat gehiago luke, deklinabide arrunteko *lokati*bo → *plural* bilakabidearen paralelo faltaz gain.

Bide honetatik eraikitako hipotesiak balituzke, hala ere, arazoak: ergatiboarekiko lotura azaltzea zaila gertatuko litzateke —Silversteinen hierarkiaren arabera, bizidunak

dira, hain zuzen ere, ergatiborik hartzen ez dutenak—, eta errazago azaltzen da *-ga* lokatibo batetik abiatuta; era berean, Joseba Lakarra irakasleak ohartarazten nauen bezala, erraz azal daiteke *-ga* lokatiboa izen bizidunen leku-kasuetan agertzea, hain zuzen ere izen horiek behar baitute marka gehigarriren bat leku-kasuak hartu ahal izateko (hots, nolabait “leku” bilakatu behar dira: cf. *\*\*Maritxu-n* vs. *Maritxu-ga-n*); bestalde, badirudi adizkietako *-ga-* eta *-na-* (cf. *duan/dunan*, ik. 5.2.3.4 atala) hobeki azaltzen direla bere lokaziozko balioen batetik.

Esan daiteke forma beraren (*\*-ga* jatorrizkoa) balio ezberdinen (bizidunen leku-kasuetan, ergatibo markan eta pluralean agertzea) arteko harremana zehazteko dituzkegun zailtasunak gehiago dagozkiola datu edo analisi faltari, beste ezeri baino. Hurrengo azpiatalean, Smith-Starken orokortzean beste modu batean sakontzeko aukera aztertuko dut, honako hau alde batera utzirik: bere eta Silversteinen hierarkia osagarrien bidetik, aztertuko dut nola konpon daitezkeen arazo hauetako zenbait, onartuz lokazioarena dela *-ga* osagaiaren jatorrizko balioa eta datuen analisi xeheago bat emanaz.

5.5.5.2 *\*haga-ren bi gramatikalizazioak: -ga osagaia, ergatibitate erdibituaren arabera*  
7.2 atalean proposatuko dut numeroaren arabera ergatibitate erdibitua dagoela euskaraz; atal horretako eztabaidaren aurrerapentzat har litezke *-ga* atzizkiaz hemen esango ditudanak. Hauxe da azalpenaren oinarria:

- ◆ Silversteinen (1976) eta Smith-Starken (1974) hierarkiek modu egokian azal dezakete morfema berak ( $-k < *-ga$ ) pluralerako zein ergatiborako balio izatea eta pluraleko deklinabide mugatuan euskal eremu handi batean ergatiborik ez markatzea (numeroaren arabera ergatibitatea).

Hona hemen Silversteinen biziduntasunaren arabera hierarkiaren eskema oinarrizko bat:

(15) 1. p/2. p → 3. p → pertsonak → animaliak → [bizidunak] → bizigabeak

Silversteinen arabera, hierarkia honetako eskuineko aldeko izen motekin erabiliko da



ergatibo marka, hots, bizigabeenekin, besteekin baino maizago edo lehenago.<sup>417</sup> Orokortze hau berresten duen bibliografia zabala hona ekarri gabe, eta salbuespen posible batzuetarako, ikus Comrie (2013).<sup>418</sup>

Smith-Starckek (1973) hierarkia bera erabili zuen plural markatzerako: pluralaren markatze morfologikoa, ergatiboarenaz bestela, hierarkiaren beste muturrean egiten da, 1./2. pertsonekin eta bizidunekin, gehienbat. Honen zergatia honela ematen du Haspelmathek (2013):

The explanation for the role of animacy in plural marking seems to be the fact that the distinction between one and more than one is more salient for animates than for inanimates, so that speakers are more likely to make use of available plural markers when they refer to a plurality of animates. Through grammaticalization, this preference in language use can lead to obligatoriness in language structure.

Beraz, hierarkia beraren arabera azaltzen da ergatiboaren eta pluralaren markatze morfologikoa. Euskal datuei dagokienez, erraz azaltzen da *\*haga* D-elementua bi funtziotan gramatikalizatu izana: *-ga*-dun osagaiak hierarkia horren araberako banaketa osagarrian daude: normala da pluralean ergatiborik ez markatzea, izan ere lehenago gramatikalizatuko baitzen plural gisa sintagma bizidunetan, hain zuzen ere ergatibo markarik hartu ohi ez duten sintagmetan. Orokortze tipologiko ezagunetan oinarriturik, azalpen diakroniko egokia eman dezakegu *-k* (< *-ga*) morfemaren izaera dikotomikoa argitzeko.

Hipotesi honen barruan, onartzen dut *-ga* osagaia jatorrian lokatibo moduren bat zela eta, ondorioz, *\*haga* D-elementuak jatorrian balio lokatiboa zukeela:

- (a) Baliteke jatorrizko balio hori izatea *Andrearriaga* eta *Arespakotxaga* famatuetan gorde dena, aurreko atal batean esan dudaren aurka; ik. 4.5.2 (a) atala, non *-eta*-ren bilakabidearekin konparatuz, jatorrizko balioa pluralarena izan zitekeela esan dudan. Honela dio Mitxelenak (IX 512-513) kideko beste leku-izen batzuez:

<sup>417</sup> Andramendiko idazkietan bi adibide ditugu ergatiborik gabe: 1 *Jaunoc aguyn[su] ta Obeylos ta ycartuco Ulertu* eta 2 *Eneco Pagoetantayco da Uacheguyn ta baesoan bere naguçiar legues Ochoa Onsaluch*. Aipagarria da ergatibo falta izen bizidunetikiko bi sintagmatan izatea, bi izen berezitan. Dena den, ez dago argi esanguratsuak diren: testuari zahar itxura emateko ote? Ergatiborik gabeko adibide gehiago bildu ditut seigarren kapituluko (47a-g) adibideetan.

<sup>418</sup> Hona zer dioen Fleckek: “[S]ome Mayoruna languages are remarkable in that the sole ergative agreement morpheme is first person, in explicit violation of the nominal hierarchy” (2010: 47).

*Çuuycoaga* (111, siglo XIII), que parece significar algo así como ‘el lugar del puentecillo’, con -*aga* de valor vagamente local lo mismo que *en la peça que dixen* [sic] *Çuviverriagua* (310, 1246, Tajonar). Se nos escapa naturalmente la razón del nombre *Guiçairudiaga*, mod. *Izurdiaga* (cf. aquí 377, h. 1257), pero tiene que ser ‘el lugar de la figura humana, de la imagen de hombre’ o algo muy parecido.

- (b) *\*haga* D-elementua plural mugatu gisa gramatikalizatu zen, Smith-Starki jarraiki lehenik bizidunetan, ziur aski. Gramatikalizazio honek lokazioaren eta ugaritasunaren arteko harremanaren bidetik joko zuen, baina arazo zenbait daude: ez dirudi lokazioa izen bizidunekin ongi ezkontzen denik; arazo hau arestian aipaturiko *lokazioa* → *plurala* bilakaeraren paralelo faltarekin batera deskribatu behar dela dirudi.
- (c) *\*haga* D-elementua ergatibo mugatu gisa gramatikalizatu zen, Heinek eta Kutevak (2002: 199) deskribatzen duten joera orokorrarekin bat, *lokatibo* → *agente* bilakaerarena.

Hau guztia da, honenbestez, numeroaren araberako ergatibitate erdibitu gisa deskribatuko dudan fenomenoaren azalpena: erdibitze horrek jatorri morfologikoa du, eta, azken buruan, -*ga*-dun D-elementu jakin batek bi gramatikalizazio bide izan dituelako azaltzen da. 7.2 atalean sakonduko dut deskribapen modu honetan.

Ohar nagusi bat egin behar da: azalpen honek guztiak deklinabide mugaturako baizik ez du balio, eta hipotesi honen irismenetik kanpo geratzen da ergatibo mugagabearen erabileraren azalpena, hots, *izen, izenordain...* + -*ga* > erg. *izen, izenordain...* + -*k* sintagmen bilakaeraren xehetasunak; halako sintagmen erabileraren diakroniaren xehetasunek berriazko azalpena behar dute.

Bestalde, ohargarria da hipotesi honetan erdibitzea beti deskribatzen dela erakusleen gramatikalizazioaren menpe, eta honek bestelako galderak egitera garamatza: erakusleen gramatikalizazioa baino lehenago, ba ote zen erdibitzerik? Beste erdibitzeren bat izango ote zen? Eta, erdibitzerik ez bazen, deskriba ote daiteke sistema ergatiborik?

#### 5.5.5.3 hek erakuslea eta -ga

Aurreko atalean ustezko *\*haga* D-elementuaren xehetasun morfologikoak aztertu ditut,

*-ga* osagaiak horretan zer joko izan zezakeen argitu nahian. Baina gogoan hartu beharra dago *hek* erakusleak ere *-ga* morfema duela, bukaerako *-k* bere ondorengoa dela onarturik.

Onartzen badugu erakusleen jatorrizko singular/plural banaketa bokalismoan zetzala, *ha-/he-*,<sup>419</sup> ez da ongi ulertzen zertarako behar duen *hek* erakusleak *-k* pluraleko marka. Hau modu ezberdinetan azal liteke, bestelako aukerak baztertu gabe:

- (a) Onartuz *-k* (< *-ga*) atzizkiak bere balio plurala ustezko *\*haga* erakuslean garatu zuela, baliteke bertatik zabaldu izana pluraleko *he-* oinarrira, *-ga* > *-k* gertatu ondotik, beharbada.
- (b) Beste aukera bat izan liteke *hek*-en dagoen *-k* ez izatea pluralekoa, baizik eta horretan ere, jatorrian behintzat, lokaziozkoa izatea (ez dut berariaz aztertuko biziduntasun markaren aukera); hau da, *hek* erakuslean *-ga* morfema egon liteke, eta *\*hega* litzateke protoforma, baina artean morfema bizidun edo lokatibo marka gisa funtzionatzen zuela. Kasu honetan, banaketa osagarrian legoke leku-kasuetako *heta*-rekin.
- (c) Ez dirudi inondik ere *-k* ergatiboaren marka izan daitekeenik *hek* erakuslean, absolutibo zein ergatibo balioak izan baititzake honek.

Esan bezala, balizko *\*hega* protoformak leku-kasuetako *heta-* dakar gogora, egiturari dagokionez; pentsa daiteke *-ta-* hau ere lokatibo balioko morfemaren bat izan zela,<sup>420</sup> *-ga-* bera bezala, are gehiago *da* kopularekin lotzen badugu, Lakarrak (2013b: 309-312) proposatzen duen bezala (ikus, halaber, lokatiboaren eta kopularen arteko loturaz, Heine eta Kuteva 2002: 100). Ez legoke argi, hala ere, *-ga-* eta *-ta-* morfemak bereizita, zergatik dugun batean *\*hega* eta bestean *heta-*, lehenean ahostunarekin eta bigarrean ahoskabearekin; badirudi kronologia ezberdinez aritu beharko genukeela (ahantzi gabe egun *-k* ahoskabea dugula, jakina). Trasken legea (1995: 231) aldarrikatzen du

<sup>419</sup> Castañosek bestela uste zuen: *-k* osagaia zen plurala markatu zuena, eta *he* jatorrian singularrekoa edo numeroarekiko neutroa zen (1979: 92-105).

<sup>420</sup> Morfema hau, jakina, lehenago ere identifikatu izan da: Lafon (1999: 168), adibidez, Schuchardtek dakarren nahasmena gorabehera (jatorri ustez latindarreko *-eta-*ren berranalisis azaltzen du honek *-ta-*), euskal jatorriko *-ta-* batez mintzo da.

Lakarrak, baina morfema baterako balio duenak besterako ez du balio kasu honetan. Auzi honetan gehiago sakondu gabe, aipagarria da *heta-* ereduak bete-betea betetzen duela Martineten ereduaren arabera herskariaren banaketa (1950).

#### 5.5.5.4 Bururatzeta eta azken ohar bat -ak eta -ek D-elementuen arteko harremanaz

Ustekizun hauek guztiek ez dute azalpen erabatekorik ematen *-(h)ek* eta *\*-(h)ak* D-elementuen arteko harreman zehatzaz. Laburbilduz, esan daiteke *-ek* D-elementuarekin ez dagoela arazo nabarmenik: *hek* erakusletik eratortzen da diakronikoki, besterik gabe. Deklinabideko *-ak* atzizkiaren nondik norakoak, ordea, ez daude hain argi: D-elementu gisa identifika dezakegu, Erdi Aroan *-haga* agertzen delako, baina zalantzazkoa da bere estatusa erakusle sisteman.

Horretaz guztiaz gain, azken ohar bat egin daiteke euskararen barrenean biek duten orokortasun maila ezberdinaz:

- (a) *-ek* orokorra da erakusle sisteman eta izenordainetan euskal eremu osoan (cf. *hauek* edo *zuek*); izenaren deklinabide mugatuan ere agertzen da, baina ekialde zabaleko hizkeretan bakarrik.
- (b) *-ak* izenaren morfologian baizik ez da orokorra, eta ez da ageri erakusleetan eta izenordainetan, berrikuntza zenbait gorabehera (cf. *horiak*, *batzuak* etab.).<sup>421</sup>

Ohar honek bien arteko harreman kronologikoa argitu lezake, honako orokortze hau gogoan harturik (Daniel 2013):

[I]f a language has a number distinction anywhere, then it has it at least in pronouns, or, speaking in diachronic terms, that plurality has spread from plural personal pronouns to other nominals (cf. Forcheimer 1953).

Orokortze honek honela egingo luke bat hemen eginiko berreraiketarekin: *-ek*, erakusleetan zein izenordainetan orokorra den neurrian (cf. *hai-ek* eta *zu-ek*, hurrenez hurren), zaharragoa da bakarrik izen morfologian aurkitzen den *-ak* (< *\*haga*) baino, eta

<sup>421</sup> *Euskal Klasikoen Corpus*-aren arabera, *batzuak* XX. mendean hasten da agertzen. Ezberdina da *horiak*-en kasua, Leizarragak behin eta berriro erabiltzen baitu, balio absolutiboarekin, balio ergatiboko *horiak*-en ondoan (behin dakar hau); badirudi autore honen berrikuntza dela. Beranduago, Urteren *Ethorki*-ko adibide bat dakar *Euskal Klasikoen Corpus*-ak, baina eskuizkribuan begiratuta *horioc* irakurtzen da (22. kapitulua, 6. atala); Urtek *horiok* eta *horion* bezalakoak erruz darabiltza.

erakusleen jatorrizko erg./abs. bereizketa eza atxikitzen du. Erakusleetatik eta izenordainetatik kanpo, ordea, argudiatu beharra dago berrikuntza dela ekialdeko izenaren deklinabide mugatuko erg. *-ek*, erg./abs. *-ak* zahar eta inoiz orokorragoaren aldean: izenordainetako eta erakusleetako *-ek* atzizkiaren aldean, bazter batekoa baizik ez da, ekialdekoa bakarrik, eta, inportanteagoa dena, balio bakarrarekin espezializatuta ageri da, ergatiboarenarekin, erakusleen jatorrizko eta berezko bereizketa eza galduta; erakusleetatik urruntzen duen ezaugarri honek du salatzen bere berritasun erlatiboa.

Bestalde, *-ak* atzizkiari dagokionez, izenaren deklinabidean baizik ez da garatu; honek pentsarazten du gramatikalizazio bide bereizi batetik izan duela garapena, 5.5.5.2. atalean azalduriko ñabardurekin, ez pluraleko beste atzizkien modura.<sup>422</sup>

#### 5.5.6 Erakusleen berreraiketa: ondorioak eta arazoak

Hona hemen laburbilduta erakusleen zeharkako berreraiketa honen emaitzak, bere ondorio eta arazoekin:

- (a) Erakusleen hasierako hotsa hasperena zelako hipotesia hobetsi dut, ez herskari belarra (ahostuna zein ahoskabea) (5.5.1 atala).
- (b) Hirugarren graduko erakusle singularrerako *\*ha* berreraiki daitekeela aipatu dut (5.5.2 atala).
- (c) Erakusle pluralen jatorrizko forma monosilabikoa zela proposatu dut (5.5.3 atala).
- (d) Zenbait izenordainek (cf. *zuek*, *guk*) eta erakusle plural guztiek bigarren osagai moduan *hek* dutela proposatu dut (5.5.3.1 eta 5.5.3.2 atalak).
- (e) Berreraiketa modu honek jatorrizko erakusle sistema gradu bakarrekoa izan ote zitekeen galdetzera eraman nau (5.5.3.3 atala).
- (f) Erakusle pluralen sisteman mendebaldeko eta mendebalde-erdialdeetako hizkerak berritzaileak direla proposatu dut: *honeek/aek* vs. *hauek/hek* (5.5.4 eta 5.5.3 atalak).
- (g) Singularrekoan, ordea, gordetzailea da mendebaldea: *a* vs. *aura/hura* (5.5.2 atala).
- (h) D-elementutzat jo dudana *-(h)aga* atzizkiaren gramatikalizazio bidez gogoetatu

<sup>422</sup> Ohar hau 5.2.5.3 atalean zerrendaturiko ezaugarriari gehitzen zaie, eta, beste behin, *-ak* bereizten du pluraleko beste atzizkietatik.

dut, *-ga* osagaiaren jatorrizko balio lokatiboaren bidetik: nola iritsi den erg. sg. *-ak* izatera, eta nola erg./abs. pl. *-ak* izatera (5.5.5.2 atala).

- (i) Numeroaren araberako ergatibitate erdibituaren hipotesia aurkeztu dut, eta ekialdeko deklinabide mugatuko *-ek* atzizkia berrikuntza izan behar dela argudiatu (5.5.5 atala).

Atalaren hastapenean esan bezala, deklinabide mugatuaren diakroniaren xehetasunen berri ematea da tesi honen helbururik behinena; erakusleen diakroniaz esan dezakeguna deklinabidearenaz egin genezakeenaren menpe dago tesi honetan.

Erakusle sistema bere osotasunean eta berariaz berreraikitzeke, erakusleak behar dira aintzat hartu, testuz testu eta bere balio eta forma ezberdinekin, ez soilik haien ondorengo gramatikalizatuak diren artikulu, izenordain eta beste. Bide hori hartzen du Irigoienek (1978, 1981), orobat Azkaratek eta Altunak (2001: 12-20).

Atal honetan, deklinabidea aztertzetik datozen zenbait ideia orokor bildu dira, erakusleen berreraiketan gako izan daitezkeenak, baina erakusleen berariazko berreraiketa egin gabe dago. Etorkizuneko lan honetarako, aintzat hartzekoak dira Schulzeren zenbait ohar; erakusleen berreraiketak dituen berezitasun zenbait aipatzen ditu, sei puntutan banatuak (2003: 292-294): (1) erakusleen jatorri etimologikoa ez da argia izan ohi, eta formaren eta esanahiaren arteko harremana fonosinbolikoa edo fonoestematikoa —“phonesthematic” jatorrizkoan— izan daiteke; (2) erakusleen izaera fonetikoa aldendu egin daiteke lexiko arruntarenetik eta arau fonotaktiko kanonikoetatik; (3) erakusle paradigmak iraupen txikikoak izan ohi dira; hots, handia izan ohi da bariazio diakronikoa eta sinkronikoa paradigma horietan; (4) erakusleetako fonemek maiz ez diete hertsiki segitzen hizkuntzaren arau fonetikoei, eta horietan gertatzen diren aldaketek berariazko azalpenak behar dituzte; (5) erakusleak maiz daude aldaketa funtzionalen eta semantikoen menpe, hau da, espazio deiktikoaz hitzun komunitateak duen oharmenean gerta daitezkeen aldaketen menpe; (6) erakusleen azpi-paradigmak maiz dira mixtoak beranduagoko aroetan —inoiz paradigma pururik izan bada—, eta, adibidez, gradu hurbileko erakuslea gradu urrunekoaren gehiketaz osa daiteke, eta bigarren graduako erakuslea sortu, eta abar. Nire ustez, datozkeen lanetan

lagungarri izan beharko dute puntu hauek, eta honela dio Schulzek berak: “any project to reconstruct the paradigm of demonstrative pronouns for a proto-language depends heavily on the question to which extent these six aspects become relevant or not” (2003: 294).

### **5.6 Deklinabide mugatuaren eta erakusleen berreraiketa: saio mota honen oinarriak eta haren ondorio zenbait**

Honela laburbil daitezke deklinabide mugatuaren berreraiketarako harturiko jarraibideak:

- (a) Deklinabide mugatu osoa, pluralekoa barne, erakusleen gramatikalizaziotik azaltzen egin behar da ahalegina.
- (b) Horrek ondorio zuzenak ditu erakusleen jatorrizko formez esan dezakegun horretan: zein bere aldetik hartuta egin daitezkeen berreraiketa saioen balioa baztertu gabe, argi dago erakusleen zein deklinabide mugatuaren berreraiketa elkarren menpe jartzeak onura dakarrela bien diakroniaren ezagutzan sakontzeko.
- (c) Duvoisinin ideia alderantzizkatuz, baina bere argudio moduari jarraiki, erakusleen berregituratzeak deklinabidea osatu ondokoa behar zuen; bestela, deklinabidean ere ikusiko genituen aldaera horiek. Horren adibide garbia da genitibo pluralaren kasua: mendebaldean, berregituraturiko *aen* erakuslearen ondorengo *-aen* ere badago deklinabide mugatuan, *-en* zaharragoaren ondoan.

Oro har, esan daiteke berreraiketarako jardunbide honek deklinabide mugatuaren diakroniaren azalpen orokor egiantzekoa ematen duela eta zein bere aldetik egin izan diren azalbide zenbait bateratu ditzakeela —azentuaren auzian, adibidez—, baina bere arazoetako asko erakusleen berreraiketaren eta bere gramatikalizazioaren xehetasunen arloetara eramaten dituela. Horrek arazoak egoki deskribatzen eta identifikatzen lagundu gaitu, eta bestelako erantzunak bilatzea ahalbidetu.





SEIGARREN KAPITULUA  
ARTIKULUAREN SINTAXIA.  
**XVI. MENDEKO EGOERAREN DESKRIPZIOA**

Kapitulu honetan, deskribatu dut nola erabiltzen zen XVI. mendean *-a* artikulua, funtzio sintaktiko nagusien arabera. Horretarako, 3.2.4 eta 3.2.5 ataletan emandako irizpideak hartu ditut aintzat, eta VI.1 eranskinean zerrendaturiko testuinguru sintaktikoetako batzuei begiratu diet; XVI. mendeko testuetakoak dira datuak, 3.4 atalean zehazturiko corpusaren araberakoak.

Helburu behinena hauxe da: betetzen hasia Mitxelenak ikergaia aipaturiko hutsuneak (ikus 2.6.1 eta 3.2 atalak); gainbegirada orokorra da hau, eta azaldu gabe geratuko dira hizkera edo autore jakinen hainbat xehetasun. Eginbide zabalago baten hasikin moduan ikusi behar da kapitulu honetakoa: berez, lan monografikoak behar ditugu autore, garai eta euskalki bakoitzari buruz, deskribatuko dutenak izen sintagmen erreferentzialitatea nola markatzen den horietako bakoitzean, eta zein morfologiaren arabera zein xehetasun semantiko adierazten zen.

Kapitulu honetako helburua deskriptiboa da, horrenbestez. Beharrezko diren analisi semantiko sakonagoek ez dute tokirik izango, eta etorkizuneko lanetarako geratuko dira.

### **6.1 Artikulua XVI. mendera arteko hiztegietan**

Argi dago hiztegi eta hitz zerrendetan ez dagoela aski syntaxirik, artikuluen erabilerari buruzko azterketa sakonik egiteko. Baina horietan dagoen informazio apurra sailka daiteke, ikusteko testuetako sintagmetan deskriba daitezkeen joerekin bat egiten duen. Deskriba daitezkeen ezaugarrien berri eman dut ondoko azpiataletan.

#### *6.1.1 Artikuluaren erabilera, izenen izaera semantikoaren arabera*

Ezaguna da izaera semantikoaren arabera dutela artikulua Picauden hiztegiko hitzek; ongi azaldu zuen López-Mendizabalek hori (1966: 78-79). Bi multzotan sailkatu zituen

hiztegitxoko hitzak, artikuludunak eta artikulugabeak, eta zehaztu ere zehaztu zuen zein irizpide semantiko antzeman zitekeen sailkapen horretan: “Los nombres *ogui, ardum, aragui, araign* son nombres partitivos” (1966: 79). Beranduagoko lanetan ere eman izan da honen berri (Azkarate eta Altuna 2001: 65, Santazilia 2013: 230-231). Honenbestez, hiru puntu nagusitan eman daiteke hiztegitxo honetako informazioa:

- (a) Artikuluarekin agertzen diren izenak hauek dira: *Urcia, Andrea Maria, echea, iaona, andrea, belaterra, ereguia, Iaona domne Iacue*. Izen arrunt zenbakarritzat jo daitezke, oro har.
- (i) Aipagarria da *ereguia* artikuluduna: artikulua duenez, badirudi erabateko izen arrunt gisa hartu zela, eta ez erreferente bakarreko izen gisa. Erreferente bakarrekotzat har zitekeen, orobat, *iaona* “dominum domus”, eta are *andrea* “dominam” ere (gogoan har *ugazaba* hitzaren jokabidea, maiz artikulugabea, 6.2.4.1 (b) atala); artikuluarekin daude biak.
- (ii) Aipagarriak dira, orobat, *Andrea Maria* eta *Iaona domne Iacue*: ordenarengatik, badirudi izendapen edo titulu gisa ageri direla *Andrea* eta *Iaona*, latin-erromantzeetako *senior* edo *domina* izendapenen kide (cf. *senior Lope Garseiz* eta *domina Ozenda Semenez*, *SMillán* 927 eta 1190, hurrenez hurren). Normalean, artikulurik gabe agertzen dira izendapen edo titulu hauek Erdi Aroan: cf. *andre tota sanoyz* (*SMig* XII. m.) eta *Jaun Tellu de Forniellu* (*DocLeire* ~1108). Adibide artikuludun bat aurkitu dut, hala ere: cf. *ego Anderea Oneca de Aoiz* (*SJuan* ~XI). Ez dut horrelakorik aurkitu *jaun*-ekin, ez bada antroponimoaren azken osagai gisa, cf. *Sancho Iauna* (*DinChampI* ~1236) eta *don Ochoco Jauna* (*AGNComp5* 1291).
- (iii) *Urcia* artikuluarekin agertzea erabili izan da argudiatzeko ez duela ‘Jainko’ esanahia: “[E]l nombre de dios debiera aparecer como nombre propio, es decir en forma indefinida” (Bähr 1929: 534); ikus halaber López-Mendizabal (1966: 79).
- (b) Artikulurik gabe agertzen direnak hauek dira: *ogui, ardum, aragui, araign* eta *gari*. Izen zenbakaitzak dira hauek guztiak, edo, bestela esanda, masa izenak.

Pentsa liteke salbuespena dela *araign* “piscem”, zenbakarritzat jo daitekeelako, gaztelaniaz “pez” itzultzen badugu; baina, kasu honetan, ziur aski “pescado” itzuli behar da, eta izen zenbakarrietara hurbiltzen du horrek (*aragui*-ren ondoan ageri da, gainera). Horrela, ongi azaltzen da artikulurik gabe agertzea, eta horrek berak indartu egiten du *arrain* hitzaren jatorri etimologikoan partizipioa ikustea; bestela esanda, hurbilago egongo zen *arrain* hitzaren jatorrizko esanahia “pescado” zenbakaitzetik, “pez” zenbakarritik baino, eta horrexegatik ageri da artikulurik gabe (*EHHE* s.v.).

- (c) Bestelakoak dira *elicera* eta *uric* hitzak: partitiboan dago *uric*, eta *elicera* adlatiboan egon liteke, edo, zaraitzuerazko lakukotasuntzat hartuz gero, *elizara* absolutiboaren lekukotasuna izan liteke. Gogoan har bedi dokumentatua dagoela -*r*- epentetikoa -*a* duten hitzez bestelakoetan ere, cf. IbarC *solora* eta Land *abejoera*; ik. 2.4.2.3 atala. Artikuluduntzat hartuz gero, jakina, (a) puntukoekin batera jarri behar da.

Bestelako hizkuntz egoera baten berri ematen digu Von Harffen hiztegiak: artikuluaekin agertzen dira ia izen zenbakaitz guztiak (*ogea*, *arduwa*, *oyra*, *gaza*, *oluwa*); *aragi* da artikulurik ez duen bakarra. Zenbakaitzetatik kanpo, artikuluaekin ageri da *hytzokosanma*, ziur aski *etxeko jauna*; ohar bedi *etxeko* izenlaguna duela aurretik *jauna*-k, eta horrek artikulua agertzea are gehiago bultzatzen duela. Ezin da jakin *gasta* hitzak artikulua duen, eta *huetza*-k interpretazio arazoak ditu.

Erdi Arotik kanpo, hitzen izaera semantikoaren eta kategoriaren araberrako banaketa antzeman daiteke Leizarragaren euskara-euskara hiztegian ere (zubererazko ordainak ematen dizkie bere hizkera nagusiko hitzei). Izenak, oro har, artikuluaekin ematen ditu Leizarragak; hiru sarreratan, ordea, artikulurik gabe ematen ditu: (1) *artha*, *ansia*, *achola*, *arrangura*;<sup>423</sup> (2) *vrriqui*, *dolu* eta (3) *pescadore*, *arrançale*. Esanguratsua da lehen biak izen abstraktuak izatea (bere zerrendan ez dut aurkitu beste izen abstraktu garbirik); hirugarrenari ezin zaio azalpen semantikorik eman, baina *Nic*

<sup>423</sup> Irizpide gisa hartu dut tiletik ez izatea. Ez da baztertu behar, jakina, forma artikuludunak izatea, tiletik izan gabe ere. Orobat *lachera* izenondoa.

*eguinen çaituztet guiça pescadore* perpauseko “guiça pescadore” predikatuaren glosa eman nahi izan du Leizarragak, eta horrek eragin du, nire ustez, forma mugagabea ematea hiztegian ere. Izenondoen artean, berriz, hiru multzo bereiz ditzakegu: lehenean, *cikotza*, *chekena* dago, biak artikuludun; bigarrean, *laçoa*, *lachera* eta *garastia*, *kario*, zubererazko ordaina artikulurik gabe; hirugarren multzoan, batere artikulurik gabeko sarrerak ditugu, *karmin*, *mingatz* batetik, *libre*, *franco* bestetik, eta *reuoltari*, *querellos*. Orotara, nagusi dira artikulurik gabeko izenondoak.

XVI. mendeko beste hiztegiatan, mendebaldekoetan, ezin da antzeman inongo irizpide semantikorik. Marineo Sículorenean, adibidez, izen guztiak agertzen dira artikuluekin, baita erreferente bakarrekoak izan zitezkeen *Aytéa* eta *Améa* ere (cf. orobat Land *amea* “madre” eta *aytea* “padre”). Orobat infinitibo baten ordain gisa ematen den *Oneréxtea*. Izenondoez denaz bezainbatean, interesgarria da Landuchioren kasua: izendatzeko forman, artikuluekin agertu ohi dira: *garbia* “enxuto”, *çurra*, *auarientoa* “escasso auariento”, *ederra* “hermoso”, (B) *moradua* “morado” etab.; cf., izenduak, (B) *ichusia* “fea cosa” eta *gauça guiçena*, *lodia* “gorda cosa”. Predikatu gisa ageri direnean, ordea, beti dira artikulugabe: *constante yçan* “constante ser”, *ero yçatea* “locura”, etab. (ikus 6.2.3.1 atala).

Baditu Landuchiok artikulurik gabeko hitz edo sintagma gehiago ere: cf. (C) *ancora ysasoco* “ancla de naue”,<sup>424</sup> *eguçari euçayteco* “fiesta de guardar”;<sup>425</sup> izenondoetan, cf. *caual*, *edetē deuena* “cabal lo que cabe” eta *jatorduã lasç* “aspero al gustar”, eta izen + izenondo egiturarekin *gauça azul* “azul cosa”; bestelakoen artean, cf. (B) *massan razimo* “burbujo de vbas”, (B) *gorroto* “odio, enemistad”, *çentru* “çentro”, *elorri* “espino arbol”, *gari* “farro, o escandia”, *pañu* “lienço”, *gayxtoao* “peor”, *quintal* “quintal”. Hauen artean, *jatorduã lasç* izenondoaren adibidea iruditzen zait esanguratsuena; *gari*, izen zenbakaitza izanik ere, bakartuegi dago hiztegian; *çentru*-rako, pentsa liteke hitz hori batez ere leku-kasuetan erabiltzen delako eman zuela

<sup>424</sup> Cf. *cardenale erromacoa*, *gauça çerucoa* eta *costilla ezipinazocoa*. Eta, *itsaso* izenarekin, *yçassoco creçientea* “creçiente de mar” eta *yssasoco almirâtea* “almirante de mar”, nahiz eta ordena ezberdinean egon izenlaguna.

<sup>425</sup> Cf. *copa edatecoa*.

hiztegigileak formarik “neutroenean”. Bestalde, *elorri*-ren kasuan, ohartu behar da ez duela zehaztapen gehigarriarik, *pinoa errexala* “pino” edo *pagua errexala* “roble, arbol” adibideetan ez bezala. Adberbio moduan har daiteke *gayxtoao*, eta baliteke mailegu izaerak eraginik izatea *caual*, *gauça azul*, *massan razimo*, *pañu* eta *quintal* adibideetan; agian, talde honetan sar liteke *gorroto*, ez badugu bere izaera semantikoaren araberrako azalpena eman nahi, izen abstraktua baita.

Azkenik, ez dirudi esanguratsua denik IbargeCHiz-en gazt.-eusk. hiztegiko *ardo*; eusk.-gazt. hiztegian *ardoa* agertzen da, eta baita *buru* ere. Badira artikulurik gabeko adibide gehiago eusk.-gazt. hiztegi honetan: *anzi*, *cidor*, *lora* eta *ondo*; badira, halaber, bi formak dituztenak, artikuluduna eta artikulugabea: cf. *buru o burua* eta *echa, echea*.

### 6.1.2 Amaieran -a duten hitzen jokabidea, mendebaldeko hiztegietan

Picaud eta Von Harff Nafarroan gaindi ibili bide ziren. Mendebaldeko hiztegietan, bestelako gertakariak deskriba daitezke; salbuespenak salbuespen, hiztegi hauetan hitz guziek izan ohi dute artikulua, baina aipagarria da -a edo -ia berezkoa duten hitzen jokabidea: modu sistematikoan ager daitezke artikulurik gabe, testuaren arabera:

- (a) Landuchioren hiztegian, nabarmena da -ia amaiera duten hitzek ez dutela ia inoiz artikulurik hartzen, ez modu agerikoan, behintzat. Landuchioren hizkeran -a + -a > -ea bilakaera morfonologikoa dugu -a berezkoa duten hitzetan, baina -ia amaiera dutenetan ez da \*\*-iea egiten: cf. *abbadia*, *astuçia*, *auariçia*, *barberia*, *compania*, *cortesia*, *miseriçordia* eta beste hainbat; hauen artean, aipagarria da *codiçia*, *gurea* “*codiçia*”, -a berezkoa duen *gura* hitzean badagoelako disimilazioa. Salbuespen bakarra *nouiea* “*nouia*” da. Absolutiboaz bestela, cf. ergatiboan (C) *maïstru justiçiac nonbradua* eta genitiboan *pistian crestea* (singulartzat jo dut, gazt. “*cresta de aue*”). Ageri denez, izaera semantikoaren aldetik denetariko izenak daude hitz hauen artean, eta arrazoi bakarra antzeman daiteke ageriko artikulurik ez izateko: -ia amaiera dute hitzok guztiok.

Nire ustez, ezin da ziurtasun osoz esan hitz hauetan ez dagoela artikulurik: pentsa daiteke izaera jakin bateko maileguez, -ia zutenek, ez zutela jokatzeko

bilakera morfonologiko orokorren arabera; beharbada hizkuntzaren ezaugarri fonotaktikoek galarazten zuten *-iea* triptongoa.

Are interesgarriagoa suertatzen da Landuchiorengan deskriba daitekeen fenomeno hau, Lazarragaren testuari begira jarrita: honetan, *-ia* bukaera duten izenek *-iea* bukaerarekin egiten dute forma mugatua: cf. AL: 1138v *historieac*, AL: 1153v *Narbaezec aen contra emun eben sentenciea*, A6: 30 *gueraciea indaçu*, A10: 19 *licencia, arren, indaçu*. Ageriko artikulurik gabe agertzen dira, berriz, AL: 1146r *bere ugaçabari licencia escatu jacan* eta AL: 1146r *bere ugaçabari licencia escatu equionean*; hauetan baliteke artikulurik ez izatea, *litzentzia eskatu* esapidearen barrenean baitago izena (cf. *barkamenduskatu* aditza, objektu artikulugabe “inkorporatuarekin”), cf. orobat A26: 127-128 *eguin бага penitencia*, B22: 7-8 *eguiten daue [...] penitencia* eta B22: 22 *eguiten erromeria*, denak *egin* aditz arinarekin.

Beste adibide zenbaitetan, ordea, ezin da azaldu artikuluaren falta: B15: 45 *nic ez “bay” esateco licencia* eta B26 poemako 4 *elçaen çaco flaquencia*, 6 *andia dacar fantasia*, 8 *costa jacan baroeoni balentia* eta 10 *ecarricea licencia*. Lazarragaren gramatikari begira, adibide hauetan ez dirudi artikulua faltari azalpen bete-beterik eman dakiokenik sintaxiaren edo izenen semantikaren arabera; horietarik batzuk izen abstraktuak izatea, beharbada? Baina *balentia* eta *flaquencia* subjektu funtzioan daude, eta ez dirudi Lazarragak subjektu mugagabeak modu produktiboan erabiltzen dituenik, ikus 6.2.4.2 ataleko (54a) eta (56) adibideak.<sup>426</sup> Ohargarria da B eskukoak izatea adibide hauek guztiak; horretaz gain, B26 poeman, errima dute lehen bi bertsoleroetako *Escocia* eta *Venescia* izen bereziekin. Horrenbestez, eta Landuchiorengan *-ia* duten izenetan antzeman daitekeen patrioiaren arabera, nire ustez, ezin da baztertu artikulua egotea Lazarragaren hauetan ere, ondorio morfonologikorik gabeak baldin badira ere: ikus (50)-eko adibideak, 6.2.4.2 atalean.

(b) IbarGCHiz-en bada beste kontu aipagarri bat: oro har, gaztelania-euskara (G-E)

<sup>426</sup> Ohargarria izan daiteke nor-nori perpausetan egotea hauek; cf. Oihenarten (49)-ko adibideez eta Zalgizeren (55c)-ko adibideez esandakoa, 6.2.4.2 atalean.

hiztegiak artikuluekin ematen ditu beti euskarazko ordainak. Hauek dira salbuespenak, euskara-gaztelaniazkoak (E-G) ondoan jarrita: *eliça* (E-G: *eliza*), *jaca* (E-G: *jaca o jaquea*), *capa* (E-G: *capa, capea*), *gorgera* (E-G: *gorgera*), *balona* (*balona* da gaztelaniazko ordaina), *espata* (E-G: *espatea*), *daga* (E-G: *dagea*), *ayzcora* (E-G: *ayzcora*), *ola* (E-G: *olea*; kasu gainera, lehentxeago *ola* ‘ohola’ baitakar, artikuludun), *tipula* (E-G: *tipula*; *tipulea* jarri da gainean), *guinda* (E-G: *guinga*), *ayngaira* (E-G: *ainguira*), *guilça* (E-G: *guilzea*), *çarralla* (E-G: *zarrallea*), *ayngula* (E-G: *aingula*), *balea* (E-G: *balea*).

Ageri denez, *-a* berezkoa dute izen hauek guztiek; horietatik kanpo, cf. 6.1.1 atalean aipaturiko *ardo* eta eusk.-gazt. hiztegiko *buru*. Antzeko adibide zenbait aurkitu ditut Landuchioren hiztegian: (*B*) *malua* “malua, yerua”, *aguinçala*, *aguinquetã deuenta* “mandon” eta *masç parra* “parra, o vid”; zalantzarikoa izan daiteke *borrajea*, (*B?*) *borraga* “borraja yerua”. Interesgarria da *gauça vera* “baxa cosa” eta *gauça vereia* “barata cosa” bikotea (cf. *gauça gorea* “cara cosa”); cf. bestalde *ondo gura* “bien querer” aditza eta *ondo gurea* “bien querencia” izena.

### 6.1.3 Definitutasun marka eta numero morfologikoa: singular -a plural -ak

Mendebaldeko hiztegietan, hitzen izendatzeko forman, ia beti markatzen da numeroa artikuluen bitartez, gaztelaniazko ordainaren arabera; hala da Landuchioren, Iburguen-Cachopínen eta Sarasketaren hiztegietan. Marineo Sículoren hiztegian ez dago pluraleko sintagmarik, baina esanguratsua da zer dioen bere hiztegitxoaren aurretik: “[D]igo que es propio desta manera da hablar acabar muchos vocablos del numero singular en *a* y el plural en *ac* y si alguno quisiere ver el exemplo desto, lea lo siguiente: como *Lurra* que quiere dezir *Tierra* y *Lurrac* en numero plural *Tierras*” (1539: 28v, Libro Quarto);<sup>427</sup> gogora ekartzen du honek XVI., XVII. eta are XVIII. mendeetako zenbait autoreren arteko eztabaida (*FHV* 381, 3 oh.; ikus halaber VII 302).

Badirudi mendebaldean galdua zutela ordurako *-a* eta *-ak* artikuluek definitutasun marka izaeraren parte handi bat. Hitzen izendatzeko forman nabarmena da hori: cf.

<sup>427</sup> Informazio bera dakar 1533ko latinezko edizioan. Ezin izan dut kontsultatu 1530eko lehen edizioa.

Land *brasa* “brasea”, *rico* “auerasça”, *andac* “andas”, *viriac* “bofes”, *bragac* “bragas”; Sarask *dornua* “torno”, *archinchor[r]ac* “chinas”, *cardaac* “cardas”; hauen artean, salbuespena da Sarask *arcua* “ell arco”, artikuluarekin emana baita gaztelaniazkoa.<sup>428</sup> Baina bada izendatzeko formetatik kanpoko adibiderik ere: aditzaren objektu posizioan, cf. Land *adouadu viandac* “adobar manjares”, *onçac eguin* “amigar hazer amigos”, *torçoyac daucan auerea* “atoroçonada bestia”, *narruac curtidu* “curtir queros”, dedarrac emon “bozes dar”, *miembro andiac daucana* “membrudo”, *vleac atera* “pelar sacar pelos”, etab.; cf., hala ere, erdal artikuluaren ordain gisa ere, *veguiac encapotadu* “encapotar los ojos”. Interesgarriagoak izan daitezke subjektu posiziokoak, hauetako izen sintagmek interpretazio definitua izateko joera baitute (ik. 3.2.4.2 atala): bada Land *ydiac bramadu* “bramar los bueyes”, non gaztelaniazko artikulua pluralak euskal *-ak* atzizkiarekin itzultzen den, baina cf. halaber *ardiac deadarr eguin* “balar ouejas”; esanguratsuagoa izan daiteke, argiagoa izan daitekeelako subjektuaren interpretazio ez definitua, *egunac yrago dira* “dias a”; denbora zenbatzeko beste esapide batean, cf. *trechu da* “rato ha en tiempo”, argumentu artikulugabearekin.

Orain arteko adibide guztietan eta hemendik aurrerakoetan, gaztelaniazko ordainak erabili ditut lagungarri, ñabardura semantiko zenbaiti buruzko informazioa ateratzeko. Argi dago ez dela jokabide ideala, baina ezin da besterik egin datu mota honekin.

Absolutiboaz besteko kasuetan ere antzeman daiteke fenomeno hau, interpretazio ez definituko D-elementuekin: datibo pluralean, cf. Land *andray emona* “dado a mugeres” eta *viçioay emona* “dissoluto en viçios”;<sup>429</sup> genitibo pluralean ere proposa litezke zenbait adibide, cf. Land *andrã gurea*, *añiçionadua* “amador de mugeres”, *errexalan agallea* “agalla de arboles”; hauetan, gutxienean, onartu beharra dago

<sup>428</sup> Agian gogora ekar daitezke Artazub 4 *Artuco dot escu batean guecia* / 5 *Bestean çuci yraxegui* bertsolerroetako sintagmen itzulpenak, *guecia* “el dardo” baina *çuci yraxegui* “una acha de palo encendida” (ikus 6.3.1 atala). Baliteke erreferentzia esparru jakin bat ezartzea elkarri uztaiak eta geziak, eta horregatik interpretatzea errazago erreferente definituko sintagma moduan; ikus, jarraian, Hawkinsen “associative relationships between entities” irizpidea.

<sup>429</sup> Datibo singularrean ez dugu fenomenoaren adibiderik: *vrru eguin seguiay* “arrullar el niño”, *auereay cabrestua egosçi* “cabestrar la bestia”, *chacurray exe essan* “exe dezir al perro” eta *Jaungoycoay erregutu* “orar a Dios”.



*andrã/de mugeres* eta *errexalan/de arboles* sintagmek ez dutela erreferente zehatz bat. Zailagoa izan da erabakiak hartzea genitibo singularreko sintagmen interpretazioari buruz: adibidez, *edifícioan çimẽdua* “assiento de edifício” sarreran, *edifícioan* sintagma ongi interpreta liteke erreferentzia definitu zabal baten barruan, Hawkinsek (1991: 408-409) aipatzen duen “associative relationships between entities” irizpidearen arabera: hots, *zimendu* hitzak berak ezartzen du *edifizio* hitzarentzat erreferentzia esparrua. Horrelako adibideak asko dira Landuchioren hiztegian, cf. *essean solarea* “albañar de casa”, *astoã gauçea* “asnal cosa”, (C) *ydiã corocha* “boniga de buey”, *silleã coxina* “coxin de silla”, etab. Agian, *ardao* izen zenbakaitza delako, interpretazio ez definitua duela ulertu behar dugu *ardaoan bodegu[ea]* “bodega de vino” sarreran dagoen *ardaoan* genitiboa, nahiz eta artikularekin agertu. Baina, esan bezala, adibide hauek guztiek ezin digute nahi bezainbeste informazio eman, ez baitago haietan aski testuinguru sintaktiko eta diskurtsiborik.

Orobatsu gertatzen da sozietiboarekin: cf. sing. (C) *gazcararraquin joa* “apedrear con granizo”, *serreaquin serradu* “asserrar con sierra”, *coajuaquin coajadua* “cuajar con quajo”, etab.; berdintsu pluralean, cf. adibidez *armadu armaquin* “armar con armas”, *obraquin consoladu* “consolar con obras”. Aipagarria da mugagabearen erabilera: cf. *amadia honestidadequin* “amado honestamente”, *artifiçioquin* “artificialmente”, *condiçioquin* “condicionalmente”, *verbaquin ynjuriadu* “iniuriar de palabra”; honetan, bat egiten du ekialdeko testuekin, cf. Etxep 1: 373 *dolorerequi*, 4: 8 *veldurrequi* Leiz 1392 *federequin*, 1404 *dolurequin*, 1412 *indarrequin*, EspGut 13: 18 *ondra gouzirequin*, Oih 184 *beldurreki*, 202 *ahalgeizuneki*.

Absolutiboaz beste, nire ustez inesiboan ikusten da batez ere galdua duela artikulak definitutasunaren tasuna, are izenordain zehaztugabeekin ere agertzen baita: cf. *açertadu çerbaytean* “açertar en algo”, (B) *ynolaco lequan* “en ningun lugar”, (B) *ynolaco temporeã* “en ningun tiempo”. Orobatsu *beste* determinatzailearekin, cf. *manera vestean* “en otra manera”, *veste lequan* “en otro lugar”, *tempora vestean* “en otro tiempo”, *veste aldian* “otra vez”; hauetan guztietan ez dirudi zerizan handirik duenik definitutasunaren tasunak. Sozietiboan bezala, bada mugagabearen adibiderik inesiboan ere, cf. *arten*, *yño* “hasta”, *arten* “mientras”; *bat*-ekin, cf. *lecuren vaten* “en

*algun lugar*”, *beyn baten* “alguna vez”. Artikuluduna, *batean*, beti agertzen da *bestean*-ekin: *alde vatean da vestean* “en vna y en otra parte”, *ez lecu batean, ta ez bestean* “ni ã un lugar ni en otro”.

Datu hauen guztien argitara, nabarmena da nagusi direla forma artikuludunak XVI. mendeko hiztegieta, eta ez absolutiboan edo hitzen izendatzeko forman bakarrik: ikusi bezala, beste kasuetan ere artikuluek ez diote ematen definitu tasunik sintagmari. Ohartzekoa da, dena den, mendebaldekoak direla atal honetan aipatu ditudan XVI. mendeko hiztegi hauek (MSiculo, Sarask, Land, IbarGHiz).<sup>430</sup> Hala da Leizarragaren zubererarako hiztegitxoan ere, xehetasunak xehetasun (ikus 6.1.1 atala): artikuluduna izan ohi da izenen izendatzeko forma (adibide bakarra bildu dut pluralean, *escobaquinac, ekorquinac*). Berebiziko rola izan zuen honetan, itxura guztien arabera, erdal ereduari jarraiki numeroa morfologikoki adierazi beharrak; hipotesi honen xehetasun gehiagorako, ikus 6.3.3 atala.

Zenbait ohar txiki egin dakizkioke orain arteko deskribapen honi, betiere *-a* eta *-ak* atzizkiei gagozkielarik:

- (a) Hainbat euskal hitz dago IbarGC-ren testu barnean; Arriolabengoak bildutakoen artean (2008: 147-156), *-ak* izan ohi dute erromantzezko azalpenean izena pluralean dutenek, eta *-a* azalpeneko hitz erromantzea singularrean dutenek. Baina, era berean, oinarritik bereiz zezaketen artikulua IbarGuen-Cachopínek, gaztelaniazko plurala osatzeko: cf. *urgaspides, garais, sotiles* eta abar. Horretaz gain, euskal hitza maiz ageri da artikulurik gabe: *hizieron su junta general y batçarr conforme al usso antiguo; los mesmos romanos de hordinario los llamaron viscaitar; porque desde el muello o cai; le tomó y traxo muerto arrastrando de sus cabellos largos de cabellera que llamaban carchet; Aquí se haze razonable cosecha de pan e sidra y bino que llaman chacolin; y del poniente estival corre el biento llamado choro*. Gogoeta ildo berean, Nafarroako Foru Nagusiko adibideak ere badakartzate Azkaratek eta Altunak (2001: 66), hala nola *açaguerrico, guirisellu çorr, etab*.

<sup>430</sup> Bizkaierazko eta gipuzkerazko hitzak biltzen ditu IbarGuen-Cachopínen hiztegiak.

- (b) Hiztegietan, bitan ematen dute Iburguen-Cachopínek *-eta* plural gisa: “*Ydoyac o Ydoyeta* cenagal o charco donde se rebuelcan cochinos” eta “*macaceta* perales silvestres”.
- (c) Ondoko adibideetan (gazt.-eusk. zein eusk.-gazt. hiztegietakoak dira), gaztelaniazko pluraleko sintagma bati singularreko bat dagokio euskal ordain gisa: *crisqua - puntas*, *escalua - bermejuelas* eta *chirla - almexas*; cf. orobat *otea - argoma y argomales árbol* eta *pagoloa - ayas que estan en recueto*. Kasu batean, gazt.-eusk. hiztegian, alderantzizkoa gertatu da, euskarazkoa pluralean eta gaztelaniazkoa singularrean: *acaah - berça* (E-G: *berças-azaach*). Landuchiok ere badu halakorik, cf. *articuloac* “artículo de fee”, *bramiduac* “bramido” eta (C) *canbioac* “cambio”, *desmereçimentuac* “desmereçimiento”, *yguzquian errayoac* “rayo de sol”, besteren artean; cf. orobat Sarask *chir[r]icaac* “er[r]odaga”. Ez dirudi ezer gramatikalen adierazgarri direnik adibide hauek.

#### 6.1.4 Artikulu bikoitzak

Aipatu edo deskribatu izan dira euskaraz izen + izenondo sintagma zeintzuetan sintagmaren bi osagaiek duten artikulua: cf. Iburguen-Cachopínek dakarten *Betulon* edo *Betulona* herrialdearen izenaren etimologia: “dixésemos en bascuence *betulea ona*, que es lo mesmo referido” (Arriolabengoa 2008: 187). Ez dago argi zenbateraino izan diren emankorrek horrelako egiturak.

Atal honetan hizpide ditudan hiztegien artean, merezi du aipatzea Landuchioren kasua; bere hiztegian badira sarrera batzuk, inork deskriba litzakeenak bi artikulua dituzten sintagma bakar moduan: genitiboan, singular zein plural, cf. *conquisteá erriana* “conquista dellas”, *çismea elexeana* “cisma de iglesia”, *florea verarrana* “flor, yerua”, *mauquea jançiana* “manga de vestidura”, *croçea epizticoana* “mitra de obispo”, *cuñoa diruana* “cuño de moneda”, etab. Leku-genitiboarekin, cf. *quirrua eunezcoa edo vlezcoa* “copo de lino, o lana”, *chapea metalezco[a]* “chapa de metal”, *materia yracusçtequoa* “demuestra”, *esquadrea guerracoa* “esquadra batalla”, *eçurra oñecoa* “espinilla”, *caçua burniazcoa* “caço de yerro”; (B?) *arra escucoa* “palma de mano”, *popea nauioco[a]* “popa de naue”, *hostua elegaxacoa* “sacrilegio hurto”, *axcorea egurretacoa* “hacha de

leña”, *muçuac surretacoac* “mocos de narizes”, etab.

Nire ustez, sintagma hauetan izena topikalizatuta dago, eta aposizio moduan daude izenlagunak;<sup>431</sup> ziur aski, generoak eragiten du hori, hiztegi izateak: lema nagusia ematen da lehenik, eta ondotik leuari dagozkion zehaztapenak. Bi sintagma daude, beraz, adibide hauetan. Analisi honen alde, bi motatako datuak eman daitezke: (1) aposizioa are nabarmenago egiten duten komak dituzten adibideak, hala nola *cabeçoya*, *jançiana* “collar de vestido” eta *burualdea*, *oycoa* “cabeçera de cama”; (2) hurrenkera kanonikoa duten sintagmak, hala nola *elexaco capillea* “capilla de iglesia” (cf. *capillea capeana* “capilla de capa”, izena topikalizatuta), eta bereziki esanguratsua da *amorantea andreana* “amigo de muger” eta *guiçonan amorantea* “amiga de varon” bikotea.

Bestelako egitura dute, jakina, *cota mallazcoa* “cota de malla”, *gauça çerucoa* “celestial cosa”, *corrinco pistiana* “molleja de aues”, *charta jocuquoac* “naypes” eta *arco edifiçioetacoa* “arco de ediffiçio” sintagmek. Bistan dena, hauek ere gramatikalak dira euskaraz, determinatzaile sintagma bakarrekoak; hurrenkera zaharraren lekuko izan daiteke, adibidez, *gauça çerucoa*.

Nabarmena da osagaien hurrenkerak baldintzatu dezakeela sintagmaren beraren egitura eta horren arabera, osagaietako bat aposizio den ala ez, ezartzen direla behar diren artikuluak: hots, bi sintagma ditugu horietan, ez bakarra. Antzeko zerbait gertatzen da beste zenbait hizkuntzatan ere, izen + izenondo sintagmetan; honela dio Dahlek: “In many languages, adjectives may occur both before and after the noun. In those cases, double definite articles are more likely to appear when the adjective is postposed (Plank 2003: 342-347)” (2004: 149).

Hori esanik, ez dut argi nola azaldu behar den zehazki IbarC-ren *betulea ona*; baliteke halakoak aposizio soilez sortu izana, hurrenkeraren aldaketarik gabe. Baliteke,

---

<sup>431</sup> Hainbat adibide daude, aposizio garbiekin; gaztelaniazko leman ere aposizioa dute hauek: *azeytunea frutua* “azeytuna fruta”, *carbuncoa arria* “caruoncol piedra”, *castanea errexala* “castaña arbol”, *castañea frutea* “castaña fruta”, *querexea errexala* “çerezo arbol”, *çidrea errexala* “çidro, arbol”, *çidrea frutea* “çidra fruta”; *granea colorea* “grana color”, *yrea*, *verarra* “helecho yerua”, *çeatiquea*, *gaysça* “çeatica enfermedad”, *coruinea arraya* “coruina pescado”, *mayasça yla* “mayo mes”, etab. Hurrenkeretatik, aipagarria izan daiteke *verarra mādragulea* “mandragula yerua”.

era berean, izenlaguna duten sintagmek eragina izan izana izenondua dutenetan.

Aurki daiteke artikulua bikoitzeko izen + izenondo sintagmen beste adibiderik XVI. mendeko testuetan; nire ustez, hauek dira nabarmenenak: frJZum 1 *ene arrebea deunczua* bokatibokoa eta Betol 57 *neure errua andia gayti*; baliteke sintagmaren aurretik genitiboko izenordain bat agertzeak eragina izatea artikulua bikoitza ager dadin. Iruditzen zait bestela sailkatu behar dela Lazarg B31: 3 *mendi-aran[a]c gustiac baino / ene coytaoc naguci*, zenbatzaile orokorra baitu, ez izenondo arrunt bat, eta topikalizazio adibide baten gisa uler liteke.

Aposizio itxura handiagoa hartzen diot izenlagunarekin dagoen FrantzOrd 4 *voto egitendot eta promitietandot [...] cerucu sanctu eta sancta custiaj ta çuri aita goardaetaco erreguela / tercera Sant Franciscuaren ordeacoa penitenciacoa* sintagmari; ohar bedi *erreguela tercera*-rekin joan daitekeela *penitenciacoa*, eta uler litekeela *Sant Franciscuaren ordeacoa* dela aposizioa. Izenlagunarekin osatuak dira halaber Betolatzaren adibide garbiak; Landuchioren adibideen kide-kideak dira hauek: Betol 57 *Mandamintuac Eleja Ama Santacoac dirá bost*, 58 *Obrac misericordiazcoac dira amalau*, 58 *Arieriac arimacoac dira yru*, 60 *Sentiduac gorpuzecoac dira bost*, 60 *Doeac Espiritu Santuenac dira zazpi* eta 60 *Frutuac Espiritu Santuenac dira amabi*. Ohar bedi Betolatzaren dotrinako atalen goiburuak direla hauek guztiak: goiburuko hitzik inportanteena jarri da lehenik, segidan datorren testuaren edukia islatzen duena, eta ondoren izenlaguna. Azkenik, cf. Lazarg A24: 132 *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea* eta B28: 18 *Bacinaqui gogoa, / lastana bioçecoa* bokatiboa.

Mendebaldeko eta XVI. mendeko adibideetatik kanpo, cf. BerMez 11 *arria andiura* eta 111v *berce bellacoa imbidioso*.

#### 6.1.5 Bestelakoak

Aurreko ataletan aipaturiko xehetasunez gain, informazio gehiago ere erauzi daiteke XVI. mendera bitarteko hiztegi zenbaitetatik. Von Harffenetik aipatu gabe utzi ditut orain artekoan bere esalditxoak: *gangon dissila* esamolde aski ihartuan (*egun/gau on dizula*, itxuraz), esaterako, izen + izenondo sintagma dugu objektu funtzioan, eta artikulurik gabe. Bestalde, *schatuwa ne tu so gausa moissa* esaldian, *neskatua, nahi*

*duzu gauza motza* ulertuta, bi gauza dira aipagarri: *neskatua* bokatibo artikuluduna, eta *gauza motza* objektu zuzen artikuluduna; ez dirudi, gainera, izen + izenondo egiturako sintagma artikuludun honek interpretazio definitu purua duenik edo, izatekotan, interpretazio generikoa izan lezake; (59c)-n ere eman dut perpaus hau, ikus han eztabaida gehiagorako. Puntu honetan, gogoan hartu behar dira Dahlen hitzak, Eskandinaviako hizkuntzez ari dela: “It is plausible that non-delimited uses of definites historically are extensions of generic uses” (2004: 173). Horrela bada, ‘nahi duzu gauza motz bat?’ bezalako esanahiak izatera iritsi dira halako perpausak.

Ibarguen-Cachopínen etimologietan bada izenondo predikatu baten adibide bat: “Y este nombre de Geronda en bascuence tanto quiere dezir como ‘lo buelto bueno es’ [...] porque en *ger* dize ‘bolber’ y en *on* ‘bueno’ y en *da* ‘es’” (Arriolabengoa 2008: 189). Horretaz gain, hainbat ohar egin litezke Ibarguen-Cachopínek dakartzan pertsona izen eta goitizenez (Arriolabengoa 2008: 157-164); adibidez, izen + izenondo egitura duten goitizenetan, artikuludun bakarra *Asal Çuria* da. Honen ondoan, aipagarria da *Asalgorri*: ezin asma dezaket zein izan daitekeen arrazoia artikulua erabiltzeko edo ez erabiltzeko, hautu librearen azalpenetik harago. Hona egitura hau duten izenondo guztien zerrenda:

- (1) a. *Llamado por otro nombre Asal Çuria por ser blanco y rubio*
- b. *Martín Garçía de Axpe, dicho Asalgorri por ser bermejo*
- c. *Joanche Aserre de Mendiola, su dueño deste cadalso*
- d. *llamáralo su madre Galindi, que quiere deçir ‘perdístete’, e dende en adelante se llamara Galindi Gazteon, que quiere deçir perdístete joben bueno*

Bilduak ditut halaber Arriolabengoak dakartzan beste izen eta goitizenen gaineko xehetasunak, hala nola *-xe* ttikigarriarenak (cf. *sobrenombre Sarche*, *sobrenombre Mariachea*, *sobre nonbre Andreaxe*, etab.) eta izen batez osatutako izengoitienak (cf. *sobrenombre Henecocha y también Usoa* eta *dicha Uso*). Baina onomastikaren gorabeherak gehiago dagozkio tradizio sekundario jakin bati, Erdi Aroko dokumentazioan aurki daitekeen horri; ez ditut, beraz, hona ekarriko. Aztergai hori tesi honetatik kanpo uzteko arrazoietarako, ikus 4.1 atala.

Alde handiarekin, Landuchiorena da informazio gehien ematen digun hiztegia. Izan ere, aldarrika daiteke hiztegia baino gehiago dela, eta morfologiari eta are sintaxiari buruzko informazio asko aurki daiteke bertan. Azterketa sakonagoen faltan, aipagarriak iruditu zaizkidan zenbait gai dakartzat hona:

- (a) Hitz elkartuetan, artikulurik gabe egon ohi da lehen osagaia: cf. *baracaz sopac* “almodrote de ajos”, *esçe treznea* “axuar de casa”, *eguçari vesperea* “bispera de fiesta”, *ogui opila* “bollo de pan”, etab. Adibide batean, ordea, lehen osagaia ematen du artikuluaekin; ez dago argi zergatik, cf. (C) *açotadorea*, *açotea emalle* “açotador”. Ohar bedi bigarren osagaia, *emalle*, artikulurik gabe dagoela, beste adibide batean bezala, cf. (C) *aya criação emalle* “aya que cria”; beste batean artikuluaekin agertzen da, cf. (C) *presa emallea* “acossador”, -*le* atzizkia duten beste hitz batzuetan bezala, cf. (C) *beaça eguilea* “amenizador”.
- (b) Objektu posizioan diren sintagmei dagokienez, puntu bat nabarmenduko dut, egin daitezkeen hainbatetatik. Hipotesi gisa, orokortze honetatik abia gaitzke: aditza partizipio gisa ageri denean, objektua artikuluaekin ageri da; aditz-izen gisa ageri denean, ordea, objektua artikulurik gabe agertzen da. Hori hala den neurtzeko, hauxe egin dut: *objektu + aditz* multzoen artean, bildu ditut aditza partizipioan eta aditz-izenean dituzten adibide bikoitzak, konparagai sendoak izateko. Adibide hauek bildu ditut:
- (2) Partizipioa objektu artikuludunarekin, aditz-izena objektu artikulugabearekin
- burua erabili* “cabeçar, mouer” eta *buru erabiltea* “cabeçamiento”.
  - burua euagui* “degollar” eta *buru euaguitea* “degolladura”.
  - burua aussu* “descalabrar” eta *buru aussitea* “descalabradura”.
- (3) Partizipioa eta aditz-izena objektu artikulugabearekin
- ausç egoşçi* “poluorar” eta *ausç egoçtea* “poluoramiento”.
  - errlatey eguin* “colmenar” eta *errlatey eguitẽ deuen* “colmenero”.
  - vesteri torta eguin* “correr a otro” eta *torta eguitea* “corrimiento”.
  - senarr artu* “maridar” eta *gauça senarr arçaytẽ erraç* “maridable cosa”.
  - vssay aditu*, *edo eguĩ* “oler” eta *vssay eguitẽ deben gauçea* “oledora cosa”.
  - dey eguin* “llamar” eta *dey eguiten deuen* “llamador”.

g. *reyr* “barre eguin” eta *barre eguiten deuena* “risueño”.

- (4) Partizipioa eta aditz-izena objektu artikuludunarekin
- a. *çimentua egosçi* “çementar echar cimienta” eta *çimentua egosçitë deuena* “çementador”.
  - b. *chimurrac quendu* “desarrugar” eta *chimurrac quenquetea* “desarrugadura”.
  - c. *aurrera eguin aberea* “aguijar bestia” eta *aberea aurreraytan deuena* “aguijador”.
  - d. *cercua quendu* “desçercar” eta *cercua quençayten deuena* “desçercador”.
  - e. *beatua atera* “desenterrar” eta *beatua ateraytea* “desenterramiento”.
  - f. *guerra eguin* “guerra hazer” eta *guerra eguiten deuena* “guerreador”.
  - g. *vsay gayxtoa euqui, vsa eguin* “heder” eta *vsay gayxtoa daucã gauçea* “hedionda cosa”.

Nabarmen ageri da, (3) eta (4) adibide sortei begira, ez dela inondik inora erabat betetzen abiapuntuko orokortzea. Baina zinez esanguratsua iruditzen zait ez izatea adibiderik izan zitekeen laugarren adibide sorta baterako, hots, ez izatea partizipioa objektu artikulugabearekin eta aditz-izena objektu artikuludunarekin izango lituzkeen bikoterik. Nire ustez, honek bat egin lezake Hopperren eta Thompsonen lan famatu bateko *Trantsitibitatearen Hierarkia* delakoarekin, zeinaren arabera aditzaren aspektuarekin egon daitekeen lotua objektuaren definitutasuna: objektuek indefinitu izateko joera dute aspektu burutugabeko aditza duten perpausetan, definitu izatekoa aspektu burutukoa dutenetan (Hopper eta Thompson 1980: 268).

Jakina, hemen bildutako datuak gutxi dira, eta zenbait gauza ohargarri dago: orokortzea betetzen duten (2)-ko adibideetan, objektuko sintagman beti dago *buru* izena; horretaz gainera, hitz elkarketako adibidetzat har litezke aditz-izenarekin daudenak. (3)-ko adibideetan, berriz, *egin* aditz arina dugu ia guztietan. Horrezaz gain, laugarren adibide sorta bat ere bil liteke, partizipio bera objektu artikuludunarekin eta artikulugabearekin duten adibideekin, cf. *orapina quendu* “desañudar” eta *soltadu, orapin quëdu* “desatar”. Zaila da irizpiderik aurkitzea horrelakoetan.



- (c) Hainbat gauza geratzen dira aztertzeke eta Landuchiori buruzko monografiko baten eske. Besteak beste, adizka egin daitezke sailkapenak, ikusteko irizpide jakinik antzeman ote daitekeen: adibidez, *edun* eta *eduki* aditzekin artikulurik gabeko objektuak dira nagusi, hala nola *loscha euqui* “verguença auer”, *lastima euqui vesteri* “adolecerse de otro”, *bildurr euqui* “auer miedo”, *miracuru eun* “marauillarse”, *piedade eun* “misericordia auer”, *porfiadu, tema euqui* “porfiar”, *erroytu euchy, losçhageria eguin* “reñir”; salbuespen dira beste hauek, ez direlako izen soileko objektu, beharbada: *vrðabilerean gaiça euqui* “ahitarse el estomago”, *fama gayxtoa euqui* “fama mala tener”, *vsay gayxtoa euqui, vsa eguin* “heder”. Aipagarria da, azkenik, bikote hau: *jateco gurea euqui* “auer gana de comer” eta *edateco gura euqui* “auer gana de beuer”; lehenean, *jateco gura euqui* zegoen hasieran, eta gero, zuzendu egin zuten, itxuraz. Orobatsu egin daiteke beste aditzekin: *emon*-ekin (cf. *maldiçioa emõ* eta *ostico emon*), *egotzi*-rekin (cf. *egoszi vr ardaoan* eta *roçiadu, yunza leguez egosçi vra*), eta besterekin.
- (d) Azter liteke, esaterako, zenbaterainoko eragina duen objektu funtzioan dagoen izena mailegu izateak; esanguratsua izan liteke *çimentua yfini* “fundar poner fundamento” adibidea, *çimiento yfini* baitzegoen idatzita hasieran, eta gero zuzendu zuten.

Ohar hauekin ere, ez daude oraindik agortuta Landuchioren hizkerari buruzkoak. Hurrengo ataletan, testu luzeagoen autoreekin batera aipatuko dut, tarteka, Landuchio, predikatuei eta beste funtzio sintaktikoei buruzko ataletan.

## 6.2 Artikulua XVI. mendera arteko testuetan

Esan bezala, XVI. mendeko egoeraren deskribapena egitea da atal honen helburua. Deskribapena aski soila izango da, baina zehatza era berean: aztertutako testuinguru sintaktikoen adibide guztiak bildu ditut, testu guztietan. Hirugarren kapituluan esan bezala (3.2.5), hurbilketa morfosintaktikoa izango da hau. Hemen deskribatuko ditudan datuetan sakontzeko, izen sintagmen semantika historiko baten zain egon beharko dugu.

Adibideak bilduta badituz ere, ez ditut aztertu lanabesean (VI.1 eranskina) ageri

diren zenbait testuinguru sintaktikotako datuak: partizipio adberbialak, egitura erresultatiboak eta estatiboak, predikatu sekundarioak, perpaus pasiboak eta perpaus iragankorretako objektuak. Arrazoi nagusia hauxe da: horietako gehienetan, iruditu zait gaia izenaren morfologiatik gehiegi urruntzen dela, eta aditzaren esparruan sartu. Etorkizuneko langai izan beharko dira, ezinbestean; perpaus estatiboen, erresultatiboen eta pasiboen azterketan abiatzeko, esaterako, irakur bitez Mounolen tesiaren bigarren kapitulua (2011), euskalaritzaren alorrean, eta Nedjalkov eta Jaxontoven lana (1988), maila teoriko orokorragoan. Perpaus iragankorretako objektuei dagokienez, bestalde, zaila egin zait maiz aditz arinekiko egituretarik bereiztea objektu bete-beteak direnak; gramatikaren atal horretan ere eztabaida sakonagoetara iristen gara berehala, inkorporazioaren eztabaidara, adibidez, eta, azterketa xeheagoa behar dutelakoan, etorkizuneko lanetarako utzi ditut objektuak ere.

Predikatuei buruzko monografikoa eskatzen zuen Mitxelenak; bokatiiboak, perpaus existentzialak, predikatuak eta subjektuak aztertu ditut hemen. Abiapuntu gisa baizik ez dut ikusten kapitulu honetako ekarpena, orotariko deskripzio morfosintaktiko historiko baterako bidean; horrela bada, hiru zutarriren arabera ikusten dut etorkizuneko lana: ondoko mendeetako testuak ere sartzeari, deskribapena testuinguru sintaktiko gehiagotara zabaltzea eta hori sintagma guztien ezaugarritze semantiko eta erreferentzialarekin osatzea.

### 6.2.1 Bokatiiboak

Funtsean, definizio honekin bat egiten dutenak hartu ditut kontuan: “By *vocative* [we mean] a sentence constituent whose function is to call the attention of an addressee to a given proposition” (Lambrecht 2001: 1065). Bide horretatik, bigarren pertsona bati zuzendutakoak bakarrik sartu ditut zerrendan; horrenbestez, bazter utzi ditut epitetotik edo halakoetatik hurbil egon litezkeenak, hala nola JLazkano *Juan de Lazcano beltzarana*, / *Guipuzcoaco capitana*, / *Franzez osteac jaquingo du* / *Ura Ondarrabian zana* edo, are garbiago, Miser 72 *emango ditugu txaalto gazteak*, / *txaalto gazte malizia bageak*. Batzuetan, zalantza izan daiteke bokatiiboetatik bereizteko harridurazko esaldiak; honelakoak, adibidez, ez ditut bokatiibo gisa sailkatu: Lazarg AL: 1143v *Ai*,

*ene desdichadua*, / *gaichez rodeadua!* eta Lazarg A10: 29 *ene bicia!* *gueratu ninčan / andiro afrontaduric*. VI.2 eranskinean bildu ditut irizpide hauen arabera guztiak.

Horretaz gain, azterketa honetarako baztertu egin ditut izen bereziak (cf. Abendaño 7 *Mendiola*, *yl deustac Gasto Apala*, MLastur 5 *Lastur-era bear doçu*, *Milia* eta Oihatsot 119 *Domingo*, *egik emazte*, *atzi lo*, *berak iratzar iro*, beste hainbaten artean); hauek, bistan dena, ez dute informaziorik ematen artikulua jokabideari buruz.

Oro har, esan daiteke euskalki guztietan dutela artikulua bokatioetako izen edo izenondo sintagmek, erreferentia singularra zein plurala izan. Salbuespenak, gainera, bokatio funtzioarekin zerikusirik ez duten arrazoiekin azaldu daitezke gehienetan. Horrela bada, datu hauek ez dira lagungarriak Azkuek egindako oharren testu zaharretan neurtzeko (ik. 2.6.2 atala); edo, hobeki esan, laguntzen gaituzte zehazten aski aspalditik zabaldua zela artikulua bokatioan, eta horietan ezin dela antzeman Azkueren hipotesiaren aldeko argudiorik: XVI. mendeko testuetako bokatioetan ezin da deskribatu erreferente singularren eta pluralen arteko alderik.

Hiru multzo nagusitan sailka daitezke salbuespenak:

- (a) Errimatu behararen arabera azaldu daitezkeenak: RS 402 *Ardura*, *enoc yre gura*; gainera, pentsa daiteke pertsonifikatu egin dela *ardura* hitza, eta izen berezi gisa jokatzeko duela. RS-n aipagarria da 304 *Huda ta negu*, / *eguzu ogui ta su*, sintagman koordinatutako bi izen daudelako. Lazarg B15: 15 *Conbento guztia generalm[en]te / saludacen dot nic agur eguinda; / belaurico, barriz, çu, ene lind/a*; ohartu behar da badirela *ene lindea* bokatioaren lau adibide (1144v, A7: 33, A7: 110, A16: 1), eta hau da artikulurik gabe dagoen bakarra. Eskuizkribu berean, cf. B16: 149 *Ainbat tenpora dan azquero / çabilçadela galduric, / eben aseden eta guero / joan çatezque, caballero, / andiro mejoraduric*. Cf. halaber Etxep 7: 1 *Beti penaz yçatia gayz da ene amore / Beti ere vehar duta nic çugatic dolore* eta 10: 1 *Vztaçu hurrancera amore mayte / Oray particeca damu guinate*; bi hauetan *amore* izena dugu, eta ohartu behar da *ene amore* sintagman, genitiboko izenordain batez lagundua egonik ere, ez duela artikulurik. Azkenik,

cf. Zalgize 193 *Haur maite*, / *Haz aite*, / *Ezten ara higa aite*; honetan, Etxepareren *amore mayte* sintagman bezala, *maite* dugu izenondo gisa.

- (b) Ahaidetasun harremanak adierazten dituzten izenak, erreferente bakarreko esapideetatik hurbil: RS 451 *Ene alabea ax on*, / *ama*, *marcaac dabilz ysasoan*; FrantzOrd 2 *eta* / 3 *cerucu sanctu eta sancta custiaj ta çuri aita*; ErrodZar 19 - *Arren, echosu orain osaba, bixooc justa gaitean eta 20 -Echi eguidac orailloba, gau bixiric noean*; Lazarg A24: 100 *Semeric badeu esaten jago*: / “*Aita, eguidac jaquea*” eta B3: 35 *Semeac baeson*: “*Ni[c] aseguin dot*, / *ayta, eguin çure mandamentua*, / *cerren ori da ene contentua*”. Ageri denez, adibide hauek guztiak mendebaldekoak dira.
- (c) Leku-genitiboarekin direnak, izen berezi moduan har litezkeenak: cf. MLastur 13 *Arren, ene andra Milia Lastur-co*, 25 *Arren ene andra Milia Lastur-co*, ErrodZar 4 *Errodrigo Çarateco, selan engana sindean eta Lazarg B27: 25 Jaun Ceruco, estaguiçula / guiçona onein amora[tu..* Bada adibide artikuludunik, jakina: ArrasErreI A6 *Andra urena Butroecoa nançuçu eta Lazarg A6: 11 Jaun Cerucoa, nic errazoaz / beti çaidaz loadu*. Cf. halaber Lazarg A17: 39 *Larrosa maiacecoa, nola doçu / eneçat orrein gogor murallea?*, baina sintagma hau zailagoa da izen berezi gisa hartzen.

Bestelako azalpena eman dakioke Lazarg A16: 93 *Conjuraetan çaitut, laztan*, / *ni gabaz nabilenean* adibideko bokatioari: nire ustez, *laztana* zuzendu behar da, batetik, metrika arrazoiengatik, dagoen bezala bertsoleerroa hankamotz geratzen delako eta ez delako behar lituzkeen hamar silabetara iristen,<sup>432</sup> eta, bestetik, eskuizkribuan *laztan* bakarria litzatekeelako artikulurik gabe (*ene laztana* esapidea maiz agertzen da, eta *laztana* soil bat bada, B1: 2). Gogoan hartu behar da, bestalde, izan dela beste zuzenketa paleografikorik pasarte horretan, cf. 94. bertsoleerroko *nabilenean*, jatorrizkoan *nabilean*.

Betolatzaren 54 *Salve Regina*, / *misericordiasco Amea*, / *vicizea, eta dulçura*. / *Salve / esperança gueurea* adibidean, bi modutan azaldu daiteke *dulçura*-k artikulurik

<sup>432</sup> Egia da, hala ere, bertsoleerroen metrika ez dela hertsiki betetzen Lazarragaren eskuizkribuan.

ez izatea: batetik, pentsa daiteke mailegua delako eta *-a* berezkoa duelako ez duela hartu artikulurik (ikus 6.1.2 (b) atala); bestetik, pentsa daiteke dokumentatua dagoen egitura baten adibide dela, cf. Lazarg B3: 38 *Bajoacen, bada, gau illun baten, / aytea ta seme, biac batera*, RS 11 *Barazea ta vsategui, / auerasgarri* eta 267 *Eztia ta ozpin, goço ta on eguin*. Adibide gehigarri hauetako sintagma ez daude bokatio funtzio puruan, baina hurbil daude aposiziotik (*aytea ta seme*) edo topiko funtzio batetik (RS-koak).

Bestalde, izen berezi moduan jokarazi da RS-ko 173 *Hoa laster, barecheje* bokatioa, nire ustez; ohar bedi *OEH*-k (s.v.) adverbio gisa duela sailkatua, gainera. Bestalde, izen berezi bat dago bokatio sintagma honen buruan: A23: 91 *poeta gazte, doña Elena / ez nax egongo exilic*; agian egokiago izan daiteke *poeta gazte doña Elena, ez nax egongo exilic* puntuatzea. Horrela ongi azaltzen da artikulurik ez izatea *poeta gazte* sintagma.

Eztabaidatik bazter utzi dut Sorabila 1 *Cosc Erregue, capela gorri: / 2 Achul ona, Sorabilan bost eche*; ez dakit zenbateraino har daitekeen bokatio baten adibide fidagarri moduan. Orobat utzi dut bazter IbarGCEs B14 *Gal indi, gazte on*; izen baten etimologia emateko erabili delako ez dut kontuan hartu (“en adelante se llamara Galindi Gazteon, que quiere decir ‘perdistete joben bueno’” (Arriolabengoa 2008: 240).

Azkenik, bokatioen esparrutik apur bat aldentuta, interesgarriak izan daitezke Leizarragaren bi adibide: 1406 *continuatzen eta augmentatzen ditularic eure gratiác gutan, eurorrec, Jesus Christ eure Seme gure arimén iguzqui eguiatzco eta bakoitz*. Lehenik, ohartarazi behar da ez dela izen sintagma soil bat, izenlagunez eta izenondoz ongi hornitutakoa baizik; horretaz gain, bokatioa baino gehiago, badirudi aposizioa dela, ergatiboko izenordain batena. Honen harira, ohargarria da bigarren adibidea: 1392 *Eta çuec aitéc, hazitzaçue çúen haourrac*; ez da bokatio purua, eta badirudi *çuec* izenordainaren aposizio dela, ergatibo kasu eta guzti. Cf. orobat Etxep 2: 49 *Emazte eta guiçon oroc har amore maria*, bokatio ergatibo batekin.

Bokatio funtzioan diren sintagmez denaz bezainbatean, esan daiteke ez dela alde nabarmenik antzematen XVI. mendeko testuetan, mendebaldekoak zein ekialdekoak izan: artikulua izan ohi dute euskalki guztietan; mendebaldeko testuetakoak dira aipatu ditudan artikulurik gabeko salbuespen gehienak, baina hangoak dira, bestela ere, adibide

gehienak.

### 6.2.2 *Perpaus existentzialak*

Definizio honen barrenean sailka daitezke hemen bildu ditudan perpaus existentzialak; bertan aipatzen den terminologia erabiliko dut (Bentley et al. 2013: 1):<sup>433</sup>

Existential constructions are constructions with non-canonical morphosyntax which express a proposition about the existence or the presence of someone or something in a context (Francez 2007, McNally 2011: 1830). They are formed as in (1).

(1) (Expletive) (proform) (copula) pivot (coda)

Following a tradition which is well established in the semantic literature, we use the term *pivot* to refer to the noun phrase which, in English existentials, occurs in immediately post-copular position.

XVI. mendeko nire corpuseko perpaus existentzial guztiak bildu ditut VI.3 eranskinen; bokatioetan ez bezala (6.2.1 atala), ez dut utzi adibiderik taulatik kanpo. Jarraian, azalduko dut zer motatako perpaus existentzialak bildu diren eranskinetako 63. taulan; adibide gehienek ez dute informazio espliziturik emango artikuluaren erabileraz, testuinguru gehienetan murriztua baitago erabileraz. Dena den, artikulua ez erabiltzeak eta bere partez beste osagairen bat erabiltzeak *-(r)ik* partitiboa, batez ere) informazioa ematen du artikuluaren erabileraz beraz.

Bildutako perpaus existentzial guztietatik (153 zenbatu ditut),<sup>434</sup> erdia baino gehiago dira ezezkako perpaus existentzialak edo polaritate negatiboko osagairen bat duten perpausak (88 adibide); hauetarik, zortzi adibide baizik ez ditut zenbatu pibot izen sintagma partitiboan ez dutenak, eta, beraz, 80 dira ezezkako perpaus existentzial partitibodunak. Ez ditut hona ekarriko 80 horiek, baina partitiborik ez duten zortzi ezezkakoak beherago xehakatuko ditut.

#### 6.2.2.1 *Perpaus existentzialak asko zenbatzailearekin*

Ezezkakoez landa 65 adibide geratzen dira; horietarik, hogeita hiru dira *asko* (edo *anitz*

<sup>433</sup> Perpaus existentzialei buruzko monografiko bat prestatu zuen *Rivista di Linguistica* aldizkariak 2013an (*Italian Journal of Linguistics* da gaur): sarrera gisa prestatua da artikulua hau.

<sup>434</sup> Arazoak daude hauetako batzuk perpaus existentzial gisa sailkatzeko; eranskinen adierazi dut hori, hala nola zein aukera ikusi edo hobetsi dudan interpretaziorako. Kapitulu honetako eztabaidan, esanguratsu suertatu zaidanean bakarrik aipatu ditut arazo horiek.

edo *franko*) zenbatzailedun pibotak dituztenak:

- (5)
- a. Andramendi 1 *Escutariric Asco darda bacochac*
  - b. ErrodZar 9 *Gastelan Sarmientuarric asco, es pareric arean*
  - c. Lazarg A1: 13 *Eocen begui ederric asco / aren aldean jarriric;*
  - d. Lazarg A10: 42 *au çuegaiti eguiteraco / asco da errazoaric.*
  - e. Lazarg A16: 42 *Oy çuc ni ondo trataetaco / asco da nigan causaric.*
  - f. Lazarg A19: 35-36 *Nunberegaita asco dago / enetaco doloreric;*
  - g. Lazarg A23: 10 *Nic au onela esateraco / asco da errazoaric;*
  - h. Lazarg A23: 43-44 *Au eguiteraco çugan asco da, / dama galanta, causaric,*
  - i. Lazarg A24: 73 *Pobreonençat oy gachic asco, / aberasonec dolea.*
  - j. Lazarg A27: 26 *Cerren çu balça içanagaiti, / asco da dama galantic;*
  - k. Lazarg A27b: 26 *Cerren çu chipi içanagaiti, / asco da galay galantic;*
  - l. Lazarg A28: 120 *Eucaiteco / asco da errazoaric*
  - m. Isasti 15 *Bear iguesi Castrora, an ere bearric (asco da).*
  - n. EspGut 1: 18-19 *haniz dela berceric ere dioite*
  - ñ. EspGut 2: 3-4 *Sinnestazen dout ezin asco presouna badela chindouriaz hars egiten daquienic*
  - o. Etxep 2: 82 *Ni beçala anhez duçu halacoric munduyan / Mende oro dohatenic bethi vanaglorian*
  - p. Etxep 3: 41 *Bana anhez emazte da escapacen çayenic*

Hauetako gehienetan, *asko* zenbatzailearen erregimenari dago lotua partitiboa (cf. *eskerrik asko* esapide ihartua), eta horren arabera azaldu behar da Lazarragaren eta Isastiren kasuan. Ez dut hain argi (5n-p) adibideetan hala denik: erlatibozko perpaus bati lotzen zaio partitiboa azken hiru adibideetan, eta horietan perpaus existentzialak eskatzen duen partitiboa izan daiteke, besterik gabe. Nolanahi ere, badira lau adibide zenbatzaile zehaztugabearekin, partitiborik ez dutenak:

- (6)
- a. RS 459 *Erur asco dan vrtean garia, / ta erle asco dogunean ezta.*
  - b. RS 109 *Arech asco dan vrtea / besteac baño ez ohea.*
  - c. RS 391 *Bildur bat da auereetan / ta asco guizonetan.*
  - d. EspGut 1: 8-9 *Hil haniz bi aldetaric: hamesei mila baratu ditucu canpouan*

- e. Etxep 2: 09 Anhiz pena arima gal harena eta neuryere
- f. Etxep 8: 22 *Etay lelory bay lelo pota franco vercia vego*

Ageri denez, Etxepareren adibideak ez dira bete-beteak, interpretazio arazoak dituzte. *Refranes y Sentencias*-ekoetan, ordea, perpaus existentzial garbiak ditugu, eta esango nuke espioitzako gutunetako adibidea garbi antzekoa dela; hauetan denetan zenbatzaile zehaztugabe bat da pibot izen sintagmaren burua. Bistan da, burua zenbatzailea denez, ezin da artikulurik agertu.

#### 6.2.2.2 *Perpaus existentzialak beste zenbatzaile batzuekin*

Orobatsu gertatzen da pibotean bestelako zenbatzaileak agertzen direnean: ez dago bestelako determinatzailerik. Bederatzi adibide bildu ditut:

- (7) a. Sorabila 2 *Achul ona, Sorabilan bost eche,*
- b. RS 391 *Bildur bat da auereetan / ta asco guizonetan.*
- c. Lazarg A4: 10 *Gure ortuan madari, / guraçauric amabi,*
- d. Isasti 69 *Oyan orotan otso bana.*
- e. Leiz 1425 *ceinetan baitira hirur persona cein bere propietatez distinguituac eta cein-bere*
- f. Etxep 2: 10 *Amoretan plazer baten mila dira dolore*
- g. Etxep 3: 37 *Mila guicon gayxtoric da emazte batendaco*
- h. Zalgiz 71 *Nihaur heben, gogoa han, / Cençu guti buruian*
- i. Zalgiz 95 *Ohe batetan bi eri.*

Ageri denez, (7g) adibidea da determinatzailea duen bakarra; *-(r)ik* partitiboa du. Ez dago artikuluaren erabileraz egin daitekeen bestelako oharrik.

#### 6.2.2.3 *Perpaus existentzialak galderetan*

Bost perpaus existentzial bildu ditut, galderazko esaldietan formulatuta:

- (8) a. Lazarg A19: 59-60 *Neurau baño non ete da / ederrago donzellaric?*
- b. EspGut 20: 2 *Jauna: orandic ezcin gastiga nizacoie zure senoriary cer quantitate mercaduria dens*
- c. Etxep 2: 11 *Amoretan othe date leyal denic batere*



d. Etxep 12: 4 *Biderican liçatenez nynzan haren gracian*

e. Etxep 12: 45 *Egundano yçan daya ni bay dichatacoric*

Galderazko hauen artean, zuzen zein zeharkako, Lazarragarenean eta Etxeparenetan partitiboan dago pibota; espioitzako gutunekoan (8b), *cer* galdetzailearekin dagoenez, ez du bestelako determinaziorik.

#### 6.2.2.4 *Perpaus existentzialak baldintzazkoetan*

Hiru adibide bildu ditut:

- (9) a. Lazarg A23: 40 *lenaengo, ta guero juzgadu / bestegan baliz tacharic,*  
 b. EspGut 17: 16 *ouste dut alacoric izandu balis zerbait gaquingo nuela*  
 c. Zalgiz 94 *Eihera batian ecin eho deçanac berce[rat] laster [balidin harri].*

Hauetan, bistan dena, Zalgizeren adibidea da interesgarriena: inongo mugatzailerik gabe agertzen da pibot izena; cf. bestalde erronkarierazko Ros 10.1v: 19 *herioçe yçan vacen*. Ikus hurrengo atalean Etxepareren (10g) adibideko *vada acheter herrian*.

#### 6.2.2.5 *Baiezko perpaus existentzialak*

Denetara hogeita bost zenbatu ditut, zalantzazkoak izan daitezkeenak barne. Bost sailetan multzoka ditzakegu, pibot sintagmaren markatze morfologikoari dagokionez: determinatzailearik gabekoak, artikuludunak, artikululu pluraldunak, partitibodunak eta *bat* artikululu indefinituarekiko ustezko adibideak. Hona lehen saila, determinatzailearik gabekoena:

- (10) a. RS 70 *Cucuen cantazean / huri ta eguzqui.*  
 b. Garibai A14 *Eguzqui eta huri, Marti eguraldi*  
 c. Land *eclipsi yzan yguzquiz “eclipsarse el sol”*  
 d. Lazarg A4: 9 *Gure ortuan madari, / guraçauric amabi,*  
 e. Rabelais *e(gu)in eçaçu gure proposian ordine den*  
 f. Etxep 2: 29 *Behar handien denian faltaturen berciac*  
 g. Etxep 9: 35 *çauri banynz larruyan vada acheter herrian*  
 h. Zalgiz 128 *Artho espada lasto.*  
 i. OihAtsot 339 *Non salda, han zopa.*

Bederatzi adibide hauen artean, (10a, b, c, d) adibideak kontuz hartu behar dira: (10a-b) adibideak ez dira perpaus existentzial bete-beteak, nahiz eta interesgarri izan, hain zuzen ere koordinaturiko bi izenez osatua dagoelako pibot sintagma. Landuchioren adibidea ere (10c), bere urrian, ezin da hartu perpaus existentzial betetzat. Azkenik, Oihenarten adibidean, perpausa existentzialtzat jotzeko izan litezkeen arazoez gain, ezin da erabaki pibot sintagmetan artikulua dagoen ala ez, *-a* berezkoa duten izenak direlako.

Mugakoa izan liteke Lazarragaren adibidea (10d), perpaus existentzialtzat jotzeko tenorean. Baina, hala dela onarturik, ohargarria da interpretazio pluraleko izen arrunt zenbakarria dagoela pibotean. Rabelaisen adibidea (10e) helburuzko perpaus bat da; interesgarria da hau ere, izen zenbakaitz gisa har baitaiteke piboteko izena, abstraktu gisa. Azalpen semantiko honen bidetik, are interesgarriagoa da Etxepareren adibidea, pibotean superlatiboko sintagma bat egonik ere, artikulurik gabe agertzen baita: zenbakaitza da, hemen ere, izena. Orobatsu esan daiteke Zalgizeren (10h) adibideaz: *lasto* izen zenbakaitza dugu horretan; ohar bedi *salda* eta *zopa* izen zenbakaitzak ditugula eztabaidatik kanpo utzi dugun Oihenarten adibidean ere. Horretaz gainera, Zalgizeren adibidean baldintzazko perpaus bat dugu aurretik, eta uler daiteke *Arto ez bada lasto izanen da* moduko zerbait adierazi nahi dela. Ikus, jarraian, hurrengo bi paragrafoetan, baldintzaz eta etorkizuneko aspektuaz.

Azkenik, hauxe esan daiteke Etxepareren beste adibideaz (10g), zeinetan pibota *acheter* izen zenbakarria den: sintagma horrek ez dio erreferentziarik egiten mediku jakin bati, erreferente zehaztugabekoa da; aurreko perpausa baldintzazkoa izateak eragiten du hori, egoera hipotetiko baten menean ezartzen baitu pibot horren existentzia.

Oro har, artikulurik gabeko sintagmak dituzten pibot hauetan, badirudi kasurik gehienetan izenaren semantikaren arabera azaldu daitekeela morfologia jakin hori. Horretaz gain, ohartu beharra dago etorkizuneko dela perpaus hauetan guztietan proiektatzen den denbora: etorkizunean izan litezkeen entitateen existentziaren berri ematen digute edo, nahi bada, balio orokorreko baieztapenak dira —cf. bereziki mendebaldeko (10a, b, d) adibideak—. Ikusiko dugu beherago izen sintagma partitibodunez osaturiko pibotak erabiltzen direla erreferentzia egiteko diskurtsoaren mundu errealean izan badiren entitateei. Azken ohar gisa, ohartu nahi nuke ekialdekoak

direla adibide hauek gehienak, eta Lazarragarena da, zalantzak gorabehera, mendebaldekoen artean eztabaidan sartu dugun bakarra; nolana ere, bazter utzitako mendebaldeko adibideak ere gogoan hartzen baditugu, pentsa daiteke euskal eremu osorako balio lezakeela deskripzio honek. Ezin da baieztatu erabateko ziurtasunez, datu gehiagoren faltan.

Azalbide honetan sakontzeko, ikusiko dut sintagma artikuluduna duten pibotetan ere gisa bereko azalpen semantikorik eman ote daitekeen.

- (11) a. RS 364 *Sua dan lecrean queheac hurten eban.*  
 b. HernIaun 4 *Hanuat uada Seynale andi ceruan dacusaguna*  
 c. Leiz 1394 *Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuko gendetara consideratione guehiago vkan dut, ecen ez bercetacoetara*  
 d. EspGut 12: 16 *badioge ezin ala egin badou ereguec egoundaino izan den triboulazio andiagoo izanen dela Franzian*  
 e. Etxep 1: 357-359 *Oray dela çuyendaco maradicionia / Ifernuco suya eta iagoytico nequia / Eta çuyen conpaynia demonio gucia*  
 f. Etxep 1: 364-365 *Elas nola çanen den heben damu handia / Damu handi içigarri remedio gabia*  
 g. Etxep 2: 84 *Ohart guiten buruyari denbora den artian*

Determinaziorik gabeko pibotez eman dudana azalpenari jarraiki, esperoko genuke testuinguru diskurtsiboan identitatea ongi ainguratua duten entitateei egitea erreferentzia (11a-f) adibideetako izen sintagma artikuludunek. Arazoak arazo, argudioak bil daitezke hau hala dela erakusteko. Horretan hasi baino lehen, ohartarazi behar dut ez dudala aintzat hartu Etxepareren (11g) adibidea, Oihenarten (10i) adibidea bazter utzi dudana arrazoi berarengatik; egia esan, (11g)-koa ere beste haien artean sailka zitekeen.

*Refranes y Sentencias*-eko (11a) adibidean, ohartu behar da beste perpaus baten menpe dagoela perpaus existentziala eta iraganean dagoela perpaus hori, cf. *hurten eban* aditza. Nire ustez, horrek zedarritzen du diskurtsoko entitate jakin bati perpaus existentzialeko *sua*-ren ainguratzea; gogoan har bedi, bestalde, 6.1.5 ataleko (b) puntuan aipaturiko *Trantsitibitatearen Hierarkia*, zeinaren arabera izen sintagma bat definitu izateak korrelazio zuzena duen aditzaren aspektu burutuarekin.

(11b) adibidea argiagoa da, nire ustez: *Seynale handi ceruan dacusaguna* sintagma aski deiktikoa da; erlatibozko perpaus bat lagun izateak, gainera, are modu nabarmenagoan zedarritzen du ainguratze hori. Orobatsu pentsa daiteke Leizarragaren adibideaz (11c): hori idaztean, *religionearen exercitio* jakin eta zehatzak zituen burutan Leizarragak, tokian tokikoak.

Espioitzako gutunetako adibidean (11d), *tribulazio* jakin batez ari da idazle ezezaguna, ordura arte izandako batez; (11a) adibidean bezala, aspektu burutua duen perpaus baten barruan kokatzeak ematen du ainguratze zehatza.

Inportantea da nabarmentzea perpaus erlatibo bana dagoela (11a-d) adibideetan: pibotaren lagun bezala (11b, d), edo pibota bera da perpaus erlatiboaren subjektu (11a, c). Honek, bistan dena, erraztu egingo zuen pibota testuinguruan aurki daitekeen erreferente zehatz bati ainguratzea. Aipagarri suertatzen da orain, ezezakako partitibodunen artean sailkatu dudalako, aipatu ez dudan adibide bat: Etxep 4: 38 *Eztu vste berkeric dela lecot mayte duyena*; honetan ere, erreferente jakin eta zehatz bati dagokio *maite duyen* hori, erlatiboarekin osatuta.

Azkenik, zinez interesgarriak dira Etxepareren adibideak: bi hauetan, zalantzak izanik ere zinezko perpaus existentzial diren ala ez, ongi ezartzen da entitatearen ainguratzea bi adberbioren bidez, *oray* (11e)-n, eta *heben* (11f)-n.

Berriz ere, nagusi dira ekialdeko adibideak, baina mendebaldeko bakarra ez da aldentzen ekialdekoen jokabidetik. Esan daiteke, beraz, irizpide bertuen arabera deskriba daitekeela perpaus existentzialetako artikuluaren agerrera euskal eremu osoan.

Bi adibide daude, bestalde, artikulatu pluralarekin:

- (12) a. Lazarg AL: 1146v *ceñari erechan Duero, Gaztelaco probincian, nun cirean utra arçai aberasac*  
 b. Lazarg A27b: 29 *Amoraduoc egonagati, / eztao çure senarric.*

Lazarragaren (12b) adibidean, piboteko sintagma artikulatu hurbilarekin egoteak berak zedarritzen du entitatearen ainguratzea testuan; lehentxeago, gainera, aipatuak ditu *galai galantak* (cf. A27b: 25-26 *Cerren çu chipi içanagaiti / asco da galay galantic*), eta *amoraduoc* izen sintagma ongi ainguratzen da erreferente horietan. Zailagoa da

zehazten (12b)-ko *utra arçai aberasac* sintagmaren ainguratzea; beharbada, hemen ere pentsa liteke perpaus existentziala lehenaldian egoteak handitu duela pibotaren erreferentzialtasun maila, eta horrek erraztu duela artikulua erabiltzea —cf. (11a) adibidea, RS-koa—.

(10)-eko adibideen eztabaidan aurreratu bezala, zinez da interesgarria ikustea berdintsuak direla, perpausak deskribatzen duen existentzia motari dagokionez, pibot partitiboduna duten baiezko perpaus existentzial guztiak. Hona adibideak:

- (13) a. Lazarg A23: 62 *Ene erriti oyta çurera / badago bidacidorric*;  
 b. Leiz 1429 *eta hunetan hypochritaric eta gaichtoric-ere bada onequin nahasteca*  
 c. SunbLap *vay guc<sup>435</sup> eçeçe verçe ijitoric ere va duc Vaztanen*  
 d. Etxep 7-8 *eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan letratu handiric*  
 e. OihAtsot 666 *Sariak zathitu ondoan, ageriko da zer den hirerik urpoan*.

Perpaus existentzial hauek guztiak orainaldikoak dira, eta entitateen zinezko existentzia bat ezartzen dute —(10)-eko adibideetan ez bezala—, baina haiei erreferentzia zehaztugabea eginez —(11)-ko adibideetan ez bezala—. Adibide sorta honetan ere bakarra dugu mendebaldeko adibidea, baina, beste behin ere, bat egiten du ekialderagokoekin.

Ohar txiki bat egin daiteke artikulua indefinitua izan lezaketen bi adibiderek —cf. (7b), zeinetan argi baitago zenbatzailea dela *bat*—. Ez dago argi perpaus existentzial baten pibot moduan ulertu behar ote den Lazarragaren B21: 59 *Icusi neben odei çuri bat, / çaguitaz inguiraturic; / aren erditan silla berde bat, / moraduz jaspeaduric*; egiari zor, ederki asko izan daiteke *icusi neben* aditzaren objektua. Interesgarriagoa da espioitzako gutunetako adibidea: EspGut 16: 12 *eta ereguc aren mirazera presiden gaste bat baita, bata oura bidaldu douela*. Bi gauza zehaztu behar dira adibide horretaz: (1) nire ustez, argi xamar dago *presiden gaste bat* sintagman artikulua indefinitua dagoela, ez zenbatzailea; hurrengo perpausko objektua (*bata oura bidaldu douela*) aurkezten du artikulua indefinitu horrek, edo, nahi bada, ustezko perpaus existentzial oso horrek. (2) Perpaus erlatibo gisa sailka daiteke perpaus existentzialtzat jo nahi izan

<sup>435</sup> Kasu ergatibo itxuraz okerrari.

dudan hori: gaur egun ere erabiltzen dira halako erlatiboak Bidasoa inguruan (Sagartzazu 2005: 84);<sup>436</sup> nolana ere den, perpaus horren funtzioa oso argia da, ondotik duen izen sintagmaren aurrekari izatea.

#### 6.2.2.6 Ezezkako perpaus existentzialak, pibot partitibodunik gabeak

Atalaren hasieran aipatu dut bazirela ezezkako zortzi perpaus existentzial zeinetan piboteko izen sintagma ez baitago partitiboz markaturik. Hauek dira:

- (14) a. RS 384 *Elli dollorrean esta çer autu, / ta bizar gorritâ guichi çer sinistu.*  
 b. Lazarg A27: 36 *uste badoçu iñon ez dala / a ta çu laco beste bi*,  
 c. EspGut 8: 2-3 *zerbait modou izanen ez paizen biletacho bat parte orretarat pasazeco*  
 d. Etxep 1: 372 *Hantic harat ezta içanen bi erretatu bayeci*  
 e. Etxep 3: 26 *Ordu oroz behar tugu ezta heben cer duda*  
 f. OihAtsot 165 *Ezta zer fida, ez zeru izarzuan ez emazte nigarzuan.*  
 i. OihAtsot 164 *Ezt' ikaia non eztuen bere iztaia.*  
 j. Zalgiz 128 *Artho espada lasto.*

Argi dago (14a-f) adibideetan ez dagoela aipatzeko gauza handirik: izenordain galdetzailea (14a, e, f), zenbatzailea (14b, d) edo determinatzaile zehaztugabea (14c) dugu horietan, eta ez da espero bestelako determinaziorik. Gehienez ere, ohartarazi daiteke izenordain galdetzaileen artean ez dagoela *zer sinisturik*, *zer dudaturik* edo *zer fidaturik* modukorik; berdintsu genuen 6.2.2.3 atalean artean sailkaturiko EspGut 20: 2 *Jauna: orandic ezcin gastiga nizacoie zure senoriary cer quantitate mercaduria dens*, determinatzaile galdetzailearekin. Galdetzailerik gabe, ordea, cf. Etxep 1: 243 *Glorian ezpa yfernuyen ezta escapaceric* eta 13: 3 *Heldu vehar duyen gauçan ezta escapaceric.*

Oihenarten (14i) adibidean, hauxe argudia daiteke artikulua azaltzeko: errima

<sup>436</sup> Erabil daiteke ezaugarri hau, besteren artean, proposatzeko Bidasoaldekoa zela gutun horietako batzuen egilea. Cf. halaber ergatibo pluraleko *-ak*, ez *-ek* adibide honetan: 10:4 *Gastigatou ditoudan asquen beriac Arochelatic etorry ziren patatchetaco jentiac esan zuten*. Eztabaida horretan, aipagarria da Urtubiko anderea izatea sinatzailea (Urruñan dago gaztelua), eta agian aintzat hartu behar da laugarren gutuneko *capitán de Blaya* ere: gutunen editoreak Bordele iparraldeko Blayerekin lotzen du (Floristán 1993: 188, 29 oh.), baina Irunen bada Blaiia izeneko ingurune eta baserri bat. Ekialderagokoa dirudi, ordea, beste gutun batzuetako hizkera, cf. 1. eta 15. gutunak.

beharraren argudioa erabil daiteke, baina, funtsean, testuinguru jakin bat ezartzen du *bere iztaia* sintagmak, eta, horrenbestez, *ikaia* ainguratua geratzen zaio diskurtsoko entitate jakin bati; ohar bedi, berriz ere, erlatiboazko perpaus bat dagoela atsoitz horretan. Gisa bereko azalpena eman diegu (11)-ko adibideei. Zailagoa da azaltzen Zalgizeren adibidea, artikulurik gabea; jakina, hau ere ez da erraz sailkatzen perpaus existentzial gisa, eta agian eztabaidatik kanpo geratu behar da; nolana ere, ohar bedi zenbakaitza dela *arto* izena.<sup>437</sup>

#### 6.2.2.7 *Laburpen modura, XVI. mendeko testuetako perpaus existentzialen morfologiaz*

Datu guztiak eztabaidatuta, bi puntutan laburbil daiteke XVI. mendeko testuetan perpaus existentzialetako piboten jokabidea:

- (a) Korrelazio zuzena dago pibot horien izen sintagmen morfologiaren eta izen sintagmen erreferente motaren artean: baiezko perpaus existentzialetan, IS partitibodunek entitate erreal baino zehaztugabeei egiten diete erreferentzia, IS artikuludunek entitate erreal eta jakinei, eta IS artikulugabeek diskurtsuaren testuinguru hurbilean ez dauden entitateei.
- (b) Ezin izan dut alderik aurkitu euskalkien artean; oro har, eta datu gehiagoren faltan, esan daiteke XVI. mendean berdintsu jokatzen dutela eremu guztietako euskalkiek, mendebaldekoek eta ekialdekoek, perpaus existentzialetako pibotetako izen sintagmen morfologiari dagokionez. Ohar bedi gipuzkerazko testuetan ez dudala adibiderik jaso.

#### 6.2.3 *Perpaus predikatiboak*

Bildutako datuen artetik, hiru predikatu mota nagusi analizatuko ditut atal honetan: izenondo sintagmez osatutakoak, izen sintagmez osatutakoak eta izen + izenondo sintagmez osatutakoak.

Adibideak biltzeko, zenbait irizpide orokor segitu ditut; predikatu mota guztietarako balio dute irizpide hauek: funtsean, esan daiteke adibide kanonikotzat jo

<sup>437</sup> Ohartarazi daiteke ezezkako perpausetako objektuetan ere badituela Zalgizek partitiborik gabeko sintagmak: cf. 100 *Erle joan nahi* ez *ezi*, ez / *bresca*.

litezkeenekin osatu dudala zerrenda, egituraz sinpleen diren adibideekin; predikatu bikoitzeko egituretan, *edun* edo *eduki*-rekikoak hartu ditut bakarrik, eta bestelako predikatuen adibideak (iraupen edo aldaketa aditzekikoak, esaterako) azterketatik kanpo geratu dira oraingoan. Bikoitza izan da jardun honen helburua: testu ezberdinetako datuak konparagarri egitea, eta artikulua agerrarazi zezaketen bestelako aldagaiak kontrolatzea, eta haien eragina minimizatzea.

Horrenbestez, kanpo geratu dira hainbat eta hainbat adibide. Izenondo predikatuetan, esaterako, partizipioz edo izenlagunez osatutakoak: besteak beste, RS 35 *Celangoa baysta amea / alangoa oy da alabea*, RS 460 *Errana ezta goçoa / vada vere eztizcoa*, RS 521 *Berâquetan jacanari emaitê aguindua, / dago aguinduz damutua ta garuatua*, RS 193 *Semea etena ta assea, / alabea jancia ta gosea*, Leiz 1419 *essentia diuinal ber batetan, hirur persona hauc dira distinguituac eta cein bere*, etab.

Kanpoan utzi ditut mailakatzailleak dituzten izenondo predikatuak ere (*hain, honen, sobera*, etab.): cf. AL: 1151v *niri bacarric ichiric emun deustan pena; ceña dan ayn andia*, Miser 52 *zure alabanzaen beti esaten / egongo naiz zein andiak diraden*, Etxep 8: 16 *Horreyn gayz ciraden guero eguinen dut verceric*, OihAtsot 531 *Sobera on dena bertzentako, / ezta on aski beretako*, etab.; cf. halaber RS 469 *Ezcarazbaco essea, / ta andra losaguea, / ta ypirdico puza, / gustia onez hussa*, Lazarg B15: 102 *ceina dan çuençat guztiz gacia*, OihAtsot 347 *Ogi pulua, bekanki da irakaz xahua*, instrumentala dutela aurretik, OihAtsot 489 *Baladrea, sendoen hilgarri, / erhoen sendogarri*, genitiboko izenlagunarekin, OihAtsot 190 *Gerokoa, hobe ustezkoa, nahiago dut on oraikoa*, etab.

Orobat utzi ditut bazter predikatuan gabe duten adibideak: cf. Isasti 54 *Itsasoco legueac, onac on, eta gaistoac mesur gabeac*, OihAtsot 579 *Emazte ederra duena etxean, etxea etsai-lurrean, eta mahastia karrikaldean, ezta koeinta gabe bihotzean* eta OihAtsot 670 *Sobera jakinsu izanez, gabe zedin axeria buztanez*.

Antzeko irizpideak jarraitu ditut izen predikatuak eta izen + izenondo sintagma duten predikatuak biltzeko. Bazter utzi ditut izenondo bete-beteak ez diren sintagmekikoak: Etxep 3: 65 *Ezta guiçon naturazco hala eguiten duyena*, RS 253 *Cejan esea hurrezco atea*; cf. halaber RS 405 *Arria vrtigui ta escua ostu, / ax guiçon galdu*



partizipioduna. Orobat mailakatzailereren bat dutenak, cf. Lazarg A1: 45 *ceña dan utra librea gacha*, / *desesperançaz beteric*, Etxep 3: 52 *Donario gucietan guciz gauça emya*. Zenbatzailea duten izen (+ izenondo) sintagmak ere kanpo utzi ditut (cf. IbarGCEs A6 *Madaria ta Muxica*, [biac] *frutu on bi dira*, Leiz 1419 *Aita, eta Semea, eta Spiritu saindua hirur Iainco dira?* eta SunbLap *vay yrur lagun guinaden*), ez ordea bat-ekin ageri direnak, artikulua indefinitua izan daitekeelakoan.

Bi irizpide aplikatzeagatik apaldu da gehienik adibide kopurua. Batetik, baztertu egin ditudalako genitiboko izenlaguna duten sintagmak —hauek berez dutelakoan artikulua—: cf. Garibai A50 *Larrea Burgos baño obea Toledorem idea*, Lazarg 1144r *Amaren seme bacocha nais*, Lazarg A12: 13 *Çure adisquidea nax ta / gueiago ez dot esango*, BretKant 2 *Guipuzcoa herrian : on guztien burua*, Leiz 1408 *Iauna, hi baitaiz, çuhurtzia eta iaquitate ororen ithurburu bakoitza*,<sup>438</sup> EspGut 13: 7 *Zer ere baita, nais zure senoriaren serbizary humble*, Zalgiz 41 *Chazco ohoina, aurthengoan vrkhazale*, OihAtsot 227 *Helgaitz laurdena, osagarri gaztena, herio zaharrena*. Eta, -ko genitiboarekin, cf. RS 137 *Adisquidebaco bicicea*, / *auçobaco heriocea*, OihAtsot 506 *Arradoia da Garaziko mendi xut eta harrizu bat*, etab.

Leizarragaren kasuan, nabarmen urritu dira adibideak erlatiboazko perpausen buru diren izenen adibideak kenduta: cf. Leiz 1429 *Iaincoaren cerbitzu eguiatzcoa da, berac galdeguiten eta bere hitzaz expressuqui ordenatzen duen cerbitzua*, Leiz 1437 *Deabrua da, Iaincoac creatu vkan çuen integritatetic bere faltaz erori içan den Spiritu gaichtoa*, Leiz 1438 *Iffernuia da, reprobatuéc Deabruequin Iaincoaren hira eta mendequio iustoz eta bidezcoz suffritzen eta perpetualqui suffrituren dutén punitionea eta tormentá* eta Leiz 1435 *Baptismoa da gure Christinotassunaren mercá, eta nola harçaz Eliçan recebitzen garen, seignalea*, beste hainbaten artean. Beste autore zenbaitetan, cf. Lazarg B16: 32 *Nungo çarean esadaçu*, / *bada al didin gaucea*, EspGut 19: 19-20 *Compania adrezazen direnen geienna Monsieur de Pangas da*, EtxauzGut 6 *çoin baita gauça*

<sup>438</sup> Aipatzekoa da Leizarragaren kasua, adibide asko geratu baitira zerrendatik kanpo arrazoi honegatik: Leiz 1425 *Semea, cein baita Aitáren sapientia eternala*, 1426 *Predestinationea da Iaincoaren conseillu eta ordenamendu eternala*, 1426 *Electionea da Iaincoaren conseillu eta ordenamendu eternala*, etab. Cf. orobat artikulurik gabeko 1437 *ceren bethiere baita Iaincoaren eta haren legituen etsay mortál*.

*desiracen dudana*, OihAtsot 143 *Ergeltarzuna da sendo eztaiteen elharzuna*.

Bestetik, bazter utzi ditudalako berdintze gisakoak edo ekuatibo itxurakoak direnak. Hau nabarmen suertatzen da atsotizetan, generoak berak ezartzen baititu halako egiturak: cf. RS 4 *Abenduco lañoa / euria edo egoa*, Zalgiz 38 *Urteco erdia, / Urteco eria (emaztez errana)*, OihAtsot 265 *Jauzkari ona, kapatxarduna*. Hauek bazter uzteak pentsaraz lezake predikatu artikulugabeen aldera lerrarazten duela adibide kopurua, halako berdintze egiturako atsotizetan biak artikuludun izan ohi direlako, “subjektua” eta “predikatua”. Baina irizpide honekin, kanpo geratu dira artikulurik gabekoak ere: RS 64 *Luqui cume, azeri*, Zalgiz 150 *Nesca senhar ederçale, / Soinaz egur ek'arle*, Zalgiz 184 *Atc'erri, / ots'erri*, OihAtsot 291 *Lagun elhatari, bideko zamari*, OihAtsot 298 *Lasto-su, laster-su*.<sup>439</sup> Cf., bestalde, Zalgizeren eta Oihenarten atsotiz beraren bi bertzioak: Zalgiz 9 *Oilo ebildaria, achiariac jaten du [acheriaren ianharia]* eta OihAtsot 358 *Oilo ebildari, axeriaren janhari*; bikote honek, nire ustez, argi uzten du halako adibideak baztertuta ez naizela galtzen ari informazio esanguratsurik

Hala ere, izen predikatuen eranskinetako tauletan jaso egin ditut hauek ere, atal berezietan, nahiz eta ez ditudan kontuan hartu eztabaida eta zenbakietarako. Perpaus ekuatibo garbiagoak ere, jakina, bazter utzi ditut: cf. Lazarg AL: 1152v *medecinea çu çarean guero*, Betol 58 *Lelengoa dá Bautismoa*,<sup>440</sup> EspGut 10: 6 *Egoun, zoin baita igandea*, etab.

Bi multzo handi horietaz gain, kanpoan utzi ditut izen predikatutzat jo zitezkeen beste adibide batzuk ere: partizipio edo aditz-izen diren izenak (cf. Lazarg B2: 8-9 *Iñor içango bada avisadu, / bear dau forçoso enamoradu*, Leiz 1429 *Scripturá edo Iaincoaren hitza erraiten denean aditzeco da*, OihAtsot 83 *Beharrari emaita ezta*

<sup>439</sup> Adibideak sailkatzeko tenorean, ezin izan diot ihes egin jokabide bati: atsotizaren lehen osagaia, “subjektua”, artikuluduna denean, eta bigarrena, “predikatua”, artikulugabea, ontzat eman dut atsotitza eta beste adibideekin sailkatu dut, bazter utzi gabe. Cf. adibidez RS 446 *Esalea, ençula* eta Zalgiz 40 *Guiçon barura, erdi deiebru*.

<sup>440</sup> Honen ondotik, zerrendan ematen ditu hauek ere: Betol 58 *Bigarrena Confirmaciñoa, Yrugarrena Comuninoa, Laugarrena Penitencia, Bostgarrena Extrema Vnciñoa, Seygarrena Ordea Sacerdotala, Zazpigarrena Matrimoniñoa*. Cf. orobat Betol 58 *Zazpi Espiritualac, / eta zazpi corporalac*.

*emaitea, bai zi ereitea*); *gabe*-rekin diren sintagmak, hala nola RS 132 *Arroz yguibaguea çara*, Etxep 1: 255 *Eta oroc eçaguçen dela videgabia* eta Etxep 1: 401 *Hanbat nuçu gauça orotan ni verthute gabia*; *guzti*-rekin diren sintagmak, hala nola Leiz 1425 *Iaincoa da [...] eguia muthatzen eztena, bere ethortez içate duena, bayeta bothere, çuhurtzia, iustitia eta verthute gucia*.

Ez ditut adibideetatik kanpo utzi esapide ihartu gisa har litezkeenak, izenondoarekin zein izenarekin: cf. *kaso izan* (cf. Lazarg B15: 19 *Ni caso naxala*), *kausa izan* (cf. Lazarg B15: 22 *Monjea causa dala*), *arrazoi izan* (cf. Lazarg B16: 72 *errazoa dan gaucea*, Etxep 2: 109 *Arrazoyn da*), *damu izan* (cf. Etxep 10: 2 *Oray particeco damu guinate*), *gaitz izan* (cf. RS 118 *Aldi joana biorretan gasta*), *neke izan* (cf. Lazarg A24: 152 *orapilagaz lotu azquero, / neque da ascaetea*), etab.

Eranskinetan bildu dut predikatu mota bakoitzaren adibide guztien zerrenda. Jasotako adibide horien artean badira zalantzazkoak; halakoetan, eranskinean bertan eman dut arazoen berri, eta bertan adierazi zein irakurketa hobetsi dudan. Hainbat taula osatu ditut hurrengo azpiataletan, adibideen kopuru eta portzentajeekin; zenbaki horien barruan hartu ditut zalantzazko adibide horiek ere, datuetara lehen hurbilketa bat egitea baita taulen helburua, ez kuantifikazio erabat zehatza egitea.

### 6.2.3.1 *Perpaus predikatiboak: izenondo predikatuak*

VI.4 eranskineko taulan jaso ditut izenondo predikatuen adibideak. Hurrengo bi tauletan eman ditut adibide horien zenbait kopuru eta portzentaje, mendebaldeko eta ekialdeko datuak bereizita.<sup>441</sup> Adibide horietan, denak dira *izan* edo *egon* aditzekiko perpausak. Bereizita eman ditut izenondo predikatu soilak (IzondP) eta konparaziokoak edo gehiegitasun atzizkia duten izenondoekiko predikatuak (KonP); adibideetan, kopuru (kop.) eta portzentajeak (%) emateko, “/” zeinuarekin bereizi ditut artikulugabeak eta artikuludunak. “Orotara” zutabea, gehitu egin ditut IzondP eta KonP zutabeetako kopuruak. Adibidez, *Refranes y Sentencias* testuan, 76 adibide jaso ditut izenondo predikatuarekin, eta horietatik 62tan dira artikulugabe eta 14tan artikuludun; (76 adibide

<sup>441</sup> Mendebaldekoetan, bizkaierazko testuak, Arabakoak eta gipuzkerazkoak sartu ditut; ekialdekoetan, goi-nafarrerazko testuak, lapurterazkoak, behe-nafarrerazkoak eta zubererazkoak.

denera, beraz); izenondo konparatiboekin, 33 adibide bildu ditut, horietarik 26 artikulurik gabe, eta 7 artikulurekin:

Testua	IzondP		KonP		Orotara	
	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %
ArrasErrekII	0/1	0/100	0/0	-	0/1	0/100
ArrasErrekIII	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
IbargCEs	2/0	100/0	0/0	-	2/0	100/0
RS	60/15	80/20	26/7	79/21	86/22	80/20
Garibai	12/6	67/33	5/1	83/27	17/7	71/29
frJZum	0/1	0/100	0/0	-	0/1	0/100
KantabKant	1/2	33/67	0/0	-	1/2	33/67
BizkOlerk	1/1	50/50	0/0	-	1/1	50/50
ErrodZar	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
Perutxo	1/2	33/67	0/0	-	1/2	33/67
Land	5/0	100/0	0/0	-	5/0	100/0
Lazarg	31/20	61/39	12/0	100/0	43/20	68/32
Betol	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
Miser	0/2	0/100	0/0	-	0/2	0/100
BretKant	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
OROTARA	117/50	70/30	43/8	84/16	160/58	73/27

11. taula. Izenondo predikatuak XVI. mendeko mendebaldeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Testua	IzondP		KonP		OROTARA	
	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %
Isasti	7/1	88/12	4/0	100/0	11/1	92/8
Leiz	18/0	100/0	2/0	100/0	20/0	100/0
EspGut	4/0	100/0	0/0	-	4/0	100/0
Etxep	45/5	90/10	9/0	100/0	54/5	92/8
Zalgiz	28/0	100/0	11/0	100/0	39/0	100/0
OihAtsot	72/11	87/13	28/0	100/0	100/11	90/10
Bela	6/0	100/0	3/0	100/0	9/0	100/0
OROTARA	180/17	91/9	57/0	100/0	237/17	93/7

12. taula. Izenondo predikatuak XVI. mendeko ekialdeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Oro har, esan daiteke artikulurik gabe agertzen direla izenondo predikatuak XVI. mendeko testuetan, eta, itxuraz, mendebaldeko adibideetan handiagoa dela forma artikuludunak erabiltzeko joera, ekialdekoetan baino. Horretaz gain, bai mendebaldean bai ekialdean, nabarmena da konparaziozko edo gehiegitasun atzikiarekin gutxiago erabiltzen dela artikulua —ekialdean ez dago adibide bakar bat ere—, izenondo soileko

predikatueta baino; honek bat egiten du gramatika modernoetako deskripzioekin: “Izenondoa maila adberbioren bat duenean eta batez ere *-ago* edo *-egi* hartzen duenean, joera handia dago mugatzailerik gabe jartzekoa” (Euskaltzaindia 1993: 128).

Hainbat ohar egin dakizkioke aurreko paragrafoko orokortzeari; baditugu, esaterako, espero genezakeenaren aurkako adibideak: konpara bitez, esaterako, mendebaldeko RS 433 *Ondasunac galdu azquero / dyra ezaun* eta ekialdeko OihAtsot 364 *Onarzunak, galduz geroz dira ezagunak*; subjektu singularra duen ordaina ere badago *Refranes y Sentencias*-en, 297 *Galdu azquero ondasuna, / da eçauna*.

Atal honetan, orokortze horretatik kanpo geratzen diren salbuespenak aztertu ditut; hots, adibide artikuludunak. Horrek erakutsi beharko liguke zein testuingurutan hasi zen artikulua zabaltzen izenondo predikatueta, eta irizpiderik antzeman ote daitekeen bilakaera horretan. Bestalde, nire ustez horiek dira azaldu beharrekoak: artikulurik gabeko predikatuak dira jatorrizkoak, arkaikoak, eta bistakoa da predikatu artikuludunetan dagoela aldaketa eta berrikuntza.

#### 6.2.3.1.1 Arazoak izenondo predikatuak aztertzeko tenorean

Aurreko atalean aurkezturiko ekinbidean suertatzen diren arazo zenbaiten berri emango dut lehenik:

- (a) Konparatiboko atzizkia duten sintagma batzuk adberbio gisa ere interpreta daitezke, hala nola ArrasErreIII 29 *are bere lasterrago / abendañuje motela*, IbarGCEs B21 *Obe illos*, RS 293 *Ecachac dacar aro ona / gaxtoa vaynzate oba*, 331 *Equix nago guertuago / ynox baño guduraco*. Horrelako adibideak eztabaidatik kanpo utzi ditut. Kanpo utzi ditut bestelako interpretazio arazoak izan ditzaketenak ere, hala nola KantabKant-eko hiru adibideak.
- (b) Zenbait adibide ikusita, batzuetan ezinezko dirudi inolako irizpiderik antzematea. Badira, esaterako, adibide eta are perpaus berean ezberdin jokatzen duten predikatuak, ageriko arrazoirik gabe.
  - (15) a. Garibai B16 *Aoa veroa, bolsea oc*.
  - b. Etxep 12: 16 *Ny erhoa çu iaquynxu veva enaquidiçu*.

Ez Garibairen adibidean ez Etxeparenean ez diot antzematen zein izan daitekeen arrazoia artikulurik ez izateko bigarren predikatuan (*oç* eta *iaquynxu*, hurrenez hurren); pentsa daiteke baliabide estilistiko bat dela, esaerari indarra emateko edo, baina ez dakit hobeki definitzen irudipen hau. Ohargarria da beti lehena izatea artikuluduna, beste egitura batean ageri den bezala, ikus (52)-ko adibideak (*eztia ta ozpin*, *aytea ta seme*, etab.).

Antzekoa dirudi Lazarragaren adibide honek (16a), baina baliteke izenondoaren erreduplikazio adierazkorrak zerikusirik izatea, artikulua erabiltzeko:

- (16) a. Lazarg B9: 19-20 *Çuretaco nic daucadan / guztia / ezta mincor, salvo / ezti-  
eztia;*  
 b. Lazarg B15: 18 *Abisada eder parebagea, / eztacart gorguera, eztaust gona; /  
ecusi nagui, ce ni ona-ona.*

(16b) adibidean, berriz, Lazarragaren beraren beste adibide bat dago, itxuraz erreduplikazio adierazkorrarekin, baina ohar bedi errepikatua den *on* izenondoak bietan duela artikulua. Ez dut aurkitu horrelako adibiderik XVI. mendeko testuetan. Adibide hauen ondoan, Zalgizerena jar daiteke, ez baitu artikulurik: Zalgiz 191 *Gaixto gaixto ninçan, / Berdin vici ninçan.*

- (c) Zailtasunen zerrenda honetan, aipagarriak dira autore berak predikatu beraren bertsio artikuluduna zein artikulugabea ematen ditueneko adibideak:

- (17) a. Garibai A56 *Eder valiz, on ez eiliz*  
 b. Garibai B10 *Ederra vay liz, Ona eç ey liz*  
 c. Lazarg A27: 25 *Cerren çu balça içanagaiti, / asco da dama galantic;*  
 d. Lazarg A27: 43 *cerren çu eder içanagayti, / ez dot bapere bildurric.*

Garibairen kasuan, testu beraren edizio ezberdinetakoak dira bi adibideak (17a, b), eta bide horretatik azaldu beharko da aldea; ez dago argi zergatik duten artikulua Francisque Michelen edizioko predikatuek. Are zailagoa da irizpiderik atzematea Lazarragaren poema bereko bi adibideetan (17c, d); ez dirudi alde aipagarririk

dagoenik *balça* eta *eder* predikatuen artean: esaterako, zaila da alde semantiko esanguratsurik topatzea *beltz* eta *eder* izenondoetan (*eder izatea* “abstraktuago” ote, eta *beltz izatea* ezaugarri objektiboagoa, edo “ukigarriagoa”?).

- (d) Horrelako adibide zenbaitetan, aipa genezake errima beharra aldaera artikuludunak azaltzeko; ikus elkarren segidan diren Oihenarten adibideok:

(18) a. OihAtsot 596 *Ezta zaharra duena zaldarra.*

b. OihAtsot 597 *Ezta zuhur eztena erhoaren beldur.*

Bi hauetan ere, inork argudia lezake badagoela alde semantikorik *zuhur izan* eta *zahar izan* predikatuen artean. Baina berdin pentsa daiteke errimatu beharrak erraztu duela artikuluduna izatea *zaharra* predikatua. Ohar bedi Oihenarten hizkeran ez litzatekeela arrotza izango (18a)-ko atsotitzaren bertsio artikulugabea, *ezta zahar duena zaldar* moduko bat, bai baititu Oihenartek artikulurik gabeko objektuak; baina objektua artikuluekin den momentutik, artikulua behar du predikatuko izenondo sintagmak ere. RS-n ere atsotiz bera dugu, artikuludun RS 503 *Ezta zarra dauena çaldarra.*

Errimaren auzi honetan, aipagarria izan daiteke jokabide ezberdinak aurkitzea izenondo predikatuetan hizkera beraren barruan, autorearen arabera, baina baita errimaren aukeraren arabera ere; ikus (19):

(19) a. Zalgiz127 *Amaçuna hilic-ere gaitz.*

b. OihAtsot 24 *Amaizuna, eztizkoa ere, ezta huna.*

Oihenarten adibidean, errima beharra aipa daiteke, berriz ere: *amaizun* eta *hun* hoskide dira, eta subjektuak artikulua harturik, predikatuak ere hala behar du. Zalgizeren adibidean, ordea, errimaren aukera galdua dago hastapenetik, *gaitz* izenondoa darabilelako, eta hitz honek ez duelako errimarako aukerarik ematen *amaizun*-ekin; bestelako murriztapenen faltan, beraz, predikatuei dagokien morfologia kanonikoa dukegu Zalgizeren atsotitzean.

Zailtasun eta ohar hauek gorabehera, saia gaitezke bilatzen irizpide orokorragoren bat, esplikatu lukeena zergatik agertzen den artikulua predikatu artikuludunetan. Ikus

hurrengo atala.

### 6.2.3.1.2 Subjektuaren erreferentzialtasun maila eta predikatuen morfologia

Euskararen deskripzio modernoerri begira, predikatuen izaerari erreparatzea izan zitekeen eztabaidarako abiapuntua: “Traditionally, the presence/absence of the article has been associated with permanent/transitory properties of the subject respectively” (Zabala 2003: 433); hots, artikulurik gabe agertuko da predikatua, subjektuaren behin-behineko ezaugarri baten berri ematen badu —egoera predikatua baldin bada—, eta artikuluduna izango da, ezaugarri iraunkor baten berri ematen badu —izaki predikatua baldin bada—. <sup>442</sup> Baina XVI. mendeko testuetan ez dirudi horren arabera azaldu daitekeenik artikuluaren agerrera; are, kontrako adibideak ere baditugu: cf. Lazarg 1154r *Bioen contra probancea / clarua dago, ciertu, zeinetan clarua dago* egoera predikatu bat den eta hala ere artikulua duen; cf. orobatsu Lazarg B3: 44 *Bada, bear doçu, dagoan guero / gauaro au illun, fresco ta oça, / dulcero copladu ene bioça*.

Nire ustez, bestelako azalpen bat hobetsi behar da, eta subjektuaren erreferentzialitate mailari erreparatu behar zaio. Hipotesi honen aldeko adibide zehatzak eman baino lehen, hona XVI. mendeko nire corpusean artikulua duten izenondo predikatu guztiak, taula bakarrean bilduta:

Testua	Adibidea
RS (IzondP)	29 Aldi chaburra <u>lasterra</u> vada / egun astia baño obe da 115 Harien grisolac / mayaçean dira <u>onac</u> . 135 Andrea, sua, ta ysasoa, / gustiz da <u>guextoa</u> . 168 Chamaratilla <u>andia</u> / ta atorra chancharduna. 168 Chamaratilla <u>andia</u> / ta atorra <u>chancharduna</u> . 287 Hurunic estan esea / ezin liçate <u>asea</u> , ta vay gosea. 287 Hurunic estan esea / ezin liçate <u>asea</u> , ta vay <u>gosea</u> . 291 Eguia <u>ergarria</u> . 293 Ecachac dacar aro ona / <u>gaxtoa</u> vaynzate oba. 297 Galdu azquero ondasuna, / da <u>eçauna</u> . 363 Samarien osticoa da <u>gestoa</u> , / noc verac ar bez vere ydecoa. 428 Ciria da <u>guextoa</u> / zur berereangoa. 431 Yre auçoac eztequiâ gacha / <u>ona</u> da. 460 Errana ezta <u>goço</u> a / vada vere <u>eztizcoa</u> . 503 Ezta <u>zarra</u> dauena çaldarra.

<sup>442</sup> Ingelesez *stage-level* eta *individual-level* predikatuak dira; euskal terminologiarako, ikus adibidez Zabala (1999: 883).



RS (KonP)	109 <i>Arech asco dan vrtea / besteac baño ez <u>obea</u>.</i> 154 <i>Yçecoa edo llouea / eztaquit çeyn dan <u>obea</u>.</i> 224 <i>Ejaco oguiua <u>oneguiua</u>.</i> 288 <i>Hosqui osoa nayz etena / escuan baño oñean <u>obea</u>.</i> 508 <i>Zamarra laçac gora, / <u>obea</u> valiz nola.</i> 531 <i>Oasun eçeyn baño <u>obea</u> / çarzaroco alabea.</i> 542 <i>Vrrineric ospea / erricoa <u>obea</u>.</i>
Garibai (IzondP)	A5 <i>Ogui erraverria, <u>echagalçaigarria</u></i> B2 <i>Ogui erra barria, <u>Esa galçay garria</u></i> B10 <i><u>Ederra</u> vay liz, <u>Ona eç ey liz</u></i> B10 <i><u>Ederra</u> vay liz, <u>Ona eç ey liz</u></i> B3 <i>Guiçon beti naguia, <u>Esa galçay garria</u></i> B4 <i>Guiçon utra ederra. <u>Gueiaenean alperra</u></i>
Garibai (KonP)	A50 <i>Larrea Burgos baño <u>obea</u> Toledorem idea</i>
frJzum	10 <i>gollaraoc bere <u>onac tira</u></i>
BizkOlerk	1 <i>Catigatu ninduçun <u>librea ninçana</u></i>
Perutxo	3 <i>yaz <u>çoeguiua</u> ninçan / aurten erua</i> 3 <i>yaz <u>çoeguiua</u> ninçan / aurten erua</i>
Lazarg AL	1154r <i>Bioen contra probancea / <u>clarua</u> dago, ciertu,</i>
Lazarg A	A3: 21 — <i>Ene fedeau <u>andia</u> da ta / ondo tratadu naguçu;</i> A8: 7 <i>fortunea <u>curela</u> dana / aldi bat pensa eçaçu.</i> A17: 20 <i>apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea <u>firmea</u> dana.</i> A19: 15 <i>Oraingaño <u>gaztea</u> ax ta, / urtexe baten goza adi.</i> A23: 69 <i>Çure lecuan <u>ederra</u> nor dan, / ceur ezpaçara, ez daquit:</i> A23: 71 <i>cegaiti inor <u>ederra</u> dala / gurean ez da famaric.</i> A24: 38 <i>Ondasun oec galdu badaguit, / semea <u>dichabaguea</u></i> A24: 40 <i>erruqui nauçu, neure aideac, / cegaiti nax ni <u>gaztea</u>.</i> A24: 156 <i>carga <u>andia</u> sufrietaco / oraïndo nax <u>gaztea</u>.</i> A27: 21 <i>Oy çu <u>ederra</u> içan ez arren, / nic ez daucat bearric;</i> A27: 25 <i>Cerren çu <u>balça</u> içanagaiti, / asco da dama galantic;</i>
Lazarg B	B3: 44 <i>Bada, bear doçu, dagoan guero / gauaro au <u>illun, fresco ta oça</u>, / <u>dulcero</u> copladu ene bioça.</i> B1: 1 <i>Ez naiç <u>çuri ederra</u>.</i> B3: 57 <i>Dacusun azquero ene negarroc, / ene laztan maite bioz-gogorra, / nola çara nigaz <u>mutu ta gorra</u>?</i> B3: 62 <i>Merecidu ezpadot ecer bere / neure partez, cerren naxan <u>pobrea</u>, / çureti bay, cerren naxan çurea.</i> B9: 19-20 <i>Çuretaco nic daucadan / guztia / ezta mincor, salvo / <u>ezti-eztia</u>:</i> B9: 24 <i>çugan ereingo dan / ene acia / ez bildurtu, eze / ezta <u>gacia</u>.</i> B15: 18 <i>Abisada eder parebaguea, / eztacart gorguera, eztaust gona; / ecusi naguï, ce ni <u>ona-ona</u>.</i> B15: 37 <i>Jaiorean ninçan <u>desdichadea</u>, / cerren aita neben guztiz gogorra, / senideac labur, ama leorra.</i>
Miser	61 <i>Arren, zera(n) enezat <u>piadosoa</u>,</i> 62 <i>izan zaite, Jauna, eta <u>mansoa</u>,</i>
Isasti	11 <i>Auqueraren mauquera, azquenean <u>oquerra</u>.</i>
Etxep	1: 396 <i>Ez gitera aycinera ceren bayniz <u>saxuya</u></i> 2: 140 <i>Gu <u>gayxtoac</u> içan arren ezten çutan faltaric</i>

	8: 11 <i>Ene vstian eztut erran <u>desonesta</u> den gauçaric</i> 12: 9 <i>çu <u>gaztia</u> bacirere adimendu hon duçu</i> 12: 16 <i>Ny <u>erhoa</u> çu iaquynxu veba enaquidiçu.</i>
OihAtsot	24 <i>Amaizuna, ezfizkoa ere, ezta <u>huna</u>.</i> 194 <i>Gizon erribera, edo <u>elgerra</u> edo <u>alferra</u>.</i> 233 <i>Higu dudanaç gaitz diostana / sinets ziroiat, nahiz <u>barhana</u>.</i> 333 <i>Neskatoa ez motila, ez <u>aberatsa</u> ez <u>kiskila</u>.</i> 408 <i>Sokarraria, <u>xotila</u> bada, da gozogarri; toldea bada, erdeinagarri.</i> 408 <i>Sokarraria, <u>xotila</u> bada, da gozogarri; <u>toldea</u> bada, erdeinagarri.</i> 439 <i><u>Zoroa</u> da, bere kaltetan / argi bila dabilena gauza ilhu[netan].</i> 521 <i><u>Hasak</u> direnean elg' ezkontgeiak, / nekearenak dirat' ezteiak.</i> 580 <i><u>Ergela</u> da gordatzera doena berezenera.</i> 582 <i><u>Erhoa</u> da hasten duena lan urhent eztezakeena.</i> 596 <i><u>Ezta zaharra</u> duena zaldarra.</i>

13. taula. Artikulua duten izenondo predikatuak, XVI. mendeko testuen corpusean.

Esan bezala, aukera egon liteke subjektuaren erreferentzialitate mailaren arabera azaltzeko adibide artikuludunetako hainbat; funtsean, baiezko perpaus existentzialetan emandako azalpenaren antzekoa da hau, ikus 6.2.2.4 atalean, (11)-ko adibideei dagokien eztabaida: testuinguru diskurtsiboan ongi ainguratutako erreferenteak dituzten subjektuek, perpaus erlatibo baten bitartez ainguratutakoek, esaterako, errazago eragingo dute artikuluduna izatea haiei dagokien predikazioaren izenondo sintagma. Nire ustez, Oihenarten adibideek ongi erakusten dute hau:

- (20) a. OihAtsot 439 *Zoroa da, bere kaltetan / argi bila dabilena gauza ilhu[netan].*  
b. OihAtsot 521 *Hasak direnean elg' ezkontgeiak, / nekearenak dirat' ezteiak.*  
c. OihAtsot 580 *Ergela da gordatzera doena berezenera.*  
d. OihAtsot 582 *Erhoa da hasten duena lan urhent eztezakeena.*  
e. OihAtsot 596 *Ezta zaharra duena zaldarra.*

Mendebaldeko zenbait adibide ere aski ongi sartzen dira irizpide honen barrenean:

- (21) a. RS 287 *Hurunic estan esea / ezin liçate asea, ta vay gosea.*  
b. RS 431 *Yre auçoac eztequiâ gacha / ona da.*  
c. RS 503 *Ezta zarra dauena çaldarra.*  
d. RS 109 *Arech asco dan vrtea / besteac baño ez obea.*  
e. RS 154 *Yçecoa edo llouea / eztaquit çeyn dan obea.*  
f. BizkOlerk 1 *Catigatu ninduçun librea ninçana*

Irizpide honen osagarri, beste bat ere eman daiteke, artikuludunak diren beste adibide multzo bat azaltzeko. Nire ustez, subjektuaren eta predikatuaren arteko nolabaiteko berdintze bat dagoenean, errazago hartzen du artikulua predikatuak. Nabarmena izan daiteke hau atsotizetan, haien egituragatik beragatik:

- (22) a. RS 168 *Chamaratilla andia / ta atorra chancharduna.*  
 b. RS 168 *Chamaratilla andia / ta atorra chancharduna.*  
 c. RS 291 *Eguia ergarria.*  
 d. RS 288 *Hosqui osoa nayz etena / escuan baño ñean obea.*  
 e. RS 508 *Zamarra laçac gora, / obea valiz nola.*  
 f. RS 531 *Oasun eçeyn baño obea / çarzaroco alabea.*  
 g. RS 542 *Vrrineric ospea / erricoa obea.*  
 h. Garibai A5 *Ogui erraverria, echagalçaigarria*  
 i. Garibai B2 *Ogui erra barria, Esa galçay garria*  
 j. Garibai B3 *Guiçon beti naguia, Esa galçay garria*  
 k. Garibai B4 *Guiçon utra ederra. Gueiaenean alperra*  
 l. Isasti 11 *Auqueraren mauquera, azquenean oquerra.*  
 m. OihAtsot 194 *Gizon erribera, edo elgerra edo alferra.*  
 n. OihAtsot 333 *Neskatoa ez motila, ez aberatsa ez kiskila.*

Betiere gogoan hartuta perpaus hauek guztiak predikatiboak direla, gogora ekar litezke perpaus ekuatiboak, paralelo modura; horietan ere artikuludunak izan ohi dira berdintzen diren bi sintagmak. Gogoetabide honetan, aipagarriak dira perpaus ekuatiboen deskripzioetan hurrenkeraz esan izan direnak: Lafittek dioenez (1944: §275), zubereraz artikulua arabera egiten da diferentzia predikatiboan (*karta hau on da*) eta ekuatiboan (*karta hau ona da*) artean, baina hurrenkeraren arabera nafar-lapurteraz; cf. *karta hau ona da* predikatiboa eta *karta hau da ona* ekuatiboa; ikus halaber Zabala (2003: 432-433). Nire ustez, antzeko zerbait dugu *Refranes y Sentencias* testuko zenbait adibidetan:

- (23) a. RS 363 *Samarien osticoa da gestoa, / noc verac ar bez vere ydecoa.*  
 b. RS 428 *Ciria da guextoa / zur berereangoa.*  
 c. RS 460 *Errana ezta goçoa / vada vere eztizcoa.*

Hiru adibide hauetan, aditza aurretik dute izenondo predikatuek. Analisiaren ildo honetatik, pentsa daiteke artikulua duten zenbait izenondo predikatutan isilik dagoela dagokien izena, subjektuarekiko berdintzea indartzen duen izena: arestiko adibideetarako, cf. (23a) *da (ostico) gestoa*, (23b) *da (ciri) guextoa* eta (23c) *ezta (erran) goçoa*. Cf. halaber RS 29 *Aldi chaburra lasterra vada / egun astia baño obe da*, zeinetan uler litekeen *aldi txaburra (aldi) lasterra bada* dugula; orobatsu RS 293 *Ecachac dacar aro ona / gaxtoa vaynzate oba* atsotitzean, *(aro) gaxtoa vaynzate*, edo frJZum 10 *gollaraoc bere onac tira* perpausean, *(gollara) onac tira*. Adibide hauetan izan genitzakeen dudak gorabehera, azalpen modu honen aldeko adibide egokia iruditzen zait Oihenarten atsotitz hau:

(24) OihAtsot 408 *Sokarraria, xotila bada, da gozogarri; toldea bada, erdeinagarri.*

Adibide honetan, *(sokarrari) xotila bada* eta *(sokarrari) toldea bada* uler daitezke, eta artikuluekin agertzen dira predikatu horiek. Interesgarria da adibidea, beste bi izenondo predikatu agertzen direlako atsotitzean, *da gozogarri* eta *(da) erdeinagarri*, ezin daitezkeenak analizatu *xotila bada* eta *toldea bada* bezala: artikulurik gabe agertzen dira bi horiek. Honek, gainera, azalpen beraren pean ezartzen ditu ekialdea eta ipar-mendebaldea.

Etxepareren adibideak zailagoak dira azaltzen, baina pentsatzen dut analisi modu hau berau hobetsi behar dela horietako zenbaitetarako ere:

- (25) a. Etxep 2: 140 *Gu gayxtoac içan arren ezten çutan faltaric*  
 b. Etxep 12: 9 *çu gaztia bacirere adimendu hon duçu*  
 c. Etxep 12: 16 *Ny erhoa çu iaquynxu vaha enaquidiçu.*

Azalpen hoberik ezean, pentsa genezake aski ainguratze sendoa ezartzen diotela izenondo predikatuari *gu*, *çu* eta *ny* izenordainek. Gogoan izan, nolana ere (25c) lehenago ere aipatu dudala adibide arazotsuen artean.

Honenbestez, hiru irizpide moduko eman ditut atal honetan, azaldu lezaketenak zergatik agertzen diren artikulua izenondo predikatuetan: (1) subjektuaren erreferentea diskurtsoan ongi ainguratua baldin badago, erlatiboazko perpaus baten bidez, adibidez,

errazagoa da artikuluduna izatea predikatua; (2) atsotizetan hain tipikoak diren subjektuen eta predikatuen arteko berdintzeek ere erraztu dezakete predikatuan artikulua erabiltzea; (3) zenbait izenondo predikatutan izen eliditu bat dagoela pentsa daiteke, artikulua erabilera erraztu lezakeena. Azaldu bezala, bigarrenarekin batean sailka daiteke hirugarren multzo hau.

Hemen zirriboratu ditudan hiru irizpide hauek ez dira arau gisa hartu behar: horiek beteta ere izan ditzakegu predikatu artikulugabeak, eta, gehienez ere, lagungarri izan daitezke, artikulua azaltzen denean zergatik azaltzen den ulertzeko. Horrela bada, artikulurik gabeko adibideak dira OihAtsot 597 *Ezta zuhur eztena erhoaren beldur* eta RS 12 *Bildurti dana hanquer*, erlatiboarekin.

Arazoak arazo, hiru irizpide horien arabera azaldu daitezke predikatu artikuludun asko, bai mendebaldekoak bai ekialdekoak. Argazki orokor honetan, alabaina, salbuespen nabarmena dira Arabako testuak —Lazarraga, batez ere—:<sup>443</sup> testu horietako izenondo predikatuetan, badirudi artikulua erabilera inon baino gehiago ugaltu dela, eta ez dut irizpide argirik antzeman horiek azaltzeko, gorago aipaturiko (17c, d) adibideak lekuko; horren adibide muturrekoak dira, halaber, Lazarg 1154r *Bioen contra probancea / clarua dago, ciertu*, egoera predikatu artikuluduna, eta sintagma berean bi artikulua dituen Lazarg B15: 18 *ecusi nagui, ce ni ona-ona*. Halako adibideen argitara, pentsa daiteke Araban egon zela berrikuntza gune hau, hor hasi zela orokortzen artikulua, inon baino lehen.

Horrela bada, are gehiago zehaztu genezake Mitxelenak esana: “[S]e diría que es empleado más profusamente en el centro y oeste del país que en el este, más en general al sur que al norte” (Mitx VII 301); izenondo predikatuetan, hego-mendebaldean, Araban, erabiltzen da modu orokorrean artikulua. Alde horren berri ematen dute zenbakiak eta portzentaiek ere, adibide gehien dituzten mendebaldeko testuak konparatzen ditugunean: *Refranes y Sentencias* testuan izenondo predikatu arrunten adibideen %20 dira artikuludun, eta Lazarragaren eskuizkribuan %39.<sup>444</sup>

<sup>443</sup> Ditugun datu apurren arabera, baliteke gipuzkerazkoak ere Arabakoekin sailkatu behar izatea.

<sup>444</sup> Gogoan har bedi, nolana ere, RS-ko hizkuntz egoera eta Lazarragarena ez direla inolaz ere garaikideak.

## 6.2.3.1.3 Predikatu bikoitzeko egiturak

Interesgarria da ikustea antzeko kopuru eta portzentajeak ditugula, predikatu bikoitzeko egiturei begiraten badiegu; ikus segidan diren 14. eta 15. tauletan. Adibide guztiak eranskinetako 65. taulan bildu ditut.

Testua	IzondP		KonP		Orotara	
	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %
RS	8/4	67/33	0/0	-	8/4	67/33
Garibai	6/0	100/0	0/0	-	6/0	100/0
KantabKant	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
Urrexola	1/1	50/50	0/0	-	1/1	50/50
ErrodZar	4/0	100/0	0/0	-	4/0	100/0
Lazarg	4/6	40/60	1/0	100/0	5/6	45/55
BretKant	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
SerorGut	0/1	0/100	0/0	-	0/1	0/100
OROTARA	25/12	68/32	1/0	100/0	26/12	68/32

14. taula. Predikatu bikoitzeko egituretako izenondo predikatuak, XVI. mendeko mendebaldeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Testua	IzondP		KonP		OROTARA	
	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %	-Ø/-a Kop.	-Ø/-a %
Isasti	5/0	100/0	1/0	100/0	6/0	100/0
EspGut	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
Etxep	12/1	92/8	2/0	100/0	14/1	93/7
Zalgiz	6/0	100/0	0/0	-	6/0	100/0
OihAtsot	20/3 <sup>445</sup>	87/13	2/0	100/0	22/3	88/12
Bela	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
OROTARA	45/4	92/8	5/0	100/0	50/4	93/7

15. taula. Predikatu bikoitzeko egituretako izenondo predikatuak, XVI. mendeko ekialdeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Ageri denez, ekialdeko testuetan gutxiago erabiltzen dira predikatu artikuludunak, eta Oihenart da, berriz ere, horien artean gehien erabiltzen dituena; gogoan hartu behar da, hala ere, adibideak ez direla asko, eta baliteke aldeak esanguratsuak ez izatea. Oihenarten adibide hauetan guztietan, erlatiboazko perpaus batez lagunduta dago subjektua:

<sup>445</sup> Hiru adibideetako batean izenondoa ez dago artikularekin, partitiboarekin baizik.

- (26) a. OihAtsot 353 *Ohean egin zuenak [satsukeria], porua handienik.*  
 b. OihAtsot 502 *Ertikarea du luzakorra / bertzeren hil nahiaz denak izorra.*  
 c. OihAtsot 532 *Zangoak behar ditu xuxenak / makurren eskarniatzen ari denak.*

Oihenarten hauetaz gain, Etxepareren beste hiru adibide ekar daitezke hona, superlatiboko predikatua dutelako:

- (27) a. Etxep 4: 18 *Nic nahyen dudanian bercec bessoan daraça.*  
 b. Etxep 9: 16 *Nic veharren nuyen gauça daramaçu çurequila.*  
 c. Etxep 9: 19 *Guiçonac duyen maytena bayetare hobena / Vihoco pausuya du eta vere lo huna*

Ezaguna da superlatiboko predikatueta beharrezkoa izan ohi dela artikulua: “The article *-a/-ak* is also necessary with the superlative affix *-en*, since an uniquely referring reading is required” (Zabala 2003: 435). Etxepareren kasuan, hain zuzen ere superlatiboan dago artikulua duen predikatu bakarra (27c); ohartu behar da, dena den, perpaus erlatibo baten buru dela. Beste bi adibideak, (27a) eta (27b), *nahi izan* eta *behar izan* kolokazioen adibide dira, eta ez dira, beharbada, hain esanguratsuak; horretaz gainera, perpaus erlatiboen barrenean daude hauek ere.

Azken buruan, Arabako datuak dira azpimarragarrienak, aurreko atalekoekin bat egiten baitute: berretsi egiten dute bertan zegoela inon baino zabalduago artikulua izenondo predikatueta. Kopuru eta portzentajeei begira, nabarmen ageri da hegomendebaldeko joera hau: adibideen %60 dira artikuludun Lazarragarengan; ipar-mendebaldeko RS-n, berriz, %33.

#### 6.2.3.1.4 Izenondo predikatuak: ondorioen laburpena

Honela laburbil daitezke izenondo predikatuai buruzko atal honetan ateratako ondorioak:

- (a) XVI. mendeko testuen corpusean, ez dirudi eraginik duenik predikatua ezaugarri iraunkorreak edo behin-behinekokoak izateak —egoera predikatua edo izaki predikatua—, izenondoak artikulua har dezan.
- (b) Badirudi subjektuaren erreferentzialtasun mailak eragina duela, predikatuak

artikulua har dezan: zenbat eta erreferente konkretuagoa izan (perpaus erlatibo batez lagundua dagoelako, esaterako), orduan eta errazagoa da artikulua hartzea predikatuak.

- (c) Badirudi Araba izan dela berritzaile artikuluaren erabileran: bertan dago artikulua zabalduena; egitura bikoitzeko predikatuetan ere joera bera antzeman daiteke.

#### 6.2.3.2 Perpaus predikatiboak: izen predikatuak

VI.5 eranskinean bildu ditut adibideak, eta ondoko tauletan zenbaki eta portzentajeetan eman ditut adibide horiek. Taula hauetan, zutabe bat gehitu dut *bat* duten sintagmentzako; ez zen halako adibiderik izenondo predikatuetakoko sintagmetan, baina bai izen (+ izenondo) predikatuetaoetan. Bestalde, eta izenondo predikatuen atalean ez bezala, predikatu bikoitzeko egiturak barnean dituzte zenbaki eta portzentaje hauek; ez ditut bereizirik eman, esanguratsua ez delakoan: orotara, 31 adibide daude predikatu bikoitzekoak, eta horietarik bakarra da artikuluduna, hau bera interpretazio arazoekin (Etxep 1: 279).

Testua	Izen predikatuak					
	-∅ Kop.	-∅ %	-a Kop.	-a %	<i>bat</i> Kop.	<i>bat</i> %
MLastur	1	% 100	0	-	0	-
ArrasErrekIII	1	% 100	0	-	0	-
IbargCEs	1	% 100	0	-	0	-
Sandailia	1	% 100	0	-	0	-
RS	29	% 88	4	% 12	0	-
Garibai	3	% 60	2	% 40	0	-
frJZum	0	-	1	% 100	0	-
Andram	0	-	2	% 100	0	-
BizkOlerk	0	-	1	% 100	0	-
Land	4	% 100	0	-	0	-
Lazarg	16	% 62	10	% 38	0	-
Betol	1	% 14	6	% 86	0	-
BretKant	1	% 100	0	-	0	-
OROTARA	58	% 70	25	% 30	0	-

16. taula. Izen predikatuen morfologia, XVI. mendeko mendebaldeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.



Testua	Izen predikatuak					
	$-\emptyset$ Kop.	$-\emptyset$ %	$-a$ Kop.	$-a$ %	$bat$ Kop.	$bat$ %
NafKonde	1	%100	0	-	0	-
Isasti	6	%100	0	-	0	-
Leiz	5	%71	0	-	2	%29
EspGut	2	%40	2	%40	1	%20
Etxep	36	%97	1	%3	0	-
Zalgiz	18	%100	0	-	0	-
OihAtsot	48	%94	3	%6	0	-
OROTARA	116	%92	7	%6	3	%2

17. taula. Izen predikatuen morfologia, XVI. mendeko ekialdeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Funtsean, esan daiteke errepikatu egiten direla izenondo predikatuetan ikusitako emaitzak: (1) Oro har, nagusi dira izen predikatu artikulugabeak; (2) ekialdean forma mugagabeak gehiago erabiltzen dira mendebaldean baino; (3) mendebaldean, testu luzeetako datuei begira, esan daiteke hego-mendebaldea dela berritzailea, predikatu artikuludunen kopurua apaldu egiten baita hango testuetan, Lazarraga eta Betolatza horren lekuko —Garibairen beraren zenbakiak ildo bertsuan koka daitezke, baina adibide gutxi ditu—. Alde nabarmen bat dago ekialdeko eta mendebaldeko testuen artean: ekialdekoak baizik ez dira sintagmaren buruan *bat* duten predikatuen adibideak.

Ohar bat egin daiteke Mitxelenak egin zuen orokortzeaz: Axularren predikatuez ari zela, izen predikatuak, izenondoarekin lagunduta egon zein ez, artikuludun dira (VII 308). Argi dago, arestiko (1) puntuaren argitara, ez dela hala XVI. mendeko testuetan. Dena den, ohartu behar da genitiboko izenlagunarekin daudela Mitxelenak dakartzan izen soileko predikatuen adibideak;<sup>446</sup> ez da hain harrigarria, beharbada, artikuluaekin agertzea horiek ere.

Oharrak ohar, hemen ere artikuludunak dira esplikatu beharrekoak. Izen predikatu artikuludunen zerrenda osoa ekarri dut hona:

<sup>446</sup> Hauek dira singularreko subjektuarekin dakartzan izen predikatuen adibideak: Ax 37 *eta orduan dembora onaren seiñalea dateque* eta Ax 172 *Çuec çarete, eta gu gara, Iaincoaren laboraritasuna: gu gara, Iaincoaren lur-landua, appaindua eta travaillatua*. Beste adibideak izen + izenondo predikatuak dira, edo pluraleko subjektua dute: cf. Ax 216 *Bertce guztiaç dira bidexcac, bide chidorrac, hertsiaç...* eta Ax 392 *Ihiztari handiaç dira beguiaç*.

Testua	Adibidea
RS	24 <i>Ayta çarra ta behse etena / ezta <u>guerena</u></i> 415 <i><u>Aztua</u> eztan zarra / aztidila.</i> 426 <i><u>Yssua</u> da baeti ez dacusena.</i> 550 <i>Jaunen hotua / oy da <u>aguindua</u>.</i>
Garibai	A51 <i><u>Goyztarra</u> ni magaletan det aguri</i> A54 <i>Andrea <u>vgaria eta gorularia</u></i>
frJZum	34 <i>alegra bidj, çure bioçz garbiorj: <u>andrea çara eta bacarric</u>.</i>
Andram	1 <i><u>burua</u> ysanyç / Onsalu / Onsaluch</i> 2 <i>Aurrean dagoçala Oña enganean Ochoa Onsaluch / <u>burua dala</u></i>
BizkOlerk	13 <i><u>dolorea ta penea da [ene] laguna</u></i>
Lazarg AL	1146r <i>Ni onerean joateco / <u>causea</u> oyta çara çu.</i> 1154r <i>oençat <u>castigua</u> dan eta / besteoençat <u>exenplu</u>.</i>
Lazarg A	A17: 103 <i>Ascotan, çu bacina <u>pedernala</u>, / edo ni sufriceco baninz achez!</i> A17: 105 <i><u>Nesquea</u> çara çu ta ni <u>guiçona</u>; / çuc leguez ditut nic narru çuriac;</i> A17: 105 <i><u>Nesquea</u> çara çu ta ni <u>guiçona</u>; / çuc leguez ditut nic narru çuriac;</i> A21: 8 <i>arren, osatu nenguiala / a liçan guero <u>medicua</u>.</i>
Lazarg B	B13: 2 <i>Ene laztan çuri ederra, / <u>flordelisea</u> çara çu.</i> B22: 27 <i>gustietati <u>florea</u> dira / orduan Axpurucoac.</i> B33: 32 <i>Munduac claramentean daqui / <u>çurça</u> dana Cicilia.</i>
Betol	55 <i>Bigarrena sinistetea / dala <u>Aytea</u>.</i> 55 <i>Irugarrena sinistetea dala <u>Semea</u>.</i> 55 <i>Laugarrena sinistetea / dala <u>Espiritu Santua</u>.</i> 55 <i>Bostgarrena sinistetea / dala <u>Criadorea</u>.</i> 55 <i>Seygarrena, sinistetea / dala <u>Salvadorea</u>.</i> 55 <i>Zazpigarrena, sinistetea / dala <u>Glorificadorea</u>.</i>
EspGut	13: 4 <i>bataz zeren ez naizen <u>cortesanoa</u>, baizic <u>montaneza</u></i> 13: 4 <i>bataz zeren ez naizen <u>cortesanoa</u>, baizic <u>montaneza</u></i>
Etxep	1: 279 <i>Yrestera apphaynduric <u>yfernuya azpitic</u></i>
OihAtsot	168 <i>Eure gelaria ez potikeia, hant eztakia alegia hura <u>andregeia</u>.</i> 230 <i>Herriz aldatzea, zaharrarenzat da <u>heriotzea</u>.</i> 288 <i><u>Itsua</u> da baheti eztakusana.</i>

18. taula. Artikulua duten izen predikatuak, XVI. mendeko testuen corpusean.

Nire ustez, izenondo predikatueta deskribaturikoen antzeko irizpideak deskriba daitezke izen predikatueta ere, azaltzeko zergatik agertzen den artikulua (gogoan har bitez, halaber, 6.2.3.1.1 atalean zerrendaturiko arazoak).

- (a) Ekuatibo bete-beteak izan gabe ere, hainbat adibidetan subjektuarekin berdintzen da izen predikatua. Adibide nabarmenak dira atsotizetakoak: RS 24 *Ayta çarra ta behse etena / ezta guerena*, RS 415 *Aztua eztan zarra / aztidila*, RS 550 *Jaunen hotua / oy da aguindua*, Garibai A54 *Andrea vgaria eta gorularia* eta OihAtsot 230 *Herriz aldatzea, zaharrarenzat da heriotzea*. Atsotizetatik kanpo, cf.

BizkOlerk 13 *dolorea ta penea da [ene] laguna*, eta nabarmenak dira Betolatzaren adibideak. Lazarragaren A21: 8 *arren, osatu nenguala / a liçan guero medicua* adibidean, aipatu dut zalantza egon daitekeela, are ekuatibo gisa sailkatzeko ere. Bestalde, Oihenarten 168 *Eure gelaria ez potikeia, hant eztakia alegia hura andregeia* adibidean, erraz ikusten da *hura* eta *andregeia*-ren artean ezartzen den berdintzea. Azkenik, Lazarragaren adibideekin izan daitezkeen zalantzak gorabehera, badirudi berdintsu azaldu daitekeela B33: 32 *Munduc clamentean daqui / çurça dana Ciciliak* eta B13: 2 *Ene laztan çuri ederra, / flordelisea çara çu* adibideak ere.

- (b) Erlatibozko perpaus baten bidez ainguratzen bada diskurtsoan subjektuaren erreferentea, errazagoa da predikatua artikuluduna izatea: cf. RS 288 *Itsua da baheti eztakusana* eta OihAtsot 426 *Yssua da baeti ez dacusena*.
- (c) Aurreko (b) irizpidearen azpi-irizpide moduan edo, aipa daitezke subjektu moduan lehen edo bigarren pertsonako izenordaina dutenak: cf. Garibairen A51 *Goyztarra ni magaletan det aguri*; ohar bedi hurrenkera ere, predikatua subjektuaren aurretik baitago. Irizpide bera aipatu dut izenondo predikatuetan, ikus (25)-eko adibideei dagokien eztabaida. Cf. bestalde (a) puntuan aipaturiko Lazarg B13: 2 *Ene laztan çuri ederra, / flordelisea çara çu*. Beherago ere aipatu dut Lazarg 1146r *Ni onerean joateco / causea oyta çara çu*.

Irizpide nagusi hauetatik kanpo geratzen dira, ordea, beste zenbait adibide. Ekialdekoekin hasiko naiz, hauek baitute azalpen behar handiagoa, askoz sendoagoa delako eremu horretan artikulugabeak erabiltzeko joera. Espioitzako gutunetako EspGut 13: 4 *bataz zeren ez naizen cortesanoa, baizic montaneza* adibidean, pentsa daiteke bere erreferentzialitate maila goratu duela bi predikatuak juntagailu adbertsatibo batez lotuak egoteak, eta horrek eragin ahal izan duela artikulua erabiltzea; hots, subjektua zehazki zer den adierazi nahi da, predikazioa zehaztu nahi da eta horren ondorio izan daiteke artikulua erabiltzea. Bestalde, Etxepareren adibideari dagokionez, ohartarazi behar da ez dela adibide garbi-garbia; hala ere, gogoan izan behar da *yfernuya* predikatuan *infernu* dela izena: erreferente bakarreko hitza da, eta Companyk gaztelaniazko *paraíso* eta

*infierno* hitzez dioskunaren arabera, artikuluaren “artículo único” erabileraren bidez azaldu daiteke sintagma hori artikuludun izatea: “[M]ediante él [artikuluaren erabilera horrekin] estas voces se individualizan plenamente y se aproximan aun más a nombres propios” (1991: 419).

Bestelako azalpenak behar dira mendebaldeko adibideetan, azalpenik ematekotan: adibidez, frJZum 34 *alegra bidj, çure bioçz garbiorj: andrea çara eta bacarric*, Lazarg A17: 105 *Nesquea çara çu ta ni guiçona; / çuc leguez ditut nic narru çuriac* eta Lazarg A17: 105 *Nesquea çara çu ta ni guiçona; / çuc leguez ditut nic narru çuriac* adibideetan, badirudi *andrea*, *nesquea* eta *guiçona* predikatuak predikatu generikotzat jo daitezkeela, Givónen ereduaren barrenean (1978: 296); eta baliteke halako erabileretatik zabaldu izana artikulua, Dahlek zioenarekin bat: “It is plausible that non-delimited uses of definites historically are extensions of generic uses” (2004: 173). Hala balitz, agian ez da harritzekoa aski goizik agertzea halakoetan sintagma artikuludunak.<sup>447</sup> Berriz ere, arestiko (c) irizpidearen barrenean ere azter litezke hauek ere.

Mendebaldeko beste adibideen artean, cf. Andram 1 *burua ysanyç / Onsalu / Onsaluch*, Andram 2 *Aurrean dagoçala Oña enganean Ochoa Onsaluch / burua dala* eta Lazarg 1146r *Ni onerean joateco / causea oyta çara çu*. Adibide hauetan, *buru izan* eta *kausa izan* esapideetan ere erabiltzen da artikulua; ez dut azalpen jakinik hauetarako, ez bada esatea artikuluaren erabilera zabalduaren adibide direla eta antzeman litezkeen irizpide semantikoak edo sintagmen erreferentzialtasunari dagozkionak aski lausotuak daudela. Honen adibide garbia da Lazarragaren adibide hau:

(28) Lazarg 1154r *oençat castigua dan eta / besteoençat exenplu*.

(28)-n, erabat kide diren bi predikatuk, *castigua dan* eta *exenplu (dan)*, jokabide ezberdina dute: batak artikulua du, besteak ez. Izenondo predikatuen atalean esan bezala (6.2.3.1.1 (b) atala), horrelako adibideetan zaila gertatzen da irizpiderik zehaztea.

Atal hau bukatzeko, *bat* determinatzailea duten izen predikatuak aipatu behar dira. Ekialdeko testuetan jaso ditut bakarrik, eta hiru dira:

<sup>447</sup> Aintzat hartu behar da, dena den, Dahl ez dela predikatuez ari berariaz.

- (29) a. Leiz 1434 *Baptismoa da Sacramendubat*,  
 b. Leiz 1435 *Cená da Sacramendubat*,  
 c. EspGut 17: 3-4 *Jaun emen izatu dena da legat bat, zoinna etorri baita...*

Nire ustez, argi dago Leizarragaren adibideetan (29a, b) indefinitu espezifikoa edo zehaztua dela predikatuen balio erreferentziala; Greenbergen terminologian, “specific reference” dute (1978: 62), Givónenean, “referential indefinite” dira (1978: 296).<sup>448</sup> Hau da, bere diskurtsoaren testuinguruan badira izan sakramentu batzuk (horregatik da erreferentziala), eta horietako jakin bati egiten zaio erreferentzia (horregatik da espezifikoa). Espioitzako gutunetako adibidean, berriz, aurkezle balioa izan lezake *da legat bat* predikatuak, ondotik datorren *zoinna etorri baita...* jarraipenak aditzera ematen duen bezala. Puntu honetan, ohar bat egin behar da, *bat* zenbatzailearen gramatikalizazio bidearen alorretik: 3.5.2.5.1 atalean esan bezala, Heineren eskalaren barrenean *espezifikotasun markatzaile* izatea hirugarren aroan dago —hor leudeke (29a, b) adibideak—, eta aurkezle funtzioa bigarren aroari dagokio —hor legoke (29c) adibidea—. <sup>449</sup>

### 6.2.3.3 *Perpaus predikatiboak: izen + izenondo predikatuak*

VI.6 eranskinetako 69. taulan jaso ditut adibideak. Adibideak gutxiago dira, aurreko predikatu motetan baino, baina berdin-berdin eman ditut ondoko tauletan adibideen kopuru eta portzentajeak; atal honetako tauletan ere, izen predikatuenean bezala, *bat* artikulua indefinituari dagokion zutabea gehitu dut.

<sup>448</sup> Greenbergeki ongi azaltzen du zertan datzan: “English *I am looking for a book* is ambiguous as between specific reference, i.e. there is a certain book for which I am looking, and a reading in which there is no such assumption” (1978: 62).

<sup>449</sup> Perpaus existentzialen atalean, pibotean *bat* zuen adibide bakar bat aipatu dugu: EspGut 16: 12 *eta ereguec aren mirazera presiden gaste bat baita, bata oura bidaldu douela*. Honetan ere, nire ustez, aski garbia da sintagma horren aurkezle funtzioa.

Testua	Izen + izenondo predikatuak, morfologiaren arabera					
	$-\emptyset$ Kop.	$-\emptyset$ %	$-a$ Kop.	$-a$ %	<i>bat</i> Kop.	<i>bat</i> %
MLastur	0	-	2	%100	0	-
RS	6	%60	4	%40	0	-
Garibai	4	%100	0	-	0	-
Lazarg	2	%12	11	%69	3	%19
OROTARA	12	%38	17	%53	3	%9

19. taula. Izen + izenondo sintagma duten predikatuak, XVI. mendeko mendebaldeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Testua	Izen + izenondo predikatuak					
	$-\emptyset$ Kop.	$-\emptyset$ %	$-a$ Kop.	$-a$ %	<i>bat</i> Kop.	<i>bat</i> %
HenrIaun	0	-	1	%100	0	-
Isasti	5	%100	0	-	0	-
Leiz	0	-	0	-	4	%100
EspGut	1	%33	2	%66	0	-
Etxep	5	%42	7	%58	0	-
EtxauzGut	0	-	0	-	1	%100
Zalgiz	2	%50	2	%50	0	-
OihAtsot	6	%32	12	%63	1	%5
OROTARA	19	%39	24	%49	6	%12

20. taula. Izen + izenondo sintagma duten predikatuak, XVI. mendeko ekialdeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Ageri denez, zenbaki absolutuetan, askoz gutxiago dira izen + izenondo predikatuak, izen eta izenondo predikatu soilak baino. Hortaz, kontu handiagoarekin hartu beharko ditugu predikatu mota honetaz atera genitzakeen ondorioak. Honela laburbil daitezke datu hauek:

- (a) Esan daiteke aski heterogeneoak direla datuak, autoretik autorera begirutzen diegunean. Mendebaldekoetan, esaterako, Garibairengan adibide guztiak dira artikulugabe (*huts* da beti izenondoa, hala ere), *Refranes y Sentencias* testuan ia erdi eta erdi dira artikuludunak eta artikulugabeak, eta Lazarragarenean artikuludunak dira nagusi; azken honetan, gainera, badira *bat* artikuludunak ere. Ekialdeko testuetan, berriz, adibide gehien dituztenetan (Etxep eta OihAtsot), artikuludunak nagusitzen dira, baina bost adibide dituen Isastirenean, aldiz, ez dago bakar *bat* ere. Bestalde, Leizarragaren adibide guztiek *bat* dute.
- (b) Heterogeneotasun horren barrenean uler liteke, beharbada, alde esanguratsurik

ezin antzematea ekialdeko eta mendebaldeko testuen artean.

- (c) Orotarako kopuru eta portzentajeak aintzat hartzen baditugu, nagusi dira *-a* duten predikatuak.
- (d) Horretaz gain, *bat* duten sintagma gehiago dira izen predikatuetan baino, bai ekialdean bai mendebaldean.
- (e) Ondorio nagusi gisa, esan daiteke Mitxelenak XVII. mendean —Axular du aztergai, ikus 2.6.3.2 atala— deskribatu zuen egoeraz bestelakoa dugula XVI. mendeko testuetan: ugariak dira XVI. mendean izen + izenondo predikatu artikulugabeen adibideak, artikulua zabaltzeari eutsi diotenak.
- (f) Azkenik, aurreko ataleko predikatu motei begiratuta eta haiekin konparatuta, agerikoa den gauza bat nabarmendu daiteke: determinazioari dagokionez, izen soileko eta izenondo soileko predikatuak bateratsu jokatzen dute, eta horietarik aldentzen dira izen + izenondo predikatuak, artikulua hartzeko joera handiagoa dutenak.

Predikatu hauetan forma artikuludunen gailentzea azaltzeko, pentsa daiteke sintagma bateko osagaiak zenbat eta modifikatzaile, izenondo eta izenlagun gehiago izan, orduan eta handiagoa izan daitekeela haien maila erreferentziala, erreferentzia bera zehatzagoa, jakinagoa delako testuinguruan; morfologikoki markatuta egoteko joera horren ondorio gisa azaldu liteke —dela artikulua indefinituarekin, inguruko hizkuntza erromantzeetan nabarmenago den bezala, dela definituarekin—. <sup>450</sup>

Bai izenondo predikatuen bai izen predikatuen ataletan (6.2.3.1, 6.2.3.2), naturala suertatu da sintagma artikuludunak azaldu beharra, artikulugabeak “berezkotzat” jota. Izen + izenondo predikatuetan, ordea, ez da hain erraza, arestiko (a) puntuko heterogeneotasunagatik beragatik. Horrela bada, autorez autoreko edo adibidez adibideko iruzkina egingo dut, oinarriko deskripzio lan modura.

Milia Lasturkoren eresian, *2 Cer ete da andra erdiaen çauria? / Sagar errea, eta ardāō gorria* adibidean, berdintze baten osagai moduan azaldu daitezke *sagar errea* eta

<sup>450</sup> Ez dirudi bestelako azalpenik ematen duenik Mitxelenak: “Uno se aventuraría a adelantar, en todo caso, que la determinación es una exigencia más apremiante cuando se trata de sustantivo + adjetivo” (VII 307).

*ardāō gorria* sintagmak, aurreko ataletan beste predikatuentzat eman izan dudan azalpenaren bidetik. *Refranes y Sentencias* testuko adibideetan, antzeko adibidetzat jo liteke RS 197 *Belorita ezcur ona / esquequi asco baleuco* artikuluduna. Bestalde, badirudi batera aztertu behar direla RS 71 *Auere guextoa da gorrotoa* eta RS 308 *Guren da andia odolbacoa* atsotitzak: subjektuaren aurretik dago predikatua bi hauetan; ohar bedi, gainera, *guren da handia*-ren hurrenkera. Cf. orobatsu OihAtsot 187 *Gauza sorta da Erretate, / hura gaberik eninzate* eta 296 *Lan gaxtoa, bortxazkoa*.

Hauetan denetan, badirudi ez erreferentzialtzat jo litezkeela predikatuetoiko sintagmak, eta balio generikoa dutela. Beste bi atsotitzetan ere balio ez erreferentzialeko predikatuak ditugu, baina artikulurik gabe agertzen dira: cf. RS 245 *Guiçonoc oro buru balz, / andra duztioç buru çuri* eta RS 295 *Iauna burquide gaxto*; beste azalpenik ezean, lehen adibidean subjektua pluralekoa izateari egotz dakioke predikatuan artikulurik ez agertzea (ikus 6.3.4 atala), baina ezin da erabili azalbide bera *burquide gaxto* predikatuaren kasuan, eta gogoan hartu behar da bi osagaietan artikulua duten atsotitzak baztertu ditudala, atsotitzen generoak ezartzen dituen murriztapenen menpegi daudelakoan. Ohartu nahi nuke azalpen *ad hoc* xamarren ertzetan aritzeko arriskua dagoela, esaten dugunean “artikulurik ez duelako, halako interpretazioa du”, hain zuzen ere sintagmaren interpretazioaren arabera erabaki nahi dugunean nolako determinazioa izango duen sintagmak.

*Refranes y Sentencias*-eko azken adibidea, 151 *Hurte gestoa barri vsta*, Garibairen adibideekin sailkatu behar da, eta Isastiren 42 *Gorrotoa villau uts*, 47 *Izan baguea guerra vts*, 82 *Vrte gaistoa oquin vts* atsotitzekin: hauetan denetan, *huts* da izen + izenondo sintagmako izenondoa. Ohar bedi Isastiren eta Garibairen adibideetan ez dagoela sintagma artikuludunik. Nire ustez, bestalde, *huts* dute predikatu hauek *handi* duten beste batzuekin konpara daitezke: cf. Etxep 4: 11 *Honestea berçerena erhogoa handi da*, 1: 230 *Harçaz vnsa orhitcia çuhurcia handi da* eta 13: 15 *Vercen gayçaz cençacia çuhurcia handi da*. Pentsa daiteke bai *huts* eta bai *handi* izenondoak mailakatzaille gisa funtzionatzen dutela sintagma horietan, eta baliteke horregatik ez hartzea artikulurik. Berriz ere, eta gaiaren irristakorraren erakusle, gogora ekarri behar dira Etxepareren adibide artikuludunetako batzuk: Etxep 12: 29 *Arimaren ialguitia*



*neque handia duçu* eta 10: 9 *Biciric particia pena handia*; egiari zor, ez dut ikusten alde handirik hauen eta arestiko artikulugabeen artean, osaeraz ere antzekoak baitira perpaus guztiak, denek dutelarik subjektu gisa aditz-izen bat. Oihenarten adibide batzuk ere halakoak dira: cf. 376 *Ororen gogara egitea, / da gauza nekea* eta 365 *Oenezat da gauza nekea, gaxto-herrian ungi bizitzea*.

Lazarragaren kasuan, badirudi araua dela artikuluekin ematea izen + izenondo sintagmak. Arau horretatik kanpo, cf. A16: 81 *Unicornio, animal fortiz / animal oen artean* eta B33: 33 *Di]ostaenez, lecu on dira / Toscanarequin Lonbardia*. Lehenean, aitortu beharra dago ez dela perpaus bete-bete baten adibidea: subjektutzat joko genukeen *Unicornio* sintagmak berak ere ez du artikulurik, eta, bestalde, ziur aski hobe perpaus predikatibo baino, *animal fortiz animal oen artean* esaldia osorik hartzea. Bigarrean, *lecu on dira* predikatuarekin, ohartu behar da subjektua pluralekoa dela. Ikus 6.3.4 atala.

Interesgarriak izan daitezke, bere urrian, espioitzako gutunetako adibideak: nire ustez, izen predikatu bete-betea da *lieutenant general izan*, eta *Biron* subjektuari predikatzen zaio. Beste bi adibideak, ordea, hurbilago daude hainbatetan aipatu ditudan berdintzeetatik: 19: 8 *senale gaztoa zaut orain Biarnon companiaren adrezazia* eta 19: 15 *sino gaiztoa zaut Biarnon companien egitea*.

Artikulugabeak dira Zalgizeren bi adibideak, Garibai edo Isastirenak bezala. Oihenarten atsotizetan, aldiz, ugariagoak dira adibide artikuludunak. Horietako hirutan, subjektuko izena perpaus erlatibo baten edo horien kideko baten burua da, eta aldarrika genezake aurreko ataletan deskribaturiko irizpide bera: cf. OihAtsot 453 *Unzi gaxtoa da, galtzen duena arnoa*, 507 *Gauza bekana da axeriaren lazoan atzamana*, 546 *Neguan hotzari eta udan beroari beldur zaiona, / ezta ez zaldun ez merkatari ona*. Ez dago artikulurik, ordea, 497 *Deus eztuena, balu, emaile handi* adibidean. Beste adibide batean, OihAtsot 418 *Zakuti bihia gal, edo zorroti irina, da galtze bardina*, errima beharra ekar daiteke gogora.

Ziurragoa iruditzen zait *bat* duten sintagmez esan daitekeena: izen predikatuen atalean esan bezala, hauen balio erreferentziala aski ongi antzeman daiteke, denak baitira indefinitu espezifikoko edo zehaztuak, eta balio erreferentzial garbia dute. Nire

ustez, adibide garbiak dira EtxauzGut 5 *Seguraçen citut eci guíçon terrible bat dela* eta OihAtsot 372 *Orhi da Bortuetan mendi gora bat, Nafarroa elgatako eta Zuberoako mugan*. Bi hauetan, balio erreferentzial nabarmena dute predikatuek: izan baden gizon batez ari da Etxauz, izan baden mendi batez ari da Oihenart. Berdintsu azaldu daitezke Lazarragaren eta Leizarragaren adibideak ere.

Atal hau bururatzeko, hobeki zehaztu nahiko nuke etengabe azaleratu den arazo bat: atal honetan, bereziki nabarmena izan da zein zaila den ezartzen inongo korrelaziorik predikatuetako izen sintagmen morfologiaren eta predikatu horien definitutasun-estatusaren artean. Zenbait azalpen aski *ad hoc* izan direla aitortu beharra dago puntu honetan; adibideen urritasuna erabil daiteke aitzakia moduan, baina, nire ustez, bada arrazoi metodologiko bat ere ezintasun horien atzean: morfosintaktikoa izan da nire datu bilketaren abiapuntua, perpaus moten eta determinazio motaren arabera bildu eta sailkatu ditut adibideak, eta bere mugak erakutsi ditu horrek. Horrelako kasuetan, nabarmena gertatzen da Masicak zedarritzen zuen eginbide orokorraren barreneko ataletako baten beharra, izenen estatus diskurtsiboa zehazteari dagokiona. Tesi honetan ezin izan diot bete-betean heldu alderdi horri; berez, izenen semantika historiko baten esparruko lana da hori. Ikus 3.2.5 atala.

#### 6.2.4 *Subjektuak*

Predikatuen determinazioarekin alderatuta, erabat bestelakoa da subjektuena; alderantzizkoa dela esan daiteke: artikuludunen adibideak eta artikulugabeenak konparatzen baditugu, nagusi dira, ezbairik gabe, artikuludunak. Are gehiago, zinez bakanak dira batere determinaziorik ez duten subjektuak. Horrela bada, datuen analisia errazagoa gertatzen da determinaziorik gabekoak esplikatuta. Bistan dena, subjektu funtzioan badaude egon buruan artikulua dutenez bestelako sintagmak: erakuslea dutenak, zenbatzaileren bat dutenak (zehaztuak, zehaztugabea...), perpaus osoak, etab.; egin litekeen lana da zehaztea zein irizpide diskurtsibo edo testualen arabera den horien guztien erabilera, baina bestelako bilketa lana eta bestelako oinarri teorikoak eskatzen ditu horrek, D-elementuen gramatikalizazioarenetik urrun.

Horrenbestez, atal honetako datu bilketarako, bazter utzi ditut honelakoak: izen

bereziak eta izenordainak (cf. RS 421 *Beucaz Peruc vere veyac / ta nic neure çazpi çuriac*, Garibai A57 *Norc vere gogoeta, moeta*, Amendux 10 *Nigar begi bapederac bere aldias oroyturic*), *asko* eta *oro* moduko zenbatzaileekikoak (cf. ArrasErrekIII 17 *Joanicoc eta beste ascoc / 18 eudela parte bertan*, RS 92 *Celangoa da Butroe / oroc daquie*), deteterminatzaile zehaztugabekikoak (RS 495 *Edoçeyn hulec vere gueriza*), eta, jakina, sintagmaren buruan erakusle bat dutenak (cf. frJZum 11 *tira guztiocaz asegujn artuco dau çure arima deunsu orrec*).<sup>451</sup> Horrelako sintagmek ez dute informaziorik ematen artikulua erabileraz.

Azpiatal banatan aztertu ditut perpaus iragankorretako subjektuak eta aditz iragangaitzetakoak.

#### 6.2.4.1 Perpaus iragankorretako subjektuak

Taula bat osatu dut XVI. mendeko perpaus iragankorretako subjektu guztiekin (VI.7 eranskina). Esan bezala, garbia da zeregina adibide zerrenda horretan: *-ak* edo *-ek* artikulua ez dituzten subjektuak analizatzea, dela mugagabe direlako dela *bat* indefinitua dutelako artikulua. Adibide multzo hauek egin daitezke:

- (a) Izen berezitat jo daitezkeen izen sintagmetan, horrexegatik esplikatzen da artikulurik ez agertzea: cf. Abendaño 2 *Jaun Peru Abendañococ esala* eta Lazarg A14: *8 iru egun cunplidu бага / oy setienbrec emunic*. Badirudi Lazarragaren adibide horretan gaztelaniazko *septiembre* hitza izen berezi gisa hartu dela, jatorrizko hizkuntzan bezala. Aipatzekoa da, bestalde, Lazarg A29: *12 saldu dabela / oy eta Judas traidorec* adibidea: izenondo bat hartuta ere, badirudi izen berezi izaera gorde duela sintagmak. Ezagunak dira, bestalde, saindu izen artikuludunak: subjektuan, cf. Lazarg A29: 87 *Jandone Periac / ez eguiian beneric*; ikus Lakarra (1983: 61-62).
- (b) Izen berezien modukoak dira *aita*, *ugazaba* eta *errege*; erreferente bakarrekoak izan daitezke, eta ezaguna da halako izenek badutela joera artikulurik gabe erabiltzeko. Honela dio Azkuek (*Morf* §448):

<sup>451</sup> Subjektu ergatiboak dira hauek, baina berdin jokatu dut absolutiboekin.

Nosotros no aplicamos al artículo: 1.º ni a nombres propios...; 2.º ni a nombres circunstancialmente propios: *aita* padre, *ama* madre, *errege* rey, *erregina* reina, *aitaita* abuelo, *amama* abuela, *ugazaba* amo, *aña* niñera, *tata* niñera... y en algunas comarcas tampoco a *osaba* tío, *izeba* (*izeko*) tía y algún otro.

Lazarragak behin dakar *aitac*: cf. A19: 9 *Aytac ezcondu ezpanagui*; adibide honetan, argi dago poemako narratzailea bere aitaz ari dela. Badirudi artikulugabea dela Leizarragaren adibidea ere, tiletik gabe: Leiz 1419 *nola Iainco Aitac bere botherez creatu vkan dituen creatura guciac*. Gipuzkerazko Miser 14 *konzebitu ninduan amak kulpaetan* adibidean, ordea, ez dago argi artikulua ote dagoen, ez baita beti betetzen  $-a + -a > -ea$  disimilazioa testu horretan.<sup>452</sup> Lazarragak baditu, bestalde, *ama* eta *aita* izenen adibide ergatibo artikuludunak:

- (31) a. Lazarg A26: 30 *Oyta bertati / ameac leyque aceptadu / erreguxeau*,  
 b. Lazarg B3: 31 *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola*.  
 c. Lazarg B3: 40 *Baeson ayteac*: «*Ene semea, / neuri baño oba derechudana, / ebenche vici da ene laztana*».

Honela azaldu daitezke adibide artikuludun hauek: itxura denez, Lazarragaren eskuizkribuan *aita* eta *ama* izenak artikuluekin agertzen dira, baldin eta poemaren narratzailearen ama eta aita ez badira (cf. subjektuez landa A26: 14 *amea*, B3: 38 *aytea*, B3: 47 *bere aytea* eta B3: 39 *aytearen*).

*Ugaçabac* ergatibo mugagabea ere badakar Lazarragak (AL: 1142r eta 1145r). Beste funtzio batzuetan —eta, beraz, beste kasu-marka batzuekin ere—, agertzen da hitz hau autore arabarrarengan, beti mugagabe: cf. AL: 1142r *bere ugaçabaren* genitiboa, 1144r *Silveroen ugaçaba* absolutiboa, 1146r *bere ugaçabari* datiboa, etab.

<sup>452</sup> Cf. absolutiboko 7 *kulpea*, soziatiboko 73 *Aitearekin*, baina ergatiboko 17, 28 *graziak* eta absolutiboko 48 *justizia*, 73, 74 *gloria*; itxuraz artikulugabe diren hauetan, baliteke artikulua egotea, ikus 6.1.2 atalean *-a* eta *-ia* bukaera duten maileguz esandakoa. Cf. halaber 66 *altura*, objektu gisa jotzen badugu. *Miserere*-az bestela, cf. *Refranes y Sentencias*-eko 519 *Mizqueriac erajegui deuso*.

*Errege* hitzaren adibideak, betiere perpaus iragankorretako subjektu funtzioaz ari garela, espioitzako gutunetan jaso ditut batez ere (adibide bat dago Etxeparerengan):

- (32) a. EspGut 1: 15-16 *erege<c> irabaci bataila*  
 b. EspGut 8: 4 *ezin goure ereguez* *escribitu diola len president Bordelecoari*  
 c. EspGut 9: 4 *Gobernadoreac dou jendarma bat, eregec emanic*  
 d. EspGut 12: 13 *baina gobernadorea asegouratou omen doue ezin eregec Amiansco gobernadore bere seme bastarta egin douela*  
 e. EspGut 12: 16 *badioge ezin ala egin badou ereguez* *egoundaino izan den triboulazio andiagoo izanen dela Franzian*  
 f. EspGut 14: 10-11 *eta esan diola Espainiaco eregec* *dadoucan partida bat barc libratouric emanen diola*  
 g. EspGut 15: 16 *Erreguez bilha egorry du Alfonso corso*  
 h. EspGut 16: 12 *eta ereguez* *aren mirazera presiden gaste bat baita, bata oura bidaldu douela*  
 i. Etxep 13: 7 *Iaun erreguez meçu nenzan ioanenguion bertaric*

*Errege* hitza ia beti da mugagabe espioitzako gutunetan: absolutiboan (7: 2, 19: 12), datiboan (5: 7, 5: 11, 13: 24, 14: 9, 17: 4, 17: 14), genitiboan (15: 6-7, 18: 5, 19: 4, 19: 9, 20: 14), benefaktiboan (15: 15). Beharbada ez da kasualitatea artikuluekin agertzen den gutzietan perpaus iragankorretako subjektu funtzioan izatea, hots, ergatiboan; izan daiteke funtzio honetako sintagmek artikulua hartzeko duten joeraren erakusle:

- (33) a. EspGut 10: 17-18 *Don Antonio hor egotou zena eregeac* *preso artou duela esan didate*  
 b. EspGut 11: 7 *Geiago dio ezin Inglateraco ereguiac* *Calis asetatou douela*  
 c. EspGut 17: 13 *eregiac bouruac edequyerazi dituela*

Beste bi adibidetan ere badu artikulua *errege* hitzak (EspGut 1: 3-6 *erege Franciacouac* *eman duiela batailla*, ergatiboan, eta EspGut 16: 11 *Esan dit ezin eregue jaunaren* *magestateary adizera eman diotela*, genitiboan), baina adibide

hauetan artikulua ez du *errege* izenak, sintagma bereko beste osagaiak baizik; konpara bitez 1: 3-6 *erege Franciacouac* eta 14: 10-11 *Espainiaco eregec*.

Azken ohar gisa, bada *ugazaba* eta *errege* hitzetarik kanpo antzeko adibide bat: cf. EspGut 8: 6-7 eta *prinse cardinalec egiteco eman dezon beldour dela*.

- (c) Ezezkako perpausetan subjektuak ergatibo mugagabeen ager zitezkeela ohartarazi zigun Mitxelenak: “El uso que probablemente nos sorprende más en este orden de cosas es el del ergativo indefinido en oración universalmente negativa” (VII 305-306). Axularren adibide bat dakar, eta esaten du errazagoa dela horrelakoak Leizarragarengan aurkitzea. Beharbada ez da hain harrigarria bereziki ezezkako perpausetan irauin izana ergatibo mugagabeak; hona zer dioen Greenbergek (1978: 73):

The genitive and the accusative are the cases in which real contrast between the articulated and non-articulated form occurs, particularly the latter where negative and generic, sometimes incorporated objects, are without the article which occurs in other uses. The subject case is par excellence the case which takes the article.

Greenbergen arabera, artikulurik gabe agertzeko joera dute ezezkako perpausetako objektuek —akusatiboez mintzo da bera—; nire ustez, orokortze hau eta euskal datuak Hopper eta Thompsonen *Trantsitibitatearen Hierarkia* delakoaren barrenean uler daitezke (1980: 252-253): ezezkako perpausak trantsitibitate maila apalagokoak dira, baiezkoen aldean, eta horietan objektuak ez dira egoten aditzak adierazten duen ekintzak hain erasanak (“O not affected” diote beraiek), eta, horrekin bat, objektuak ez dira baiezkoetan bezain indibidualizatuak egoten; horrelako objektuak ez erreferentzialak izan ohi dira, indefinituak, eta, beraz, ez da harrizkoa erresistentzia handiagoa egiten badiote artikulua hartzeari. Objektu funtzioaz ari dira bai Greenberg eta bai Hopper eta Thompson, baina beharbada azalbide orokor horren pean ezar daitezke euskarazko subjektu ergatibo mugagabeak; baliteke perpausa ezezkakoa izateak izenaren erreferentzialtasunean lausotasun bat ezartzea, baita subjektu funtzioan egonda ere.<sup>453</sup> Hona ekarri ditut

<sup>453</sup> Interesgarria da montagnais hizkuntza algonkiarrean gertatzen dena: Cyrrek dioskunez, ezezkako perpausetan, objektu funtzioan diren sintagmak artikulugabeak izan ohi dira; subjektu funtzioan, ordea,

## XVI. mendeko corpusean bildutako adibideak:

- (34) a. RS 302 *Azaga onic, / estau mandazaic.*  
 b. Leiz 1401 *Eztuc eguinen hartan obraric batre, ez hic, ez hire semec, ez hire alabac, ez hire muthillec, ez hire nescatoc, ez hire abrec, ez hire borthez barnetic den estrangerec*  
 c. EspGut 7: 8-9 *ezin mondouan denec ez tou borondate obes obeditouco nola nic egingo baitout*  
 d. Etxep 1: 200 *Apezeq ez apezpicuq ezetare ayta saynduc / Absoluacen halacoaren eceyn bothereric eztu*  
 e. Zalgiz 57 *Eztacussan beguic, ez nigarric.*  
 f. Zalgiz 59 *Eztacussan beguic, / Ez ahalguerric.*  
 g. OihAtsot 153 *Ezakusan begik nigar eztegik.*  
 h. OihAtsot 211 *Harri erabilik eztu biltzen oroldirik.*  
 i. OihAtsot 242 *Hitz eztik mihia zaurtzen eztik.*  
 j. OihAtsot 491 *Begik ez begizta, / ez gogok sarizta.*  
 k. Bela 2 *Assec gosse eztacussa.*

Adibide hauen artean, bereziki aipagarria iruditzen zait espioitzako gutunetako (34c) adibidea: perpaus erlatibo mugagabe bat da.

Sail honetako adibide bete-beteak ez badira ere, agian hemen aipatu behar dira Etxepareren adibide hauek ere: Etxep 10: 5 *Laydoc hartu gabe gueldi guitecen* eta 13: 5 *Bidegabec haritu nu vide eznuyen leqhutic*. Lehenean, *gabe* dago perpausaren, polaritate negatibokoa; bigarrean, polaritate negatiboko osagai hori subjektu funtzioaren parte da, eta ondoko perpausa ezezkakoa da.

- (d) Aurreko puntuko adibide asko atsotizetakoak ziren. Interesgarria da ikustea zer gertatzen den baiezko perpaus diren beste zenbait atsotizetan; atsotiz berean, autorearen arabera, subjektu artikuluduna eta artikulugabea aurki daitezke:

- (35) a. Isasti 32 *Erric bere legue, ycheac bere aztura.*

---

artikulu hartzeko joera dute, eta horren adibideak ematen ditu. Nolanahi ere, ez du ukatzen ezezkako perpausetan subjektuak ere artikulugabe izan daitezkeenik (Cyr 1993: 223-224).

- b. OihAtsot 229 *Herrik bere lege, etxek bere aztura.*
- c. OihAtsot 431 *Zeinek bere itxura, herrik bere aztura.*
- d. Bela A17 *Herric béré légué / etchéc béré aztura.*
- e. Zalgiz 189 *Herric bere legue, etchec bere aztura.*

Interesgarria da Isastiren adibidea: atsotitz berean, lehen subjektua artikulugabea dakar, bigarrena artikuluduna, arrazoi agerikorik gabe. Hurrengo bi adibideetan, Oihenart da aldaera artikuluduna dakarrena:

- (36) a. Zalgiz 51 *Ourde gossec ezcur amets.*
- b. OihAtsot 456 *Urde goseak, ezcur amets.*
- (37) a. Zalgiz 69 *Çaldi madaricatuc biloa le[un].*
- b. OihAtsot 423 *Zaldi maradikatuak biloa leun.*
- c. Bela 12 *Çaldi maradicatuc bilhoa lein.*

Beharbada ez da kasualitatea baiezko perpaus diren atsotitzetan aldaera artikuludunak izatea, eta ez izatea halako aldaerarik ezezkakoetan (34). Aipagarria izan daiteke, halaber, Oihenarten 50 *Aseak batzutan dakarke gosea* atsotitza, (34k)-ko Belaren 2 *Assec gosse eztakussa*-ren ordaintzat hartzen badugu: Oihenartena Belaren atsotitzaren baiezko bertsioa da, eta horrek du, hain zuzen, subjektu artikuluduna; irudika zitekeen *Asek dakarke gose* moduko bertsio bat, baina *aseak*-duna dakar Oihenartek.

- (e) Aurreko adibideetako zenbaitetan, esan daiteke balio generikoa dutela subjektuan diren sintagmek: nabarmena da hori (36) eta (37)-koetan, nire ustez. (35)-koetan, berriz, badirudi balio banakaria hartzen dutela subjektu funtzioko sintagma artikulugabeek. Badira adibide gehiago, ildo bertsutik interpreta daitezkeenak:

- (38) a. Zalgiz 112 *Saphar vndoc, behar undo.*
- b. OihAtsot 404 *Saparrondok, beharrondo.*
- c. RS 335 *Laruc bat vste, / tresnaçen dauenac beste.*
- d. RS 476 *Çanbidec onbide.*
- e. Garibai B48 *Gox gorric euri daidi, Arras gorric eguzqui*



Adibide hauetan, (38c)-koan egiten zait zailena interpretazio generikoa, beharbada perpaus erlatibo bat kontrajartzen zaiolako *laruc-i*, *tresnaçen dauenac*, eta horrek eragiten duelako sintagmaren erreferentea testuinguruan bertan bilatzea. Atsotizetatik kanpo, Lazarragaren adibideetan ere antzeko interpretazioa eman dakieke sintagma artikulugabeei:

- (39) a. Lazarg B5: 25 *Martingalaco primeaen barri / çuc niri itaunqueta / utra da nescac eguiteco / pregunta losabaguea*.  
 b. Lazarg B5: 33 *Ay, arren, bada, gal daquiçula / ortu artaco frutea, / ilinti gachec poda deçala / an jaiaiten dan borrea*.

Bi adibide artikulugabe horiek aurkitu ditut Lazarragaren testuan, eta argi xamar dago horietan ere interpretazioa ez dela erreferentziala.<sup>454</sup>

- (f) Aurki daitezke *bat* artikulua indefinitua duten sintagmak subjektu funtzioan, beti ere gogoan hartuta *-a* artikuludunak gehiago direla. Eskuarki, erreferentziala izan ohi da *bat* duten sintagmen balioa, indefinitu espezifikoa, predikatuen atalean esandakoaren antzera (6.2.3.2, 6.2.3.3). Horretaz gain, badirudi erreferente berriak aurkeztea dela sintagma hauen funtzio diskurtsiboa —gogoan har bedi Heineren gramatikalizazio bidea, 3.2.5.2.1 atala—; horrela sailka daitezke adibide hauek:<sup>455</sup>

- (40) a. Lazarg AL: 1147r *cegaiti ençun dogu ece Silvero derechan arçai batec dabela lucha andiac armatu comarcaetaco arçai guztiaquin*  
 b. Lazarg AL: 1151r *Jren conpañian dagoan doncella batec*  
 c. Lazarg A6: 47 *Eusquel Erriau oy nola eben / erregue batec pobladu / gente noblez da languageaz, / ceñac eusten aguindu*

<sup>454</sup> Ohar bedi *nescac* plurala ere izan litekeela (38a)-ko adibidean. Cf. Lazarg AL: 1154v *doncellac*, ergatibo plurala, bokalak erabat asimilatuta; bokalak asimilatu gabe, cf. Lazarg A21: 11 *ayta-amaac*.

<sup>455</sup> Ez dago argi nola interpretatu behar den Lazarragaren adibide hau: Lazarg B4: 3 *Co]npli al baneça daquidan leguez / euroen arteco apetitua, / batec emun leçaquet abitoa*. Zenbatzaile gisa ere interpreta liteke *batec*. Zenbatzaile garbiarekin, cf. Isasti 13 *Batec milla valio, eta millac bat ere ez*, ErrodZar 23 *bela vic sar naxaitec Billa Realgo torrean*, Lazarg B16: 90 *asi ninçacan contaetan / nola ninduen penaetan / gauça bic biocerean*, Zalgiz 43 *Ehun çaldic ehun cela behar du*, OihAtsot 127 *Ehun çaldic ehun çaltoki behar*, etab.

- d. Lazarg A10: 23 gauçaxe batec oyta nauco / andiro enojaduric; / doncellachoac, esan bear dot
- e. Lazarg A10: 73 çuen arteco doncella batec / nauco enterraduric; / aen icena letra onetan / oy dago relataduric
- f. Lazarg A12: 3 etorriçquero doncella batec / amarez ey dau bencidu. / Doncelleorri on derecho, / doncelleorrec ez ari
- g. Lazarg A21: 3 donzella batec edegui cidan / oy neure bioz coyta dua. / Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua
- h. Lazarg A25: 40 Guiçon batec or daroa inocentea besoetan; [...] Bere beguiac eraçala negarretan, / guiçon onau baegoan cer leiquean pensaetan
- i. Lazarg B31: 5 Icaz laztan ninduan donzella batec / aurten nai ez equi; / laster canbiatu ninduan / deseo ebenagayti
- j. EspGut 1: 3-6 hamenz niri particularci adiscide batec egori deraut erege Franciacouac eman duiela batailla / duce de Umenaren eta espainolen / countre,
- k. EspGut 17: 11 Bay azo esan dit nere copay ingles batec don Antonio, hor Ondarabian egondou zen ingles baty, eta bestery ere ascory eregiac bouruac edequyerazi dituela
- l. Etxep 5: 1 Andre eder gentil batec vihoça deraut ebaxi / Harçaz orhit nadinian deusere ecin yrexì

Badira ere bai balio erreferentzial espezifikoa dutenak, testuan geroago aipatuko den erreferente berririk aurkezten ez badute ere:

- (41) a. Lazarg B21: 87 Ari beguira nengoala / ondo disimuladuric, / icerdi batec artu ninduan, / penadu ninduan biciric;
- b. Lazarg B33: 15 donzella batec joci ceban / Iruneco calean,
- c. Lazarg B2: 1 Erdeeraazco ipui batec / «La bieja escarmentada» berba[ / lebela «regaçada pasó el río».

Baina badira, halaber, *bat* duten sintagmak balio ez erreferentzialarekin; ondoko hauek horren adibide izan daitezke:

- (42) a. Lazarg A26: 1 Oy guiçon batec / Erregue baleu enojadu
- b. Lazarg B3: 13-15 Bada, sei batec arçaiten badau / cantu simple batez ayibat

*descansu, / cerren ez gazteac baldin badançu?*

c. Lazarg B16: 151 *Galdu balegui guiçon batec / beguietaco bistea, / guero medicu andi batec*

d. Leiz 1425 *Christino batec iaqviteco dituen pvnctv principalén definitioneac eta descriptioneac*

e. OihAtsot 179 *Ganibet berbatek debaka ogia eta erhia.*

Hauen artean, interesgarria da bereziki (42b)-ko adibidea: balio generiko ez erreferentziala duen *sei batec* sintagmari balio berekotzat jo daitekeen *gazteac*-i kontrajartzen zaio; *-a* artikulua definitua du, ordea, bigarren sintagma honek. Baliteke *sei batec* sintagmak aingura diskurtsibo moduko bat ezarri izana eta horregatik izatea *gazteac* sintagmak *-a* artikulua. Bi sintagmak berdintsuak dira erreferentzialtasun mailari edo definitutasun estatusari dagokionez, baina pentsa daiteke estatus diskurtsibo ezberdinak dituztela.

(g) Interesgarria da ikustea badirela subjektuak *bat* artikuluekin baina *-a* artikulua definitua ere badutenak, *batak*. Adibide hauetan denetan, *beste*-ri kontrajartzen zaio *bat* hori.

(43) a. Leiz 1402 *Haur da ene manamendua, batac bercea maite duçuen, nic maite vkan çaituztedan beçala*

b. Etxep 1: 139 *Mundu honetan vadirogu batac bercia engana*

c. Zalgiz 130 *Garcia, / Gaixto batac diaçaguc bercia.*

d. OihAtsot 157 *Esku batak dikhuzke bertzea, biek begitartea.*

e. OihAtsot 182 *Garzea, gaxto batac diezaguk bertzea.*

f. OihAtsot 548 *Azti bi jin dira gure okolura; batak du izen zohegi, bertzeak aztura*

g. Bela 26 *Garcia, Garcia. Gaixto batac diaçaguc bercia*

Lazarragak ere baditu *batac*-en adibideak:

(44) a. Lazarg AL: 1147v *Sus, bada, esan eben arçai batac*

b. Lazarg AL: 1147v *Orrela dan azquero, esan eben arçay batac [...]*

Adibide hauetan, *beste* ez dago agerian, baina testuinguruaren barrenean ongi uler daiteke *batac* agertzea, bi baitira kontakizuneko artzainak; honela hasten da

pasarte hori: 1147r *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz.*

Artikulu indefinitua duten sintagmak, beraz, *-a* artikulu definitua hartzen du. Paralelo moduan, tesi honetako gaitik apur bat aldentuta, aipagarria da inguruko zenbait hizkuntzetako datu bat: zenbatzaitetik eratorritako pluraleko artikulurik izan gabe ere, hain zuzen ere halako bikoteekin hartzen dute morfologia plurala artikulu indefinituek, cf. frantsesezko *les uns et les autres*, adibidez.<sup>456</sup> Ikus 7.4.3.2 atala.

- (h) Subjektu posizioan, eta *bestek*-i aurkajarrita, bada artikulurik gabeko *batek*-en adibiderik ere: cf. RS 418 *Aunça ygarota oñaça aguri, / batec daguiana bestec yguini.* (42)-ko ez erreferentzialekin erka daitezke horrelako adibideak. Eta badira adibideak *bestek* ez zaiona *bat*-i kontrajartzen, *ni* edo *hi* izenordainei baizik:

- (45) a. RS 13 *Badeguioc yñori, / eyngo deusc bestec yri.*  
 b. Etxep 2: 1 *Bercec berceric gogoan eta nic andredona maria*  
 c. Etxep 4: 18 *Nic nahyen dudanian bercec bessoan daraça.*  
 d. OihAtsot 234 *Hihaurk lan egin-ahala, berzek degiten eztutzala.*  
 e. OihAtsot 482 *Xoriak, nik ohil bertzek hil.*

*Bestek* artikulugabearen adibideekin bukatzeko, badira *bestek* soila dutenak, ezeri kontrajarri gabeak, betiere balio ez erreferentzialarekin.

- (46) a. RS Garibai A22 *Vestec eç leguez Pieruc surra*  
 b. Lazarg A16: 61 *Secula bestec oy eztaguian / artu atrevimenturic,*  
 c. Lazarg B30: 21-22 *Ene laztan biozeqoa, / cortes ensinadea, / erri onetan bestec ezteu / ar[c] oy deben librea:*

- (i) Azkenik, bi adibide aurkitu ditut nire corpusean, subjektu posizioan *batzu* artikulu indefinitu pluralarekin: Leiz 1436 *Batzuc eratchequitzen duté, mortal* eta EspGut 14: 1 *Jauna: parte oretaco adisquideren bazeuec gastigatou didage.* Hauetan, balio erreferentziala dute sintagmek.

<sup>456</sup> Gogoan har bedi Beriainek pluraleko *batak* dakarrela *berze*-ri kontrajarrita, ez *batzuk*: BerMez 28v *minçacen garadela batac bercearequi* eta 30v *eta ez minçacen batac vercequi.*

Subjektu funtzioan, badira determinazioari dagozkion gorabehera interesgarri gehiago; cf. besteak beste Lazarragaren *ceñac* eta *ceinçuc* (Mounole 2014: 5.6 atala). Determinazioaren esparru berezkoetik apur bat aldentuta, ergatiborik gabeko subjektuen adibideak bil daitezke:

- (47) a. RS 89 *Osaylgo euria*, / *erayten dituz onçoeriac*.  
 b. Garibai A45 *Tresnea jabea dirudi*  
 c. Andram 1 *Jaunoc aguyn[su] ta Obeylos ta ycartuco Ulertu*  
 d. Andram 2 *Eneco Pagoetantayco da Uacheguyn ta baesoan bere naguçiar legues Ochoa Onsaluch*  
 e. EspGut 19: 10-11 *Inglateraco armada marchuaren ondareco bella eginen omen du*,  
 f. Zalgiz 196 *Eliça eguin çuiana, aldaria*.  
 g. Zalgiz 47 *Gueroac bego: guerora nehorc / utciten duiana, seculacotz vtciten d[u]*

Ez dirudi arrazoi jakinik aurki daitekeenik ergatibo faltarako. Zalgizeren bi adibideak kide-kidekoak dira, eta baliteke atsotitz izateak eragina izatea; baina cf. Zalgizeren beraren 6 *Hortcic eztuanac jztarri* eta 97 *Ditcha duianac Albera, / Eztuianac beguira / edo / Ditcha duianac abere / Eztuianac ez batere*.(47f)-koaren paralelo moduan, cf. Isastiren 30 *Eliza ceguienac aldarea, aldarea ceguienac abadea*. Bizkaierazko *Refranes y Sentencias* testuko adibidean aipagarria da errima egokiago egingo zela *-k* markarekin. Garibairen kasuan, ez dakit zenbateraino den esanguratsua *irudi* aditzaren agentibotasun apala, eta cf. beste ediziooko Garibai B19 *Tresne-ac jabea dirudi*.

#### 6.2.4.2 *Perpaus irangaitzetako subjektuak*

Beste taula bat osatu dut nire corpuseko XVI. mendeko perpaus irangaitzeko subjektu guztiekin (VI.8. eranskina). Hauetan ere nagusi dira, alde handiarekin, artikulua duten adibideak, eta garbia da zeregina: *-a* edo *-ak* artikulua ez dituzten subjektuak analizatzea. Kasu honetan, artikulurik ez duten adibideak mugagabe izan daitezke, edo *bat* indefinitua ere izan dezakete, iragankorretako perpausetan bezala, baina badira partitiboan daudenak ere.

Atal honetan ere, multzotan bildu ditut adibideak. Horietako hainbat ez dira erabat esanguratsuak eztabaidarako, arrazoi ezberdinengatik; horiekin hasi naiz, eta (53) adibidean hasten da nire ustez esanguratsuen den eztabaida. Lehen multzoan, egituragatik edo errima beharragatik, atsotitz izateak berak baldintzatzen du artikulua erabiltzea. Hauek dira atsotitz egitura tipikoko adibideak; azpimarratuta eman ditut subjektutzat jo litezkeen sintagmak:

- (48) a. RS 64 *Luqui cume, azeri*.  
 b. RS 537 *Ogui ta lasto esheraco*.  
 c. Zalgiz 150 *Nesca senhar ederçale*, / *Soinaz egur ek'arle*.  
 d. Zalgiz 184 *Atc'erri*, / *ots'erri*.  
 e. OihAtsot 49 *Atzerri, otserri*.  
 f. OihAtsot 200 *Goiz orzadar, arrats iturri*.  
 g. OihAtsot 250 *Hor gose, loz ase*.  
 h. OihAtsot 291 *Lagun elhatari, bideko zamari*.  
 i. OihAtsot 298 *Lasto-su, laster-su*.  
 j. OihAtsot 358 *Oilo ebildari, axeriaren janhari*.  
 k. OihAtsot 501 *Erkida berho, xoriendako*.  
 l. OihAtsot 526 *Lankide, gaitzkide*.

(48)-ko hauetan bi sintagma berdintzen dira, koma batez banaturik. Antzekoak iruditu zaizkit, nahiz eta egitura sintaktiko handiagokoak izan, adibide hauek:

- (49) a. OihAtsot 15 *Aita bilzaleari, seme barreiari*.  
 b. OihAtsot 154 *Eskerdunari, mukurru izari*.  
 c. OihAtsot 325 *Nahikide ezta adiskide*.  
 d. OihAtsot 639 *Latsari onari, eztakidio falta latsarri*.

Adibide hauetan, (48)-ko batzuetan bezala, aintzat hartzekoa izan daiteke errima beharra. (49a, b, d) adibideetan nor-nori perpausak dira, eta baliteke kontuan hartzekoa izatea subjektuaren agentibotasun apala. (49c)-n, berriz, ezezkako perpausa dugu, eta gogoan hartzekoa izan daiteke aurreko atalean (34)-ko adibideez esandakoa; cf., hala ere, (48l)-ko adibidea. Errimaren argudiotik harago, ez dut garbi ikusten zergatik

agertzen den *Erretate* artikulurik gabe atsotitz honetan: OihAtsot 187 *Gauza sorta da Erretate*, / *hura gaberik eninzate*; izen berezi gisa jokutzen ote du? Ohartzekoa da letra larriz agertzea. Bestalde, Oihenarten 109 *Koseilu kaparpeko*, / *ager daite azkeneko* adibideari dagokionez, cf. Belaren 14 *Conseillua sappharpeco*, *guero ere aguerrizco*.

Interesgarria da mendebalde-erdialdeko adibidez osaturiko beste multzo bat:

- (50) a. RS 27 *Aceriac buztana jauso eçin / ta vay gabia; / andi danarren yndarra / nagusi jaquiteria*.
- b. RS 123 *Hao ysian eztoa sartu eullia, / ta aldi guztietan ezta eder eguia*.
- c. RS 14 *Eguia laz ta labio*.
- d. RS 291 *Eguia ergarria*.
- e. RS 518 *Eguia da laz ta garraz, / ta mergaz*.
- f. Garibai A7 *Guinda gozo dala min da*
- g. Garibai B41 *Guinda goço dala, min da*
- h. ErrodZar 7 *lau milla bere baleduque premia letorreanean*,
- i. Lazarg B8: 5 *On da pacencia / sufri[du] valez*.
- j. Lazarg B26: 4 *ene aldeco lagunoni / elçaen çaco flauecia*;
- k. Lazarg B26: 8 *bosteun ducat costa jacan / baroeoni balentia*,
- l. Miser 73 *Biz gloria Aitearekin semearentzat*,
- m. Miser 74 *Biz gloria espiritu santuarentzat*,
- n. Miser 76 *sekula gustian gloria izan bidi. Amen*.

Hauen guztien eztabaidarako, nabarmen geratzen da hiztegi-tako sarreren azterketaren garrantzia (6.1.2 atala): itxuraz artikulugabe diren sintagma hauetan, *-ia* edo *-a* amaiera dute izenek, eta mailegu nabarmenak dira gehienak (*egia* da salbuespena). Beraz, ezin da ondorioztatu artikulurik gabeko subjektuak ditugunik hemen; *-a* amaiera soila duten Garibairen adibideetan (ez *-ia*), gainera, errimaren argudioa ekar liteke berriz, eta gogoan hartzekoa da IbarzCHiz-ek *guinda* dakarrela, ez *guindea* (ikus 6.1.2 (b) atala). Eremu dialektal ezberdinekoak izanik ere, aipagarriak izan daitezke nire corpuseko beste bi adibide, Leizarragarenak: 1421 *Hala da eguiá* eta 1423 *Hala da eguia*. Nire ustez, bietan dago artikulua: lehenean tiletarekin agertzeak errazten du bigarren adibidea ere artikuluduntzat jotzea.

Beste multzo jakin bat aipatu dut perpaus iragankorretako subjektuen atalean (6.2.4.1 (b)); erreferente bakarrekoak dira subjektu hauetako sintagmetan dauden izenak, eta izen berezi gisa trata daitezke. Hauek jaso ditut perpaus iragangaitzetan:

- (51) a. Garibai A30 *Essanoc oy dira eçe Erregue vere oguiz ase çetoa*  
 b. Garibai B44 *Esanac oy dira ce erregue vere oguiz ase ez toa*  
 c. RS 111 *Alaba vmaguinari / ama estalgui.*  
 d. Lazarg AL: 1144r *ece Silveroen ugacaba eta agaz eocen guztiaç citecen espantadu*  
 e. EspGut 1: 5-7 *erege cauri dela*  
 f. EspGut 5: 11 *eta Amianscoa egin den bezain laster erege ara digoala*  
 g. EspGut 7: 2 *Jauna: jouanden egoun oyetan berri bat etorry zen ezin goure eregue il zela*

Adibide hauetan gehienetan, *erege* da subjektuko izena; izen honekin, gainera, alderdi bateko eta besteko adibideak ditugu, Garibairenak eta espioitzako gutunetakoak. Interesgarria da ikustea genitiboko izenlagun batekin agertuta ere (51g) forma artikulugabeari eutsi zaiola; orobat gertatzen da (51d)-n, *ugazaba* izenarekin. (51c) adibidean *ama* izena dago subjektu, artikulurik gabe; nire ustez, erreferente bakarrekotzat jo daiteke atsotitz hortako ama, aurretik aipatu den alabarena baizik ezin baita izan; horri kontrajarrita, cf. RS 35 *Celangoa baysta amea / alangoa oy da alabea*, non argudia daitekeen edozein ama dela sintagma horren erreferentea. Hauetaz bestelakoa izanik ere, izen berezien artean sailkatu behar da ErrodZar 14 *Errodrigo Çarateco saldi urdinaen ganean* (ikus 6.2.4.1 (a) atala). Badirudi izen berezi moduan dagoela tratatua *unikornio* izena ere Lazarragaren A16: 81 *Unicornio, animal fortiz / animal oen artean* adibidean, eta ez da ahaztu behar izen mailegatua dela.

Beste bi adibide mota aipatu nahi nituzke, artikulurik gabeko subjektuen adibide “arruntagoekin” hasi baino lehen. Batetik, koordinaturiko izenez osaturiko sintagmak ditugu:

- (52) a. RS 11 *Barazea ta vsategui, / auerasgarri.*  
 b. RS 267 *Eztia ta ozpin, goço ta on eguin.*  
 c. Lazarg B3: 38 *Bajoacen, bada, gau illun baten, / aytea ta seme, biac batera, / aytearen bioça coplacera.*



Adibide hauetan, ez dakit zein den arrazoia artikulurik gabe ager dadin koordinaturiko sintagmaren bigarren izena. Eztabaidarako, ohartzekoa izan daiteke ez direla subjektu oso-osoak, uler baitaitezke aposizio moduan ere.<sup>457</sup> Ohartzekoa izan daiteke, halaber, badagoela hurbiltasun semantiko moduko bat koordinatuta dauden bi izenen artean; hurbiltasun hori gabe, eta (ondorioz?) bi izenak artikularekin, cf. agian RS 274 *Nesquea ta esquea, nequea ta caltea*. Ez dut bestelako bereizgarririk ikusten adibide hauetan, artikularen gorabeherak azaldu ditzakeenik.

Bestetik, bi adibide aipagarri aurkitu ditut, subjektuan izen + izenondo sintagma dutenak; sintagma horiek artikulugabeak dira, eta, bitxiki, *gorri* da bietan izenondoa. Ohar bedi bizkaierazkoa dela bata eta zubererazkoa bestea.

- (52) a. RS 322 *Obe da aurpegui gorri*<sup>458</sup> / *ce ez bioza balzqui*.  
 b. Zalgiz 98 *Cherri gorri haurren*, / *Haraguia jaunen*.

Hauetan ere ez dut ikusten irizpide garbirik, erabakitze zerk eragin duen artikulugabeak izatea sintagmak; biak *gorri* izenondoarekin agertzen direlako iruditu zait adierazgarria batera biltzea. Ohartu beharra dago sintagma artikuludun bana kontrajartzen zaizkiela artikulurik gabeko sintagma horiei, *bioza* eta *haraguia*. Ohartu daiteke, halaber, Zalgizeren *cherri gorri* ez dela subjektu bete-bete baten adibidea. Antzekoa gertatzen da Errodrigo Zaratekoaren eresiko 18 *ona chipi, orpo laster, Abendanochea* adibidean: ErrodZar-eko adibide honetan, badirudi *ona* objektutzat har daitekeela, eta *chipi* predikatutzat, predikatu bikoitzeko egitura batean, (*Abendanocheac*) *ona chipi (du)*; *orpo laster*-i dagokionez, badirudi antzeko egitura bateko artikulurik gabeko objektua izan daitekeela *orpo, laster* predikatuarekin, baina agian ez da baztertzekoa *orpo laster* sintagma bakarra izatea, *aurpegui gorri* eta *cherri gorri*-ren antzera.

Aurreko multzoetan sailka ez daitezkeenak (53-55) adibideetan eman ditut:

<sup>457</sup> Bada egitura honen beste adibiderik: cf. *Bertso bizkaitarrak* 11d: *arcabuza ta mosquete* (Lakarra 1984); adibide honetan objektu funtzioan agertzen da sintagma.

<sup>458</sup> Beste aukera bat izan zitekeen *gorri* predikatu gisa hartzea, predikatu bikoitzeko egitura batean: *hobe da aurpegia gorri (edukitzea)*. Zalgizeren adibidearengatik sailkatu dut hemen, nahiz eta izenondo predikatuen 63. taulan ere gehitu dudana (VI.4 eranskina).

- (53) OihAtsot 633 *Inhar batetarik su handi jalgi daite.*
- (54) a. Lazarg A19: 51 *Legue baliz escaetan / guiçonari lancetea,*  
 b. Etxep 10: 53 *Ieyncoaz orhiceco ordu luqueçu*  
 c. OihAtsot 16 *Alaba ezkont ezak nahi denean; semea, ordu denean.*
- (55) a. Zalgiz 106 *Diru bano hobe dihulata.*  
 b. Zalgiz 107 *Cinçarri mihi gabe holcean / higa.*  
 c. Zalgiz 201 *Çamari hilari guibeleti olo.*
- (56) Lazarg B15: 33 *Esan badaguie eztaocela / aleguere baxe secula triste, / nic diot egun dala aratixte.*
- (57) OihAtsot 266 *Jentainen oihana hurren, / bana behar karreiari egurren*

Zinez aipagarria iruditzen zait (53)-ko adibidea: subjektu garbia da, izen + izenondo sintagma batez osatua; aipagarria iruditzen zait, hain zuzen ere *handi* delako izenondoa, izen + izenondo predikatueta ikusi dugun bezala (6.2.3.3). Adibide honetan ere, pentsa liteke mailakatzaille moduan ageri dela izenondoa. Are esanguratsua goa iruditzen zait adibidea, ohartuta badela Leizarragarengan ere kideko adibiderik: tesi honetarako erabilitako corpusetik kanpo, cf. Mat IV: 25 *Eta gendetze handi iarrei qui cequión Galileatic*. Adibide hauek guztiz dira garrantzitsuak: garbi erakusten dute perpaus iragangaitzetako subjektu funtzioan ere badirela sintagma mugagabeak.

(54)-ko adibideak ere interesgarriak dira, baina kasu honetan, badirudi esapide aski ihartuekin ari garela: *lege izan* (54a) eta *ordu izan* (54b, c); gogoan har bedi Bourciezen bilduman behin eta berriz biltzen dela *ordu da* esapidea (Aurrekoetxea eta Bidegain 2004). Zalgizeren adibideak bildu ditut (55)-en: (55a, c) adibideetan, izen zenbakaitzak ditugu subjektuetan: *diru* eta *olo*; badago *dihulata* ere (55a)-n, baina ez naiz gai erabakitzekeo artikuluduna den ala ez. Ohar bedi (49a, b, d)-ko atsotitzekin konpara daitekeela (55c), nor-nori perpaus bat baita, ezer izatekotan. Bestelakoa da (55b) adibidea, *cinçarri mihi gabe* baita subjektuko sintagma, eta hor ez dago izen zenbakaitzik; baina ohargarria da, beharbada, polaritate negatiboko *gabe* osagaia agertzea bertan.

Lazarragaren adibidean (56), izen berezi moduan esplika daiteke *aratixte*,

beharbada, ospakizun edo egun jakin bati erreferentzia egiten baitio, *egun da San Juan* esaten ariko balitz bezala. Azkenik, Oihenarten (57) adibidean, ohartu behar da ez dela beharbada subjektu bete-betea, perpaus inpersonal bateko objektu gisa har baitaiteke, eta, hortaz, objektu funtzioko sintagmen eztabaidarako adibidea litzateke.<sup>459</sup>

Adibide multzo bakoitzak izan litzakeen arazoak gorabehera, nire ustez, garbi geratzen da, (53)-ko adibidearen iruzkinean esan bezala, badaudela perpaus iragangaitzetan ere subjektu mugagabeak. Hori da atal honetako ekarpen nagusia, nire irudiko.

Subjektu mugagabe interesgarri hauetaz gain, badira partitiboarekin eta *bat* artikulua indefinituarekin agertzen direnak. Oso irizpide zehatzaren arabera ezartzen zaio partitiboa perpaus iragangaitzeko subjektuko sintagmari: ezezkako perpausak, baldintzazkoak edo zehar galderak izan ohi dira. Taula batean bildu ditut partitibodun subjektu horiek guztiak:

---

<sup>459</sup> Aipa daiteke Amenduxen beste adibide bat ere: 13 *Çarrayzquidate guci bertan yçoc ongi notaturic*. Baina adibideak arazoak ditu, eta *gucioc* edo *guciac* zuzendu ohi da.

Testua	Adibidea
<b>Ezezkako perpausak</b>	
Lazarg A	A11: 10 <i>Mundua mundu formaduzquero, / oy ez da jaio <u>semeric</u></i> A14: 16 <i>çu serbiceco ez jat faltaco / secula <u>borondateric</u>.</i> A14: 98 <i>oyta irago ce bequiqueo / bisitaçaca <u>asteric</u>,</i> A14: 110 <i>cerren bestela oyta ez jaçu / probechaduco <u>gauçaric</u>.</i> A16: 12 <i>cegaiti ene escuan ez zan / <u>eguiten beste gauçaric</u>.</i> A23: 16 <i>çu pagaceco faltaco dala / nigan <u>entendimenturic</u></i> A28: 8 <i>Ez da gueratu / barruan <u>ese galantic</u>;</i> A28: 14 <i>apain ce bedi / oyta <u>doncella galantic</u>.</i> A28: 20 <i>Nafarroaric / jasi ce bidi <u>gararric</u>.</i> A28: 110 <i>enparaçaca / <u>ese bat baice besteric</u>.</i>
Lazarg B	B15: 83 <i>Arençat eperra, bardin al bada; / ez <u>gorri tantaric</u>, baice çuria; / <u>aumaric badogu</u>, ez açuria.</i>
Isasti	68 <i>Olatic <u>berri onic</u> ez.</i>
EspGut	5: 10 <i>gouardac jari direla barnerat <u>deusic</u> sar ez tadin</i> 10: 14-15 <i>nolas es ten <u>berry segouroric</u> agery, es ta <u>Amianscoric ere deusic</u> agery</i> 15: 11-12 <i>Conestable jauna eta marechal Biron Picardian daudes <u>deusic</u> han higuy es tadin amoreagatic</i> 16: 13-14 <i>Presentean ez ta <u>besteric</u> ofrezizen dino <u>denic</u> zure senoriary gastigazeco</i> 19: 16 <i>Presentean <u>berzeric</u> ofrezizen ez ta eta alacos fin emanen diot</i>
Etxep	Etxep 13: 90 <i>Eta hartan eztaquidic <u>escusaric</u> valia</i> Etxep 14: 35-38 <i>Eceyn ere <u>lengoageric</u> / <u>Ez francesa ez berceric</u> / Oray ezta erideyten / <u>Heuscararen pareric</u>.</i>
Bela	Bela A18 <i>Eztéguidála hounguiric <u>gaytzic</u> jin eztaguíá.</i>
<b>Baldintzako perpausak</b>	
Lazarg A	A28: 68 <i>ara balloa <u>g[u]liçonic</u>,</i>
Lazarg B	B21: 102 <i>Enparaetan bardin bajaçu / <u>beste çaguita çorroçic</u>,</i>
EspGut	8: 1-2 <i><u>Ocasioric</u> presentatu balis zure senoriari <u>parte egin bear zenic</u></i>
<b>Zehar galderak</b>	
Lazarg A	A11: 12 <i>ene ostein <u>nor</u> içan dan / au baño <u>guiçon firmeric</u>.</i>

21. taula. Perpaus iragangaitzetako subjektuak, partitiboarekin.<sup>460</sup>

Subjektu funtzioaz ari garenean, hortaz, bereizketa nabarmen bat egin daiteke perpaus iragangaitzetakoen eta iragankorretakoen artean: ezezkako perpausetan, sintagma mugagabeak ditugu maiz iragankorretan; partitibodunak izan ohi dira, ordea, iragangaitzetan. Ohar bedi, bistan da, ez dagoela partitiborik perpaus iragankorretako subjektuetan. Azken ohar bat egin daiteke, bide honetatik: sintagmen determinazioari

<sup>460</sup> Ez ditut bereizi perpaus inbertsonaletako adibideak perpaus iragangaitz bete-beteetatik; ez dirudi emaitza aldatzen denik.

dagokionez, hurbilago dago iragangaitzetako subjektuetako sintagmen determinazioa objektuenarenetik,<sup>461</sup> iragankorretako subjektuenarenetik baino. Hizkuntzaren izaera ergatiboaren berri ematen du datu honek.

Subjektu iragangaitzen atal honetan, *bat/batzu* artikulua indefinitua dutenek osatzen dute azken multzo aipagarria. Ikusi ahal izan dudaren arabera, ez dago deus aipagarrikerik nabarmentzeko hauen artean. Nire interpretazioen arabera, honela deskriba daiteke sintagma horien guztien balio erreferentzial eta diskurtsiboa: balio erreferentzial garbia dute ia adibide guztietan, indefinitu espezifikoa, eta horietako batzuk erreferente berriak aurkeztu ohi dituzte testuan. Taula bakarrean eman ditut *bat* duten perpaus iragangaitzetako subjektuak: *bat* zenbatzailetzat jo litekeen adibideak, lehenik, eta artikulua indefinitu garbitzat jo litekeen adibideak, ondotik. Bigarren multzo honetan, denek balio erreferentzial bertsua izanik, bereizi egin ditut testuan erreferente berri bat aurkezten dutenak, begiratuta erreferente hori testuan gehiagotan agertzen ote den.

Testua	Adibidea
<i>bat</i> zenbatzaile	
RS	223 <i>Ardi bat doean lecuti oro.</i>
frJZum	16-17 <i>pare bat casulla eta frontal bi doaz orayn.</i>
Lazarg AL	1143v <i>Esperanceau galdu jat, / guztiz ez arren, parte bat;</i>
Lazarg A	A28: 110 <i>enparaçaca / ese bat baice beneric.</i>
Lazarg B	B3: 18 <i>Esan badaguiçu, ezta faltaco / (neurc jaquin ez arren, badogu diru) / juglare pare bat nogaz conplidu.</i> B21: 96 <i>Bertati boz bat adi neçan / ceruco odehy artaric: / servi neçala donzella ura / ordu bat faltaçacanic.</i> B21: 112 <i>Au esan eta Amorioac, / agana beguiraturic, // bere arcua armatu eben / amen bat berançacanic.</i>
Isasti	75 <i>Otsoaren aotic bocadu bat (ere) on.</i>
Etxep	8 <i>miraz nago iauna nola batere ezten assayatu</i>
Oih	OihAtsot 70 <i>Bat ehunen, ehun ez baten.</i> OihAtsot 356 <i>Oilar bat aski da oilo hamar baten, / hamar gizon ez emazte baten.</i> OihAtsot 391 <i>Otsoaren ahotik ixtar bat ere on.</i> OihAtsot 522 <i>Hobe da adiskide hon bat / ezen ez ahaide ehun bat.</i> OihAtsot 632 <i>Inhardetsi on bat erran gaxto bati, guti da gosta anhitz balio duenagati.</i>

<sup>461</sup> Tesi honetan ez ditut aztertu perpaus iragankorretako objektuak, baina adibideak bilduta agerikoa da badirela objektu partitibodunak ezezkako perpausetan, euskara modernoan bezalaxe.

Erreferente berri bat aurkezten duten <i>bat</i> sintagmak	
Lazarg AL	AL: 1153r <i>aditu even cantaetaz etorrela odeietati <u>figura eder bat</u>, ceña</i> AL: 1154v <i>ençun even aen alderuç cantaetaz etocela <u>guiçon baçu</u>, ceñac</i>
Lazarg A	A12: 1 <i>Gaztelatica <u>jentil onbre bat</u> / orayn etorri ey jacu;</i> A25: 48 <i>Chacurcho bat an eldu çan uraldeti eyzquetan.</i>
Lazarg B	B3: 22 <i><u>Guiçon bat ebilen</u> utra galduric / donzella eder baten servietan, / ceyñac amorez eben penaetan.</i> B15: 76 <i>Orain dator <u>fraile malmaz arro bat</u>, / achaquiz arturica bisitea, / oñagaz dacarrela aguintea.</i> B21: 62 <i>Silla onetan baegoan / <u>sei eder bat</u> jarriric;</i> B21: 72 <i>Forma onetan nic neducala / cençunau elebaduric, / ene aldeti igaro cidin / <u>dama bat</u> enriçaduric</i>
EspGut	5: 3 <i>Parte ounetaco patacha <u>bazu</u> etorry dire Erochelatic</i> 11: 2 <i>etorri da <u>gizon bat nere</u> semearequy minzazera</i> EspGut 14: 8 <i>Patacha bat Bordeltic etorri da jouanden egoun ogetan</i> EspGut 20: 13 <i>Arochelatic <u>gizon bat</u> etorry omen da</i>
Erreferente indefinitu espezifikoa duten sintagma soilak	
RS	88 <i>Olaso, <u>guichi bazuc</u> y laso.</i>
Lazarg B	B12: 24 <i>supitamente baequion / <u>uzcar andi bat</u> soltadu.</i>
EspGut	2: 12 <i>Parte ounetaco ounzi bat oran etorri da</i> 3: 6-7 <i>choil condizios moudatou es padire <u>andiren bazeuec</u></i> 7: 1 <i>Jauna: jouanden egoun oyetan <u>berri bat</u> etorry zen ezin goure eregue il zela</i> 10: 4-5 <i>Nere adisquide ingles bat Bayonan izanez tardatou dout anbat tenpora zerbait berry gastigazera</i> 12: 26 <i>poutougues <u>bazouec</u> ounat zeren pasatou dire</i> EspGut 13: 5-6 <i>beztiaz naiz enpachatou nere by anaga eta cousin bat ecoustera etorriric</i> EspGut 16: 5 <i>Es taquit aditu douens zeure senoriac nola azho <u>Parisco conseler bat beste basuequin</u> Endagan izatu diren</i> EspGut 18: 8 <i>Legataren partes <u>gizon bat</u> passatu da parte orretarat</i> Etxep 13: 51 <i>Berac baçu hil dirade ni are nago viciric</i>

22. taula. Perpaus iragangaitzetako subjektuak, *bat/batzu*-rekin

Esan bezala, ez dago gauza handirik iruzkintzeko adibide hauetan: nire irudiko, aski talde homogeneoa osatzen dute, beren balio erreferentzialari dagokionez. Beharbada Etxepareren adibide bat aipa daiteke, interpretazio generikoa izan dezakeelako: Etxep 10: 74 *Valia diquecit senhar gayxto bat*. Adibide honetan, uler liteke *senhar gayxto bat* sintagmak ez duela balio erreferentzialik, senar generiko batez ari baitaiteke, ez testuak ezartzen duen testuinguruan zehaztua edo espezifikoa den entitate batez. Hori da, dena den, aurkitu dudana adibide bakarra.

Adibide interesgarri gehiago ere badira, ezinbestean beste ikerketa lan

batzuetarako geratu direnak. Adibidez, badira subjektu posizioan *bat/batzu* eta *beste* bikoteen adibide artikuludunak: cf. EspGut 14: 6 *bata bayonara eta bestia emen goua zen*, EspGut 16: 6 *Nere adisquide bazuec*<sup>462</sup> *sartou ziren emen, baina es besteac eta Zalgiz 143 Bata mingarri, / Bercia sorgarri*. Are interesgarriagoa da ikustea Leizarragak *batak* izan dezakeela horrelakoetan: Leiz 1426 *handic deitzen dira batac elegituac eta berceac reprobatuac* (cf. erronk. *banak*). Adibide hauen gorabeherak interesgarriak dira, baina ez dagozkie subjektu funtzioko sintagmen eztabaidari, baizik *bat/batzu* eta *beste* osagaien deskripzio historikoari.<sup>463</sup>

Berdintsu pentsa daiteke *oro* duten sintagmez: cf. subjektu iragangaitzetan Etxepareren 1: 325 *Iustu oro yganen da bertan goyti ayrian* eta 13: 47 *Penac oro giten dira ieyncoaren nahitic*, *bata* artikulugabe bestea artikuludun. Horrelakoetarako, ezer baino lehen *oro* zenbatzailearen berriazko deskribapen eta azterketa historiko bat behar dugu.

Perpau iragankorretako atalean bezala, ohar anekdotiko batekin bukatuko dut atal hau ere. Badirudi ergatiboa agertzen dela, itxuraz perpau iragangaitza den subjektu batean: cf. RS 324 *Amucozco buztana dauenac / suen bildur*; atsotitz honen kide, cf. Isasti 18 *Buztana lastozcoa duena suaren bildur*. eta Zalgiz 167 *Vzquia iztupaz duiana, suiaren beldur*.

<sup>462</sup> Kasu *-ek* atzizkiari, absolutibo balioarekin. Absolutibo pluralerako *-ak* eta *-ek* ditugu esaldi berean. Ikus 7.2 ataleko eztabaida.

<sup>463</sup> Argi dago horrelako adibideetan *beste*-ren menpe aztertu behar direla beti *bat* artikulua indefinituaren gorabehera morfologikoak. Absolutiboaz besteko kasuetan ere antzeman daitezke antzeko emaitza morfologikoak: ikus (43-45) adibideak, ergatiboan. Inesiboan, interesgarria da konparatzea Zalgizeren 94 *Eihera batian ecin eho deçanac berce[rat] laster [baldin harri]* eta 95 *Ohe batetan bi eri* atsotitzak: *beste*-z dago lagunduta *bat* artikuluduna. Banaketa berbera, baina morfologia ezberdinarekin (*batean/baten*), deskriba daiteke Landuchiorengan eta beste zenbait testutan, cf. Land *alde vatean da vestean* “en vna y en otra parte” eta *ez lecu batean, ta ez bestean* “ni ã un lugar ni en otro”, baina *beyn baten* “alguna vez” eta *lecuren vaten* “en algun lugar”. Pluraleko artikulua indefinituari dagokionez, cf. 7.4.3.2 atalean egindako oharra, fr. *les uns et les autres* eta halakoei buruzkoa.

### 6.3 Ohar bat datu historikoez eta analisi sinkronikoez

Jakinik ere hizkuntzaren analisi sinkronikoek bere baitan bilatu behar dutela hizkuntz gertaeren azalpena —gogoan har bedi Saussuren *Cours de linguistique générale*-ko formulazio klasikoa (1916; lehen atala, hirugarren kapitulua)—, argi dago, nire ustez, analisi sinkroniko finagoak egiten lagundu dezakeela bilakaera diakronikoak nolakoak izan diren ongi ezagutzeak. Jardun honetan, esanguratsua iruditzen zait Mitxelenaren aipu hau, *Lenguas y protolenguas* lanekoa (I 8):

Como ha subrayado muchas veces Sapir, un idioma es un producto histórico extremadamente complejo que oculta, bajo los elementos activos y productivos de su estructura, estratos varios de fecha muy diversa que, aunque pueden ser dados de lado en un análisis sincrónico, no aciertan a escapar del todo a las técnicas que se han desarrollado para reanimar la información muerta, es decir para dar una cierta dimensión de profundidad temporal a la imagen plana de un estado de lengua dado.

Ikuspegi orokor honetan kokatzen dut atal honetako eginahala. Ez dut sakonduko artikuluaren erabilera zabalduaz eginiko analisi sinkroniko zehatzetan, baina bai saiatuko naiz datu historikoen gainean neurtzen erabilera horretaz emandako azalpen diakronikoak, ikusteko erabil ote daitezkeen analisi sinkronikoren baten edo besteren irozgarri.

#### 6.3.1 Artikuluaren erabilera zabaldua: eginkizuna zedarritzen

Bigarren kapituluko (5-8) adibideetan eman dut artikuluaren erabilera zabalduaren berri, barne argumentuetako adibideekin, existentzialetakoekin eta predikatuetakoekin. Horietan, ikus daiteke nola *-a* edo *-ak* duten sintagmek interpretazio existentziala izan dezaketen, edo are, ez erreferentziala ere, predikatuen kasuan.

Artikuluaren erabilera horiek zaharrak dira, eta aurki daitezke adibideak XVI. mendeko testuetan eta are lehenagokoetan ere. Esanguratsuak iruditu zaizkidan batzuk ekarri ditut hona:

- (58) a. RS 39 *Chitac, grisolac ta vrdaya*,<sup>464</sup> / *mayaçeco mayra*.  
 b. MLastur 9 *Iausi da cerurean arria*<sup>465</sup>

<sup>464</sup> Gaztelaniaz “Pollitos, turmas y tocino” itzulia.



- c. MLastur 27 *Cerurean jausi da abea*<sup>466</sup>  
 d. MLastur 19 *Ceruetaco mandatua içanic*<sup>467</sup>

Subjektu funtzioan daude sintagma horiek, eta esanguratsua da *un* artikulua indefinituarekin edo mugagabeen agertzea gaztelaniazko itzulpenak eta ordainak. Objektu funtzioan ere aurki daitezke halakoak:

- (59) a. MLastur 31 *Bidaldu dogu ceruetara cartea*<sup>468</sup>  
 b. Artazub 4 *Artuco dot escu batean gucia / 5 Bestean çuci yraxegüia*<sup>469</sup>  
 c. VonHarff *schatuwa ne tu so gausa moissa*  
 d. Etxep 1: 5 *Eceyn iaunec eztu nahi muthil gaixtoa eduqui*

Hauetan, aipagarria iruditzen zait Von Harffen adibidea, zaharrena delako: *neskatua, nahi duzu gauza motza?* interpretatuz gero, badirudi *gauza motza* sintagma ezin dela interpretatu erreferente definitu tipiko baten moduan. Martin Bañez Artazubiagakoaren eresian, interesgarria da Garibaik modu ezberdinean ematea euskaraz artikulua banarekin agertzen diren sintagmen ordainak, baina ez ditut ongi ulertzen horren xehetasunak.

Objektuan, badira pluraleko sintagmak ere, *-ak* atzizkiarekin:

- (60) a. RS 129 *Opeyl bustiac, dacz oguiac*<sup>470</sup>  
 b. Land *onçac eguin* “amigar hazer amigos”  
 c. EspGut 13: 24 *moustrac egin ditou eregery adizera emaitagatic egin douela milla gauza*

Aipagarriak dira, bestalde, determinatzaile galdetzaileekin eta zenbatzaileekin agertzen diren sintagma artikuludunak; ez genuke, berez, artikulurik esperoko halakoetan. Dirudenez, mendebaldean aurkitzen dira errazago adibide hauek:

- (61) a. RS 374 *Nesqueac yru hiz egunean, / ta biac vere caltean.*  
 b. frJZum 6 *yru oe onac*

<sup>465</sup> Gaztelaniaz “una piedra” dakar Garibaik.

<sup>466</sup> Gaztelaniaz “un poste” dakar Garibaik.

<sup>467</sup> Gaztelaniaz “fue mandamiento del cielo” dakar Garibaik.

<sup>468</sup> Gaztelaniaz “una carta” itzulia.

<sup>469</sup> Interesgarria da gaztelaniazko itzulpena: “el dardo” eta “una acha de palo encendida” dakartza.

<sup>470</sup> Gaztelaniaz “trae panes” itzulia.

c. IbarģCEs B3 *se bichiac dira onec?*

Egiari zor, *Refranes y Sentencias*-eko adibidean “las dos” dakar itzulpenak, baina ez dakit nola uler daitekeen interpretazio definituarekin, aurretik *yru hiz* aipatzen baitira; era berean, esan bezala, interpretazioa ez bada definitua, ez dago argi zergatik duen artikulua *biac*-ek. Frai Juan Zumarragakoaren kasuan, “tres camas buenas” dakar itzulpenak. Azkenik, badirudi (61c)-n ere plural marka soila dela *-ak* atzizkia.

Subjektu eta objektu funtzioetako sintagmetako adibideez gain, badira artikuludun sintagma gehiago, interpretazio definiturik ez dutenak: mendebaldean, cf. frJZum 35 *faborean* (espero zitekeen, beharbada, *faboretan* moduko bat), eta ekialdean esanguratsua da Etxepareren 1: 4 *Memoriaz vorondatez endelguyaz goarnitu*, non elkarren segidan egonik ere, lehen bi sintagma instrumentalak artikulurik gabe dauden, eta azkena artikularekin. Ikus halaber 6.1.3 atalean aipaturiko adibideak, Landuchiorenak, besteak beste.

Ageri denez, eremu ezberdinetakoak dira adibideak, eta badirudi protohistorian kokatu behar direla artikuluaren erabilera zabalduko lehen urratsak. Euskara modernoko adibideen kide dira (59)-ko eta (60)-ko adibideak, eta halako sintagmez eta bere interpretazioez arduratu dira analisi sinkronikoak. Datu historiko hauek, beraz, analisi sinkroniko horiek testatzeko ere erabil litezke; azter liteke, adibidez, eskura bagenu sintagma artikuludun bakoitzaren ezaugarri erreferentzial eta semantikoen zerrenda, zein den proportzioa *-a* eta *-ak* artikuluen interpretazio definituen eta ez definituen artean XVI. mendeko testuetan, eta mendeetan aldatu egin ote den interpretazio ez definitu horietarako joera; azter liteke, halaber, perpaus mota jakinen edo testuinguru diskurtsibo jakinen menpe ote dauden *-a* eta *-ak* artikulua dituzten sintagmen balio semantiko eta erreferentzial horiek, ugariagoa ote den interpretazio ez-definitua subjektuetan ala objektuetan. Baina, horretarako, *-a* eta *-ak* artikuluen semantika historiko bat da beharrezkoa, sintagma bakoitzaren interpretazioaren berri emango ligukeena. Tesi honetarako ez dut lan hori egin, arrazoi metodologiko batengatik: hurbilketa morfosintaktikoa izan da nire bilketaren abiapuntua, ez semantikoa.

Lan osagarri horren zain, bestelako bide bat jorratu dut, Artiagoitiaren eta Etxeberriaren analisi sinkronikoak azalpen diakronikoen argipean jartzeko.

### *6.3.2 Analisi sinkronikoak eta galderak diakroniaren ikuspegitik*

2.6.4.3 atalean egindako galderak laburbilduko ditut azpiatal honetan. Artiagoitiaren eta Etxeberriaren analisiak bi ardatz nagusiren arabera bereizten dira: batetik, Artiagoitiaren ustez, *-a* eta *-ak* numero markak dira (2.6.4.3 ataleko (a, ii) puntua), eta, Etxeberriaren ustez, *-a* morfema numerotik bereiz aztertu behar da (2.6.4.3 ataleko (b, ii) puntua); bestetik, Artiagoitiaren ustez, *-ak* osagai banaezina da (2.6.4.3 ataleko (a, iii) puntua), eta, Etxeberriaren ustez, [-k] bereizi behar da, plural marka gisa, eta singularrarena [-Ø] litzateke (2.6.4.3 ataleko (b, iii) puntua). Bigarren ardatzekoa, ageri da, auzi morfologikoagoa da, lehenekoa baino; bestalde, sintagmaren analisiaren ikuspegitik heltzen zaio auziari lehenekoan.

Gauzak horrela, bi galdera modu aurreratu ditut 2.6.4.3 atalean: alderdi morfologikotik, bil ote daiteke argudiorik *-ak* atzizkia osagai txikiagoetan bereizteko, atzizkiaren bilakaera diakronikoaz tesi honetan proposatutakoaren bidetik? Ikuspegi sintaktikotik, zein analisi sinkronikorekin ezkontzen da hobeto testu zaharretan determinatzaile sintagmek duten interpretazioa, eta haien erabileraz egin genezakeen deskripzioa?

Nire ustez, lehen galderaren erantzuna argia da: aldarrikatu dut D-elementuen gramatikalizazioa ez dela eredu eransle baten arabera gertatu; ikuspegi horretan sakondu dut 7.1 atalean. Alde horretatik, beraz, Artiagoitiaren hipotesitik hurbilago ikusten ditut *-ak* atzizkiaren diakroniaz esandakoak: *-haga* D-elementua osorik lotu zitzaion izenari, ez *-ha* (> *-a*) eta *-ga* (> *-k*) zein bere aldetik. Bestalde, Etxeberriaren analisisa hurbilago legoke analisi eransle klasikotik, baina, 7.1.6 atalean nabarmendu bezala, hizkuntzaren izaera tipologiko orokorraren aurkakoa izan da artikuluen gramatikalizazioa. Nolabait esateko, talka hori azaleratzen da morfologiazko analisi sinkronikoetan, bi eredu artekoa: hizkuntzaren tipoari berez dagokiona eta arrotza zaion D-elementuen gramatikalizazioarena. Etorkizuneko ikerketarako geratzen da aztertzea nola barneratzen den hizkuntzan bere izaera tipologikoarentzat arrotza zaion ezaugarri bat,

kategoria funtzional berri bat; datozkeen ikerketa horietan, baliteke bai Artiagoitiaren bai Etxeberriaren analisiak bateragarriak izatea, bi estratu diakroniko ezberdinetan ezartzen baditugu.

Bigarren galderari dagokionez, erakusleetatik artikuluetara daraman gramatikalizazio prozesu diakronikoaren gradueltasuna ongi uztar liteke Etxeberriaren analisiarekin, nire ustez: funtsean, jatorrizko [+ definitu] osagai baten zabaltzetik esplikatu behar dira artikuluaren bilakaera diakronikoa eta bere erabilera moderno guztiak (cf. 3.2.3.1 atalean alemanierazko *während*-en adibidea, Heinerena); Etxeberriaren analisi sinkronikoan, berriz, “-a is a definite determiner everywhere [...] but very flexible in its ability to type-shift” (2005: 248), eta baliteke deskribatzen dituen tipo-aldaketa horietako bakoitza urrats diakroniko ezberdinen isla izatea. Ikuspegi diakronikotik, beraz, analisi sinkroniko horretan estratu diakroniko ezberdinen azalpena ematen ariko litzateke Etxeberria, D-elementuen jatorrizko izaera definitua abiaburu hartuta.<sup>471</sup>

Baina hipotesi honen balioa neurtzeko lan asko dago egiteko oraindik: artikuluaren erabilera mendez mende nola zabaldu den deskribatuko duen lan zehatz bat behar dugu, ikusteko mailaz mailako zabaltze hori parekatu ote daitekeen Etxeberriaren euskara modernoaren analisi sinkronikoko tipo-aldaketekin. Horrela bada, tesi honetan ez dut aukera honetan sakonduko. Bai egingo dut, ordea, saio bat, ikusteko Artiagoitiaren aukera zenbateraino den bateragarria artikuluaren zabaltzea esplikatzeko eman izan den beste hipotesi diakroniko batekin. Hurrengo azpiataletan eman ditut ariketa honen xehetasunak.

### 6.3.3 Hipotesi diakroniko bat: numeroaren arabera artikuluaren zabaltzea

Bigarren kapituluan (2.6.3.3 eta 2.6.3.4 atalak), Azkueren eta Castañosen hipotesiaren berri eman dut: hipotesi horren arabera, pluraletik hasiko zen artikulua zabaltzen,

---

<sup>471</sup> Hipotesi honetarako, esanguratsua iruditzen zait atal hastapeneko Mitxelenaren aipua, besteak beste gogorarazten baitu garai ezberdineko geruzak ditugula hizkuntzaren egoera sinkroniko batean. Pentsa dezakegu antzeko zerbait dugula artikuluaren kasuan: euskara modernoan, artikuluaren erabileraren ondoz ondoko geruza diakronikoak ditugu, eta egoera sinkroniko moderno honetan deskriba daitezkeen erabilera guztiak ez dira garai berean sortu.

numero kategoria morfologikoki adierazi beharretik; *numero morfologikoaren hipotesia* dei dakioko honi.

Bestalde, aurreko lan batean diakroniazko hipotesi hori aipatu nuen, eta Artiagoitiaren (2.6.4.1) analisi sinkronikoarekin hobeki ezkontzen zela proposatu, Etxeberriarenarekin baino, Artiagoitiak numeroari loturiko buru funtzional baten analisiaren barrenean azaltzen dituelako izen sintagma artikuludunak (Manterola 2012: 200).

Baina ahalegina egin behar da uste horiek datu historikoetan bermatzeko; auzi honetan, ez dut bat egiten Castañosen ideiarekin (1979: 163):

El proceso [artikuluaren zabaltzea] pudo comenzar, como quiere Azkue, con el plural, que es el término más marcado de la oposición, *aunque poco se pueda argumentar en este punto, ya que en época histórica el proceso está cumplido.* [Etzana nirea]

Datu historikoetan badira oraindik aztertu gabeko xehetasun asko. Baliteke testuinguru sintaktiko askotan aldaketa burutua egotea, Castañosek dioen bezala, eta ondorioz ezin ateratzea. Bokatiboan, adibidez, ikusi dugu 6.2.1 atalean artikuludunak direla adibide gehienak.

Baina informazio berri asko izan genezake eskura eztabaida hauetarako ere, datu historikoak modu sistematikoan aztertuta; adibidez, nire ustez, argi geratu da predikatu artikuludun askotan subjektuaren erreferentzialitate mailaren menpe zegoela artikulua agertzea (6.2.3.1 eta 6.2.3.2 atalak). Hurrengo azpitalean bide honetan sakondu dut, eta erakutsi oraindik ez dugula daturik aski XVI. mendeko testuetan *numero morfologikoaren hipotesiaren* alde egiteko.

#### 6.3.4 Subjektu plurala duten predikatuetakoko jokabidea

Azkueren arabera, artikularen zabaltzea pluraleko sintagmetatik abiatu zen; berak bokatiboak ditu aipagai, baina Castañosek orokortu egiten du ideia, eta datiboko sintagmak dituen adibide bat ekartzen du, esaterako. Analisi sinkronikoetan, barne argumentuak aztertzen dituzte batez ere Artiagoitiak eta Etxeberriak.

Atal honetan ariketa bat proposatuko dut, Azkueren eta Castañosen hipotesia

zertan den neurtzeko. Ikusi dugun bezala (6.2.3.1 eta 6.2.3.2), izen eta izenondo predikatuetan nagusi dira sintagma artikulugabeak, baina badira artikuludun zenbait. Beren hipotesiaren arabera, hauxe aurreikus genezake: sintagma artikuludunak ugariagoak izatea subjektu pluraleko predikatuetan.

Emaitzak ez dira izango zuzenean konparagarriak analisi sinkronikoetako datuekin, aztergaia ezberdina delako. Baina balio zehatz bat izango du ariketa honek: abiapuntua izango da artikularen zabaltzeaz euskal ikasketetan dugun hipotesi diakroniko bakarra doitzen hasteko eta, ondorioz, balioko du jakiteko zein testuinguru sintaktikotatik abiatu zen analisi sinkronikoetan arazo den erabilera zabaldu hori.

#### 6.3.4.1 Izenondo predikatuak pluraleko subjektuekin

VI.4 eranskineko 66. taulara erauzi ditut subjektua pluralean duten izenondo predikatuen adibideak, eta 23. eta 24. taula hauetara ekarriko ditut adibideen kopuruak eta portzentajeak. Hemen ere taula banatan eman ditut mendebaldeko eta ekialdeko testuetako datuak.

Testua	IzondP		KonP		Orotara	
	-Ø/-ak Kop.	-Ø/-ak %	-Ø/-ak Kop.	-Ø/-ak %	-Ø/-ak Kop.	-Ø/-ak %
IbargCEs	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
RS	11/1	92/8	5/0	100/0	16/1	94/6
Garibai	6/0	100/0	5/0	100/0	11/0	100/0
frJZum	0/1	0/100	0/0	-	0/1	0/100
KantabKant	0/2	0/100	0/0	-	0/2	0/100
ErrodZar	3/0	100/0	0/0	-	3/0	100/0
Lazarg	5/1	83/17	0/0	-	5/1	83/17
Betol	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
BretKant	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
OROTARA	28/5	85/15	10/0	100/0	38/5	88/12

23. taula. Pluraleko subjektua duten izenondo predikatuak, predikatu bikoitzeko egiturak barne, XVI. mendeko mendebaldeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Testua	IzondP		KonP		OROTARA	
	-Ø/-ak Kop.	-Ø/-ak %	-Ø/-ak Kop.	-Ø/-ak %	-Ø/-ak Kop.	-Ø/-ak %
Isasti	2/0	100/0	0/0	-	2/0	100/0
EspGut	1/0	100/0	0/0	-	1/0	100/0
Leiz	7/0	100/0	2/0	100/0	9/0	100/0
Etxep	12/1	92/8	0/0	-	12/1	92/8
Zalgiz	5/0	100/0	0/0	-	5/0	100/0
OihAtsot	6/2	75/25	2/0	100/0	8/2	80/20
Bela	2/0	100/0	0/0	-	2/0	100/0
OROTARA	35/3	92/8	4/0	100/0	39/3	93/7

24. taula. Pluraleko subjektua duten izenondo predikatuak, predikatu bikoitzeko egiturak barne, XVI. mendeko ekialdeko testuetan, kopuruak eta portzentajeak.

Datu hauei begira, eta 6.2.3.1 ataleko 11. eta 12. tauletakoekin konparatuta, nabarmena da gutxiago hartzen dutela artikulua izenondo predikatuetakoa sintagmek, subjektua plurala denean. Aipagarria izan daiteke, betiere gogoan hartua datu gutxirekin ari garela, Oihenart izatea proportzioan adibide artikuludun gehien dituen (%20), baita Lazarraga bera baino gehiago ere (%17). Lazarragaren beraren adibide bat suertatzen da esanguratsua, orokortzearen adierazgarri:

- (30) B15: 39 *Jaiorean ninçan desdichadea, / cerren aita neben guttiz gogorra, / senideac labur, ama leorra.*

Hiru izenondo predikatu ditugu hemen, predikatu bikoitzeko egitura banatan: bitan, *aita neben guttiz gogorra* eta *ama leorra*, artikuluaekin agertzen da izenondo predikatua, *gogorra* eta *leorra*; izenondo predikatuaren subjektu gisa —perpaus osoaren objektu dira—, bi izen ditugu, *aita* eta *ama*, artikulurik gabeak hauek ere, baina erreferente bakarreko izenak direlako. Predikatuaren subjektua pluralekoa den bakarrean (*senideak*), ordea, artikulurik gabe dago izenondo predikatua (*labur*).

#### 6.3.4.2 Izen eta izen + izenondo predikatuak pluraleko subjektuekin

VI.5 eranskinetako 68. taulara erazi ditut subjektua pluralean duten izen predikatuen adibideak, eta 25. taula honetara ekarriko ditut adibideen kopuruak eta portzentajeak.

Testua	Izen predikatuak			
	$-\emptyset$ Kop.	$-\emptyset$ %	$-ak$ Kop.	$-ak$ %
ArrasErrekIII	1	% 100	0	-
Sandailia	1	% 100	0	-
RS	2	% 100	0	-
Lazarg	1	% 100	0	-
Isasti	2	% 100	0	-
Etxep	7	% 100	0	-
Zalgiz	2	% 100	0	-
OihAtsot	3	% 100	0	-
OROTARA	20	% 100	0	-

25. taula. Pluraleko subjektua duten izen predikatuak, predikatu bikoitzeko egiturak barne, XVI. mendeko testu guztietan, kopuruak eta portzentajeak.

Askoz ere gutxiago dira izen predikatuetakoa adibideak, izenondo predikatuetakoa baino, subjektua plurala denean. Alabaina, emaitzak erabatekoagoak dira: ez dago adibide bakar bat ere, predikatuak  $-ak$  artikulua duenik. Adibide horietan sartuta ez badago ere, aipagarria da RS 403 *Argaloc ydeco eyten badira / aec yndarsuen yçango dira*; superlatibo batekin ere ez da agertzen artikulua. Bestalde, Lazarragak badu B22: 27 *gustietati florea dira / orduan Axpurucoac*; adibide honetan, pluraleko *Axpurucoac* da subjektua, eta *florea* jo liteke predikatutzat, singularreko artikuluekin, baina badirudi adibide hau hurbilago dagoela perpaus ekuatibo batetik.

Azkenik, VI.6 eranskinen 70. taulara erauzi ditut subjektua pluralean duten izen + izenondo predikatuen adibideak, eta 26. taula honetara ekarriko ditut adibideen kopuruak eta portzentajeak.

Testua	Izen + izenondo predikatuak			
	$-\emptyset$ Kop.	$-\emptyset$ %	$-ak$ Kop.	$-ak$ %
RS	2	% 100	0	-
Lazarg	1	% 100	0	-
Etxep	1	% 100	0	-
Zalgiz	1	% 100	0	-
OROTARA	5	% 100	0	-

26. taula. Pluraleko subjektua duten izen + izenondo sintagmaz osaturiko predikatuak, predikatu bikoitzeko egiturak barne, XVI. mendeko testu guztietan, kopuruak eta portzentajeak.

Hauetan ere esanguratsua da emaitza, betiere adibideen urritasuna gogoan hartuta:



predikatuetan ez dago *-ak* duen sintagma bakar bat ere. Bildu ditudan bost adibideetan bereziki aipagarria iruditzen zait Lazarragaren B33: 33 *DiJostaenez, lecu on dira / Toscanarequin Lonbardia*; 6.2.3.3 atalean ikusi den bezala, Lazarraga da izen + izenondo predikatuetan sintagma artikulugabeak gutxien erabiltzen dituen autoreak, eta adibideetako bat hauxe da, subjektua pluralean duena.

#### 6.3.4.3 Pluraleko subjektua duten predikatuetako jokabidea: emaitzak

Emaitza argia da: predikatuetan askoz ere urriagoa da *-ak* artikulua pluralaren erabilera, *-a* artikulua singularrena baino. Horrenbestez, hauxe ondoriozta daiteke predikatuen determinazioaz: XVI. mendeko testuetan ez dago zantzurik esateko artikuluen zabaltzea eragin duenik numeroa morfologikoki markatu beharrak. Horrek ez du esan nahi ondoko mendeetan ez zenik hala izan, baina ez dirudi *numero morfologikoaren hipotesiaren* barrenean bakarrik bilatu behar denik zabaltzearen azalpena.

#### 6.3.5 Analisi sinkronikoak eta datu historikoak: laburpena

Artiagoitiaren analisi sinkronikoan, numero proiektio baten bidez esplikatzeko dira barne argumentuetako *-a* eta *-ak* artikuluen zenbait gorabehera; *numero morfologikoaren hipotesi* diakronikoan, numero morfologikoa adierazi beharri egotzen zaio artikuluen gorabehera horietako batzuen sorburua. Aurreko ataletan ariketa baten bitartez erakusten saiatu naiz, XVI. mendeko datu historikoen argitara, zenbateraino zen egokia hipotesi hori. Bi puntutan laburbil daitezke ondorioak:

- (a) *Numero morfologikoaren hipotesiak* ezin ditu esplikatu artikuluen erabilera zabalduaren xehetasun guztiak; ez dirudi numero morfologikoaren efekturik dagoenik XVI. mendeko testuetako izenondo eta izen predikatuetan (6.3.4).
- (b) Betiere predikatuekin ari garela, esanguratsuagoak iruditu zaizkit subjektuen izaera erreferentziala hizpide hartuta eman daitezkeen azalpenak (6.2.3).

*Numero morfologikoaren hipotesiak* izan lezakeen balioa baztertu gabe, ez da aski esatea horregatik zabaldu zela artikulua: efektu hori noiz eta zein testuinguru sintaktikotan gertatu zen zehaztu behar da lehenik. Esan gabe doa, bestalde, hemengo emaitzek ez dutela baztertzeko *numero morfologikoaren hipotesiaren* eta Artiagoitiaren

analisiaren artean egon litekeen lotura (ondoko mendeetan edo beste testuinguru sintaktikoetan nabarmenagoa zatekeena, beharbada? Ikus 6.1.3 atala), baina argi uzten dute bestelako aukerak ezin baztertua.

Aurreko ataletakoa ariketa xume bat baizik ez da izan. Xedea izan da erakustea zer etekin atera dakiekeen datu historikoei. Aski formalizatu gabe bada ere, beste asmo bat zera izan da, erakustea ahalegina egin daitekeela loturak egiten datu historikoen eta euskara modernoaren analisi sinkronikoen artean.

Ariketa honen emaitzak ez dira frogatzaileak izan, eta ez dituzte inolaz ere agortzen gaiak egin daitezkeen azterketak. Baina uste dut bideorri garbi bat ezartzen dutela etorkizuneko lanerako: testu historikoetako datuak xeheki erauzi behar dira, eta testuinguru sintaktikoak banan-banan aztertu, artikulua nondik nora zabaldu den argitzeko. Datu sendo horien gainean, egin genezakeen edozein analisi sinkronikok berme handiagoa izango du.

#### **6.4. Artikuluaren sintaxia XVI. mendean: emaitzen laburpena**

Kapitulu honetako lana eginkizun zabalago baten hasikina baizik ez da. Eginkizun horretan, artikuluaren erabileraren deskribapen historiko zehatza behar dugu, eta horretarako abiapuntua ezarri dut kapitulu honetan. Honela laburbil daitezke kapitulu honetako emaitzak:

- (a) XVI. mendera bitarteko hiztegi-tako informazioa jaso dut (6.1). Bi hauek iruditzen zaizkit emaitza aipagarrienak: batetik, hitzaren kategoriaren eta izaera semantikoaren arabera izan daiteke artikulua erabiltzea, ekialdeko hiztegi-tan bereziki, cf. Picaud eta Leizarraga (6.1.1); bestetik, mendebaldeko hiztegi-tan ez dago ageriko artikulurik *-a* eta *-ia* amaiera duten maileguetan (6.1.2).
- (b) XVI. mendeko testuetan, bokati-boak aztertu ditut. Oro har, artikuluarekin agertzen dira bokati-bo guztiak.
- (c) XVI. mendeko testuetan, existentzialak aztertu ditut. Hauxe izan da emaitza aipagarriena: baiezko perpaus existentzialetan, pibota mugagabea, artikuluduna edo partitiboduna izango da, perpaus motaren, aditzaren denboraren eta pibotaren

izaera semantikoaren arabera (6.2.2.5).

- (d) XVI. mendeko testuetan, izenondo, izen eta izen + izenondo predikatuak aztertu ditut (6.2.3). Izenondo eta izen predikatuek ez dute artikulurik hartzen, oro har; artikuludunak diren adibideetan, irizpide nagusi bat deskribatu dut esplikatzeko zergatik den hala: subjektuaren erreferentzialitate mailari dagokio irizpide hori (6.2.3.1.2). Izen + izenondo predikatuetan, artikuluen erabilera askoz ere zabaldagoa dago, eta *bat* dutenak ere gehiago dira (6.2.3.3).
- (e) XVI. mendeko testuetan, subjektuak aztertu ditut. Gutxi dira adibide artikulugabeak, eta horien berri eman dut. Perpaus iragankorretan, ezagunak ziren sintagma mugagabeak; erakutsi dut ezezkako perpausetan direla nagusi halakoak (6.2.4.1 (c)). Perpaus iragangaitzetan, askoz ere urriagoak dira subjektu mugagabeak; horiek biltzea izan da ekarpen nagusia (6.2.4.2).
- (f) Azkenik, ohar bat egin dut *numero morfologikoaren hipotesi* diakronikoaz. Ez dut zantzu garbirik aurkitu XVI. mendeko testuetan hipotesi horren alde egiteko. Hipotesi horrekin Artiagoitiaren analisi sinkronikoak izan zezakeen lotura ez dut baztertu, baina etorkizuneko lanetarako geratu da horretan sakontzea.

Kapitulu honetan egindako deskribapenaren osagarri izan beharko dira testuinguru sintaktiko gehiagoren gainean egindakoak, hala nola perpaus erresultatiboetako sintagma, perpaus iragankorretako objektuena, etab. Horretaz gain, bilakaera historikoaren berri izan nahi badugu, ondoko mendeetako testuekin osatu beharko da deskribapena. Bestalde, ikuspegi metodologikotik, hurbilketa morfosintaktiko hau sintagmen azterketa semantikoarekin osatu beharko da. Horrela bakarrik izango dugu artikuluen erabileraren bilakaera historikoaren informazio zehatza.



**ZAZPIGARREN KAPITULUA**  
**ONDORIOAK D-ELEMENTUEN BERRERAIKETA SOILAZ**  
**KANPO**

Bosgarren kapituluan, berreraiketa proposamen jakin bat egin dut: erakusleen gramatikalizazioaren ikuspegitik azal daiteke deklinabide mugatu osoaren diakronia. Kapitulu hartan bertan eman ditut proposamen honek berarekin dakartzan hainbat ondorio; gehienak, erakusleen berreraiketari dagozkionak. Eta kapitulu honetarako utzi ditut beste ondorio batzuk, berreraiketa morfologikoaren esparru hertsitik haragokoak direlakoan.

Lau gai nagusi aztertu ditut kapitulu honetan: euskararen izaera eranslea, ergatibitate erdibituaren auzia, hasperenaren iraupena eta hizkuntz ukipenaren esparruan euskarari buruz esandakoak.

### **7.1 Eransletasuna eta euskal deklinabide mugatua**

Nire berreraiketa proposamenak ondorio zuzenak ditu euskara hizkuntza eransle gisa sailkatzeko egin ohi den hauturako. Atal honetan, auzitan jarriko dut sailkapen tipologiko horren balioa, deklinabide mugatuaren bilakaera diakronikoaz denaz bezainbatean, bederen.

#### *7.1.1 Eransletasunaren eta gramatikalizazioaren arteko lotura historiografikoa*

Ikerketen historian atzera joz, ez da zorizkoa eransletasunaren auzia ikuspegi diakronikotik aztertzen denean gramatikalizazioaz esandakoekin loturik agertzea; honela lotzen ditu Plungianek (2001: 677):

Historically, flexion arises from agglutination [...], agglutination, in turn, arises from analytic and/or isolating systems. All these are stages of one and the same process, which may be described as a gradual loss of syntactic (and morphological) autonomy of linguistic units; this process is one of the most conspicuous components of grammaticalization.

Lehmannek dioenez (2002: 1), Meilletek zedarritu zuen *gramatikalizazio* terminoaren

gaur egungo erabilera eta esanahia. Terminoaren oinarrian dagoen ideia, ordea, lehenago ere erabilia izan zen, batera edo bestera, hizkuntzalarien artean. Humboldtten “Agglutinationstheorie” dakar gogora Lehmannek, zeinetan hizkuntzen ziklo tipologiko-ebolutiboa deskribatzen baita (*isolatzaile* → *eransle* → *flexibo*); teoria hori funtsean gramatikalizazio teoria bat dela dio: “[T]his account of the evolution of grammatical forms is essentially a theory of grammaticalization, if only a sketchy one” (2002: 1). Modu zehatzagoan ere esana zuen lehenago (Lehmann 1985a: 51):

Traditional morphological typology, especially in its explicitly evolutive version which was called agglutination theory, is essentially a simplified version of grammaticalization theory. The isolating, agglutinative and flexional (or fusional) types correspond to certain positions on a grammaticalization scale.

Hortxe dugu eransletasunaren eta gramatikalizazioaren arteko lotura, historiografiko-terminologikoa baino ez bada ere, baina Plungianen arestiko aipuan ere ageri dena: hizkuntzaren zenbait osagai beregain erantsi egiten zaizkio izenari, aditzari eta besteri, afixu moduan, eta, erabileraren erabileraz, beregainak ez diren osagai gramatikal bihurtzen dira, gramatikalizatu egiten dira (ik. 5.1.3 atalean Castañosen aipuaz esandakoa). Ikus Lehmannen eskuliburu argigarriaren lehen kapitulua, ohar historiografiko gehiagorako (2002: 1-7);<sup>472</sup> ikus, bestalde, Heine (2003: 575-578), gramatikalizazioari buruzko lanen historia labur baterako.

### 7.1.2 Eransletasuna zer den eta sailkapen mota horren balioa

Tipologian, honela defini daiteke eransletasunaren ideia: morfologia eranslean, morfema bakoitzak esanahi bat du. Honela adierazten du Spencerrek (2001: 224):

In an “ideal” morphological system each morpheme contributes one meaning and each meaning is associated with just one morpheme (“one form – one function”). Such a morphological ideal is often called agglutination (and morphologists still sometimes speak of “agglutinating” languages where this type of morphology predominates).

Tesi honen gaitik hurbilago, kasuen morfologiaren esparrura dakarte Lehmannen hitzek eransletasunaren definizio orokorra (1985b: 303):

An agglutinative case affix is one which expresses only a case meaning, is morphologically

<sup>472</sup> Bilakaera diakronikoez ari garenean, “coalescence” terminoa hobesten du Haspelmathek (2011: 343), eta horietarako “agglutination” baztertu.

optional (i.e. if subtracted from its carrier, it leaves a grammatical form) and attached to the noun with a clear morphological boundary, such as *Peter's* or Turk. *-de* in *ev-de* (house-LOC) 'in the house'. A fusional case affix is one which simultaneously expresses other morphological categories, is morphologically obligatory and partly fused with the stem, e.g. Latin *aedibus*, abl. pl. f. of *aedes* 'house'.

Spencerren oinarrizko lehen definizio horretan sakontzen du Plankek, eta ohartarazten "being *agglutinative* or *flexive* are not properties of entire languages, nor are they simple properties" (1999: 279). Eta, Spencerrek aipatzen duen irizpide tipikoaz gain — morfemen eta esanahien arteko harreman unibokoarena, eta haien arteko bereizketa garbiarena—, beste zenbait irizpide ematen ditu, hamaika denera, eransletasunaren eta flexioaren arteko mugak zehazteko erabili izan direnak. Gehiago ere azaltzen du Plankek, hamaika irizpide edo parametro horien arabera, "The strong homogeneity hypothesis" goiburupean (1999: 285): hizkuntza eransle eta flexibo "gogorak" edo idealak zer izango lirartekeen:

In any language, all marking for all morphological categories and their terms on all words can only have either one of two repertoires of properties, the fully agglutinative one (separation, invariance, distinctness, always zero exponence, locality, repeatability, larger paradigm size, transparent segmentability, weak cohesion, loose bonding, optionality) or the fully flexive one (cumulation, variance, homonymity, no or sporadic zero exponence, extendedness, unrepeatability, smaller paradigm size, opaque segmentability, strong cohesion, tight bonding, obligatoriness).

Parametro horiek elkarren artean dituzten mendekotasunak bilatzen saiatzen da Plank; horretarako, mugatu egiten du eztabaida, eta *bereizketa/metatze*<sup>473</sup> ("separation/cumulation" ingelesez) parametroaren eta *aldaezintasun/aldakortasun* ("invariance/variance" ingelesez) parametroaren arteko harremanaz ari da soilik. Adibide hauen bidez ikus daitezke zeri dagokion bakoitza (Plank 1999: 281-282):

- |     |                    |                    |
|-----|--------------------|--------------------|
| (1) | a. Turkiera        | b. Ingeles zaharra |
|     | <i>tarla-lar-ı</i> | <i>feld-a</i>      |
|     | zelai-PL-AKUS      | zelai-PL.AKUS      |

Bereizketaren adibide gisa, (1a)-ko *lar* eta *ı* har daitezke: marka bereziak daude turkieraz pluralerako eta akusatibo markarako; ingeles zaharrea, ordea, *-a* markan daude metatuta plurala eta akusatiboa (1b). Aldaezintasunari dagokionez, pluraleko

<sup>473</sup> Hau da eransletasun/flexiotasunaren eztabaidan irizpiderik tipikoena, Spencerren "one form - one function"-en oinarrian dagoena: morfema bereziak ditugu bere funtzioaren arabera, ala funtzio bat baino gehiago metatzen dira morfema bakarrea.

marka beti da *lar* turkieraz eta akusatibo marka beti *ı*, izen mota edozein dela ere; ingeles zaharra, aldiz, aldakortasunaren adibide da, *-a* ez baita akusatibo pluralerako marka bakarra, eta bestelakoak izan baitaitezke izenaren arabera (cf. *-as*, *-u* etab.).

Zaila da argi ezartzea eransletasunaren ezaugarri diren irizpide horien korrelazioa, eta zailtasun horiek agerrarazten ditu Plankek (1999: 317-318); eransletasunarena auzi labainkorra izan daitekeela uzten du agerian Planken lanak, berau zehazteko hartzen den irizpidearen arabera —zein parametro hartzen den aintzat, aditz ala izen morfologia miazten den, eta abar—, ezin erabakizkoa maiz. Funtsean, bere lanean zehar nabarmen ageri da hizkuntza bakoitzaren gorabehera morfologikoak ongi aztertu eta ezagutzeak duen garrantzia. Haspelmathek ere Planken antzeko bidetik jotzen du, eransletasunaren hipotesia<sup>474</sup> neurtu nahian, eta ideia eta gogo bera dago bere lanaren azken hitzetan; bere ustez, honako hau izan behar da helburua hizkuntza baten eransle izaerari buruzko ikerketetan: “[T]ry to do justice to each language, to describe and characterize it in its own terms” (2009: 27).

Zenbait autorek diote alferrekoa eta baliogabea dela hizkuntzak eransle edo flexibo (edo are isolatzaile, etab.) moduan sailkatzea —horien artean daude Anderson, Bauer eta Spencer, eta Haspelmathek horien aipu bana dakar—. Autore horien jarrera gogorra kritikatzeko du Haspelmathek (2009: 15), baina, era berean, aitortzen du eransletasunaren hipotesiak —hizkuntza bat eransle gisa sailkatzeak— ez dakarrela berarekin ezaugarri multzo unibertsal bat, eta, hortaz, zilegitasuna galtzen duela sailkapen mota horrek. Are garbiago mintzo da Lehmann, morfologiaren tipologia egiteak duen balioaz ari denean: “[A]s everybody is aware, we know very little if we know that a language is agglutinative” (1985: 42); dioenez, ongi zehaztu behar da aztergaia, zein kategoria gramatikalez ari garen, balio zerbait izan dezaten halako izendapenek.

Hurrengo azpiataletan (7.1.3 eta 7.1.4), Haspelmathek proposatzen duen eginkizun orokor horretan arituko naiz: agerian utziko dut zein izan den euskal

---

<sup>474</sup> Haspelmathek (2009: 16) aitortzen du Planken “strong homogeneity hypothesis”-en kidekotzat duela bere lanean eransletasunaren hipotesi moduan (“the agglutination hypothesis” jatorrizkoan) izendatu duena.



deklinabide mugatuaren diakronian hizkuntzaren ustezko eransle izaeraren zeregina, betiere euskal morfologia diakronikoaren eta ondorioz sinkronikoaren deskripzio egokiago bat egiteko helburuz.

### 7.1.3 Euskara hizkuntza eransle gisa

Batera agertu izan dira inoiz erakusleen gramatikalizazioa eta eransletasunaren auzia euskal artikularen definituaren diakroniaz egindako lanetan, termino hutsen mailan baino ez bada ere; bi gaiak batera agertzea 7.1.1 atalean azalduko lotura historiografikoaren barruan uler daiteke: “La aparición de la categoría nueva de singular - determinado ya había sido explicada como un proceso de aglutinación del nombre con el demostrativo - artículo” (Castaños 1979: 58). Jakina, halako azalpenetan oso esangura txikia du “eransle” terminoak eransletasunaren eztabaidan: izen sintagmari determinatzaile batzuk lotu egiten zaizkiola adierazten du, ez beste ezer; besterik da zehaztea zer den erantsi dena eta nola gertatu den hori.

Gaur egungo hizkuntzaren deskripzioetan, aho batez onartu ohi da eranslea dela euskara modernoaren morfologia. Honela dio Trask: “The morphology of modern Basque is strongly agglutinating and overwhelmingly suffixing” (Trask 1998: 318);<sup>475</sup> bestalde, eta liburuan zehar eransletasuna gehiagotan aipatzen ez bada ere, honela dakar hastapen-hastapenean Hualdek eta Ortiz de Urbinak editaturiko gramatikak: “Basque is a highly agglutinative language” (2003: vii).

Hurrengo atalean, argudiatuko dut eransletasunak ez duela ongi azaltzen deklinabide mugatuaren diakronia, *bereizketa/metatzea* parametroa oinarri hartuta.

### 7.1.4 Euskal deklinabide mugatua ez da sortu eredu eranslearen arabera

Maila sinkronikoan, eredu eransle garbi baten arabera analiza daitezke euskarazko izen sintagma mugatu moderno asko (euskara batuko adibideak jarriko ditut):

---

<sup>475</sup> SOA hurrenkera izatearekin lotzen du euskara eransle izatea: “Typologically, Basque is a rather well-behaved SOV language with almost all of the textbook characteristics of such languages: [...] a rich case system, a highly regular agglutinating morphology with few alternations...” (Trask 1998: 313).

- (2) a. Abs. sg. mug.: *mendi-a*  
 b. Erg. sg. mug.: *mendi-a-k*  
 c. Gen. sg. mug.: *mendi-a-ren*  
 d. Dat. sg. mug.: *mendi-a-ri*  
 e. Ines. sg. mug.: *mendi-a-n*

Kasu honetan, *mendi* hitza dugu, eta horri *-a* artikulu mugatua gehitzen zaio, dagokion kasu-markarekin batera: erg. *-k*, gen. *-ren*, dat. *-ri* eta ines. *-n*. Bereizketaren irizpidearen arabera analiza eta zatitu daitezke sintagma osoaren morfema ezberdinak. Arazoak pluraleko deklinabide mugatuan egon daitezke, betiere ikuspegi sinkroniko hutsetik ari garenean:

- (3) a. abs. pl. mug.: *mendi-ak*  
 b. erg. pl. mug.: *mendi-ek*  
 c. gen. pl. mug.: *mendi-en*  
 d. dat. pl. mug.: *mendi-ei*  
 e. ines. pl. mug.: *mendi-eta-n*

Ergatiboaren eta plural markaren homofoniaren auzia alde batera utzirik (ik. 5.5.5.2 atala), argi dago pluraleko sintagma hauek ezin direla eredu eransle baten arabera azaldu: erg. pl. *\*mendi-ak-e-k* izan beharko litzateke, gen. pl. *\*mendi-ak-en*, ines. pl. *\*mendi-ak-n*, etab. Ez dago horrelakorik, eta, nire proposamenaren arabera, ez da inoiz horrelakorik izan.

Datu horietaz gain, beste datu batzuk ere baditugu, eredu eranslearen arabera azal ez daitezkeenak:

- (4) a. mendeb. abs. sg. mug.: *ola + -a > olea*  
 b. mendeb. ines. sg. mug.: *ola + -a + -n > olan (\*\*olean)*

(4b)-ko *olan* sintagma ez da osatu, itxura guztien arabera, absolutiboko formari *-n* inesiboa gehituta (*\*olean*), balizko eredu eransle bati legokioken moduan. Orobatsu gertatzen da kontsonantez amaituriko izenekin, euskal eremu osoan:

- (5) a. abs. sg. mug.: *lan* + *-a* > *lana*  
 b. abs. sg. mug.: *lan* + *-a* + *-n* > *lanean* (\*\**lanan*)

(5b)-ko *lanean* sintagma ez da osatu absolutiboko *lana* sintagmari *-n* gehituta. Analisi sinkronikoan ditugun salbuespen hauek hobeki uler daitezke bosgarren kapituluaren proposaturiko bilakaera diakronikoaren arabera:

	Forma historikoa		Jatorrizko osaera
Erg. pl. mug.	<i>mendi-ek</i>	<	<i>mendi</i> + <i>hek</i>
Gen. pl. mug.	<i>mendi-en</i>	<	<i>mendi</i> + <i>hen</i>
Ines. pl. mug.	<i>mendi-etan</i>	<	<i>mendi</i> + <i>hetan</i>
Ines. sg. mug. (-C izenekin)	<i>lan-e-an</i>	<	<i>lan</i> + <i>han</i>
Mendeb. ines. sg. mug. (-a izenekin)	<i>ola-an</i>	<	<i>ola</i> + <i>han</i>

27. taula. Deklinabide mugatuaren diakroniaren eskema.

Eredu honek hauxe proposatzen du: hainbat funtzio morfema bakarrean metatuta lotu zitzaizkion deklinabide mugatuko atzizkiak izenari, ez bereizita; “kumulatuta”, Planken ingelesezko hitzari hertsiki lotzen bagatzaizkio: *-ek*, *-en*, *-etan*, eta *-an* morfemak bat bakar balira bezala lotu zitzaizkion izenari, bakoitzak funtzio edo tasun bat baino gehiago eramanik; gutxienez, mugatutasunarena eta kasuarena (eta are numeroarena, nahi bada).

Emaitza sinkronikoa hainbat kasutan modu eranslean analiza badaiteke ere (2a-e), salbuespen sinkronikoetan beretan antzeman daiteke bilakaera diakronikoa ez dela gertatu morfema bereiziak elkarri erantsita.

Proposamen honek ez du ukatzen deklinabide mugatu modernoan ditugun zenbait atzizki eredu eranslearen arabera sortu direnik: honen adibide garbia da mendebaldeko soziet. mug. pl. *lagunakaz*, *lagun* + *-ak* + *-gaz* baizik ezin azaldu dena; cf. orobat Bidaso inguruko lurraldeetako *lagunaken* edo *lagunakeri* bezalako formak, diakronikoki ere *lagun* + *-ak* + *-en* eta *lagun* + *-ak* + *-(r)i* analizatu beharrekoak, edo *haukiek* edo *haukien* moduko erakusleak. Ikus 5.2.1 atala, zerrenda osorako. Honek, jakina, eman lezake euskal hiztunaren gramatikak eransletasunerako duen joeraren berri, edo, bederen, morfemak bereizteko joeraren berri, eta ez du baztertzeko sinkronian euskara hizkuntza eransle moduan sailkatzeko aukera —sailkapen modu horrek bere argi-ilunak dituela ahortzi gabe, betiere—, baina argi dago, era berean, bestelakoa izan dela

deklinabide mugatuaren osaera diakronikoaren funtsa.

Honela laburbil daiteke atal honetan egindakoa: Lehmannek eta bestek eskatzen zutenaren bidetik (ik. 7.1.2 atala), eransletasunaren hipotesia neurtu dut, oso esparru konkretuan, deklinabide mugatuarenean; ikuspegi diakroniko baten arabera neurtu dut eransletasuna, hobeki azaltzeko egoera sinkronikoan aurki daitezkeen eredu ustez kanonikotik kanpoko datuak.

### 7.1.5 Planken azalpenak

Aurreko azpiatal batean (7.1.2) agertu dut zertan datzan Planken “Strong Homogeneity Hypothesis” delakoa. Alabaina, hipotesi horri eusteko zailtasunak ere agertzen ditu Plankek (horren aurkako ebidentzia ematen du antzinako ingelesak berak, Plank 1999: 290). Hainbat hizkuntzaren datuak aztertu ondotik, ikusten du elkarren ondoan ager daitezkeela hizkuntza berean *a priori* aurkako gertakaritzat jo litezkeen bereizketa eta metatzea, eta orobat gertatzen da aldaezintasun/aldakortasunaren parametroarekin (1999: 317). Hona bere ondorioa (1999: 321):

[T]he message of this paper so far was that morphological systems are hugely complex, comprising innumerable variables which are logically independent and which indeed do vary independently [...] strong homogeneity is being deviated from most of the time, but very rarely are such deviations random.

Jarraian, Plank saiatzen da aztertzen zein izan daitezkeen hizkuntza bat edo, hobeki esan, bere gramatikaren atal bat eredu eransle gogorretik aldentzeko arrazoiak: “[It is] the admissible splits on individual parameters and the admissible interplay of separate parameters, that need accounting for —typologically or diachronically”. Eta tipologiarekin dena azaltzerik ez dagoela, honako hau esaten du: “[I]t is only natural to turn to diachrony for help at least with the unfinished business, if not for a comprehensive account in its own right” (1999: 322). Nire proposamenean horixe egin dut: diakroniaren ikuspegitik neurtu dut hipotesi eranslea, euskal deklinabide mugatuaren esparruan.

Aldaketa modu zenbait eta morfemen jatorri ezberdinen adibideak aipatzen ditu Plankek, tipo morfologiko puruetara eraman lezaketanak; bere eztabaidan, euskal

datuetarako esanguratsuak izan daitezkeen hiru ohar nagusi egiten ditu: lehena, “It is only invariant cumulative morphology that is difficult directly to trace to corresponding ancestral words” (1999: 323). Horrelakoa da euskaraz pluraleko deklinabide osoa: erg. -*ek*, gen. -*en* eta leku-kasuetako -*eta*- atzizkiak kasu-markaren, mugatutasunaren eta pluraltasunaren adierazle dira, ezaugarriak morfema bakarrean metatuta, era kumulatiboan, eta, era berean, aldaezinak (“invariant”) dira (izen sintagma bizidunen leku-kasuak gorabehera). Esanguratsua da, zinez, marka horien jatorri zehatza azken mendeko euskal hizkuntzalaritzan eztabaidagai izan izana, maileguaren hipotesia ere egonik tartean (cf. -*eta*-, 5.2.6 atala); horixe bera esan nahi du Plankek, “difficult to trace to corresponding ancestral words” dioenean.

Bigarrena Planken hitzotan aurki daiteke (1999: 324):

When two separatist exponents (or also grammatical words [...]) are frequently juxtaposed, they are prone to be phonologically fused to the extent that they may end up cumulative. Number and case on nouns, or also definiteness markers and post-positions closely attached to nouns in the singular or plural [...] should meet this precondition [...]

Azken batean, euskal deklinabide mugatuan horixe dugu: jatorrian, erakusle mailan, *hek*, *hen* eta *hetan* modukoetan, arazoak arazo, modu bereizian (“separatistan”) analiza daitezke barne osagaiak: *he-k*, *he-ta-n* etab. Are gehiago gramatikalizatu direnean eta deklinabide mugatua osatuz izen sintagmari erabat lotu —cf. Planken aipuko “frequently juxtaposed” eta “phonologically fused [neurri batean]”—, kumulatibo edo metatu itxura hartu dute, eta ez da hain erraza, ikuspegi sinkronikoan, barne osagaiak bereiztea.<sup>476</sup> Zinez da aipagarria, hain zuzen, Plankek aipatzen dituen kategorietan gertatu izana hori euskaraz ere, mugatutasunaren, postposizioen eta numeroaren adierazleekin.

Hirugarren oharra egoera sinkroniko modernoari aplikatu dakioke, edo egin daitezkeen analisi sinkronikoei (1999: 324):

<sup>476</sup> D-elementuen gramatikalizazioaren eztabaidan koka daiteke honako hau ere: “In the diachronic part of the scenario, the normal course of events would be for the morphological bonding of radical elements and exponents [...] to become increasingly tighter. To prevent developments from getting out of step, typology’s contribution would be to license [...] such changes as *promote cumulation and variance only on condition that separatist and invariant exponents have already been bound more tightly*” (Plank 1999: 326; etzana nirea).

Given the right syntagmatic and paradigmatic circumstances, a cumulative exponent may be reanalysed (or metanalysed) as morphologically complex, separately expressing the respective categories.

Plankek aipatzen duen metanalisiaren eremuan, hots, gramatikagintzan eta “sakoneko egituretan”, *-ag* eta *-k* osagaiak bereizi izan dira erg. pl. *-ek* atzizki metatuzkoan, zein bere kategoriaren adierazle moduan (numeroa eta kasu-marka; ik. 2.4.2.5.1 atala). Baina are interesgarriagoa da jakintza metalinguistikotik kanpo gaur egun gertatzen ari dena; izan ere, *-e-* pluraleko marka soil eta bereizitzat berranalizatu da hainbat hizkeratan: cf. berez mugagabe eta, horrenbestez, D-elementurik gabeko *zenbait tokietan* edo *zenbait lagunei* —arauzkoak *zenbait tokitan* eta *zenbait laguni* dira—, non *-e-* morfema, jatorrian D-elementua dena, pluraltasun marka moduan berranalizatu den, eta sintagma mugagabeetan erabili, sintagma horien pluraltasun semantikoa morfologikoki ere adierazteko;<sup>477</sup> beste aukera bat da, ez ezinbestean kontrajarria, pluraleko D-elementu osoek bere erabilera zabaldu izana, *-e-* morfemaren berranalisirik gabe. Plankek berak ing. *’s* genitiboaren berranalisiaren adibidea dakar, eta ohartarazten du “they are only licensed [...] to be reanalysed as looser appendages once they have become invariant and preferably also separatist” (1999: 327).

#### 7.1.6 Euskararen eransletasuna eta *Himmelmannen orokortzea*

Aurreko azpiataletan egindako ohar nagusiaz gain —deklinabide mugatuaren morfologia diakronikoa ez da azaldu behar eredu eranslearen arabera—, beste gai bat ere aipatu behar da, eransletasunaz eta euskaraz ari garela: euskara salbuespena da, hizkuntza eransleek artikulurik ez izatea delako joera.

D-elementuen gramatikalizazioaren eta adposizioen gramatikalizazioaren arteko interakzioa aztertzen du Himmelmannek (1998; 3.1.3 atala). Bere analisiak egoki azal dezake kasu-marka eransleak dituzten hizkuntzetan eskuarki artikulatu definiturik ez izatea (3.1.3.3. atala); berriro dakart hona joera horren berri ematen duen aipua (1998: 339):

If a language has an elaborate paradigm of agglutinative case markers, including markers for core

<sup>477</sup> Aurki daiteke honen adibiderik testu zaharretan: BerMez 32 *obligaciosco asco gauzetan*.

cases such as nominative/ergative, accusative/absolutive, dative, and genitive as well as local cases such as locative, allative, ablative, then with overwhelmingly more than chance frequency, it will not have definite or specific articles.

Himmelman bera ohartzen da badirela hizkuntza batzuk kasu-marka eransleak izanik, artikulua ere badutenak. Joeraren aurkako salbuespen hauek azaltzeko, azalpen diakroniko bat ematen du, argitzeko nolatan diren artikuludunak hizkuntza horietan sintagma kasu-marka eransledunak edo adposizio primariodunak:

◆ Kasu-marka eranslea edo adposizio primarioa izan baino lehen, kasu-marka edo adposizio hori adposizio sekundarioa izan bada eta adposizio sekundario zela sintagma artikuludunetan agertzen bazen —horretarako murriztapenik ez dago Himmelmannen analisian—, ez dago arrazoirik adposizio sekundariotik primarioarako gramatikalizazio bidean sintagma artikulua erabilerara jatorrizkoa murrizteko, egitura bera gramatikalizatzen baita osorik, hau da, sintagma adposizional artikuluduna (ik. 3.1.3.2 atala).

Himmelmannen azalpen diakroniko honen adibide moduan, onar dezagun euskarazko *-kin* sozietiboaren etimologia klasikoa (Schuchardt 1893: 29), (*k*)*ide* hitzarekin lotzen duena.<sup>478</sup> *Kide* hitzak izen erlazional moduan jokatu zuen, adposizio sintagma konplexuak osatuz, hain zuzen ere gaur egun *atze* edo *aurre* hitzek bezala —cf. *etxe-aren atzean*, *etxe-aren aurrean*, etab.—, eta sintagmako izen nagusiari genitiboaren bitartez lotuko zitzaion: *\*lagun-a-re kiden*. Honela irudika liteke izen erlazional horren gramatikalizazio bidea:

(6) *\*lagun-a-re kiden* > *\*lagun-a-re-kien* > *lagun-a-re-kin* > *lagun-a-kin*  
(hizkera arruntean)<sup>479</sup>

<sup>478</sup> Zenbait arazo ditu hipotesi honek: *ide* aldaera aintzat hartuta, badirudi herskaria berria dela (EHHE s.v. *ide/kide*), hitza elkartuetan bigarren osagai gisa agertzearen ondorio, eta ez dirudi sintagma modu horretan *-kide* aldaera agertzeko aukerarik dagoenik (*-ide* agertu beharko litzateke); *-ki* eta *-kila* aldaerak baditu sozietiboak, eta *-kien*, arkaismo moduan azaldu beharrean, bestela azal liteke, ez baita, beharbada, kasualitatea gen. pl. *hekien* eta halakoak dituzten hizkeretan aurkitzea; azkenik, errazagoa litzateke, gainera, aditzondoetako *-ki* atzizkiarekin lotzea, Schuchardtek berak nahi duen bezala. Bestalde, hona zer dioten Heinek eta Kutevak: “[T]he data supporting this pathway are not entirely satisfactory” (2002: 91-92). Beste aukera bat izan liteke *-ki* atzizkia izatea hor, *-n* inesiboarekin.

<sup>479</sup> Cf. jadanik Landuchio: singularrean *loyaquin olçac varr[i]tu*, *vesteren emaztequin essin*, *agudezea*

Bilakaera horren arabera, hastapenean izen erlazional gisa adposizio sintagmak osatzeko erabiliko zen *kide* hitza; baina, adposizio sintagmen gramatikalizazio bidean aurrera eginenez, adposizio sekundarioen eta are primarioen ezaugarriak bereganatuz joan da: morfologikoki sinplea da —silaba bakarrekoa da *-kin*— eta, hastapeneko izentasuna eta zama semantikoa galdurik, oinarritzko esanahi objektibo bat bereganatu du, soziatiboarena.

Ageri denez, bere gramatikalizazio bilakaeraren hastapenetik du *-a-* artikulua *kide* izen erlazionala duen adposizio sintagmak; Himmelmannen azalpen diakronikoaren barrenean, artikulua atxiki du adposizio primario gisa gramatikalizatu denean ere (onar dezagun *-kin* hala sailka daitekeela). Hortxe dugu, diakronikoki azaldurik, nolatan ager daitekeen artikulua definitua adposizio primarioa duen sintagma batean.

Alabaina, Himmelmannen azalpen diakroniko honek ez du euskal datuen muina azaltzen: euskal artikulua sortu zenerako, badirudi euskal deklinabide sistemaren muina kasu-markaz eta postposizio primarioz zegoela osaturik (ik. 3.1.3.4 atala); kasu-marka eransle eta postposizio primario horiez osaturiko sintagmetan, ordea, *-a* artikulua definitua ager daiteke (cf. erg. sg. *etxe-a-k*, ines. sg. *etxe-a-n* etab.). Euskara joera horren salbuespena da Himmelmannen azalbide diakronikoaren barrenean ere.

Nire iritziz, bada modurik euskara salbuespena ez dela erakusteko eta Himmelmannen azalbide orokorraren pean ezartzeko: salbuespenak azaltzeko, adposizio sintagma artikuludunen gramatikalizazioaren bidetik jotzen du Himmelmannek, arestiko soziatiboaren adibidearekin irudikatu dudana bezala; beste aukera logikoa da txanponaren beste aldeari begiratzea, eta D-elementuen gramatikalizazioaren bidetik azaltzea adposizio edo kasu-markadun sintagmetan artikulua agertzea. Har dezadan horretarako *han* D-elementuaren gramatikalizazioaren adibidea, lehen *kide* izen erlazionalarena hartu dudana bezala; honela irudika daiteke gramatikalizazio bide hori:

$$(7) \quad *etxe \textit{ han} > *etxe\textit{-han}^{480} > etxean$$

---

*maliçiaquin*, *errodomea vraquin*; mugagabea, cf. *amadia honestidadequin*, *artifiçioquin* (*artificialmente*).

<sup>480</sup> 5.2.3.7 atalean esan bezala, baliteke egoera hau lekukotua izatea, eta izartxorik behar ez izatea (cf. *neurehan*).



Bilakaera horren arabera, adposizio eta guzti gramatikalizatzen da D-elementua sintagma mota horretan; hastapenean izenaz eta erakusle deklinatu batez osaturiko sintagma gramatikalizatu egiten da, eta, azken buruan, izen sintagma mugatu eta adposizioduna bilakatzen.

4. irudiak irudikatzen du Himmelmannen azalpen diakronikoa eta nirea elkarren osagarri direla:

Himmelmannen azalpen diakronikoa Adposizio sintagmaren gramatikalizazioa <sup>481</sup>	Azalpen diakroniko osagarria D-elementuaren gramatikalizazioa
<i>*lagun-a-re kiden</i> ‘lagunaren laguntzaz’ (Sintagma artikuluduna adposizio sekundarioarekin)	<i>etxe han</i> ‘etxe hartan’ (Deklinaturiko erakusleaz osaturiko sintagma)
∨	∨
<i>lagunakin</i> (Sintagma artikuluduna adposizio primarioarekin)	<i>etxehan</i> > <i>etxean</i> (Deklinaturiko artikuluz osaturiko sintagma)

4. irudia. Artikulu definitua nola sartu den adposizio primarioa duten sintagmetan.

Arestiko adibideko (7) bilakabidea 7.1.4 ataleko 27. taularen parte da; euskal deklinabide mugatuaren muinaren bilakabide diakronikoa biltzen du taula horrek: horrela, deklinabide mugatu osoa sar daiteke Himmelmannen azalpen orokorraren barrenean, eta, bilakaera diakroniko jakin horren arabera, azalduta geratzen da salbuespen uste zena.

Ikuspegi honek bi modutan berresten du Himmelmannen orokortzearen balioa: batetik, salbuespenak azaltzeko ematen duen azalpen diakronikoa osatzen du, baina bere azalpen orokorretik atera gabe, eta, bestetik, ageriago uzten du euskararen kasu eta adposizio sistemaren izaera eranslea, D-elementuen gramatikalizazioa izan baita, izatekotan, euskal gramatikaren atal bat eredu horretatik aldenarazi duena.

Bukatzeko, azken ohar horren harira, puntu bat nabarmendu nahi nuke, paradoxikoa gerta daitekeena sarrera moduan (7.1.1 atala) aipaturiko gramatikalizazioaren eta eransletasunaren inguruko eztabaiden historia partekatuaren begietara: eredu eranslearen aurkako paradigma berriak ekarri ditu D-elementuen gramatikalizazioak. Ez da paradoxikoa, ordea, lotura historiografiko hori alde batera

<sup>481</sup> Himmelmannen aukera diakronikoa irudikatzea du helburu adibide honek, ez besterik; ez du ezinbestean adierazi nahi halakoa izan zenik euskal sozietate mugatuaren bilakaera diakronikoa.

utzi eta Himmelmannen aipuko joerari begiratzeko badiogu: D-elementuen gramatikalizazioa ez da gertatu eredu eranslearen arabera, eta hizkuntza tipo horri egokitzen ez zaion ezaugarri bat sortu da, artikulua definitua izatearena, hain zuzen ere.

#### 7.1.6.1 Euskaraz besteko Himmelmannen salbuespenak

Hungariera eta mordvera —erziera eta mokxera adarrekin— ere joeraren salbuespenak dira, Himmelmannek dioenez. Hungarierari buruzko eztabaida ttiki bat dakar, eta alemanierarekin izandako ukipena ere aipatzen du, salbuespenaren nondik norakoa azaldu nahian (1998: 350, 34 oh.).

Mordverari dagokionez, galdetzen du artikulutzat jo ohi direnak ez ote diren oraindik erakusle (1997: 155, 58 oh.), baina arazoari horrela heltzeak ez du beratu konponbidean ezartzen, D-elementuen *continuum* izaera gogoan hartzen badugu. Hizkuntza uralikoez ezer gutxi jakin gabe, galdera egingo nuke euskararen antzeko bilakaerarik gertatu ote den mordveraz ere, eta kasu-marka duten erakusleak osorik gramatikalizatu ote diren han ere. Kontsultatu dudako bibliografian ez dut aukera horretan sakontzeko biderik atzeman, baina merezi du hiru ohar egitea, hizkuntza horien eta euskararen artean izan litezkeen kidesunetan sakontzeko:

- (a) Zinez deigarria da erzieraren deklinabide paradigma (Zaicz 1998: 193):<sup>482</sup> batetik, paradigma mugagabea du (“indefinite” jatorrizkoan, gure *A Grammar of Basque* liburuan bezala, Hualde 2003: 173-174), eta, bestetik, mugatua, eta, honen barrenean, singularrekoa eta pluralekoa bereizten dira. Euskararena bezal-bezalakoxea.
- (b) Hala berean da aipagarria ikustea hango adituek ere badituztela arazoak eredu eransleen araberrako analisi sinkronikoak egiteko (Zaicz 1998: 191-192):

Synchronically, it is no simple matter to derive the D[efinite]D[eclension] from an agglutinating analogue made up of these definiteness markers and the case suffixes of the I[ndefinite]D[eclension], and no such segmentation is essayed here.

Euskal hizkuntzalaritzan aurki daitezkeen kide-kidekoa da arazo hau ere.

<sup>482</sup> Antzekoa dakar Collinderrek mordveraz ari dela (1957: 230-232), baina badirudi bereizi egiten dituela singularra eta plurala bere “indefinite” horren barrenean ere (taulan “indef. sg.” dakar).

- (c) Ukipenaren azalpenak, bestalde, ez du balio mordveraren kasuan, errusierak ez baitu artikulurik (Wälchli 2011: 331):

It is true that Hungarian, one of the two clear cases of article languages, is in contact with other article languages, but this does not apply to Mordvin, which has a complex definite declension having evolved from postposed demonstratives.

Auzi hauetan guztietan, jakina, hizkuntza uralikoen diakronian adituak direnek dute hitza. Baina euskalarien artean izan da lehenago ere euskararen eta mordveraren kidetasunak ezarri dituenik; ikus zer dioen Bonaparte printzeak: “Le morduin seul parmi les langues finnoises possède une déclinaison définie qui correspond exactement à celle de la langue basque” (1862: 13).

## 7.2 Ergatibitate erdibitua euskal determinatzaile sintagman<sup>483</sup>

Honela defini daiteke ergatibitate erdibituaren fenomenoak: hizkuntza batek eredu nominatibo-akusatiboa darabil gramatikaren atal batean, eta ergatibo-absolutiboa beste batean. Ergatibotzat jotzen diren hizkuntza gehienek dute ezaugarri hau, eta, horregatik, “hizkuntza ergatiboez” hitz egitea baino egokiago deritzo Comrie (1975: 120) sistemen ergatibotasunaz, nominatibotasunaz eta abarrez hitz egitea:

This implies that one and the same language may have different case-assignment systems in different areas of its syntax. There are several languages which are nominative in some tenses but ergative in others, e.g. Georgian, and Punjabi (Comrie 1973: 245-249). Strictly speaking, then, one should speak of the nominative, ergative, etc., system, rather than of nominative, ergative, etc., languages, given that a single language may have more than one system.

Zenbait irizpideren arabera deskribatu izan da ergatibitate erdibituaren fenomenoak. Traskek (1979: 385-386), esaterako, bi ergatibitate erdibitu mota nagusi bereizten ditu; honela formulatzen du:

- (5) It is very common for ergativity to be confined to certain tenses or aspects of the verb; in such cases, it is always the past tense or the perfective aspect which is ergative, while the non-past or

<sup>483</sup> Atal hau lehenagoko lan batean ergatibitateaz egindako galdera baten garapena da (Manterola 2009: 272). Dixonen (1994: xxii) notazioari lotuko natzaio: A-k adieraziko du perpaus iragankorretako subjektu funtzioa, S-k perpaus iragangaitzetako subjektu funtzioa, eta O-k perpaus iragankorretako objektu funtzioa. Dixonen (1994: 109-110) notazioaren arabera adieraziko ditut alineazio motak eta erdibitzaiek ere: eredu ergatibo tipikoa A-SO erabilita adieraziko da; hiru funtzioak berdin markatzen direla (hots, homomorfoak direla) adierazteko, ASO, eta abar; ereduaren arteko erdibitza “/” bitartez adieraziko da, A-SO/ASO, adibidez.

imperfective verb forms show accusative constructions.

[...]

(8) It is very common for ergative constructions to be used only when certain types of NPs, or certain combinations of NPs, appear in the subject and object positions.

Autore honek dioenez, gramatikaren bi atalen arabera deskribatu izan da ergatibitate erdibituaren auzia:<sup>484</sup> aditzaren arabera eta izen sintagmaren arabera. Jarraian dioenez, ergatibitate erdibitua aditzaren atalean duen hizkuntza batek ez du izenarenean izango, eta alderantziz.

### 7.2.1 Deskripzio klasikoa: euskaraz ez dago ergatibitatearen erdibitzerik

Honela sailkatzen du Traskek euskara ergatibitate erdibituari dagokionez: “Relatively few ergative languages appear to be entirely free of the two types of split ergativity mentioned in points (5) and (8); among these few are Basque and the Mayan language Tzeltal” (1979: 386).

Trasken ustez, euskara da ergatibitate erdibiturik ez duen hizkuntza gutxietako bat, nahiz eta aurrerago ohar bat egiten duen (1979: 400), esanez horren aztarnaren bat aurki daitekeela adizkietako pertsona-marken morfologian. Beste hainbat deskripzio klasikotan ere nabarmendu ohi da euskararen inongo erdibitzerik gabeko ergatibitate orokorra, adizkietako pertsona-marken morfologia kontuak gorabehera. Hona Brettschneiderren hitzak (1979: 372):

Basque can be considered an “unrestricted formal ergative language” [...] since there is no functional opposition between an ergative-transitive and a nominative-ergative construction, [...] and since the ergative-absolutive distinction is maintained in all tenses and moods.

Iritzi bera agertzen du Bossongek (1984: 353):

[T]his language [euskara] represents the ergative type with a purity rarely found among the world’s languages. On the level of morphology, not the slightest trace of accusativity can be detected. Ergativity dominates as the organizing principle without any mixture. As has become obvious from all that has been said, this holds true for nominal and verbal morphology alike.

Dixonek aipatzen dituen hiru erdibitze motak euskaraz ba ote dauden galdetzen du

---

<sup>484</sup> Deskribatu izan da ergatibitate erdibituaren fenomeno gramatikaren beste atal batzuetan ere: DeLancey (1981), esaterako, hirugarren bat gehitzen die Traskek aipatzen dituen bi mota horiei, aditz iragangaitzen markatzeari dagokiona (ik. 7.2.1.3 atala), eta azalpen bateratu baten proposamena egiten du. Ikus besteak beste Dixonen (1994: 70-110) lana, erdibitze moten sailkapen xehearekin.

Bossongek (1984: 345-353; izenaren arabera, aditzaren semantikaren arabera, eta denbora/aspektuaren arabera), eta ez du antzematen horien zantzurik. Adizkietako pertsona-marken auzia ere aipatzen du, baina, dioenez, bere analisiaren arabera ez dago ergatibitate erdibituaren adibidetzat jo beharrik (ik. behean).

Idea beraren bidetik jotzen du Heathek ere: “Curiously, Basque turns out to be perhaps the most thoroughly ergative [language], lacking any significant splits of this kind” (1981: 434). Dixonek, halako lanei jarraiki, honela dio bere eskuliburuan: “Basque [...] is fully ergative at the morphological level” (1994: 2).

Berrikiago, antzeko ideia antzeman daiteke Lakaren lanetan ere (2006b: 381):

This approach can also account for the fact that case is freely assigned in infinitivals, and could explain why Basque stands as one of the few (if not the only) ergative grammars with no antipassive, and no true case-split, both common features of ergative languages, not to be expected if case is indeed inherent.

Azkenik, interesgarria da Aldaik dioena, izan ere Trasken eta besteren tradizioan kokatzen baitu bere burua, ergatibitate erdibituaz denaz bezainbatean, baina gogoeta egiten du euskararen “ergatibitate mailaz”, aditz ez-ergatiboaren eztabaidaren bidetik; are interesgarriagoa da bere iritzia, gogoan hartuta autore honek adizkietako pertsona-marken ergatibitate erdibituaren (ik. behean, Aldai 2000) azalpen diakroniko bat ematen duela beste lan batean (2009: 826):

Some scholars (cf. Trask 1997, 2002) have emphasized the fact that Basque has “thoroughgoing ergative morphology” and fails to “exhibit any kind of split” (2002: 282). While this statement is descriptively correct, it seems to imply that Basque is “very ergative”.

Ezaugarri komun bat antzeman daiteke, euskaraz ergatibitate erdibitze nabarmenik ez dagoela dioten tradizio honetan: adizkietako pertsona-marken auzia gorabehera, autore gehienek nabarmendu ohi dute ez dagoela aspektuaren edo denboraren arabera erdibitzerik.

Azken ohar bat egin behar da ustezko ergatibitate orokor honetaz: homofonia eta neutralizazioa aipatu ohi dira, morfologikoki ergatiboa eta absolutiboa bereizten ez duten osagai gramatikaletarako; egoki biltzen du Albizuk ikuspegi hau (2011).<sup>485</sup>

<sup>485</sup> Cf. orobat Oihartzabal: “Malgré les situations où les oppositions morphologiques se neutralisent, l’ergativité en basque présente donc un caractère étendu et n’alterne jamais avec une morphologie

Oro har, euskarak oso modu sendoan eusten dio aurkeztutako lerratze ergatiboari (ikus baina Ergatiboa ala aktibo-ezaktibo/pasibo-ezpasiboa? atala). Badira salbuespen gutxi batzuk. Horietan, salbuespenak *diferentzien noizbehinkako neutralizazioaren edo berdintzearen ondorio dira*. Argumentuen kasu-markaketari dagokionez, euskara batuan erakusle pluralen forman aurkitzen dugu neutralizazioa (*hauek, horiek, haiek* berdin balio dute ergatiborako nahiz absolutiborako) eta mendebaldeko eta erdialdeko euskalkietan mugatzaile pluralarenean (*-ak* mugatzaile plurala berdin egiten da absolutiboan nahiz ergatiboan) [...] Bi arrazoi ditugu neutralizazio horien guztien azpian: batetik, pluralgilearen eta ergatiboaren arteko homomorfia (*-k*) eta, bestetik, bilakabide fonologikoak. [Etzana autorearena]<sup>486</sup>

Ikuspegi klasikoaren lekuko da Albizu: euskararen eredu ergatiboa sendoa da. Horretaz gainera, eredu horren barreneko salbuespenak aipatzen ditu, eta neutralizazio edo berdintzearen bitartez azaltzen. Salbuespen horiek azalduko ditut, hain zuzen ere, atal honetan: nire ustez, numeroaren araberrako ergatibitate erdibitua deskriba daiteke determinatzaile sintagmaren barrenean, erakusleak eta izenordain zenbait barne.

### 7.2.1.1 Aditzaren aspektuaren araberrako ergatibitate erdibiturik euskaraz?

Traskek dioten bezala, zenbait hizkuntzatan perpausaren denboraren edo aspektuaren arabera deskriba daiteke ergatibitate erdibitua; horren adibide dira paxtuera (Roberts 2001) eta hindia (Verbeke eta De Cuypere 2009), edo Comriek (1973) aipaturiko georgiera eta punjabera, beste hainbaten artean.

Euskarari dagokionez, hauex dio McGregorrekin, ergatibitate erdibitu mota honetaz ari dela: “Similarly in Basque (Isolate, Spain), Agent NPs do not take ergative marking in progressive aspect” (2009: 491); Coonek eta Premingerrek ere (2012: 311) ikuspegi hau agertzen dute, baina ikus, behean, Coonen bakarkako lanetako aipuak. Honen arabera, euskarak Dixonen (1994: 99) orokortzea betetzen du, zeinaren arabera soilik aspektu perfektiboan edo lehenaldian dagoen eredu ergatiboa, aspektuaren edo denboraren araberrako ergatibitate erdibituaren fenomenorik izatekotan.<sup>487</sup>

Nire ustez, nahasgarria da deskripzio hori: konparatzen baditugu *nik telebista ikusi dut* eta *ni telebista ikusten ari naiz* —cf. halaber mendeb. *ni telebista ikusten*

accusative” (1999: 10). Neutralizazio hitza darabil Aldaik ere (2014: 226).

<sup>486</sup> Nabarmenduta emandako pasartea baino lehen, “Horietan Salbuespenek” dakar autoreak; zuzendu egin dut.

<sup>487</sup> Dirudienez, orokortze honen aurkako adibideak aurki daitezke Jê taldeko Canela hizkuntzan (Gildea eta de Castro 2010: 191). Familia honetakoa da Mëbêngôkre hizkuntza, eta, bere ergatibitate erdibituar buruzko argibide gehiagorako, ikus Reis eta Salanova (2000); hitzaldi batean, Reisek berak (2008) Lakaren analisisa (2006) hartzen du abiapuntu gisa, hizkuntza horretako ergatibitate erdibitua azaltzeko.

*nabil*—, egia da aspektu progresiboa duen bigarren perpausak ez duela bere subjektua (“Agent NP”) kasu ergatiboarekin markatzen, baina egia da, era berean, perpaus horretan aditz nagusia ez dela iragankorra: hots, aditz ezberdinak konparatzen ari gara bi perpausetan, *ikusi* eta *ari*. Banaketa hau gertatzen da euskarak *ari* edo *ibili* aditz iragangaitzak erabiltzen dituelako aspektu progresiboa adierazteko, ez aspektuaren arabera ergatibitatea erdibitua duen sistema delako. Funtsean, *ni telebista ikusten hasi naiz* moduko perpausarekin konparatu behar dira euskarazko *ari izan* progresiboak, egitura konplexuko perpaus gisa.

Dirudienez, Laka da lehendabizikoa (1996, 2004)<sup>488</sup> *ari* aditza aspektuaren araberrako ergatibitate erdibituaren eztabaidan kokatzen, baina berak du baztertzen (2006a, 2006b), hala berean, ergatibitate erdibituaren hipotesia: “The so-called *ari*-construction is not an instance of split ergativity in Basque” (2006a: 191), edo, beste modu batean esanda, “There is no dissociation between case and theta role in the progressive either” (2006b: 379). Nabarmentzen du, halaber, egitura horietan itxurazkoa baizik ez dela ergatibitate erdibitua (2006a: 174):

[T]he account derives an apparent case of split ergativity without resort to the notion of a “case split”. That is, without necessarily assuming that a change to an accusative pattern has taken place.

Ergatibitate erdibituaz besteko fenomenoak daude *ari* aditzarekin osaturiko perpausetan.<sup>489</sup> Bestela esanda: modu oso eskuzabalean hartuta baizik ezin da ergatibitate erdibituaz hitz egin euskarazko progresibozko *-t(z)en ari izan* perifrasi hizpide dugunean, progresibozko euskal perpausen egiturari begiratu gabe baizik ez. Aditz bakoitzak duen argumentu egiturari hertsiki lotzen bagatzaizkio eta kasu ergatiboa zein absolutiboa aditzaren rol tematikoek ezartzen dituztela onartzen badugu — absolutiboa ezartzen dio *ari*-k bere argumentuari—, ez dago ergatibitate erdibiturik.

<sup>488</sup> Lan hauetako batean ez du izendatuki hitz egiten ergatibitate erdibituaz, eta honela formulatzen du: “The progressive verb *ari* alters the case pattern of a transitive sentence” (1996: 3.2.1. atala).

<sup>489</sup> Honela dio: “[Split ergativity] is a cover descriptive term for a set of different but limited grammatical phenomena that yield the observed changes in case assignment without switching to an accusative system” (Laka 2006a: 176). Lakaren lanaren jarraitzaile, Coonek ere auziaren muina modu bertsuan deskribatzen du, chol hizkuntzaz ari denean: “I argue that splits are the result of different structures, rather than different rules of Case assignment or agreement” (2012: 241); ik. halaber Coon (2010, 2013: 191-194).

Are gehiago galtzen du, gainera, aspektuaren arabera ergatibitate erdibituaren hipotesiak bere funtsa, beste bi datu aintzat hartzen baditugu: (1) aspektu progresiboko perpausetan, aldaketa bat gertatzen ari da XIX. mendean geroztik, aditz nagusi bilakatzen ari baita hainbat hizkeratan *ari* aditzaren menpeko aditza, eta, iragankorra denean, bere argumentu egituraren arabera gertatzen baita kasu ezarketa; cf. *ariketak egiten ari ditu* bezalako perpausak; xehetasun diakronikoetarako, ikus Mounole (2010: 160-163). (2) Aspektu progresiboko perpausak egiteko beste aditz bat ere erabiltzen da mendebaldean, *jardun*, eta horien subjektua beti markatzen da ergatiboarekin (cf. *aitak lanean dihardu*).<sup>490</sup> Honek argi uzten du eredu ergatiboa edo absolutiboa aukeratzea ez dela perpausaren aspektuaren arabera, aditzaren argumentu egiturari dagokion kasu ezarketaren arabera baizik.

#### 7.2.1.2 Ergatibitate erdibitua adizkietako pertsona-marken sisteman

Aurreko atal batean (5.5.5.2) Silversteinen hierarkia aipatu dut; antzekoa dakar Dixonek ere, *Izenaren Hierarkia* izenpean (“Nominal Hierarchy” ingelesez, 1994: 85). Berrero dakart hona aurreko ataleko eskema:

(8) 1. p/2. p → 3. p → pertsonak → animaliak → [bizidunak] → bizigabeak

Euskarazko zenbait daturen eztabaida hierarkia honekin lot daiteke, parte batean bederen. Hainbat autorek aipatu edo aztertu dituzte Traskek (1979: 400) gogorarazten dituen adizkietako pertsona-marken gorabeherak: cf. Heath (1976: 208, 1981: 440), Brettschneider (1979: 383, 5 oh.), Bossong (1984: 345-353), Ortiz de Urbina (1989), Laka (1988, 1993), Gómez eta Sainz (1995: 261-265) eta Aldai (2000). Azkuek ere deskribatu zuen gerora ergatibitate erdibitutzat jo izan den adizkietako fenomenoak (*Morf* §791).

Ondoko lerroetan labur azalduko dut nola azaldu diren adizkietako pertsona-marken gorabeherak ergatibitate erdibituaren hipotesiaren arabera. Ortiz de Urbina lan klasikoa hartuko dut oinarri (1989: 11):

<sup>490</sup> Aditz hau ere kontuan hartzekoa izan daiteke, Aldaik (2009) mendebaldeko hizkeretarako proposatzen duen aditzen “patientive/non-patientive” sailkapenaren eztabaidan.



However, there is a well-known case of split in the person agreement system cross-referencing noun phrases on the verb. In the past tense, first and second person *ergative* noun phrases are cross-marked in the verb by *absolute* agreement markers when the absolute is third person.

Ergatibitatearen erdibitza ikusten du Ortiz de Urbinak adizki jokatuetakoa pertsona-marken kodetzean. 1. pertsonako marka duten *naiz*, *nintzen*, *nau*, *ninduen* eta *nuen* adizkiak har daitezke, labur azaltzeko: lehen lauetan bakartzen duen *n-* aurrizkiak S eta O markatzen ditu; aurrizki horrek berak A markatzen du *nuen* lehenaldiko adizkian (orainaldian ez dago horrelakorik, cf. *dut*). Absolutiboetarako erabiltzen den marka bera erabiltzen da perpaus trantsitibo bateko subjektua markatzeko, eta hortxe legoke erdibitza: lehenaldian ez dago eredu ergatiborik 3. pertsonako objektua duen perpaus baten subjektua lehen edo bigarren pertsonakoa baldin bada. Analisi honek ergatibitate erdibitza bitxi baten berri ematen digu, Ortiz de Urbinak berak (1989: 13-15) zerrendatzen dituen arrazoiengatik: (1) erdibitza hau ez da izen sintagman gertatzen, Silversteinen eta Dixonen hierarkiaren arabera erdibitzaetan izan ohi den bezala, adizkietako pertsona-marken sisteman baizik; (2) erdibitza honek, izen sintagmaren izaeraz gain, denbora ere hartzen du aldagai moduan, eta hau, Trasken arabera bederen, ezina da; eta (3) ergatiboa ez den erdua lehenaldian agertzen da, joera orokorraren aurka.

Ez dute denek erdibitza moduan deskribatu fenomeno hori. Deskripzio bertsua egiten du Lakak (1993: 53), baina, ergatibitate erdibituaren adibide moduan hartu beharrean, *ergatiboaren lekualdatzea* izendatzen du fenomenoak: 1. eta 2. pertsonako A markak aurrizki moduan ageri dira, lehenaldiko adizkietan objektua 3. pertsonakoa denean; orainaldian, adizkiaren amaieran agertzen dira. Honela formulatzen du berak (Laka 1993: 56):

[I]t is a morpheme order altering phenomena, but it does not have any syntactic effect [...] The phenomenon does not seem to correlate in any relevant respect with other cases of inflectional morphology altering processes, like antipassive or split ergativity, which do have syntactic consequences. Moreover, the conditions that trigger Ergative Displacement do not appear to fall under a single general factor.

Azterketa diakronikoetan, aipagarria da Gómezen iritzia: “[E]z nau inoiz asebeste *dut* / *nuen* alternantzia azaltzeko erabili izan den *split ergativity* edo ergatibotasun hautsia dagoelako erizpideak” (1994: 104); cf. halaber Gómez eta Sainz (1995: 261-265).

Bossongek ere (1984: 349-353) biltzen ditu erdibitze honen hipotesiaren aurkako argudioak. Aldaik (2000), ordea, ergatibitate erdibituaren hipotesiari eusten dio, azalduz erdibitze horretan antzinako antipasibizazio arau bat dagoela.<sup>491</sup>

Ageri den bezala, ez dago iritzi batasunik analisi sinkroniko zein diakronikoetan, erabakitzeko zinez ergatibitate erdibituaren adibide bat ote dugun; esanguratsua da, nolana ere, azken urteetako lanetan, Lakaren *ergatiboaren lekualdatzea* termino deskriptiboa gailendu izana (cf. besteak beste Hualde et al. 2003: 207).

Horretaz gainera, mahaigaineratu nahi nuke datuak beste modu batean aztertzeo aukera, azaleratzeko ergatibitate erdibituaren hipotesi klasikoaren ahultasuna. Hona eztabaidarako esanguratsuak diren datuak, hiru taulatan bilduta:

	A	S	O
1 sing.	<i>du-t</i>	<i>n-aiz</i>	<i>n-au</i>
2 sing.	<i>du-k/du-n</i>	<i>h-aiz</i>	<i>h-au</i>
1 pl.	<i>du-gu</i>	<i>g-ara</i>	<i>g-aitu</i>
2 pl. <sup>492</sup>	<i>du-zu</i>	<i>z-ara</i>	<i>z-aitu</i>

28. taula. Orainaldiko adizkiak, pertsona-marka soilak bereizita eta sailkatuta.

	A	S	O
1 sing.	<i>n-uen</i>	<i>nin-tzen</i>	<i>nin-duen</i>
2 sing.	<i>h-uen</i>	<i>hin-tzen</i>	<i>hin-duen</i>
1 pl.	<i>gen-uen</i>	<i>gin-en</i>	<i>gin-tuen</i>
2 pl.	<i>zen-uen</i>	<i>zin-en</i>	<i>zin-tuen</i>

29. taula. Lehenaldiko adizkiak, pertsona-markak eta *-in/-en-* nabarmenduta eta sailkatuta.

<sup>491</sup> Arazo zenbait ditu Aldairen hipotesiak: antipasibizazioa baino lehenagoko garairako berreraikitzen dituen [A] egoerako adizkiek (*\*ekarda* 'ekarri nuen' etab.) ez dute iroizgarri enpirikorik batere; orobatsu gertatzen da [B] egoeran, antipasibizazioa gertatu ondoko *\*nekar* 'nekarren' bezalako formetan ez baitago argi zergatik izan behar den interpretazioa inperfektiboa (Aldai bera ohartua da arazo honetaz, 2000: 44). Horretaz gain, Heathen (1976, 1981) proposamenaren bidetik, kritika gehiago ere jaso izan ditu antipasibizazioaren hipotesiak (ik. Gómez eta Sainz 1995: 262).

<sup>492</sup> Euskara modernoan semantikoki singularrekoak izanik ere, morfologikoki eta jatorriz pluralak direlako sartu ditut pluraleko paradigmari *zu*-ri dagozkion adizkiak.

	A	S	O
1 sing.	<i>n-uen</i>	<i>n-intzen</i>	<i>n-induen</i>
2 sing.	<i>h-uen</i>	<i>h-intzen</i>	<i>h-induen</i>
1 pl.	<i>g-enuen</i>	<i>g-inen</i>	<i>g-intuen</i>
2 pl.	<i>z-enuen</i>	<i>z-inen</i>	<i>z-intuen</i>

30. taula. Lehenaldiko adizkiak, pertsona-marka soilak nabarmenduta eta sailkatuta.

Taula hauetan, lodiz nabarmendu ditut aditz iragangaitzetako subjektuen (S) markak, aditz iragankorretako objektuenak (O) eta aditz iragankorretako subjektuenak (A). Orainaldiko datuei begira (28. taula), berdinak dira S eta O markak, eta ezberdina A; adizkiaren atzizki moduan ageri da A, gainera, eta S eta O aurrizki moduan; cf., lehen pertsonako adibideak hartuta, S eta O *n-*, baina A *-t*. Eredu ergatibo tipikoa da, A-SO alineazioaren adibide.

Lehenaldiko datuetan (29. taula) ere deskriba liteke eredu ergatibo bat: adizkien formei bere osotasunean begiratzen badiegu, *-in-* edo *-en-* bezalako artizkiak pertsona-marketatik bereizezintzat joz —ez dira inoiz haiek gabe agertzen—,<sup>493</sup> S eta O markak berdinak dira, eta A ezberdina. Cf., lehen pertsonakoekin segituz, S eta O *nin-* baina A *n-*.

Beste modu batean ere analiza daitezke lehenaldiko formak, 30. taulan jarri bezala: *-en-* eta *-in-* artizkiak ez baditugu kontua hartzen, sistema neutro bat dugu, ASO, non pertsona bakoitzeko marka guztiak berdinak diren.

Honela deskribatuta, bi aukera daude analisirako. 28. eta 29. tauletako analisiak aintzat hartuta, ez legoke inongo erdibitzerik; eredu ergatiboen arabera antolatzen dira adizkietako pertsona-markak orainaldian zein lehenaldian: A-SO eredu ergatibo tipikoa dugu batean zein bestean. Jakina, modu ezberdinetan bereizten dira SO eta A, eta, Lakak deskribatu bezala, lekualdatua ageri da lehenaldian 1. eta 2. pertsonetako ergatibo marka, baina hori ez doa eredu ergatiboaren kaltetan, baldin eta, orainaldiko alineazio sistema batetik lehenaldikoa bestetik, zein bere aldetik aztertzen baditugu.

Lehenaldiko formak 30. taulako analisiaren arabera hartuta, bai izango genuke erdibitze bat orainaldiaren eta lehenaldiaren artean: A-SO/ASO, orainaldia eredu

<sup>493</sup> Lakak (1993: 53), adibidez, “tense-sensitive root parts” moduan deskribatzen ditu *-en-* eta *-ind-*, baina, nire ustez, berdin argudia liteke “tense-sensitive person-mark parts” direla.

ergatiboarekin eta lehenaldia eredu neutroarekin. Baina tipologikoki bitxia litzateke erdibitze mota hau, ergatiboa ez den eredua lehenaldian agertzen delako, joera orokorraren aurka.

Kontuak honela, zenbait ohar eta galdera egin daitezke:

- (a) Lehenik eta behin, ohartarazi beharra dago ustezko ergatibitate erdibitua duen pertsona-marken sistema ez dela emankorra euskara modernoan; ongi azaltzen du Aldaik: “It is within the unproductive morphology of the verbal inflection of Basque where the split lies. Consequently, this appears to be a case where morphology is fossilized” (2000: 43).
- (b) Orainaldiko formak (cf. *dut*) lehenaldikoekin (cf. *nuen*) konparatzen dator, funtsean, arazoa; Aldairen esaldi honetan laburbiltzen da jardunbide hau (2000: 36):

Sentences in (5) [*nuen* moduko adizkiak dituztenez ari da], however, display a different alignment pattern in verb-agreement when compared with their Present equivalents in (2) [*dut* modukoak dituztenez ari da].

Baina *dut* eta *nuen* adizkietako pertsona-markak konparatzen ditugunean ez gara sistemak konparatzen ari, eta ergatibotasuna alineazio sistemaren ezaugarria da, ez pertsona-marka solteena; *dut* eta *nuen* konparatzen baditugu, ez gara A-ren marka S eta O-renekin konparatzen ari, eta horixe egin behar da, ergatibotasuna — erdibitua zein ez— S-ren, O-ren eta A-ren arteko harremanaren arabera zedarritzen baita. Alineazio sistemari begiratu behar zaio, bere osotasunean.

Bestela esanda, lehenaldiko formatatik orainaldiko formatara jauzi eginez, gauza bera konparatzen ari gara: lehenaldiko A orainaldiko A-rekin. Lehenaldiko sistemaren ergatibitateaz zerbait erabaki nahi badugu, ordea, lehenaldiko A markatzat jotzen dugun hori lehenaldiko S-rekin eta O-rekin konparatu behar dugu; kasu honetan, *nuen* adizkiko pertsona-markak *nintzen* eta *ninduen*-ekoekin. Orainaldiko A eta lehenaldiko A ezberdinak izateak ez du esan nahi sisteman erdibitzerik dagoenik; hortik ondoriozta daitekeen gauza bakarra da A ezberdin gauzatzen dela, denbora zein den.

- (c) Adizkietako osagaien eta adizki osoen analisi morfologikoa baldintzatu dezake

adizki barreneko osagai horiek modu batean edo bestean segmentatzeak. Adizkien osagaiak xehakatzeari ez da oinarritzeko deskripzio lana, eta ondorioak ez dira berak hautu morfologiko bat egin edo beste bat egin; nire ustez, halako datuetatik atera genitzakeen ondorioak zehur aztertzeke beharra nabarmentzen du honek, ergatibitateari dagozkionak barne.

- (d) Bestalde, galdetu liteke zergatik 1. eta 2. pertsona singularreko A ez den markatzen orainaldian izenordainetatik eratorritako markekin (cf. 1. p. *-t* eta 2. p. *-k/-n* markak). Esanguratsua izan liteke ohar hau, oraindik ere datuok ergatibitate erdibituaren eztabaidan sartu nahian bagabiltza: Silversteinen hierarkian goren dauden 1. eta 2. pertsonak bakarrik kodetzen dira izenordain jatorririk gabeko marken arabera —kodetze hau ez dagokio A-ri bakarrik, datiborako ere marka bera dugu—;<sup>494</sup> bestalde, orainaldian baizik ez dira agertzen marka hauek, eta itxuraz izenordainetatik eratorritako markak ditugu lehenaldiko adizkietan.

Funtsean, analisi ezberdinak egin ditzakegu, morfemei eta bere diakroniari begiratzen diegun ala, ikuspegi sinkroniko batetik abiatuta, euskara modernoan morfema bakoitzak sisteman betetzen duen tokiari begiratzen diogun.

- (e) Galdetu liteke hala berean zergatik gertatzen den aurreko puntuko fenomenoak 1. eta 2. pertsona singularreko argumentuak kodetzean, eta ez pluralekoetan (hauetan beti *g-*, *-gu*, *z-* eta *-zu* bezalako markak daude, *gu* eta *zu* izenordainekin lot litezkeenak).
- (f) Pertsona-marken analisiari dagokien gogoeta orokortuta, zalantzan jar daiteke pertsona-marken edozein analisi sinkronikoren fidagarritasuna, sistema ihartu batez ari baikara. Ez da zilegi, nire ustez, erdibitzearen hipotesiaren oinarrian dagoen *dut/nuen* fenomenoak deskribatu den bezala deskribatzea, esanez “*n*-absolutiboko markak ergatiboa markatzen du”.<sup>495</sup> *A priori* moduan hartzen ariko

<sup>494</sup> Datiboaren kasuan, hala ere, orainaldian zein lehenaldian agertzen dira marka hauek, A-renean ez bezala: cf. *dut/nuen*, 1. pertsonako A-rako *-t* eta *n-* marka ezberdinekin, baina *-t* eta *-da-* ditugu datiborako *dit/zidan* adizkietan, biak marka beraren alomorfo.

<sup>495</sup> Auzi honetan egon daitezkeen ñabarduren erakusle da mayoruna hizkuntzetako adizkien deskripzioa (Fleck 2010: 43-47): komunztadura atzizkiak nahiz izenordain klitikoak aurki daitezke horietan, eta eredu nominatibo-akusatiboari jarraitzen zaizkio atzizkiak, baina eredu ergatibo-absolutiboari izenordain klitikoak.

ginateke  $n-1$ . pertsonaren marka absolutiboa izatea, eta, berez, dakigun bakarra da *ni* izenordainarekin lotua egon daitekeela; orobat *-t* markaz denaz bezainbatean, 1. pertsonaren ergatibo markatzat jotzen dugunean, eta abar.<sup>496</sup>

Esan bezala, adizkien osagaien xehakitzea, sistema ihartu batez ari garela, ez da oinarritzko deskripzio sinkronikoaren esparruko lana: oraingoz orain falta dugun ezagutza diakroniko sakonak baizik ezin digu lagundu lan horretan.

Atal honetan, erakutsi dut adizkietako pertsona-marken gorabeherak izan dezaketela ergatibitate erdibituaz bestelako azalpenik. Ez dago iritzi batasunik auzi honen inguruan, eta, adizkiak ergatibitate erdibituaren hipotesiaren pean aztertuko bagenitu ere, antzinako pertsona-marken alineazio sistemari legokeen erdibitzea litzateke, ez gaur egun hizkuntzan emankorra den ezaugarri bat.

#### 7.2.1.3 Aditz inergatiboak eta intrantsitibitate erdibitua

Bestelako erdibitze batzuk ere aztertu izan dira euskal ikasketetan, bereziki aditz inergatiboak hizpide hartuta. Aditz iragangaitzetan edo, hobeki esanda, argumentu-bakarreko aditzetan, banaketa ezagun bat dago: argumentu bakar horrek, subjektu gisa sailkatu ohi den horrek, kasu ergatiboa edo absolutiboa jaso dezake, aditza zein den. Honelako perpausak aztertu ohi dira, besteak beste, fenomeno hau deskribatzeko:

- (9) a. *Mikel etorri da.*  
 b. *Mikelek dimititu/eskiatu du.*  
 c. *Mikelek lo egin du.*  
 d. *Mikelek dibortxatu du (a divorcé) / dibortziatu da (se ha divorciado)*  
 e. *Mikelek bazkaldu du / Mikel bazkaldu da.*

Lehendabiziko adibidean (9a), aditz iragangaitz tipiko bat dugu, zeinetan aditzaren argumentu bakarrak kasu absolutiboa jasotzen duen. Beste guztietan, argumentu bakarrekoak izanik ere —edo argumentu bakarrekotzat jo ohi badira ere, cf. aditz

<sup>496</sup> Izen sintagmetako pl. *-ak* atzizkiaren inguruan sorturiko eztabaida dakar gogora honek: gure *a priori* teorikoen arabera egin zen morfemaren analisia, abs. *-ak* eta erg. *-ak* bereizteko (ik. 5.2.5.2 atala). Adizkietako morfemetan, izenaren morfologiarenetan bezala, lehen eginkizuna izan beharko litzateke morfemen diakronia egitea.

arinekikoak, 9c—, kasu ergatiboa jaso dezake aditzaren argumentu bakarrak; zenbaitetan, hizkeraren arabera aldatzen da kasu ezarketa (9e). Dixonek (1994: 71-78) zerrendatzen dituen ergatibitate erdibitu moten artean “split-S” litzateke hau, funtsean *intransitibitate erdibitua* termino egokiagoa izan badaiteke ere. Ñabarra da aditz ezergatiboen inguruko eztabaida, eta bibliografia zabala du; deskribaketan sakontzeko, ikus Etxepare (2003: 363-364, 388-391) eta, berrikiago, Preminger (2012).

Zeinahi dela ere argumentu bakarreko aditzon kasu ezarketa bereizi honetaz egiten den analisia, ohartu beharra dago zatiketa mota hau aditzen izaerari dagokiola (Dixon 1994: 76). Bide honetatik, euskararen ergatibotasun maila aztertzeraz lerratu da eztabaida, eta galdetu izan da, adibidez, hizkuntzaren kasu-markatzea ergatiboa den ala aditzaren semantikaren arabera (cf. Aldai 2009). Cf. halaber Albizuk (2009) mahaigaineraturiko egitasmoa, zeinetan proposatzen den euskalkiz euskalki neurtzea ergatibotasunaren sendotasuna, hainbat aldagaien arabera.

### 7.2.2 *Ergatibitate erdibitua euskal determinatzaile sintagman*

Euskararen gramatika deskribatzeko aipatu izan diren ustezko ergatibitate erdibituaren adibideak zerrendatu ditut orain artekoan: nabarmendu dut aspektuaren arabera ergatibitate erdibiturik ez dagoela, eta aipatu dut zein eztabaida izan den adizkietako pertsona-marken eta aditz ezergatiboen harira. Aipagarria da eztabaida hauek guztiak aditzaren jiran eratu izana; atal honetan izenaren edo, hobeki esan, determinatzaile sintagmaren esparruan kokatuko dut ergatibitate erdibituaren eztabaida.

Bestalde, nabarmentzekoa da izaera ezberdinekoak izan daitezkeela ergatibitate erdibitu moduan deskribatu ohi diren fenomenoak, eta, aditz ezergatiboen eztabaidan, adibidez, aditzen argumentu egiturari eta berorren kasu-ezarketari dagokio erdibitzearen funtsa. Atal honetan, ordea, auzi morfologiko soil moduan deskribatu dut determinatzaile sintagmaren esparruan kokatuko dudana erdibitzea.

Argudiatuko dut determinatzaile sintagmaren arabera ergatibitate erdibitua dagoela euskaraz, A-SO/ASO eskemaren arabera sailka daitekeena; singular/plural ardatzaren arabera ergatibitate erdibitua aurkeztuko dut hemen.

Ergatibitate erdibituko sistema horretaz emango ditudan argibide diakronikoek

argi utziko dute berria dela euskara batuko sistema ergatibo orokorra, pluraleko determinatzaile sintagmetakoa (abs. *-ak*, erg. *-ek*), eta euskararen ergatibitate orokorraren ideia baztertzeko aukera emango du ikuspegi honek.

#### 7.2.2.1 Ergatibitate erdibitu mota honen esparrua

Bosgarren kapituluan, eredu jakin bat hartu dut deklinabidearen berreraiketa morfologikorako: erakusleen gramatikalizazioan kokatu dut deklinabidearen bilakaera diakronikoaren muina, D-elementu sorta bat identifikatuz.

D-elementu horien arabera baizik ezin da egin, egungo euskararen, singularren eta pluralaren arteko bereizketa morfologikoa. Atal honetan proposatu dudana ergatibitate erdibituaren ardatza singular/pluralarena denez, ergatibitatearen erdibitze hau erabat lotua agertzen da D-elementuen diakroniari, baitezpada. Gramatikaren atal hauetan antzeman daiteke ergatibitate erdibitu mota hau:

- (a) Izenen deklinabidea. Historikoki mendebalde-erdialdea batetik, ekialdea bestetik.
- (b) Erakusleen deklinabidea. Ezaugarri orokorra da XVI-XVII. mendeetan, ia orokorra geroztik.
- (c) Izenordainen deklinabidea (gramatikalizaturiko D-elementua dutenetan). Ezaugarri orokorra da, euskalki guzietan dagokiena.

Honela deskriba daiteke ergatibitate erdibitu hau: eredu ergatiboari jarraitzen zaio singularreko paradigmari, salbuespenik gabe; pluralean, ordea, ergatiboa ez den ereduak da nagusi, eta, euskalkiaren edo hizkeraren arabera, ergatibitatea orokorragoa edo erdibituagoa da.

#### 7.2.2.2 Izenaren deklinabidea

Izenaren deklinabidean bi sistema nagusi ditugu: mendebalde-erdialdekoa eta ekialdekoa. Singularrari dagokionez, ez dago alderik bi eremu horien artean, eta absolutiboaren eta ergatiboaren arteko bereizketa egiten da:

- (10) a. *Umea etorri da.*
- b. *Umeak telebista ikusi du.*



Pluraleko paradigmak, alabaina, ez da beti bereizten. Ekialdeko hizkeretan, bai —orobat euskara batuan—, eta honelako adibideak ditugu:

- (11) a. *Umeak etorri dira.*  
 b. *Umeek telebista ikusi dute.*

Mendebalde-erdialdeko pluraleko paradigmak, ordea, ez dira bereizten ergatiboa eta absolutiboa, eta biak adierazten dira *-ak* morfemaren bidez:

- (12) a. *Umeak etorri dira.*  
 b. *Umeak telebista ikusi dute.*

Honenbestez, esan daiteke orokorra dela ekialdeko sistema ergatiboa baina mendebalde-erdialdekoak ergatibitatea erdibitua duela: eredu ergatibo baten arabera antolatzen dira singularreko izen sintagmak, baina pluralekoetan formalki berdinak dira aditz iragankorretako eta iragangaitzetako subjektuak.

Hipotesi tradizionalaren arabera (ik. 2.4.2.5.1 atala), berria da mendebalde-erdialdeko ereduak, eta esaten da *-ak* morfemaren jatorrian *-ak* dugula absolutiborako, baina *\*-agek* ergatiborako. Hartara, ergatibitate erdibitu hau azalekoa baizik ez litzateke, eta diakronikoki sekundarioa. 5.2.5.2 atalean esan bezala, ezin da argudio sendorik eman tradiziozko hipotesi honen alde, eta gutxienez ekialdekoa bezain zaharra da bereizketarik gabeko mendebalde-erdialdeko sistema:

- (a) Ez dago arrazoi formalik (azentua, *-aak* aldaera etab.) abs. *-ak* / erg. *-ak* (< *\*-agek*) bereizkuntza jatorrizkoa dela pentsatzeko.
- (b) Absolutiborako zein ergatiborako erabil daiteke plural hurbileko *-ok* atzizkia, ekialdeko testu zaharretan ere bai.
- (c) Erakusleak dira deklinabidearen jatorri diakroniko zuzena, eta erakusle pluraletan ez dira bereizten absolutiboa eta ergatiboa.
- (d) Oinarrizko deskripzioei eta analisisiei dagozkie (a-c) puntuetakoak; *-ak* atzizkiaren gorabehera diakronikoen berreraiketari dagokionez, bere balioen zatitzea ongi azaltzen dute Silversteinen eta Smith-Starken hierarkiek, ergatibo singularra (10b) eta absolutibo/ergatibo plurala (12a, b). Ikus 5.5.5.2 atala xehetasunetarako.

Horrenbestez, jatorrizkoa da izenaren pluraleko deklinabidean ergatibitate erdibitua; argudio nagusitzat har liteke (c) puntukoa: erakusle pluraletan absolutiboa eta ergatiboa ez badira bereizten eta deklinabidea erakusleen ondorengoa bada, bereizketa hori ezin da jatorrizkoa izan. Ondoko atalean erakutsiko dut jatorriz ez direla bereizten erakusle pluraletan absolutiboa eta ergatiboa.

### 7.2.2.3 Erakusleen deklinabidea

Bi sistema nagusi bereiz daitezke erakusleen deklinabidean ere, gaur egungo euskarari begiratzen badiogu, behintzat: mendebalde-erdialde zabalekoa eta ekialdekoa (ik. 2.3.3 atala). Singularrari dagokionez, ez dago alderik bi eremu horien artean, eta bereizketa egiten da absolutiboaren eta ergatiboaren artean:

- (13) a. *Ume hau/hori/hura etorri da.*  
 b. *Ume honek/horrek/hark telebista ikusi du.*

Pluraleko paradigmaman, izenen deklinabidean ikusitako banaketa dialektologikoa deskribatu izan da; absolutiboa eta ergatiboa bereizi egiten dira iparraldeko hizkeretan —orobat erronkarieraz—, Gavelen eta Lafitteren datuen arabera, bederen (hirugarren graduko erakuslea baizik ez dut erabiliko adibideak osatzeko; ik. 2.3.3 atala):

- (14) a. *Ume hek (zub. hurak) etorri dira.*  
 b. *Ume heiek (zub. haiék, hek) telebista ikusi dute.*

Mendebalde-erdialde zabalean, aldiz, ez da horrelako bereizketarik egiten:

- (15) a. *Ume haiek etorri dira.*  
 b. *Ume haiek telebista ikusi dute.*

Altunak (1978) erakutsi bezala, Gavelek eta Lafittek deskribaturiko sistema ez da aurkitzen Etxepare edo Axular bezalako XVI. eta XVII. mendeetako autoreetan. Autore hauetan, mendebalde-erdialdeko sisteman (eta euskara batuan) bezala, ez dira bereizten absolutibo eta ergatibo pluraleko erakusleak. Are gehiago, iparraldeko datuak kontuan hartuta, hizkeratik hizkerara balio ezberdinak izan ditzake itxura bereko erakusle batek:

*hek*, adibidez, Gavelen eta Lafitteren nafar-lapurteraz, absolutibozkoa da, baina, zubereraz eta erronkarieraz (*kek*), ergatibo balioa du.

Altunak aztertutako laginaren arabera, zuberera da, Oihenart lekuko, XVII. mendean absolutibo eta ergatibo pluralak bereizten dituen bakarra. Datuak xehekiago aztertuta, ordea, ageriko suertatzen da berria behar duela izan zubereraren eta erronkarieraren sistemak ere.<sup>497</sup>

#### 7.2.2.3.1 Erakusle pluralak zubereraz (eta erronkarieraz): ikuspegi diakronikoa

Zubererazko testuetako erakusle pluralak aztertu ditut atal honetan, erakusteko hizkera horretan ere absolutibo eta ergatiboa bereiztea ez dela zaharra. Testu hauek arakatu ditut horretarako: Etxarten eta Rosen gutunak (XVII. mende hasierakoak, zubereraz eta erronkarieraz), Zalgizeren atsotitzak, Belarenak, Oihenarten atsotitzak eta neurtitzak, Tartasen bi liburuak, Maitieren otoitzak, Belapeireren katexima, XVII. mendekoa izan daitekeen zubererazko sermoia, eta Dassançaren *Laborarien Abissua*-ren bertsioa, Barkoxeko euskararen, Xabalgoitik emana. VII. eranskinean bildu ditut adibideak, eta honela laburbil daitezke:<sup>498</sup>

	Absolutibo	Ergatibo
Etxart-Ros	<i>huec</i> (4; Ros)	Adibiderik ez.
Zalgiz	Adibiderik ez.	<i>hoc</i> (1)
Bela	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Oih	<i>hauk</i> (7)	<i>hauk</i> (1)
Tartas	<i>hoyec</i> (9), <i>hoc</i> (4)	<i>hoyec</i> (1)
Maitie	<i>hoyec</i> (1)	Adibiderik ez.
Belap	<i>hoyec</i> (21), <i>hoyéc</i> (1)	<i>hoyec</i> (4), <i>hoyéc</i> (5)
ZubSer	<i>hoyec</i> (5)	Adibiderik ez.
Xabal	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.

31. taula. Zubererazko testu zaharretako lehen graduko erakusle pluralak.

<sup>497</sup> Castañosek berreraikitzen duen erakusle paradigmaren (1979: 92), pluraleko ergatiboa eta absolutiboa ez dira bereizten —*hek* dira biak—; singularrean, ordea, erg. \**he* eta abs. *hark* berreraikitzen ditu. Xehetasun morfologikoak gorabehera, ergatibitate erdibitua duen sistema bat berreraikitzen du, eta numeroaren araberakoa da erdibitzea.

<sup>498</sup> Parentesien artean adibide kopuruak eman ditut. Etxart eta Rosen adibideetan, ezer adierazi ezean Etxartena da adibidea.

	Absolutibo	Ergatibo
Etxart-Ros	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Zalgiz	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Bela	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Oih	<i>horik</i> (4)	<i>horiek</i> (1)
Tartas	<i>horic</i> (7), <i>horiec</i> (3, TarOns)	<i>horic</i> (1)
Maitie	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Belap	<i>horic</i> (12)	<i>horiec</i> (1)
ZubSer	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Xabal	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.

32. taula. Zubererazko testu zaharretako bigarren graduko erakusle pluralak.

	Absolutibo	Ergatibo
Etxart-Ros	<i>heyec</i> (2), <i>hec</i> (1), <i>urac</i> (1; Ros)	<i>hec</i> (1; Ros)
Zalgiz	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Bela	Adibiderik ez.	Adibiderik ez.
Oih	<i>hek</i> (7)	<i>heiek</i> (1)
Tartas	<i>hec</i> (17), <i>hayec</i> (1), <i>hurac</i> (25)	<i>hec</i> (8), <i>hayec</i> (7)
Maitie	Adibiderik ez.	<i>hayec</i> (1)
Belap	<i>hourac</i> (28)	<i>hec</i> (2), <i>hec</i> (1), <i>hayec</i> (7).
ZubSer	<i>hourac</i> (4)	<i>hayec</i> (3)
Xabal	<i>hourac</i> (10)	Adibiderik ez

33. taula. Zubererazko testu zaharretako hirugarren graduko erakusle pluralak.

Honela laburbil daitezke datu hauek, hirugarren gradukoekin hasita: zubererazko lehen testuetan, Etxarten gutunetan, *heyec* eta *hec* ditugu absolutiboan; *hurak* forma zubereraz ez da dokumentatzen Tartas arte, eta autore honengan *hek* bera ere aski ugari agertzen da absolutibo balioarekin. Erronkarieraz dokumentatzen da *hurak* forma lehen aldiz, Rosen gutun batean. Badirudi, hortaz, XVII. mendeko zubererazko testuetan absolutiborako eta ergatiborako erabil zitezkeela *hek*, *haiek* eta *heiek* erakusle pluralak:

- (a) *heiek* aldaera absolutiborako erabiltzen du Etxartek, ergatiborako Oihenartek.
- (b) *hek* aldaera absolutiborako erabiltzen dute Etxartek, Oihenartek eta Tartasek, ergatiborako Rosek, Tartasek eta Belapeirek.
- (c) *haiek* aldaera absolutiborako darabil Tartasek; ergatiborako, Tartasengan berarengan, Maitierengan, Belapeirerengan eta sermoian aurki daiteke.

Beste gauza bat dago ohargarria: autore batek baino gehiagok erabiltzen dituzte ergatiborako eta absolutiborako forma ezberdinak, baina ez modu berean: esaterako, eta

gradu guztiei begira, Oihenartek abs. *hauk* / erg. *hauek*, abs. *horik* / erg. *horiek* eta abs. *hek* / erg. *heiek* bikoteak darabiltza, baina Belapeirek abs. *hoyec* / erg. *hoyec* (*hoyéc*),<sup>499</sup> abs. *horic* / erg. *horiec* eta abs. *hourac* / erg. *hec*, *héc*, *hayec*; bigarren graduan kointziditzen dute bakarrik.

Bestalde, aipagarriak dira Tartasen datuak: Oihenarten garaitsukoak izanik ere, ez du egiten bereizketa garbirik gradu bakar batean; corpus honetan ez dut sartu Egiategi, baina hark ere, are XVIII. mendean, ez du bereizketarik egiten, eta hirugarren graduan *hek* (eta *heek*) baizik ez ditu, absolutiborako eta ergatiborako.

Badirudi, betiere hirugarren gradua adibide hartuta, *hurak* forma berria zabaltzeak ekarri zuela *hek*, *heiek* eta *haiek* ergatiborako bakarrik erabiltzea; era berean, sistema ergatiboaren orokortzearekin lotu behar da forma berri honen sorrera bera.<sup>500</sup> XIX. mendekoa izanik ere, aipagarria da Hualde Maio erronkariarraren ebanjelioaren edizioan (BonapOnd) egiten den 68. oharra, bat egiten baitu hemen esandakoarekin: “*Hura/ura*, nominatibo singularreko hirugarren pertsona, *-k* gehituz, pluralerako erabiltzen du. Baina, ergatibo pluraleko *hec/ec*, *nominatibo pluralerako* ere erabiltzen du” (BonapOnd; etzana nirea).

Honek guztiak iradokitzen du XVII. mendean berrikuntza baten atarian zeudela ekialdean: eredu ergatibo zinez orokor baten arabera antolatzeke joera hartua zuen ordurako erakusle pluralen sistemak, singularrean dagoen bereizketa (abs. *hura* / erg. *hark*) pluralera ere zabaltzeko, ergatiborako eta absolutiborako morfema bereiziak erabiltzeko numero honetan ere.

Aldaketa hori non hasi zen erabakitzea ez da erraza: Ros da bereizketa egiten duen lehen autorea, baina datuak gutxi dira, eta ez da aski erabakitzeke aldaketa erronkarieraz hasi zela.

<sup>499</sup> Badirudi 1. graduko erakusleetan tileta agertzea ergatiboaren ezaugarritzat jo behar dela Belapeirerengan (adibide bakarra dago absolutiboan, hogeita baten aurka). Hau azaltzeko hiru aukera azter daitezke: (1) pentsa daiteke bereizketa grafiko hutsa egin nahi izan zuela autoreak; bereizi beharra salatzen du honek, besterik ez bada; (2) pentsa liteke *hoik* irakurri behar dela tiletik gabeko *hoyec*, Joseba Lakarrak ohartarazi didan bezala; baina, kasu honetan, ez dago argi zerk eragozten zion autoreari *hoic* idaztea; (3) baliteke bereizketa azentuala markatzea tiletak, abs. *hóiek* / erg. *hoiék*.

<sup>500</sup> Pentsatzekoa da *hauk* eta *horik* bezalako formak ere berriak izatea; hauetan *-e-* pluraleko ergatiboaren markatzat hartu dela pentsatu beharko genuke, izen sintagmaren deklinabidean dagoen pluraleko *-ek* ergatiboaren ereduaren indarrez.

Honenbestez, hiru puntutan bil daitezke aurreko paragrafoetan esandakoak: (1) zubererazko eta erronkarierazko lekukotasun zaharretan ez da beti garbia absolutibo eta ergatibo pluralak bereiztea erakusleetan, (2) XVII. eta XVIII. mendeetako autoreetan bereizketa ez da orokorra, (3) zuberera modernoko abs. *hurak* / erg. *hek*, *haiek* paradigma egonkortu arte; bereizketa egiten duten autoreek ere ez dituzte forma berak erabiltzen.

Ondorio nagusi gisa, esan daiteke zubereraz eta erronkarieraz ere berria dela erakusle pluralatan absolutiboa eta ergatiboa bereiztea.

#### 7.2.2.4 Izenordainak (zuek, guek, hiek)

Izenordain bakarra dago egungo euskal gramatikan, bere deklinabidea D-elementuetan oinarritzen duena: *zuek*. Beste guztiak, *ni*, *hi*, *gu* eta *zu*, bere forma mugagabearen gainean osatzen dute deklinabidea, izen bereziak balira bezala, alegia.

*Zuek* izenordaina absolutiboa zein ergatiboa izan daiteke, eta hau euskalki guztietako ezaugarria da. Are gehiago, bikoiztasun hori bera erakusten dute historikoki dokumentatu izan diren *guek* eta *hiek* izenordainek ere, *gu* eta *hi* izenordainei *-ek* D-elementua atxikita sortuak; Lazarragak lau aldiz darabil *guek* izenordaina, bitan absolutibo gisa (16a, b), eta beste bitan ergatibo balioarekin (16 c, d):

- (16) a. AL: 1147r *ece guec goacela Dueroco riberara*
- b. A26: 72 *Eldu ez çara / guec gueoncen lecuan*
- c. AL: 1147v *ece guec al daigun lagundasunic onaena eguingo deusugu*
- d. AL: 1154v *guec eta çuec bearco dogu*

D-elementurik gabeko *gu* eta *guc* formak ere baditu Lazarragak, jakina. Ikus Mounole (2014: 3.2.1 atala); bertan ohartarazten zaigun bezala, Mikoletarengan ere bada *guek*-en adibiderik, cf. 3v: 15 *guec guinean*, absolutibo balioarekin, eta ez da ahaztu behar DonemGI *guec ajutuezdugu*, ergatibo balioarekin.

Bi balioak ditu, halaber, XIX. eta XX. mendeetan Lekeition eta Arratian dokumentatu den *i(r)ek* formak; ik. Azkue (*Morf* §641, 831) eta Yrizar (1978-79):<sup>501</sup>

<sup>501</sup> Azentuari dagokionez, gainera, Erkiagak ohartarazten du *ièk* izenordainaren azentuera “politonoa” dela

- (17) a. *iek esan duek*<sup>502</sup>  
 b. *ièk aixè*<sup>503</sup>  
 c. *irek jaten doek* (mask.) / *done* (fem.)<sup>504</sup>  
 d. *irek onak azae* (mask.) / *azane* (fem.)<sup>505</sup>

Azkuek dioenaren arabera, ez dira inondik inora ere orokortu *i(r)ek* izenordainari dagozkion adizkiak, eta horrek berak adierazten du, bere erabilera-eremu murriztarekin batera, izenordain honen berritasuna.

#### 7.2.2.5 *Euskal datuen interpretazioa*

Aurreko ataletan ikusi bezala, gramatikalizaturiko D-elementu bat atzizki gisa duten izenordainetan orokorra da absolutiboa eta ergatiboa pluralean ez bereiztea; erakusle pluraletan ere orokorra da ez bereiztea, XVII. mende hasierako datuak kontuan hartzen baditugu. Izen sintagmaren pluraleko deklinabidean, ordea, euskararen historiaren hasieratik dago ekialdea eta mendebalde-erdialdea banatzen dituen isoglosa.

Beste modu batean bil daitezke datuak: ez dago deklinabidean sistema erabat ergatiboa duen hizkerarik. Mendebalde-erdialdeko hizkeretan gorde da bereziki erakusle pluraletatik datorren sistema ez-ergatibo hori; ekialdeko hizkerak daude, berriz, ergatibotasun orokor baten eredutik hurbilen. Are gehiago: inoiz eredu dialektalen arteko aldearen azalpen diakronikoa eman izan denean, eredu erabat ergatiboa jo izan da jatorrizkotzat, Uhlenbecken hitzak lekuko: “De l’autre côté des Pyrénées les formes du transitif et de l’intransitif se sont identifiées au pluriel” (1908: 524); cf. berrikiago, eta garbiago, Etxepare: “The lose of the distinction between ergative and absolutive marking in those varieties [mendebalde-erdialdekoez ari da] in the plural...” (2013: 207; ik. halaber goian, Albizu 2011).

Hortaz, determinatzaile sintagman, ergatibotasun maila ezberdinak ditugu,

---

(apud Yrizar 1978-79: 11). Pluraleko deklinabideak duen azentuera ditonoarekin erka daiteke ezaugarri hau; ikus 5.5.3.2 (a) atala, *oneek* eta *orreek* erakusleen azentueraz esandakoa.

<sup>502</sup> Azkueren adibidea, Lekeitiokoa.

<sup>503</sup> Lekeitioko adibidea, Eusebio Erkiagarena (apud Yrizar).

<sup>504</sup> Arratiko adibideak, Bonaparterenak (apud Yrizar).

<sup>505</sup> Arratiko adibideak, Bonaparterenak (apud Yrizar).

hizkeraren arabera; maila hauek hobeki zehazteko, ezinbestekoa da lau ohar egitea:

- (a) Erakusleen gramatikalizaziotik eratorritako pluraleko izenordainetan —*zuek*, *guk* eta *hiek*—, ez dago eredu ergatiborik: perpaus iragangaitzetako eta iragankorretako subjektuak ez dira formalki ezberdinak: *zuek etorri zarete* / *zuek egin duzue*. Ezaugarri hau Euskal Herri osokoa da.
- (b) Determinatzaile sintagmak buru funtzional moduan erakuslea duenean —erdialde-ekialdean *hauek*, *horiek*, *haiek/hek*, mendebaldean *one(e)k*, *orre(e)k*, *aiek*—, bereizketa morfologikorik eza euskal eremu osokoa da, izenordainetan bezala. Gramatikaren atal honetan, historikoki modernoak dira eredu ergatiboa orokortu duten ekialdeko hizkeretako sistemak, eta zalantzarik gabe berriak diren formak daude horietan: zubereraren kasua argia da, absolutiborako *hurak* sortu baitu, eta *hek*, *haiek*, *heiek* zaharragoak ergatiborako espezializatu.
- (c) Ekialdeko hizkerak gramatikaren atal bakarrean dira erabat ergatibo: determinatzaile sintagmaren buru funtzional moduan artikulua dagoenean, deklinabide mugatuan, alegia, abs. *-ak* / erg. *-ek* atzizkiekin. Aurreko puntuan ikusi bezala, bereizketa hau modernoa da erakusleetan, baina honek ez du esan nahi artikulua buru duten sintagmetan berrikuntza maila berekoa denik; bestela esanda, ez du esan nahi ekialdean inoiz bereizketarik gabeko abs. *-ak* / erg. *-ak* sistema izan zenik, mendebalde-erdialdekoaren antzera. Baliteke izenaren deklinabidean berrikuntza morfologikorik ez —*-ak* eta *-ek* atzizki orokorrak erabili ziren, besterik gabe—, baina alineazio sistemaren berrikuntza gertatu izana; hau “hasieratikoa” izan liteke, betiere gogoan izanik izenaren deklinabide mugatuaren —erakusleetatik datorrenaren— berezko berritasun erlatiboa, hala nola pluraleko deklinabidearen izaera berantiarra eta ez hain gramatikalizatua (3.1.3 eta 5.2.3.8 atalak); ikus orobat *-ak* eta *-ek* atzizkiez 5.5.5.4 atalean esandakoa. Ez dirudi posible denik xehetasun horietan sakontzea eskura ditugun datuekin.
- (d) Artikulua buru duten sintagmei buruz, hala ere, ez da erabat zuzena esatea ekialdeko hizkeretako ergatibitatea erabatekoa edo orokorra dela: hor dago *-ok*



plural hurbila, ekialdeko testu zaharretan ere dokumentatua; ez da bereizketarik egiten. Ikus 5.2.5.2 (d) atala, Etxepareren eta Leizarragaren adibideekin; ez dut aurkitu adibiderik XVII. mendeko zubererazko testuetan (Tartasek, hala ere, *hoc* erakuslea darabil lau aldiz, izenordain eta izenondo funtzioetan).

Ekialdeko testu zaharretan, pluraleko izenordainen, erakusleen eta izenen deklinabidean, aski murrizta da absolutiboaren eta ergatiboaren arteko bereizketa formala, nahiz eta modu bateko eta besteko berrikuntzak zabaltzen joan diren: izenordainenean ez dago bereizketarik, erakusleenean ere ez, eta, izenarenean ere, artikulua neutroarekin bakarrik; hurbilarekin, berriz, ez, aitortu behar bada ere erabilera askoz ere txikiagoa izan duela.

Ekialdeko berrikuntzaren aldean, mendebalde-erdialde zabaleko hizkerek dute numero morfologiaren araberrako ergatibitate erdibitu erabatekoa: erakusleetan, izenordainetan eta izenetan. Ergatibitate erdibitu mota honen hipotesia formulatuko dut hurrengo atalean.

### 7.2.3 *Numero morfologikoa ardatz duen ergatibitate erdibitua*

Hemen aldeztu nahi dudana hipotesia honako hau da: pluraleko determinazioan — izenordain, erakusle zein izenenean— absolutiboa eta ergatiboa ez bereiztea da jatorrizkoa, oro har hartuta (ikus ekialdeko *-ak/-ek* bereizketaz egindako oharra); honek sistema erdibitu bat sortzen du D-elementuetan oinarritzen den deklinabidearen sisteman, singularrean beti egiten baita absolutibo/ergatibo bereizketa, euskalki guztietan. Numero morfologikoa du ardatz ergatibitate erdibitu mota honek:

- (a) Singularreko determinatzaile sintagmetan, buru funtzionalean artikulua zein erakuslea izan, alineazio ergatiboa erabatekoa da: perpaus iragankor eta iragangaitzetako subjektuak formalki ezberdinak dira.

Orobat gertatzen da sintagma mugagabeetan (morfologikoki plurala ez den *gu* izenordaina barne).

- (b) Pluralean dugu, garbi, ergatiboa ez den eredu baten adibidea: determinatzaile sintagmak buru funtzional moduan *-ak* artikulua duenean, mendebalde-erdialde

zabalean ez dago bereizketa morfologikorik absolutiboaren eta ergatiboaren artean; ez dugu, beraz, patroi ergatiborik. Artikulu plurala *-ok* hurbila denean, euskal eremu osoa hartzen du patroi horrek, ekialdea barne; orobat gertatzen da *zuek* izenordainarekin eta erakusleekin. Ekialdean egiten den bereizketa bera (abs. *-ak* / erg. *-ek*) berrikuntza da, modu batean edo bestean. *Hek* > *-ek* D-elementua ergatibo funtziorako espezializatuz gertatu da berrikuntza hau. Honek eragin du ekialdean bi ereduak izatea: batetik, mendebaldean bezala ergatibitate erdibitukoa (*-ok* artikulu hurbila, *zuek* izenordaina edo erakusle zaharrak), eta, bestetik, ergatibitate orokorrekoa, euskara baturako onartu den izenaren deklinabideko abs. *-ak* / erg. *-ek* bereizketa egiten duena.

Funtsean, D-elementuen jatorri diakronikoari dagokio hipotesi honen aldeko argudio nagusia:

- ◆ Pluraleko deklinabidearen jatorri diakronikoa —izenarena, izenordainena, zein erakusleena berena— erakusle pluraletan baldin badago eta hauetan ez badira bereizten absolutiboa eta ergatiboa, pluraleko deklinabidean egiten den bereizketa orok berria behar du izan.

Dixonen A-SO/ASO eskemarekin deskriba daiteke euskal determinatzaile sintagmaren ergatibitate erdibitua: (1) singularra beti jarraitzen zaio A-SO eredu ergatibo-absolutibo bati, eta (2) pluraleko ASO eredu neutroa da, eta A, S eta O formalki berdinak dira (ez da eredu nominatibo-akusatiboa ere). Alabaina, Dixonek (1994: 109-110) zerrendatzen dituen erdibitze ereduak ez bezala, euskararen kasuan erdibitzea ez dagokio izenaren izaera semantikoari edo perpausaren denbora/aspektu/moduari: euskaraz erdibitzea determinatzaile sintagmaren numero morfologikoaren arabera da.

Hipotesi honen ondorio zuzen bat da tradiziozko ikuspegia baztertu beharra: pluralean absolutiboa eta ergatiboa bereizten ez dituzten hizkeretan, ez da galdu bereizketarik, jatorrian ez zegoen eta halakorik.

### 7.2.3.1 Ergatibitate erdibitu mota honen adibideak beste hizkuntza batzuetan

Deskribatu izan da numeroaren arabera erdibitzerik beste hizkuntza batzuetan ere, eta

honek bermatu egiten du euskarazko datuak ere horrela deskribatu ahal izatea. Erdibitze moten sailkapenean, Dixonek ez dio berariazko atalik ematen, baina aipatu aipatzen du, erdibitze mota horretaz ohar lausoak baizik ez dituela egin aitortuz bada ere (Dixon 1994: 93). Nolanahi den, nire ustez, euskara ergatibitate erdibitu mota honen adibide garbia da; are gehiago, erdibitze hau euskara modernoaren gramatikan bizirik dagoen ezaugarria da, ez adizkietan erabat iharturik geratu den ustezko erdibitzea bezala.

Dixonek Australia hegoaldeko arabana, eta Torres itsasarteko kalaw lagaw ya hizkuntzak aztertzen ditu, besteren artean. Hauetan, eredu ez ergatiboen arabera alineatzen dira izenordain ez singularrak (numero duala ere bai baita): arabana hizkuntzan, AS-O eredu akusatiboaren arabera, eta kalaw lagaw ya hizkuntzan, ASO ereduaren arabera. Australia hegoaldeko beste zenbait hizkuntzatan (cf. dhirari hizkuntza), antzeko patroiak antzeman daitezke; ik. Silverstein (1977: 126) eta, bereziki, Dixon (1994: 91-94) erdibitze mota honen eta are gutxiago deskribaturiko besteren xehetasunetarako eta bibliografiarako. Xehetasunak xehetasun, euskarazko erakusleekin konpara daiteke hizkuntza horietako erdibitzea: pluraletan ez dago patroia ergatiborik, singularrean bai.

Ozeaniako hizkuntza hauetatik kanpo ere aurki daiteke erdibitze mota honen adibiderik, Amazoniako mayoruna hizkuntzetan, hain zuzen ere; interesgarriak gertatzen dira hizkuntza familia honen gaineko azterketak, familia honen protoforman ere berreraiki baitaiteke ergatibitatea erdibitua duen izenordainen sistema (Fleck 2010: 41):

	A	S	O	Genitiboa
Eredu ergatiboa:				
1 (1 sing. edo 1 + 3)	* <i>ë-n-bi</i>	<i>ë-bi</i>	<i>ë-bi</i>	* <i>nuku-n</i>
2 sing.	* <i>mi-n-bi</i>	* <i>mi-bi</i>	* <i>mi-bi</i>	* <i>mi-n</i>
3 sing.	* <i>a-n-bi</i>	* <i>a-bi</i>	* <i>a-bi</i>	* <i>awë-n</i>
Eredu neutroa:				
1 + 2	* <i>nuki</i>	* <i>nuki</i>	* <i>nuki</i>	* <i>nuki-n</i>
Eredu akusatiboa:				
2 pl.	* <i>mikui</i>	* <i>mikui</i>	* <i>mitso</i>	* <i>mitso-n</i>
3 pl.	* <i>akui</i>	* <i>akui</i>	* <i>ato</i>	* <i>ato-n</i>

34. taula. Proto-mayorunaren izenordain paradigmaren berreraiketa, Flecken (2010) arabera.

Sistema ergatiboa singularrean baizik ez dugu proto-mayorunaren izenordainen

paradigman; hortik kanpo, ergatiboak ez diren ereduak ditugu: 1. pertsona inklusibo pluraleko *nuki* izenordainean —1+2 gisa ageri dena— ez da bereizketarik egiten A, S eta O-ren artean, eta gainerako pluraletan eredu akusatiboa dugu, AS-O. Honela deskribatzen du Fleckek (2010: 39) erdibitze mota hau:

These are not typical nominal-hierarchy-based splits since the split is essentially a singular-plural split, with the singular pronouns following the same (ergative) pattern as full nouns.

Bitxia da, dena den, Fleckek erdibitze mota hau garrantzi gabekotzat jotzea, garbi deskribatzen baitu izenordainetako numeroaren araberrako erdibitzea. Honela dio lehenagoko lan batean, mayoruna familiako matses hizkuntzari buruzko berriazko azterketan: “Matsés não apresenta sistemas ergativos cindidos importantes. Nesse sentido, o Matsés seria morfologicamente quase completamente ergativo” (2005: 107). Deskripzio hauxe bera egin izan da euskaraz (7.2.1 atala). Aikhenthaldek ere, Amazoniako hizkuntza ergatiboetako erdibitzei buruzko atalean (2012: 209-219), ez du aipatzen numeroaren araberrako erdibitzerik, Flecken lana aintzat hartzen badu ere.

Are interesgarriagoa da Flecken lana, jatorrizko ereduaren zein ote zen galdetzen baitu, eta hiru aukera zerrendatzen ditu: eredu ergatiboa edo neutroa<sup>506</sup> izatea jatorrizkoa, eredu akusatiboa izatea jatorrizkoa edo eredu erdibitua bera izatea jatorrizkoa. Singular/plural ardatzaren araberrako erdibitzearen beraren jatorria zein izan zitekeen ere galdetzen du, eta, proposamen gisa, saiatzen da hura eratoritzen izenaren izaera semantikoen hierarkiatik, hots, Silversteinen hierarkiatik. Galdera hauei guztiei modu ziurrean ezin erantzun diela esaten du, eta aukera guztiak haizu direla (Fleck 2010: 40-41).

Beste ohar interesgarri bat egin daiteke Flecken lanaren harira. Izenordainetako pluralaren araberrako erdibitzeaz gain, ohartarazten du eredu ergatiboa zabaldu dela edo zabaltzen ari dela mayoruna hizkuntzetako gramatikaren hainbat ataletan: izenordainetan beretan, ezezkako perpausetan<sup>507</sup> eta bestetan (ik. halaber Fleck 2005).

<sup>506</sup> Ez dago argi zergatik jartzen duen neutroa eredu ergatiboarekin batean; berez, badirudi eredu akusatiboarekin batera ere jar litekeela.

<sup>507</sup> Zinez da interesgarria ezezkako perpausetan gertatzen dena (Fleck 2010: 55-57): jatorriz perpaus biko den egitura bat perpaus bakarreko moduan berranalizatu da, eta eredu ergatiboa orokortu. Euskarazko *ari* aditzaren bilakaera dakar honek gogora (ik. 7.2.1.1 atala).

Eredu ergatiboaren orokortzea dakarte aldaketa hauek guztiek, baina, Flecken arabera, maila morfologikoan baizik ez dira gertatzen, euskararentzako proposatzen dudana bezala, hain zuzen: “Only morphological patterns are becoming more uniformly ergative, not the syntax” (2010: 59). Bere ustez, erdibitze nabarmenik ez egoteak —ik. goian, nola ez duen garrantzizkotzat numeroaren arabera izenordainetako erdibitzea—, eta eredu ergatiboaren nagusitasunak errazten dute ergatibotasuna orokortzea.

Euskarazko datuak, aurkeztu dudana erdibitzearen deskribapena onartzen bada bederen, berebizikoak suerta daitezke auzi honetan: (1) ongi deskribatua dagoen hizkuntza delako eta ergatibitatearen gaineko lanen tradizioa oparora duelako eta (2) ergatibitate erdibitu mota honen bilakabide diakronikoa testuetan antzeman daitekeelako; hots, Fleckek mayoruna hizkuntzetarako erantzun ezin dituen zenbait galderek erantzun garbia dute euskaraz, aldaketa dokumentatuta dugulako (ik. 7.2.2.3.1 atala).

Horretaz gainera, interesgarria izan daiteke ergatibitatearen gaineko teorizazioetarako ere mayoruna eta euskara bezalako hizkuntzen azterketatik erator daitekeen ikerketa ildoak: batetik, ergatibitatearen erdibitze mota “berri” batek —gogoan izan Dixonek berak aipatzen duela—, numeroaren ardatzaren arabera, bere tokia har lezake erdibitze moten zerrendetan; eta, bestetik, ikerketa ildo honek eztabaida berriak susta ditzake, hala nola erdibitze mota hau orain arte deskribatutakoren baten azpiadarra den ala ez aztertzea —Fleckek berak dakar galdera hau— edota pluraltasunaren eta erreferentzialitate hierarkien arteko harreman zehatza zein den miatzea —ik. hurrengo atalean— eta beste hainbat.

### 7.2.3.2 *Silversteinen orokortzea eta euskarazko datuak*

Numeroa ere aldagai gisa sartzen du Silversteinek, bere jatorrizko proposamenean dakarren hierarkian (1977: 122):

The split ergative systems appear to be stable, recurrent types [...] If we take the notion ‘case-marking’ in its broadest sense, as the surface means of indicating case-relations of noun-phrase adjuncts, then split ergative systems show a split along the hierarchy of ‘person’ and ‘number’ features of the adjunct noun phrases.

Dixonek, ordea, Silversteinen lanean oinarrituta ematen duen Izenaren Hierarkia proposatzen duenean (ikus goian, 7.2.1.2 atalean), aldarrikatzen du sintagma jakin baten numeroa eta beronen izenaren izaera erreferentziala aldagai ezberdinak direla. Horretarako, Dixonek (1994: 92) arabana hizkuntzako datuak dakartza gogora — zeinetan izenordain ez singularrak eredu akusatiboari jarraitzen zaizkion (AS-O) eta singularreko izenordainak eredu ergatiboari (A-S-O eredu bati)— eta galdera hau egiten du:

There is surely no justification for conflating reference and number into a single hierarchy. On what basis could one say that non-singular pronouns have the greatest likelihood —greater than singular pronouns— of being A rather than O?

Silversteinen eta Dixonen proposamenen arteko aldearen eztabaidan sakondu gabe, bi ohar egin daitezke, etorkizuneko ikerketa ildoan abiapuntu moduan: batetik, Dixonen hautuaren alde, egia da pluraleko sintagmak maiz aztertu izan direla, beren ezaugarri semantiko eta bestelakoengatik, izen zenbakaitzekin batean (cf. hainbatetan artean Chierchia 1998), eta hauek Izenaren Hierarkiaren eskuin mutur aldera daude, ergatiboa jasotzeko aukera gehiago duten kategorien artean, inon egotekotan; bestetik, Silversteinen hautuaren alde, egia da, era berean, ergatibitate erdibituaren hierarkia ezartzeko irizpideek ia erabat egiten dutela bat Smith-Starken plural markak ezartzeko hierarkiarenekin (ik. 5.5.5.2 atala).

Aurreko eztabaida hau etorkizuneko lanetarako utziz, jo dezadan orain Silversteinen orokortzera, ikusteko nola ematen duen euskarazko ergatibitate erdibituaren hipotesiaren berri; honela dio Silversteinek (1977: 159):

The more highly marked noun phrases (in the sense of feature specification) will always show an accusative case marking if less highly-marked ones do, as defined by one or more features jointly ('simple' vs. 'complex' conditioning). Inversely the less highly marked noun phrases have ergative case-marking if the more highly-marked ones do.

Funtsean, markatutasuna zein tasunen arabera definitzen dugun, hortxe dago auziaren muina;<sup>508</sup> [+/- plural morfologikoa] tasunak duen garrantzia nabarmenduko dut.

Euskaraz, singularra ez markatutzat eta plurala markatutzat har daitezke,

---

<sup>508</sup> Ikus Haspelmathen (2006) lana, hizkuntz teorian *markatutasun* kontzeptuak tokirik ez duela dioen hipotesi baterako. Ez naiz eztabaida horretan sartuko.

morfologiaren zein azentueraren aldetik: erakusle pluralak morfologikoki konplexuagoak dira singularrekoak baino (ik. 5.5.3 ataleko berreraiketa), eta pluraleko atzizkidun hitzek azentu markatua jasotzen dute deklinabidean, Hualdek erakutsi bezala (ik. 5.3 atala).

Hala izanik, Silversteinen hierarkiak inplikutzen duen aurreikuspenak bete-betean asmatzen du euskal datuak deskribatzen: singular ez markatuan sistema ergatiboa dugu, plural markatuan sistema ez ergatiboa.

Begira dezakegu gramatikaren azpiatal gehiagotan ere Silversteinen hierarkia betetzen ote den:

- (a) Ekialdeko *-ek* artikulua neutroari eta *-ok* artikulua hurbilari begiratzen badiegu, ekialdeko subsistema horretan, *-ok* artikulua hurbila *-ek* artikulua neutroa baino markatuagoa dela uler genezake, [+hurbil] tasuna duelako; hala izanik, tasunetan konplexuago den *-ok* atzizkia ez da sistema ergatibo baten parte —absolutibo zein ergatibo balioak har ditzake, bereizketarik gabe—, eta *-ok* horrekiko markatugabea den *-ek*, aldiz, bai.
- (b) Izenordainetako banaketa ere interesgarria da: *zuek* izenordaina, eta orobat *guk* eta *hiek* izenordain desagertuak, konplexuak dira, jatorriz bigarren osagaien *hek* erakuslea dutelako (ik. 5.5.3.2 atala): ez dute sistema ergatiboaren barrenean jokutzen, eta absolutibo zein ergatibo izan daitezke. Abs. *gu* / erg. *guk* izenordain soilak, ordea, ez dira morfologikoki *zuek* bezalakoak —funtsean, ez dute pluraltasun morfologikorik—, eta eredu ergatiboaren barrenean jokutzen dute.<sup>509</sup>

Datu hau esanguratsua da, izan ere erdibitze honen kronologia erlatibo bat ezartzen laguntzen baikaitu: pluraleko morfologia garatu baino lehen ez zegoen mota honetako erdibitzerik; hots, pluralaren ageriko markatze morfologikoa erakusleen gramatikalizazioaren menpe dagoenez, ergatibitatearen erdibitze hau ez daiteke izan erakusleen gramatikalizazioa baino lehenagokoa.

- (c) Zubererazko azentueran azaldu gabe utzitako zenbait ezaugarri ere (ik. 5.3.1 atala)

<sup>509</sup> Hau argumentu gehigarri gisa erabil liteke *zuek* izenordainaren jatorria *\*zu-hek* dela ziurtatzeko (orobat *guk* < *gu-hek* etab.), erakusleek bezala jokutzen baitu Silversteinen hierarkiari dagokionez ere.

saia gintezke Silversteinen orokortzearen barrenean ulertzen. Zubererazko izenaren deklinabidean, *lagun* izena adibide hartuta, abs. pl. *lagúnak* / erg. pl. *lagunék* dugu, eta izenordainean, *zíek* azentua (jatorrian \**zu-hék* dela onartzen badugu, azentua hizkeraren [-2] arau orokorrarekin berdindu da). Kasu honetan, datuek ez dute bat egiten Silversteinen orokortzearekin, edo, hobe esan, hierarkia horrekiko alderantzikaturik ageri dira: eredu markatuenak bereizten du ergatibotasuna, izenen deklinabideko abs. *˘ak* / erg. *-ék*, alegia,<sup>510</sup> baina eredu markatu gabeenak, *zíek* izenordainaren [-2] azentuerarenak, ez du bereizten ergatiboa. Irtenbide moduan esan genezake *zíek* izenordainaren azentuera markatua dela izenaren deklinabideko *-ék* atzizkiaren [-1] azentuera orokorrarekin konparatzen badugu, baina halako irtenbideek *ad hoc* xamarak dirudite; markatutasuna zertan datzan hobeki zehaztu beharko genuke, ezer baino lehen.

Zubererazko azentueraren xehetasun hauek garbi azaldu gabe geratzen badira ere — gogoan izan, hala ere, lexikalizazioaren aukeraz esandakoa, 5.3.1 atalean—, ez zait ausazkoa iruditzen plurala oro har morfologikoki konplexuagoa eta azentuaren aldetik markatua izatea, singularra neutroa izanik, eta ergatibitate erdibituaren ardatza hain zuzen numeroaren araberakoa izatea. Deskribapen hori ongi egokitzen da Silversteinen orokortzearen barrenean, [+/- plural morfologikoa] tasunean ezartzen badugu erdibitzearen ardatza.

#### 7.2.4 Numeroa ardatz duen ergatibitate erdibituaren hipotesiaren ondorioak

Hemen aurkeztu dudan hipotesiak zenbait ondorio ditu, edo etorkizuneko ikerketarako zenbait bide irekitzen ditu:

- (a) Pluraleko sintagmetan ergatiboa eta absolutiboa ez bereiztea ez da neutralizazioen ondorio: jatorrizkoa da egoera hori. Honela erantzun dakieke ikuspegi klasikoaren azalpenei (ikus atalaren hasieran): batetik, ez dugu zertan jo bilakabide

<sup>510</sup> Bi alderditatik har liteke markatutzat sistema hau: batetik, abs. *˘ak* duten sintagmetako azentuerak ez du bat egiten pluraleko beste sintagmenekin, eta, bestetik, erg. *-ék* sintagmen azentuerak hizkeraren [-2] azentu ereduaren aurka egiten du.



fonologikoetara neutralizazio balira bezala azaltzeko; bestetik, ez dago beharrik neutralizazioen hipotesi honen azpian analizatzeko pluralgilearen eta ergatiboaren arteko homomorfia (-*k*), hain zuzen ere esan dezakegulako homomorfia hori dagoela erdibitzearen jatorrian, -*ga* lokatiboaren hipotesiaren bidetik (5.5.5 (g) atala).

- (b) Ergatibitatearen sorrerarako kronologia erlatibo bat ezar liteke euskaraz: esan dut ergatibitatearen erdibitze hau D-elementuen gramatikalizazioaren menpe bakarrik deskriba daitekeela, singular/plural bereizketa bera horien menpe dagoelako. Onartzen badugu ez dagoela erdibitzerik gabeko hizkuntzarik eta erabakitzen badugu hau dela euskaraz deskriba daitekeen erdibitze bakarra, euskarak ezin zuen ergatiboa izan D-elementuak gramatikalizatu aurretik.

Ikerketa ildo honek, ordea, hainbat xehetasun ditu argitu gabe: ergatibitatearen markatze morfologikoa ez dago, pluralarena ez bezala, D-elementuen gramatikalizazioaren menpe, eta deklinabide mugagabe ergatiboduna ere badago euskaraz —era berean bere erdibitzeak izan zitzakeena, ziur aski—. Baliteke, bestalde, adizkietan ustez dagoen ergatibitate erdibituaren aztarnak bestelako ergatibitate baten zantzu izatea.

Zeinahi ere diren ildo honetatik egin daitezkeen hipotesiak, gauza bat argi dago: euskal ikerketetan, batera aztertu behar dira pluralaren markatze morfologikoaren diakronia, D-elementuena eta eredu ergatiboen araberako alineazioa. Honek berriro garamatza ergatiboko -*k* eta pluralaetako -*k* jatorri bereko morfemak ote diren galdetzen duen hipotesira (ik. 5.5.5 atala).

- (c) Nire hipotesian, ardura ez da aditzean eredu ergatiboa antzeman daitekeen ala ez, eta ez dut lotzen subjektuetako eta objektuetako izen sintagmek duten kasuezarketa adizkietako pertsona-markenarekin. Determinatzaile sintagmetako morfologia dago nire hipotesiaren muinean. Determinatzaile sintagmari dagokion tasun baten araberakoa da erdibitzea bera, numero tasunaren araberakoa.

Aski modu lausoan bada ere, analisi sinkroniko zenbaitetako eztabaidak ekar litzake gogora, beharbada, nire hipotesiaren ezaugarri honek —hutsune gisa ere har liteke, nahi izatera—: pentsa liteke ergatibo-kasua DS mailakoa dela

soilik. Kasu ezarketaren eztabaida bete-betean jo lezake ergatibitate erdibituaren hipotesiak. Ikus zer dioen Lakak (2006b: 380):

A solution to this long standing problem is to turn the tables around and rescue Levin's (1983) original proposal that case is a D-structure phenomenon in Basque (or, in updated terms, that case is inherent, theta-related).

Ohar hutsa da hau, analisi sinkronikoetan argi zerbait edo bide zerbait ireki dezakeelakoan emana. Jakina, analisi sinkronikoek dute hitza auzi honetan; ohar baterako eta eztabaidaren bibliografiarako, ikus Duguinen tesia (2013: 248, 68 oh.). Ikus halaber Laka (2002: 418-424), ergatibotasunaren izaerari buruzko eztabaidaren sarrera historiografiko baterako.

- (d) Etorkizuneko aztergai gisa, lotura bila liteke *ari* perifrasiatako eredu ergatiborako joeraren eta pluraleko ergatiboaren orokortzearen artean; adibidez, testuetan bila daiteke zenbateraino diren eremukide, etab. Xehetasun hauei dagokien datu zehatzik ez badugu ere, ez dirudi oro har nire hipotesiekin bateragarria denik Aldairen ekialdeko “loose ergativity” nozioa (2008, 2009: 826-827), baina baliteke ergatibitateari buruzko ideia ezberdinekin aritzea.

### 7.3 Hegoaldeko testu historikoetako hasperena

Ezaguna da antzinatean eta Erdi Aroko agirietan hasperena adieraz zezakeela <h> grafemak; 4.3 atalean datu horietan sakondu dut, *Reja* agiriko <h> guztiak bilduz eta xeheki aztertuz zein ote zen bere balio fonikoa. Deklinabide mugatuaren diakroniaren atalean, argudiatu dut zenbait testu eta esaldi historikoko <h> grafemak hasperena adieraz zezakeela, berreraiketarako erabilitako argudioen sendogarri.

Datu historiko horietako <h> batzuk hasperentzat jotzeak ez du bat egiten Mitxelenak (*FHV* 205-206) hegoaldeko hasperenaren hedaduraz eta iraupenaz duen ustearekin, Nafarroako egoerari dagokionez bereziki:

Es altamente probable que la pérdida comenzara por la Alta Navarra, en contacto con el romance aragonés que no tenía *h*, y en la mayor parte de esa región era ya un hecho consumado en el siglo XI.

XI. menderako Nafarroan hasperenaren galera ia erabatekotzat jotzen zuen

Mitxelenak,<sup>511</sup> baina “ia” hori zehazteko datuen faltaz ere ohartarazten du (XI 159-160):<sup>512</sup>

No interesa demasiado discutir aquí, aparte de que la prueba no está por ahora a nuestro alcance, si hacia los siglos XV-XVII por ejemplo se conservaba aún en el habla alto-navarra o labortana del Baztán [...] ¿cuándo se perdió esa *h*, desaparecida ya para los siglos X-XI en la generalidad de la Alta Navarra, y hasta cuándo se conservó en alguna de sus zonas marginales y vecinas de las áreas del norte más conservadoras?

Atal honetan, saiatuko naiz zehazten Mitxelenaren uste hau zertan den, horretarako hiru bide jorratuz: bere garaian ezagunak ez ziren datuak erabiliz, datu zaharren analisi berria proposatuz eta garai hartako idatz ohiturak aztertuz.

Lan horretan hasi baino lehen, bil ditzadan hona zein bere atalean hasperenaren adierazletzat jo ditudan <h> grafemak eta beren sintagmak, berreraikitako formekin bat egiten dutenak:

- (a) Inesibo mugatuari dagokion atalean (5.2.3.7): *neurehan*.
- (b) Pluraleko *-ak* atzizkiari dagokion atalean (5.2.5 (a)): *armahaq* eta *Armahac*.
- (c) Pluraleko *-ek*, *-en* eta beste atzizkiei dagokien atalean (5.2.7.4): Beriainen *magohec*, *etab*.
- (d) Erakusle singularrei dagokien atalean (5.5.2.1): *ha*.
- (e) Erakusle pluralei dagokien atalean (5.5.3.2 (b)): Beriainen *ohec*, *orihec* eta *ayhec*.

Nafarroakoak dira hauek guztiak, Araba ekialdeko *armahaq* eta Kapanagaren *Armahac* izan ezik. Hurrengo azpiataletan, saiatuko naiz erakusten hasperena adierazten dutela <h> horietako batzuek behintzat. Bi multzo nagusitan bereiz daitezke horretarako erabiliko ditudan argudioak: batetik, euskarazko datuetatik beretatik ondoriozta daiteke <h> grafemak hasperena adieraz zezakeela. Bestetik, XV-XVI. mendeetako gaztelaniaren idatz ohituretan oinarriturik, esan daiteke <h> grafemak hasperena adieraz zezakeela.

<sup>511</sup> Ez dut orain ezbaian jarriko Mitxelenak (XI 159-167) *Refranes y Sentenciasen* <h> grafemak zuen balioaz egindako azterketa zorrotza; ohartarazi nahi nuke, hala ere, ziur antzean hasperenduntzat jo genezakeen *Donestefah* adibideak XIV. mendera arte gutxienez luzatzen duela hasperenaren iraupena Bizkaian (4.6.3 atala).

<sup>512</sup> Ikus halaber Mitx (VII 535).

### 7.3.1 <h> grafema eta hasperena Nafarroako datuetan

Badirudi agertu direla Nafarroa iparraldeko hasperenaren galeraren kronologiarako Mitxelenak nahi zituzkeen datuak, baina ez bakarrik hasperena gorde duten iparraldeko euskalkien lurralde mugakideetan, Lizarra aldean ere bai. Eztabaida berean sartu ditut Utergako Beriainen testuak ere, testuinguru geografiko bertsukoak, gainera.

#### 7.3.1.1 Hasperena Nafarroan, XI. mendean geroztik

Bi datu mota berrik frogatzen dute ezbairik gabe Nafarroan XI. mendean harago iraun zuela hasperenak:

- (a) Mironesek (2009) izendatuki egiten du Mitxelenaren ikuspegiaren aurka; horretarako, eztabaidara ekartzen du euskal hizkuntzalaritzaren tradizioan gutxi erabili izan den datu mota bat: zenbait nafar dokumentutan hebrear alfabetoan idatziriko pertsona-izenak. *Mehe* deitura aurkitu du Mironesek, *hei* hizki hebrearrarekin idatzita, eta argudiatzen du hasperena baizik ezin adierazi duela hebrear alfabetoko hizki horrek. Datu hori froga gisa darabil Mironesek proposatzeko XIV. mende hasierako Lizarran hasperena bazela.
- (b) Beranduagoko datuak aurki daitezke Maioraren (2011) liburuan; Nafarroako agirietan dauden hainbat hitz eta esaldi biltzen dira hartan, eta hauek dakartza, besteak beste: Eugiko *eduqui nahi dituc heure hiçac* (1565koa) eta Bakedaoko *lehenere beguietan haducat eta guero vada lehen vada ene escuetaric joanen haiz* (1566koa). Hauetan, zaila da pentsatzea <h> grafemak hasperenaz beste ezer adieraz dezakeela: hasperena gorde den eskualdeetan hasperena legokeen toki berberean agertzen da <h> grafema, ez beste inon.<sup>513</sup> Ohar bedi Eugi Baztandik (eta Ipar Euskal Herritik) hurbil xamar dagoela, baina ez Bakedao, Amekoabarreneko herria baita, Urbasa mendikatearen hego-ekialdean.

XVI. mendean hasperenak Nafarroan zuen hedaduraren berri ematen dute esaldi hauek, eta ziurtatzen hasperena egon zitekeela nire berreraiketaren irozgarri eman ditudan bi adibideetan: cf. 1554ko *senarray porchara neurehan porchara*

<sup>513</sup> *Heure*-ri dagokionez, ohar bedi *eure* darabilela Leizarragak; *heure* eta *eure* darabiltza Etxeparek (OEHS.v.).

*eguyten deraut* (Gorritikoa, Maiora 2011; 48) eta 1582ko *guycona charduc bufetabat emanagatic quexasen den* ha (Urrozkoa, Maiora 2011: 81),<sup>514</sup> “ruyn es el hombre que por un bofeton que le dan se quexa” itzulpenarekin. Gogoan har bedi Gorriti non dagoen, Bakedaotik ez hain urrun, iparraldera: datu hauek —eta hona ekarri gabeko beste hainbat— XVI. mendeko Nafarroan hasperenaren hedadura zein zen zehazten lagunduko dute Maiorak bildutako esaldion azterketak aurrera egin ahala.

### 7.3.1.2 <h> grafema eta hasperena Beriainen erakusle pluraletan

Beriainen testuak XVII. mendekoak dira, Mironesek eta Maiorak dakartzatenak —XIV. eta XVI. mendeetakoak— baino are beranduagokoak. Atal honetan, modu berean aztertu ditut Beriainen erakusle paradigmako eta izenaren deklinabideko zenbait datu, eta argudiatu dut hasperena adieraz dezakeela bertan ageri den <h> grafemak.

Erakusleen berreraiketari buruzko atalean (5.5), Beriainen erakusle pluralak aipatu ditut, eta proposatu horietako batzuetan <h> grafemak hasperena adieraz zezakeela. Azterketa osoago baten zain, erakusle pluralak bakarrik ditut hizpide atal honetan, singularrekoetan ere datu esanguratsuak egon badaitezke ere: cf. BerDot 112 *hau berhau*, 108 *diru hau gucihau*, BerMez 44v *hare*, besteren artean. Beriainen erakusleen zerrenda osorako, ikus VIII. eranskina.

Beriainen erakusle pluralen formen deskripzioarekin abiatu dut eztabaida, (a-c) puntuetan, eta gero, zenbait ohar egin ditut datu horien analisirako (d-i):

- (a) Lehen graduan, erakusle pluralak ia beti du *ohe-* oinarria, eta BerMez-en aurkitzen dira salbuespen nabarmenenak: BerMez 41v *ytz hoec*, 73 *gauza ohoc*, 92v *gauzahoes*, 108v *oequi*; cf. halaber BerDot 117v *oen*. Ageri denez, bi dira hatxerik gabeko adibideak, eta, bi horien artean, sozietiboa da aldaera hatxedunik ez duen bakarra (*ohen* ongi dokumentatua dago). Beherago aipatuko ditut hatxea lekualdatua duten *ytz hoec* eta *gauzahoes* adibideak; *gauza ohoc* adibidearen kasuan, ez da baztertzekoa errata izatea; bada halaber BerDot 104 *ondasun*

<sup>514</sup> Ez dago argi Malerrekako Urroz den ala Iruñetik ekialdera dagoen Urrotz; beste adibidea Gorritikoa izateak lehendabiziko aukeraren alde egin lezake, hurbiltasun geografikoarengatik.

*andiogetic*, baina adibide honetan, badirudi bokalak erabat asimilatuta daudela eta artikulutik hurbilagoko forma dela erakusletik baino.

- (b) Bigarren graduan, BerDot-en bakarrik aurki daiteke *orihec*, hiru adibidetan.
- (c) Hirugarren graduan askoz ñabarragoa da egoera. Oro har, esan daiteke *ahe-* oinarriko aldaerarik ez dagoela, eta salbuespen bakarra datiboan dago, BerDot 124v *malauenturatu ahey*. Era berean, *ae-* aldaerarik ere ez dago, baina ugariak dira *aye-* duten aldaerak. Hauen ondotik, *ayhe-* aldaerak dira ugarietak, absolutiboan, ergatiboan, genitiboan, instrumentalean eta leku-kasuetan.

Tradiziozko analisiaren arabera,<sup>515</sup> erakusleetako <h> horiek balio grafiko hutsa du, eta markatzen du *-oe-* eta *-ie-* bokal bilkurak hiatoak direla. Zenbait ohar egin daitezke analisi honen aurka:

- (d) Beriainen dotrinan, erakusleetan baizik ez da agertzen *-oe-* eta *-ie-* hiatoetan <h> grafema; ugariak dira bokal bilkura hauek deklinabidean ere (cf. BerDot 85 *oracioetan*, 90 *cautiuen*, 116v *gaystoei*, 166v *Apostoloec* etab.), baina ez dira sekula agertzen ustezko <h> hiato markatzailearekin. Datu hau esanguratsua da: kontu grafiko hutsa balitz, espero izatekoa izan zitekeen erakusleetako zein deklinabideko hiatoetan agertzea; ez denez hala, nire ustez, sinpleagoa da pentsatzea erakusleetan hasperena adierazten zuela.

BerMez-en badira deklinabidean ere *-ohe-* eta *-ihe-* segidak: 7 *Erregue Magohec*, 40 *obligatiohequi*, 40v *onlacohec*, 55 *demoniohequi*, 59v *apetitu gaystohec* eta 30v *gucihequi*. Alabaina, sei adibide horien ondoan, nagusi dira <h> gabekoak izenaren deklinabidean, eta cf. bestalde 16v *Noe* izena. Bi modutara analiza daitezke adibide hauek, <h> grafemaren balio grafiko hutsaren aukera alde batera uzten badugu:

- (i) Horietan jatorrizko hasperena gorde dela pentsa liteke, arkaismo gisa; ezaugarri hau *fase sparita* moduan azalduko genuke.
- (ii) Ez badugu onartu nahi deklinabide mugatuan hain berandura arte iraun

<sup>515</sup> Pagolak Beriainez dioenez (1995: 22), “<h> grafia, batere baliorik gabe, maiz erabiltzen du, edozein lekutan ipinia, baina batzutan etimologikoa kontutan hartzen duela dirudi”.

zutela jatorrizko hasperenek, beste aukera da pentsatzea orduko erakusleetako hasperenaren eraginez ezartzen dela hasperena deklinabideko hauetan ere (cf. *ohec*, *orihec*, etab.), artean egun baino nabariago senti baitzuketen hiztunek erakusleen eta deklinabidearen arteko hurbiltasuna; ohar bedi *-o* bukaera dutela *Mago*, *obligacio*, *onlaco* eta *gaysto* hitzek, eta honek hurbileko sentiaraz zitzakeen *ohek* erakuslea zuten sintagmak. Hurbiltasun honen adierazle izan litezke BerMez 9 *trabajuohec*, 53v *berriohec*, 87 *gauzaohec* eta BerDot 101 *gauzaohec*, non erakusleak izenari loturik dauden, betiere kontu grafiko hutsa izan daitekeela ahaztu gabe. Berriro gramatikalizaturiko erakuslearen adibide are esanguratsuagoa izan daiteke BerMez 92v *gauzahoes*, bere leku-aldaturiko hasperenarengatik, eta agian ez da kasualitatea hasperena leku-aldaturik duen beste adibidean — BerMez 41v *ytz hoec*—, *hoec* izenondo moduan agertzea, ez izenordain. Ikus, behean, Caminoren proposamenari dagozkionak.

- (e) Ohartzekoa da hirugarren graduko *ayhec*, *ayhen* eta halakoetako <h> ezin daitekeela inola ere hatxe prohiatiko gisa azaldu: ez du zentzurik *ayec* edo *ayen* bezalako formetan <h> prohiatikorik erabiltzeak, bokalarteko eta silaba arteko muga hori *-i-* bokal irristariak berak markatuko baitzuen, markatzekotan: ez dago markatu beharreko hiatorik. Beste graduetako *ohec* eta *orihec* erakusleetan <h> prohiatikoaren aukera ez da, agian, erabat baztertzekoa, baina hirugarren graduko hauetan aukera honek ez du tokirik: hasperenaren aukera ezinbestean aztertu behar da.
- (f) Nire ustez, Beriainen datuak hobeki azal daitezke jatorrizko hasperena proposatuta. Gaurko *(h)aiiek*, *(h)aien* formak azaltzeko *(h)aek*, *(h)aen* dokumentatuetatik abiatu ohi gara, eta *-i-* bokalardi epentetikoak markatzen du silaba muga. Beriainen *ayhec* eta *ayhen* bezalakoetan <h>-k hasperena adierazten duela onarturik, *-i-* bokalardiak gerora sortua behar du, ez bokalarteko epentesi gisa, baizik eta *sahets* > *saihets* modukoetan bezala (Lakarra 2009: 578); cf. halaber *gohen/goihen*-i buruz esandakoak (4.7.4 atala).

Ez dago argi nondik nora sortu zen bokal sabaikari hau, baina agian gogora ekar daiteke Hualdek (2008: 207) beste helburu batekin aipatzen duen bilakaera fonetiko bat: sortaldeko andaluzieraz eta murtzieraz, sabaikaritu egiten da *-a-* bokala hasperen aurretik, eta *mesa* [mésa] hitzaren *mésas* plurala [mésaeh] ahoskatzen da (Hernández-Campoy eta Trudgill 2003). Hala balitz, *-i-* hori horizateak frogatuko luke <h> grafemak hasperena adierazten duela edo toki horretan inoiz hasperen bat izan dela, behintzat.

- (g) Auzi honetan garrantzi handikoa izan daitekeen beste datu baten berri eman dit Iñaki Camino irakasleak: *aigen* ‘haien’ erakuslea ere jaso izan da Nafarroako Ergoienean, Lizarragan (Solís 1993: 101, 113). Ez da ahaztu behar, ordea, *aigi* ‘haiei’ eta *oigi* ‘horiei’ daudela hizkera horretan, *-gi* datiboarekin, eta Caminok berak uste du genitiboko *aigen* (*oigena* ere bada) horien analogiaz edo sortua dela (2003: 444).

Belar ahostuna duten forma hauek esanguratsutzat jotzera, hobeki azaltzen dira jatorrian *-h-* baldin bazegoen: *aihen* > *aigen*. Gertakari hori lekukotzen dute *aho/ago*, *ohatze/ogatze* gisako bikoteek eremu geografiko bertsuan (cf. halaber Baztango *begarri*, *zagar*, etab., *FHV* 221), eta, zeharka bada ere, iradokitzen *aihek* eta *aihen* bezalakoetan <h> grafikoak hots bat adierazten zuela.

Are urrunago jotzen du Camino irakasleak, eta azalpen bidean jartzen du hego-nafarreran ezaugarri ezaguna den erakusleetako hasierako *g-* hotsaren jatorria (ik. 5.5.1 atala): bere ustez, *ohék* > *ogek* gertatu zela onarturik, metatesiz azal daiteke *goek* forma. Metatesian oinarrituriko Caminoren proposamen honek bere alde izan litzake *ogatze* > *goatze* edo *ogart* > *goart* moduko bilakaerak, jadanik XVIII. mendeko Lizarraldeko testuetan aurki daitezkeenak (*FHV* 596); ohar bedi bat egiten dutela gertakari hauen eremu geografikoak eta kronologiak. Are gehiago, baliteke BerMez 92v *gauzahoes*, 41v *ytz hoec* adibideetan erratarik ez izatea, eta hasperena bera izatea lekualdatua, beranduagoko herskari belarraren lekualdatzearen aitzindari.

- (h) Aurreko puntuko adibideen bidetik, azken ohar bat egin nahi nuke, baina erakusleen esparrutik aterata: nire ustez, aipagarria da BerMez 89v *ohaye* ‘hoa’



adizkia; proposa daiteke adizki honetan ere <h>-k hasperena adierazten zuela, etimologikoki dagokion bezala (cf. Etxep 1: 183, 4: 17 *doha* ‘doa’, Oih 349, 561, 606 *oha* ‘hoa’, etab.). Are esanguratsuagoa izan daiteke gaurko Nafarroan *goaie* bezalako formak aurkitzea (Camino 2011: 809), \**ogaye*-tik datozela pentsatu nahi badugu.<sup>516</sup>

Atal honetan, argudiatu dut Beriainen <h> zenbaitek hasperena adierazten dutela, gehienbat datu linguistikoen eztabaidaren bidetik. Honek bete-betean egiten du Mitxelenaren ustearen aurka, are gehiago kontuan hartzen badugu berak Iruñea gune berritzaileen artean sailkatu zuela, hasperenaren galera prozesuari dagokionez,<sup>517</sup> eta Beriainek aitortzen duela bere hizkera Iruñekoa bertakoa dela.<sup>518</sup> Baina egia da berebat ez dela hasperenaren arrasto ziurrik antzematen Maioraren liburuko Iruñeko agirietan, ikus IX. eranskina;<sup>519</sup> baliteke, ooren buru, Mitxelenak arrazoi izatea, eta galdera egin liteke, Beriainek honetan Iruñeko hizkerari segitu ote zion edo Utergako bere jaioterrikoari, hiriburutik bertan badago ere.

Hurrengo ataletan (7.3.1.3 eta 7.3.2), grafiari buruzko zenbait xehetasun eztabaidatuko ditut.

### 7.3.1.3 Ohar bat Beriainen grafiaz: gaztelaniazko testuak

Nire hipotesiaren arabera, hasperena adieraz dezakete Beriainen <h> batzuek, garai hartako gaztelaniaz bezala. Baina gaztelaniazko tradizio grafikoaren berri eman baino lehen, Beriainen beraren gaztelaniazko testua araka daiteke, jakiteko <h> grafema prohiatikoa erabiltzen duen eta, hala bada, nola erabiltzen duen.

Gaztelaniazko testuen irakurketa egin ondoren, emaitza argia da: <h> grafema ez

<sup>516</sup> Hondarribian bada *gua* ‘hoa’ forma; kasu honetan, badirudi argixeago dagoela bokal belarrarengatik sortu dela hastapeneko herskari belarra. Jakina, *goaie* forma ere horrela azal daiteke.

<sup>517</sup> Hona bere hitzak: “La aspiración se perdió en Navarra por Pamplona, Estella o Aoiz durante el largo hiato documental que va del siglo II al X” (VII 536) eta “la norma de Pamplona [...] tuvo que ser más bien innovadora” (XI 160).

<sup>518</sup> BerMez “yo escriuo el que se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno, y Obispado de Nauarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes” (*Al Lector* atalean).

<sup>519</sup> Cf. adibidez 1538ko *eroy asa aspaldia hi egoçirich ago halquea, erro yasa aspaldian hi ego çirich ago ha alquea* eta *erroy asza aspaldian egoçiricago alquea*; 1563ko *gayzto andurra norayz y gazto andurbat bayçic ancare maynguequi goztacen ayçenori*; 1565eko *heroy adaburu andia*.

da, oro har, balio prohiatikoarekin erabiltzen.<sup>520</sup> Adibide esanguratsu hauek aurkitu ditut: BerMez 23v *oya* ‘oía’, 102v, 103 *distribuya* ‘distribuía’, 106 *cayan* ‘caían’; adibide hauetan, garaiko ohituren arabera (ikus 7.3.2 atalean), hatxe prohiatikoa erabil zitekeen, baina horrelako adibide bakarra aurkitu dut BerMez-en, 5 *trahian*. Ohar bedi hatxearen erabilera hau ez dela prohiatiko soila, <i>-ren balio bokalikoa argi geratzeko funtzioa ere bazuen, ez zedin irakur kontsonante gisa; ez da hori *ohec*, *orihec* eta *ayhec* erakusleen kasua. Honek guztiak iradokitzen du Beriainek ez zuela hatxearen balio hori bereziki “gogoan”, eta, are gehiago, izatekotan, kategoria gramatikal jakin bati loturiko erabileratzat izango zuen, adizkiei zegokiena. Bada, dena den, euskarazko testuan erabilera honen adibiderik, betiere <u>-ren ondoan: cf. BerMez 10v, 41v *gauhean*, 40 *eguitendrahuet*, 74 *ene Ayngueru beguiracen nauhenari*;<sup>521</sup> hauek dira hatxe prohiatikoaren adibide garbi bakarrak Beriainen euskal testuetan, nire ustez.

Euskarazko *ohec*, *orihec* eta *ayhec* erakusleak burutan izanik, *-oe-* eta *-ie-* hiatoak ere bilatu ditut gaztelaniazko testuetan, baina ez dut adibide esanguratsurik aurkitu; cf. BerMez 35 *los Kyries*, 118 *los Quiries*, baina ez zatekeen espero izatekoa hitz honetan hatxe grafiko bat.

Jakina, hiatoan dauden beste bokal asko aurki daitezke gaztelaniazko testuetan, guztiak hatxerik gabe: cf. hainbaten artean BerMez 4 *desseo*, 48 *sea*, 79v *mio*, *reo*, 103v *criado*. Esan gabe doa hitz hauen aldaera hatxedunek (*deseho*, *miho*, *seha* etab.) ez dutela tradiziorik garai hartako gaztelaniazko testuetan ere. Baina badira hitz batzuk

<sup>520</sup> BerMez-eko adibideak ekarri ditut hona, baina esan daiteke eredu grafiko bera darabilela BerDot-eko gaztelaniazko testuan ere.

<sup>521</sup> Tentazioa egon liteke erlatiboko *-en* atzizkiaren jatorrizko forma ikusteko *nauhenari* honetan. Nire ustez, ez da ezina genitiboko *hen* erakuslearekin lotzea erlatiboko atzizkia: ezaguna da maiz daudela erakusleak erlatibo marken jatorrian (cf. ing. *that*; Heine eta Kuteva 2002: 113-115); horretaz gain, superlatiborako emaniko sintaxizko azalpenaren antzeko bat eman liteke erlatiboko hauetarako ere (ik. 5.2.6.2 atala), *gizon dago hen(a)* ‘haien artean (dagoen) gizona’, eta honek bat egingo luke erlatiboko perpausen hurrenkera zaharraz dakigunarekin (ikus orain Krajewska prestatzen ari den tesia); kasu horretan, izenordaina litzateke *hen*, berriz ere, eta honek bat egiten du Heinek eta Kutevak diotenarekin; era berean, ez da baztertzekoa *hen* (< *he-n*) genitiboaren jatorrizko inesibo balioa egotea hemen, cf. *here* → *relative* bilakaera (Heine eta Kuteva 2002: 174). Hipotesi honek, jakina, ez du agortzen erlatiboko formez esateko dagoen guzia, badago-eta erlatiboko *-an* marka ere, azalpen eske legokeena. Ariztimuñoren ustez (2013: 53-54), *han* erakuslea dago erlatiboko marka guztien jatorrian; nolana ere, beste inesibo bat. Dena den, eta erlatiboaren jatorriari buruzko hipotesi diakroniko hau zuzena izan zein ez, Beriainen adibide bakar honetako hatxea ez da, nire ustez, jatorrizko formaren lekuko, <u> aurreko adierazpen grafiko soila baizik, bokal hori kontsonante gisa irakur ez dadin.

aldaera hatxedunarekin ager zitezkeenak, hala nola BerMez 13v *lee*, 46, 46v *creer* eta 96v *trae*, beste hainbat adibideren artean; hauek ere hatxerik gabe agertzen dira beti Beriainen testuetan. Azkenik, hatxea ez erabiltzeko zuen joeraren adibide moduan, argigarria da 48 *por ay* ‘por ahí’, *haber* aditzaren 46v *ay* ‘hay’ formaren homografoa (baliteke, dena den, homofono ere izatea bi forma hauek).

Honenbestez, Beriainen beraren ohitura grafikoei begira ere, uste dut argudia daitekeela hasperena dagoela euskarazko *ohec*, *orihec* eta *ayhec* erakusleetan, ez hatxe prohiatiko grafiko soila; nire ustez, errazagoa da hori onartzea, euskarazko zenbait hitzetarako hatxe prohiatikoak erabiltzen hasi zela onartzea baino.

### 7.3.2 Hasperena eta <h> grafema gaztelaniazko idatz ohituretan

Euskarazko datuetatik kanpo, ezinbestean begiratu behar zaie hizkuntza erromantzeak idazteko zeuden idatz ohitura garaikideei. Gaztelaniaren Urrezko mendeko ortografoen artean, Nebrijarekin hasita, puri-purian egon zen idazkera arautzeko eztabaida: idazkera fonetikoagoaren eta etimologiazaleagoaren arteko hautuan kulunkatu zen batzuen eta besteen arteko eztabaida (ik. Plans 1980). Idazkera zein eta nolakoa izan behar zen zehaztu nahi honetan, hasperenaren eta <h> grafemaren gorabeheren berri ere eman zuten orduko adituek.

Hiru azpiataletan banatu dut eztabaida: lehenik, laburbildu egin dut orduko ortografoek hasperenaz diotena; bigarrenik, <h> grafemaren erabilera esandakoak bildu ditut, eta, azkenik, ariketa bat egin dut, XV-XVII. mendeen arteko hiato zenbaiten gaztelaniazko adibideak arakatzuz, ikusteko zenbaterainokoa zen ustezko <h> prohiatikoaren erabilera hizkuntza horretako ohitura grafikoetan.

#### 7.3.2.1 Hasperena gaztelaniaren Urrezko Mendean

Menéndez Pidalek deskribatu bezala, XV-XVI. mendeen artean gutxienez bazegoen hasperena gaztelaniaz: “La F se conservó en la lengua escrita hasta finales del siglo XV [...], pero luego fue sustituida por la *h*, que era verdaderamente aspirada en los siglos XV y XVI” (apud Barroso eta Sánchez 1993: 169). Hasperenak gaztelaniaz zehazki noiz arte iraun zuen eztabaidagai izaten bada ere, gutxi gorabeherako epe jakin batzuk

eman ohi dira: Sánchez-Prietok (1998: 119-120) gutxienez XVI. mendearen bigarren erdira arte aipatzen du; Sánchez eta Barrosok, berriz, XVII. mendearen lehen erdira arte zabaltzen dute.<sup>522</sup> Plansek (1982: 174-178) ñabardura zenbaitez hornitzen ditu ideia horiek,<sup>523</sup> betiere garaiko ortografoen eta gramatikarien berriei jarraiki: XVII. mendearen lehen erdiko zenbait gramatikarik (Fray Francisco de Roblesek 1621ean eta Carolo Muleriok 1636an) erabat ukatzen dute gaztelaniaz hasperena bazenik; XVIII. mendeko beste zenbaitek (Carlos Rosek 1732an, Mayans y Siscarrek 1735ean eta bestek) hasperena deskribatzen dute gaztelaniazko fonema gisa. Plansek gramatika tradizioari egozten dizkio XVIII. mendeko berri hauek, argudiatuta ordurako hasperena ezaugarri dialektal ez-orokorra izango zela; horren alde egiten dute, besteak beste, Korreasek bere lanetan poeten sinalefari buruz esandakoek (1626 inguruko *Arte Kastellana*-n eta 1630eko *Ortografia Kastellana*-n; ik. Plans 1982: 176).

Ondorio nagusi bat atera daiteke eztabaida honetatik, euskal datuen azterketarako: nire hipotesiaren arabera, Nafarroan euskal hasperena bizirik egon zitekeen garaian, XV-XVII. mendeen artean bazen gaztelaniaz ere hots hori; hasperena ez zen arrotza ortografia erdua ezartzen zuen hizkuntzan, gaztelanian, eta <h> grafemaren bitartez adierazten zen.

### 7.3.2.2 <h> grafemaren balioak

Urrezko mendeko ortografo eta gramatikariek <h> grafemaren erabilera nola deskribatzen duten jasotzen du Plansek (1982: 167-173), eta hiru balio nagusi biltzen ditu:

- (a) Hatxeak hasperena adierazten du, latinezko *f*- igurzkariaren bilakaera fonetikoaren ondoko hasperena: cf. lat. *filius* > gazt. *fijo* > *hijo*, lat. *facio* > gazt. *fago* > *hago* etab.
- (b) Jatorri etimologikoko latinezko hatxeak: *honra*, *hombre*, *humanidad*, etab.

<sup>522</sup> Honela diote: “En el caso concreto del grafema *h* < *f*- latina, las opiniones de los ortógrafos hasta la primera mitad del XVII coinciden en que la *h* representa una aspiración; existe, pues, una relación grafía-fonema” (1993: 170).

<sup>523</sup> Esplizituki mahaigaineratzen du galdera: “[L]a mayoría de los tratadistas defienden el valor de la aspiración del grafema. Ahora bien, ¿cuándo desaparece dicha aspiración?” (1982: 174).

- (c) Hatxea /i/ eta /u/ fonemen aurrean erabiltzen da, /ie/ eta /ue/ diptongoetan, bokalikoak direla adierazteko, ez kontsonantikoak: cf. *huerto*, *huevo*, *hierro*, etab.

Hiru nagusi horietaz gain, maila apalagoko beste erabilera batzuk ere aipatzen dituzte orduko ortografoek, hala nola afrikatua adierazteko <ch> digrafokoa (Nebrijak 1492an), homofonoak bereizteko —*e* juntagaila / *he* adizkia, *a* preposizioa / *ha* adizkia etab. — hatxe erabat ortografikoa (Valdése) edo arabismoetako hasperena markatzeko (Madariagak 1565ean). Erabilera prohiatikoaren berririk ez du ematen Plansek Urrezko mendeko ortografoen azterketan; Barrosok eta Sánchek, ordea, zehaztaperen bat egiten dute erabilera honetaz: “De la *h* diacrítica para los hiatos (*leher*, *veher*) tratan poco los ortógrafos, salvo Juan de Valdés que la rechaza” (1993: 170). Merezki du hona ekartzea Valdésen aipamena bera: “Hallaréis también una *h* entre dos *ees*, como en *leher*, *veher*, pero desto no curéis porque es vicio de los aragoneses, lo cual no permite de ninguna manera la lengua castellana” (apud Barroso eta Sánchez 1993: 170). Horretaz guztiaz gainera, ikertzaile hauek ohartarazten dute erabiltzen zirela bestelako zeinu diakritikoak ere hiatok markatzeko, ez <h> bakarrik (Barroso eta Sánchez 1993: 171):

Esta última [hatxearen erabilera diakritikoz ari dira] es un exponente más, al lado de otro tipo de representaciones (acentos agudo, grave y circunflejo, y), de los recursos utilizados en la época para señalar la división silábica. A modo de ejemplo: en la *editio princeps* (1605) del *Quixote* conviven, por los ejemplos que hemos registrado, las distintas opciones de acento agudo, grave, circunflejo, *h* diacrítica, y para señalar el hiato (ejemplos de *caïa*, *caía*, *caña*, *cahia*, *caya*)

Aipu hauetako adibideez gain, *traher*, *ohía*, *cahía* eta *vehía* modukoak zerrendatzen dituzte. Hatxearen erabilera prohiatiko hau ezaguna da gaztelaniaz Erdi Aroaz geroztik (Sánchez-Prieto 1998: 119),<sup>524</sup> baina ez dirudi, XV. mendetik aurrerako ortografoen arabera behintzat, arrakasta handikoa izan zenik.

Urrezko mendeko deskribapen hauetatik bi ondorio nagusi atera behar dira, euskal datuen eztabaidarako esanguratsuak: batetik, <h> grafemak hasperena adieraz zezakeen; are gehiago, izan ere hatxearen berezko balioztat jotzen baitu Nebrijak. Bestetik, erabilera prohiatikoak erabat bigarren mailakoa da, eta, maiz, <i> eta <u> grafemek hots bokalikoak adierazten zituztela markatzeko.

<sup>524</sup> Leongo Erdi Aroko agerietan ere ageri da erabilera hau (Marcet 2008: 60), eta, hortaz, ezin ukatua da erabilera zabaldua izan zuela.

## 7.3.2.3 XV-XVII. mende erdira arteko hiatoak: lagina eta erabilera maiztasuna

Aurreko atalean ikusi bezala, garai hartako gramatikarien arabera, hiatoa markatzearena ez zen <h> grafemaren erabilera nagusietako bat. Erabilera honen maiztasuna neurtu nahi izan dut atal honetan, hiatoa duten zenbait hitz hautaturen arabera. Gaztelaniazko hiatodun hitzen adibideak aukeratzeko, aintzat hartu ditut hasperenduntzat jo nahi ditudan euskal hitz edo sintagmetako hiatoak: *-aa-*, *-ea-*, *-oe-* eta *-ie-* (cf. *armahaq*, *neurehan*, *ohék* eta *orihek*, hurrenez hurren). *CORDE* corpusean bilatu ditut 1650. urtera bitarteko honako hitz hauek, dagozkien aldaera grafikoekin, <h>-dunak eta <h>-gabeak: *-aa-* hiatoarekin, *albaaca/albahaca*, *azaar/azahar*, *bezaar/bezahar*, *Aaron/Aharon* eta *Saavedra/Sahavedra*; *-ea-* hiatoarekin, *aldea/aldeha*, *apear/apehar* (*apea/apeha*), *correa/correha*, *marea/mareha*, *teatro/tehatro*, *pelear/pelehar* (*pelea/peleha*), *tarea/tareha* eta *vea/veha*; *-oe-* hiatoarekin, *corroe/corrohe* (*corroel/corrohe*), *héroe/herohe*, *Noé/Nohé*, *roer/roher* (*roe/rohe*) eta *soez/sohez*; *-ie-* hiatoarekin *cliente/clihente*, *jabalíes/jabalíhes*, *riel/rihel*, *trienio/trihenio*, *ría/rihe*, *ries/rihes*, *envíe/envihe* eta *guíe/guihe*.

*CORDE*-ko corpora editaturiko testuek osatzen dute, eta horrek eragin lezake ez agertzea jatorrizkoetan zeudekeen <h> asko;<sup>525</sup> horregatik, *CORDE*-ko bilaketa hauetaz gain, 3.3 atalean deskribatutako Erdi Aroko corpusean ere bilaketak egin ditut: corpus horretan badira agiriak 1520. urtera artekoak, gaztelaniaz idatzirik, eta nahiz eta ez izan Beriainen testuen garaikide —bai ordea Maioraren esaldiena—, zilegi iruditzen zait orientagarri gisa erabiltzea. Ohar honekin nabarmendu nahi dut ariketa honen emaitzak hurbilketa bat baizik ez direla, esan bezala badaudelako kontrola ez ditzakedan aldagaiak; berariazko azterketa sakonagoen faltan, 7.3.2.1-7.3.2.2 ataletako azterketa eta orokortzeei begiratu beharko diegu.

Lehenik, egungo gaztelaniaz *-aa-* hiatoa duten zenbait hitz bilatu ditut: *albahaca*, *azahar* eta *bezaar* izen arruntak, eta *Aaron* eta *Saavedra* izen bereziak. Hona emaitzak:

<sup>525</sup> Gidor Bilbao irakasleari eskertu nahi diot honetaz ohartaraztea.

Hitza	<h>-rekin	<h>-rik gabe
<i>albahaca</i>	107 agerraldi 53 testutan	2 agerraldi testu bakarrean
<i>azahar</i>	229 agerraldi 111 testutan	8 agerraldi 6 testutan
<i>bezaar</i>	24 agerraldi 2 testutan	41 agerraldi 7 testutan
<i>Aaron</i>	9 agerraldi testu bakarrean	189 agerraldi 18 testutan
<i>Saavedra</i>	Agerraldi bat testu bakarrean	9 agerraldi 5 testutan

35. taula. -Aa- hiatoa *CORDE*-ko 1650era bitarteko gaztelaniazko testuetan.<sup>526</sup>

Ohartzekoa da hiru izen arruntak, *albahaca*, *azahar* eta *bezaar*, jatorri arabiarrekoak direla (ik. Corominas s.v. *albahaca*, *azahar* eta *bezoar*), eta, gaur hiatodun izanik ere, ez ziren hala jatorrian. Ez dira, hortaz, aukera daitezkeen adibiderik onenak, berorietan ageri den <h> grafemak hasperena adieraz bailezake: esan bezala, mailegu arabiarretako hasperenak adieraztea zen <h> grafemaren balioetako bat. Adierazgarria da jatorriz arabiar diren hiru hitz horietatik kanpo egoera aurkakoa izatea: *Aaron* eta *Saavedra* izenetan <h>-dun aldaera grafikoak askoz ere urriagoak dira.

Laburbilduz: -aa- hiatoa urria da gaztelaniaz, eta bere adibide ustez ziurretan, *Aaron* eta *Saavedra* izen jatorriz arrotzetan, <h>-dun aldaera grafikoak askoz urriagoa da <h>-gabea baino; <h>-dun aldaera hauek, gainera XV. mende erditsukoak dira, Alfonso de Toledorenak.<sup>527</sup> Ez dago XVI. edo XVII. mendeko adibide bakar bat ere.

Bigarrenik, egungo gaztelaniaz -ea- hiatoa duten hamar hitz bilatu ditut: *aldea*, *correa*, *marea*, *tarea* eta *teatro* izenak, *apear* eta *pelear* aditzak, eta *apea*, *pelea*<sup>528</sup> eta *vea* adizkiak. Hona emaitzak:

<sup>526</sup> Erdi Aroko nire corpusean ez dago hitz hauen adibiderik, salbuespen bakarrarekin: *Gonçalo de Saavedra* (*ArchDurIV*; Valladoliden egindako agiri batekoa da); 1517ko data duen agiri batean dago, baina 1460ko dataren testuinguruan agertzen da izen hori.

<sup>527</sup> Alfonso de Toledo, Toledokoa izanik ere, Katalunian eta Valentzian ere bizi izan zen (Lomax 1982); esanguratsua izan daiteke datu hau, gogoan hartuta Valdésesek <h>-aren erabilera prohibiatikoaz ari dela aipatzen duen “vicio de los aragoneses” (ik. 7.3.2.2 atalean).

<sup>528</sup> Izena ere izan daiteke.

Hitza	<h>-rekin	<h>-rik gabe
<i>aldea</i>	Agerraldirik ez	4875 agerraldi 1051 testutan
<i>apear</i>	Agerraldirik ez	473 agerraldi 188 testutan
<i>apea</i>	Agerraldirik ez	121 agerraldi 71 testutan
<i>correa</i>	Agerraldirik ez	369 agerraldi 165 testutan
<i>marea</i>	Agerraldirik ez	667 agerraldi 118 testutan
<i>pelear</i>	Agerraldirik ez	6239 agerraldi 685 testutan
<i>pelea</i>	Agerraldirik ez	4526 agerraldi 678 testutan.
<i>tarea</i>	Agerraldirik ez	196 agerraldi 82 testutan
<i>teatro</i>	Agerraldirik ez	1108 agerraldi 326 testutan
<i>vea</i>	3 agerraldi 3 testutan	6647 agerraldi 1550 testutan

36. taula. *-Ea-* hiatoa *CORDE*-ko 1650era bitarteko gaztelaniazko testuetan.<sup>529</sup>

Nabarmena da gaztelaniazko *-ea-* hiatoa ez dela ia inoiz <eha> idazten. Egindako bilaketetan hiru adibide baizik ez ditugu <h>-rik gabeko 25.221 adibideen ondoan (*CORDE*-ko corpusean). Are gehiago: hiru horietako bat katalanezko adibidea da; beste bat, ongi ulertzen ez dudan esaldi batekoa da, Pedro de Toledorena, XV. mendekoa; eta hirugarrena, ~1605ekoa izanik ere, Aragoikoa da itxura guztien arabera.<sup>530</sup>

Funtsean, arakaturiko corpusean, ez dago <eha> idatziriko *-ea-* hiatoaren adibide esanguratsu bakar bat ere XV. eta XVII. mendeen artean.

Hirugarrenik, gaurko gaztelaniaz *-oe-* hiatoa duten zazpi hitz bilatu ditut: *héroe* izena, *soez* izenondoa, *Noé* izen berezia, *corroer* eta *roer* aditzak eta *corroe* eta *roe* adizkiak.

Hitza	<h>-rekin	<h>-rik gabe
<i>corroer</i>	Agerraldirik ez	6 agerraldi 3 testutan
<i>corroe</i>	Agerraldi bakarra	14 agerraldi 6 testutan
<i>héroe</i>	Agerraldirik ez	6 agerraldi 3 testutan
<i>Noé</i>	32 agerraldi 5 testutan	211 agerraldi 35 testutan
<i>soez</i>	Agerraldi bakarra	109 agerraldi 61 testutan
<i>roer</i>	10 agerraldi 2 testutan	222 agerraldi 106 testutan
<i>roe</i>	6 agerraldi 4 testutan	150 agerraldi 76 testutan

37. taula. *-Oe-* hiatoa *CORDE*-ko 1650era bitarteko gaztelaniazko testuetan.<sup>531</sup>

Hiato honen kasuan ere urriak dira <ohe> moduko grafiak. Adibide gutxi horietako gehienak ez dira XVI. edo XVII. mendeetakoak, XV.ekoak baizik, eta Aragoiko

<sup>529</sup> Erdi Aroko nire corpusean ez dago hitz hauen aldaera hatxedunik.

<sup>530</sup> *Los veintitún libros de los ingenios y máquinas de Juanelo Turriano* da testuaren izenburua; bere izenik gabeko egilea Aragoikoa zen (García Tapia 1993: 223).

<sup>531</sup> Erdi Aroko nire corpusean ez dago hitz hauen aldaera hatxedunik.



autoreenak edo hango argialetxeetakoak dira batzuk. *Sohez* aldaera grafikoaren adibide bakarra ~1450ekoa da; 1293koa da izen biblikoaren *Nohe* aldaeraren agerraldietako bat, hogeita bat 1400-1425ekoak (*Libro del Tesoro* izeneko testukoak), bi 1435. urtea baino lehenagokoak, Clemente Sánchezenak, eta bost ~1400ekoak; bakarra da 1565ekoa, baina Perukoa da adibidea. *Roer* aditzaren kasuan, <roher> grafiarekin ageri diren adibideetako zortzi *Exemplario contra los engaños y peligros del mundo* testukoak dira, itzultzaile izengabe batek itzulia eta 1493an Zaragozan editatua (Lacarra Ducay 2002-2004), eta beste bi adibideak Vicente de Burgosen itzulpen testu batekoak, 1494koak. *Corrohe* aldaera grafikoaren adibide bakarra 1494koa da, egile ezezaguneko testu batekoa.<sup>532</sup> Azkenik, *roe* adizkiaren <rohe> grafiaren adibideetako bat *Exemplario* testukoa da, eta beste bat Vicente de Burgosena, arestian aipatuak biak; beste bi XV. mendeko egile ezezaguneko testu batekoak dira, eta beste bat Manuel de Ledesmarena, 1592koa.<sup>533</sup>

Ageri denez, ez dago XVI-XVII. mendeetako adibide esanguratsu bakar bat ere -*oe*- hiatoa <ohe> idazteko ohitura zegoela adierazten duenik.

Azkenik, gaurko gaztelaniaz -*ie*- hiatoa duten zortzi hitz bilatu ditut: *cliente*, *jabalíes*, *riel* eta *trienio* izenak, eta *ría*, *ríes*, *envíe* eta *guíe* adizkiak.

Hitza	<h>-rekin	<h>-rik gabe
<i>cliente</i>	Agerraldirik ez	19 agerraldi 8 testutan
<i>jabalíes</i>	Agerraldirik ez	29 agerraldi 5 testutan
<i>riel</i>	Agerraldirik ez	30 agerraldi 13 testutan
<i>trienio</i>	Agerraldirik ez	92 agerraldi 28 testutan
<i>ría</i>	Agerraldirik ez	182 agerraldi 62 testutan
<i>ríes</i>	Agerraldirik ez	5 agerraldi 5 testutan
<i>envíe</i>	Agerraldirik ez	681 agerraldi 319 testutan
<i>guíe</i>	Agerraldirik ez	412 casos en 211 documentos

38. taula. -*ie*- hiatoa *CORDE*-ko 1650era bitarteko gaztelaniazko testuetan.<sup>534</sup>

Bilaketaren emaitza adierazgarria da: ez dago adibide bakar bat ere -*ie*- hiatoa <ihe> idazten denekorik arakaturiko corpusean.

<sup>532</sup> Testuaren izenburua *Traducción del Tratado de cirugía de Guido de Cauliaco* da.

<sup>533</sup> Valentziako *Actas de la Academia de los nocturnos* eskuizkribuan dago Ledesmarena testua, XIX. mendera arte argitaragabea (Rodríguez et al. 1990: 448).

<sup>534</sup> Erdi Aroko nire corpusean ere ez dago hitz hauen aldaera hatxedunik.

### 7.3.3 Euskal datuetarako ondorioak

Maiz aldarrikatzen da <h> grafemaren balio prohiatikoa euskarazko hainbat datu azaltzeko. Atal honetan, neurtu nahi izan dut nire berreraiketa proposamenean esanguratsuak izan diren datu batzuen fidagarritasuna; horretarako bi azterbide nagusi jorratu ditut: batetik, erabili ditut Mitxelenaren garaian ezagunak ez ziren zenbait datu, ziurtatzen dutenak XIV-XVI. mendeetako Nafarroan hasperena izan bazela. Bestetik, XV-XVII. mendeetako gaztelaniazko testuetako idatz ohiturei begiratu diet, <h> grafemaren funtzio prohiatikoa zenbateraino erabiltzen zen zehazteko. Horretaz gain, Beriainen testuen azterketa xehea egin dut.

Horren ondotik, atalaren hasieran aipaturiko euskal datuen fidagarritasuna banan-banan neurtu dut:

- (a) *Neurehan* sintagmaren kasuan, *-ea-* hiatoa dugu hipotesi klasikoaren arabera, <h> prohiatikoarekin. Aurreko atalean erakutsi bezala, *-ea-* hiatoa <eha> idazten zeneko adibide esanguratsu bakar bat ere ez dugu gaztelaniazko tradizioan, ez *CORDE*-n, ez nire Erdi Aroko corpuseko XVI. mendeko agirietan ere; bigarren corpus hau nabarmendu nahi nuke, izan ere *neurehan* Nafarroako Agiritegi Nagusikoa baita, eta agiritegi horretako bereko agiriak daude nire corpus horretan, beste hainbat udal agiritegitakoekin batera. Horrenbestez, egiantzekoagoa da <h> grafemak hasperena adierazten zuela pentsatzea.
- (b) *Armahac* eta *armahaq* sintagmen kasuan, *-aa-* hiatoa dagoela dio hipotesi klasikoak. Eta horri segitzen dio testuaren ediziozileak (Ulibarri 2011: 374):<sup>535</sup>

<sup>535</sup> Ulibarrik berak (2010: 45) *Viva Jesús* testuko zenbait <h> hiato marka soiltzat du, eta kasualitateari egozten dio horren erabilera. Testu horretako <h> grafemaren erabileraren eztabaidan sartu gabe — *ardahoa* eta *destierruheu* bezalako adibide iradokigarriak agertzen dira, besteak beste—, nire ustez kasualitatearen aukera bezainbesteko egiantzarekin aldarrika daiteke <h> horiek desagertzeko zorian zegoen hasperenaren adierazle direla. Adibidez, *-ao-* hiatoaren gauzatze grafikoaren gorabeheretan sakondu gabe, adierazgarriak dira *CORDE*-ko datu basean 1700era bitartean ageri diren *caos* hitzaren aldaera grafikoen kopuruak: <caos> grafiarekin 227 agerraldi ditu, <cahos> grafiarekin 6 baizik ez, horietako bat X. mendekoa, eta beste hiru XV.ekoak, ez prezeski *Viva Jesús* testuaren garaioak. Azterketa zorrotzagoen zain, honek pentsaraz lezake *Viva Jesús*-eko *ardahoa* sintagmako <h>-k hasperena adierazten duela: <h> hori, gainera, hasperena berreraikiko genukeen tokian agertzen da, bete-betean (<\*ardano). Baina arazo larriak ditu hipotesi honek: bitxia litzateke XVI. mendeko bizkaierazko testuetan hasperenik ez agertzea, eta XVII. mendeko *Viva Jesús*-en halakorik izatea (ik. Mitxelenak *RS*-ko hatxeaz egindako azterketa zorrotza, XI 159-167); ustezko hasperena hirugarren silaban agertzeak (*FHV*

Hemen dugun <h> letrak ez du ahoskera islatzen (cf. *armaaq* 77), erabilera grafiko bat baino ez du, hiatoak markatzeko, alegia. Erabilera hau, dagoeneko testu zaharragoetan ere lekukotua (*RS*), garaiko beste testuetan ere aurkitzen dugu, Beriainen liburuetan eta garai bertsukoa bide den *VJ*-n (Ulibarri 2010).

Kasu honetan, ez dira asko tradiziozko hipotesiari aurka egiteko ditugun adibideak: *-aa-* hiatoa ez da ugaria gaztelaniaz, eta, ditugun datu apurrekin, ezin da osatu orokortze sendorik; dena den, orokortze sendorik ezin osatuta ere, gogoan izan behar da XVI-XVII. mendeetan ez dagoela <aha> idazten den hiatorik *CORDE*-ko corpus horretan (ez eta orduko euskal testuetan, egiari zor).

Euskarazko bi adibideak isolatu xamar agertzen dira, eta ez dute osatzen sorta esanguratsurik, Beriainenek ez bezala; hala, <h> grafemaren erabilera prohiatikoaren hipotesia lehenetsiko nuke oraindik pluraleko sintagma honetan, baina erabat baztertu gabe hasperenaren aukera.

- (c) Beriainen kasuan, batera aztertu behar dira deklinabide mugatu pluraleko atzizkien eta erakusleen grafiaren gorabeherak. *-Ie-* eta *-oe-* hiato ustekoak agertzen dira batzuetan zein besteetan: *-ie-*ri dagokionez, cf. *gucihequi*, *orihec*, *ayhec* <h>-dunak eta *guciec*, <h>-gabea, besteren artean; *-oe-*ri dagokionez, cf. *magohec*, *ohec* <h>-dunak eta *oracioetan*, *cautiuen* <h>-gabeak. 7.3.1.2 eta 7.3.1.3 ataletan egin dut Beriainen datuen berariazko azterketa; honi gehitu behar zaizkio *CORDE*-n egindako bilaketetatik atera ditugun emaitzak: nire lagin ttiki horretan, ez da behin ere <ihe> idatzita ageri *-ie-* hiatoa 1650. urtera bitartean; *-oe-* hiatoaren kasuan, berriz, ez dago <ohe> grafiaren adibide esanguratsu bakar bat ere XVI. eta XVII. mendeetan.
- (d) Urrozko 1582ko agiri bateko *quexasen den ha* perpausean agertzen den artikuluerakuslearena zailagoa da argitzen, morfologiaren aldetik ere ustekabeko forma baita. Ikusi bezala, argixeago agertzen dira hiatoetako <h>-ren erabileraren gorabeherak, eta emaitza erabatekoagoak eskura daitezke, baina kasu honetan grafia ohiturez dakigunak ez gaitu laguntzen. Hona zer dakarren Sánchez-Prietok (1998: 119) gaztelaniazko *haber* aditzaren hirugarren pertsonako *ha* adizkiaren idazkeraz:

---

215) eta *\*\*hardao* aldaerarik inon ez izateak ez du hipotesia sendotzen (Lakarra 2012: 693).

En la extensión de *h-* a las formas monosilábicas de *aver* (que aun no muestran los códigos alfonsíes), especialmente a las de tercera persona, ha de verse un incremento del contorno gráfico, y para *ha* (más proclive a adoptar *h-* que el resto), el valor diacrítico respecto a la preposición *a* (para hay, v. i. 165).

Nire ustez, kontuan hartzekoa da hasperenaren aukera, baina, Sánchez-Prietoren oharra aintzat hartuta,<sup>536</sup> ezin da baztertu euskarazko *ha* honen kasuan <h> grafemak balio grafiko hutsa izatea, “incremento del contorno gráfico” moduko bat.

Honenbestez, proposatu dut hasperena adieraz zezakeela hatxeak berreraiketarako argudio gehigarri moduan erabili ditudan euskal datuetan. Kasuan kasuko zailtasunak gorabehera, argudioak bildu ditut, esateko ustezko hiatoen kasuan, behintzat, hala dela. Hasperenari buruzko atal hau bukatzeko, bi ohar egin nahi ditut, bata grafiazko auziei dagokiena eta bestea hizkuntzazko kontu batena: (1) <h> grafemaren funtzio prohiatikoaz denaz bezainbatean, zergatik ez da agertzen euskarazko testuetan hiatoak markatzeko beste baliabideen adibiderik?<sup>537</sup> Barrosok eta Sánchezek dioten bezala <h> grafema hiatoak markatzeko baliabideetako bat baizik ez baldin bada (ikus 7.3.2.2 ataleko aipua), espero izatekoa izan liteke beste baliabideen adibideak deskribatu izana euskal testuen grafiazko azterketetan, hala nola tileta askotarikoak. Nire ustez, honek ahuldu egiten du <h> grafemaren funtzio prohiatikoaren hipotesia, eta, era berean, hasperenarenaren hipotesiaren alde egiten. (2) Hauxe da atal honetako ondorio deigarrienetako bat: XVII. mendera arte iraun zuen hasperenak Nafarroan.

Dena den, ohartu behar da erakusleenak direla eztabaidara ekarri ditudan adibide nabarmenenak. Tesi honen gaia hori izanik, ez da harritzekoa erakusleetaoak izatea aurkitutako hasperenak —gogoan har bedi, bestelakoen artean, Beriainen *ohaye*—, baina, nire iritziz, ez da kontu metodologiko soila, eta galdera egin daiteke: zergatik iraun zuen hasperenak erakusleetan? Honi erantzuteko, aipatzekoa izan daiteke Larresoroko euskararen adibidea: azken hamarkadetan hasperena galtzen joan da

<sup>536</sup> Erdi Aroko idatz ohiturez ari da Sánchez-Prieto, baina arazo hau berdin planteatzen XVI. mendeko euskal lekukotasun honetarako: Valdéseek berak, ahoskatzen ez ziren <h>-ak idaztearen aurkakoa izanik ere, *h* erabat ortografikoa erabiltzearen alde egiten du *haber* aditzaren hirugarren pertsonako adizkiaren kasuan (Plans 1982: 169).

<sup>537</sup> Gogoan har bitez, hala ere, *Gobeio* eta beste, fonetismotzat jo dutan <i> batekin (4.4.3 (d, v) atala).

hizkera hori, baina adierazgarria iruditzen zait Epeldek erakusleetan ere badirauela izendatuki nabarmentzea (2004: 56):

Hala ere, aspirazioak oraindik badu indarra arestian aipatutako bi kokaguneetan: hitz hasieran eta hitz barruan bokal artean, nahiz eta sistematikoa ez izan. Hitz hasierako adibideak ugariak dira: [h]azíl, [h]anítz, [h]áur, [h]áts, [h]áat ‘harat’, [h]ási, [h]áitz ‘haritza’, [h]arági, [h]arí, [h]argín, [h]átz, [h]ántu, [h]ártu, [h]ánka ‘aldaka’, [h]oitamar, [h]áun ‘haguna, lerdea’, [h]amar, [h]étsi, [h]eian ‘ea’, [h]il, [h]íts, [h]iru, [h]ítz, [h]ogói, [h]olola ‘hola-hola’, [h]ola, [h]uts... *Erakusleak eta hauen eratorriak askotan ebakitzen dira hasperenez.* [Etzana nirea]

Nire ustez, berdintsu gertatu ahal izan zen Nafarroan ere. Bestalde, gogoan hartu behar dira, nire ustez, Schulzeren hitzak: erakusleak maiz ez dituzte hertsiki segitzen hizkuntzaren arau fonetikoak (2003: 293; ik. 5.5.6 atala); hortaz, ez da harrizkoa, erakusleen izaera berezia kari eta hasperena galtzen ari zen joera orokor baten barrenean, horietan iraun izana hasperenak luzaroena.

#### 7.4 Heineren eta Kutevaren proposamenen kritika laburra<sup>538</sup>

Atal honek 2.8 atalean agertutako zenbait ideiaren kritikan sakontzen du. Batez ere euskal artikulua indefinitua aipatzen dute Heinek eta Kutevak beren proposamenen alde egiteko; aipamen bat gorabehera, ez dute berriaz aztertzen *-a* artikulua definitua. Atal honetan, beren hipotesi orokorraren zenbait argibide emango dut lehenik, eta ondoren erakutsiko dut euskara ez dela irozgarri egokia beren proposamenetarako, datuak behar bezala ezagutuz gero.

##### 7.4.1 Ukipenak bideratutako gramatikalizazioa

Heinek eta Kutevak diotenaren arabera, ukipenak bideratutako gramatikalizazioaren ezaugarrietako bat zera da, aldaketa bat-batekoa ez izatea, mailaz mailakoa baizik. Hizkuntz kopiatzailearen<sup>539</sup> hiztunek aktibatu egiten dute beren hizkuntzaren patroia bat, eredu-hizkuntzatik hurbilen dagoen patroia edo egitura, eta kideko egitura bat garatzen dute horrela. Kategoria gramatikal oso moduan gramatikalizatzen da patroia berri edo indartu hau, azken buruan, eredu-hizkuntzan parekoa den kategoriaren antzera (Heine

<sup>538</sup> Kritika hau berau aurki daiteke, modu zabalxegoan, nire beste lan batean (Manterola 2012). Ikus Owen-Smith (2013) eta Gardani (2014) lan horren kritika banarako.

<sup>539</sup> Ingeleseko terminoa “replica language” da.

and Kuteva 2005: 121). Hortaz, hastapenean eredu-hizkuntzaren kategoria baten kidekorik ez badu ere, hizkuntza kopiatzailearen patroia edo egitura jakin batek gramatikalizazio bide bat har lezake, eredu-hizkuntzaren egitura batek aurretik izandako bide baten paraleloa. Neurri honetan, zilegi da pentsatzea honako ideia honetan datzala hizkuntza kopiatzailearen eta ereduaren arteko antzekotasuna: gramatikalizazio bide bera partekatzen dute bi hizkuntzetako egitura paraleloek.

Beste hainbat zehaztapen egiten dituzte Heinek eta Kutevak ukipenak bideraturiko gramatikalizazioaz; aipu honetan ongi biltzen dira (2005: 101):

[W]herever there is sufficient evidence, it turns out that the replica construction is less grammaticalized than the corresponding model construction [...] in the initial stage of grammaticalization, the new category tends to be ambiguous between its literal and its grammaticalized meaning, it tends to be confined to few contexts, and its use is optional [...] Such properties are commonly encountered in replicated categories.

Hipotesi hau zinez da erakargarria, uzten baitigu berreraikitzen zein hizkuntza izan den eredu, eta zein kopiatzaile, egituraren gramatikalizazio mailaren arabera: “[I]t seems possible to determine in a situation *where no diachronic information is available* which is the model and which is the replica category.” (Heine and Kuteva 2005: 120; etzana nirea).

Jakina, autoreak eurak ohartuak dira berreraiketarako teknika honen mugez eta onartzen dute ukipenak luzaro irauten badu, bi kategoriak, eredu eta kopia, “structurally indistinguishable” bilaka daitezkeela (2005: 120).

Nire ustez, bada arrisku bat hemen, argudiatze zirkular batean erortzekoa, bi hizkuntzen ukipen harremana hipotesi honen arabera zedarritzen dugunean; aurretik beti egon behar luke hizkuntzen diakroniaren ezagutza sakon batek.

#### 7.4.2 Artikulu definitua Heineren eta Kutevaren lanetan

Nik dakidala, liburu bakarrean baizik ez dituzte berriaz eztabaidatzen artikulu definituaren gorabeherak Heinek eta Kutevak, 2.8.3 atal hasieran jarri dudana aipuan (2006: 32). Haien arabera, baliteke *-a* artikulua, bere erabilera zabalduarengatik (ik. 2.6.1 atala), estrukturalki kidekoa ez izatea *Standard Average European*-eko hizkuntzetako artikuluekin alderatuta; beraz, ezingo litzateke haiekin konparatu.

Egia da, haiek dioten bezala, erreferente ez-espezifikoak adierazteko erabil daitekeela *-a* artikulua eta, alde horretatik, argudia daitekeela artikulua definituaz besteko zerbait dela.

Baina, eztabaida honetan, ez zait iruditzen esanguratsua denik estrukturalki kidekoa izatea ala ez. Are gehiago, Heineren eta Kutevaren irizpideen beren aurkakoa da horrela pentsatzea: kidekoa izan behar dena gramatikalizazio bidea baita, ez bi hizkuntzaren garai jakin bateko egiturak edo kategoria funtzionalak. Artikulu definituei begiratuta, gainera, nabarmena da ez dugula antzemango hizkuntzen arteko kidetasun estruktural hori, ez modu erabatekoan, bederen.

Tesi honetan zehar ikusi da euskal artikulua definitua bete-betean sailka daitekeela *erakusle* → *artikulu* gramatikalizazio bidearen barruan. Orobat gertatzen da hizkuntza erromantzeetan, *ille* ‘hura’ erakuslea baita, haietako askotan, artikularen jatorria. Gauzak honela, nire ustez, Heinek eta Kutevak onartu beharko lukete konpara daitekeela euskal artikulua definitua erromantzezkoekin. Are gehiago, euskal ikasketetan, konparatuak izan dira honezkero, eta proposatu izan da euskal artikulua ukipen egoeran sortu zela (1.1.4 eta 2.7 atalak).

Ikuspegi honek guztiak arazo bat dakar Heineren eta Kutevaren argudiobiderako: askoz modu zabaldagoan erabiltzen da euskal *-a* artikulua bere erromantzezko kideak baino. Euskal artikularen gramatikalizazio maila erromantzezkoena baino aurreratuagoa egoteak ez du beren iragarpena betetzen: beren hipotesia da euskaraz — hizkuntza kopiatzailea izanik— egitura kopiatua askoz maila apalagoan egon beharko litzatekeela gramatikalizatua eredu-hizkuntzetan baino.

Honenbestez, bi aukera logiko ikusten ditut, Heineren eta Kutevaren hipotesiari eutsi nahi badiogu:

- (a) Euskara da eredu-hizkuntza eta erromantzeak hizkuntza kopiatzaileak.
- (b) Ukipen egoerak aski luzaro iraun du, eta honek lausotu egin du eredu-egituraren eta kopiatuaren arteko jatorrizko gramatikalizazio maila erlatiboa.

Baina aukera hauetako bakoitzak bere arazoak ditu: lehen kasuan (a), esan nahi ote dugu euskara eredu-hizkuntza dela artikulua definiturako baina hizkuntza kopiatzailea dela

artikulu indefiniturako? Jarraian ikusiko den bezala, euskal artikulu indefinitua egitura kopiatu gisa deskriba daiteke, Heineren eta Kutevaren arabera.

Azalpen honen bidetik joz gero, ez ginatke erabakitzen ariko zein den eredu-hizkuntza eta zein kopiatzailea benetako datu soziolinguistikoen arabera —ez dugu halakorik—, baizik gure hipotesian egokiena den aukeraren arabera. Uste dut arazo metodologiko hauek saihesteko aukera logiko hau baztertu behar dela.

Aukera logiko honen gaineko eztabaidak zeharka iradokitzen du beharbada ezin dugula erabaki zein den eredia eta zein kopiatzailea egituren gramatikalizazio maila erlatiboaren arabera.

Bigarren aukera (b) izendatuki hartzen dute aintzat Heinek eta Kutevak, euskararen kasu zehatzerako ez bada ere: “[O]ne caveat with regard to this generalization: given enough time, replica categories can develop in the same way as their models” (2005: 265).

Irtenbide hau hartzekotan, (a) irtenbidean agerturikoaren ispilu-arazoa genuke: ukipen egoerak hain luzaroan iraun badu, non kategoria kopiatua, *-a* artikulu definitua, ereduzkoa bezainbeste (eta gehiago) gramatikalizatu den, zer esan behar dugu *bat* artikulu indefinituaz?

Euskal ikasketetan gauza ezaguna da artikulu definitua bezain zaharra izan daitekeela artikulu indefinitua: hor da *batzu* plurala, aski zaharra irudi duena (2.6.6 atala); Heineren beraren arabera, artikulu indefinitu baten gainean pluraleko forma bat sortzeko, oso aurreratua behar du egon bere gramatikalizazio bidean artikulu indefinituak berak, hain zuzen ere ‘bat’ esanahiaren guztiz aurkakoa baita pluraltasuna. Ikus 3.2.5.2.1 atala.

Bada beste aukera bat, jakina: baliteke eredu hizkuntz(et)an artikulu definitu eta indefinituen gramatikalizazioa abiadura ezberdinetan gertatu izana. Gai sakonagoa da hau, hizkuntz aldaketaren abiadura erlatiboari dagokiona; honi buruz, ikus 5.1.1 ataleko (e) puntuko oharra.

Laburki agertu dudan bezala, zenbait arazo daude artikulu definituaren bilakaera Heineren eta Kutevaren proposamenen arabera azaldu nahi dugunean. Are gehiago, *bat* artikulu indefinituarekin batera aztertzen badugu, arazo berriak azaleratzen dira beren



hipotesirako. Hurrengo atalean, zehatzago aztertuko dut artikulua indefinitua.

#### *7.4.3 Euskal artikulua indefinitua Heineren eta Kutevaren lanetan*

Bigarren kapituluaren azaldu bezala (2.8.3 atala), bi baieztapen nagusi egiten dituzte Heinek eta Kutevak artikulua indefinituaren diakroniaz: (1) euskararen historia goiztiarrean ez zegoen artikulua indefiniturik, eta (2) erromantzezkoen eredura sortu zen. Nabarmena da (1) puntua okerra dela; ikus 2.6.6 atala. Bigarren puntuaz zenbait zehaztapen egin behar dira: ez dugunez *bat* artikulua sortu zen garaiko testurik, ez dakigu zehazki noiz sortu zen; zilegi izan daiteke pentsatzea euskarak bazuela artikulua indefinitua hizkuntza erromantzeekin ukipenean egon baino lehen.

Jakin badakigu hizkuntzek, joera tipologiko moduan, ez dutela bakarrik artikulua indefinitua izaten (3.2.5.2.2 atala), eta, beraz, joera honen arabera hipotesia honako hau izango litzateke: artikulua definitua Erdi Aroan sortu baino lehen euskarak ez zuen artikulua indefiniturik. Baina bereizi beharra dago zer ondorioztatzen dugun gure aieru teorikoetatik eta zer dakigun datu ziurretatik. Gogoan izan behar dugu, halaber, turkiera salbuespena dela joera honetarako, are gehiago kontuan hartzen badugu euskaratik hurbil egon daitekeela turkiera tipologiaren aldetik (Comrie 2008).

Laburbilduz, artikulua indefinituaren antzinatasunaren auzian, ezin dugu ondoriorik atera gure hipotesian hobekien egokitzen den aukerari begiratuta bakarrik. Ororen gainetik, arazo enpirikoa da, datu egokien faltarena, edo ditugun datuez egin genezakeen erabilerarik egokienarena.

##### *7.4.3.1 Gramatikalizazio maila apalagoak zer esan nahi duen*

Euskarazko *bat* artikulua gramatikalizazio maila apalagoa du erromantzezko *un*-ek baino, edo, bestela esanda, ez da erabiltzen erromantzezkoa erabiltzen den hainbat egitura sintaktikotan. Honek bete egiten du Heineren eta Kutevaren iragarpena, hizkuntza-ereduaren eta kopiatzailearen egituren gramatikalizazio maila erlatiboari dagokiona.

Ez zait iruditzen kategoria kopiatua izateak bakarrik eragiten duenik euskal artikulua erromantzeetako baino testuinguru gutxiagotan erabiltzea. Ikus honako

adibide moderno hau, euskal eremuko erdialdekotzat har daitekeena:

- (17) a. *Eneko gizon ona da.*  
 b. ??*Eneko gizon on bat da.*

Hona perpaus honen bi baliokide erromantze, artikulua indefinituarekin: *Eneko est un bon homme* edo *Eneko es un buen hombre*. Argi dago bestelako aldagaiak egon daitezkeela tartean: nola eragin zuen *-a* artikuluaen zabaltzeak *bat* artikuluaen gramatikalizazioan? Aintzat hartu beharra dago artikulua definituaren erabilera zabalduak eragina izan dezakeela *bat* indefinitua testuinguru zenbaitetan tratatzeko.

Era berean, aurki daitezke hainbat testu eta hizkeratan halako perpausak *bat* artikuluaekin: cf. Leiz Mat 14: 26 *Fantosmabat da* eta Lazarg B26: 1 *Lecu on bat da Escocia*, hainbaten artean. Galdera da ea sintagma hauetan *bat* erabiltzea lotua ote dagoen hizkera eta testu hauetan *-a* artikulua egiten den erabilerarekin. Lan hau egiteko dago, baina *-a* eta *bat* artikuluen harremana ulertzen lagundu beharko luke seigarren kapituluko deskripzio zehatzak.

Euskararen barne azterketatik beretik datoz galdera hauek, eta uste dut teoria orokor batek irtenbideak eman beharko lizkiekeela hizkuntzen berariazko arazoei. Heineren eta Kutevaren alde, bere iradokizunera itzul gintezke: ukipenak luze iraun badu, gramatikalizazio maila erlatiboak lausotu ahal izan dira eredu-hizkuntzan eta kopiatzailean; baina, horrela balitz, 7.4.2 ataleko arazoetarako itzuli beharko genuke. Beren proposamenei eutsi nahi badiegu, ez dago irtenbide argirik euskararako.

#### 7.4.3.2 Batzu artikulua indefinitu plurala eta Heineren eta Kutevaren proposamenak

Aurreko ataleko arazoez gain, galdetu daiteke zer adierazi nahi den esaten denean euskal artikulua indefinitua ez dagoela oso gramatikalizatua, gogoan hartuta badela euskaraz *batzu* artikulua indefinitu plurala. Eman dezadan Heineren artikulua indefinituen gramatikalizazioaren eskema (1997: 71-76):

(17) *Zenbatzailea* → *aurkezle marka* → *espezifikotasun marka* → *ez-espezifikotasun marka* → *artikulu orokorra*<sup>540</sup>

Ez ditut hona ekarriko aro bakoitzaren xehetasunak. Bosgarren aroko ezaugarri bat emango dut bakarrik: artikulua orokorraren aroan, artikulua izen pluraletarako ere erabiltzen da; gaztelaniazko *uno/una* artikulua indefinitua, esaterako, erabil daiteke pluraleko morfologiarekin, *unos/unas* ‘batzuk, zenbait’.

Eskema honi jarraituta, eta oharturik euskaraz ere badela *bat* zenbatzaitetik eratorritako pluraleko *batzu* artikulua indefinitu plurala, onartu beharko genuke euskarazko artikulua oso goiz gramatikalizatu zela bidearen azken bururaino. Hau hala bada, ahuldu egiten da Heineren eta Kutevaren hipotesiaren oinarria, bai baitirudi gramatikalizazioaren bide arrunta ez dela betetzen kasu jakin honetan. Beste aukera logiko bat litzateke (17)-ko eskema oker egotea, euskal artikulua indefinitua ez baitago oso gramatikalizatu baina era berean *batzu* plural zaharra hor baitago.

Honenbestez, esan liteke *bat* artikulua indefinitua ez dagoela oso gramatikalizatu, bere erabilera testuinguruei begira, baina, era berean, oso gramatikalizatu dagoela, *batzuk* plurala duelako. Deigarria da paradoxa hau, baina, autoreen proposamenak alde batera utzita, pentsa genezake artikulua indefinituaren gramatikalizazioa ez dela izan (17)-ko bide tipikoaren arabera. Ohartu behar da, halaber, munduko hizkuntzetan aski arraroak direla zenbatzaitetik sortutako artikulua indefinitu pluralak (Heine 1997: 77, Himmelmann 2001: 838); esanguratsua da, hortaz, eremu jakin batean ezaugarri hau partekatzea hizkuntza batek baino gehiagok, are ahaide ez diren hizkuntzek ere: ezaugarri areala izan daiteke hau, Mitxelenak iradoki bezala.<sup>541</sup>

Hainbat galdera geratzen dira erantzun zehatzik gabe. Ukipen intentsiboko egoerek zer eragin dute gramatikalizazio bideetan? Ihardets genezake, beharbada,

<sup>540</sup> Jatorrizkoan, “*numeral* → *presentative marker* → *specific marker* → *nonspecific marker* → *generalized article*”.

<sup>541</sup> Aurreko lan batean, gaizki ulertu nuen Mitxelenaren pasarte hau: “Téngase en cuenta que, en la oposición de ‘uno’ a ‘unos, algunos’ la expresión abierta del plural era inevitable” (IX 283); ulertu nion hizkuntza erromantzeen eredura sortu zela *batzu* artikulua indefinitu plurala (Manterola 2012: 242). Mitxelenak hor ez dio horrelakorik; beste toki batean, ordea, bai esaten du ezaugarri areal gisa ikus daitezkeela *bat/batzu* artikulua indefinituak (VII 533).

erromantzeen eredua hain izan zela indartsua non eragin baitzuen euskarazko *bat* artikularen gramatikalizazioan aro batzuen gainetik jauzi egitea, zuzenean azkenekora joz. Horrela, ez genuke (17) eskema aldatu beharko, baina bai irekiko litzaiguke ikerketarako ildo berri bat; hots, konpara genezake gramatikalizazio prozesu “naturalen” eta ukipenak gogor erasandakoen artean. Heineren eta Kutevaren proposamenen osagarri ere izan daiteke aukera hau.

Zilegi da baita ere bestelako konfigurazio soziolinguistikoetan pentsatzea antzinako garaietarako: ezaugarri areala dela kontuan hartuta eta euskarazko *batzu* aski antzinakoa izan behar dela onartuta, euskara bera izan liteke eredu-hizkuntza gramatikaren atal honetan. Gogoan har bedi, lexiko mailan, *ezker* hitza euskaratik dutela mailegatua gaskoierak, katalanak, gaztelaniak eta portugesak, zuzenean ala zeharka; artikulua indefinitu plurala dute hizkuntza horiek ere.<sup>542</sup>

Azkenik, ohartarazi nahi nuke ez dugula behar bezala ezagutzen *batzu*-ren morfologiaren osaera diakronikoa; argi dago *-zu* osagaiak pluralizatzen duela *bat* (Mitx IX 283), baina zer gramatika motaren arrasto da ustezko *-zu* pluralgile hau? Hizkuntzaren beste atal batzuetan ere erabiltzen zen, izenordain, erakusle edo izen sintagmetan? Baliteke, pluralgile betea adierazi beharrean, bestelako ñabarduraren bat adieraztea, eta aski izatea ‘bat edo’ adiera zeukakeen zenbatzaile zehaztugabe batetik abiatzea; cf. *bateratsu*, *orobatsu* eta abar, *-tsu* atzizkiarekin, *-zu*-ren kognatua baita. Eta, bukatzeko, zenbateraino da esanguratsua, bere antzinasunari dagokionez, *batzu* erabat orokorra ez izatea (cf. erronk. *banak/banek*)?. Ukipenari buruzko edozein proposamenetan hasi baino lehen, ezinbestekoa da hizkuntza barneko arazo hauek konpontzea.

#### 7.4.4 Azken oharrak Heineren eta Kutevaren euskarari buruzko hipotesiez

Euskal datuek ez dituzte Heineren eta Kutevaren analisiak sostengatzen eta arazo

<sup>542</sup> Bearnesez *us*, *uns*, *ues* eta *unes* daude, “certains, certaines, des” esanahiarekin (RayLesp s.v. *u*, *un*), eta “unes ardentes pregaries” adibidea dago Oloroeko 1788ko katexima batean, baina gaskoierazko gramatiketan hutsik agertzen da maiz artikulua indefinituen atala; Rohlfsek (1977), esaterako, ez dakar haien aipamenik. Erabilera jakin batzuetan, cf. *lous ûs e lous auts* (Palay s.v. *û*, *ue*); cf. halaber frantsesezko *quelques uns*, *les uns et les autres* eta halakoak, baina *des hommes sont venus*, ez *\*\*uns hommes sont venus*.

berriak azaleratzen dira euskal artikuluen definituaren eta indefinituaren diakronia batera aztertzen denean. Honek ez du esan nahi ukipenak ez duela eraginik izan euskal artikuluen bilakaeran; euskal ikasketetan izan dira proposamenak gai honetaz (2.7 atala).

Nabarmen agertu da, gainera, askoz egoera ñabarragoa antzeman daitekeela hizkuntzaren errealitatean, sinkronikoan zein diakronikoan, Haaseren eta Heineren eta Kutevaren lanetan deskribatzen dena baino. Ezezagutza horretan dago haien analisisen arazo oinarria, eta, hala berean, datu eta analisi “berriek” (-a artikuluen D-elementu izaera, euskaraz *batzu* plurala izatea, etab.) behartu egiten gaituzte Heineren eta Kutevaren proposamen teorikoei ere berriz begiratzera, euskal datuek sostengatzen zituztelakoan egindakoak baitira. Lau puntu nagusi aipa daitezke, bere proposamen teorikoen ahulgune eta ikerketarako aukera berri gisa:

- (a) Ezin da erabili lehen hurbilketa gisa kategoria edo egitura paraleloen gramatikalizazio maila erlatiboa, bi hizkuntzaren ukipen auziak erabakitzeke. Beren harreman diakronikoa ezarri nahi badugu, beste galdera batzuk erantzun behar dira lehenago.
- (b) Informazio diakronikorik ez dagoenean, kontu handiarekin ibili beharra dago; ongi erakutsi du hau euskararen adibideak: Heinek eta Kutevak zeukatena baino informazio eta ezagutza hobea edukita, okerrak suertatu dira haien iragarpenak.
- (c) Heinek eta Kutevak esaten dute ukipenak luzaro irauten badu eredu-hizkuntzako eta kopiatzaileko egituren gramatikalizazio maila erlatiboak lausotu egin daitezkeela. Denboraren dimentsio honetaz gain, aldagai esanguratsua izan daiteke ukipenaren intentsitatea ere.
- (d) Gogoan hartuta hizkuntza erromantzeen eraginarengatik azaldu izan dela euskaraz singular/plural bereizketa morfologikoa (2.7 atala), interesgarria izan liteke aztertzea nola eragiten dioten elkarri artikuluen gramatikalizazio bide tipikoak eta numero morfologikoen bilakaerak.

Ohar hauek guztiek ez dituzte bertan behera uzten Heineren eta Kutevaren hipotesiak; eguneratu egin daitezke euskarari buruz dakigunarekin. Era berean, zuhurtziarako deia

dira, zenbait auzitan ez baitugu datu erabatekorik euskaraz, eta gogoan hartzekoa da zein garrantzitsua den aztergai diren hizkuntzen ezagutza filologikoa eta diakronikoa.

Ukipenak eraginiko aldaketa gertatu dela ziurtasunez erabakitzeko, argigarriak dira Thomasonen jarraibideak (2008: 49). Horietako bi, laugarrena eta bosgarrena, zuzenean daude lotuta arestian aipatu dudana hizkuntzen ezagutza filologikoa eta diakronikoa izan beharrekin. Batetik, ohartarazten digu hauxe frogatu behar dugula: ukipena gertatu baino lehen, hizkuntza kopiatzaileak ez zuen ustez hartutako egitura jakin hori bere gramatikan; hau bi modutara egin daiteke, ukipena gertatu baino lehenagoko testuak aztertuz edo hizkuntza kopiatzailearen ahaideei begiratu, protohizkuntzak egitura hori ba ote zuen argitzeko. Bestetik, jakina, ziurtatu behar dugu ustez kopiatu diren egiturak eredu-hizkuntzan zeudela ukipena gertatzen hasi zenerako.

Nire iritzia da Haasek ez dituela bete oinarritzko urrats hauek artikulua definituari eta indefinituari dagokienez, ez eta, ondorioz, Heinek eta Kutevak ere. Testu zaharrak ez daude ongi aztertuta, eta, hizkuntz ahaideen faltan, ez da kontuan hartu euskalkien arteko bariazioa.

Hutsune metodologikoa hauek urritu egiten dute Heineren eta Kutevaren analisisien zehaztasuna. Gainera, espero izatekoa zatekeen beren hipotesiek argi zerbait ekartzea euskararen bere-berezko arazoan gainean, teoria eta datuak elkarren indargarri izan zitezkeen. Hau ez da hala izan; argi geratu da euskara ez dela abiapuntu ona beren hipotesietarako, artikuluek denaz bezainbatean, bederen. Horiek hala izanik ere, agerian geratu da berebat Heineren eta Kutevaren hipotesiak datu berriekin probatu daitezkeela; beren teoria indartu liteke datu hauek egokitu ahala.

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

### EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Tesi honek euskal artikulua definitua izan du aztergai, bere dimentsio diakroniko eta historikoan. Gramatikalizazio bilakabide tipiko eta ezagun baten barrenean deskribatu dut artikuluaen sorrera. Zeregin horretan, Himmelmannen lana hartu dut gidari, oinarritzko abiapunturako: D-elementu moduan sailkatu dut euskal artikulua definitua ere; bide horretatik, euskal deklinabide mugatu osoa D-elementuz osatua dagoela proposatu dut. Artikuluaren eta deklinabide mugatuaren berreraiketa morfologikoaren oinarria izan da hori.

Bestalde, edozein gramatikalizazio prozesutan deskribatu ohi den bezala, testuinguru sintaktiko berrietara zabaltzen da gramatikalizatzen den osagai lexiko edo gramatikala, eta artikuluaen alderdi horretaz ere arduratu da tesi hau. Horretarako, Companyren eta beste zenbait autoreren lana izan da abiapuntua, eta deskribapen modu batera mugatu dut egitekoa bera: XVI. mendeko artikuluaen erabilera deskribatu dut. Artikuluaren sintaxi historiko bat egiteko oinarria izan da hori.

Bi eginbide nagusi horietaz gain, edo horien lagungarri, beste zenbait alor ere landu ditu tesi honek: onomastikaren alorrean, hainbat ohar egin ditut Erdi Aroko izenei buruz; sailkapen tipologikoaren alorrean, zenbait zehaztapen egin ditut euskararen eransle izaerari buruz, eta, bere izaera ergatiboari dagokionez, artean euskalaritzan aipatu gabeko ergatibitate erdibitu mota jakin baten barrenean sailkatu dut; fonologia historikoaren esparruan, berriz, beste zenbait ohar egin ditut hasperenaren iraupenari buruz. Jardun lagungarri edo ondorio zuzen horietaz gain, kritika labur bat ere egin dut, hizkuntz ukipenaren teoria modernoan argitara euskarari buruz Heinek eta Kutevak plazaraturiko zenbait ideiarena.

Horretaz guztiaz gain, hainbat eranskin osatu ditut tesi honetarako: egindako lanen erakusgarri dira eta oinarri enpiriko sendoa ezartzen dute tesian landuriko gaien analisirako. Bi eranskin multzo nagusi daude horien artean: batetik, Erdi Aroko datuekin

osaturiko eranskinak (II eranskinak), laugarren eta bosgarren kapituluetakoa lanaren emaitza; eta, bestetik, testu historikoetan bildutako datuak (VI eranskinak), seigarren kapituluko deskripziorako datu-base moduan erabili direnak.

Hurrengo ataletan, labur bilduko ditut aipaturiko bi eginbide nagusi horien emaitzak, baita horien zuzeneko eta zeharkako ondorioak ere.

### **8.1 Berreraiketa morfologikorako oinarriak: Erdi Aroko onomastika**

Hirugarren kapituluaren aurreratu bezala (3.3), Erdi Aroko datuak erabili ditut bosgarren kapituluko berreraiketa morfologikorako. Horretarako, corpus zabal eta esanguratsu bat osatu dut, hirurehun bat agiri-bilduma eta kartulariotakoa; corpus horretan, euskal eremu historikoko datuak daude (Burgos eta Errioxa barne), baita Aragoikoak eta are Kataluniakoak ere; VIII. mendekoak dira corpuseko agiri zaharrenak, eta XVI.ekoak berrienak. Horrela, Erdi Aroko datuen berariazko analisi sistematikoa egin ahal izan dut; laugarren kapituluaren burutu dut analisi sakon hori. Kapitulu horretako emaitza eta ondorio nagusiak ekarri ditut hona.

#### *8.1.1 Erdi Aroko agirietako grafiaz: hatxeak hasperena adierazten du*

Xeheki aztertu ditut Erdi Aroko agirietako grafiaren gorabeherak, helburu jakin batekin: ziurtatzea hasperena adierazten zutela Donemiliagako kartulario galikanoko hatxeek. Proposamena ez da berria, eta lehenagoko ikertzaileek ere proposatua zuten. 4.3 atalean, ideia horretan sakondu besterik ez dut egin, bi bidetatik: batetik, azken urteetan Iberiar penintsulako Erdi Aroko dokumentazioko grafiaz esandakoen berri eman dut, Quilis, Ariza, Mascaró eta besteren lanak gogora ekarriz; bestetik, Donemiliagako *Reja*-ko hatxe guztien azterketa xehakatu egin dut. Argia izan da ondorioa: hatxe horiek aztertzen direnean, hasperenaren adierazpen grafikotzat jotzea izan behar da lehen aukera; bestelako erabilerek —delako “antihiatikoak”, esaterako— ez dute maiztasun konparagarriarik.

#### *8.1.2 Erdi Aroko agiriak: hatxeak, hasperenak eta D-elementuak*

Erdi Aroko hatxe gehienek hasperena adierazten zutela kontuan hartuta, orduko



agiritan D-elementuak bilatzea izan da hurrengo urratsa. Hirugarren kapituluaren aurreratu dut harreman estua dagoela D-elementuen eta deklinabide mugatuaren artean; zilegi zirudien, beraz, Erdi Aroko zenbait atzizkitan aldaera hatxedun/hasperendunak bilatzea, atzizki horiek aspaldidanik deklinabide mugatukoekin lotu izan diren neurrian eta atzizki horiek azken buruan erakusle hasperendun gisa berreraiki zitezkeen neurrian. Erdi Aroko izenetan lau atzizki identifikatu ditut D-elementu jatorriarekin, *-a* artikulua prototipikoa, *-aga* eta *-eta* multzo-atzizkiak, eta superlatiboko *-en*; horietan denetan, esan bezala, aldaera hatxeduna aurkitzea zen aurreikuspena, hots, *-ha*, *-haga*, *-heta* eta *-hen*. Ezberdinak izan dira emaitzak, atzizkiaren arabera, zein bere arazo partikularrekin, baina denetan ditugu aldaera hatxedunak. Hipotesi nagusiari jarraiki, proposatu dut hatxedun horiek aldaera hasperendunak zirela, arkaismo gisa gordeak.

- (a) Ezagunak dira *-a* artikulua Erdi Aroko adibideak: cf. *Larrea*, *Larrehederra*, *Hurigurenna*, etab. Artikuluaren *-ha* aldaera hasperendunak aurkitzea ez da arazorik gabea izan; batez ere *Reja*-ko *-zaha* bukaerako izenak erabili ditut eztabaidarako, eta horrek *-tza* atzizkiaren berreraiketaz hitz egitera lerratu du eztabaida (4.4). Hipotesi tradizionalaren barrenean, *-zaha* bukaera osagai bakarrekotzat jo ohi da; tesi honetako hipotesiaren barrenean, *-za* eta *-ha* bereizi egin behar dira. Honela laburbil daitezke ondorio nagusiak:
- (i) Silaba bakarrekoa da leku-izenetako *-(t)za* atzizkiaren forma zaharra; horrela bakarrik egin daiteke lotura atzizki horren eta euskal gramatikako beste osagai batzuen artean; aditzetako pluralarekin, esaterako (cf. *dabiltza*).
  - (ii) Atzizkiaren jatorri bisilabikoaren aldeko argudiotzat erabili izan dira Oñati aldeko datuak (cf. *-tzaia* mugatua); tesi honetako hipotesiaren arabera, inguru hartako berrikuntza moduan azaldu behar dira datu horiek. Beste hizkera batzuetako datuak ere hobeki azaltzen dira, aurreko hipotesian baino, zubererazko *-tze* aldaeraren azentuarena, esaterako (4.4.2.1).
  - (iii) Hortaz, D-elementutzat jo dut *Reja*-ko leku-izenetako *-ha*, ez atzizki baten partetzat. D-elementu gisa analizatzeko, bi aukera aztertu ditut: batetik, absolutiboan zegokeen *-ha* artikulua, besterik gabe. Bestetik, proposatu dut

berranalizaturiko *-han* inesibokoa izan zitekeela, eta horrela azalduko litzatekeela 1025eko *Adurzaha* gerora *\*\*Adurtzea* ez izatea, *Adurtza* baizik. Bigarren aukera hau hobetsi dut (4.4.2.2).

- (iv) *Reja*-ko *-ha* horiek inesiboko erakusle berranalizatu moduan ulertuta, leku-izenetan deskriba daitekeen gertakari zabalago batekin lotu ditut datu horiek, berranalisi mota beraren ondorio diren *Ibarrea*, *Azkaine* eta *Pagoeta* bezalakoekin.

*Reja*-ko *-zaha* bukaerari buruzko eztabaida gorabehera, D-elementu hasperendunaren adibide gehiagoren berri ere eman dut: *Salaha* eta *Sorhoha* dira aipagarrienak, *sala* eta *soro* izenekin (4.4.1).

- (b) Bigarren kapituluan eman dut leku-izenetako *-aga* atzizkiaren inguruan izandako eztabaiden berri (2.4.2.5). D-elementuen hipotesiari segika, *-haga* aldaera hasperendunaren adibideak bilatu eta aurkitu ditut: cf. *Yturrihaga*. Horrela, aski ziurtzat jo daiteke deklinabide mugatuko *-ak* atzizkiarekin duen lotura (4.5 atala). Lotura horretan sakontzeko, deklinabideko *-ak* atzizkiarekin deskribatu ohi diren gertakari morfonologikoak Erdi Aroko leku-izenetan ere ba ote zeuden arakatu dut, eta hauxe izan da emaitza:

- (i) Bukaeran *-a* berezkoa duten hitzetan, *-ak* atzizkiarekin *-aak* asimilatu gabeen adibideak daude testu historikoetan, cf. *alabaak*; Erdi Aroan, *-aaga* duten adibide gutxi batzuk aurkitu ditut, cf. adibidez *Larraaga* (4.5.1 (a) atala).
- (ii) Aurreko (i) ezaugarri morfonologikoan, bat egiten dute testu historikoetan inesibo singularrak eta absolutibo pluralak: biak dituzte testuetan aldaera asimilatu gabeak, *-aan* eta *-aak*. Ez, ordea, kontsonantez amaitutako hitzetan: inesiboan *lanean*, pluralean *lanak*; pluralean ez dago epentesirik. Alabaina, aurkitu ditut halakoen adibideak Erdi Aroko datuetan, cf. *Leherreaga* (4.5.1 (b) atala).

Nire hipotesiak zalantzan jartzen du *-aga* atzizkiaz De Rijkek proposatu zuena:

*Oleaga* leku-izena hizpide duela, esaten du *-ga* atzizkia absolutiboari gehituta osatu direla *-aga* duten leku-izenak. Baina, batetik, *-aga* atzizkiak *-haga* aldaera izateak ez du horren alde egiten, eta, bestetik, erakutsi dut *Oleaga* dela horren aldeko adibide bakarra, eta oso eremu jakinekoa dela (4.5.2 atala). Horrenbestez, *-(h)aga* ere, bere osoan, D-elementutzat hartu behar da.

- (c) Schuchardtengandik datorren hipotesiaren arabera, jatorri arrotzekoa da *-eta* atzizkia (2.4.2.6). Erdi Aroko agiritan *-heta* aldaera hasperenduna aurkitu dut (cf. *Erroheta*), eta D-elementuaren hipotesia aldeztzen du horrek (4.6). Agiri horien arakatzetik izan da beste emaitza interesgarrikerik ere: eremu geografiko jakin batekoak dira *-heta* aldaera hasperenduna duten leku-izenen adibideak, Agurain aldekoak eta Deba ibarrekoak (4.6.1).
- (d) Leku-izenetako beste atzizki bat ere identifikatu dut D-elementu moduan: superlatiboetako *-hen*, cf. *Ybargohen*, *Vehengoa* eta *Barheneche* (4.7). Atzizki honetan ere, bistan dena, D-elementu izaera salatzen du aldaera hasperendunak.

### 8.1.3 Erdi Aroko agiriak: Pirinioetako D-elementuak

Erdi Aroan, batez ere euskal eremu historikoko agiritako adibideetan aurkitu ditut D-elementu hasperendunak. Alabaina, garai hartan euskarak hedadura zabalagoa zuen: hego-mendebaldean, Errioxan eta Burgosen mintzatzen zen, eta, ekialdean, Pirinioetan, are Lleidan ere, Corominesen proposamenen arabera. D-elementuen azterketaren ikuspegitik, bat egiten du Errioxako eta Burgosko euskarak euskal eremuko datuekin: xehetasunak xehetasun (4.10), aurki daitezke han *-aga* eta *-eta* D-elementuak dituzten izenak. Erabat bestelakoak dira Pirinioetako ustezko euskararen lekukoak: zaila gertatzen da D-elementuen adibide garbiak aurkitzea hango leku-izenetan (4.9). Horren ondorioa garbia: bi euskara mota bereiz daitezke Erdi Aroan, “mendebaldekoa” (Burgos, Errioxa, euskal eremu modernokoa eta herri mugakideetakoa) eta ekialdekoa (Lleidakoa). Euskara historikoa “mendebaldeko” horren jarraipena da, edo, Mitxelenaren terminoetara ekarrita, Euskara Batu Zaharraren hipotesiaren barrenean azaldu behar da. Euskara Batu Zaharretik kanpo azaldu behar dira, ordea, Pirinioetako lekukotasunak, euskararen lekukotasunak baldin badira. Beraz, hipotesiaren bertsio

gogorrean —ez dira baztertu behar tarteko aukerak, datuak hain urriak izanik—, “mendebaldeko” berrikuntza guneetatik bereiz geratu zen Lleida aldeko euskara hori. Zehatzago esanda, ez dago artikulurik ekialdeko eremu horren garai zaharragoetan eta Lleida arte iristen zen antzinateko euskararen, akitaniera barne. Zehaztapen kronologikoetarako irozgarri sendo antzekoa ematen du datu honek: are nabarmenago kokatzen da Erdi Aroan D-elementuen bilakaera; aitzineuskararako ez da berreraiki behar artikularen kategoria.

## 8.2 Deklinabide mugatuaren berreraiketa morfologikoa

Erdi Aroko datuak aztertzeak ondorio zuzenak ditu deklinabide mugatua berreraikitzearen tenorean. Lehen, D-elementuen bilakaeraren kronologiarena berarena: hipotesi tradizionalaren ustea sendotu dut, ohartarazita Erdi Aroko Pirinioetako agerietan ez dagoela D-elementurik, eta nabarmenduta euskal eremu historikokoetan oraindik hasperena zutela: Erdi Arokoa da D-elementuen bilakaeraren hastapena.

Hipotesi klasikoaren aldeko argudio berri horietaz gain, argudio klasikoetan ere sakondu dut: batetik, tipologiaren ikuspegitik, euskara hizkuntza eranslea baldin bada, anomalia bat da artikulua izatea; bestetik, ongi uler daiteke artikularen sorrera ezaugarri areal moduko baten barrenean, mendebaldeko Europaren testuinguruan (5.1.1). Jakina, honen ondoan, hipotesi alternatiboaren kritika ere egin dut (5.1.2): artikularen antzinatearen aldeko frogatzat hartzeko, arazo gaindiezinak dituzte antzinateko lekukotasunek, ustez artikulua dutenek (cf. IBARRA eta APALONIS, besteak beste).

### 8.2.1 Deklinabide mugatuaren diakroniarako proposamen integrala

Deklinabide mugatuaren berreraiketa integralarena da tesi honetako emaitza nabarmenenetako bat: horretarako oinarri sendoak ematen dituzte Erdi Aroko datuek eta hirugarren kapituluan D-elementuez emandako oinarri teorikoek. Hainbat D-elementuren gramatikalizazio orokor baten barrenean azaldu ditut zein bere aldetik azaldu izan diren arazoak: *-an* inesiboari dagokionez, adibidez, artikularekin zerikusirik ez duela esan izan da, ergatibo pluraleko *-ek*, berriz, kontrakzioen ondorio

dela, leku-kasu pluraleko *-eta*, mailegua. Bi ideia gidariren pean azaldu ditut horietan denetan deskribatu izan diren anomalia morfonologikoak eta bestelakoak: (1) D-elementu gramatikalizatuak dira, eta (2) guztiak D-elementu izanik ere, egitura ezberdinetan gramatikalizatu diren erakusleak dira. Horrela, agerian utzi dut ondorio esanguratsuak dituela egiturakako gramatikalizazioez ari garela ohartzeak, bai gertakari morfonologikoen xehetasunak ulertzeko, bai kronologia erlatiboei buruzko auzietarako.

Hauek izan dira azalbide orokor honen emaitzarik behinenak:

- (a) Jacobsen, De Rijk eta Trasken hipotesian, inesibo singularreko *-an* atzizkiak ez du zerikusirik *-a* artikularekin; izen bizidunetako *-gan* da jatorrian, bokalarrean *-g-galduta*. D-elementuen hipotesiaren barrenean, esan dut egokiago dela *han* erakusletik abiatzea, erakuslearen beraren hasperenak azal lezakeelako kontsonantez bukatzen diren izenetako epentesia, cf. *lanean* (5.2.3). Horretaz gain, hipotesi honen barrenean, ongi azaltzen dira *etxen* bezalako mugagabeak, Jacobsenean eta besterenean azalgaitz gertatzen zirenak; hobeki azaltzen dira *-a* berezkoa duten hitzen gorabeherak ere, eta inesibo singularreko *-an* honek absolutibo/ergatibo pluraleko *-ak* atzizkiarekin dituen loturak ere azalbide orokor egokian ezarri ditut. Berreraiketaren esparrutik landa, 1554ko Gorritiko *neurehan* sintagma ekarri dut eztabaidara, <h> eta guzti (5.2.3.7): agerian uzten du atzizkiaren D-elementu izaera.
- (b) Erdi Aroko *-haga* aldaerarekin lotuta, D-elementutzat jo daiteke pluraleko *-ak* atzizkia ere (5.2.5). Kasu honetan, proposamenak inplikazio sakonagoak ditu: proposatu dut morfema bakarra dela *-ak*, ergatiboa izan zein absolutiboa izan (5.2.5.2). Are gehiago, singularreko *-ak* ergatiboa ere morfema bera dela proposatu dut: proposamen horretan dago ergatibitate erdibituaren hipotesiaren oinarrietako bat.
- (c) Ekialdeko eta euskara batuko ergatibo pluraleko *-ek* ere D-elementutzat jo dut: *hek* erakuslea da bere jatorria. Aurreko puntuan esandakoaren bidetik, izenaren deklinabidean berrikuntza dela aldarrikatu dut (5.2.7).
- (d) Genitibo pluraleko *-en* atzizkiaren jatorria *hen* erakuslea da; Erdi Aroko

superlatiboetan euskal eremu osoan ikusten den bera da. Horrenbestez, proposatu dut berrikuntza dela mendebaldeko *-an* genitibo plurala; orobat datibo pluraleko *-ai* (5.2.7).

- (f) Azkenik, D-elementuak dira deklinabide mugatuko leku-kasu pluraletako *-etan*, *-etara* eta beste. Horien berranalisiz sortua da leku-izenetako *-eta*, eta ez da latinetik mailegatua (5.2.6); horren alde egiten du euskaraz *-eta* bakarrik izatea leku-izenetan, ez *-etu* (cf. *\*\*Harrietu*), latin-erromantzez *-etu/-eta*, *-edo/-eda* baitira.

### 8.2.2 Pluraleko deklinabide mugatuaren azentueraren azalpen bateratua

Azentuari dagokionez, hainbat sistema deskribatu izan dira, euskalkiaren arabera (2.4.2.8). Azalpen bateratua eman diet deklinabide mugatu pluraleko azentuera horiei. Funtsean, bai mendebaldean, bai erdialdean, bai ekialdean, erakusleen azentua gorde dute pluraleko atzizkiek (5.3).

Bereziki begiratu diet *-ak* eta *-ek* atzizkiei, eta mendebaldearen eta ekialdearen artean dauden aldeak nabarmendu ditut: mendebaldean, deklinabide pluralaren azentu paradigmaren arabera jokutzen du absolutibo/ergatibo pluraleko *-ak* atzizkiak, eta, ekialdean, singularraren azentu paradigmaren arabera absolutibo pluraleko *-ak* atzizkiak. Ergatibitate erdibituaren hipotesiaren barrenean kokatu ditut datu hauek ere (5.3.1 eta 5.3.2).

### 8.2.3 Erakusleen berreraiketaz

Erakusleen jatorrizko formaren berri ematen digu deklinabide mugatuaren berreraiketak. Hauek dira ondorio nagusiak:

- (a) Absolutibo singularreko erakuslea *ha* berreraiki behar da, ez *\*har*; hasperena du hastapeneko hotsa jatorrian, ez herskaria; horrenbestez, berrikuntza dira Erronkariko, Zaraitzuko, Aezkoako eta gainerako hizkeretakoak (5.5.1 eta 5.5.2).
- (b) Erakusle pluraletan, *hae-* eta *he-* oinarria dutenen artean, proposatu dut jatorrizkoak *he-* eredukoak direla (5.5.3).
- (c) Pluralean betiere, mendebaldeko *honeek* berriagoa da *hauek* orokorragoa baino

(5.5.4). Singularrean, ordea, ezaguna da gordetzaila dela mendebaldea: cf. *a* jatorrizkoa eta *aura* eta *hura* berriagoak (5.5.2).

- (d) Ondorio larri bat *hek* erakuslearen eta *\*haga* D-elementuaren harremanari dagokio. Deklinabide pluralean, *\*haga* D-elementua da bakarra erakusle plural modernoan artean ordainik ez duena. Harreman horretan sakonduz, ohartarazi dut *hek* erakuslea ergatibo eta absolutibo balioekin gramatikalizatu zela izenordain eta erakusle pluraletan baina ergatibo balioarekin berezitu zela izenaren deklinabidean (adib. *lagunek txalo egin dute*). Bestelakoa da *\*haga*-ren egoera: berrikuntza zenbait gorabehera, izenaren deklinabidean baizik ez da gramatikalizatu, ergatibo singularrean eta absolutibo eta ergatibo pluralean (5.5.5.4). Anlisi modu hau estu lotu dut ergatibitate erdibituaren auziarekin, *-ga* osagaiaren jatorrizko balio lokatiboaren bidetik eta Silversteinen eta Smith-Starken hierarkien laguntzaz (5.5.5.2).

Honela laburbil daiteke bosgarren kapituluko jarduna: erakusleen formak kontuan hartuta egin dut deklinabide mugatu osoaren diakronia, eta, horren osagarri, nabarmendu egin dut erakusleak eurak berreraikitze deklinabide mugatuak ematen duen informazioaren garrantzia.

### 8.3 Artikuluaren erabilera XVI. mendera bitarteko testuetan

Hirugarren kapitulan, lanabes bat osatu dut testuinguru sintaktikoen arabera neurtzeko artikuluaren erabilera. Neurketa lan horren emaitza eman dut seigarren kapitulan.

#### 8.3.1 Artikulua hiztegiatan

Hiztegiak, sintaxi urriko testuak izanik ere, informazio zerbait eman dezakete artikuluaren erabileraz. Hauek dira emaitza nagusiak:

- (a) Antzeman daiteke alderik izenen izaera semantikoaren arabera: adibide ezaguna da Picaudena, zeinetan izen zenbakaitzek ez duten artikulurik (cf. *aragui*, *ogui*, *araign* etab.). Hizpidera ekarri dut Leizarragaren hiztegia ere: honetan, erakutsi dut artikulurik gabekoak batik bat izen abstraktuak eta izenondoak direla.

Mendebaldeko hiztegieta, ordea, ez dago adibide esanguratsurik horrelako deskribapenik egiteko, eta hitz guztiek izan ohi dute artikulua (6.1.1).

- (b) Mendebaldeko hiztegieta sarrera guztiek izan ohi dute artikulua, bi salbuespen nagusirekin: *-ia* eta *-a* amaiera duten izenek ez dute artikulurik hartzen; cf. Landuchioren eta Ibarquen-Cachopínen hiztegiak, batez ere. Arrazoi semantikoak ez, morfonologikoak edo fonotaktikoak hobetsi ditut hau azaltzeko. Ohartarazi dut, bestalde, artikulurik gabeko gehienak maileguak direla (6.1.2).
- (c) Hiztegieta sarreretan, *-a* eta *-ak* artikulua erabiltzen dira normalean, erdal ordainetako numeroaren arabera. Hori aintzat hartuta, esan dut D-elementu horiek galdua zutela bere izaera definituaren parte bat, eta numeroa morfologikoki adierazi beharra gailendua zitzaiola ordurako (6.1.3). Landuchioren datuekin, orokortze hori gainerako kasuetara ere zabaldu dut, hala nola datibora (cf. *andray emona* “dado a mugeres”) edo genitibora (cf. *andrã gurea, afixionadua* “amador de mugeres”).
- (d) Izen + izenondo sintagmetan, deskribatu izan dira sintagmaren osagaietan artikulua bana duten adibideak (cf. 1 frJZum *ene arrebea deunczua*). Proposatutako XVI. mendeko hiztegieta topatu uste daitezkeen adibideak topikalizazioz azaldu behar direla (6.1.4).

### 8.3.2 Artikulua testuetan

XVI. mendean artikulua nola erabiltzen zen deskribatu dut, lau testuinguru sintaktikoren arabera. Horretarako, XVI. mendeko testu corpuseko adibide esanguratsu guztiak bildu ditut, ehunka perpaus, eta eranskinetan jaso. Osoko datu bilketa hori eskura edukita, hauek dira izan emaitzak:

- (a) Bokatibo funtzioan diren sintagmek artikulua izan ohi dute, bai mendebaldeko testuetan bai ekialdekoetan (6.2.1).
- (b) Perpaus existentzialetan morfologia ezberdinarekin ager daitezke subjektu edo pibotak: *-a* artikuluaarekin, *-rik* partitiboarekin, edo batere determinaziorik gabe.



Sailkapen zenbait egin ditut, ikusteko ba ote den korrelaziorik aukera morfologiko horien eta izen sintagma edo perpaus existentzial motaren artean. Sarrera modura, zenbatzaileak dituzten pibotak bildu ditut lehenik (6.2.2.1 eta 6.2.2.2). Hauetan, bistan da, zenbatzailea bera da sintagmaren burua, eta ez dago aparteko oharririk egiteko.

- (i) Galdera moduan ageri diren perpaus existentzialetan, pibota ia ehuneko ehunean partitiboarekin agertzen da (6.2.2.3).
- (ii) Baldintzazko perpaus direnean, joera bertsua ikus daiteke existentzialetan, partitiboarekin agertzen baitira hiru adibideetatik bitako pibotak. Hirugarrenean, berriz, batere determinaziorik gabe (6.2.2.4).
- (iii) Baiezko perpaus existentzialak izan dira interesgarrienak: batetik, adibideak ez direlako beste kasuetan bezain urriak, eta, bestetik, korrelazio interesgarriak azaleratu direlako (6.2.2.5): (1) batere determinaziorik gabeko pibotak agertzen diren perpausetan, esan daiteke etorkizunean izan litezkeen entitateen berri ematen zaigula edo, bestela, balio orokorreko baieztapenak direla; (2) pibotak artikuluaekin agertzen diren perpausetan, modu batean edo bestean, testuinguru diskurtsiboan identitatea ongi ainguratua duten entitateei egiten zaie erreferentzia; (3) azkenik, orainaldikoak izan ohi dira pibota partitiboan duten perpausak, eta, entitateen zinezko existentzia ezartzen badute ere, haiei erreferentzia zehaztugabea egiten zaie.

Azken emaitza moduan, ohartarazi dut batasun handi xamarra antzeman daitekeela euskalkien artean perpaus existentzialetan.

- (c) Hiru sailetan eman ditut perpaus predikatiboetako emaitzak (6.2.3): izenondo predikatuak, izen predikatuak eta izen + izenondo predikatuak. Hauek dira horien azterketatik ateratako emaitza nagusiak:
  - (i) XVI. mendeko testuetan, determinazioari dagokionez, antzekoak dira izenondo soileko sintagmaz eta izen soilekoaz osaturiko predikatuak (6.2.3.1 eta 6.2.3.2): oro har, artikulurik gabe agertzen dira predikatu horiek, eta badirudi mendebaldeko testuetan handiagoa dela joera predikatu

artikuludunak izateko, ekialdekoetan baino.

- (ii) Mendebaldean, badirudi hego-mendebaldea dela berritzailea, Araban aurkitzen baitira adibide artikuludun gehien, bai izenondo predikatuetan, bai izen predikatuetan.
  - (iii) Artikuluekin agertzen direnak irizpide nagusi baten arabera azal litezke, xehetasunak xehetasun (6.2.3.1.2): subjektuaren erreferentzialtasun mailak eragina du predikatuak artikulua har dezan, eta, subjektuaren erreferentzia zenbat eta zehatzagoa izan, errazagoa da artikulua hartzea. Ez dut deskribatu ahal izan predikatuak adierazten duen ezaugarriaren iraunkortasunaren araberrako irizpiderik.
  - (iv) Izen + izenondo predikatuetako adibideak gutxiago dira XVI. mendean, eta emaitzak ere ez dira hain erabatekoak; alabaina, ziur esan daiteke artikuluen erabilera askoz zabalduagoa zegoela halakoetan, ondoko mendeetako egoeraren aitzindari, eta, alde horretatik, bestelakoak dira izen + izenondo predikatuak, izenondo eta izen predikatuekin konparatuta (6.2.3.3).
  - (v) Izen predikatuetan eta izen + izenondo predikatuetan, *bat* duten sintagmak ere badira, artikulugabe eta artikuludunez gain; izen predikatuetan gutxi dira halakoen adibideak, eta ekialdekoak dira; izen + izenondo predikatuetan gehiago dira, eta euskal eremu osokoak. Bai izen predikatuetan, bai izen + izenondo predikatuetan, *bat* duten sintagmak aski modu bateratuan azal daitezke: predikatu hauen balioa erreferentziala da, eta erreferentzia indefinitu espezifiko edo zehaztua ezartzen diote sintagmari.
- (d) Subjektuetan ere aztertu dut artikuluen erabilera (6.2.4). Predikatuetakoaz erabat bestelako egoera dugu hauetan: subjektu artikuludunak dira nagusi, artikulugabeen aldean. Artikulugabeak oso adibide gutxi dira, bai iragankorretako subjektuetan, bai iragangaitzetakoetan. Kasu honetan, beraz, artikulugabeak zein testuingurutan edo irizpideren arabera agertzen diren azaldu dut, eta hauek izan dira emaitzak.

- (i) Izen berezi gisa funtzionatzen dutenetan ditugu subjektu artikulugabeak: cf. batez ere *errege*, *ugazaba*, *ama*, eta halakoak.
- (ii) Subjektuetako izenen izaera semantikotik kanpo, ezagunak dira perpaus iragankorretako subjektu artikulugabeak (6.2.4.1). Hauen artean, zinez dira aipagarriak ezezko perpausetakoak. Greenbergen eta Hopper eta Thompsonen orokortzeen barrenean azaldu dut arkaismo hau.
- (iii) Betiere perpaus iragankorretan, baiezko perpausetan joera handiagoa dago, subjektu artikulugabeen adibideak izan badira ere, artikuludunak ere agertzeko. Hau nabarmen ikusten da atsotitz beraren bertsio ezberdinetan: zuberotarren artean, Oihenartek artikuludunerako joera du, eta Zalgizek eta Belak artikulugaberako.
- (iv) Perpaus iragangaitzetan zailagoa da subjektu determinatu gabeak aurkitzea (6.2.4.2): nire corpusean dauden adibide urrien artean, Oihenarten 633 *Inhar batetarik su handi jalgi daite* atsotitzekoa iruditzen zait aipagarria: batetik, subjektuko izena zenbakaitza delako, eta, bestetik, *handi* izenondoarekin agertzen delako; kasu honetan, badirudi *handi*-k mailakatzailer gisa funtzionatzen duela, eta halaxe deskribatu dut izen + izenondo predikatuen 6.2.3.3 atalean ere.

### 8.3.3 Analisi sinkronikoak eta datu historikoak

Artikuluaren erabileraren berri emateko, bi analisi sinkroniko nagusi ditugu gaur egun, Artiagoitiarena eta Etxeberriarena. Analisi diakroniko klasikoan (Azkue, Castaños, Irigoien), artikuluaren erabilera zabaltzea numeroa morfologikoki markatu beharrenean menpe ezarri izan da; analisi diakroniko hori Artiagoitiaren analisi sinkronikoarekin lot zitekeen, izan ere numeroari dagokion proiektzio baten azpian azaltzen baititu sintagma artikuludun zenbait.

Datu historikoak erabili ditut, analisi diakroniko horren oinarri enpirikoa zertan den aztertzeko (6.3). Analisi diakroniko klasikoan, aurreikuspena zen subjektu pluraleko predikatuetan maizago azalduko zela artikulua: erakutsi dut ez dela hala, eta are kontrakoa ere gertatzen zela, subjektu pluraleko perpausetan joera nabarmena baitzuten

predikatuko sintagmek artikulurik gabe agertzeko. Datu horrek, betiere predikatuez ari garela gogoan hartuta, ez du ezinbestean Artiagoitiaren numeroaren hipotesiaren alde egiten, XVI. mendeko egoeran, bederen. Bestalde, subjektuaren izaera erreferentzialarekin lotu dut predikatuetan *-a* artikulua agertzea, eta hori errazagoa ezkon liteke Etxeberriaren hipotesiarekin, edo artikulua urratsez urratseko gramatikalizazio batekin, bederen. Nolanahi ere, honekin guztiarekin ez dut baztertu ondoko mendeetan edo bestelako testuinguru sintaktikoetan numero morfologikoak izan ahal izan zuen garrantzia, artikulua erabilera zabal zedin.

#### **8.4 Berreraiketa morfologikoaren zenbait ondorio**

Morfologia hertsitik haragoko ondorioak ekarri ditu bosgarren kapituluaren garatutako berreraiketak. Zazpigarren kapituluaren eman dut horien berri. Hona emaitza nagusiak:

- (a) Euskara hizkuntza eransle gisa sailkatzeak zer esan nahi duen aztertu dut. Funtsean, ez-eranslea da deklinabide mugatuaren berreraiketarako proposaturiko ereduak: erakusle osoak lotu zaizkio izenari; deklinaturik lotu zaizkio erakusleak izenari, osagai morfologiko bakarrean tasun bat baino gehiago bilduta (7.1.4). Bi autoreren lanetako ideien pean ezarri dut euskararen eransle izaeraren eztabaida hau:
  - (i) Eransletasunaren nondik norakoak hobeki ulertzeko, analisi sinkronikoen eta diakronikoen osagarritasuna aldarrikatzen du Planken. Hortaz, nire analisi diakronikoaren laguntzaz neurtu dut Planken “Strong Homogeneity Hypothesis” delakoa: euskal deklinabide mugatuaren diakronian, jatorrian eransle moduan analiza zitezkeen morfemak, erakusleak, galdu egin dute izaera eransle hori deklinabide mugatuaren barrenean gramatikalizatu direnean, eta paradigma berri baten parte izatera igaro direnean (7.1.5). Hizkuntzaren izaera eranslearen aurka egin du D-elementuen gramatikalizazioak, beraz.
  - (ii) Salbuespena da euskara Himmelmannen orokortzerako: hizkuntza eransleak ez dute artikulua definiturik izaten, baina euskarak badu. Planken ildo

bertsutik, eskenatoki diakroniko bat bilatzen du Himmelmannek salbuespenak azaltzeko: funtsean, esaten du postposizio eta kasu-markak eransle ez zirenean erabiltzen hasi ahal izan zela artikulua sintagmetan, baina proposatzen duen irtenbideak ez du euskararen kasu partikularra azaltzen. 7.1.6 atalean Himmelmannen azalbide diakronikoa zabaldu dut: horren arabera, D-elementu deklinatuen gramatikalizazioak ekarri dio hizkuntzari jatorrizko eredu eranslearen aurkako ezaugarri bat.

- (b) Beste emaitza larri bat ere izan du deklinabide mugatuaren berreraiketak: euskara ergatibitate orokorreko hizkuntza moduan ez, ergatibitate erdibituko hizkuntza moduan sailkatu behar dela proposatu dut (7.2). Deskripzio klasikoaren berri eman dut, eta euskararako aztertu izan diren ergatibitate erdibitu mota posibleak zerrendatu ditut (7.2.1). Horren ondotik, proposamen zehatza egin dut: morfologikoa da euskaraz deskriba daitekeen ergatibitate erdibitu garbi bakarra, determinatzaile sintagmaren esparrukoa eta numero morfologikoaren araberkoa (7.2.2). Hiru hitz motatan neurtu dut hipotesi hau:
- (i) Izenaren deklinabidean, singularrean beti bereizten dira absolutiboa eta ergatiboa. Pluralean, ekialdean baizik ez da bereizten, absolutiborako *-ak* eta ergatiborako *-ek* erabilia. Mendebaldean, *-ak* erabiltzen da bietarako (7.2.2.2).
  - (ii) Erakusleen deklinabidean, absolutiboa eta ergatiboa singularrean bakarrik bereizten dira (*hau/honek*), eta pluralean ez (*hauek/hauek*); ia euskal eremu osoko ezaugarria da hau (7.2.2.3). Ekialdean deskriba daitezkeen pluraleko salbuespenak (*hurak/hek*, etab.) modernoak baizik ezin dira izan, eta testu historikoetan dokumentatu dut berrikuntza hori (7.2.2.3.1).
  - (iii) Pluraltasuna D-elementu baten bitartez adierazten duten izenordainetan, forma bakarra dugu absolutiborako eta ergatiborako, cf. *zuek*, *guek* eta *hiek*. Euskal eremu osoko ezaugarria da hau.

Ergatibitate erdibitu honen ardatza numero morfologikoa da, eta honela deskriba daiteke: singularrean dugu eredu ergatiboa, eta neutroa pluralean. Berrikuntzatzat

jo behar dira eredu horren desbideratzeak. D-elementuen bilakaeraren ondorio da ergatibitate erdibitu mota hau, numero morfologikoa D-elementuen menpe dagoen neurrian.

Oinarrizko deskripzio honetaz gain, beste bi puntu aipagarri ere landu ditut: (1) beste zenbait hizkuntzaren paraleloa ekarri dut hizpidera, numeroaren arabera ergatibitate erdibitua dutenena, hala nola Ozeaniako hizkuntza zenbait eta Amazoniako mayoruna hizkuntzak (7.2.3.1); eta (2), erdibitze hau Silversteinen hierarkiaren arabera azaltzen saiatu naiz: izatekotan, izen sintagma ez markatuak izango dira eredu ergatiboaren arabera, eta markatuak eredu akusatiboaren arabera; bide horretatik, gogora ekarri dut pluraleko sintagmak markatutzat jo izan direla euskararen analisietan.

- (c) Hirugarren ondorio bat ere izan du deklinabide mugatuaren berreraiketak: proposatu dut XVII. mendera arte iraun zuela hasperenak Nafarroan. Horretarako, hiru datu mota ekarri ditut: alfabeto hebrearrean idatzitako izenak —XIV. mendekoak—, Mironesek argitara emanak, Maiorak argitaratutako liburuko Nafarroako Agiritegiko esaldiak, XVI. mendekoak, eta Beriainen erakusleak, XVII.ekoak.

Beriainen erakusleen berariazko analisia egin dut, erakusteko bere bi testuetan hasperena adieraz zezakeela hatxeak. Lau zutarrri izan ditu nire analisiak:

- (i) Beriainen erakusleen barne analisia (7.3.1.2).
- (ii) Beriainen grafiaren azterketa (7.3.1.3).
- (iii) Urrezko mendeko gramatikari espainolen deskribapenak, hasperenaz eta grafiaz (7.3.2).
- (iv) Orduko gaztelaniazko testuetan egindako bilaketak, *CORDE*-ren datu-basean eta tesi honetarako osaturiko Erdi Aroko agirien corpusean (7.3.2.3).

Lau puntu hauen emaitzak kontuan hartuta, aldarrikatu dut hasperena adierazten dutela Beriainen erakusleetako hatxeek, eta, horrenbestez, XVII. mendera arte iraun zuela hasperenak hego-nafarreraz.

- (d) Berreraiketa morfologikoaren ondorio zuzena izan gabe ere, laugarren puntu

nagusi bat ere eman dut zazpigarren kapituluan. Horretan, Heine eta Kutevaren lan batzuen kritika egin dut, izan ere ukipenak bideratutako gramatikalizazioaren hipotesiaren arabera aztertzen baitituzte euskal artikulua, *-a* definitua eta *bat* indefinitua, baina euskal datuak behar bezala ezagutu gabe (7.4). Puntu banatan laburbil daiteke kritika:

- (i) Artikulu definituari dagokionez, autoreek ez dute ezagutzen *-a* artikulua D-elementu prototipiko bat dela. Horren ondorioz, eztabaidarako ez dute aintzat hartzen bere gramatikalizazio maila altua; berebizikoa da hau, hain zuzen ere bere hipotesiaren aurkako datua baita (7.4.2).
- (ii) Artikulu indefinituari dagokionez, autoreek ez dute *batzu* plural zaharraren berri. Horrek, berriz ere, berebiziko garrantzia du, iraultzen baitu *bat* artikulua esan lezaketen guztia.

Heinek eta Kutevak, beren lanaren balio teorikoa ukatu gabe, ez dituzte behar bezala erabili euskal datuak, eta, ondorioz, kamutsa gertatu da beren hipotesia euskal ikasketetan sakontzeko. Funtsean, Haaseren lanean dago Heine eta Kutevaren hutsen sorburua (2.8.1 eta 2.8.2).

### 8.5 Hutsuneak eta etorkizuneko aztergaiak

Euskararen azterketa diakronikoan aurrera egiteko, zenbait hutsune aipa daitezke, tesi honen jardunean agerian jarri direnak; etorkizuneko langai geratu dira, ezinbestean. Bi motatako eginbeharrak aipatuko ditut: egiturazko lanak eta berariazko ikerketakoak. Egiturazko lanen artean, bi hauek nabarmendu ditut tesian zehar:

- (a) Erdi Aroko agirietako datuak ez ditugu behar bezala ezagutzen. Beharrezkoa da Erdi Aroko *Orotariko Euskal Hiztegi* moduko bat, 4.1 atalean zehazturiko informazioa bilduko lukeena.
- (b) Beharrezkoa da, halaber, testu historikoen lematizazio morfosintaktiko sistematikoari ekitea (3.2.5.1). Datuak perpaus moten eta morfemen arabera sailkatzea iruditzen zait egingarriena, eta, jakina, artikulua eta deklinabideaz

besteko gramatikaren atalak ere sartu beharko dira. Sintaxi historiko baterako oinarrizko lanabesa litzateke hori.

Berriazko ikerketa monografiko eske dauden lanen artean, hauexek aipa daitezke:

- (c) Berreraiketa morfologikoaren atalean, etengabe aritu naiz D-elementuez. Ariketa horretatik hainbat ondorio atera daitezke erakusleen berreraiketarako, baina badago erakusleen berreraiketa berriazko baten beharra ere (5.5.6).
- (d) Zehatz deskribatu gabe geratu da deklinabide mugagabearen bilakaera, morfologikoa zein sintaktikoa. Ikuspegi morfologikotik, esaterako, ez ditugu behar bezala ezagutzen  $\emptyset$ , *-ta-* eta *-za-* osagaien gorabeherak. Bestalde, kasu-marken jatorri eta bilakaeraz ikas dezakegunak ere lagunduko digu hobeki ulertzen deklinabidearen beraren diakronia.
- (e) Morfologiaren eta sintaxiaren arteko muga, artikulua hurbilen azterketa zehatza ere egin gabe dago (*-au*, *-on*, *-ori*, *-ok*, etab.). Bestalde, nire hurbilketa moduak ezinbestean utzi du kanpoan *-a* artikulua balioen zerrendatzea; semantika historiko baten eske dago eginkizun hori.
- (f) Artikuluaren sintaxia morfologia hertsia esparrutik harago doa, baina tesi honetan hainbat ohar egin ditut horretaz ere, seigarren kapituluaren. Nolanahi ere, deskribapen historikoa izanik ere, deskribapen sinkronikoa izan da, XVI. mendeko egoerarena. Mende horretako testuetan, gainera, testuinguru sintaktiko batzuei bakarrik begiratu diet; ez dut aztertu, esaterako, perpaus estatiboetako determinazioa. Horrenbestez, artikulua bilakaera historikoaren berri zehatzagoa izan nahi badugu, ondoko mendeetara ere zabaldu beharra dago testuen analisia, eta testuinguru sintaktiko gehiagotara azterketa bera.

Azken atal honetan ez ditut bakarrik tesi honen hutsuneak aipatu nahi izan; euskal ikasketetan oro har egingai dagozkeenak ere ekarri ditut, guztiak elkarren osagarri izango direlakoan.



## BIBLIOGRAFIA

### A) Euskal ikasketak eta hizkuntzalaritza orokorra

- Agirre, J. M., 1985, “Deklinabideari buruzko oharrak”, *Euskeraren Iker Atalak* 3, 69-130.
- Aikhenvald, A., 2012, *The languages of the Amazon*. Oxford: Oxford University Press.
- Alberdi, J., 1989, “Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako”, *ASJU* 23(2), 411-434.
- Albertos Firmat, M. L., 1972, “Los nombres éuscaros de las inscripciones hispano-romanas y un *Ibarra* entre los vettones”, *Estudios de arqueología alavesa* 5, 213-218.
- Albizu, P., 2009, “Euskararen kasu-sistema ergatiboa ala ergatiboak? Ergatibotasunaren azterketa dialektologiko baterako lehen urratsak”, *Lapurdum* 13, 7-29.
- , 2011, “Hizkuntza ergatiboa”. *SEG: Sareko euskal gramatika*, Euskal Herriko Unibertsitatea. (2014-03-11). [www.ehu.eus/seg]
- Aldai, G., 2000, “Split ergativity in Basque. The pre-Basque antipassive-imperfective hypothesis”, *Folia Linguistica Historica* 21(1-2), 31-98.
- , 2008, “From ergative case marking to semantic case marking: the case of historical Basque”. Donohue, M. & Wichman, S. (arg.): *The Typology of Semantic Alignment*, 197–218. Oxford: Oxford University Press.
- , 2009, “Is Basque morphologically ergative? Western Basque vs. Eastern Basque”, *Studies in Language* 33(4), 783–831.
- , 2014, “Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental”, *FLV* 118, 221-245.
- Altube, S., 1934, “Observaciones al tratado de *Morfología Vasca* de Don R. M. de Azkue”, *Euskera* 15(1-2), 1-231.
- Altuna, P., 1978, “Erakusleak zenbait idazle zaharrengan”, *Euskera* 24, 699-712.
- Álvarez, J. L., 1977, “L’emploi de l’indéfini en souletin”, *FLV* 25, 29-54.
- Allika, I., 2006, “Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta”, *Uztaro* 56, 53-84.
- Ariza, M., 2008, “Grafías y fonemas en el siglo XII”. Díez, B. (arg.): *El primitivo romance hispánico*, Colección Beltenebros 11, 145-162. Burgos: Instituto Castellano y Leonés de la Lengua.
- Ariztimuño, B., 2013, “Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar”. Gómez, R., Gorrotxategi, J., Lakarra, J. A. & Mounole, C. (arg.): *Koldo Mitxelena Katedraren III. biltzarra*, 41-60. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- , 2014, “The origin of the Basque partitive”. Luraghi, S. & Huumo, T. (arg.): *Partitive cases and related categories*, Empirical Approaches to Language Typology [EALT] 54, 323-344. Berlin, Boston: Mouton de Gruyter.
- Arnauld, A. & Lancelot, C., 1660, *Grammaire générale et raisonnée contenant les*

- fondemens de l'art de parler, expliqués d'une manière claire et naturelle*. Paris: Pierre le Petit. [http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k50416g]
- Arriolabengoa, J., 2008, *Euskara Ibarquen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*. Bilbo: Euskaltzaindia, BBK Fundazioa.
- Artiagoitia, X., 1990, "Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos", *ASJU* 24(2), 327-349.
- \_\_\_, 1997, "DP predicates in Basque", *University of Washington Working Papers in Linguistics* 15, 161-198.
- \_\_\_, 1998, "Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan", *Uztaro* 27, 33-61.
- \_\_\_, 2002, "The functional structure of the Basque noun phrase". Artiagoitia, X., Goenaga, P. & Lakarra, J. A. (arg.): *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJUren Gehigarriak 44, 73-90. Bilbo: UPV/EHU.
- \_\_\_, 2012, "The DP Hypothesis in the grammar of Basque". Etxeberria, U., Etxepare, R. & Uribe-Etxebarria, M. (arg.): *Noun Phrases and Nominalization in Basque. Syntax and semantics*, *Linguistik Aktuell/Linguistics Today* 187, 21-78. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Artzamendi, J., 1985, *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- Aurrekoetxea, G. & Bidegain, X. (arg.), 2004, *Haur prodigoaren parabola: ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*. ASJUren Gehigarriak 49. Bilbo: UPV/EHU.
- Azkarate, M. & Altuna, P., 2001, *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.
- Azkue, R. M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*. vol. I-II. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. [Berrarg. 1969].
- \_\_\_, 1923, *Morfología Vasca*. vol. I-II-II. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. [Berrarg. 1969]. [http://www.euskaltzaindia.com/euskera]
- \_\_\_, 1925, "Bibliografía: *The basque dialect of Marquina*, por el escocés Dr. William Rollo", *RIEV* 16, 563-569.
- \_\_\_, 1927, "La epéntesis en la conjugación vasca", *Euskera* 8, 70-90.
- \_\_\_, 1928, "El artículo y la epéntesis en la toponimia", *Euskera* 9, 212-217.
- Aznar, E., 2011, *El euskera en La Rioja: primeros testimonios*. Iruñea: Pamiela.
- Badia, A. M., 1987, *La formació de la llengua catalana*. Barcelona: Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- Bähr, G., 1929, "Bibliografía: M. G. Ramos: *De Astronómica Vasca*. Tarragona 1928", *BAP* 20, 534-535.
- Barroso, J. & Sánchez, J., 1993, "Propuestas de transcripción para textos del XV y Siglos de Oro". García, M. (arg.): *Estado actual de los estudios sobre el Siglo de Oro: actas del II Congreso Internacional de Hispanistas del Siglo de Oro*, 161-178. Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.
- Batllori, M., Hernanz, M.-L., Picallo, C. & Roca, F. (arg.), 2005, *Grammaticalization and parametric variation*. Oxford: Oxford University Press.
- Bauer, B. L. M., 2007, "The definite article in Indo-European. Emergence of a new grammatical category?". Stark, E., Leiss, E. & Abraham, W. (arg.): *Nominal determination. Typology, context constraints, and historical emergence*, *Studies*

- in Language Companion Series 89, 103-139. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Bentley, D., Ciconte, F. M. & Cruschina, S., 2013, "Existential constructions in crosslinguistic perspective", *Rivista di Linguistica* 25(1), 1-13.
- Bolinger, D., 1980, *Syntactic diffusion and the indefinite article*. Indiana University Linguistics Club.
- Bolòs, J. & Hurtado, V., 2001, *Atles del comtat d'Osona (798-993)*. Atles dels comtats de la Catalunya carolíngia. Barcelona: Rafael Dalmau.
- \_\_\_, 2006, *Atles del Comtat d'Urgell (v788-993)*. Atles dels comtats de la Catalunya carolíngia. Barcelona: Rafael Dalmau.
- Bollée, A., 2007, "Le développement du démonstratif dans les créoles de l'Océan Indien". Bollée, A. & Reutner, U. (arg.): *Beiträge zur Kreolistik: als Festgabe für Annegret Bollée zum 70. Geburtstag*, Kreolische Bibliothek 21, 55-68. Hamburg: Helmut Buske.
- Bonaparte, L.-L., 1862, *Langue basque et langues finnoises*. Londres: Imprensia Ludovici Luciani Bonaparte.
- \_\_\_, 1868, "Note sur les prétendus génitifs et datifs pluriels de la langue basque", *RL&PhC* 2, 282-284.
- Bosson, G., 1984, "Ergativity in Basque", *Linguistics* 22, 341-392.
- Boucher, P., 2005, "Definite reference in Old and Modern French: the rise and fall of DP". Batllori, M., Hernanz, M.-L., Picallo, C. & Roca, F. (arg.): *Grammaticalization and parametric variation*, 95-108. Oxford: Oxford University Press.
- Bouda, K., 1944-1949, "Romanische syntaktische Einflüsse im Baskischen", *Indogermanische Forschungen* 59, 186-204.
- Breban, T., 2014, "Review: Heiko Narrog and Bernd Heine (eds.). *The Oxford Handbook of Grammaticalization*", *Journal of Historical Pragmatics* 15(1), 153-158.
- Brettschneider, G., 1979, "Typological characteristics of Basque". Plank, F. (arg.): *Ergativity. Towards a theory of grammatical relations*, 371-384. London, New York, Toronto, Sydney, San Francisco: Academic Press.
